

## URTE LITURGIKOA 2020 A-B URTEKOA

Asteak	I	AI	A2	A3	O1	O2	L
<b>URTARRILA</b>							
Egu 1				1	2	3	4
Egu 2	<b>5</b>	<b>6</b>	7	8	9	10	11
Bataio	<b>12</b>	13	14	15	16	17	18
Urte 2	<b>19</b>	20	21	22	23	24	25
Urte 3	<b>26</b>	27	28	29	30	31	
<b>OTSAILA</b>							
»							1
Urte 4	<b>2</b>	3	4	5	6	7	8
Urte 5	<b>9</b>	10	11	12	13	14	15
Urte 6	<b>16</b>	17	18	19	20	21	22
Urte 7	<b>23</b>	24	25	<b>HE</b>	27	28	29
<b>MARTXOA</b>							
Gariz 1	<b>1</b>	2	3	4	5	6	7
Gariz 2	<b>8</b>	9	10	11	12	13	14
Gariz 3	<b>15</b>	16	17	18	<b>19</b>	20	21
Gariz 4	<b>22</b>	23	24	25	26	27	28
Gariz 5	<b>29</b>	30	31				
<b>APIRILA</b>							
»				1	2	3	4
Erramu	<b>5</b>	6	7	8	<b>O1</b>	<b>O2</b>	11
Pazko	<b>12</b>	13	14	15	16	17	18
Pazk 2	<b>19</b>	20	21	22	23	24	25
Pazk 3	<b>26</b>	27	28	29	30		
<b>MAIATZA</b>							
»						1	2
Pazk 4	<b>3</b>	4	5	6	7	8	9
Pazk 5	<b>10</b>	11	12	13	14	15	16
Pazk 6	<b>17</b>	18	19	20	21	22	23
Igokun	<b>24</b>	25	26	27	28	29	30
Mende	<b>31</b>						
<b>EKAINA</b>							
»		1	2	3	4	5	6
Hirutas	<b>7</b>	8	9	10	11	12	13
Corpus	<b>14</b>	15	16	17	18	<b>JB</b>	20
Urte 12	<b>21</b>	22	23	24	25	26	27
Urte 13	<b>28</b>	29	30				

Asteak	I	AI	A2	A3	O1	O2	L
<b>UZTAILA</b>							
»				1	2	3	4
Urte 14	<b>5</b>	6	7	8	9	10	11
Urte 15	<b>12</b>	13	14	15	16	17	18
Urte 16	<b>19</b>	20	21	22	23	24	<b>25</b>
Urte 17	<b>26</b>	27	28	29	30	<b>31</b>	
<b>ABUZTUA</b>							
»							1
Urte 18	<b>2</b>	3	4	5	6	7	8
Urte 19	<b>9</b>	10	11	12	13	14	<b>15</b>
Urte 20	16	17	18	19	20	21	22
Urte 21	<b>23</b>	24	25	26	27	28	29
Urte 22	<b>30</b>	31					
<b>IRAILA</b>							
»			1	2	3	4	5
Urte 23	<b>6</b>	7	8	9	10	11	12
Urte 24	<b>13</b>	14	15	16	17	18	19
Urte 25	<b>20</b>	21	22	23	24	25	26
Urte 26	<b>27</b>	28	29	30			
<b>URRIA</b>							
»					1	2	3
Urte 27	<b>4</b>	5	6	7	8	9	10
Urte 28	<b>11</b>	12	13	14	15	16	17
Urte 29	<b>18</b>	19	20	21	22	23	24
Urte 30	<b>25</b>	26	27	28	29	30	31
<b>AZAROA</b>							
Urte 31	<b>1</b>	2	3	4	5	6	7
Urte 32	<b>8</b>	9	10	11	12	13	14
Urte 33	<b>15</b>	16	17	18	19	20	21
Urte 34	<b>KE</b>	23	24	25	26	27	28
Aben 1	<b>29</b>	30					
<b>ABENDUA</b>							
»			1	2	3	4	5
Aben 2	<b>6</b>	7	<b>8</b>	9	10	11	12
Aben 3	<b>13</b>	14	15	16	17	18	19
Aben 4	<b>20</b>	21	22	23	24	<b>25</b>	26
Familia	<b>27</b>	28	29	30	31		

**LABURDURAK:** A1 = astelehena • A2 = astearta • A3 = asteazkena • Aben = abendualdia • • Cor = Corpus eguna • Egub = eguberrialdia • Gar = garizuma • HE = hausterre eguna • I = igandea • JB = Jesusen Bihotza • L = larunbata • Men = Mendekoste igandea • O1 = osteguna • O2 = ostirala • Pazk = pazkoaldia • Urte = urteko • JB = Jaunaren Bataioa • HS = Hirutasun Santua.

## OSCAR ROMERO ARTZAPEZPIKUA

---

Irakurle lagunok:

Iritziak jasota, iazko formatu berria errepikatzen dugu. Azken urte hauetan azala kristau bati eman diogu, Frantzisko Aita Santuari, Aita Arruperi, eta aurtengoa Oscar Romero santu aitortu berriari.

Bazirudien bere kausa kutxa sakon batean sartuta zegoela eta luze joko zuela horrela, askoren ustez eta penaz. Latinoamerikako eliztar multzo handiak aldaretan jarri zuen baina Vatikanotik zer etorriko zen, itxaropen handirik gabe.

Baina 2015eko maiatzaren 23an dohatsu deklaratu zuten eta 2018ko urriaren 14an kanonizatu (*santu* izendatu). Biak Latinoamerikatik etorritako Frantzisko aita santuak burutuak. Jende askok ezinezkotzat jotzen zuenaren kontra, iritsi zitzaion eguna Romerori ere. Goi-ko toki batzuetan arerioak omen zeudelako egoera erabat aldatu zen.

Baina azaldu dezagun nor izan zen OSCAR ARNULFO ROMERO GALDAMES. Agian, jende gutxi ohartu da bigarren abizen euskaldunaz. Niretzat behintzat nor izan zen Romero, zeren eta ondo gogoratzten baitut nola 1980ko martxoaren 24an San Salvadorreko ospitale txiki baten elizan, eta meza ospatzen ari zela, bala zital batek bihotza lehertu zion. Urte batzuen buruan ikusi ahal izan nuen eliza hori eta bertan otoitz egin Romero monsinorea bitarteko hartuz. Gertu zeuden beraren logela eta langela, zeren eta bertan baitzuen bere “artzapezpiku-jauregia”. Hiru urtez bakarrik izan zen San Salvadorreko artzapezpiku, 1977tik 1980ra. Badirudi Jesusi bezala gertatu zitzaiola, botere maltzurrek ezin jasan gehiago.

Berehala “Iragarritako heriotza baten kronika” egiten hasi ziren han-hemenka, berria jakin bezain laster. Zergatik? Artzapezpiku izendatua izan zenean, El Salvadorreko egoera oso latza zen. Injustizia, zapalketa, tortura, desberdintasun ikaragarriak, zigorgabetasuna; bes-

taldetik, herri mugimenduak, gerrilla, kontzientziazio soziala, askapen teologia eta abar. Gobernu militarrek eta talde paramilitarrek, batez ere “heriotzaren eskuadroiek”, krudelkeria izugarriaz egoera kontrolatu nahi zuten.

Eliza, holakoetan eta beste askotan bezala, banatuta. Batzuk botereari jokoa egiten eta beste batzuk bizitza arriskatzen justiziaren eta behartsuen alde. Elizaren goi interesak defenditzeko eta oreka sozialari eusteko, hiriburuko artzapezpiku berriak apala, isila, zuhurra, eta ahula (erraza kontrolatzeko) izan behar zuten. Horregatik jarri omen zuten Romero, elizbarruti txiki batetik San Salvadorrera eramanez. Oinarrizko elizak, behartsuen aldeko elizak, ez zuten ondo onartu hori hasiera hartan, egia esan. Baina Jainkoaren bideak ez direla gureak agerian gelditu zen berriro ere. Askori entzun izan diot Romeroren “bihotz-berritzea” edo aldaketa sakona, Rutilio Grande jesuitaren eraiketaren bidez gertatu zela. Bai benetan biak oso lagunak ziren. Behin batean, Rutilio, herri txiki batzuetako erretore zelarik, eta bi laiko, adineko bat eta gazte bat, hil zituzten paramilitarrek.

Harrezkero Romerok behartsuengana jo zuten, justizia eta bakea egin nahian fedearen izenean, betiere. Amerikan noski, baina baita Europan ere, oihartzun handia izan zuten beraren hitzek eta ekintzek. Eta hori hiru urtetan bakarrik. Aitortuko dizut, irakurle laguna, nire fede pertsonalean argitasuna eta laguntza sentitu eta sentitzen ditudala. Bere fede esperientzia egiaz sakona, askatzailea, garbia, ausarta izan zuten, behartsuen alde den-dena arriskatzera eraman zuten.

Beste gotzain profeta batek, Pedro Casaldaligak, aspaldi eman zion izen berria: Amerikako San Romero. 2018ko urriaren 14an Frantzisko aita santu argentinarrek aldareetara jaso du ofizialki. Hogeita hemezortzi urte pasata, Oscar Romero santu eta fedearen eta justiziaren martiri aitortzen dugu, giza eskubideen aldeko defendatzaile sutsu, behartsuen eta zapalduen aldeko. Berak fedea ezin zuten ulertu justiziaren, solidaritatearen, bakearen langile izan gabe. Liburu asko argitaratu dira berari buruz, bere idazkiak barne. Nik aipatu nahi di-

zuet filme bat, ROMERO izenekoa, saia zaitezke ikusten; eta gustuko baduzue zabaldu lagun artean ere, ez zarete damutuko. Horregatik guztiagatik aukeratu dugu aurtengo azala: Romero artzapezpikua, otoitz egizu Elizaren eta behartsuen alde!

Amaitzeko esan beharra dugu ebanjelioen iruzkinak Julio Colomer Casanova (Valencia) jesuitak egin dituela. Kazetaria eta teologian doktore da. Hainbat egunkaritan eta aldizkaritan izan ditu zuzendari-ardurak, baita Madrilgo “Fe y Secularidad” institutuan eta Zaragozako “Centro Pignatelli”n ere. Ebanjelioei buruzko eta ignaziotar espiritualitateari buruzko zenbait liburu idatzi ditu.

Eskerrik beroenak, bereziki, gure liburutxo prestatu eta euskaratu duen Dionisio Amundarain euskarazko itzultzaile aspergabeari. Baita, eskerrak eman nahi dizkiet Mezulari argitaletxeko arduradunei, euren laguntza handia eta eskuzabalagatik.

Deustuko Unibertsitateari geure esker ona adierazi nahi diogu, urtero bezala gure liburu hau eskegitzeagatik Deustuko Unibertsitateko webgunean: [https://estudiantes.deusto.es/cs/Satellite/estudiantes/es/estudiantes\\_ud/actividades-1/fe](https://estudiantes.deusto.es/cs/Satellite/estudiantes/es/estudiantes_ud/actividades-1/fe). Halaber, “Loiola eta Xabierren Lurraldeko jesuitak” webgunean irakur dezakezu. Bietan joan zaitezke egutegira eta klikatu nahi duzun egunean.

Adiorik ez!

Koldo Katxo, S.J.



## **FESTABURU**

### **ETA JAI MUGIKORRAK 2020an**

---

Jaunaren Bataioa	urtarrilaren	12a
Hausterre	otsailaren	26a
Jaunaren Piztuera Igandea	apirilaren	12a
Mendekoste igandea	maiatzaren	31a
Hirutasun guztiz Santua	ekainaren	7a
Corpus Christi	ekainaren	14a
Jesusen Bihotz guztiz Santua	ekainaren	19a
Jesu Kristo Jauna, diren guztien Erregea	azaroaren	22a
Abendualdiko 1. igandea	azaroaren	29a
Familia Santua	abenduaren	27a

## OSPATZEKO JAI NAGUSIAK 2020an

---

Andre Maria Jainkoaren Ama	urtarrilaren	1a
Jaunaren Epifania	urtarrilaren	6a
San Jose, Andre Mariaren senarra	martxoaren	19a
San Prudentzio Armentiakoa (Araba)	apirilaren	28a
Santiago apostolua	uztailaren	25a
San Ignazio Loiolakoa (Bizkaia eta Gipuzkoa)	uztailaren	31
Andre Mariaren Jasokundea	abuztuaren	15a
Santu Guztiak	arazoaren	1a
Andre Maria Sortzez Garbia	abenduaren	8a
Jaunaren Jaiotza (Eguberri)	abenduaren	25a




## URTARRILA

**AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:**  
Munduan bakea sustatzea.

**Egin dezagun otoitz:** Kristauek, beste erlijio bat bizi dutenek eta borondate oneko jendeak munduan bakea eta zuzentasuna susta ditzaten.





Eguberrialdia.

JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA.

Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna.

### § Zenbakiak liburutik 6,22-27.

Honela mintzatu zitzaion Jauna Moisesi: «Esaiezu Aaroni eta haren semeei: Honela bedeinkatuko dituzue israeldarrak:

“Bedeinka zaitzala Jaunak eta zaindu.

Ager diezazula Jaunak aurpegi argia,

eta erruki dadila zutaz.

Erakuts diezazula Jaunak aurpegi gozoa,

eta eman bakea”.

Honela dei egingo diote nire izenari israeldarren alde, eta Nik bedeinkatuko ditut».

[Sal 67 [66]: Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala.]

### § San Paulok Galaziarrei 4,4-7.

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jainkoak, emakumeagandik jaioa, legepeko egina, legepean zirenak askatzera, guk seme-alabatzakoa har genezan. Eta seme-alaba zareten seinaleztat bere Semearen Espiritua bidali du Jainkoak gure bihotzera, «Abba! Aita!» deika ari dena. Beraz, aurrerantzean ez zara esklabo, seme edo alaba baizik, eta seme edo alaba bazara, baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,16-21.

Aldi hartan, artzainak lasterka joan ziren Betleemera, eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose eta haurra askan etzana. Ikusi zutenean, jakinarazi zuten haur hartaz esan zitzaiena.

Entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren artzainek esaten zutenarekin. Mariak, berriz, gogoan jasotzen zituen gauza hauek guztiak, bere bihotzean hausnartuz. Eta artzainak Jainkoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, entzun eta ikusi zutenagatik; dena aingeruak esan bezala gertatu zitzaien.

Eguberrialdia.  
JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA.  
Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna.

Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, «Jesus» ezarri zioten izena, sabelean sortu aurretik aingeruak esan bezala.

**E**lizak urtea Amaren eskutik has dezagun nahi du. Eta bedeinkatuak garela sentituz has dezagun. Zeren eta Amaren bitartez bedein-katzen baikaitu Jainkoak. Jainkoaren Ama izateko «bai» esatearekin, Jesus eman digu, «zeinen bitartez bedeinkatu baikaitu Jainkoak mota guztietako ondasun espiritual eta zerutarrez» (Ef 1,3). Jesus Emanuel, Jainkoa-gurekin alegia, baldin bada, lehenik Jainko-Amarekin izan zelako da. Eta emakume batengandik jaio eta gure haragiaren haragi egitean, gure anaia/neba egin zen. Jesusengan Jainkoarekiko dugun hurbiltasun hori Mariari zor diogu esker onez.

Baina Elizak Mariaren jarrera bat ere gogarazten digu, ondorengo hamabi hilabeteetan imita dezagun. «Mariak bihotzean gorde zituen hauek guztiak, hausnartuz». Barnekoitasun eta sakontasun-eredu dugu Maria, bizitzako gorabeheretan Jainkoaren presentzia sumatzeko gai izatearen eredu. Mariaren isiltasun gogoetsu horren antzera, geuk ere jakin beharko genuke haztatzen, hastera goazen urte honetan, gure bizitzan Jainkoa nola igarotzen den. Horrela, biziko ditugun une ilun edo argitsuen harira, Mariarena bera esango diogu geure buruari: «zerbait adierazi nahiko dit Jainkoak gertatzen ari zaidanarekin», «badakit nortaz fidatu naizen».

Eguberrialdia.

San Basilio Handia eta Naziantzoko San Gregorio,

*gotzainak eta eliz irakasleak.*M<sup>a</sup> Ana Soureau dohatsua, *birjina eta fundatzailea.*

[1 Joanen liburutik 2,22-28: Bego zuengan, hasieratik entzun duzuen mezua. Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga guztiek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,19-28.

Hau da Joan Bataiatzaileak egin zuen aitormena, juduek Jerusalemdik apaizak eta lebitarrak bera nor zen galdetzeraz bidali zizkiotenean.

Joanek argi eta garbi aitortu zuen: «Ni ez naiz Mesias». Haiek galdetu zioten: «Nor zara, bada? Elias al zara?» Joanek erantzun: «Ez». Haiek, orduan: «Etortzekoa den profeta al zara?»

Eta hark: «Ez». Berririo galdetu zioten: «Nor zara, bada? Bidali gaituztenei erantzuna eman behar diegu. Zer diozu zeure buruaz?»

Joanek, orduan: «Ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: “Zuzendu bidea Jaunarentzat”, Isaias profetak esan zuen bezala».

Bidalitako haietako batzuk fariseuak ziren, eta galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara Mesias, ez Elias, ez etortzekoa den profeta?»

Joanek erantzun zien: «Nik urez bataiatzen dut. Zeuen artean baduzue, ordea, ezagutzen ez duzuen bat, nire ondoren datorrena; eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere».

Hau guztia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiaz bestaldean, han ari baitzen Joan bataiatzen.

**«Zeuen artean baduzue ezagutzen ez duzuen bat».** Hasi berria dugun urte honetan har genezake asmo hau: mundu honetan Jainkoaren igarle edo azti izatea. Azti baten sen berezi bat behar izaten da ura aurkitzeko: gainerakoek ezer sumatzen ez duten lekuan, hala-koek antz ematen diote. Jainkoaren seinaleak sumatzeko ere ikusmen

**berezia behar izaten da, usaimena, sentiberatasuna. Bizi-esperientzia baten bidez bakarrik lor dezakegu hau, testigantza egiteko gai egingo gaituen Jaunarekin bizi izandako topaketa berezi batekin: geure bihotzean «ikusitako eta entzun dugunaren» testigantzaz ari naiz. Harreman sakon-sakon horrek egingo gaitu gai Jaunaren presentzia barruntatzeko, izango ditugun «basamortuetan» beretan, asko izaten baitira lur honetan.**

\*\*\*

### Bataioaz sinboloen garrantzia (1)

K.o. lehen hiru mendeetan Erromatar inperioan hamar pertsekuzio anker jasan zituzten kristauak. K.o. 313an, Konstantino enperadoreak kultu-askatasuna dekretatu zuen.

Dekretu horren ondoren, Letran edo Lateranoko Bataiategia da eraiki zen lehenengoa. Lehen mendetik, bataioak, Erroman, ur-iturrien ondoan ospatzen ziren. Tertulianok (II. mendea) jakin zuen Pedrok Tiber ibaian bataiatu ohi zuela.

Konstantinok forma zirkularra eman zion aipatu Bataiategiari, 320 eta 325 bitartean mustu edo estreinatuari. Sixto aita santuak, 432-440, ordea, oktogono-forma eman zion; gaur ere duena.

Oktogono-forma honek Piztuera-eguna irudikatzen du. Berpiztua 8. egunean agertu zaie apostoluei (Jn 10,19). Adierazi nahi da, bataioaz aro berrian murgiltzen garela, Kristok bere piztuera mustu edo estreinatutako duen aroan. Zortzigarren eguna kreazioa berriaren eguna da, gainera..

Bataiategi honetan, ukapen hirukoitza egiten zuen katekumenoak: tentazioari, bekatuari, deabruari, eta aitorten hirukoitza: «bai» Jainko Aita Kreatzaileari, «bai» Jesu Kristori bakarrari, «bai» Elizari. (22. or. jarraituko du).

Eguberrialdia. Jesusen Izen guztiz santua, *Jesusen Lagundiko Goiburua*. Santa Genoveva, *aitorlea*, *Parisen jaioa 422an*.

San Ziriako (indiarra, 1805ean Keralan jaioa), *apaiza eta fundatzailea: Karmeloko Amaren Kongregazioa*.

[1 Joanen liburutik 2,29–3,6: Harengan dagoenak ez du bekaturik egiten. *Sal 98 [97]:* Ikusi dute lur-muga guztiek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,29-34.

Hurrengo egunean, ikusi zuen Joan Bataiatzaileak Jesus beregan eta etortzen eta esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Honi buruz esan nuen nik: “Badator nire ondoren gizon bat, niri aurea hartu didana, ni baino lehenagotik baitzen”. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina ni urez bataiatzera etorri banaiz, hura Israeli ager zekion etorri naiz».

Eta aitormen hau egiten duen Joane: «Espiritua ikusi dut uso-irudian zerutik jaisten, eta haren gainean gelditzen. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina urez bataiatzera bidali ninduenak esan zidan: “Espiritua jaisten eta gainean gelditzen zaiola ikusiko duzuna, hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena”. Nik ikusi dut eta aitortzen hauxe dela Jainkoaren Semea».

**L**augarren ebanjelioak ez digu kontatu, zuzenean, Jesusen bataioa. Baina hari aipu eginez, Bataiatzaileak, apaltasun sakon-sakonetik («ez naiz»), Jainkoaren Bildostzat eman du Jesus, eta esan digu, aurretik baden, Espiritua duen eta Jainkoak hautatua den norbait dela. Joanentzat, Espirituak bizileku duen gizona da Jesus, honen bizia erabat hartua du Espirituak. Ai, guk ere horrela ikus bageneza Jesus, honen bizitza «Espiritudun bizi» izan baita. Horrela izan behar baitu Jesusen jarraitzaileenak ere. Horretarako isuri du bere Espiritua gugana: Jesusen urratsen jarraitzaile izan ahal gaitetzen eta haren misio askatzailea jarraitu ahal dezagun, babesgabe eta sufritzen ari direnen hurbileko, behartsuekin solidarioa, haurridetasuna, anai-arreba artekotasuna, eraikiz?

Santa Genoveva Torres, *fundatzailea (Anjelikak)* † 1956.

Santa Elisabet Ana Seton, *ama familiakoa.*

San Manuel Gonzalez, *gotzaina eta fundatzailea.*

[1 Joan liburutik 3,7-10: Jainkoagandik jaio denak ez du bekaturik egiten. Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga guztiek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,35-42.

Aldi hartan, han zegoen Joan Bataiatzailea bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zien Joane: «Horra Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zeren bila zabilzate?»

Haiek erantzun: «Rabbi, non bizi zara?» (Rabbi «Maisu» esan nahi du). Jesusek esan zien: «Zatozte eta ikusiko duzue». Joan ziren, ikusi zuten non bizi zen, eta harekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak inguru zen.

Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietako bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Andresek bere anaia Simonekin egin zuen topo lehenengo, eta esan zion: «Mesias aurkitu dugu». (Mesias hitzak «Kristo» esan nahi du, hau da, «Gantzutua»). Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begira-begira jarritz, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea; aurrerantzean “Kefas” izango da zure izena» (Kefas izenak «Pedro» esan nahi du, hau da, «Harkaitza»).

**Z**orioneko «bitartekariak» (Bataiatzailea, Andres, Felipe)! Fede kutsakorra izan zuten, eta jakin zuten besteri ematen. Haietaz baliatu zen Jesus, beste batzuk beregana iritsi ahal zitezten. «Bitartekariren» premia dugu. Kristau-fedea ez da fede gizabanakoi, baizik eta elkarteko; besteri su ematen dienugar bezala izan beharko luke. Eskerrak eman beharra dugu «bitartekariengatik», Jainkoaren «postariengatik», geure bizitzaldi guztian bidali baitizkigu, Jauna non bizi den «joatera» eta «ikustera» eragiteko. Baina eskerron horrek zirikada izan behar du aldi berean. Geu ere Jainkoaren «bitartekari» izatera eragin behar digu eta jendea gonbidatzera, hark ere guk geuk Jaunarekin bizi izan dugun esperientzia bera bizi dezan.

Eguberrialdia.

San Telesforo, 8. *aita santua*.

San Joan Neumann, *gotzaina*.

### § Siraken liburutik 24, 1-4. 12-16 (gr. 1-2. 8-12)

Jakinduriak bere burua goستن du,  
bere herriaren erdian aintzaz betetzen da.  
Goi-goikoaren batzarrean ahoa irekitzen du  
eta haren ahalmenaren aurrean aintzaz betetzen da.  
Bere herriaren erdian goratzen dute  
eta santuen batzar osoan miresten;  
aukeratuen taldeek gorespenak ematen dizkiote  
eta bedeinkatua izango da bedeinkatuen artean.  
Orduan, guztien Egileak agindu zidan,  
sortu ninduenak etxola eraiki zidan,  
eta esan: «Bizi zaitez Jakobon herrian,  
eta izan bedi Israel zure ondare».  
Hasieran, gizaldiak baino lehenago, sortu ninduen,  
eta inoiz ere ez dut amairik izango.  
Etxola santuan, haren aurrean, egin dut zerbitzu,  
eta horrela Sion mendian finkatu naiz.  
Hiri maitean eman dit atsedean  
eta Jerusalem dago nire agintaritza.  
Izen handiko herrian bota ditut sustraiak,  
Jaunaren sailean, haren ondarean.

[Sal 147: Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua.]

### § San Paulok Efesoarrei 1, 3-6. 15-18.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena!

Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez.



Eguberrialdia.

San Telesforo, 8. *aita santua*.San Joan Neumann, *gotzaina*.

Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea; bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Jesu Jaunagan duzuen sinestearen eta fededun guztienganako duzuen maitasunaren berri jakinik, etengabe ari naiz zuengatik eskerak ematen, neure otoitzean zuetaz oroituz. Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera dei egin dizuen eta zein aberatsa den fededuentzat oinordekotzan prestatua duen aintza.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 1-18.

Hasieran bazen Hitza,  
eta Hitza Jainkoarekin zen,  
eta Jainko zen Hitza.  
Hitza hasieran Jainkoarekin zen.  
Gauza guztiak haren bidez eginak dira,  
eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin.  
Hitzagan zen bizia,  
eta bizia gizakien argia zen;  
argiak ilunpean argi egiten du,  
baina ilunpeak ez zuen onartu.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitor-menerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiak sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.

Hitza zen egiazko argia,  
mundura etorriz gizaki guztiak argitzen dituen.

### Eguberrialdia.

San Telesforo, 8. *aita santua*.

San Joan Neumann, *gotzaina*.

Munduan zegoen  
eta, mundua haren bidez egina den arren,  
munduak ez zuen ezagutu.  
Bereengana etorri zen,  
eta bereek ez zuten onartu.  
Onartu zuten guztiei, berriz,  
haren izenean sinesten dutenei, alegia,  
Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien.  
Hauek ez dira giza odoletik sortu,  
ezta giza nahieratik ere,  
Jainkoagandik baizik.  
Eta Hitza haragi egin zen,  
eta gure artean jarri zuen bizilekua,  
eta ikusi dugu haren aintza,  
Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren  
Seme bakarrari dagokion aintza.

Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”».

Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

**B**egirada bikoitz bat egitera gonbidatu gaitu San Joanek; zorabioa eragiten du horrek; izan ere: a) gora begira ipintzen bagara, galdurik sentitzen gara, ikusirik Hitza «hasiera» hartatik beretik zela existitzen Jainkoaren ondoan, kreazioan bitarteko zelarik; b) Joanen ebanjelioaren Hitzaurrari jarraituz, behera begira ipintzen bagara, berriz, zora-

bioa handitu egiten da; urruneko Hitz hori haragi egin da egun batean eta gure artean ipini du bizilekua. Eta horrela, bere burua beheratuz, Jainkoa agerian ipini digu. Kristo Hitz da, «Jainkoaren autokomunikazio baita»: Kristogan, Jainkoa ez da gelditu mintzatzearekin bakarrik; gainera, bere burua agertu du.

Begirada bikoitz honek, lehenik eta behin, adorazio isilera garamatza. Baina segidan jarraitzaile izatera eragiten digu. Zeren eta orain bai baitakigu Jainkoa non aurkitu. Jainkoa ez du inork ikusi; soilik, «hasieratik» beraren ondoan den Semeak ikusi du. Haragi egin den Semeak bakarrik adieraz diezaguke Jainkoa. Horrenbestez, Jesusen bizitza Jainkoaren Hitz da. Eta Jainkoaren Hitza ez da Jesusen bizitza baizik. Jesusi begira, esaten duenari, egiten duenari begira jarritz, Jainkoa ari gara ikusten. Jesusen bizierak behar du izan gure biziera, Jainkoaren seme-alaba bezala jokatu ahal izateko.

\*\*\*

### Bataioaz sinboloen garrantzia (2)

*(16. orrialdetik dator)*

Katekumenoa mendebaldera begira jarri ohi zen, Satanasi uko egiteko, eta ekialdera itzultzen, fedea aitortzeko. Eguzkia «Mendebaldean» ezkututzen da: ilunaren aldea da; «Ekialdean» agertzen da: argiaren aldea da.

Konstantino enperadoreak orein-itxurako zilarrezko zazpi iturritz apaindu zuen bataio-pontea. Gaurko bataio-pontea ez da jatorrizkoa, baina erromatar garaikoa da. Barbaroek lapurtu zituzten zilarrezko zazpi oreinen ordeez, Paulo VI.ak, 1967an, brontzezko bi orein-estatu eraikiarazi zituen, iturritik ura edateko itxuran; Sal 42,2ko hau hartuz: «Basahuntza irrikaz erre kara bezala, halaxe ni zugana, ene Jainko» (*Ahizpa Agnese Scavetta-tik hartu eta egokitua*).

**§ Isaias profetaren liburutik 60,1-6.**

Jaiki zaitez, Jerusalem, argitu, badator-eta zure argia; zure gainean ageri da Jaunaren aintza. Begira, ilunak estalia du lurra, gau beltzak estaliak ditu herriak; zure gainean, ordea, Jauna agertuko da, haren aintza zure gainean azalduko.

Zure argira etorriko dira herriak, zure egunsenti-distirara erregeak.

Jaso itzazu begiak zeure ingurura eta ikus: guztiak elkartu eta zuga-na datoz, urrutitik datoz zure semeak, besoetan dakartzate zure alabak.

Hori ikustean, distiratsu jarriko zara, bihotza zirraraz eta zabal-za-bal duzula, itsasoko aberastasanak zugana etorriko baitira eta nazioen ondasunak zuri ekarriko dizkizute. Gamelu-taldeek estaliko zaituzte, Madiango eta Efako dromedarioek. Sabatik datoz guztiak, urrea eta intsentsua dakartzatela, eta Jaunari gora eta gora diotsotela.

[Sal 72 [71]: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.]

**§ San Paulok Efesoarrei 3,2-6.**

Senideok: Jakingo duzue, noski, Jainkoak bere onginahian zuen onerako eman didan eginkizuna, goi-agerpenez jakinarazi baitit bere asmo ezkutua; salbamen-asmo hau ez zitzaien iraganeko gizaldiei jakinarazi; orain, ordea, Espirituaren bidez bere apostolu santuei eta profetei agertu die Jainkoak. Eta hauxe da Jainkoaren asmo ezkutua: Berri Onari esker, jentilak Kristo Jesusekin oinorde-kide direla, harekin gorputz bat bera osatzen dutela eta agintzari beraren partaide direla.

**† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,1-12.**

Jesus Judeako Betleemen jaio zen Herodes erregearen garaian. Aldi hartan Mago batzuk etorri ziren sortaldetik Jerusalemara, galdezka: «Non da jaioberria den juduen erregea? Haren izarra ikusi dugu sortaldean, eta hura gurtzera gatoz».

Berri honekin larritu zen Herodes erregea, eta Jerusalem osoa harrekin batera. Orduan, apaizburuak eta lege-maisuak bildurik, Mesias non jaiotzekoa zen galdetu zien. Haiek erantzun zioten: «Judeako Betleemen, honela idatzi baitzuen profetak:

“Eta zu, Judako Betleem,  
ez zara, ez, Judako hirietan txikiena;  
zugandik aterako baita buruzagia,  
nire herri Israelen errege izango dena”».

Orduan Herodesek, Magoei isilka dei eginik, izarra noiz agertu zitzaien jakin zuen zehatz. Ondoren, Betleemera bidali zituen, esanez: «Zoazte, eta jakin arduraz haurraren berri, eta, aurkitzean, esadazue, ni ere gurtzera joan nadin». Haiek, erregeari entzun ondoren, joan ziren.

Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri zitzaien, haurra zegoen lekuaren gainean gelditu arte. Izarra ikusi zutenean, berealdiko poza hartu zuten. Etxean sarturik, haurra ikusi zuten, Maria bere amarekin, eta, ahuspezturik, gurtu egin zuten. Ondoren, beren kutxak irekita, erregaluak eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra.

Gero, Herodesengana ez itzultzeko albistea ametsetan harturik, beste bide batetik itzuli ziren beren lurraldera.

**E**kiogun bideari, magoek bezala. Ez diezaiegun ez-ikusiarena egin geure bizitzan bistaraten zaizkigun eta erronka ditugun izarrei; batzuetan, bere onberatasun eta onberatasunez zirrara eragin digun pertsona bat izango da; beste batzuetan, gogor kolpatu gaituen gertaera bat edota Bibliako pasarte bat... Begiak azti bizi behar dugu, hala-koak izar iheskor gerta ez daitezzen; izan ere, distira dezaten utzi eta haiei jarraitzeak zentzua eta trinkotasuna emango dio gure bizitzari: benetako Argira gidatuko gaituzte, «Haurra eta ama dauden etxera».

## URTARRILA

### JAUNAREN AGERKUNDEA.

Erregeen Eguna: Meltxor, Gaspar eta Baltasar.


Santa Rafaela Maria Porrás, *fundatzailea*  
(*Bihotz Sakratuaren Mirabeak*).

Astelehena

6

Bideari ekitea da garrantzizko gauza; ez etsitzea, izarra tarteka ezkutatuko bada ere.

Jesus munduko Argiaren –eta geure Argiaren– bila bagabiltza, aurkituko dugu. Ez gara izutuko, ez dugu ustea galduko «Jainko beti txikiago bat», haurtxo bat, ama xume eta apal bat, etxe koxkor bat ikus-tegatik. Magoek erregaliak eskaini zizkioten; batez ere, ordea, adoratu egin zuten: gauzak ez ezik, beren burua ere eman zioten. Aldaraziko gaituen topo egite bat izango da. Mateok honela deskribatu du aldaketa hau: «beste bide batetik joan ziren». Jo dezagun Jaunaren bila, gure Argia denaren bila; harekin gozoki topo egiteak aldatu egingo du gure bidea.



Jaunaren agerkunde ondokoa.  
San Raimundo Peñafortekoa, *apaiza*.

[1 Joan 3,22-4,6: Aztertu espiritua, Jainkoagandik datorren ala ez.  
Sal 2: Nazioak emango dizkizut ondare.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,12-17.23-25.

Egun haietan, Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutela jakin zue-  
nean, Jesus Galileara baztertu zen. Baina, Nazaret utzirik, itsasbazte-  
rrean dagoen Kafarnaumen jarri zen bizitzen, Zabulonon eta Neftali-  
ren lurraldean. Horrela bete zen Isaias profetak esana:

«Zabulonon lurraldea eta Neftaliren lurraldea,  
itsasbidea, Jordanez beste aldean, jentilen Galilea.  
Ilunpean bizi zen herriak argi handia ikusi zuen;  
herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak».

Ordutik hasi zen Jesus hots egiten: «Bihotz-berri zaitezte, hurbil  
da-eta Zerueta Erreinua».

Galilea osoan barna ibili zen Jesus, hango sinagogetan irakasten,  
erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta herrian gaitz eta erita-  
sun guztiak sendatzen. Siria guztian zabaldu zen haren izena. Edozein  
gaitz eta oinazek jotakoak eramaten zizkioten: deabrudun, epileptiko  
nahiz elbarri, eta hark sendatu egiten zituen. Eta Galilea, Dekapolis,  
Jerusalem, Judea eta Jordanez beste aldetik etorritako jendetza han-  
diak jarraitzen zion.

**J**esusek konbentzimendu osoa du ezen zerbait berria hasia dela  
bera erortzearekin eta berak jardutearekin: Jainkoaren Erreinua, ale-  
gia. Honetan sartzeko, beharrezkoa da bihotz-berritzea, gogo-bihotzez  
aldatzea. Loiolako Ignazioren hitzetan, «buru-estimua, maitasun eta  
probetxutik irtetea». Baina Erreinua ez da barnetasun hutsa. Jesusen  
deiak gure artean Aitaren Erreinua gauzatzera dei egin digu (Lk 17,21);  
solidariteteak, zuzentasunak eta bakeak izana dutenean bakarrik da

Jaunaren agerkunde ondokoa.  
San Raimundo Peñafortekoa, *apaiza*.

---

**Aita errege. Horregatik, Jesusek Erreinua aldarrikatu, gizakia zapal-  
tzen duen guztiari borroka eginez aldarrikatu du, munduan anai-arre-  
ba arteko elkartea itsastea eragozten duen guztiaren aurka borroka egi-  
nez: gaizkiaren eta sufrimenduaren aurka. Horretara gonbidatu gaitu  
geu ere.**

\*\*\*

### **Jainkoa eskuzabal eta errukitsu**

Jainko Aita.  
zuk ez duzu gure oparien beharrik  
zu gurekin errukitsu izateko,  
zu gurekin eskuzabal izateko;  
egizu,  
alda dezagula geure buruko klixea,  
uste eta konbentzimendu osoa izateko:  
zurekin ez digula balio  
«odolkiak ordainetan» delako ohiturak,  
zurekin ez digula balio  
ahalik hitzontzi handiena izateak;  
balio duena, seme-alaba izatearen konfiantza dela,  
balio duena, zure sorkari izatearen ustea dela,  
balio duena, zure eta hurkoaren ondoan  
apal-apal izatea dela.  
Jesu Kristo zure Seme eta geure anaiaren...



[1 Jn 4,7-10: Jainkoa maitasuna da. Sal 71 [70]: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,34-44.

Aldi hartan, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen, artzainik gabeko ardiak bezala baitziren, eta luzaro irakasten hasi zitzairen.

Berandu egin baitzen, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Leku bakartia da hau eta oso berandu da. Bidal itzazu, inguruko baserri eta auzoetara joan eta jatekoa eros dezaten». Jesusek erantzun zien: «Emaiezue zeuek jaten». Haiek, orduan: «Berrehun denarioren ogiak erostera joango al gara, bada, hauei jaten emateko?» Jesusek esan zien: «Zenbat ogi duzue? Zoazte ikusteran». Ikusi eta esan zioten: «Bost, eta bi arrain ere bai».

Orduan, jende guztia belar gainean taldeka eserarazteko agindu zien. Ehunaka eta berrogeita hamarnaka eseri ziren. Jesusek, bost ogiak eta bi arrainak hartu eta, begiak zerura jatorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, jendeari banatzeko; bi arrainak ere jende guztiaren artean banatu zituen. Asetzeraino jan zuten denek, eta ogi- eta arrain-hondarrekin hamabi saski bete bildu zituzten. Bost mila gizon ziren jan zutenak.

**G**upidagatik hasi zen dena. Jesus, ezin baitu jasan inoren sufrimenik, jendearen oinazetara makurtu da, eta, sendatzen ari dela, denborak hegan alde egin dio. Berandu da; Jesusek, ordean, ez du presarik. Gizakia osorik salbatu (osasundu) nahi du, gorputz eta arima, egiaz den bezala. Eta gizaki osoaz axola duelako, axola du gosea asetzeaz ere, horrelakorik nabari duenean. Zeregin honetan ikasleak ere inplikatu ditu, eta bitartekari izango dira bost ogiak eta bi arrainak banatzen. Deituak gara gu geu ere haurridetasun-molde berriak sortzera, pertsona den guzti-guztian harturik. Haurridetasuna, arreba-anaidia, da Erreinuaren eraikitze modu bakarra.

Jaunaren agerkunde ondokoa.

San Eulogio Kordobakoa, *apaiza eta martiria*.

[1 Joan 4,11-18: Elkar maite badugu, Jainkoa gugan dago. Sal 72 [71]:  
Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,45-52.

Bost mila gizonak ase ondoren, Jesusek bere ikasleak ontzian sarrarazi eta bere aurretik beste aldera, Betsaidarantz, joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali ondoren, mendira joan zen, otoitz egitera.

Ilundu zuenean, ontzia itsaso erdian zen, eta Jesus lehorrean, bera bakarrik. Ikasleak arraunean nekez ari zirela ikusirik, haizea kontra baitzuten, goiz aldera haiengana joan zen ur gainean oinez, haiei aurrea hartu nahian bezala.

Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, mamua zelakoan, deiadarka hasi ziren; denek ikusi zuten eta erabat izutu ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Ni naiz; ez beldur izan!» Ontzira igo zitzaien eta haizea gelditu egin zen.

Zeharo harriturik gelditu ziren, ez baitzuten ulertu ogiekin gertatua, adimena itsu zuten eta.

«**A**rraunean ari zuten lana ikusirik». Geu ere, «gau-ordu» hauetan, haize eta olatu kontra, larri, ezdeusaren eta ezinaren sentimenduak jota..., Jesus begira dugu. Beti izan ohi dugu hura begira geure unadura eta nekeetan, geure arraunean, hainbat bider zentzurik gabeko eta helmugarik gabeko iruditzen zaigun horretan. Eta ez da urrun gelditzen; geure beldurrera hurbiltzen da; benetako axola du mamuak ikusarazten eta garrasi eginarazten digun ikaraz. Gure artean ontziratzen da; geure ondoan sumatzen dugu, burua askotan sorgor badugu ere. «Ez beldur izan, neu naiz», esango digu, eta begiak beragana jartzen baditugu, ziurtasun irmoa ernearaziko digu ezen bazter segurura eramango gaituela.

Jaunaren agerkunde ondokoa.  
San Nikanor, diakonoa eta martiria.  
Dolores Sopena, dohatsua  
(Katekesia Institutuaren fundatzailea).

[1 Joan 4,19–5,4: Jainkoa maite duenak maita dezala bere senidea ere.  
Sal 72 [71]: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,14-22a.

Aldi hartan, Jesus, Espirituaren indarrez, Galileara itzuli zen, eta haren izena lurralde hartan guztian zabaldu zen. Hango sinagogetan irakasten zuen, eta denek goersten zuten.

Jesus Nazaretera, bera hazitako herrira, joan zen, eta larunbatean, ohi zuenez, sinagogan sartu eta zutik jarri zen irakurgaia egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen:

«Jaunaren Espiritua nire gainean dago,  
hark gantzutu bainau,  
behartsuei Berri Ona emateko.  
Gatibuei askatasuna  
eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau,  
zapalduei askatasuna ematera,  
Jaunaren onginahi-urtea hots egitera».

Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan.

Jesus honela hasi zitzaien: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Denek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren onginahiaz esaten zituengatik

**B**i pasartetan aurkeztu du Jesusek bere «bisita-txartela»: nor da bera, zertara etorri da, zein du bere lanbidea. Lehenengoa Nazareteko sinagogan, bere herritarren aurrean; hitzaldi programatikoa egin du eta bere buruari esleitu dio Isaias profetaren profetia mesiastarra. Bigarrena Joan Bataiatzaileak bidalitakoen aurrean (Lk 7,18-23;

Jaunaren agerkunde ondokoa.

San Nikanor, diakonoa eta martiria.

Dolores Sopeña, dohatsua

(Katekesia Institutuaren fundatzailea).

---

**Mt 11,2-6). Bietan diosku bere misio edo egitekoa Jainko errukitsu bat hots egitea duela, pobreekiko gozo den, zapalduentzat askatasun den, guztientzat onginahi eta barkazio-eskaintza den Jainko bat aldarrikatzea. Lanbide horretan agertu du Espirituaren indarra, zeinen gantzadura hartu baitu. Horrek izan beharko luke beraren jarraitzaileen «bisisa-txartela» ere.**

\*\*\*

### **Jainkoa geurekin dugu**

Jainkoa geurekin dugu  
seme bezela maite gaitu, maite gaitu.

- Badaki gure izena,  
guretzat onena dena;  
makalak gara gu, Jauna,  
izan Zeu gure laguna.
- Jainkoa, Zu beti deika:  
zatozte denok Nigana,  
egizue batasuna,  
eman beti barkamena.
- Zabaldu pozik bihotza,  
dena dugu guztiona;  
deika dugu Jesus Jauna:  
Nirekin egin batzarra!
- Elizan egiten dena  
ez dugu bakar batena,  
dena baita guztiona  
banatu Jaunak emana.

*(Musika: Juanjo Elezkano / Testua: Lontzo Zugazaga)*

Jaunaren agerkunde ondokoa.  
San Higinio, 9. *aita santua*.  
Santa Honorata, *birjina*.

[1 Jn 5,5-13: Espiritua, ura eta odola. Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,12-16.

Aldi hartan, Jesus hiri batean zegoela, legenaz (lepraz) jositako gizon bat azaldu zen; Jesus ikustean, ahuspez erori eta erregutu zion: «Jauna, nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez: «Nahi dut, geldi zaitetz garbi». Eta orduan bertan alde egin zion legenak.

Inori ez esateko agindu zion Jesusek eta esan: «Zoaz, azaldu apai-zagana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindu zuena, agiria izan dezaten».

Jesusen izena gero eta gehiago ari zen zabaltzen eta jendetza handia bildu ohi zen hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Baina Jesus leku bakartietara baztertu ohi zen otoitz egitera.

**L**egraduna pertsona zokoratua da: kultuak eta gizarteak ukatua: bizirik ere pertsona hila, familiarik gabea, herririk gabea, Jainkoa gabea. Baina Jesusek ez zuen sendatu urrunetik, hitz huts batez, baizik eta «nahasi» egin zen: ukitu egin zuen gaixoa; garbi zenak ukitu egin zuen ez-garbia. Horrela, gaixotasun madarikatutik sendatzeaz gain, gizarteratu egin zuen zokoratua. Jainkoagana itzuli zuen. «Gizatar» bihurtu zuen; gizaki-duintasuna itzuli zion. Eta ni, nola hurbildu ohi naiz zokoratuengana? Ez-garbitzat jotzen al ditut? Nolako jarrera izaten du nire bizitzan etorkinak, paper gabeak, homosexualak, ezgaituak, bakardadea bizi duen adin handikoak...? Irakats diezagula Jesusek kanporatzaile ez baizik barneratzaile izaten!

Jaunaren Bataioa.

San Arkadio Mauritaniakoa, *martiria*.

§ Isaias Profetaren liburutik 42, 1-4. 6-7.

Honela mintzo da Jauna:  
 «Hona nire zerbitzaria, Nik eusten diodana,  
 nire aukeratua, atsegin dudana.  
 Honengan ipini dut neure espiritua;  
 zuzenbidea ekarriko die herriei.  
 Ez du oihu egingo, ez ahotsa goratuko,  
 ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa.  
 Kanabera pitzatua ez du hautsiko,  
 doi-doi pitzua dagoen argi-metxa ez du itzaliko.  
 Zuzenbidea ekarriko du leialki;  
 ez du etsiko, ez da hautsiko,  
 zuzenbidea lurean ezarri arte;  
 uharteak haren irakaspenaren zain daude.  
 Nik, Jaun honek, salbamen-egintzarako dei egin dizut,  
 eta eskutik heldu;  
 Nik eratu zaitut eta izendatu  
 herriarentzat itun eta nazioentzat argi izateko,  
 itsuen begiak zabal ditzazun,  
 giltzapetuak espetxetik askatu  
 eta ilunpean bizi direnak kartzelatik atera ditzazun».

[Sal 29 [28]: Bere herria bedeinkatuko du bakea emanez Jaunak.]

§ Apostoluen Eginak liburutik 10, 34-38.

Egun haietan honela mintzatu zen Pedro: «Orain jabetzen naiz benetan Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela begirune diona eta beraren nahia egiten duena, edozein herritakoa dela ere.

Hark bere hitza bidali zien israeldarrei, guztien Jauna den Jesu Kristoren bidez, bakearen Berri Ona iragarritz. Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek hots egin zuen bataioaren

Jaunaren Bataioa.

San Arkadio Mauritaniakoa, *martiria*.

ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia: Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 3,13-17.

Aldi hartan, Jesus Galileatik Jordanera etorri zen Joan Bataiatzai-leagana, honek bataia zezan. Joanek, berriz, ez zion utzi nahi eta esan zion: «Ni naiz Zuk bataiatu beharrekoa, eta Zu al zatoz nigana?»

Jesusek erantzun zion: «Utzi oraingoz; horrela bete behar baitugu Jainkoak nahi duen guztia». Orduan, Joanek utzi egin zion.

Jesus, bataiatu eta berehala, uretik atera zen. Hortan, zerua zabaldu zen, eta Jainkoaren Espiritua ikusi zuen uso-irudian jaisten eta bere gainera etortzen. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Hau da nire Semea, nire maitea; hau dut atsegin».

«**E**pifania» bat da Jesusen Bataioa: Seme maitea munduari agertu izana. Jai hau oso garrantzitsua dute ekialdeko kristau Elizan: data honetan ospatzen dute Jaunaren Epifania. Zeruko Aitak aldarrikatu du: «Ene Seme maitea dut hau, ene kuttuna». Eta misio edo egiteko bat gomendatu dio: esan-esaneko Zerbitzariaren misioa, Isaias profetak biziki deskribatu duen harena. Misio hori betetzeko, gantzutu egin du Jesus Espirituak, eta bizitza osoan izango da haren bidelagun (Mt 12,28).

Gure bataioaren prototipo da Jesusen Bataioa. Hala dio eguneko prefazioak. Gure bataiokoan, Aitak dio, Jainkoaren familian sartzean, bere seme-alaba egin gaituela, bere kuttun. Eta geuri ere misio bat gomendatu digu, Kristoren misioaren zerbitzari izatekoa. Misio horretarako, Espirituaz hornitu gaitu geu ere. Alabaina, bataioa ez da jada iragana den sakramentu bat, urruneko geure haurtzaroko zerbaite. Luterok esan ohi zuen «kristau-bizitza bataio jarraiki bat dela», zeren eta geure bataioak Jesusen bizieraren tankerara bizitzera dei egiten baitigu, eta badakigu, hura «on eginez bizi izan zen». Bizileku gaituen Jesu-  
sen Espirituak posible egiten du hori.

Urteko 1. astea.

[Samuel lehenengo liburuaren hasiera 1, 1-8: Penina arerioak gogor iraintzen zuen Ana eta samintzen, Jaunak haurrik ematen ez ziola-ko. Sal 116 [115]: Gorespen-oparia dizut, Jauna, eskainiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 14-20.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Honela zioen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona».

Jesusek, Galileako itsasbazerretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurrerago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien Jesusek. Haiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik, Jesusen ondoren joan ziren.

**E**rreinua hots egin ondoren, berehala, lankide bila hasi da Jesus. Anaia-bikote bati dei egin dio. Lehen konbertituak dira: den-dena utzi dute Erreinuagatik. «Den-dena uzte» horrek, lehen ikasleek egin zuten bezala, esan nahi lezake, gutako batzuentzat ere, Espirituak eraginik materialki egin diogula uko den-denari (bokazio erlijiosoan egin ohi denez): Erreinuaren zerbitzari izateko era zehatz bat izango da hori. Alabaina, Jesusen jarraitzaile den orok egiten dio uko den-denari zentzu honetan: Erreinuak lehen lekua hartu duela halakoaren balio-eskalan. Pertsona horrek bere bizitza arruntean jarraitzen badu ere, duen guztia aldatu da esanguraz haren bizitzan. Duen hura ez du jada beretzat izango, baizik eta baliabide bat Erreinurako.



Urteko 1. astea.

San Fulgentzio, *gotzaina*.San Juan de Ribera, *Valentziako artzapezpikua*.

[Samuel lehenengo liburutik 1, 9-20: Jauna oroitu zen Anaz, eta honek Samuel izan zuen. Salmo: 1 Sm 2: Jaunagan da nire bihotza pozten, nire salbatzaileagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 21b-28.

Kafarnaumen, larunbatean sinagogan sarturik, irakasten hasi zen Jesus. Jende guztia txunditurik zegoen haren irakaspenez, nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala.

Bazen, hain zuzen, sinagoga hartan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihuka esan zuen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua».

Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!» Espiritu gaiztoak astinaldi gogorra eman zion eta, garrasi handia eginenez, atera egin zen gizonagandik.

Denak ikaraturik gelditu ziren, elkarri galdezka: «Zer dugu hau? Irakaspen berria, eta nolako nagusitasunez emana gainera! Espiritu gaiztoei ere agintzen die, eta obeditu egiten diote!»

Laster zabaldu zen Jesusen entzutea Galilea aldeko bazter guztietara.

**J**esusen jarduera eta jendearen erreakzioa; horra zein bide hartu duen Markosek Jesus zein den erritmo pausatuan aurkitzen joateko. Horrela doa Markos haren aginpidearen misterioa azalduz; ez da boterean sustraitua den aginpidea, maila politiko eta erlijioso nabarmen bat emango liokeena, baizik eta bere nortasun propioaren balioa du sustrai, esnatzen duen sinesgarritasuna (dioena egiten du eta dagiena esaten); egintzek egiaztatzen duten hitzaren indarrean islatzen den jatorrian oinarritzen da aginpide hori: Aita bera du jatorri, Jainkoaren Semea baita Jesus. Aginpidea izan nahi badugu, geuregan ere koherentzia ikusi beharko du jendeak sinesten dugula esaten dugunaren eta bizi dugun bizieraren artean.

Urteko 1. astea.

San Paul, *ermitaia*. San Mauro, *abadea*.San Arnaldo Janssen, *apaiza eta fundatzailea**(Verbo Divino kongregaziokoak).*

[Samuel lehenengo liburutik 3, 1-10. 19-20: Mintza, Jauna; zure morroi hau adi dago. Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 29-39.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen zuzenean, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba oheratua zegoen sukarrarekin; berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. Joan zitzaion Jesus ondora, eskutik hartu eta jaikiarazi zuen. Sukarrak alde egin zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaien.

Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eraman zizkioten Jesusi. Herri guztia bildu zen atarian. Eta hark gaixo asko sendatu zuen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota zuen. Deabruai ez zien uzten hitz egiten, bazekiten-eta nor zen.

Goizean goiz, artean ilun zegoela, Jesus herritik atera eta bazter bakarti batera joan zen; han otoiitzean ari zen. Simon eta lagunak Jesusen bila hasi ziren eta, aurkitzean, esan zioten: «Jende guztia zure bila dabil».

Hark, ordea, erantzun: «Goazen beste norabait, inguruko auzoetara, horietan ere Berri Ona hots egitera, horretarako atera bainaiz». Hala, Galilea guztian barna ibili zen, hango sinagogetan Berri Ona hots egiten eta deabruak botatzen.

**M**arkosen ebanjelioaren lehen kapituluak –atzo hasi ginen irakurtzen– Jesusen «egunaldi prototipo» bat deskribatu digu. Horretarako, Jesusek diharduen denbora eta espazioa uztartuz joango da. Egun bateko ordu desberdinetako Jesusen jarduera deskribatu du: irakatsi, sendatu, askatu, otoiitz egin. Baina leku desberdinetan egin ditu: sinagoga, etxe partikular, jendaurrean, leku bakarti eta, azkenik, Kafarnaumetik alde egingo du bere misioari jarraipena emateko. Horrenbestez azaldu nahi digu, Berri Ona hots egitea ezin gelditu dela eremu murriz

**bati kateaturik, erlijiosoa edo pribatua izan, baizik eta zabaldu egin behar dela eremua, herri-mugak urratu egin behar direla, hain zuzen ere gizakiari doakiona delako, beraren maila eta egoera guztietan: jendaurreko, pribatuko, bihotz-barneko edo profano.**

\*\*\*

### San Paulo ermitaua

Tebaidan (Egipto) jaio zen, Nilo ibaiaren ondoan. 14 urteko zela umezurtz gelditu zen. Gizon aski eskolatua izan zen. Giro erlijiosoa hazia. K.o. 250. urtean Dezioren pertsekuzioa hasi zen: jendea martiri egitea adina, jendea erlijioaz arnagatzera behartzea zuen helburu Deziok.

Paul bi arrisku horien artean gertatu zen. Bere burua ahul kusirik torturei aurre egiteko, ezkutatzea erabaki zuen. Koinatu batek salatu zuelako, basamortura jo zuen. Kobazulo bat hartu zuen bizileku. Pertsekuzio-aldian bakarrik bizi nahi izan zuen han. Baina esperientziak agertu zion, bakardadea lagungarri zuela Jainkoarekin harremanak izateko. Munduari, negoziokekin eta hitzekin ez, baizik eta penitentziarekin eta otoitzarekin laguntzea erabaki zuen.

Paulo ermitaua 342an hil zen, 113 urteko, eta 90 urte bakardadean eta otoitzean egin ondoren.

San Jeronimok esan ohi zuen: «Jaunak aukeran jarriko balit, nahia-go izango nuke palmondoaren hostoz egindako Paulo ermitauaren tunika pobrea, hura santua zelako, ezen ez harrokeriaz beterik diren lurreko erregeen luxuzko mantua». San Paulok, bere isiltasunarekin, jende asko jarri du betiko salbazioaren bidean.

Urteko 1. astea.

San Martzelo 1.a, 30. *aíta santua, eta martiria.*

[Samuel lehenengo liburutik 4, 1-11. Israel menderatu eta Jainkoaren kutxa harrapatu. Sal 44 [43]: Aska gaitzazu, Jauna, zeure maitasunagatik!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 40-45.

Aldi hartan, legenardun bat etorri zitzaion erreguka Jesusi eta, beaunikaturik, esan zion:

«Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez: «Nahi dut, izan zaitez garbi». Orduan bertan alde egin zion legenak, eta garbi gelditu zen.

Jesusek bidali egin zuen, zorrotz aginduz: «Kontuz gero! Ez esan inori ezer. Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindutakoa, ezaugarri izan dezaten».

Hura, orde, atera zeneko, gertatua hots egiten eta zabaltzen hasi zen oihuka, eta harrezkero ezin zen Jesus inongo herritan agerian sartu, eta kanpoan gelditu ohi zen, leku bakartietan. Hala ere, edonondik zetorkion jendea.

**J**esusek isilik gordetzeko eskatu zion, baina sendakuntza hain hots handikoa izan zen eta sendatuaren poza hain bizia non ezinezkoa baitzen isilik gordetzea. Horrela aldatu egin ziren bien zoriak: ordu arte zokoratua zena gizarteraturik gertatu zen; Jesusek, berriz, garbi zenak –bestea garbi egin zuenak– hirietatik landa geratu behar izan zuen, kasik ezkutuka predikatu beharra: orain, ez-garbia eta zokoratua Jesus da. Baina denbora gutxirako izan zen hori: jendea beragana etortzen hasi zen, indarra eta bizia emango zion bila; bazekien, izan ere, jendeak Jesus zokoratu hark bakarrik ematen ahal ziola hori; alegia, gizonaren mina arintzeko, bere eskuak zikintzea erabaki zuen Jesusek bakarrik. Ez dezagun kezkarik izan eskuak zikintzeaz sufritzen ari denagana hurbiltzeagatik.

Urteko 1. astea.  
San Anton, *abadea*.

[Samuel lehenengo liburutik 8, 4-7. 10-22a: Oihu egingo duzue, zeuek aukeratu duzuen erregea dela eta; baina Jaunak ez dizue erantzun-go. Sal 89 [88]: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 1-12.

Zenbait egunen ondoren, Jesus Kafarnaumen sartu zen berriro, eta etxean zegoeneko berria zabaldu zen. Bildu zen jendetzarekin ez zegoen inon tokirik, ezta atarian ere. Eta mezua adierazten zien.

Hartan, elbarri bat ekarri zioten lau lagunen artean. Baina jendetzagatik ezin zuten eraman Jesusenganaino. Orduan, bera zegoen parean etxe-gaina zulatu eta zulutik behera eraitsi zuten elbarria, etzanik zegoen ohatilan. Jesusek, haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Seme, barkatuak dituzu bekatuak!»

Baziren han eserita lege-maisu batzuk, eta hau zioten beren baitan: «Zer ari duk hau horrela? Biraoka ari duk. Nork barka zitzakek bekatuak, Jainkoak berak izan ezik?»

Baina Jesusek bere barruan haien gogoetei igarri eta esan zien: «Zergatik dituzue gogoeta horiek zeuen baitan? Zer da errazago, elbarriari “barkatuak dituzu bekatuak” esatea ala “jaiki, hartu ohatila eta zabilta” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena». Eta esan zion elbarriari: «Zuri diotsut: Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera».

Berehala jaiki, ohatila hartu eta guztien aurrean atera zen. Denak harriturik gelditu ziren, eta Jainkoa goresten zuten, esanez: «Ez dugu sekula horrelakorik ikusi».

**P**ertsonaren salbazio betea (gorputz eta arima) nola gauzatuko dabilen Salbatzailea da Jesus. Eszena honetan, ia grafikoki, ageri da barkazioa zer den: gorputz-desitxuratua izateagatik zokoratuak jasaten duen maldizioa (2 Sm 5,8) desegin du, eta giza duintasuna itzuli dio. Barka-

Urteko 1. astea.  
San Anton, *abadea*.

zioak berreraiki egiten du pertsona, zutik jartzen du; adore berriz eragiten dio aurrera jotzera. Jainkoaren barkazioak gehiago erreparatzen dio geroari iraganari baino. Barkazioak bihotz ematen digu bide berriei ekiteko, jada elbarritasunik gabe, geure loturetatik eta zurruntzen duten ohatzeetatik aske. Barkatzean, Jesusek esan ohi digu: «Jaiki eta ibili, aske zara, duintasuna itzuli dizut (bekatuak gizatasunik gabe utzi baintzintuen). Bide luzea duzu ibiltzeko. Zeurekin izango nauzu!»

\*\*\*

**Bizia sumatu bai Aralar mendia ikustean,  
bai adiskide bat gorpu ikustean**

Zeruko Aita onbera,  
Lazkaomendiko San Joan ermita ondotik  
Aralar mendia, / beti lerden eta beti zut,  
beti bizi-bizi eta beti zoragarri ikusteak  
zugana eramaten gaituen bezala,  
piztu dezala gugan zure eskua sumatu ahal izatea  
Beasaingo Senpereko Ehorztetxeko  
leiho atzean adiskide fin bat gorpu ikusteak;  
pentsatuz, / bizia biziki maite zuen  
eta bizia indartsu ereiten zuen adiskide hori / ezin bihur daitekeela  
espiriturik eta hatsik gabeko materia huts;  
pentsatuz, / gorputz fisikoan ikusiko ez badugu ere,  
pertsona bizi eta suhar izaten jarraitzen duela;  
pentsatuz, / dena ez dela geure begi fisikoez ikustea;  
pentsatuz, / arbola baten izerdia  
lehen begiratuan ikusten ez den bizia dela,  
pertsona batek bizi ohi duen barne suharra / ikusten ez den bizia dela,  
pentsatuz, / bizia ezin hesitu dela materia fisikoan;  
egizu, Aita onbera, /  
zabal ditzagula bihotzeko begiak / bizi hori sumatzeko,  
bai Aralar mendira begira jartzean,  
bai gorpu den adiskide bati begira jartzean  
nahiz adiskide hori geure irudimenez begi aurrera ekartzean.

Urteko 1. astea.

Santa Priska eta Santa Margarita, birjinak.

Kristauen Batasunaren aldeko zortziurrenaren hasiera.

[Samuel lehenengo liburutik 9, 1-4. 17-19; 10, 1a: Horra Jaunak esan-dako gizona; Saul izango da Jaunaren herriaren agintaria. Sal 21 [20]: Jauna, zure indarraz pozten da erregea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,13-17.

Aldi hartan, Jesus itsasaldera ateratzen zen berriro. Jende guztia bera-  
rrengana zihoan, eta irakasten hasi zitzaizkien. Bidez zihoala, Lebi Alfe-  
rena ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eserita, eta esan zion: «Jarrai-  
tu niri». Lebi zutitu eta jarraitu egin zion.

Geroago, Jesus mahaian zegoen Lebiren etxean; bazen beste zerga-  
lari eta bekataria asko ere Jesusekin eta honen ikasleekin mahaian;  
izan ere, asko zihoazkion ondoren.

Fariseuen arteko lege-maisu batzuek, bekataria eta zergalariekin ja-  
ten ari zela ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zergalari  
eta bekatariekin?»

Hori aditzean, Jesus esan zion: «Ez dute osasundunek behar sen-  
dagilea, gaixoei baizik; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei  
baizik».

**J**esusek esan izan dute «lagunarte txarrean bizi izan zela». Bekata-  
ri publikoekin tratatzen zuela, gaitzespen moral edo erlijioso eta aldi  
berean gaitzespen soziala jasaten zutenekin. «Gaizki ikusiak» zirene-  
kin. Haietakoa zen Lebi. Halere, hurbildu eta dei egin zion Jesus. Dei  
errukitsu hark posible egin zuen mugiezineko ematen zuen hura, zerga-  
mahaian eserita zegoen hura, izen txarreko egoeran bizi zen hura,  
bere loturetatik askatua izatea, «zutitzea», eta Jesusen jarraitzaile  
bihurtzea. Horrenbestez, bestea, agian «ofizialki» gaitzetsia, maitasu-  
nez onartzen irakatsi digu Jesus. Zeren eta maitaturik sentitzen dena  
izan ohi da maitatzeko gai. Eta jakitera eman digu, maitasunak eral-  
datu egiten duela eta adorea ematen hazteko, altxatzeko eta aldatzeko.

Urteko 2. astea.

Santuak: Joan Ogilvie, Esteban Pongrącz, Meltxor Grodziecki *apaizak*, eta Marko Krizevcanin, *Esztergom-eko kalonjea*.  
Dohatsuak: Ignazio de Azevedo, *apaiza* eta lagunak\*

### § Isaias Profetaren liburutik 49, 3. 5-6.

Jaunak esan zidan:

«Zu zara nire zerbitzaria, Israel, zure bidez agertuko dut neure ospea». Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabelean eratu ninduenaren zerbitzari izateko, Jakoben leinuak harengana bihurtarazteko eta Israel herria biltzeko.

Ohorez jantzi nau Jaunak eta neure Jainkoa izan dut indar.

Jaunak esan dit:

«Ez da aski zu nire zerbitzari izatea, Jakoben leinuak berreraikitzeke eta Israelen bizirik geldituak itzularazteko. Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamera lurraren azken mugaraino irits dadin».

[Sal 40 [39]:Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

### § San Paulok 1 Korintoarrei 1, 1-3.

Nik, Paulok, Jainkoak hala nahirik eta berak deiturik, Jesu Kristoren apostolu naizen honek, eta Sostenes anaiak, Korinton dagoen Jainkoaren eliz elkarteari idazten diogu.

Jesu Kristok sagaratu zaituzte eta Jainkoak bere herri santu izateko deitu, edozein lekutan Jesu Kristo gure Jaunari dei egiten dioten gutziekin batera, hauek eta guk Jaun bat bera onartzen baitugu. Grazia zuei eta bakea gure Aita Jainkoagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 29-34.

Aldi hartan, ikusi zuen Joan Bataiatzaileak Jesus beregana etortzen eta esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Honi buruz esan nuen nik:

\* Santiago Salès, *apaiza* eta Gilermo Saultemouche, *martiriak, jesuitak*. San Makario Handia, *abadea*. Martzelo Spinola, *dohatsua, fundatzailea (Jainkoaren Bihotzaren mirabeak)*.



Santuak: Joan Ogilvie, Esteban Pongrác, Meltxor Grodziecki *apaizak*, eta Marko Krizevcanin, *Esztergom-eko kalonjea*.  
Dohatsuak: Ignazio de Azevedo, *apaiza* eta *lagunak\**

“Badator nire ondoren gizon bat, niri aurea hartu didana, ni baino lehenagotik baitzen”. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina ni urez bataiatzera etorri banaiz, hura Israeli ager zekion etorri naiz». Eta aitormen hau egin zuen Joaneke: «Espiritua ikusi dut uso-irudian zerutik jaisten, eta haren gainean gelditzen. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina urez bataiatzera bidali ninduenak esan zidan: “Espiritua jaisten eta gainean gelditzen zaiola ikusten duzuna, hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena”. Nik ikusi dut eta aitortzen, hauxe dela Jainkoaren Semea».

**J**esus Espirituaz betea da, gizon «espirituala» da. Eta Jesusek gu bere Espirituaz «bataiatzen» gaitu. Ondorioz, geuk ere jende «espiritual» izan behar dugu, Jesus izan zen bezala –eta izan gitezke, Espiritua dohain eman digulako–. Sarritan uste izan dugu, «espiritualitateak» mundutik bereizia den jarduera edo jarrera esan nahi duela, tenpluko edo komentu edo monasterioko gauza bat dela; debozio barneliluratu edo otoitz-jarrera indibidualista batera murrizten dugu. Baina nola gauzatu du Jesusek bere misioa? «Espirituaz betea den Gizon» horrek Jainkoaren Bildotsaren eta Yahveren Zerbitzariaren misioa bete du, hau da, askatzaile izan da, buru-eskaintza solidarioa egin du, jendearen bila bideetara irten da: sendatu, kontsolatu egin du, zuzengabekeria salatu, irakatsi, zerbitzatu, barkatu... Horrela, bere zerbitzu-eskaintzaz eta askapen-ahaleginaz, bizia sustatu du bere inguruan eta legamiak bezala harrotu. Horrela izan da Jesus «espiritual». Zeren eta Espiritua –hala aitortu ohi dugu Credoan– «bizi-emaile» baita. Geu ere espiritual izango gara, baldin eta, Espirituak mugiarazi gaitzan utziz, geure inguruan bizia hazarazten duen hura handitzen saiatzen bagara, eta bizia zurrun, esklabo eta murrizt bihurtzen duenaren kontra borroka egiten badugu; bizi onaren, duinaren, bikainaren, hitz batean, behin betikoaren, giza-tiarragoaren, Jainkoak nahi duena bezalakoaren alde saiatzen bagara.

\* Santiago Salès, *apaiza* eta Gilermo Saultemouche, *martiriak, jesuitak*. San Makario Handia, *abadea*. Martzelo Spinola, *dohatsua, fundatzailea (Jainkoaren Bihotzaren mirabeak)*.

## URTARRILA

Urteko 2. astea.

San Sebastian, *martiria*.

San Fruktuoso, *gotzaina* eta San Eulogio eta San Augurio, *haren diakonoak, martiriak*.

Astelehena

# 20

[**Samuel lehenengo liburutik 15, 16-23:** Hobe da Jaunaren esana egitea, opariak eskaintzea baino. Baztertu egin zaitu Jaunak erregetzatik. **Sal 50 [49]:** Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 18-22.**

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleek eta fariseuek barau-eguna zuten. Jesusengana joan eta esan zioten: «Nolatan egiten dute barau Joanen ikasleek eta fariseuek, eta zure ikasleek ez?»

Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituek egin ote dezakete barau, senar berria berekin dutelarik? Senar berria berekin duten bitartean, ez dezakete barau egin. Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, egun hartan, egingo dute barau.

Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten; bestela, adabaki berriak jantzi zaharra behartu, eta zarratada handiagoa egiten da. Ez du inork ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; ardoak zahagiak lehertu egingo litzuzke eta, orduan, ez ardo eta ez zahagi. Ardo berria zahagi berritan».

**B**era da «senargaia», senarra. Beragan bete da mesiatar ezteien iragarpena, profetek auresana. Jai-aro bat hasi da Jesusekin: ardo berriarrena, bihotza alaitzen eta espiritua animatzen duenarena; beraz, ez da barau-aldi. Eta zahagi zaharretan eduki ezin den ardoa ekarri du; era egokian dastatu eta gorde ahal izateko, pertsona goitik behera berritzea eskatzen du («metanoia»: bihotz-berritzea). Galde diezaiogun geure buruari, ea prest gauden aldarazten duen Kristoren ardo hori edateko ala nahiago ditugun adabakiak, hau da, geure bizitzan tarte zaharkituak gordez jarraitu nahi dugun, zeinetan ez baitiogu sartzen uzten haren erabateko berritasunari eta, beraz, ezta pozari ere.

Urteko 2. astea.

Santa Ines, *birjina eta martiria*.

[Samuel lehenengo liburutik 16, 1-13: Samuelek gantzutu egin zuen David bere anaian aurrean. Eta Jaunaren espiritua Davidengan sartu zen. Sal 89 [88]: David neure zerbitzaria aurkitu dut.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,23-28.

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Eta ikasleak bidenabar galburuak mozten hasi ziren. Fariseuek esan zioten Jesusi: «Nolatan ari dira egiten, larunbatez zilegi ez dena?»

Hark erantzun: «Ez al duzue inoiz irakurri zer egin zuen Davidek beharraldi batean, bera eta bere lagunak goseak gertatu zirenean? Nola, Abiatar apaiz nagusi zelarik, Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituen, legez apaizek bakarrik jan zitzaketenak, eta nola bere lagunei ere eman zien?»

Eta esan zien: «Larunbata gizakiarentzat egin zuen Jainkoak, ez gizakia larunbatarentzat. Beraz, Gizonaren Semea larunbataren beraren nagusi da».

**J**esulentzat gizakiaren ongia tradizio guztien gainera dago, legalismo eta erakunde guztien gainera; zeinak, giza biziaren duintasuna bere betera eramaten laboratzen ez badute, «letra hil» baitira. Jesusengandik ikasi beharra dugu berak erregalu eman digun seme-alaben askatasuna erabiltzen —«Semeak bakarrik emango dizue askatasuna» (Jn 8,31)—, bizi-tzan nola mugitu jakiteko, «erlijiotasunaren arauetan babestu gabe»; horiek «segurtasuna» eskainiko digute, bai, baina Jesusen Espiritutik urrun dagoen segurtasuna; Jesusenak, berriz, «betetzaila huts» bihurtu gabe, adineko fedearen sortzaila eta kreatora bihurtzen gaitu, arauak pertsona batek edo gizarteak bizi duen egoera zehatzera egokitzen laguntzen digu, lehenasuna beti maitasunari emanez.

Urteko 2. astea.

San Bizente, *diakonoa eta martiria*.

San Valero Zaragozako, *gotzaina*.

[Samuel lehenengo liburutik 17, 32-33. 37. 40-51: David habailaz eta harriz nagusitu filistearrari. Sal 144 [143]: Bedeinkatua Jauna, nire harkaitza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,1-6.

Aldi hartan, Jesus sinagogan sartu zen berriro. Bazen han gizon beso ihar bat. Zelatan zegozkion larunbatean sendatzen ote zuen, zertan salatuko baitzebiltzan.

Jesusek beso iharrari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona erdira». Eta besteei esan zien: «Larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala kentzea?» Haiek, ordea, isilik. Jesusek, ingurukoiei haserre begiraturik eta beraien setakeriaz mindurik, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen, eta sendatu egin zitzaion.

Handik atera orduko, fariseuek eta Herodesen alderdikoek elkar hartu zuten Jesusen kontra, hura nola galduko.

**B**adira iltzatu egiten diren Jesusen begirada zorrotzak (ik. Mt 19, 23-26; Mk 8, 31-33). Haiekin gauza bat adierazi nahi izaten dio begiradaren xede denari: bera onartzea kostatzen bazaio ere eta berari gogor egin nahi badio ere, utzi beharra izango duela azkenean bihotzean sartzen. Larunbat batean, sinagogan, bekoz beko eta haserre begiratu zien tradizioak eta legalismoak gizakiaren ongiaren gainetik ipintzen zituztenei; hain zuzen ere, esan nahi zien, beren baitan «sar zezatela» burubide hau: berarentzat, Jesusentzat, gizakiaren ongia, bereziki sufritzen ari denarena, dela baliorik handienekoa eta bizitza arriskatzea bera ere merezi duena –Jesusek berak egin zuen bezala; hain zuzen, sendatze horren segidan hasi zuten bera garbitzeko azpilana–. Izan al du noizbait Jesusek guri zorrotz begiratu beharrik?

Urteko 2. astea.

San Ildefonso, *gotzaina*.  
Santa Emerentziana, *birjina*.

[Samuel lehenengo liburutik 18, 6-9; 19, 1-7: Gure aita Saul zu hiltzeko asmotan dabil. Sal 56 [55]: Jainkoagan dut konfiantza, ez naiz ezeren beldur.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,7-12.

Aldi hartan, Jesus itsasbazterrera joan zen bere ikasleekin. Galileatik etorritako jendetza handiak jarraitu zion. Eta, berak egiten zituenak entzunik, Judea, Jerusalem eta Idumeatik, Jordanez bestaldetik eta Tiro eta Sidon aldetik ere jendetza handia bildu zitzaion. Jesusek txalupa prest edukitzeko agindu zien ikasleei, hainbeste jenderen artean zapal ez zezaten.

Izan ere, asko zituen sendatuak, eta gaitzen bat zuten guztiak gainera zetozkion, ukitu nahian. Espiritu gaiztoek, ikusten zuteneko, haren oinetara erori eta oihuka esaten zioten: «Jainkoaren Semea zara Zu». Hark, ordea, zorrotz agintzen zien, ez emateko ezagutzera.

**E**banjelioetan ageri diren laburpenek garaikideei gehienik erasan zieten Jesusen ezaugarriak jaso dituzte. Gaurko honetan, gizon-emakume xumek osatutako jendetza bat –alde guztietatik etorri dira– Jesusen indar saihestezinak erakarririk sentitu da, behartsuak eta norabiderik gabeak onartzen baititu, oinazetuak sendatzen, deabrudunak askatzen. Gizarte gaixo baten sendagile ageri da Jesus. Beragandik «guztiak sendatzen zituen ahaltasun bat, indar bat irteten zen» esango du tradizio sinoptikoak (ikus Lk 6,19; 8,46). Espiritua zen indar hori. Guk luzatu egin nahi ditugu gaur haren besoak. Tarteka estutasunak joko bagaitu ere, Espirituak emango digu adorea –itsasontzixto bat– onartzeko «zerbaiten sufrimena duen oro», gure beharra duen edozein.

Urteko 2. astea.

San Frantzisko Saleskoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

[Samuel lehenengo liburutik 24, 3-21: Ezin dut neure jaunaren aurka eskurik altxatu, Jaunaren gantzutua baita. Sal 57 [56]: Erruki nitaz, ene Jainko, erruki nitaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,13-19.

Aldi hartan, Jesus mendira igo zen, berak nahi izan zuenei dei egin zien, eta haiek hurbildu egin zitzaizkion. Hamabien taldea eratu zuen, berarekin bizitzeko eta Berri Ona hots egitera bidaltzeko; eta deabruak botatzeko ahalmena eman zien.

Hamabi hauek aukeratu zituen: Simon –honi Pedro izena ipini zion–, Santiago Zebedeorena eta Joan, Santiagoren anaia –hauei Boanerges izena ipini zien, hau da, «Trumoi-kume»–, Andres, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena.

**E**z zigun eta ez digu dei egin berari jarraitzera, besteak baino hobeak ginelako edo garelako. Ez da izan gure merezimenduengatik, baizik eta, besterik gabe, «nahi izan zuelako» (Jn 15,16). «Berak nahi zituen dei egin zien...» (Mk 3,13). Berarena izan zen ekimena eta hala jarraitzen du izaten: doako deia da. Beraz, apaltasuna izan behar dugu nagusi: ez dugu irabazi geure ikasle-bokazioa geure ekinaren ekinaz. Baina haren deia izan dela jakiteak segurtasun sakona eman behar digu: Artzain Onaren eskuetan baitago bokazio hori, zeini ezin baitio inork ere ardirik kendu (Jn 10,28-29). Bera da, beraz, behar dugun indarra ematen diguna, beraren deiari leial erantzuteko.

[Eginak liburutik 22,3-16: Bataia zaitetz eta garbitu zeure bekatuetatik Jaunaren izenari dei eginez. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,15-18.

Aldi hartan, Jesus Hamaiketi agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira».

**H**asieran Paulo «Jaunaren bidea jarraitzen zutenen» pertsegitzailerik izan zen; gero Jaunaren predikatzailerik sutsu bihurtu zen, bera bide bakartzat hartuz –gainerako guztia zaborra zen; soilik «Jaunagan bizi nahi zuen»-. Lehenaren eta geroaren artean topaketa bat izan zuen Berpiztuarekin, zeinetan honek itsutasunetik askatu egin baitzuen eta pertsona bezala berregin –geroztik ez zuen bilatu nahi izan fariseu-justifikaziorik bere egintzetan-. Bete-beteko buru-eskaintza egin zuen eta ezin bereizi edo aldendu izan zuen inork ere Kristo maitatzetik. Jesusen Berri Ona hots egiteko bizi izan zen –zoritarrekoa ni ebanjelizatuko ez banu!-, ez inoren agindu bezala, baizik Jaunak etengabe sortzen zion liluraz. Eredu bat da Paulo guretzat, ikasle-misiolari izan nahi dugu-nontzat; bereizezinek dira bi gauzak: ikasle eta misiolari izatea.

Urteko 3. astea,  
San Timoteo eta San Tito, *gotzainak*.

§ Isaias Profetaren liburutik 8, 23b–9, 3.

Garai batean, lotsagarri utzi zituen Jaunak Zabulonen lurraldea eta Neftaliren lurraldea; azken aldian, ordea, ospetsu egin du itsaso ondo-ko bidea, Jordanez bestaldeko lurraldea, Galilea, jentilen eskualdea.

Ilunpean zebilen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak. Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozik dabilta zure aurrean, uzta biltzean izaten den pozez, harrapakinak banatzean izaten den atseginez. Apurtu baituzu lepoan zeramaten uztarri astuna, zapaltzailearen aginte-makila, Madiango gudarostea apurtu zenuen bezalaxe.

[Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 1, 10-13. 17.

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren izenean arren eskatzen di-zuet: etor zaitezte bat guztiok eta ez bedi izan zatiketarik zuen artean; bizi elkar ondo harturik, ikuspegi eta iritzi bat bera duzuela.

Izan ere, ene senideok, Kloeren jendeagandik jakin dut eztabai-dak dituzuela zeuen artean; alegia, hor ari omen zarete nor bere alde-tik esaten: «Ni Paulorena naiz», «ni Apolorena»; «ni Pedrorena», «ni Kristorena».

Zatitua al dago, bada, Kristo? Paulo gurutziltzatu ote zuten zuen-gatik? Edota Pauloren izenean bataiatu ote zintuzteten?

Kristok ez ninduen bataiatzera bidali, Berri Ona hots egitera bai-zik, eta hau, ez giza jakinduriazko hitzez, Kristoren gurutzeak bere indarra gal ez dezan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4, 12-23.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutela jakin zuenean, Jesus Ga-lileara baztertu zen. Baina, Nazaret utzirik, itsasbaterrean dagoen



Urteko 3. astea,

San Timoteo eta San Tito, *gotzainak*.

Kafarnaumen jarri zen bizitzen, Zabulonon eta Neftaliren lurraldean. Horrela bete zen Isaias profetak esana:

«Zabulonon lurraldea eta Neftaliren lurraldea, itsasbidea, Jordanez beste aldean, jentilen Galilea. Ilunpean bizi zen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak».

Ordutik hasi zen Jesus hots egiten: «Bihotz-berri zaitetze, hurbil da-eta Zeruetako Erreinua». Jesusek, Galileako itsasbazterrean barna zebilela, bi anaia ikusi zituen, Simon, Pedro deitua, eta haren anaia Andres, sareak itsasoan botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek, berehala, sareak utzi eta jarraitu egin zioten. Aurreraxeago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta haren anaia Joan, Zebedeoren semeak, aitarekin ontzian sareak konpontzen; eta dei egin zien. Haiek, berehala, ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten.

Galilea osoan barna ibili zen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta herrian gaitz eta eritasun guztiak sendatzen.

**B**ataiatzailearen ahotsa isildu da, atxilotu egin dute predikaria; Jesusen ahots berria hasi dira orain entzuten. «Jentilen Galilean gaude, ilunpean. Hor jaulki ditu bere lehen hitzak Jesusek, argia denak, jende guztiarentzat salbazioa dakarrenak: «Bihotz-berri zaitetze, hurbil da-eta Zeruetako Erreinua». Erreinua abian da jada gure artean. Erreinuaren sartzeko beharrezkoa da konbertsioa: berregokitze bat geure pentsaeran eta jokabidean, Jainkoaren ametsak gudan bete daitezen. Giza elkarte bat moldatzeko deia da Jesusena, hartan Jainkoa errege izan ahal dadin. Aita (Abba) eta Erreinua bereizezina dira. Aita delako, gizon-emakumeok anai-arreba arteko elkarte, haurrideen elkarte, eratu dezagun nahi du Jainkoak, elkarte solidarioa, Aita bat beraren seme-alabei dagokiena, geure artean anai-arreba baikara. Anai-arreba artekotasuna, haurridetasuna, sortuz bizi ez banaiz, solidaritatea sustatuz, neure bitzta gainerakoekin zerbitzu

Urteko 3. astea,  
San Timoteo eta San Tito, *gotzainak*.

-jarreraz bizi ez badut, ez naiz murgildu artean Erreinuaren dinamikan.

Jesus argia da gainera gure gogo bizitarako, hainbat bider gure gogoza ilunak hartua duen bizitza honetarako. Beraz, beti egoismoz eta probetxu bila sortuak izaten diren liskarrak eta banaketak atzera utziz, ireki diezazkiogun geure bihotza eta biziera, anai-arreben artean errege, izan nahi duen Jainko horri.

\*\*\*

### NAZIAK KOMUNISTAK ERAMATERA ETORRI ZIRENEAN ...

*Martin Niemöller Artzain Protestanteak eman zituen poema honen muineko ideiak sermoi txiki batean, 1946ko Aste Santuan Kaisers-lautern hirian (Alemania). Poema hau eragin handiko testu moral bihurtu zen gerra ostean Alemanian eta munduan. Poemak bertso asko ditu. Askotan Bertolt Brecht dramaturgoa izan da, errorez, bere autoreztat hartua.*

“Naziak komunistak eramatera etorri zirenean,  
isilik gelditu nintzen, ni ez bainintzen komunistak.  
Sozialdemokratak kartzelatzera etorri zirenean,  
mutu gelditu nintzen, ni ez bainintzen sozialdemokrata.  
Sindikalistak eramatera etorri zirenean,  
ez nuen txintik atera, ni ez bainintzen sindikalista.  
Juduak eramatera etorri zirenean,  
ez nuen protestarik egin, ni ez bainintzen judua.  
Katolikoak eramatera etorri zirenean,  
mutu egon nintzen, ni protestantea bainintzen.  
Ni eramatera etorri zirenean,  
ez zen inor gelditzen protesta egiteko”

Urteko 3. astea.

Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*.  
San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*.

[Samuel bigarren liburutik 5, 1-7. 10: Zeuk gidatuko duzu nire herri Israel. Sal 89 [88]: Berekin izango ditu nire leialtasuna eta maitasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,22-30.

Aldi hartan, Jerusalemdik jaitsitako lege-maisuek hau zioten Jesu-buruz: «Beelzebul dauka honek barruan», eta «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak».

Jesusek beregana deitu eta parabola hauen bidez hitz egin zien: «Nola bota dezake Satanasek Satanas? Bere baitan zatiturik dagoen erreinuak ezin du iraun. Bere baitan zatiturik dagoen familiak ezin du iraun. Era berean Satanasek ere, bere buruaren aurka jaiki eta zatiturik baldin badago, ezin du iraun; harenak egin du. Ez daiteke inor sartu indartsu baten etxean lapurretara, aldez aurretik hura lotzen ez badu; orduan, bai, harrapa ditzake haren etxeko ondasunak.

Benetan diotsuet: Dena barkatuko die Jainkoak gizakiei, bekatuak eta esan litzaketen birao guztiak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenak ez du sekula barkamenik izango; errudun izango da betiko». Espiritu gaiztoa zeukala ziotenei erantzun zien hau.

**L**ege-maisuek jarrera tematia bizi dute: uko egiten diote Espirituaren berritasunari, honek ez baitu jokatzeko berek «ofizialki» ganza egoki bakartzat ezarriak dituzten ildoei jarraituz. Eta hona beraien konklusioa: Jesusengan ez da ari Espiritua, ez baitabil guk ezarriak ditugun ildoetan barna. Ez dute onartzen Espirituak nahi duen lekuan ufatu ahal izatea; esaten dute: edota bide ezagun-ezagunetan dabil edota ez da Espiritua, eta ildo ofizial horiek orain berdindurik eta zelaiturik ageri badira, Espirituak ufatzeari utzi diolako da. Ezin espero liteke jada inolako berritasunik harengandik. Jarrera ezkor horrek fededun bihozgabetu asko joa du gure artean ere. Espirituaren etengabeko berritasuna ukatu egin dute, hura beti ezusteko ildotan barna agertzen bada ere. Ez ditzagun zedarritu edo hesitu Espirituaren ekintzaren eremuak; ez gaitezen geldotu etsipen-zurrunez.

Urteko 3. astea.

Tomas santua Aquinokoa, *apaiza eta eliz irakaslea, domingotarra.*

San Julian Cuencakoa, *gotzaina.*

---

[Samuel bigarren liburutik 6, 12b-15. 17-19: Oihu artean zeramaten Jaunaren kutxa Davidek eta israeldar guztiek. Sal 24 [23]: Nor da Errege ospetsu hori? Jauna bera da.]

### Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,31-35.

Aldi hartan, Jesusen ama eta anai-arrebak etorri ziren eta, kanpoan gelditurik, deiarazi egin zuten. Jende asko zegoen Jesusen inguruan eserita, eta esan zioten: «Aizu, hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, zeure bila».

Jesusek erantzun zuen: «Zein dira nire ama eta anai-arrebak?» Eta, inguruan eserita zituenei begiratu, esan zuen: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba. Jainkoaren nahia egiten duena, horixe dut Nik anaia, arreba eta ama».

**J**esusek ez ditu gutxiesten odol-loturak; baina azpimarratu du ezen horiek bakarrik ez direla nahikoa beraren familia berriko kide izateko. Familia berri honek Jesus bezala bizi behar du, eta honek bere bizi-janaria Aitaren nahia betetzea du. Jesusen esanak ez du beheratu Mariaren irudia. Zeren eta Maria baita Jaunaren hitza entzun eta bete duena: «Gerta bedi nigan zuk esana» (Lk 1,38). Jesusen familia berriko kide da Maria: haren ama da eta haren ikasle. Mariagandik ikasi behar dugu nola izan Jesusen «ama, anaia eta arreba», beraren familia berrian.

Urteko 3. astea.

San Gelasio, 49. *aita santua*.Santa Radegunda Trebiñokoa, *birjina*.

[Samuel bigarren liburutik 7, 4-17: Ondorengoa emango dizut eta sendotu egingo dut haren erregetza. Sal 89 [88]: Beti gordeko diot neure maitasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,31-35.

Aldi hartan, Jesus berriz ere irakasten hasi zen itsasertzean. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion ondora, urean zegoen txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, lehorrean zegoen, itsasbazerrean. Gauza asko irakatsi zien parabola bidez hitz eginez. Honela ari zitzaien bere irakastaldian:

«Entzun! Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, axaleko lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu.

Beste zenbait ale sami artean erori zen, eta samiak, haztean, ito egin zuen hazia eta ez zuen fruiturik eman. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta erne, hazi eta fruitua eman zuten: bateko hogeita hamar, hirurogei nahiz ehun». Eta ohar hau egin zien Jesusek: «Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!»

Bakarrik gelditu zirenean, Hamabiekin batera berarekin zebiltzanez parabolaren esanahiaz galdetu zioten Jesusi. Eta honek esan zien: «Zuei eman zaizue Jainkoaren erreinuaren misterioa ezagutzea; kanpokoei, ordea, dena parabola bidez ematen zaie, Liburu Santuak dioena bete dadin: “Begiratzen dute, bai, baina ikusten ez; entzuten dute, baina ulertzen ez; horrela, ez dira Jaunagana bihurtzen eta ez zaie barbatzen”».

Eta esan zien gainera: «Parabola hau ez duzuela ulertzen? Nola ulertuko dituzue, orduan, gainerako parabola guztiak?»

Ereileak hitza ereiten du. Hitza ereitean, batzuk “bide-bazterra” bezalakoak dira: entzun bezain laster, Satanasek etorri eta haiengan

## Urteko 3. astea.

San Gelasio, 49. *aita santua*.Santa Radegunda Trebiñokoa, *birjina*.

erein den hitza kendu egiten die. Beste batzuk “harri artea” bezalakoak dira: hitza entzutean, berehala pozik hartzen dute; baina sustrairik gabeak eta iraupen txikikoak izanik, hitza dela-eta estutasun nahiz erasoaldiren bat sortu orduko, huts egiten dute. Beste batzuk, berriz, “sasi artea” bezalakoak dira: entzuten dute hitza, baina mundu hone-tako ardurak, diru-gosea eta bestelako grinak nagusitzen zaizkie eta hitza ito egiten diete, fruiturik gabe utziz. Eta hona nor diren “lur ona” bezalakoak: hitza entzun, onartu eta fruitua ematen dutenak: bateko hogeita hamar nahiz hirurogei nahiz ehun».

**J**esusek oinak lurrean dituela irakatsi du eta esperantza emanetz. Ereilea jakinaren gainean da: ereiten duen haziaren zati bat agor irten-go zaio. Aldi berean, ordea, esperantza nabarmendu du Jesusek: beste hazi batek ugari konpentsatuko du ereitearen lana: Jainkoa onartzen duenari harekiko harremanak bihotzean sortzen dion fruitua. Esan digu, ausardiaz eta iraupenez erein behar dugula, ereiteko baldintza hobeak etorri zain egon gabe.

J.A. Pagolak ohartarazten digunez: «Gurea ez da arrakastak uzta-tzea, kalea irabaztea, gizartea dominatzea, elizak betetzea, geure fede erlijiosoa inori ezartzea. Falta duguna esperantza-ereileak dira. Ereilearen parabola utzi digu Jesusek, eta ez uzta-biltzailearena».

Urteko 3. astea.

San Lesmes, *monjea*.  
Santa Martina, *birjina*.

[Samuel bigarren liburutik 7, 18-19. 24-29: Nor naiz ni, Jainko Jauna, eta zer da nire familia? Sal 132 [131]: Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,21-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Lakaripean edota ohe azpian ipintzeko pizten ote da kriseilua? Ez ote da argimutilaren gainean ipintzeko pizten? Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere argitaratuko ez denik. Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!»

Beste hau ere esan zien: «Kontu izan nola entzuten duzuen! Zuek zein neurritan entzun, neurri berean emango dizue Jainkoak, eta gehiago ere bai. Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, duen apurra ere kendu».

**K**ristau-elkarteak ez du izan behar elkarte-termo bat, barnerako berotasun handikoa, baina kanporantz bero eta argi eskasak irradiatzen dituen. Munduari argi egiten eta beroa ematen dion kriseilu izan behar dugu. Hartarako, hitza bihotz handiz onartu behar da eta fruitu emateko konpromisoz. Hori da Jaunak erabiliko duen neurgailua edo kana. Izan ere, hitz hori gero eta gogotsuago entzuten duena fiabardura gehiago sumatuz joango da eta kristau-heldutasunean haziz; aitzitik, epel eta azaletik entzuten duena, hitza gesalduz joango da eta ulertu zuen apurra ere galtzera iritsiko da: hegaztiek jan egingo diote.

Urteko 3. astea.

San Bosco, apaiza (*salesianoen fundatzailea*).

[Samuel bigarren liburutik 11, 1-4a. 5-10a. 13-17: Urias hititaren emaztea zeure emazte eginez, Ni gutxietsi nauzu. Sal 51 [50]: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,26-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua gizonak lurrian hazia ereitean gertatu ohi denaren antzekoa da; hura lo nahiz iratzaririk egon, gau eta egun, hazia erne eta garatu egiten da, hark nola ez dakiela. Lurrak berez ematen du fruitua: lehenengo landarea, gero galburua eta, azkenik, alea galburua betean. Eta garia heltzean, igitaiaz ekiten zaio, uztaioa da eta».

Beste hau ere esan zion: «Zeren antzeko dela esango genuke Jainkoaren erreinua? Zein parabolaren bidez adieraz genezake? Mostaza-haziaren antzekoa da: lurrian ereitean, hazi gutxietan txikiena da; erein eta gero, ordea, gora egiten du eta beste barazki guztiak baino handiagoa egiten da; eta hain handiak dira botatzen dituen adarrak, txoriek habia egiten baitute haren itzalpean».

Horrelako parabola askoren bidez iragartzen zion Jesusek mezua, haiek ulertzeko eran. Ez zion ezer irakasten parabola bidez izan ezik; baina bere ikasleei, bakarrean, guztiaren esanahia adierazten zion.

**B**ere gisa erne eta haziz doan haziaren parabolak konfiantza xume bat bizitzera gonbidatzen gaitu, ezen hitzak berez emango duela fruitua. Erreinua haztea Jainkoaren arazoa da eta haren sekretua: berak eramango du aurrera bere ahalmenaz. Parabolak, era berean, bare eta pazientziaraz bizitzera gonbidatzen gaitu: Erreinua Jainkoaren erritmora hazten da eta ez gure gustura. Ez dugu zertan bihotza galdu, Erreinua oso nagiz doalako hazten; are gutxiago zalapartaka ahalegindu, lehen printzari ufa eta ufa edo kimutxoari tira eta tira, garapena lasterragotzeko (horrela, landarea atera besterik ez litzateke egingo). Jainkoaren logika ez dator bat gure giza irizpideekin, «efikaziaren logikan» eta bertatik bertako arrakasta autogustagarrian oinarrituekin.








## OTSAILA / ZEZEILA

**AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:**  
Migratzaile oihuak aditzea.

**Egin dezagun otoitz:** Trafiko kriminalaren biktima diren anai-arreba migratzaileen aldarria aditua eta aintzat hartua izan dadin.



Urteko 3. astea.

Santa Brigida, *birjina*.

San Pionio, *apaiza eta martiria*.

[Samuel bigarren liburutik 12, 1-7a. 10-17: Bekatu egin dut Jaunaren aurka. Sal 51 [50]: Bihotz garbia, Jainko, sor ezazu nigan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,35-41.

Egun hartan, ilunabarrean, Jesusek esan zien ikasleei: «Goazen itsasoaz bestaldera». Jendea utzi eta ontzian eramán zuten Jesus, zegoen bezala. Beste ontzi batzuek ere jarraitu zioten.

Horretan, haize-bolada zakarra atera zuen, eta olatuek ontzia jotzen zuten, ia urez betetzeraino. Jesus, berriz, txopan lo zegoen, buruko baten gainean. Esnarazi eta esan zioten: «Maisu, ez al dizu axola gu galtzeak?» Hark, esnaturik, haserre egin zion haizeari, eta itsasoari esan: «Hago isilik! Geldi!» Gelditu zen haizea, eta barealdi handia egin zen.

Jesusek esan zien: «Zergatik beldur hori? Ez al duzue oraindik sinemenik?» Beldur-ikaraz gelditu ziren, elkarri esanez: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?»

**J**esusek esan digu: «Hau da nire gogoa: zeuen arazoei zeuek aurre egitea. Ekaitzaldian, haizete-aldian, zeuekin izango nauzue, adorea eta argia emanez –ez, ordea, zuen ordeztu, zeuen erantzukizuna, Jainkoaren irudira kreatuak izan diren gizaki bezala eta, ondorioz, kreatzaile bezala, zeuen arazo egiten, baitaratzten, jakin dezazuen. Ez utzi, beraz, beldurrak domina zaitzaten, batzuetan beste ertzera, hau da, leku ezezagun batera joan beharra izango duzuen arren, eta, beraz, berri izateagatik beldurra emango dizuen eta ausardia eskatuko dizuen arren. Zeuekin izango nauzue ontziraturik, lo nagoela eman arren: ez da izango axolarik eza, baizik zuengan dudán konfiantza. Beti izango nauzue esku-eskura, nire eragin, lagunarte, gidaritza eta guzti. Horretarako, ordea, niganako konfiantza handitu beharra duzue».

### § Malakias Profetaren liburutik 3,1-4.

Hau dio Jainko Jaunak: «Hor bidaltzen dut neure mezularia, nire aurretik bidea prestatzera. Eta berehala etorriko da bere santutegira, zuek bila zabiltzaten nagusia, eta irrikatzen duzuen ituneko mezularia. Horra non datorren, dio Jaun ahalguztidunak.

Nork jasan haren etorrera-eguna? Nor zutik egon, hura agertzean? Urtzailearen sua bezala izango da, garbitzailearen lixiba bezala. Urtu eta garbitzeko eseriko da; zilarra eta urrea garbitzen diren bezala, halaxe garbituko ditu Lebiren ondorengoak, Jaunari opariak behar bezala eskaini diezazkioten. Orduan, atsegin izango zaio Jaunari Judako eta Jerusalemeko oparia, lehengo garaietan bezala».

[Sal 24 [23]: Jaun ahalguztiduna da Errege ospetsua.]

### § Hebrearrei egindako gutunetik 2, 14-18.

Familia bereko seme-alabek odol eta haragi berak dituzten bezala, Jesusek gizakiaren odol-haragiak hartu zituen, bere heriotzaz heriotzaren nagusia den deabrua ezerezteko, eta heriotzaren beldurrez beren bizitza osoan esklabo bizi zirenak askatzeko; Jesus ez baitzen aingeruei laguntzera etorri, Abrahamen jatorrikoei baizik. Horregatik, gauza guztietan bere senideen antzeko izan behar zuen, apaiz nagusi errukitsu eta Jainkoari dagozkion gauzetan fidagarri izateko, herriaren bekatuak barkatzeko gai.

Bera ere nekeetan probatua izan zelako, orain gauza da probaldian daudenei laguntzeko.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,22-40.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko ueña iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemara eraman zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen-se-

Urteko 4. astea.

**JAUNAREN AURKEZPENA.**

**Kandelen bedeinkapena eta elizbira.**

Canterburyko Lorentzo santua, *gotzaina*.

me guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume».

Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen.

Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eramán zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez:

«Orain utz dezakezu, Jauna,  
zeure morroi hau bakean hiltzen,  
Zeuk hitzeman bezala.

Ikusi dute nire begiok zugandiko salbamena, herri guztien aurrean Zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea».

Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu egin zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian geldí daitezén. Eta zuri ezpata batek aldealde zulatuko dizu arima».

Bazen profetesá bat ere, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren ja-torrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzen. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa goersten eta haurraz mintzatzen hasi zitzaíen Jerusalemén askatasunaren zain zeuden guztiekin.

Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihóan, jakinduriáz betetzen ari zen eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

**J**esusek topo egin du Aitarekin (Tenpluan) eta herriarekin (Simeonek eta Anak ordezkatuarekin). Argiaren eta itzalaren jaia da; pozgarria eta osasuntsuki nahasgarria. Josek eta Mariak pozik eskaini dute beren semea. Orain semearen izenean mintzo dira; honek, berriz, nagusi izango denean esango du: «Hona hemen ni zure nahia egiteko». Alabaina aurkezpen horretan ez da apaizik ageri, ezta agintaririk eta lege-maisurik ere..., soilik bi «anawin» (bi Yahveren pobre). Jainkoaren erarik gustukoena da: gustura egon ohi da jende apalarekin, xumearekin, behartsuarekin. (Topo egite horretan ez da nabari Malakiasen iragarritako solemnitaterik).

Simeonek aldarrikatu du, haur hori «Nazioen Argi» dela. Guztiei argi egitera etorri da Kristo. Baina argi horri uko egin diezaioke jendeak eta kontraesanaren seinale izango da. Ez du inor axolagabe utziko. Senti dezagun geurekin Jainko makal bat izatearen nahasmendua, inori derrigorrez ezer ezartzen ez diona, soilik maitasunaren ahalmen armagabea ukan nahi duelako.

Eta Mariak, gozamenarekin batean, bihotza zeharkatuko dion ezpatarena entzun du. Eta zer egin du Mariak? Ez du esan «ez noa joko horretan parte hartzera», baizik eta bere «bai»ari utsiz jarraituko du, bere bihotzean gorde duen hitzari utsiz, hura bere-bere egiteko.

\*\*\*

«Gizakiaren nagusitasunaren seinaleak hauek dira: lanari, gaixotasunari eta nahigabeari buru egitea, eta esfortzua eta bizi-oreka ahal izatea» (*Alexis Cairrel*)

Urteko 4. astea.

San Blas, *gotzaina eta martiria*.

San Oskar, *gotzaina*.

Santa Claudina Thévenet, *fundatzailea (Jesus-Maria)*.

---

[Samuel bigarren liburutik 15, 13-14. 30; 16, 5-13a: Madarika nazala Xemeik, Jaunak agindu dionez gero. **Sal 3:** Jaiki zaitetz, Jauna, salba nazazu!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5,1-10.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak itsasoaz bestaldera joan ziren, gasatarren lurraldera. Jesus ontzitik jaitsi zeneko, espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat atera zitzaion hilobi artetik bidera. Hilobietan bizi zen, eta ezin zuen inork lotuta eduki, ezta katez ere; askotan lotua zuten girgiluz eta katez, baina hark kateak hautsi eta girgiluak puskatu egiten zituen, eta ez zen inor ere hura menderatzeko gauza. Gau eta egun, hilobi artean eta mendiz mendi ibili ohi zen etengabe, marrumak eta bere burua harriz zauritzen.

Urrutitik Jesus ikustean, lasterka joan eta aurrean ahuspeztu zitzaion. Eta oihu handiz esan zion: «Zer duzu nirekin, Jesus, Goi-goiko Jainkoaren Seme horrek? Jainkoarren, ez nazazu oinazetu». Izan ere, Jesusek hau agindu baitzion: «Atera hadi gizon honengandik, espiritu gaizto hori!»

Orduan, Jesusek galdetu zion: «Nola duk izena?» Hark erantzun: «Taldea, asko gara eta».

Eta arren eta arren eskatzen zion, ez zitzala lurralde hartatik kanpora bidal.

Txerri-talde handia zebilen mendi inguru hartan, uxarrean. Espiritu gaiztoek eskatu zioten Jesusi: «Bidal gaitzazu txerrietara, beraietan sar gaitezen». Hark baimena eman zien; orduan, espiritu gaiztoak gizonagandik atera eta txerrietan sartu ziren, eta txerri-taldea ezpondan behera itsasora amildu zen; bi mila inguru txerri ito zen.

Txerrizainek ihes egin eta gertatuaren berri zabaldu zuten herrian eta auzoetan; eta jendea, zer gertatu zen ikustera etorri zen. Jesusengana iristean, han ikusi zuten deabruduna, eserita, jantzirik eta bere onean, lehen deabru-taldearen menpe zegoen huraxe bera, eta biziki



# 3

Astelehena

OTSAILA / ZEZEILA

Urteko 4. astea.

San Blas, *gotzaina eta martiria*.

San Oskar, *gotzaina*.

Santa Claudina Thévenet, *fundatzailea (Jesus-Maria)*.

---

izutu ziren. Ikusi zutenek, deabrudunari gertatua eta txerriena kontatu zieten. Orduan, beren lur-mugetatik alde egiteko eskatu zioten Jesusi.

Jesus ontzira igotzean, deabrudun izanak arren eskatzen zion berarekin ibiltzen uzteko; baina Jesusek ez zion utzi, baizik hau esan zion: «Zoaz etxera, zeure senitartera, eta jakinarazi Jaunak, zutaz errukiturik, egin dizun guztia». Joan zen, bada, eta Jesusek egin zion-na hots egiten hasi zen Dekapolisko lurraldean. Harriturik gelditzen ziren denak.

**J**esusen mirariak «Erreinuaren aldarri dira»; Jesusek berarekin batean hurbiltzen ari zela predikatu zuen Erreinuaren aldarri. Salbazio-esperantza eta askatasuna eragiten zuten, eguneroko egundoko gaitzen seinale askatzaile zirelako; izan ere, orduko herri-ikusmoldean, gaixotasunak Gaiztoagandik etorri ohi ziren; horregatik, Jesusek egiten zituen sendatzeek eta konjuruek gozamina ez ezik, esperantza ere sustatzen zuten: gaitzaren indarra hondatzen ahal zen esperantza. Kasu honetan, lurralde paganoan, «hildako» gizon bat liberatu du Jesusek, hilobi artean bizi dena, eta berez dagokion giza duintasuna itzuli dio. Deabruak hartua zena predikari bilakatu da. Geu ere, deabruak hartua zen hura bezala, Jesusen Berri Ona eramatera deituak gara, Berri On askatzailea beti, lurralde pagano babesgabeetara.

[Samuel bigarren liburutik 18, 9-10. 14b. 24-25a. 30–19, 4: Ene seme Absalom, zergatik ez naiz ni hil zure ordezt? Sal 86 [85]: Makurtu belarria, Jauna, erantzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5,21-43.

Aldi hartan, Jesus itsasoaz bestaldera itzuli zenean, jende-talde handia bildu zitzaion. Artean itsaso ondoan zegoela, sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahuspezturik, arren eta arren eskatzen zion: «Hilzorian dut alabatxoa; zatoz haren gainean eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi». Jesus harekin abiatu zen.

Jende asko zihoakion ondoren, estutuz. Bazen han emakume bat, hamabi urte hartan odol-jarioa zuena. Hamaika sendagileren eskuetan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. Jesusen berri entzunda, jende artean atzetik joan eta jantzia ukitu zion, hau baitzioen bere artean: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Une berean odol-jarioa gelditu zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean.

Berehala antzeman zion Jesusek halako indar bat atera zitzaiola barnetik eta, jende artean itzulirik, galdetu zuen: «Nork ukitu dit jantzia?» Ikasleek erantzun zioten: «Hainbeste jende estutzen zaituela ikusi, eta nork ukitu zaituen galdetzen al duzu?» Baina Jesus ingurura begira zebilen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, beldurrez dar-dar –ongi baitzekien zer gertatu zitzaion–, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. Baina Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza».

Artean hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil zaizu alaba. Zertako eman neke gehiago Maisuari?» Baina Jesusek, hitz horiek entzunik, sinagogako buruzagiari esan zion: «Ez beldur izan; zuk sinetsi!»

# 4

Asteartea / Martitzena

OTSAILA / ZEZEILA

Urteko 4. astea.

Joana Valois-koa, *erregina*.

San Joan Brito, *apaiza*, eta Rodolfo Acquaviva, *apaiza*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*.

---

Ez zion inori ere berekin joaten utzi, Pedrori, Santiagori eta honen anaitia Joani izan ezik.

Sinagogako buruzagiaren etxera iristean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea negarrez eta garrasika. Sartu eta esan zien: «Zer dela-eta horrenbeste istilu eta negar? Neskak ez dago hilda, lo dago». Haiek barre egiten zioten.

Baina Jesusek denak kanpora bidali zituen eta, neskatxaren aita-amak eta berekin zituenak harturik, neska zegoen tokira sartu zen. Neskari eskutik heldu eta esan zion: «Talitha, kum» (hau da: «Neskak, zuri diotsut, jaiki»). Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen. Jesusek zorrotz agindu zien inork ere ez zezala jakin. Eta neskatxari jaten emateko esan zien.

**B**i pertsonaia oso desberdin dira gaurko ebanjeliokoak; emakumea ezezaguna da, ekonomiaz lur joa eta «ez-garbia». Gizonezkoak badu izen bat eta itzal handiko kargua du. Biek, ordea, gauza bi komunak dituzte: 1) larria, zigortzen dituen sufrimena; 2) konfiantza eta fedea Jesusengan: fidagarri dute biek ere eta tabuak hankapean hartzeko prest dira (kutsadura emakumearen kasuan eta jendaurreko kargua gizonezkoarenean). Fede hezigabea eta xumea du emakumeak, baina irmoa. Irmoa du Jairok ere fedea eta berariaz agertu du Jesusen oinetan belauniko jarritz. Horrenbestez, Markosek agertu nahi digu, Jesusetikiko fedea era askotan azaldu daitekeela, norberaren kulturaren eta nortasunaren arabera; baina garrantzia duena Jesusengana konfiantzaz jotzea dela, oztopoak gaindituz.

Urteko 4. astea

Santa Ageda, *birjina eta martiria*.

[Samuel bigarren liburutik 24, 2. 9-17: Nik egin dut bekatu, herria zenbatzeko aginduz; baina ardiak bezala diren hauek zer egin dute? Sal 32 [31]: Barka, Jauna, nire bekatuaren errua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen. Entzule askok, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek hori guztia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian, senitarTEAN eta etxean izan ezik».

Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuk sendatu zituen, eskuak gainean ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinisgogorkeriaz. Gero, inguruko auzoetan ibili zen, irakasten.

**J**esus bere herrixkara itzuli da; aurrea hartu dio egin dituen mirarien eta agertu duen jakinduriaren zurrumurruak. Bere herritarrek elkarriz galdetzen diote: «Nondik nora du honek ahalmen hori? Nork irakatsi dio horrela hitz egiten?» Eta miresmenetik sinisgabetasunera egin dute jauzi: «Haurtzarotik ezagutzen dugu, ezaguna dugu beraren familia. Arotz baten semea da soilik». Uko egin diote Jainkoa aitortzeari ezaguna duten harengan, apala eta egunerokoa duten hartan. Gizakiak batzuetan Jainkoari berari uko egin diezaioke, hartaz egina zuen irudiari baino lehen. Jesusen ikasleak badu zer ikasia gertaera honetatik: arnasa eta babesa aurkituko zenuela uste zenuen lekuan, axolarik ezarekin egin zenezake topo, ezin ulertuarekin eta, are gehiago, etsaigoarekin; baina Jesusen arabera —«herrietan barna jarraitu baitzuen irakatsiz», ez zara gelditu zurrun, porrotak jota.

# 6

Osteguna / Eguena

OTSAILA / ZEZEILA

Urteko 4. astea.

San Martin Igokundekoa (Beasain 1567-Japonia 1597), *frantziskotarra, martiria. Santuak*: Paulo Miki, *erlijiosoa*, eta lagunak; eta *Dohatsuak*: Karlos Spinola, Sebastian Kimura, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*.

[Erregeak lehen liburutik 2, 1-4. 10-12: Ni banoa gizaki guztiak joan ohi diren bidetik. Izan adore, Salomon, eta ager zaitez gizon!  
1 Kro 29: Jauna, zeure menpe duzu dena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,7-13.

Aldi hartan, Jesus Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen, espiritu gaiztoak botatzeko ahalmena ematen ziela.

Biderako ezer ez hartzeko agindu zien, makila besterik: ez ogirik, ez zakatorik, ezta dirurik ere gerrikoan; oinetan sandaliak eraman zitzaizela; baina aldatzeko soinekorik ez.

Gero, nola jokatu esan zien: «Etxe batean sartzean, gelditu bertan herri hartatik atera arte. Eta nonbait onartzen ez bazaituztete eta entzun nahi ez badizuete, handik alde egitean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat».

Joan ziren, bada, Hamabiak eta Berri Ona hots egin zuten, jendea bihotz-berri zedin. Deabru asko botatzen zuten eta gaixo asko sendatzen, olio z gantzutuz.

**G**u geu ere bidaliak gara. Errepara diezaiozun zein hornidurarekin bidali dituen: 1) Zer aterarazi du hornidura-pilatik, zer utzarazi du kanpoan? Misioa bete, baliabide boteretsurik gabe bete behar dute...; beren konfiantza mezuaren beraren indarrean ipiniz, salbatzailea dela aitortuz, eta berez distiratuko duela, desitxuratzen eta aldrebesten duten mundutar arropaz estaltzen ez badute. Jakina, Jesusi berari gertatu zitzaion bezala, ezin utzi dute alde batera ukatuak izateko arriskua. Eta 2) Zer da eraman behar dutena? Errukia eta gupida: gizakia zapaltzen duen gaitzik dagoen lekura gidatuko dituen, haren kontra borroka egiteko. Eta inoren gainetik jartzekoa eta erabiltzekoa ez den aginpi-dea, baizik eta jendearen bizitza gizatiartzeko dena, jendearen artean Jesusen indar saneagarria tartekatzeko eta sartzeko izango dena.

Urteko 4. astea.

San Amant, *gotzaina* (*Baionako elizbarrutian*).

San Rikardo, *erregea*.

[Si 47, 2-13 (gr. 2-11): Bihotz-bihotzez kantatzen zituen Davidek gozarreak eta bere Egilea maitatzen. Sal 18 [17]: Bedeinkatua nire Jainko salbatzailea!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,14-29.

Aldi hartan, jakin zuen Herodes erregeak Jesusen berri, honen izena oso ezaguna baitzen. Batzuek zioten: «Joan Bataiatzailea piztu da hilen artetik; horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori». Beste batzuek, berriz: «Elias da». Eta beste zenbaitek: «Profeta da, antzina-kon profetak bezalakoa». Iritzi hauek entzutean, hau zioen Herodesek: «Nik lepoa moztu nion Joan huraxe piztu da».

Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaeren emaztea edukitzea».

Horregatik, gorroto zuen Herodiasek Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuzen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion.

Etorri zitzaion, ordea, Herodiasi aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudalburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzan egin zuen, eta atsegin izan zitzaion Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatxari: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin eginenez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskatxa eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?» Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua».

Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oiraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen bu-

Urteko 4. astea.

San Amant, *gotzaina* (*Baionako elizbarrutian*).San Rikardo, *erregea*.

rua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion, eta azpilean ekarri zuen burua; neskatzari eman zion, eta neskatzak amari.

Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

**B**i unetan ageri da Herodes hau; bietan, bera gaizki ez gelditze-ko, tragedia izan dute azkena. Lehena, Bataiatzailearen hilketarena da: gaizki ez gelditzeagatik —«egin zuen zinagatik eta gonbidatuengatik»— hura lepo egiteko agindu du. Bigarrena, Pilatok bidalirik Jesus hartu duen ueña da; Jesusek hitzik egiten ez diolako uste gabeturik, Pilatorengana bidali du Jesus berriro, harekin ondo gelditzeko, burlaz soingaineko eder batez jantzirik. «Ondo gelditu behar honek» iseka eragin dio Herodesi eta Jesus salbatu gabe uztea. Herodes honek eragin diezaguke hausnartzera geuk ere izaten dugun «ondo gelditu behar» horren jarrera; gertatzen baitzaigu geuri ere atzera egin nahi ez izatea erabaki okerren bat hartu ondoren... nahiz ez duen izango hain azken tragikorik, baina bai beti ondorio kaltegarririk besteentzat.

Urteko 4. astea.

San Jeronimo Emiliani, *aitorlea*

(*umezurtzen eta gaztedi utziaren zaindaria*).

Santa Josefina Bakhita, *erlijiosa*.

[Erregeak lehenengo liburutik 3, 4-13: Emaiozu zeure zerbitzari honi adimen argia, zure herria gobernatzeko. Sal 119 [118]: Irakatsi niri, Jauna, zeure arauak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,30-34.

Aldi hartan, apostoluek, berriro Jesusengana bildu zirenean, egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesusek esan zien: «Zatozte zuek bakarrik leku bakarti batera, eta hartu atsedeen pixka bat». Asko baitziren joan-etorrian zebiltzanak, eta ez zuten jateko ere astirik.

Orduan, bazter batera joan ziren beraiek bakarrik, txalupaz. Baina jende askok ikusi zituen alde egiten, eta nora zihoazen igarri ere bai, eta herri guztietatik leku hartara jo zuten lasterka, oinez, haieci aurrea hartuz.

Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen. Errukitu zitzairen, artzain gabeko ardiak bezala baitzebiltzan, eta luzaro irakasten hasi zitzairen.

**J**esusek atsedetera dei egin die ikasleei eta misioaldian metatuz joan diren esperientziak partekatzerara. Asmoak, ordea, huts egin dio, «jendetza» bat ikusi eta pena eman baitio eta patxadaz irakasten hasi zitzairen. Jesusentzat, izan ere, gupidak ez du tarterik atsedenerako. Ikasleek hori Jesusen hurbiletik ikasteko aukera izan dute; jakin beharrra dute, beraz, alde batera uzten ondo egituratuak dituzten planak, ustekabean jendea agertu eta hurbiltasun gupidatsua eta arreta handi eta patxadatsua eskatzen dienean. Hurbiltasun gupidatsu hau, presarik gabe, ikasi beharra dute hezitzaileek ere, gurasoek ere, beren seme-alabekin, bikoteek ere beren artean.



Urteko 5. astea.

Santa Apolonia, *martiria*.San Migel Febres Cordero (Migel anaia), *erlijiosoa*.

## § Isaias Profetaren liburutik 58, 7-10.

Honela mintzo da Jauna:

«Eman zeure ogitik gose denari  
eta hartu etxean aterperik gabeko behartsuak;  
jantzi biluzik dagoena,  
eta ez egin entzungor zeure gizakideari.

Orduan zure argia egunsentia bezala zabalduko da eta zure osasuna berehala erneko; justizia izango duzu aurretik gidari eta Jaunaren aintza atzetik babesgarri.

Orduan zuk dei egin, eta Jaunak erantzungo dizu; zuk oihu egin, eta hark esango: “Hemen nauzu!”

Uztari oro, salaketak eta gaizki esateak baztertzen badituzu, gose denari zeure ogitik ematen eta behartsuaren premia asetzen baduzu, zure argia ilunpean zabalduko da eta zure ilunaldia eguerdi bihurtuko».

[Sal 112 [111]: Jaunari begirune diona ilunpean argia bezala da zintzoentzat.]

## § San Paulok 1 Korintoarrei 2, 1-5.

Senideok: Niri dagokidanez, Jainkoaren salbamen-asmoa iragarztera joan nintzaizuenean, ez nizuen hitz egin giza jakinduriatzko hizkera landua erabiliz. Izan ere, zuen artean ez nuen ezer jakin nahi izan, Jesu Kristo, eta berau gurutziltzatua, izan ezik.

Horregatik, ahul eta beldurrez dar-dar agertu nintzen zuen aurrean. Nire hitza eta predikua ez ziren giza jakinduriatzko argudiotan oinarritu, Espirituaren indarrean baizik, horrela, zuen sinesmena Jainkoaren indarrean oinarri zedin, eta ez giza jakindurian.

Urteko 5. astea.

Santa Apolonia, *martiria*.

San Migel Febres Cordero (Migel anaia), *erlijiosoa*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 13-16.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurraren gatz. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko baizik.

Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean ipintzeko, argimutilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien.

Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita goretz dezaten».

**A**rgi izatea eta gatz izatea misio-agindu bat da: kontua ez da norberarentzat argi eta gatz izatea, baizik eta argi munduarentzat eta gatz lurrarentzat. Eta Ebanjelioa hots egin beharra dugu, ez hitzez bakarrik, baizik eta bereziki «geure egiteez», bizieraz. Gaur egun, izan ere, konbentzitzen eta interpelatzen dutenak, ez dira hitzak, baizik bizi-esperientziak eta egiteak, sinesten denarekin bat datozenak. Argi eta gatz izatea egintza gozagarria da, baina zaila ere bai. Sakrifizioa eskatzen du, ahalegintzea, uko egiten jakitea. Kandelak bera ahitu edo gastatu ahala egiten du argi; gatzak bera urtu ahala ematen du gustu edo zaporea. Izan ere, geure inguruan bizia eragiteko, norberaren bizitik zerbait eman beharra izaten da. Baina argi eta gatz izanik, Jesusen antza hartuko dugu, argi eta gatz izan baitzen hura ere, bere burua gastatuz erabateko eskaintzeraino, mundu haurridetsuago bihurtzeko, anai-arreba artekoago egiteko. Testigu izateko, geurekin izango dugu haren laguntza, arnasa emango digu aurrera jotzeko. Lehen irakurgaiari Isaias profetak esan digun bezala, argi izatearen testigantza zaila egingo dugunean eta «dirdaitsu» bihurtuko garenean, maitasuna eta zuzentasuna geure bizi bihurtuko ditugunean, Jaunari dei egiteko moduan izango gara, eta haren erantzun hau jasoko dugu: «Hemen nauzu».

Urteko 5. astea.

Santa Eskolastika, *birjina*

[Erregeak lehenengo liburutik 8, 1-7. 9-13: Ezarri zuten itun-kutxa toki santu-santuan, eta hodeiak bete zuen Jaunaren etxea. **Sal 132 [131]:** Jaiki zaitez, Jauna, zatoz zeure atsedenekura.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,53-56.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak, itsasoa igaro ondoren, Genesaretera iritsi ziren eta bertan lehorreratu.

Ontzitik atera orduko ezagutu zuen jendeak Jesus, eta lurralde hartan barna joan ziren; eta Jesus nora, haraxe eramaten zizkieten gaixoak ohatiletan. Jesus joaten zen herri, auzo nahiz baserrietan, gaixoak atarrietan ipintzen zizkieten. Soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

**G**aixotasunean agertu ohi da modurik gordinenean gizakiaren ahuldadea; eta agerikoago izan ohi da ahuldade hori, bizi duen pertsona behartsua denean, nora joanik ez duenean sendagile eta botika bila. Gaixo horien bila dabil Jesus («lurraldean barna ibili ohi zen») eta bera aurki zezaten uzten zien («plazan jartzen zituzten»). Hurbiltasun fisikorik handiena ukimena da. Jesusek ukitu egiten zituen eta uki zezaten uzten zien. Hurbiltasun horrek sendatzea ekarri ohi zuen eta esperantza berreskuratzea. Errepara diezaiegun hurbil ditugun gaixoei: ez dugu Jesusen ahalmen sendagilerik, baina imita dezakegu haren hurbiltasuna. Kontsolatzea eta esperantza ematea, geure gainjantzi pobre eta neurritsuaren ertza ukitzen uztea bezala izango da.

Urteko 5. astea.

Andre Maria Lourdeskoa.

San Paskual 1.a, 98. aita santua.

[Erregeak lehenengo liburutik 8, 22-23. 27-30: Zure bizilekua hau izango dela esan duzu. Entzun zeure herri Israelen eskaria. Sal 84 [83]: Bai maitagarria zure egoitza, Jaun ahalguztiduna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,1-13.

Aldi hartan, fariseuak eta Jerusalemdik etorritako lege-maisu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi, eta ikasleetako batzuek esku kutsatuekin –hau da, eskuen garbikuntza egin gabe– jaten zutela ikusi zuten. Izan ere, fariseuek, eta juduek oro har, ez dute jaten lehenbizi eskuak arretaz garbitu gabe, zaharren ohiturari tinko eutsiz. Azokatik etxeratzean ere, ez dute jaten garbikuntza egin gabe; eta badute ohiturazko beste hamaika betebeharrak: hala nola, edalontzi, pitxer eta suilen garbiketa.

Horrela bada, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten Jesusi: «Zergatik ez dute zure ikasleek zaharren ohiturari dagokionez jokatzen? Nolatan jaten dute esku kutsatuekin?» Jesusek erantzun zien: «Itxurazaleok halakook! Ederki asko esan zuen zuetaz Isaias profetak, honako hau idatzi zuenean:

“Herri honek ezpainez ohoratzen nau,  
baina urruti du bihotza;  
alferrik naute gurtzen,  
hauen irakaspena giza agindu hutsa da”.

Zuek Jainkoaren agindua bazterrera utzi eta giza ohiturari eusten diozue».

Eta jarraitu zuen: «Bai, lasai asko zokoratzen duzue Jainkoaren agindua, zeuen usadioak ezartzeko. Esate baterako, Moisesek esan zuen: “Ohoratu aita-amak”, eta “Aita nahiz ama madarikatzen duenak heriotza-zigorra izango du”. Zuek, berriz, beste hau diozue: “Norbaitek aitari edo amari esaten badio: Zuri eman behar nizukeena ‘Korban’

Urteko 5. astea.

Andre Maria Lourdeskoa.

San Paskual 1.a, 98. aita santua.

da (hau da, tenplurako opari), halakoak ez du aitari edo amari ezertan lagundu beharrik”. Horrela, Jainkoaren hitza baliogabe uzten duzue zeuen arteko usadioengatik. Eta horrelako asko egiten duzue».

«**E**zpainez ohoratzen naute; baina urrun dute bihotza nigandik». Horixe azpimarratu du Jesusek ere. «Kultu hutsala»: uste dute, arauak kanpotik betetze hutsarekin atsegintzen dutela Jainkoa; magiazko ariketa hutsez; gainera, horren truk Jainkoari «fakturak» aurkezten dizkiote: «betetzailerik on izateagatik», Jainkoak ordaindu beharra omen dielako. Baina Jainkoa Aita da, eta –seme-alaba izatea erregalu eman digularik– gure bihotza nahi du: geuregan jatorrena dugun alde hori; eta, hori guztia, ez tiraniaz eta gu kontrolatu nahiz, baizik pertsona arteko harremanak eraikitzeko: bihotzetik bihotzera. Arau asko bete ahal dira eta Jainkoagandik urrun bizi. Kultu hau eskatzen du Jesusek: aitortzen duguna eta bizi duguna bat egiten dituen.

\*\*\*

### Lourdesko Andre Maria

Lourdesek Bernadette Soubirous (1844-1879) dakarkigu gogora, eta bertako 18. agerraldiak, 1858an. Pobrea zen Bernadette. Pobrea Mariak hautatu lekua ere eta zikina. Gaurko egoera oso urrun orduko egoeratik? Otsailaren 25ean, iturritik ura edateko esan zion Mariak. Laster agertu zen ur-jarioa; gaur ere erromesek baliatzen duten iturria.

Sinbolo inportantea da ura. Argia piztea ere sinbolo handia da. Baina milaka kandela pizteak sinbolotasun guztia desegiten du.

Hango mirariez, lekuko bat: Alexis Carrel (=Lerrac), ospe handiko sendagilea, sendatze baten lekukoa. Bere buruaz dio: «Eta Haitzulora joan zen, kontenplatzera [...], bihotzari otoitz hau zeriola: Birjina santua, zoritarrekoen laguntza [...], salba nazazu. Sinesten dizut: nire dudari mirari baten bidez erantzun diozu. Ez dut ulertzen eta dudak ditut oraino».

Urteko 5. astea.

Santa Eulalia Bartzelonakoa, *birjina*.San Modesto, *martiria*.

[Erregeak lehenengo liburutik 10, 1-10: Ikusi zuen Sabako erreginak Salomonen jakinduria handia. Sal 37 [36]: Zintzoaren ahoari jakinduria dario.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,14-23.

Aldi hartan, Jesusek jendeari berriro dei esan zion: «Entzun denok eta ulertu ongi.

Ez da ezer, kanpotik gizakiaren barrura sartuz, hau kutsa dezakeenik; barrutik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia».

Jendea utzi eta etxeratu zenean, hitz horien esanahiaz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Beraz, ez duzue zuek ere ulertzen? Ez al duzue ikusten kanpotik sartzen zaion ezerk ez dezakeela gizakia zikindu? Sartu, ez baitzaio bihotzean sartzen, sabelean baizik, eta handik komun-zulora doa». Hitz hauekin, janari guztiak garbiak direla adierazi nahi zuen.

Eta gaineratu zuen: «Barrutik ateratzen denak, horrek bai egiten duela gizakia zikin. Izan ere, barrutik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen dira asmo txarrak, lizunkeria, lapurretak, hilketak, adulterioak, diru-gosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasaikeria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria. Gaiztakeria hauek guztiak barrutik ateratzen dira, eta hauek dute kutsatzen gizakia».

**B**ihotza izan ohi da gizakiaren neurria. «Bihotza»: erdigunea esan nahi du, pertsonaren muina, orobatasuna. Garbi edo ez-garbi egiten gaituena, bihotz baretetik irteten dena da, bihotza dugu geure egiteen sorburua. Horregatik, gure bihotzari, gure «barneari», darizkion jardura-arrazoien garbitasuna da gure Aitari axola zaiona. Gure bihotza da berari atxikirik ikusi nahi duena; horrela, «kanpoko», bihotzean hazi denaren adierazpen osasungarri izango da. Jainkoari atxikirik ez badago, harrokeria-gune izango da gure bihotza, neurririk gabeko egoismo-gune.

Urteko 5. astea.

San Benigno, *martiria*.San Kastor, *apaiza eta ermitaua*.

[Erregeak lehenengo liburutik 11, 4-13: Nire ituna gorde ez duzulako, kendu egingo dizut erreinua; baina Davidengatik leinu bat utziko diot zure semeari. **Sal 106 [105]**: Oroitu gutaz, Jauna, zeure herri-ganakako onginahiagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,24-30.

Aldi hartan, Jesus Tiro aldera joan zen. Etxe batean sartu zen, eta ez zuen inork jakiterik nahi; baina ezin izan zen ezkutuan egon.

Alaba espiritu gaiztoak hartua zeukan emakume bat, Jesusen berri jakin zueneko, etorri eta oinetan ahuspeztu zitzaion. Emakumea jentila zen, feniziarra. Eta alabagandik deabrua botatzeko eskatzen zion Jesusi.

Jesusek erantzun zion: «Utzi lehenbizi seme-alabak asetzen; ez daغو ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea».

Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte seme-alaben ogi-apurrak mahaipean».

Orduan, Jesusek: «Erantzun horrengatik, zoaz; atera da deabrua zure alabagandik». Itzuli zen etxera, eta ohean etzana aurkitu zuen neskatxa; alde egina zen deabrua.

**H**unkigarria da ama pagano honi erreparatzea: beraz dakigun guztia, erreguka ari dela da, ez duela eskatzen beretzat eta, konfiantza eten-gabez eskatzen duela, Jesusen hasierako ezezkoari gaina hartuz –harrigarriro gogorra izan da Jesusen ezezkoa–, esperantzarako zirrikitu guztiei bidea ixten ziela ematen bazuen ere. Konfiantza biribil-biribila agertu du, Jesus inolako armarik gabe uzteraino, eta, azkenean, konbentziarazi egin du, asmoz aldarazi eta, are gehiago, irakasletzat hartu du emakumea Jesusek: arrazoa eman dio. Horixe da, aldi berean, Jesusen apaltasuna eta handitasuna ere: Maisua ikaslearen ikasle egin da, ikaslearen fedearen jatoritasunaren ikasle. Eta Jesusek, hainbat aldiz otoi-tzaren balioaz eta, gaez izanik ere, adiskide astun batek bezala eskatu behar dela esanez hitz egin digunak, onartu egin du emakumearen eskaria.

Urteko 5. astea.

San Zirilo, *monjea* eta San Metodio, *gotzaina*.

(*Europako Zaindariak*).

San Valentín, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 13,46-49: Jentilengana joko dugu. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara.

Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arku-meak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten.

Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!” Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria.

Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaitzete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”».

**E**ginkizunaren handia eta premia direla-eta, «bideari ekin behar zaio». Arrakasta ez dagoke soilik ikasleen lanaren baitan, baizik eta «uztaren jabeari» egindako otoitzarena ere kontuan izan behar da. Otzantasuna eta ahuldadea kristau-misioaren funtsezko osagai dira. Izan ere, San Joan Krisostomok esaten zuenez: «bildots garen bitartean, garaile gara; otso bihurtzen bagara, galtzaile izango gara; orduan falta izango baitugu Artzainaren laguntza, zeinak bildotsak bazkatzen baititu, eta ez otsoak». Misiolariak bere errealitate bihurtu behar du San Pauloren esaldi hau: «Ahul naizenean, orduan naiz indartsu»: soilik, Jainkoaren Hitzaren «ahuldade boteretsuarekin da indartsu. Eta aldarrikatu behar du, «Jainkoaren Erregetza gugandik hurbil dugula».



Urteko 5. astea.

Santa Jovita, *martiria*.San Klaudio de la Colombière, *apaiza, jesuita*.

[Erregeak lehenengo liburutik 12, 26-32; 13, 33-34: Jeroboamek urrezko bi zekor-irudi egin zituen. Sal 106 [105]: Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginahiagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,1-10.

Egun haietan, berriro jendetza oso ugaria izanik eta zer janik ez, Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; bada-ramate hiru egun nirekin eta ez dute ezer ere jateko. Etxera baraurik bidaltzen badituz, bidean akiturik geldituko dira, urrutitik etorriak ere badira eta». Ikasleek esan zioten: «Baina nondik atera bakardade honetan hauek asetzeko adina ogi?»

Hark galdetu zien: «Zenbat ogi duzue?» Eta haiek erantzun: «Zazpi».

Orduan, jendeari lurrean esertzeko agindu zion. Gero, zazpi ogiak hartu eta, Jainkoari esker onezko otoitza egin ondoren, zatitu eta bere ikasleei eman zizkien, bana zitzaten. Haiek jendeari banatu zizkioten. Bazituzten arraintxo banaka batzuk ere; Jesusek bedeinkatu zituen eta haiek ere banatzeko agindu zien.

Asetzeraino jan zuten denek, eta zazpi otarre bete zituzten hon-darrekin. Lau mila inguru ziren. Ondoren, Jesusek agur egin zien, eta bere ikasleekin txalupara igo eta Dalmanuta aldera joan zen.

**J**esus basamortuan tentatua izan da eta deabruak, goseak dagoela baliatuz –eta Jainkoaren Seme izatea bere probetxurako erabiltzea proposatuz– harriak ogi bihurtzeko iradoki dio. Eta Jesusek erantzun: «Gizakia ez da ogitik bakarrik bizi, eta bai Jainkoaren ahotik irteten den hitz orotatik». Gure gizarte sekularizatuaren tentazio larrietako bat da ogitik bakarrik bizi nahi izatea, eta, jakina, ogi material eta galkorretik bakarrik. Baina Dorothee Sölle emakume teologoak esan zuenez: «Ogitik bakarrik bizi dena, ogitik bakarrik hiltzen da». Hau bikain egiaztagarria da gure gizarte kontsumista, teknifikatu, esperantza gabea; transzendentzia falta zaio eta zentzurik emango liokeen horizontea. Beste gose bat esnatu edo eragin beharra dugu gizarte honetan: bizi-ogiak, Jesusek, bakarrik ase dezaken gosea.

Urteko 6. astea.

San Onesimo, *gotzaina eta martiria*.

Santa Juliana, *birjina eta martiria*.

§ Siraken liburutik 15, 16-21 (gr. 15-20).

Nahi baduzu, gordeko dituzu aginduak, eta zintzo beteko Jaunaren nahia.

Hark sua eta ura jarri dizkizu aurrean; nora nahi, hara eraman dezakezu eskua.

Bizia eta heriotza daude gizakiaren aurrean jarriak; zer duen aukeratzan, huraxe emango zaio.

Handia da, bai, Jaunaren jakinduria, handia da haren ahalmena eta dena ikusten du. Begirune diotenengan ditu jarriak begiak, gizakiak egindako guztia ezagutzen du.

Ez dio inori fedegabe izateko agindu, ezta inori bekatu egiteko baimenik eman ere.

[Sal 119 [118]: Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 2, 6-10.

Senideok: Jakinduria irakasten diegu guk kristau helduei; baina jakinduria hori ez da mundu honetakoa, ezta laster galduko diren mundu honetako agintariena ere. Guk Jainkoaren jakinduria misteriotsua irakasten dugu, hark ezkutuan edukia eta betidanik gure aintzarako erabakia zeukana. Mundu honetako agintarietako inork ez du ezagutu jakinduria hori, zeren, ezagutu izan balute, ez baitzuten gurutziltzatuko Jainkoaren aintza berekin zuen Jauna.

Baina, Liburu Santuak dioen bezala, «inork ikusi eta entzun ez duena, gizakiari inoiz bururatu ez zaiona, Jainkoak bera maite dutezentzat prestaturik zeukana», horixe agertu digu Jainkoak Espirituaren bidez. Espirituak, izan ere, guztia aztertzen du, baita Jainkoaren barren-barrena ere.

Urteko 6. astea.

San Onesimo, *gotzaina eta martiria*.Santa Juliana, *birjina eta martiria*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 17-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzera etorria naizenik; ez naiz baztertzera etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte.

Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan.

Hara zer diotsuedan: Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan.

Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da.

Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia.

Konpon zaitetz lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzairearen esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako, azken txanpona ordaindu arte.

Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez egin adulteriorik”. Nik, ordea, hau diotsuet: Emakumeari irrikaz begiratzen dionak egin du jadanik adulterioa bere bihotzean.

Eskuineko begia galbide bazaizu, atera eta bota zeuregandik urruti: hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura jaurtia izan baino. Eskuineko eskua galbide bazaizu, moztu eta bota zeuregandik urruti: hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura joan baino.

Urteko 6. astea.

San Onesimo, *gotzaina eta martiria*.

Santa Juliana, *birjina eta martiria*.

Agindua dago hau ere: “Emaztea uzten duenak eman diezaiola dibortzio-agiria”. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere emaztea uzten duenak –legez kontra elkartuak ez badira behintzat– adulteriora bultzatzen du emaztea; eta utzitako emakumearekin ezkontzen denak adulterioa egiten du.

Entzuna duzue antzinakoei agindu zitzaiena: “Ez egin gezurrezko zinik”, eta “bete Jaunari egindako zinak”. Nik, ordea, hau diotsuet: Ez egin inolako zinik, ez zeruagatik, Jainkoaren tronua baita; ez lurragatik, haren oin-aulkia baita; ezta Jerusalemengatik ere, Errege handiaren hiria da eta. Ez egin zinik zeure buruagatik ere, ez baitezakezu zeure ile bakar bat ere zuri edo beltz bihurtu.

Zuek esan ezazue “bai”, bai denean, eta “ez”, ez denean; gainera koa gaiztoagandik dator».

**J**esusek ikasleei «hobea den zuzentasuna» eskatu izan die beti (Jainkoaren nahia leial betetzea). Horretarako, Legea berrinterpretatzera jo du: a) Aitaren jatorrizko nahia berreskuratuz (dibortzioaren debekuaren kasua da); b) hierarkizatuz, mailarik gorenean maitasunaren irizpidea ezarriz (Jainkoarekiko maitasuna eta gizakiekikoa); c) errotikotasunera joz.

Errotikotasun hau, urrunagora joateko zirikada bat da Legearen funtsa betetzeko eginkizunean (ez hiltzeko agindua ez da mugatzen hilketa fisikora; badira jendea hiltzeko era sotilagoak ere: iraina, deskalifikazioa... anaia / arreba pixkana hiltzen joaten dira; adulterioa, begirada lizunarekin hasten da, bihotzean; han sortzen dira desirak, gerora egitate bihurtuko direnak. Jarraitzaile izan nahi dugunok, sustriaiak miatzera, bereiztera eta sakontzera gonbidatzen gaitu Jesusek: desirak sortzen diren eta buru-engainuak mozorrotzen diren eta egitate kaltegarri bihurtuko diren lekuan berean.

Jesusen hizkuntza sinboliko eta xaxatzaile hori argibide bat da, agindu bat baino gehiago, zein portaera zehatz hartu adierazteko. Haren orientabideek «gehiago» bat dute beti horizonte edo helmuga; haietan ez dute balio kalkulu etorkor edo komenigarriek, ezta kanpoko betetze hutsek ere.

Andre Mariaren Zerbitzarien *Zazpi Fundatzaile Santuak*.  
Amaseako (gaur egungo Amasia, Turkian)  
San Teodoro, *martiria*.

[Santiagoren gutunaren hasiera 1, 1-11: Tentaldiak iraupena dakarkio zuen sinesmenari, on-onak eta beteak izan zaitezten. **Sal 119 [118]:** Betorkit zure gupida, Jauna, biziberri nadin.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,11-13.

Aldi hartan, fariseuak etorri eta Jesusekin eztabaidan hasi ziren. Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten azpikeriaz. Jesusek, barrutik hasperen eginez, esan zien: «Zer dela-eta ari da gizaldi hau seinale emeske? Benetan diotsuet: Gizaldi honi ez zaio seinalerik emango».

Eta, haiek utzirik, berriro txalupara igo eta bestaldera abiatu zen.

**D**eabruak basamortuan Jesusi seinale miresgarri eta ikusgarri bat ere eskatu zion: bota zezala bere burua Tenpluaren hegaletik behera; horrelako egintza batek sekulako zirrara eragingo zukeen eta bere burua pixkana eta astiro agertzen joateko lana kenduko ziokeen. Jesusek uko egin zion. Ez da hori Jainkoak aukeratu duen bidea bere burua agertzeko. Jainkoa ez da mintzo, ez tximista baten edo gehiagoren bidez, ez lurrikara baten bidez, baizik eta egunerokoaren brisa arinaren bidez (1 Erregeak 19,3-13). Jainkoaren presentzia agerian ipintzeko, seinale zaratatsuen bila ibili ohi garenean, itsurik bizi ohi gara (agian, hartan jarraitu nahi izaten dugu) haren eguneroko ukitu eta igurtziak sumatzeko: beti hurbilagoko baita eta, horregatik beragatik, konprometigarriago. Egunero etortzen zaigu bidelagun, egunero ari zaigu kei-nuka, egunero digu bere burua eskaintzen; horrela gaitu gonbidatzen berari erantzutera.

[Santiago Apostoluaren gutunetik 1, 12-18: Jainkoak ez du inor tentatzen. **Sal 94 [93]:** Zorionekoa, Jauna, Zuk hezten duzuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,14-21.

Aldi hartan, ikasleei ogia hartzea ahaztu zitzairen, eta bat bakarra zeukaten ontzian. Jesusek ohar hau egin zien: «Begira gero! Kontuz ibili fariseuen eta Herodesen legamiarekin».

Haiek, berriz, eztabaidan ari ziren elkarrekin, ogirik ez zutelako. Konturatu zen Jesus eta esan zien: «Zer ari zarete ogirik ez duzuela eta? Oraindik ez al duzue ulertzeko adimenik? Hain burugogorak al zarete? Begiak izan, eta ez al duzue ikusten? Belarriak izan, eta entzuten ez? Ez al duzue gogoan, bost mila gizonen artean bost ogiak banatu nituenean, zenbat saski bete zenuten hondarrekin?» «Hama-bi», erantzun zioten. «Eta lau mila gizonen artean zazpi ogiak banatu nituenean, zenbat otarre bete zenuten hondarrekin?» Erantzun zioten: «Zazpi». Orduan, Jesusek: «Eta oraindik ere ez duzue ulertzen?»

**J**esusek aurpegiratu die ikasleei: «Ez al zarete gogoratzen?» Guri ere egiten digu huts oroimenak. Baina, lehorraldiari aurre egiteko Loiolako Ignaziok proposatzen dizkigun bideetako bat oroitzea da: «Pozaldian dagoenak pentsa beza nola ibiliko den gero etorriko zaion lehorraldian, ordurako hartuz indar berriak» (Gogo Jardunak, 323). Pista bikain bat eskaini digu bizitzarako. Geure bizitzan behin baino gehiagotan izango dugu jo beharra «oroitzapen salbatzaileetara», ilunaldiak iritsiko direnean, zeinetan lurra huts egin baitigu eta «jainkozkoa ezkatatu». Orduan oroitzapenera jo beharra izango dugu (bihotzari errepaso bat eman beharra), Jaunaren harreman kontsolagarri bat izan genuen hura begi aurrera ekartzeko. Nazaretako Mariak «oroitzapen salbatzaile hauetara» jo ohi zuen (Lukas 2,19.51).

Urteko 6. astea.

San Konrado Confalonieri, *ermitaia*.

[**Santiagoren gutunetik 1, 19-27:** Bete ezazue mezua, entzute hutsan gelditu gabe. **Sal 15 [14]:** Nor bizi daiteke, Jauna, zure mendian santuan?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,22-26.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Betsaidara iritsi ziren, eta itsu bat ekarri zioten, uki zezala eskatuz.

Jesusek itsuari eskutik heldu eta herritik kanpora atera zuen. Begiak listuz igurtzi ondoren, eskuak gainean ezarri zizkion eta galdetu: «Ikusten al duzu ezer?» Hark begiratu eta esan zuen: «Gizonak-edo nabarrit ditut: zuhaitzak dirudite, baina ibili dabiltza».

Orduan, berriro eskuak ezarri zizkion begietan eta argi ikusten hasi zen gizona; sendaturik gelditu zen, guztia garbi-garbi ikusten zuela. Jesusek etxera bidali zuen, herrian sartu ere ez egiteko aginduz.

**J**esusek, batzuetan, urrunetik sendatu ohi zuen edota bere hitz hutsaz. Oraingo honetan, mailaka jokatu du. Horrela, adierazi nahi digu, ikusmena berreskuratzeak, argia eta fedea aurkitzeak, prozesu bat behar izaten duela, prozesu mantso bat: duda-mudak, zalantzak, zauriak gaintitzeak bere denbora behar izaten baitu, halakoak denborekin sendatzen baitira. Prozesu horiek aintzat hartu beharra dugu. Lehenik eta behin, geure buruarekin pazientzia ukanez, Jaunak geure zauriak senda ditzan utziz, itxiz joan daitezten. Baina, jakin beharra dugu ulermena eta begirunea izaten ere gainerakoen prozesuekin: Jesusek gauz hazi ohi den haziaren parabolan argitu zuen bezala, izpia ez da derrigortu behar luzatu eta luzatu, hausteraino. Fedeak heldutasun eta hazkunde-aldi bat behar izaten du.

Urteko 6. astea.

San Leon, *gotzaina*.

Fatimako Hiiazinta eta Frantzisko, anai-arrebak, *santuak*.

[Santiagoren gutunetik 2, 1-9: Ez al ditu aukeratu Jainkoak pobre direnak? Zuek, berriz, gutxietsi egiten duzue pobrea. Sal 34 [33]: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburitik 8,27-33.

Aldi hartan, Feliperen Zesarea inguruko auzotara abiatu zen Jesus bere ikasleekin. Bidean galdera hau egin zien ikasleei: «Ni nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun zioten: «Bat zuek Joan Bataiatzailea zarena; beste bat zuek Elias; besteek profetaren bat». Jesus ek berriro galdetu zien: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun: «Zu Mesias zara».

Inori ez esateko agindu zien Jesus ek zorrotz. Orduan, irakasten hasi zitzairen, Gizonaren Semeak asko sufritu beharra zuela; zahar, apaizburu eta lege-maisuek gaitzetsi egingo zutela eta hil; eta hiru egunen buruan piztuko zela. Argi eta garbi mintzatzen zitzairen honetaz.

Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion. Baina Jesus ek, itzuli eta ikasleei begira, gogor eraso zion Pedrori, esanez: «Alde nire ondotik, Satanas! Zure asmoak ez dira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

**J**esusek galdera egin die ikasleei. Eta Pedrok erantzun dio, «Mesias» dela aitortuz. Erantzun zuzena, baina ez-oso artean, eta oker ulertuei bide ematen diena; izan ere, ikuspegi herrikoiek mesianismo garaile eta nazionalista zuten buruan. Horregatik, zuzendu egin du Jesus ek Pedrorena. Eta berehala «ikasleei irakasten» hasi da, gizonaren Semearen nekaldia eta piztuera lehen aldiz iragarritz. Jesusena, Zerbitzari Sufritzailearen mesianismoarekin ahokatzan dena da. Pedrok, ordea, nahasirik, ez du onartu Jesus en bide hori. Berak buruan duen mesianismoan ez du lekurik, ez gatazkak, ez sufrimenak, ez gurutzak. Maneiatu egin nahi du Jainkoa, bere erara hartu nahi du: egin dezala Jainkoak berak, Pedrok, nahi duena. Geuk ere zenbat aldiz esaten dugun Jainkoaren nahia egin nahi dugula! Bitartean zer asma ibili ohi gara harena geurearekin bat etor dadin.



Urteko 6. astea.

San Pedro Damiani, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

[Santiagoren gutunetik 2, 14-24. 26: Gorputza arnasarik gabe hila dagoen bezala, halaxe fedea ere: egintzarik gabe hila dago. Sal 112 [111]: Zorionekoa Jaunaren aginduak biziki maite dituen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,34–9,1.

Aldi hartan, Jesusek jendeari eta ikasleei dei egin eta esan zien: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzeta eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia nigatik eta Berri Onagatik galtzen duenak, ordea, gorde egingo du.

Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bizia galtzekotan? Eta zer eman dezake gizakiak bizia berriro eskuratzeko?

Beraz, norbait, gizaldi desleial eta bekatari honen aurrean, nitaz eta nire mezuaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatu egingo da hartaz, bere Aitaren aintzaz beterik aingeru santuekin etorriko de-nean».

Eta honela amaitu zuen: «Egia diotsuet: Hemen direnetako batzuk ez dira hilko, Jainkoaren erreinua ahalmenaz etortzen ikusi arte».

**J**esusek proposatu digun bidea zorrotza da. Nork bere buruari uko egitea ez da nor izateari uztea; baizik eta bizitza norberaren ikusmol-detik, egozentrismotik, eratu nahi izateari uko egitea, Jesusen ondoren bide egiteko («nigatik eta Ebanjelioagatik»), buru-eskaintza solidario eta zerbitzura joz, jakinik, askotan, sakrifizioa, gurutze-ezpalak dituela berekin. Munduaren begietan «galera» ematen duena irabazia da: bizit-zari zentzu bat ematea da eta, hemen jada, Erreinuko bizitza gozatzen hastea, gizakiak bere hondoaren hondoan antsiatzen duena, maitasun-etik eta maitasunerako baita egina. Antonio Machado poetak aitortu zuena: «Eskuan duzun moneta / gorde ahal izango duzu agian. Arima-ren monetatxoa / galdu egingo duzu ematen ez baduzu».

Urteko 6. astea.

San Pedro apostoluaren gotzain-aulkia.

Santa Margarita Cortona-koa, *erlijiosa*.

[1 Pedro liburutik 5,1-4: Haiek bezala arduradun eta Kristoren sufrimenduen testigu naizen honek. Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

**S**an Pedro Erromara iritsi izana ospatzen dugu gaur. «Ut unum sint» entziklikan, 1995ean argitara emandakoan, Joan Paulo II.a aita santuak zioen, jakinaren gainean zegoela, ezen Erromaren Primatua –batasunaren seinale eta berme dena–, halaz guztiz, oztopo bat zela katoliko ez diren kristautentzat (UUS, 88), eta bilatu beharra azpimarratu zuen –nola artzainen aldetik hala teologoek aldetik– «Primatua praktikatzeko era bat, beraren misioaren funtsari inolaz ere uko egin gabe, egoera berri batera ireki dadin» (UUS, 95). Erregutu dezagun, «ministerio petrinoa», hain emankorra azken pontifizegoetan, lagungarri izan dadin Elizen batasunerako (zeinen ikonoa Hirutasuna baita: batasuna aniztasunean).

## § Lebitarrak liburutik 19, 1-2. 17-18.

Jauna honela mintzatu zitzaion Moisesi: «Esan israeldarren elkar-te osoari: “Izan zaitezte santu, Ni, Jauna zuen Jainkoa, santua naiz eta.

Ez izan bihotzean gorrotorik zeure senidearentzat; baina zentzara-zi zeure herritarra, haren bekatuen erantzukizunik izan ez dezazun. Ez egin mendekurik, ez izan erresuminik zeure herritarrarentzat. Maita ezazu lagun hurkoa zeure burua bezala. Ni naiz Jauna”».

## [Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

## § San Paulok 1 Korintoarrei 3, 16-23.

Senideok: Ez al dakizue, Jainkoaren tenplu zaretela eta Jainkoaren Espiritua zuengan bizi dela? Jainkoaren tenplua hondatzen duena, hondatu egingo du Jainkoak, Jainkoaren tenplua santua baita; tenplu hori zuek zarete.

Ez beza inork bere burua engaina. Zuetako norbaitek mundu honen arabera jakintsu dela uste badu, egin bedi zoro, egiaz jakintsu izateko. Izan ere, mundu honetako jakinduria zorakeria da Jainkoaren aurrean, Liburu Santuak dioen bezala: «Jakintsuak beren maltzurkerian harrapatzen ditu Jainkoak». Eta beste hau ere badio: «Badaki Jau-nak jakintsuen asmoak hutsalak direla».

Beraz, ez bedi inor gizakiez harrotu, dena zuena baita: Paulo, Apo-lo, Pedro, mundua, bizitza, heriotza, oraina eta geroa; guztia zuena da. Zuek, ordea, Kristorenak zarete, eta Kristo Jainkoarena.

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 38-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzina-koei agindua: “Bergia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain”. Nik, ordea, hau diotsuet: Gaizkileari ez erantzun gaizki; bestela baizik, es-kuineko masailean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere; soine-koa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere;

Urteko 7. astea.

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria*.

Rafaela Ibarra (Bilbo 1843-1900), *dohatsua, fundatzailea*  
(*Aingeru Zaindaria*).

norbaitek mila pauso egitera behartzen bazaitu, egin bi mila berarekin. Eskatzen dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu.

Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazu zeuen etsaiak eta egin otoitz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaitzontzat eta zintzontzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria.

Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

**J**esusek ikasleei eskatzen dien «zuzentasun hobea» hori Aitaren antzeko izatean datza. Baina Jesusek begi-bistan ipintzen digun eredia ez da bete-betekoa eta ezin atzemana dugun Jainkoaren santutasuna, baikiz eta Jainkoaren aurpegi onbera, guztiz ona, da, Jesusek berak aurkeztu diguna. Mateok, Mendiko Hitzaldiaren pasarte guztietan, berak Aitaren perfekzio deitzen duena deskribatu digu, guk imitatu beharrekoa; aldi berean, ordea, Aita horren beraren jarrerak marraztu ditu, ezaugarritzat onberatasuna, ontasuna dutenak. Ikaslea ezin bihurtu da seme edo alaba, bere egintzak Aitaren egintzaren antzeko moldatuz baikiz, hau da, bere lagun hurkoa, bere arerioa bera ere, Aitak maite duen bezala maite duen heinean baikiz. Prozesu bat da, ahalegina eta otoitz eskatzen ditu. Horregatik, GURE AITA dator Mendiko Hitzaldiaren erdigunean. Honek guztiak adierazi nahi digu, Aitaren antzeko izateko geure gogoia honela bakarrik egiaztatatu ahal izango dugula: Aitarekin bizi izandako eta otoitzean azalduko harremanak direla medio. Geure harremanak gainerakoekin eta Jainkoarekin «zuzentasun hobea» baten arabera bizitzeko konpromisoak, otoitzetik ateratzen du sakoneko bere energia. «Guztiz ona» den Jainko horrek egingo du posible giza-kiarentzat ezinezkoa dela ematen duen hori.

[Santiagoren gutunetik 3, 13-18: Bekaizkeriaz eta norgehiagokeriaz beterik bazaudete, ez harrotu. Sal 19 [18]: Jaunaren arauak zuzenak dira, bihotzaren pozgarri.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,14-29.

Aldi hartan, Jesus eta berekin zituen lagunak menditik jaitsi eta gainerako ikasleengana iritsi zirenean, jendetza handia ikusi zuten haien inguruan, eta lege-maisu batzuk haiekin eztabaidan. Jendea harriturik gelditu zen Jesus ikustean eta lasterka joan zitzaizkion agurtzera. Jesusek galdetu zien ikasleei: «Zer zenuten horiekin eztabaidan?»

Jendarteko batek erantzun zion: «Maisu, hemen ekarri dizut neure semea: hitz egiten uzten ez dion espiritua du. Non edo han espiritua jabetzen zaionean, lurrera botatzen du, eta mutikoa, lerdea dariola eta hortz-karraska, gogor-gogor eginga gelditzen da. Zure ikasleei eskatu diet espiritua botatzeko, baina ezin izan dute».

Jesusek esan zion: «Hau gizaldi sinesgogorra! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarri mutikoa». Ekarri zioten, eta spirituak, Jesus ikustearekin batera, gogor astindu zuen mutikoa, eta lurrean iraulka eta lerdea zeriola utzi zuen.

Jesusek galdetu zion aitari: «Noiztik dago horrela?» Hark erantzun: «Ume-umetandik. Askotan bota izan du sura, baita urera ere, hilarazteko. Ezer egin ahal baduzu, erruki zaitez gutaz eta lagun iezaguzu». Jesusek esan zion: «Ahal dudan diozu? Dena ahal du sinesten duenak». Orduan, mutikoaren aitak deiadarka: «Sinetsi nahi dut! Lagundu sinesgabe honi!»

Jesusek, jendea pilatzen ari zela ikusirik, gogor eraso zion espiritu gaiztoari: «Espiritu gorra eta mutua, Nik agintzen diat: atera hadi honengandik eta ez sartu berriro». Espiritua, garrasika eta berebiziko astindua emanez, atera egin zen. Mutikoa hilik bezala gelditu zen; hila zegoela zioen askok; baina Jesusek eskutik hartu eta altxarazi zuen, eta mutikoa zutik jarri zen.

Jesus etxeratu zenean, ikasleek galdetu zioten bakarrean: «Eta guk, zergatik ezin izan dugu espiritua bota?» Jesusek erantzun zien: «Gisa honetako espirituak botatzeko bide bakarra otoitza da».

**F**edea, funtsean, fidatzea da; Norbaitengan konfiantza izatea, nahiz eta badituen Norbait horrek ni neu gainditzen nauten aldeak. Ez nadin beldur izan, dudak sentitzen ditudalako. Fedea ez da ebidentzia; horregatik, «fedearen lausoa da zalantza» (Blas Pascal). Era osasungarrian bizi izandako dudak liberatu egiten nau fede azaleko batetik, maitasuna eta konfiantza handitu gabe, formulak errepikatzeaz konformatzen den fedetik. Bizitzan askotan errepikatu beharko dut, seme epileptikoaren aitak bezala: «Sinesten dut, Jauna, baina lagundu sinesgabe honi». Fedeak helduz eta haziz joan beharra du. Benedikto XVI. ak esan zuenez, «sinesteduna sinetsiz da sendotzen». Heldutasun horren jatorrizko gunea otoitza da. Sinesteko grazia egunero behar dut eskatu.

\*\*\*

### Bizitza ispilu bat da

Galdetu zioten Mahatma Gandhiri: zein dira gizakia suntsitzen duten eragileak? Eta, lasai eta bare, erantzun zuen: Printzipiorik gabeko Politika, konpromisorik gabeko Plazera, lanik gabeko Aberastasuna, ganorarik gabeko Jakinduria, moralik gabeko Negozioak, gizatasunik gabeko Zientzia eta maitasunik gabeko Otoitza.

Bizitzak erakutsi dit, jendea adeitsu dela, ni adeitsu banaiz; jendea triste bizi ohi dela, ni triste bizi banaiz; guztiek maite nautela, nik maite badituz; guztiak gaizto direla, nik gorroto badiet; aurpegiak irribarretsua izan ohi direla... [...]; pertsonak esker oneko izan ohi direla, ni esker oneko banaiz. Bizitza ispilu baten pareko da: Irribarre egiten badut, irribarre itzultzen dit ispiluak».

Urteko 7. astea.

San Bitorino, *martiria*.Santa Valverga, *abadesa*.

[Santiagoren gutunetik 4, 1-10: Eskatu eta hartzen ez baduzue, gaizki eskatzen duzuelako da. Sal 55 [54]: Jar zaitex Jaunaren eskuetan, zeure Ongileak dizu eutsiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,30-37.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak menditik alde egin eta Galileen zehar zebiltzan. Jesusek ez zuen hori inork jakiterik nahi, ikasleei irakastera emana baitzegoen. Honela ari zitzaien: «Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute; hilko dute, baina hil eta hiru egunera piztuko da». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien.

Iritsi ziren Kafarnaumera eta, etxean zeudela, Jesusek galdetu zien: «Zer eztabaida izan duzue bidean?» Baina haiek hitzik ez; beren artean handiena nor ote zen eztabaidatu baitzuten bidean.

Eseri zen Jesus eta, Hamabiei dei eginik, esan zien: «Lehenengo izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria».

Gero, haurtxo bat hartu, haien erdian jarri eta, haurra besarkatuz, esan zien: «Honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak, ez nau Ni onartzen, bidali nauen hura baizik».

**J**esusek irakatsi du, benetako handitasuna ez datzala mila gauza edukitzean, handinahian, ospetan, baizik zerbitzari izatean. Zerbitzu-lan honetan lehen-tokia dagokie baliabide gutxienean. Haur bat besarkatu eta guztien erdian jartzean, Jesusek azaldu digu ezen pertsona bat handi dela, ez postu goi-goiko bat izateagatik, baizik eta bizitzan tarte bat egin eta arreta eskaintzen dionean handi ez denari, txiki denari. Txiki bihurtze hau da Jainkoaren estiloa; horixe agertu

Urteko 7. astea.

San Bitorino, *martiria*.

Santa Valverga, *abadesa*.

---

**nahi izan digu Jesusek: gizon-emakumeekiko maitasunez eta zerbitzari-senaz, ahulei hurbildu ez ezik, txiki eta haur agertu baita bera ganbelan eta ahul gurutzean.**

\*\*\*

### Biblia nola irakurri

Helduen eran esan ohi dut, «Juego de Tronos» delakoa, aipatutako [Biblia Biblioteka honetako] liburuekin alderatuz, haur-joko bat dela, idazki txikiago bat. Bibliako «Kronikak» eta «Erregeak» liburuek gutxi garaturiko gizarte bat islatzen dute, gizarte biziki krudela, zeinetan erregeen hurrenkera odolak, indarkeriak, azpijokok, tranpak... blaiturik ageri baita. Bibliak hori guztia pedagogia eta heziketa-historia bat eho edo bilbatzeko kontatu du, giza historiaren gordintasunaz lotsatu gabe –erlijio handietako «jakinduria-liburuek» egin duten bezala–. Baina Bibliako liburu hauetan bada, ereduzkotik ezer gutxi duen kontraeraren jantziaren pean, Israelgo Jainkoaren gogo bat, bere herria gidatzekoa [...] zuzentasunaren mundu baterantz, zapalkuntzarik eta esklabotzarik gabeko baterantz, zeinetan Erregea herriaren bakerako eta aurrerapenerako izango baita: profetek gaitzetsi egin dute ustiapena, gezurra, diru-gosea, boterearen ustelkeria, erlijiotasun hutsal eta maitasun gabea, ahularen kontrako jokabide handi-mandia, etab. Hau da, jakinduria-tratatu dira liburu horiek Israel herriarentzat. (*Monjes y «Juego de Tronos» in Religión Digital 2019-06-25. Francisco Rafael de Pascual, Abadía Cisterciense de Viaceli*).



Garizuma: Hausterre.  
San Alexandro, *gotzaina*.  
San Porfirio, *gotzaina*.

§ Joel profetaren liburutik 2,12-18.

Hau dio Jaunak.

«Itzul zaitezte nigana bihotz-bihotzez,  
barauz, negarrez eta doluz.

Urta itzazue bihotzak, ez soinekoak;  
itzul zaitezte Jaunagana, zeuen Jainkoagana,  
bihozbera eta errukitsua baita,  
haserregaitza eta maitasun handikoa,  
bere mehatxuez damutzen dena.  
Agian atzera egin eta damutuko da,  
eta bedeinkatuko zaituzte ostera,  
labore-eta isurtze-oparia eskain diezaiozuen  
Jaunari, zeuen Jainkoari.

Jo turuta Sionen, antolatu baraualdia, dei egin batzarrera; bildu herria batzar santura, bildu zaharrak, ekarri haurrak, baita bularrekoak ere. Atera bedi senarra ezkontza-gelatik, emaztea ezkon-ohetik.

Negar egin bezate atari eta aldare bitartean  
apaizek, Jaunaren zerbitzariak.

Esan bezate: “Barka, Jauna, barka zeure herriari;  
ez utzi lotsatan zeure ondarea,  
ez dezatela mendera atzerritarrek,  
ez dezatela esan beste herriek:

Non dute, bada, beren Jainkoa?”»

Bere lurraldearekiko maiteminez bete zen Jauna eta barkatu zion bere herriari.

[Sal 51-[50]: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.]

§ Paulo santuak 2 Korintoarrei 5,20–6.42.

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak be-  
rak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizue-

Garizuma: Hausterre.

San Alexandro, *gotzaina*.

San Porfirio, *gotzaina*.

gu: adiskidetu zaitetze Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena iritsi genezan.

Jainkoaren lankide garenez gero, eskatzen dizuegu, ez dezazuela alferrik har haren onginahia. Izan ere, Jainkoak dio: «Onginahi-garaian entzun dizut, eta salbamen-egunean lagundu». Begira, beraz: oraintxe da onginahi-garaia, oraintxe salbamen-eguna.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango.

Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitetz zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

Garizuma: Hausterre.

San Alexandro, *gotzaina*.

San Porfirio, *gotzaina*.

---

**N**ola bizi dezakegu Garizuma, «grazia-aldi» izan dezagun? «Basamortu-aldi» izan beharko luke, Oseas profetak esapide honi eman dion zentzuan harturik: lehen maitasun hartara itzultzea, alegia (Oseas 2,16-17). Guretzat ere, Jainkoarekin izandako esperientzia bizi hartara itzultzea izan beharko luke; hartarako, tarte luzeagoak bilatu beharko genituzke otoitzerako, gogoetarako, Jaunaren Hitza irakurtzeko, geure lehen maitasun hura berritzeko.

Deialdi izan beharko luke: Garizumako otoitzek eta irakurgaiek «eguneroko penitentziek», barauaz, bijiliaz hitz egingo digute. Galdera hauek egitera bultza egiten digu honek guztiak: 1) Seme-alaben askatasunaz bizi ote garen, eta ez esklabo bezala. Zer barau eta bijilia –janari materialaz baino harago– egin beharko nukeen neure bizitzan, benetan Aitaren seme-alaba izateko eta ez bizitzeko idolotxo bihurtu ditudan mila gauzaren preso? 2) Anai-arrebekin solidario bizi ote naizen. Gustuko ditugun gauzak alde batera uzteak gogoeta hau egitera bultzatzen gaitu: premiazko gauzen gabezia, bestek ezarria, jasaten ari den hainbat jenderen gainean gogoeta egitera, geure ondasunak geure gogoz partekatzeraz eragiten digu eta borroka egitera, mundu honetako egitura zuzengabeek krudelki ezarritako baraurik inork ere jasan beharrik izan ez dezan.

Garizuma: Hausterre ondokoa.

Ama Doloretakoaren Gabriel Santua, *pasiotarra*.

[Deuteronomio liburutik 30,15-20: Bedeinkazioa eta madarikazioa jartzen dizkizut gaur aurrean. **Sal 1**: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,22-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztu egingo da».

Eta esan zien denei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galdu egingo du; baina bere bizia nigatik galtzen duenak salbatu egingo du. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?»

«**L**epoan hartu egunean eguneko gurutzea». Gurutzea, jarrera etengabea da kristau-bizitzan, eta ez egitate bakan bat, kinka heroikoe-tarako bakarrik balio lukeena, pertsekuzioan edo martiritzan adibidez. Era berean, egunerokoan azaldu ohi da leialtasuna ere Jesusi jarraitzean. Ez da zertan ibili gurutzearen bila, ezta zertan asmatu ere; bizitzarekin berarekin iritsi ohi zaigu gurutzea eta, batez ere, kristau izan nahi duen bizitzarekin eta, horrenbestez, buru-eskaintza eta zerbitzu den bizitzarekin. Baitaratu edo onartu beharra dugu, era berean, Jesusi jator jarraitzen badiogu, bestek ezarriko digutela gurutzerik. Besarkatzen al dugu egunean eguneko gurutzea? Soilik, Jesusekin eta Jesusentzat egiten bada izango da posible.

Garizuma: hausterre ondokoa.

Rufino, Justo eta Makario santuak, *martiriak*.

[Isaias profetaren liburutik 58,1-9a: Hau da Nik maite dudana baraua. Sal 51 [50]: Zuk ez duzu gutxiensten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,14-15.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleak Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Zergatik guk eta fariseuek sarritan egiten dugu baraua, eta zure ikasleek ez?»

Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon al daitezke triste senar berria berekin duten bitartean? Etorriko zaie senar berria kenduko dieten eguna; orduan, bai, egingo dute barau».

**J**esusek «mahaikidetzira irekia» aukeratu zuen, berarekin etorri zen Erreinuaren sinbolo gisa. Jesusen otorduak, Erreinaua goitik behera osatuko denean biziko ditugun doakotasunaren eta unibertsaltasunaren aurrekari izan ziren. Baraua itxarote-aldirako da, baina ez zen egozia senargaia presente zegoenean. Senargaia egongo ez denean izango du barauak bere zentzua –eta bizitzan izango da basamortu-egunik eta senargaiaren absentsia doloretakorik–; halako egunetan beraren hurbiltze bedeinkatua eskatu beharko dugu. Orduan izango du zentzurik barauak, baina beti Isaiasek deskribatzen duena bezalakoa izan beharko du, eta ez barau legalista bat, fariseuek egin ohi zutena bezalakoa. Irakats diezagula Jesusek «bizitzen jakiten», bai basamortuko baraua, bai senargaiaren jai!

Garizuma: hausterre ondokoa.

[Isaias profetaren liburutik 58,9b-14: Gose denari zeure ogitik ematen badiozu, zure argia ilunpean zabalduko da. Sal 86 [85]: Erakuts izadazu, Jauna, zeure bidea, zurekin leial joka dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,27-32.

Aldi hartan, Jesusek Lebi izeneko zergalari bat ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri». Hark, dena zitirik, zutitu eta jarraitu egin zion.

Lebik bazkari handia eman zion Jesusi bere etxean; Jesusekin eta honen ikasleekin batera zergalari eta bestelako jende asko zegoen mahaian. Fariseuak eta haien lege-maisuak marmarrean ari ziren eta esan zieten ikasleei: «Zergatik jaten eta edaten duzue zergalari eta bekatariekin?»

Jesusek erantzun zien: «Ez dute osasundunek sendagilea behar, gaixoei baino; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik, bihotz-berri daitezen».

**F**rantzisko aita santuak esana du, Lebiren bokazioaren pasarte honek beti eragin izan diola zirrarak. Batez ere, pasarteaz Benaeragariak egin zuen iruzkina irakurtzean, honela deskribatu baitzuen: «miserendo atque eligendo». Hau da, errukia izanez. Jesusek dei egin, «erruki izanez eta hautatuz» dei egin dio Lebiri. Frantzisko aita santuak bere gotzaingoko eta, ondoren, bere pontifizegoko goiburutzat hartu zuen esapidea. Ederra da benetan. Guri ere, Mateo bezala geure esklabotzari itsatsirik geundela ematen genuenoi, dei egin zigun Jesusek berari jarraitzera, aukeratu gintuen, eta, hartarako, gure miseriara hurbildu zuen bere bihotza. Dastatu dezagun nola errukitu den gutaz, eta nola jarraitzen duen errukituz.






## MARTXOA / EPAILA

### AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:

Txinako katolikoak.

**Egin dezagun otoitz:** Txinako Elizak Ebanjelioari leial jarrai diezaion eta batasunean haziz joan dadin.





Garizuma 1. astea.

San Rosendo, *gotzaina*.

San Felix III.a, *48. aita santua*.

San Leon (Baionan), *gotzaina eta martiria*.

### § Hasiara liburutik 2, 7-9; 3, 1-7.

Jainko Jaunak gizona moldatu zuen lurreko hautsez eta bizi-arnasa bota zion sudur-zuloetara, eta gizona bizidun gertatu zen.

Gero, Jainko Jaunak baratzea landatu zuen Eden, sortalderantz, eta han ipini zuen berak moldatutako gizona. Jainko Jaunak mota guztietako zuhaitzak sortu zituen lurretik, begientzat eder eta ahorako gozo, eta baratzearen erdian biziaren zuhaitza eta ongiaren eta gaizkiaren ezagutza ematen zuen zuhaitza landatu zituen.

Sugea zen Jainko Jaunak egindako piztietan maltzurrena. Sugeak esan zion emakumeari: «Debekatu egin omen dizue Jainkoak baratze-ko arbola guztietako fruituetatik jatea».

Emakumeak erantzun zion: «Baratzeko zuhaitzen fruituetatik jan dezakegu; baratze erdian dagoen zuhaitzaz bakarrik esan digu Jainkoak: “Horretatik ez jan, ezta ukitu ere hori, hil nahi ez baduzue”».

Sugeak esan zion emakumeari: «Ez zarete hilko, ez! Ongi daki Jainkoak, horretatik jan orduko, begiak irekiko zaizkizueta eta bera bezalako izango zaretela, ongiaren eta gaizkiaren ezagutzaren jabe».

Emakumeak, zuhaitza jateko gozo eta begientzat eder eta ezaguera iristeko on zela ikusirik, haren fruituetako bat hartu eta jan egin zuen; gero, senarrari eman zion eta hark ere jan egin zuen. Orduan begiak ireki zitzaizkien eta larru gorri zeudela ohartu ziren. Piku-hosto batzuk josi eta estalki bana egin zuten.

[Sal 51 [50]: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.]

### § San Paulok Erromatarrei 5, 12-19.

Senideok: Gizon baten bidez sartu zen bekatua munduan, eta bekatuaren bidez heriotza; horrela, heriotza gizaki guztiengana zabaldu zen, guztiek egin zutelako bekatu. Egia da legea baino lehen bazela bekatua munduan; baina bekatua ez zaio inori ezartzen, legerik ez

badago. Hala ere, Adamengandik Moisesenganaino nagusi izan zen heriotza gizakien gain, baita Adamen hutsegitearen antzeko bekatuak egin ez zutenen gain ere. Adam etortzekoa zenaren irudi da.

Baina Jainkoaren dohainarekin ez da bekatuarekin bezala gertatzen. Izan ere, gizon bakar baten bekatuaz denak hil badira ere, askoz ugariago zabaldu da denentzat Jainkoaren grazia eta dohaina, beste gizon bakar bati esker, Jesu Kristori esker, alegia. Eta ondorioei dagokienez ere, Jainkoaren dohainarekin ez da gizon bakarraren bekatuarekin bezala gertatzen. Izan ere, bekatuak, bakarra izan arren, denen gaitzespena izan du ondorio; dohainak, berriz, bekatuak asko izan arren, denen barkamena.

Gizon bakarraren bekatuagatik heriotza nagusitu bazen, zenbatez gehiago ez ote dira betiko bizian nagusi izango bakar batengatik, Jesu Kristogatik, salbamenaren grazia eta dohain oparoa hartzen dutenak!

Beraz, baten bekatuak gizaki guztiei gaitzespena ekarri zien bezala, baten leialtasunak gizaki guztiei salbazioa eta bizia ekarri die. Eta baten obedientzia-ezagatik guztiak bekatari gertatu ziren bezala, baten obedientziagatik guztiak zuzen gertatuko dira.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4, 1-11.

Aldi hartan, Espirituak basamortura eraman zuen Jesus, deabruak tenta zezan. Berrogei egun eta berrogei gau baraurik egon ondoren, azkenean gosetu egin zen.

Hurbildu zitzaion tentatzailea eta esan zion: «Jainkoaren Seme baldin bazara, esazu harri hauek ogi bihur daitezela».

Jesusek erantzun zion: «Liburu Santuan idatzia dago: “Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, Jainkoaren ahotik ateratzen den hitz gutzitik baizik”».

Orduan, deabruak hiri santura, Jerusalemera, eraman zuen eta tenpluaren goreneko ertzean ipinirik, esan zion: «Jainkoaren Seme baldin bazara, bota ezazu zeure burua goitik behera, idatzia dago eta: “Bere

Garizuma 1. astea.

San Rosendo, *gotzaina*.

San Felix III.a, *48. aita santua*.

San Leon (Baionan), *gotzaina eta martiria*.

aingeruei agindu die zu zaintzeko”, eta “eskuetan eramango zaituzte, harriekin estropezu egin ez dezazun”».

Jesusek erantzun zion: «Beste hau ere idatzia dago: “Ez tentatu Jauna zeure Jainkoa”».

Orduan, deabruak mendi handi batera eraman zuen eta, munduko erreinu guztiak eta haien edertasuna erakutsiz, esan zion: «Hori guztia emango dizut, ahuspez gurtzen banauzu».

Orduan Jesusek esan zion: «Alde hemendik, Satanas! Idatzia dago eta: “Jauna zeure Jainkoa gurtuko duzu eta hura bakarrik zerbitzatu-ko”».

Orduan, deabruak utzi egin zuen, eta aingeruak hurbildu zitzaizkion zerbitzatzera.

**G**uk ere izaten ditugu tentazioak, zeinetan Jesusek basamortuan izandako tentazioetako hitzen antzekoak jaulkitzen baitira: geure ahalbideak eta gaitasunak geure probetxurako erabiltzea –esan zion deabruak basamortuan: «mirariak egiteko gai bazara, zertan jasan behar duzu gosea?»–; txaloak, pribilegioak eta mundu honetakoen onarpena bilatzera eragiten diguten tentazioak –esan zion deabruak Jesusi Tenpluko hegalean: «bota ezazu zeure burua; jakin dezala jendeak nor zaren eta zer balio duzun!», eta keinu horrekin irabaziko duzun ospeak aginpide sendoa emango dizu eta entzule asko, eta ez duzu izango zertan agertu zeure burua pixkana neke eta pazientzia handiak jasanetz; Erreinuera eraikitzeko, botereaz baliatzera eragiten duten tentazioak; –esan zion deabruak basamortuan: eskua emaezu boteretsuei zure misioa eginkorra izatea nahi baduzu...

Tentazio hauek ahalegin handia eskatzen dute buru argiz, berezimen barez jokatu ahal izateko, on-itxuran ageri ohi baitira. Baina geurekin dugu Espiritua, Jesusek bezala, tentazioak gainditu ahal izateko.

Garizuma garai egokia da geure burua egiati aztertzeko: Zein tentaziotan trabatzen naiz errazzenik?

Garizumako 1. astea.  
San Pedro Zuñigakoa, *gotzaina*.  
Santa Atanasia, *aitorlea*.

[Levitarrak liburutik 19,1-2.11-18: Epaitu zuzenbidez zeure herritarra. Sal 19 [18]: Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,31-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak harekin– aintzaz beterik etortzean, bere errege-aulki ospetsuan eseriko da, eta herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak ahuntzetatik bereizten dituen bezala: ardiak bere eskuinaldean ipiniko ditu, eta ahuntzak ezkerraldean.

Orduan, erregeak esango die eskuinekoei: “Zatozte, nire Aitaren be-deinkatuok; hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoen erreinua. Gose bainintzen, eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik, eta bisitatu; espetxean, eta ikustera etorri zineten”.

Orduan, zintzoek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik, eta eman genizun jaten, edota egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaixorik edota espetxean, eta ikustera joan?”

Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: nire sendirik txikien hauetako bati egin zeniotena neuri egin zenidaten”.

Gero, esango die ezkerrekoei: “Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta haren lagunentzat prestaturik dagoen betiko sura. Gose bainintzen, eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixorik eta espetxean nengoan, eta ez zineten ni ikustera etorri”.

Haiek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goseak edota egarri, arrotz edota biluzik, gaixorik edota espetxean, eta guk lagundu ez?”

Hark erantzungo die: “Benetan diotsuet: txikien hauetako bati egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”.

Garizumako 1. astea.

San Pedro Zuñigakoa, *gotzaina*.

Santa Atanasia, *aitorlea*.

Eta hauek betiko zigorrera joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizira».

**N**ekez ulertzen dugu nola den posible Jainkoak sufritzea, aldaezina dela jakinik. Baina aski da Mateoren pasarte hau irakurtzea, ikusteko, Jainkoak gosea jasaten duela, egarri izaten dela, hotzak erasaten diola... Eta beraren oinazea arindu dezakegula. Izan ere, behartsuari emandako baso bat urek, ogi-puska batek, jantziak ezin arindu izango zuen Kristo «neuri egin zenidaten»-, aldez aurretik bera jo ez balute egarriak, biluztasunak, goseak «gose nintzen eta jaten eman zenidaten...»-. Halako Jainko bat dugu –maitasun solidario–, non presente egiten ahal baitzaigu pertsona batengan, pertsona horrengan bera atzematuko moduan Kristoren bidez. «Sufritzen duen Jainko batek bakarririk salba gaitzake» (D. Bonhoeffer).

\*\*\*

### Bizitzak badu zentzurik. Bilatu egin behar

Arazoa ez da gauza asko jakitea. Ez da nork bere burua ordenagailu bihurtzea. O. Picardo Joaoren hitzetan, badira: «profesional zorrotz zikinikoa, jende aditu ustela, eraile itzelak, ustiatzaile distiratsuak, despota jakintsuak, iruzurgile argi-argiak, hedonista ilustratuak, materialista jaun txit gorenak, kontsumitzaile beneragarriak eta jende ezjakina».

Horien aurrez aurre, zergatik ez jo galdera xume bezain soil hauek egitera: zertako bizi naiz?, zergatik?, norantz begira?, zein xede dut?, zein asmo? Bizitzari zentzua emateko, lau hitzen ehundura eskaini digu Adolphe Gesché teologoak: **askatasuna**, asmazio eta kreaizio denez; **nortasuna**, bestearekin eta Jainkoarekin konparatzeko; **esperantzeta**, bizi-arnasaren emaille denez; **irudimena**, festakari bizitzera eragiten diguna, zeinetan argi baitugu Jainkoak ez gaituela eskutik utzi. (D. Adriana in *Vida Nueva* 15-21/06/2019).

Garizumako 1. astea.

San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*.

[Isaias profetaren liburutik 55,10-11: Nire hitzak egingo du Nik nahi dudana. Sal 34 [33]: Beldur guztietatik libratu ninduen Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz:

«Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere. Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik».

Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizkizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

**J**esusek diosku, Jainkoa Aita dugula, maite gaituela –horixe da Jesusek egin digun agerpen handia–. Harengana seme-alaben konfiantzaz jo behar dugula, guk ezer eskatu aurretik ezagunak dituela gure premiak; ez diogula zertan esan hitz asko, gure txoko sekretuenak bistan dituelako; berak gida gaitzan utzi behar diogula estu eta larri ibili gabe, lirioez eta txoriez arduratzen dena izanik, gu baliotsuagotzat gauzkalako. Beraz, Jesusek ez digu adierazten, ez teknikarik, ez formularik otoitzerako, baizik eta jarrera bat. Maite gaituen Aita horren aurrean seme edo alaba garela sentitzearen jarrera. Konfiantza-jarrera horrek blaitzen du otoitzik bikainena den kristau-otoitza: beti pluralean otoitzu beharrekoa den otoitza: GURE AITA.

Garizumako 1. astea.  
San Kasimiro, *aitorlea*.

---

[Jonas profetaren liburutik 1,1-19: Ninivetarrak beren bide okerretik itzuli. Sal 51 [50]: Zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zelarik, Jesus honela hasi zitzaizen: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango Jonas profetarena besterik. Izan ere, niniveta-rrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat.

Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jendearen aurka jaiki eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriatzko hitzak entzutera, eta hona hemen Salomon baino gehiago dena.

Auzi-egunean ninivetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuz, eta hona hemen Jonas baino gehiago dena».

**B**erriro ere, «gizaldi gaizto» horrek (hitz gogorra) seinale harri-garri bat eskatu dio Jesusi, sinesteko. Jesusek ukatu egin die. Aberatsa-ren eta Lazaroren parabolak azpimarratu nahi du ezen hitza entzutean bihotz-berritzen ez dena, ez dela bihotz-berrituko hildako bat berpizten ikusirik ere (Lk 16,31). Erreinuaren ezaugarri handia Jesus da, Jesus bera eta beraren jakinduriatzko predikua. Ez dira mirari txundigarriak fedea sustatuko dutenak; alderantziz baizik: fedeak du bide ematen Jesusen keinuak «seinaletzat» hartzeko, seinale interpelagarritzat. Hone-tara gonbidatu gaitu Jesusek: beraren hitza sarri-sarri entzutera. Hau da entzute honek gudan egunero eragin dezakeen miraria: konbertsioa, Kristoren sentimenduak berak bizitzeko.



Garizumako 1. astea.

Santa Oliva, *birjina eta martiria*.

San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*.

[Esterren liburutik 14,1-3-5.12-14: Ez dut Zu beste laguntzailerik, Jauna. Sal 138 [137]: Dei egin nizunean, erantzun zenidan, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,7-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio.

Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei!

Honela bada, besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia egin zuek ere besteei; horixe da Moisesen legeak eta profetek diotena».

«**E**skatu, bilatu, dei egin...». Jesusen asmoa ez da guri bultza egitea Jainkoa nekaraztera, nahi duguna lortu arte; ez da haren asmoa Jainkoa behartu nahian ibil gaitezen, guri bultza egitea. Haren irakasp-en-muina harridura-esapide honetan dago: «zenbatez gehiago ez dizkie Aitak emango!» Aita batek seme-alabei gauza onak ematen badizkie eta ez gauza kaltegarriak –esaterako, harri bat edo suge bat–; zenbatez gehiago ez digu jaramon egingo Jainkoak, Aita on huts horrek! Baina aita batek –batez ere, aita hori Jainkoa bada– badaki zer zaigun kome-ni. Jainkoak beti entzungo dizkigu erreguak, erantzun ere bai, baina ez digu emango beti eskatzen dugun hura bera, nahiz eta emango diguna «gauza on bat» izango den. Aita den Jainko horrekiko eskuzabaltasun hori du oinarri kristau-otoitzak.

Garizumako 1. astea.

Santa Rosa Viterbokoa, *birjina*.

San Marziano, *gotzaina*.

[Ezekiel profetaren liburutik 18,21-28: Gaiztoaren heriotza nahi edo dut Nik, eta ez jokabidez aldatu eta bizitzea? Sal 130 [129]: Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna, nor dagoke zutik, Jauna?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,20-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan.

Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da.

Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia.

Konpon zaitez lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte»

**A**razoa ez da «hiltzen duten» hitzak baztertze hutsa, baizik eta aurrea hartu behar zaio arazoari, anaiarekin edo arrebarekin adiskidetzera joz. Aldez aurreko baldintza da hori eskaintza liturgikorako. Ezinezkoa da Jainkoarekin adiskidetasun-ekintza bat (komunioa) burutzea, aldez aurretik anai-arrebekin adiskidetasun-ekintza (komunioa) egin ez bada. Ezin bizi gara Jainkoarekin bat, anai-arrebekin bat ez bagara: anaia edo arreba da gure aldarea. Bi aldiz Oseas 6,6 aipatuz («Errukia nahi dut eta ez opariak»), Mateok (9,13; 12,7) kultu-eskaintzaren gainetik maitasunari emandako lehentasuna azpimarratu du. Eta bigarren adibide batean (25-26 txatalak), adiskidetzearen premiatasuna azpimarratu du Jesusek: ahalik lasterren, edo artean astirik den bitartean.

Garizumako 1. astea.

Perpetua eta Felizitas santuak, *martiriak*.

[Deuteronomio liburutik 26,16-19: Jaunari zeure Jainkoari sagaraturiko herri izango zara. Sal 119 [118]: Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin otoitz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat eginen euria.

Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

**J**esusek agertu duen motibazio hori da berritasuna: maitasun uni-bertsal eta baldintzarik gabeaz maitatu behar da, zeruko Aitaren egiazko seme-alaba izan nahi badugu. Jainkoak, izan ere, ez du murriztu bere maitasuna leial zaion jendeagana. Kristau-maitasuna ezin mugatu da maite nauen jendeagana; aitzitik, etsai pertsonal eta kolektiboak berak ere harrapatzen ditu. Mugarririk gabeko maitasuna da. Daitekeena ote den? Jesusek ondo asko bizi izan zuen: gurutzera eraman zutenei berei ere barkatu zien. Eta eskatu digu, geure sentimenduak menderakaitzak baditugu ere, karraska egiten badigute ere –baina nork saihesten ahal ditu eta kontrolatzen sentimenduak?–, Aitaren antzera bizi nahi duten seme-alabak bezala bizi behar dugula, beren bihotzean gorrotoari eta mendekuari lekurik uzten ez diotenak bezala. Jakina, beraren laguntzarekin.

Garizumako 2. astea.

San Joan Jainkoarena, *fundatzailea* (*San Joan Jainkoaren Anaia*). San Beremundo Iratxekoa, (Villatuertan [Nafarroa] 1092 edo 1099an jaioa; hil?), *abadea*.

### § Hasiera liburutik 12, 1-4a.

Egun haietan, Jaunak esan zion Abrami: «Utzi zeure lurraldea, zeure ahaideak eta zeure aitaren etxea eta zoaz Nik erakutsiko dizudan lurraldera. Herri handi egingo zaitut eta bedeinkatuko, izen handia emango dizut eta bedeinkapen-iturri izango zara. Bedeinkatuko ditut zu bedeinkatzen zaituztenak eta madarikatuko zu madarikatzen zaituztenak.

Zure bitartez bedeinkatuko ditut lurreko herri guztiak». Hala, joan egin zen Abram, Jaunak agindu bezala.

[Sal 33 [32]. Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugan baitugu geure uste ona.]

### § San Paulok 2 Timoteori.

Anaia maitea: Jainkoaren indarraz fidaturik, eraman itzazu nekeak nirekin batean Berri Onaren alde. Hark salbatu gintuen eta dei egin zigun biziera santura, ez gure egiteengatik, bere erabakiagatik baizik eta mende guztiak baino lehen Kristo Jesusengan eman zigun graziagatik.

Grazia hau orain agertu da, Kristo Jesus gure Salbatzailea munduan azaldu denean; honek heriotza ezereztu du eta bizia eta hilezkortasuna argitu Berri Onaren bidez.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 1-9.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta honen anaia Joan eta mendi garai batera eraman zituen aparte. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean: aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion eta jantziak argia bezain zuri. Hartan, Moises eta Elias agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan.

Orduan, Pedrok esan zion Jesusi: «Jauna, bai ederki gaudela hemen! Nahi baduzu, hiru txabola egingo ditut: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat».

San Joan Jainkoarena, *fundatzailea* (*San Joan Jainkoaren Anaiak*). San Beremundo Iratxekoa, (Villatuertan [Nafarroa] 1092 edo 1099an jaioa; hil?), *abadea*.

Hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta ahots batek esan zuen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea, hau dut atsegin. Entzuiozue». Hori entzutean, ahuspez lurrera erori ziren ikasleak, beldurraren beldurrez.

Hurbildu zitzaion Jesus, ukitu eta esan zien: «Jaiki zaitezte; ez beldur izan». Begiak jasorik, Jesus bakarrik ikusi zuten, beste inor ez.

Menditik behera jaisterakoan, Jesussek agindu zien: «Ez esan inori ikusi duzuen hau, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte».

**J**esusek buru-makur ikusi ditu ikasleak, bere nekaldiaren eta heriotzaren albistea auresan dielako; hargatik, Jainkoaren Semearen aurpegi aintzatsua ikusteko esperientzia gozagarria eskaini nahi izan die. Irakatsiko die –haiei eta guri–, aintzarako bidea dela gurutzea: baina Jainkoaren azken hitza ez dela heriotza, baizik eta bere Semearen aintzatzea, eta guretzat bizitza dohatsua.

Aintzaren esperientzia aurreratu bat da, beraz, Antzaldatze hori. Tximista bezala da gau ilunean. Oroitzapen izan behar du guretzat, gurutzearen zama eroaten lagunduko digun arnasa. Zeren eta gure ikasle-bidea ez da mendi ganean gelditzea, jaiste baizik, baina norberarekin eramanez Tabor mendiko une argigarri eta esperantzarriaren oroitzapena, jakinik argialdiek ez dutela desegiten gau iluna, baina bai argitzen eta laguntzen, gupidatsu, bide egiten, Jesusi gertatu zitzaionez.

Entzun berari! Guretzat ere esana da hori. Kristo antzaldatuaren oroitzapenak eta ahotsak, gure gurutzeak ezabatuko ez badituzte ere, argitu eta sendotu gaitzabela, geure mundu honetan erruki-ubide antzeko izan gaitzen, egunean eguneko gurutzea lepoan hartuz, Jesusi jarraitzeko.

Garizumako 2. astea.

Santa Frantziska Erromatarra, *erlijiosa*.

San Pazio, *gotzaina*.

[Danielen liburutik 9,4b-10: Guk bekatu egin dugu, gaizto izan gara.

Sal 79 [78]: Ez gu hartu, Jauna, gure bekatuek merezi bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,36-38.

Aldi hartan, Jesusesk esan zien ikasleei: «Izan zaitetze erukior, zuen Aita erukior den bezala. Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri bete, saka-tua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak»

**B**arkatzaile den Aita gupidatsuaren antzeko izatea, prozesu bat da, bere denbora behar izaten du eta pazientziadun konfiantza. Jainkoaren grazia, aldi berean, dohain da eta eginkizun: eskatu egin behar da, baina baita lankide izan ere. Urratsak eginez joan behar izaten dugu, Jaunaren laguntzarekin, erresumina metatuz joan ez dadin. Eta, ahaztea gauza zaila bada ere, garrantzikoa da iragana gogora ekartzeko zein era erabiltzen dugun; izan ere, badira kaltegarri diren oroitze-ko erak, ez bakarrik iraina egin duenarentzat, baita iraindua izan denarentzat ere. Bada irainak iradokitzeko era bat, halakoak digeritzen laguntzen diguna, iraintzailea beste begi batzuekin ikustera bultzatzen gaituena, pertsona hura ahuldadez joa eta beraren historiak berak baldintzaturik aurkezten diguna. «Jendearen bihotz-hondoa ezagutuko bagenu, gupida izango genuke izarrez beraiez» (Uriarte monsinorea).

[Isaias Profetaren liburutik 1, 10. 16-20: Ikasi on egiten, bila ezazue zuzenbidea. Sal 50 [49]: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamenaren erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 1-12.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez. Zama astunak eta eraman ezinezkoak lotzen dituzte, eta besteei leporatzen; baina berek atzamar batez ere ez dituzte mugitzen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo deigarriak mantu barrenean. Afarietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta denek “maisua” deitzea.

Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” deitzen, bakarra baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurrean inori “aita”, bakarra baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi inori “gidari” deitzen ere, bakarra baita zuen gidaria, Kristo.

Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

**H**izketa-doinu gogorrez aurpegiratu die Jesusek bere garaiko agintari erlijiosoei: 1) zamak ezartzen dizkiozue jendeari; 2) luxuz janzten zarete; 3) ohore-postuen bila ibiltzen zarete; 4) jendeak aitor diezazkizuen tituluak aireratzen dituzue. Min handiz egiaztatzen dugu, kexa honek zutik jarraitzen duela gaur egun. Baina ez da eliz hierarkia bakarrik interpelatzen duen lantua. Elkarteko kide bakoitzak ere badu horretaz zer pentsatua, askotan ez baitatoz bat sinesten dugula esaten

Garizumako 2. astea.

San Alexandro, *martiria*.

Santa Maria Eugenia Milleret, *fundatzailea (Jasokundeko Erlijosak)*.

duguna eta bizi duguna, nabarmendu egin nahi izaten dugu bata bestearen pareko izatea bilatu ordez, irakatsi egin nahi izaten dugu ikasi ordez, besteri ezarri elkarrekin eroan baino gehiago... Jarrera hauek gainditzen ez ditugun bitartean, ez dugu lortuko Jesusen ametsa betetzea: Eliza anai-arreben elkarte izatea.

*Hartu zituen Jesusek berekin  
Pedro, Santiago eta Joan, eta  
mendi goi batera igo zen haiekin  
bakarrik, eta hiruren aurrean  
antzaldatu zen.*





Garizumako 2. astea.  
 Santa Aurea, *abadesa*.  
 San Eutimio, *gotzaina*.

[Jeremias Profetaren liburutik 18, 18-20: Zatozte, jo dezagun Jeremias. Sal 31 [30]: Salba nazazu, Jauna, zeure maitasunaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 17-28.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemara igotzen ari zela, hamabi ikasleak aparte hartu eta esan zien bidean: «Begira, Jerusalemara igotzen ari gara eta Gizonaren Semea apaizburuen eta lege-maisuaren esku utziko dute, heriotzara kondenatuko dute eta atzerritarren esku utziko, iseka egin diezaioten, zigorkatu eta gurutziltza dezaten; baina hirugarren egunean piztuko da».

Orduan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean».

Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?» Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!» Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariek menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzatua izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».

«**Z**uek, horrelakori ez!» Jesusen agindu horrek gure bizitzako eremu guztietarako balio du. Aginpide (edo botere) izpi bat guztiok izaten

Garizumako 2. astea.  
 Santa Aurea, *abadesa*.  
 San Eutimio, *gotzaina*.

dugu, dela lanbide-eremuan, etxekoan, heziketakoan... Nola baliatzen gara geure ahalbideez, geure «botereez», geure aginpideaz? Zerbitzari izateko ala zerbitza gaitzaten? Bere aginpidea zerbitzu bezala hartzen eta bizi duenak zerbitzu-gai dituenen larruan jarri behar du. Hauxe da nork bere burua erdigunez kanpo ipintzea. Bere aginpidea jauntxoek-riatzat hartzen eta bizi duenak, berriz, zerbitza dezaten nahi izaten du; hartarako bestea bere erdigunera, hau da, bere neu-ra ekarri behar izaten du. Erabat egoki esan izan da: «Zerbitzari izan ahal delarik, jauntxokeria bizi duenak, munduaren irizpideen arabera dihardu; jauntxo bezala bizi ahal delarik, zerbitzari bizi dena, Kristoren irizpideez ar-nasturik bizi da».

\*\*\*

Zesareako Eusebio historialari handia izan zen. Kontatzen du Konstantino Jenerala ez zela kristau fededun, baina begirune handia ziela kristauei, berauen bakeagatik eta alde guztietan egiten zuten on-giagatik.

Majentzioren –Erromako buruzagia berau– aurka gudu latz bati ekiteko puntuan, amets bat izan omen zuen, gurutze dirdaitso bat ikusi eta ahots bat entzun: «Zeinu honekin lortuko duzu garaipena». Eta dudatuko gabe, bere estandarte eta bandera guztietan gurutzea ipini omen zuen. Eta bere armadari esaten omen zion: «Konfiantza dut Kristogan, zeinetan sinesten baitu Elena neure amak»

Gudua irabazirik, laster iritsi zen Enperadore izatera. Eta dekretu bat jaulki zuen, kristauen aurkako pertsekuzioa etenez eta askatasun erlijioso aldarrikatuz.

Gaurko ebanjelioan, Santiagoren eta Joanen amaren eskari bitxia entzun dugu. Kristoren piztuera aurreko Santiago eta Joan anaiak eta piztuera ondoko Santiago eta Joan bereizi ohi ditugu. Bereizketa hori gauzatzea asko kostatu da. Eusebiok ere Jesusen piztuera aurreko San-tiago eta Joan ospatzen ditu: Jesus, Jainkoa, jende batzuen alde eta beste batzuen kontra egongo balitz bezala aurkezten digu!?

Garizumako 2. astea.

San Nikodemo, *aitorlea*.

San Maximiliano, *martiria*.

[Jeremias profetaren liburutik 17,5-10: Madarikatua konfiantza giza-kiagan duena. Bedeinkatua konfiantza Jaunagan duena. **Sal 1**: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,19-31.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus fariseuei: «Bazen gizon aberats bat, purpuraz eta liho finez jantzi eta egunero festa ederrak egiten zituena. Lazaro izeneko eskale bat, berriz, aberatsaren etxe-atarian etzanda egoten zen, zauriz josia; gogotsu jango zukeen aberatsaren mahaitik erortzen zena. Txakurrek berek ere etorri eta zauriak milikatzen zizkioten.

Honetan, hil zen eskalea, eta aingeruek Abrahamen altzora eraman zuten. Hil zen aberatsa ere, eta ehortzi zuten. Hilan Egoitzan oinazetan zegoelarik, begiak jaso eta Abraham ikusi zuen urrutian eta Lazaro haren altzoan, eta deiadarka esan zuen: “Aita Abraham, erruki zakizkit! Bidal ezazu Lazaro atzamar muturra urean busti eta niri mihia freskatzera, oinaze gorrian bainago sugar hauetan”.

Baina Abrahamek erantzun zion: “Seme, oroit zaitez zuk zorion franko izan zenuela bizitzan, Lazarok, berriz, zorigaitzak; horregatik, orain hark atsegina aurkitu du, eta zuk oinazeak. Gainera, gure eta zuen artean leize handia dago, eta nahita ere ezin da inor hemendik zuengana igaro, ezta hortik gugana ere”.

Aberatsak berriro: “Orduan, aita Abraham, bidal ezazu, arren, Lazaro gure aitaren etxera, bost anaia badituz eta; jar ditzala jakinaren gainean, eurak ere oinaze-leku honetara etor ez daitezten”. Abrahamek erantzun zion: “Hor dituzte Moises eta profetak; entzun diezaietela”. Hark berriro: “Ez, aita Abraham; hildakoren bat joango balitzaie, bihotz-berrituko lirateke”.

Baina Abrahamek erantzun zion: “Moisesi eta profetei entzuten ez badiete, ez dute sinetsiko ezta hildako bat piztuta ere”».

Garizumako 2. astea.

San Nikodemo, *aitorlea*.

San Maximiliano, *martiria*.

**X**ahutzen eta gauzak alferrik botatzen duen aberatsa da, otorduz otordu dabil, luxuz jantzi... eta, bere zilbor hesteari begira, ezin erreparatu dio goseak bizi den behartsuari, bere etxe atarian izanik ere – behartsua ez da ezer!–. Sentiberatasun-eza eta zimurdura nagusitu zaizkio bihotzaz; ez du ezertarako izango hildako bat pizturik ikustea biziera aldatzeko (ezta beraren bost anaia aberatsena aldatzeko ere: «diruaren adiskide dira»). Jainkoaren Hitza egiati entzutea proposatu du Jesusek aberatsa «bihotz-berrituko» bada: era solidarioan partekatzera jotzeko dei-hitza da (Is 58,7). Mundu zuzengabe honetan, «ez-axola globalizatu honetan», behartsuen eta aberatsen arteko arrakala haziz doan honetan, «entzuten al dugu» hitz hori? Ba al du eraginik gure bizitzan eta patrikan?

\*\*\*

### Bakearen zerbitzari

*(Asisko Frantzisko santuarena)*

Jauna, egin nazazu zeure bakearen zerbitzari.  
 Gorrotoa dagoen lekuan, erein dezadala maitasuna.  
 Iraina dagoen lekuan, sorraraz dezadala barkamena.  
 Haserrea dagoen lekuan, bila dezadala elkartasuna.  
 Gezurra dagoen lekuan, maitarazi dezadala egia.  
 Duda-muda dagoen lekuan, piztu dezadala fedea.  
 Etsipena dagoen lekuan, ernearaz dezadala esperantza.  
 Ilunpea dagoen lekuan, distiraraz dezadala argia.  
 Tristura dagoen lekuan, sar dezadala poza.  
 Oi Jainko Maisua, egizu ez nadila saiatu  
 ni nork kontsolatuko bila, baizik nik nor kontsolatuko.  
 Ez niri nork harrera ona egingo bila, baizik nik nori egingo.  
 Ez ni nork maitatuko bila, baizik nik nor maitatuko.

Garizumako 2. astea.

Sana Eufrasia, *birjina*.Santa Kristina, *birjina*.San Silvano, *martiria*.

[Hasiera liburutik 37, 3-4. 12-13a. 17b-28: Horra non datorren ameslaria; hil dezagun. Sal 105 [104]: Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21,33-43.45-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburuei eta herriko zaharrei: «Entzun parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu; bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen; gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen.

Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, fruitutik zegokion partea jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. Berriro beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenean, bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”.

Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk. Hil dezagun eta guretzat izango duk ondarea”. Heldu zioten, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten». Jesusek galdetu zien: «Zer egingo die nekazari horiei mahasti-jabeak, itzultzean?»

Erantzun zioten: «Errukirik gabe hilko ditu, eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia».

Jesusek esan zien: «Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri: “Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da.

Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?”

Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio».

Parabola hauek entzutean, Jesus beraiengatik ari zela jabetu ziren apaizburu eta fariseuak, eta hura atxilotu nahian zebiltzan; baina jendearen beldur ziren, denek profetatza baitzeukaten.

Garizumako 2. astea.

Sana Eufrasia, *birjina*.

Santa Kristina, *birjina*.

San Silvano, *martiria*.

«**H**orra ameslaria!» Ernst Bloch-ek esan ohi zuen, gure aldi honetako gizartean ameslarien beharra dugula, «egunez» amets egingo luketenak, utopia mugiarazle eta animatzaile gisa, zutik jarraraziko gintuzketenak eta abian esperantzaren bila. Amets asaldagarriak, gogoraziko digutenak ezen daitekeena dela beste era batean bizitzea, eta gizarte solidarioago, eskuzabalago, zuzenago eta zerbitzariago bati begira bizitzea. Gu kristauok amets horien eroale gara; izatez, Jesusen «egun argitako ametsak» dira; gure zimentarri izan zen hura, anai-arreben elkarte bat amesten duena, zeinetan Jainkoa errege izan ahal zen. Amets hauek akuilu kritiko izan beharko lukete, baina baita zerbitzari ere. Berekin arriskuak eta zailtasunak (direla uraskak, direla nekazari egoistak) Josek Egipton eta Jesusek berak ere jasan dituzten arren, egin dezagun amets.

\*\*\*

### Jainkoak bere burua zure bihotzean islaturik ikusi nahi du

Jainkoa maitatze hau, hurkoaren ongiar ardura duen maitasunarekin batera doa beti; ondorioz, zuzentasunaren goseak lagun du beti errukiaren bertutea; horregatik esan ohi da segidan: Zorionekoak errukitsuak, errukia lortuko baitute.

Har ezazu aintzat, kristau hori, zeure jakinduria honen goreneko duintasuna, eta uler ezazu nolakoa izan behar duen zure jokabideak eta nolakoak diren Jainkoak promes egin dizkizun sariak. Errukiak zu errukitsu izatea nahi du, zuzentasunak zu zuzen izatea; izan ere, Kreatzaileak bere burua bere sorkariagan islaturik ikusi nahi du, eta Jainkoak bere irudia berreginik giza bihotzaren ispiluan, zuk Jainkoaren egintzak imitatzen dituzularik. (*Leon Handia, Hitzaldi baten laburpena; in Oficio de las Horas IV; Urteko XXIII. Igandea, 165. or.*)

Garizumako 2. astea.

Santa Matilde, *erregina*.

San Inozentzio, *gotzaina*.

[Mikeas profetaren liburutik 7,14-15.18-20: Itsas hondora botako ditugure bekatu guztiak. Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,1-3.11-32.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».

Orduan, parabola hau esan zien Jesussek: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: “Aita, emadazu dagokidan senipartea”. Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteena, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera joan zen, eta han, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen.

Dena xahutu zuenean, gosete handia sortu zen herrialde hartan eta beharra sentitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen, eta hark bere sailetara bidali zuen txerri-zain. Txerrien janari zen ezkurrez sabela betetzeko gogoak ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen.

Orduan, bere baitara itzulirik, esan zuen: “Hamaika langile bada nire aitarenean, nahikoa ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Jaiki, aitagana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala”. Eta jaiki eta aitagana abiatu zen.

Artean urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta erruki izan zuen, eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi...”.

Aitak, ordea, esan zien morroiei: “Atera berehala soinekorik ederrera eta jantzi iezaiozue; ipini eraztuna eskuan eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua, nire seme

Garizumako 2. astea.

Santa Matilde, *erregina*.

San Inozentzio, *gotzaina*.

hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”. Eta festa hasi zuten.

Seme zaharrena soroan zen. Etxera hurbiltzean, soinua eta dantzak sumatu zituen, eta, morroi bati deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. Morroiak erantzun: “Zure anaia etorri da eta zuen aitak zekor gizendua hil du, semea onik bereganatu duelako”. Seme zaharrena biziki haserretu zen, eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: “Hainbeste urte da zure zerbitzuan nagoela, zure agindurik behin ere huts egin gabe, eta ez didazu sekula antxume bat ere eman lagun artean jateko, eta horrako zure seme hori, emagalduekin zure ondasunak jan dituen hori, etorri denean, zekor gizendua hil diozu”.

Aitak erantzun zion: “Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den guztia zeurea duzu. Baina egoki zen festa egitea eta poztea, zure anaia hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”».

**A**ita errukitsuaren parabola hau da Jainkoaz Itun Berrian ageri den definiziorik luzeena –ez da kontzeptuala; gupidatsu jokatzu deskribatu du hura–. Egunero igotzen da azoteara, eta semea itzuli datorren egunean, ez du inork jakinaraz diezaion beharrik, beti egon baita bera zain-zain. («Aitak urrunera ikusi zuen eta barnea lehertu zitzaion»). Adi eta azti dago Jainkoa beti: onartzen gaituen maitasuna eskainiz, gonbidatzen gaituen adiskidetasuna eta dohain eman nahi digun onginahia eskainiz. Jainkoak ez du inor hartzen derrigortuz, baina iradoki egiten digu bere burua. Arrotz dela ematen badu ere, Jainkoak topo egin nahi du nirekin, nik berarekin egitea gura dudan adina eta gehiago. Geure burua galdurik sentituko dugunean, jo dezagun segur-segurizat, gure bila dabilela Jainkoa.



Garizumako 3. astea.

Santa Luisa Marillac-ekoa. *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak).*

### § Irteera liburutik 17, 3-7.

Egun haietan, herria egarri zen, eta Moisesen kontra marmarka ari zen: «Honetarako atera al gaituzu Egiptotik, gu geu, gure seme-alabak eta abereak egarriz hiltzeko?» Moisesek deiarar egin zion Jau-nari: «Zer egin behar dut nik herri honekin? Harrika emango didate laster».

Jaunak erantzun zion Moisesi: «Jar zaitetz herriaren aurrean eta eraman zeurekin herri-arduradun batzuk. Hartu eskuan Nilo ibaia jo-tzeko erabili zenuen makila, eta zoaz. Han zeure aurrean izango nauzu Ni, Horeb mendiko harkaitz gainean. Harkaitza jo eta ura sortuko da handik, herriak edan dezan».

Hala egin zuen Moisesek Israelgo arduradunen aurrean. Toki hari Masa eta Meriba, hau da, Tentaleku eta Auzileku, ezarri zion izena, han berari aurpegi eman eta Jauna tentatu zutelako, esanez: «Gure ar-tean dago Jauna, bai ala ez?»

[Sal 95 [94]: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogor-tu zeuen bihotza».]

### § San Paulok Erromatarrei 5, 1-2. 5-8.

Senideok: Jainkoak fedeagatik zuzentzat hartu gaituenez gero, ba-kean gaude harekin, Jesu Kristo gure Jaunari esker. Honi esker, sines-menaren bidez eman digu Jainkoak grazi egoera honetan bizitzea, eta harro gaude Jainkoaren aintza iritsiko dugun itxaropenez.

Itxaropenak ez du huts egiten, Jainkoak bere maitasuna isuri baiti-gu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez. Izan ere, orain-dik bekatupean indargabe geundela, Kristo, Jainkoak erabakitako ga-rian, gaiztoen alde hil zen. Nekez onartuko luke norbaitek pertsona zuzen baten alde hiltzea; hala ere, pertsona on baten alde baliteke nor-bait hiltzeko prest gotea.

Garizumako 3. astea.

Santa Luisa Marillac-ekoa. *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak).*

Baina Kristo, artean gu bekatari ginela, hil zen gure alde; honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 4, 5-42.

Aldi hartan, Jesus Sikar deritzan Samariako hirira iritsi zen, Jakobek bere seme Joseri ondare emandako lur-sail ondora. Han zegoen Jakobena putzua. Jesus, bidez nekatu, putzu-ertzean eseri zen. Eguerdi ingurua zen.

Ikasleak hirira joanak ziren, jatekoak erostera. Horretan, Samaria-ko emakume bat etorri zen ur bila, eta Jesusek esan zion: «Emadazu edaten». Samariar emakumeak esan zion: «Nola zuk, judu izanik, eskatzen didazu edatekoa niri, samariar naizen honi?» (Jakin behar da, juduek eta samariarrek ez dutela elkarrekin harremanik).

Jesusek erantzun zion: «Jainkoaren dohaina zein den eta edatekoa nork eskatzen dizun jakingo bazenu, zeuk eskatuko zenioke berari, eta hark ur bizia emango lizuke».

Emakumeak esan zion: «Jauna, ez duzu ura zerekin atera, eta putzua sakona da; nondik atera behar duzu ur bizi hori? Gure aita Jakobek eman zigun putzu hau eta hemendik edan zuten hark, haren seme-alabek eta abereek. Hura baino handiagoa al zara Zu?»

Jesusek erantzun zion: «Ur honetatik edaten duena, berriz ere egarritu egiten da; Nik emandako uretik edaten duena, ordea, ez da gehiago egarrituko sekula; zeren Nik emango diodan ura, betiko bizia darion iturburu bihurtuko baita harengan».

Orduan, emakumeak: «Jauna, emadazu ur hori, berriro egarri ez nadin, eta hona ur bila etorri beharrik izan ez dezadan».

Jesusek esan zion: «Zoaz, deitu zeure senarrari eta itzuli hona». Emakumeak erantzun zion:

«Ez dut senarrik». Eta Jesusek: «Ongi esan duzu ez duzula senarrik; bost izan dituzu, eta oraingoa ez duzu senarra; horretan egia diozu». Emakumeak esan zion: «Jauna, ikusten dut profeta zarela. Gure

Garizumako 3. astea.

Santa Luisa Marillac-ekoa. *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak).*

gurasoek mendi honetan adoratu zuten Jainkoa; zuek, juduok, berriz, Jerusalemen adoratu behar dela diozue».

Jesusek erantzun zion: «Sinetsiezadazu, emakume: badator ordua, ez mendi honetan, ez Jerusalemen, Aita adoratuko ez duzuen. Zuek ez dakizue zer adoratzen duzuen; guk badakigu zer adoratzen dugun, salbamera juduogandik baitator. Baina badator ordua, hobeto esan, iritsia da, egiazko adoratzaileek Aita espirituz eta egiaz adoratuko dutena. Izan ere, Aitak honelako adoratzaileak nahi ditu. Jainkoa espiritua da, eta hura adoratzen dutenek espirituz eta egiaz adoratu behar dute».

Emakumeak esan zion: «Badakit Mesias, Kristo alegia, etortzekoa dela, eta hark, etortzean, gauza guztiak agertuko dizkigula». Eta Jesusek: «Neu nauzu, zurekin hizketan ari naizen hauxe». Une hartan etorri ziren ikasleak eta harritu egin ziren emakume batekin hizketan ari zelako.

Hala ere, ez zion inork galdetu zer nahi zuen edo zertaz ari zen emakumearekin. Emakumeak ur-ontzia han utzi, hirira joan eta jendeari esan zion: «Zatozte egin dudan guztia esan didan gizona ikustera. Ez ote da bera Mesias?» Jendea hiritik atera eta Jesusengana joan zen.

Bitartean, ikasleak arrenka ari zitzaizkion: «Maisu, jan ezazu!» Baina hark esan zien: «Badut Nik zuek ez dakizuen beste janari bat». Ikasleek galdetu zioten elkarri: «Norbaitek ekarri ote dio, bada, jatekorik?»

Jesusek esan zien: «Nire janaria bidali nauenaren nahia egitea da eta haren salbamen-egintza burutzea. Ez al duzue esaten zuek: “Lau hilabete barru uztaroko dugu?” Horra, bada, Nik esan: Jaso begiak eta ikusi gari-soroak, uztarako horituak. Eta dagoeneko ari da igitaria lan-saria hartzen eta betiko bizirako fruitua biltzen, nola ereilea hala igitaria, biak poztu daitezten. Honetan bai betetzen dela esaera: “Batek erein, bestek bildu”. Zeuek landu ez duzuen biltzera bidali zaituztet Nik; beste batzuek egin dute lana eta zuek jasotzen duzue haien lanaren saria».

Garizumako 3. astea.

Santa Luisa Marillac-ekoa. *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak).*

Hiri hartako samariar askok sinetsi zuen Jesusengan emakumeak egindako aitormenagatik:

«Egin dudán guztia esan dit». Samariarrek, Jesusengana etorri zirenean, berekin gelditzeko eskatu zioten, eta bi egunez egon zen han. Jesusen hitza entzutean, askoz gehiagok sinetsi zuten. Eta emakumea-ri esaten zioten: «Orain ez dugu zure esanagatik sinesten; geuk entzun diogu, eta badakigu hau dela egiaz munduaren Salbatzailea».

**G**u ere hor gabiltza ur bila. «Geure bihotza larri dugulako, Jainkoagan atsedén hartu arte» (San Agustín). «Hori sentitzeko», ordea, aitortu beharra dugu, badugula geure bizitzan errotiko aseegin bat, egarri bat, betetasun-gurari bat, lortuz goazen azaleko lorpenek asetzen ez digutena... Jainkoaren egarri gara (Sal 42,3). Hau aitortzea, aurkitzen hastea da. Pascalek zioen: «Ez zinateke nire bila ibiliko, jada aurkitu ez baninduzue». Bila ibiltzean, Luis Rosales poetak zioena benturatu-ko zaigu: «Gaez joanen gara, gaez, / ze iturburua aurkitzeko, / soilik egarriak baitigu argi egingo». Izan ere, «egarri denak, bila dabilenak, badu jada bere egarrian berean gura duen hura». Izatez, samariar emakumearen historia, gurea Jesusekin bezala, bi pertsona egarriren historia da. Jesus egarri da gu beraren egarri izan gaitezen. Jesusek egarri dela esan digun bietan, guri ura eskaintzeko izan da. Gurutzean esan du: «egarri naiz» (Joan 19,28), beraren saihestari darizkion ura eta odola guri eskaintzeko, era sinbolikoan. Emakume samariarraren kasuan, egarri den Jesusek egarri oro asetzen duen ur bizia eskaini dio, bukatzeko. Geuri ere eskaintzen digu: «Horrela, “persona-suil” izango gara mundu honetako basamortuetan» (Frantzisko aita santua).

Garizumako 3. astea.

San Hilario, *gotzaina*,  
Santa Kolunba, *martiria*.

[Erregeak 2. liburutik 5, 1-15a: Bazen legenardunik asko Israelen; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik. Sal 42 [41]: Jainko biziaren egarri naiz: noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 24-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera joan zen. Eta sinagogan jendeari esan zion: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartu denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik».

Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

**J**esusen lehen porrota da gaurko ebanjelioko hau, beraren herrian berean. Lukasek, Jesusen jardueraren estreina-eszena horretan, Jesusen bizitza izango denaren aurre-irudia deskribatu digu: kontraesanen ezaugarri izango da Jesus. Ez digu adierazi zergatik igaro diren Jesusen herritarrak miresmenetik sumindurara. Baina azpimarratu du amildu egin nahi izan dutela. Irakaspen da guretzat hori guztia: zer egingen dugu porrot bat etortzen zaigunean, hainbat aldiz etortzen baitzaizkigu gutxienean espero genuen aldetik eta pertsonatetik? Jesusek «beraien artetik igaro» eta «bere bideari jarraitu zion». Zein izango zen gure zoria, baldin eta, lehen talka edo liskar honen aurrean, Jesusek bere misioari uko egin izan balio? Jesusen ustez, ordea, Berri Ona ezin utzi da ezkutu, inolako muturreko edo zailtasunengatik.

Garizumako 3. astea.  
San Patrizio, *gotzaina*.

---

[**Danielen liburutik 3,25.34-43**: Bihotz-damuz eta gogo apalez gatozkizu: har gaitzazu onez. **Sal 25 [24]**: Oroit zaitez zeure errukiaz, Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,21-35.**

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jaina, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?»

Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuairekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko.

Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia. Baina morroi hark berak, irten orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-lagunarekin topo egin zuen, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordain iezadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

Beste morroiak, gertatua ikusirik, biziro atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten.

Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu didaalako; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?” Eta nagusiak, haserre bizian, borroeroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte.

Garizumako 3. astea.  
San Patrizio, *gotzaina*.

**G**izakiaren barkazioa, lehenik eta behin, ondorio bat da: Jainkoak guri barkatu izanaren ondorio. Norberak merezi gabe Jainkoak barkatu diola sentiturik, kristauak, jaso duen barkazio horretatik, barkatzeko gaitasuna eta indarra ateratzen ditu. Aldi berean, ordea, gizakiaren barkazioa baldintza bat da Jainkoak guri barkatzen segitzeko. Ez da elkarrekiko eskakizun bat (“do ut des”); iraindu zaituenari barkatzeko jarrera honek ez du erosten, ez merezi izaten, Jainkoak eskaintzen dizun barkazioa, baina bai testigantza egiten, Jainkoak barka diezazun duzun guraria egiazkoa dela. Jainkoak ez digula barkatzen sentitzen badugu, ez da hark barkatzeko jarrera alboratzen duelako. Geu gara, barkatzen ez dugunean, geure burua ezgai egiten dugunak Jainkoaren barkazioa sentitu eta hartzeko.

\*\*\*

### Jainkoa barkatzaile

Gogoan dut: gotzain egin berri nintzela, 1992an, Fatimako Andre Maria iritsi zen Buenos Airesera, eta meza solemne bat ospatu zen gaixoentzat. Aitorlekura joan nintzen, meza hartan. Eta meza bukatzeaz zela jaiki, Sendotza emateko. Adin handiko emakume bat etorri zitzaidan, apala, oso apala, 80 urte baino gehiago. Begira jarri eta esan nion «Amona» –han horrela deitu ohi diegu adin handikoei–, «amona, aitortu egin nahi al duzu?» Eta «Bai», esan zidan. «Baina zuk ez duzu bekatuik eta!» Eta berak: «Denok gara bekatari». «Baina, Jaunak ez al dizu, ba, barkatzen?» Eta berak: «Jaunak dena barkatuko ez baligu, mundua ez litzateke existituko» (*Frantzisko aita santua*).

[Deuteronomio liburutik 4,1.5-9: Gorde itzazue eta bete nire aginduak. Sal 148 [147]: Jerusalem, ospa ezazu Jauna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzer a etorria naizenik; ez naiz baztertzer a etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lur rrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte.

Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

**J**esus, «agindurik txikienetako bat baztertzen duena» gaitzesten duenean, ez da ari Itun Zaharreko aginduez, baizik eta segidan berak adieraziko dituen ez. Beraz, Jesus ez da zerbitzari, baizik eta Legearen Jaun; baina bere jauntasuna, Legea bere betera eramanez gauzatzen du. Honek esan nahi du, letrari ez, baizik haren espirituari atxiki behar zatzaizkiola, Jainkoa eta lagun hurkoa maitatzearen agindu bikoitzean bildua den espirituari (Mt 22,40). Lege orok, egiazkoa izango bada, maitasun hori faboratu behar du, eta legearen esaneko izan nahi duen orok prest egon behar du maitatzeko, betetzaille hutsa izan gabe, seme hondatzailearen parabolako seme nagusiaren pareko izan gabe.



§ 2 Samuel liburutik 7,4-5a.12-14a.16.

Egun haietan, Jaunaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: “Hau dio Jaunak: Zeure egunak bete eta zeure gurasoekin atsedean hartuko duzunean, ondorengo emango dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotuko dut haren erregetza. Hark eraikiko dio etxea nire izenari, eta Nik betiko sendotuko diot tronua. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura.

Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti”».

[Sal 89 [88]: Haren errege-jatorriak betiko iraungo du.]

§ San Paulok Erromatarrei 4,13.16-18.22.

Senideok: Beren oinordekotza mundua izango zutela agindu zien Jainkoak Abrahami eta ondorengoei. Agintzari hau, ordea, ez zego-kion legea betetzeari, sinesmenak duen salbamen-indarrari baizik. Beraz, agintzaria edo promesa, dohain hutsa izanik, fedeari dagokio; horrela, Abrahamen ondorengo guztientzat balio du, legearen arabera ondorengo direnentzat ez ezik, baita Abrahamen sinesmenaren arabera bizi direnentzat ere. Bera aita dugu guztiok, Liburu Santuak dioen bezala: «Herri askoren aita egin zaitut». Abraham aita dugu, beraz, Jainkoaren aurrean, hark sinetsi egin baitzuen hildakoak biziarzten eta izaterik ez dutenak izatera deitzen dituen Jainkoagan.

Abrahamek sinetsi egin zuen, inolako itxarobiderik ez zegoenean itxaropenari utsiz; horrela, herri askoren aita egin zen, Jainkoak esan zionaren arabera: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak».

Horrexegatik, hain zuzen, zintzotzat hartu zuen Jainkoak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,16.18-21.24a.

Jakobek Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaiatu zen Jesus, Kristo deritzana.

Garizumako 3. astea.

SAN JOSE, ANDRE MARIAREN SENARRA,

Jesusen Lagundiaren Zaindaria.

Santa Quintila, martiria.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joresekin ezkontzeko hitzemanana zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko dituzu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

**A**sko hitz egin zuen Jesusek Jainkoaz, Aita den aldetik; «Abba» (aita) deitu ohi zion. Baina nondik nora zuen Jesusek aita bat zer den esperientzia? Izan ere, Jesusek esan zigun, aita bati eskatzen ahal diogula ogia, egunero irabazten den ogia (Josek irabazi ohi zuenez); kontatu zigun, aita bati arrautza bat eskatzen badiozu, ez dizula emango suge bat; kontatu zigun, aita batek alde zurratik jakiten duela –semea edo alaba hondoraino ezagutzen duelako– honek eskatuko diona... Nondik nora ikasi zuen Jesusek aita bat zer egiteko eta zer nahi izateko den gai? Non ikasi zuen aita batek duen desatxikitzeko eta emateko gaitasuna; nondik nora bere mugabeko ulermena, bere onarpen eskuzabala, bere emana lanari, bereei etorkizuna irekitzeko...? Nazareten ikasi zuen Jesusek, Jose izeneko arotz baten etxean. Jose aitaz izan zuen esperientzia zela medio, Jainkoaz Aita den aldetik hitz egiteko eta nahi izateko gai izan zen Jesus. Jose aitak eragin aparta izan zuen Jesusengan. Jose, zintzo hura, izan zen Jesusi esperientzia eta baliabideak eman zizkiona, Jainkoaz Aita den aldetik hitz egiteko. Jesusen Lagundiak ere horrelako gizon horri gomendatu dio bere burua.

[Oseas profetaren liburutik 14,2-10: Ez diegu gehiago «geure jainko» esango geure eskuz eginei. Sal 81 [80]: Ni naiz Jauna zure Jainkoa, entzun nire mintzoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusiena?»

Jesusek erantzun: «Hau da nagusiena: “Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik».

Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela hura besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobe delako esatean ere».

Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik».

Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

**L**ege-maisuak galdetu dio Jesusi zein den lehen agindua; beraz, agindu bakar batez egin dio galdera. Jesusek, berriz, bere aldetik, bigarren agindu bat gehitu du: «Maita ezazu zeure lagun hurkoa zeure burua bezala». Eta biak batean kateatu ditu, biei balio-iritzi bera emanaz. Bi maitasunak hain estu daude kateaturik, non bereizi nahi dituenak, desnaturalizatu egiten baititu. Ezin da Jainkoa maitatu eta anai-arrebez ezaxola bizi. Antzinako Elizan argi eta garbi zuten hori: «gu gabe, ez dago Aitarik». Jesusek agertu digu, nola eta non erantzun Aitak guretzat izan duen eta etengabe duen maitasun horri. Lagun hurkoagan, anai-arrebigan. Horrela maite duena, «ez dago Jainkoaren Erreinutik urrun».

Garizumako 3. astea.

San Benito, *abadea, fundatzailea (beneditarrek).*

San Filemon, *martiria.*

San Justiniano, *gotzaina.*

[Oseas profetaren liburutik 6,1-6: Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino. Sal 51 [50]: Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,9-14.

Aldi hartan, parabola hau esan zien Jesusek beren burua zintzotzat hartzen eta besteak gutxiesten zituzten batzuei: «Bi gizon igo ziren tenplura otoitz egitera, bata fariseua eta bestea zergalaria. Fariseuak, zutik, honela egiten zuen otoitz bere barruan: “Eskerrak ematen dizkizut, ene Jainko, besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile, adulteriogile; ezta horrako zergalari hori bezalakoa ere. Astean bitan egiten dut barau, eta ditudan guztien hamarrenak ematen ditut”.

Zergalaria, berriz, urruti gelditurik, ez zen begiak zerura jasotzera ere esartzen, baizik eta bular joka ari zen, esanez: “Ene Jainko, erruki zakizkio bekatari honi!”

Hara zer diotsuedan: azkeneko hau Jainkoarekin adiskideturik itzuli zen etxera; bestea, berriz, ez. Izan ere, bere burua goratzen duena behe-ratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

**B**arnean daramagun fariseuak gainerakoak –«kanpoan» bizi direnak– sailkatzera eragiten digu, amore ezin emana sortzen digu, eta aldarrikatzera bultza egiten: «Eskerrak ematen dizkizut, Jauna, ez naizelako jende hori bezalako...». Fariseua gugandik kanpo balego, agian errazago izango genuke berari aurre egitea. Baina gudan sustraiturik dago, zeren eta harrokeriaren hazia –fariseukeriaren elikadura dena– bekatu egina dagoen gure gizatasunean baitago itsatsia. Are gehiago, batzuetan bekatari garelara aitortzen digu, sinesten ez badugu ere; eta sasi-apaltasun horixe da harrokeria-mota sofilena. Horregatik, sendatzeko bide bakarra Jainkoari argia eskatzea da, geure burua garen bezala ikusteko, bekatari garelara aitortzeko eta zerga-biltzaileak bezala behin eta berriz errepikatzen: «Jauna, ni ez naiz gauza, izan erruki nitaz».

\*\*\*

## SAN BENITO NURSIAKOA

Gaur San Benitoz hitz egin nahi nuke. Mendebaldeko monakismoaren fundatzailea izan zen, eta nire pontifizegoko zaindaria. San Gregorio Handiaren esaldi batekin hasiko naiz. San Benitoz idaztean dioenez: «Jainkoaren gizon hau distiratsu izan zen lurtean mirari asko eginez; ez gutxiago, ordea, bere irakaspena adieraztean agertu zuen elokuentziak» (Elkarrizketak II, 36). Gregorio Handiak 592an idatzi zituen hitz hauek; monje santua hila zen 50 urte lehenago eta artean bizirik zegoen jendearen oroitzapenean eta, nagusiki, fundatu zuen ordena erlijioso gorakorrean. Nursiako San Benitok, bere bizitzaz eta obraz, oinarrizko eragina izan zuen europar zibilizazioaren eta kulturearen garapenean (Benedikto XVI.a aita santuak).

\*\*\*

## Garizumako biziera

«Monjearen biziera beti Garizuma izan behar balu ere, gutxi baitira kemen hori dutenak, dei egin nahi diegu guztiei, Garizumako egun hauetan bizi daitezen garbitasun osoan eta, guztiek batera, ordaindu ditzaten egun hauetan beste aldietako zabarkeria guztiak. Hau nola egin? Bide oker guztiak utzirik, otoitz eginez malkoekin, irakurriz, eta bihotzeko damuan eta barau egiten saiatuz.

Beraz, gehitu diezaiogun egun hauetan zerbait eskuarki egin ohi dugun zerbitzu-lanari: otoitz bereziak eginez, jan-edana neurtuz, norberak, ezarri zaion neurriaz gainera, ezarri diezaiola bere gogoz zerbait Jainkoari “Espiritu Santuaren pozarekin”, hau da, kendu diezaiola gorputzari jan-edanetik, lotatik eta jolasetik, eta jar dadila Pazko Santuari begira, arimako itxaropenaren pozez» (*San Benito, Araudia, 49. kapituhua*).

Garizumako 4. astea.  
 Santa Basilisa, *martiria*.  
 Santa Erlinda, *aitorlea*.

§ Samuel 1 liburutik 16, 1b. 6-7. 10-13a.

Egun haietan, Jaunak esan zion Samueli: «Bete adarra olioiz eta zoaz. Betleemgo Jeserengana bidaltzen zaitut, haren semeen artean begiz jo baitut nire errege izango dena».

Iritsi zenean, Samuelek Eliab ikusi eta esan zuen bere baitan: «Zalantzarik gabe, aurrean du Jaunak bere gantzutua». Baina Jaunak esan zion Samueli: «Ez begiratu horren itxurari eta luzerari, alde batera utzia dut eta. Jainkoak ez dio begiratzen gizakiek begiratzen diotena-ri, gizakiek itxurari begiratzen baitiote; Jainkoak, berriz, bihotzari».

Jesek bere zazpi semeak eraman zituen Samueleen aurrera; baina Samuelek esan zion: «Jaunak ez du horietatik inor aukeratu». Orduan, Samuelek galdetu zion Jeseri: «Hauek al dituzu seme guztiak?» Hark erantzun: «Txikiena gelditzen da; artzain dabil». Samuelek esan zion Jeseri: «Agindu ekartzeko; ez gara jaten hasiko, hura etorri arte». Ekarrazazi zuen, beraz, mutila: ile-gorria zen, begi-ederra, itxura bikainekoa. Jaunak esan zion Samueli: «Jaiki eta gantzutu ezazu; horixe da».

Hartu zuen, bada, Samuelek olio-adarra eta gantzutu egin zuen bere anaien aurrean. Egun hartan Jaunaren espiritua Davidengan sartu zen eta haren jabe izan zen aurrerantzean.

[Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

§ San Paulok Efesoarrei 5, 8-14.

Senideok: Garai batean ilunpe zineten; orain, berriz, argi zarete Jaunari esker. Zabiltzate, beraz, argiaren seme-alabei dagokienez; on izatea, zuzentasuna eta egia dira argiaren fruituak. Aztertu zer zaion Jaunari atsegin eta ez parte hartu ilunpean bizi direnen egintza hutsaletan; baizik eta sala itzazue, lotsagarria baita horiek ezkutuan egiten dutena aipatzea ere. Baina argiak salatzen duen guztia agerian gelditzen da, eta agerian gelditzen dena argi bihurtzen da.

Garizumako 4. astea.  
Santa Basilisa, *martiria*.  
Santa Erlinda, *aitorlea*.

Horregatik esan ohi da: «Esna zaitetz, lo zauden hori, jaiki hilen artetik, eta Kristok argituko zaitu».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 9, 1-41.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoalarik, jaiotzatik itsu zen gizon bat ikusi zuen. Eta ikasleek galdetu zioten: «Maisu, nork egin zuen bekatu, hau itsu jaiotzeko, honek ala honen gurasoek?»

Jesusek erantzun zien: «Ez honek, ez honen gurasoek, ez zuten bekatu egin, baizik eta Jainkoaren egintzak honengan ager daitezen jaiotzen itsu. Egun-argi den bitartean egin behar ditut bidali naudenaren egintzak; badator gaua, eta orduan inork ez dezake lanik egin. Munduan nagoen bitartean, munduaren argia naiz».

Hau esanik, listua bota zuen lurrera, listuaz lohia egin eta lohiaz begiak igurtzi zizkion itsuari; gero, esan zion: «Zoaz eta garbitu zaitetz Siloeko uraskan» (Siloek «Bidalia» esan nahi du). Joan zen, bada, itsua, garbitu eta ikusten zuela itzuli zen.

Auzokoek eta lehen eskean ikusi ohi zutenek esaten zuten: «Ez al da hau eserita eskean egoten zena?» Batzuek zioten: «Bai, hura da». Beste batzuek: «Ez, ez da hura, haren antzeko bat baizik». Berak, berriz, zioen: «Bai, huraxe naiz». Orduan galdetu zioten: «Nola ireki zaizkizu, bada, begiak?» Eta hark erantzun: «Jesus delakoak lohia egin du, begiak igurtzi dizkit eta agindu dit: “Zoaz Siloera eta garbitu”; joan, garbitu eta ikusten hasi naiz». Galdetu zioten: «Non da gizon hori?» Hark erantzun: «Ez dakit».

Larunbata zen Jesusek lohia egin eta begiak ireki zizkion eguna. Horregatik, fariseuengana eraman zuten itsu izana, eta fariseuek berriro galdetu zioten nola hasi zen ikusten. Hark erantzun zien: «Lohia jarri zidan begietan, garbitu nintzen eta ikusi egiten dut».

Fariseuetako batzuek zioten: «Gizon hori ez dator Jainkoagandik, ez baitu larunbateko atsedeen-eguna errespetatzen». Beste batzuek, berriz, zioten: «Nola egin dezake bekatari batek horrelako ezaugarririk?» Eta

Garizumako 4. astea.

Santa Basilisa, *martiria*.

Santa Erlinda, *aitorlea*.

ez zetozen bat beren iritzietan. Berriz galdetu zioten itsuari: «Eta zuk zer diozu begiak ireki dizkizunaz?» Hark erantzun: «Profeta dela».

Hala ere, juduek ez zuten sinetsi nahi gizon hura itsu izan eta ikusten hasi zela. Beraz, haren gurasoei deitu eta galdetu zieten: «Hau al da zuen semea, itsu jaio zela diozuen? Nolatan ikusten du, bada, orain?» Gurasoek erantzun zieten: «Guk badakigu gure semea dela eta itsu jaio zela; baina orain nolatan ikusten duen edo begiak nork ireki dizkion, hori ez dakigu. Galdetu berari, badu adina-eta bere buruaren berri emateko». Juduen beldurrez hitz egiten zuten gurasoek honela, ordurako agintariek erabakia baitzuten Jesus Mesias zela aitortzen zuena beren elkartetik botatzea. Horregatik esan zuten gurasoek: «Badu adina, galdetu berari».

Juduek bigarren aldiz deitu zioten itsu izanari eta esan zioten: «Aitortu egia Jainkoaren aurrean. Guk badakigu gizon hori bekataria dela». Hark erantzun zien: «Bekatari den ala ez, nik ez dakit. Dakidan gauza bakarra hauxe da: itsu nintzela eta orain ikusi egiten dudala».

Haiek berriro: «Zer egin dizu? Nola ireki dizkizu begiak?» Hark erantzun zien: «Esan dizuet lehen ere, eta ez didazue jaramonik egin. Zergatik entzun nahi duzue berriro? Zuek ere haren ikasle izan nahi duzue ala?»

Haiek irainez bete zuten eta esan zioten: «Zeu izango zara haren ikasle; gu Moisesen ikasle gara. Guk ziur dakigu Jainkoak Moisesi hitz egin ziola, baina hori nongoa den ere ez dakigu».

Hark orduan: «Hori bai harrigarria! Zuek nongoa den ere jakin ez, eta hark niri begiak ireki. Jakina da Jainkoak ez diela bekatariei entzuten, baizik eta jainkozale denari eta beraren nahia egiten duenari entzuten diola. Egundaino ez da entzun itsu jaiotako bati inork begiak ireki dizkionik. Gizon horrek, Jainkoagandik ez baletor, ezin izango luke ezer egin». Haiek erantzun zioten: «Goitik beheraino bekatari jaio zinen, eta zu guri irakatsi nahian?» Eta kanpora bota zuten.

Jakin zuen Jesusek bota egin zutela eta, aurkitu zuenean, galdetu zion: «Sinesten al duzu Gizonaren Semeagan?» Hark erantzun: «Esa-



Garizumako 4. astea.  
Santa Basilisa, *martiria*.  
Santa Erlinda, *aitorlea*.

dazu nor den, Jauna, sinets dezadan». Jesusek esan zion: «Ikusi duzu; zurekin hizketan ari dena bera da». Hark orduan: «Sinesten dut, Jauna». Eta aurrean ahuspeztu zitzaion.

Ondoren, Jesusek esan zuen: «Epai baterako etorri naiz Ni mundu honetara; ikusten ez dutenek ikus dezaten, eta ikusten dutenak itsu bihur daitezten». Jesusekin zeuden fariseu batzuek, hori entzunik, esan zioten: «Gu ere itsu ote gara, bada?» Jesusek erantzun zien: «Itsu bazinete, ez zenukete bekaturik. Baina ikusten duzuela diozuenetz, zeuen bekatuan irauten duzue».

**D**inamika bikoitz baten aurrean gaude: 1) itsu batena: ikustera iritsi da, ikusi nahi izan duelako eta argitasun beharra sentitu duela; 2) jendearena: jada ikusten duela uste du, ez duela argitasun-beharrik... eta itsu gelditu da, ez ikusteari emanik bizi nahi duelako: bihotza sorgor du. Balizko bihotz-gogortasun hori txertatua dugu agian geugan ere. Esan nahi du, ez erantzukizun-falta edo leporatu ezina, baizik eta giza erantzukizuna irits daitekeela, batzuetan, kontzientzia ezabatzerare, norberaren ustezko probetxurako: «beste norabait begira jartzera, ez ikusteko» (nahita egindako itsumena). Bekatariak «gorroto dio argiari», adierazi du biribilki Jesusek (Joan 3,20). Itsutasun honen aurrez aurre eredu bat eskaini digu ebanjelioak: benetan argi bila dabilen itsua. Heldutasun-prozesu bat egin beharra izan du, oztopoak gaintzen joan beharra, «Jauna» deitu eta aitortu arte, beraren aurrean esker onez ahuspeztuz. Horrez gero –Argiak eman dion argia besarkatu-rik–, hartatik eta harekin bizitzeko konpromisoa sortu da, aurrerakoan ilun-egintzetan jardun gabe.

Izan gaitzen argiaren seme-alaba –San Paulok Efesoarrei eskatu zien bezala (Ef 5,8-14)–. Hustu gaitzen gogozko nahiz erdi gogozko itsutasunetik, eta izan dezagula Kristo geure argi, geure izatearen zentzua argitzen diguna.

Garizumako 4. astea.

San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*.

San Jose Oriol, *apaiza*.

[Isaias Profetaren liburutik 65,17-21: Ez da han gehiago entzungo negar-hotsik, ez garrasirik. [Sal 30 [29]: Goratuko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 4,43-54.

Aldi hartan, Jesus Samariatik atera eta Galileara joan zen. Jesusek berak aitortua zuen, profeta ez dutela bere herrian aintzat hartzen. Hala ere, Galileara iritsi zenean, galilearrek harrera ona egin zioten. Izan ere, Jerusalem izanak ziren berak ere eta ikusiak zituzten Jesusek Pazko-jaietan egin zituen guztiak.

Jesus Galileako Kanara joan zen berriro, ura ardo bihurtu zuen herrira. Bazen han errege-funtzionario bat, semea Kafarnaumen gaxorik zeukana. Funtzionarioak, Jesus Judeatik Galileara etorri zela jakitean, harengana joan eta bere semea sendatzera jaisteko eskatu zion, hiltorian zegoela eta. Jesusek erantzun zion: «Ezaugarriak eta egintza harrigarriak ikusten ez badituzue, ez duzue sinesten». Baina errege-funtzionarioak berriro: «Zatoz, Jauna, nire haurra hil baino lehen». Jesusek esan zion: «Zoaz etxera, onik duzu-eta semea». Gizonak sine-tsi egin zuen Jesusek esana eta joan egin zen.

Etixerakoan, morroiak atera zitzaizkion bidera, semea onik zuela esanez. Orduan galdetu zien zer ordutan hasi zen oneratzan. Eta haiek erantzun: «Atzo eguerdiko ordu batean utzi zion sukarrak». Konturatu zen aita ordu hartan esan ziola Jesusek: «Onik duzu semea». Eta sine-tsi egin zuten Jesusengan berak eta etxeko guztiek.

Judeatik Galileara itzuli zenean egin zuen Jesusek bigarren ezau-garri hau.

**L**ehen une batean, Jesus deitoratu egin da: «seinalerik eta miraririk ikusten ez baduzue, ez duzue sinesten» esanez. Baina sufritzen ari den funtzionario horren lehia dela eta, beraren fede sakonari errepara-

Garizumako 4. astea.

San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*.

San Jose Oriol, *apaiza*.

tu dio. Ez da ari funtzionarioa mirarizko seinale baten edo gehiagoren eske, Jesus proban jartzeko, beste kasu batzuetan lege-maisuek eta fariseuek egin izan duten bezala. Gizon honen erreguan konfiantza sakon bat nabari du Jesusek beraren hitz ahaltzuaz eta erabateko konbentzimendua berari dagokionez: besteren oinazeaz gupidatzen den gizon errukitsutzat hartua du Jesus. Funtzionario horrek oinarritzko bi «sarbide» aurkitu ditu Kristoren bihotzera iristeko: konfiantza eta gupida. Bi baliabide dira zeinen aurrean dar-dar jartzen baita Jesus beti. Ez gaitetzen ahaztu.

\*\*\*

«Agindu dizuedan hau guztia egingo duzuenean...»

(Lk 17,10)

Ez zaitezte nekatu gizadiaren arazo handien kausaren bila. Arazo horiek askatzeko, aski duzue zeuen esku duzuen egitea, zuen premia dutenei zeuen laguntza ematea. Batzuek esaten didate, besteei karitatea eskainiz, Estatuak askatzen ditugula premian direnekiko eta po-breekiko duten erantzukizunetik.

Horrek ez dit buruhausterik sortzen, zeren, gehienetan, Estatuak ez baitute maitasunik eskaintzen. Soil-soilik egin dezakedan guztia egiten dut; gainerakoa ez da nire egitekoa.

Jainkoa hain ona izan da gurekin! Maitasunez lan egitea, harengana hurbiltzeko modua da beti. Kontuan har ezazue, zer egin zuen Kristok lurreko bere bizitzan! «On eginez bizi izan zen» (Eginak 10,38).

Neure ahizpei gogorarazten diet, Kristok jendaurreko bizitzako bere hiru urteak gaixoak, lepradunak, haurrak eta beste sendatzen eman zituela. Horixe da guk egiten duguna, geure egintzak direla medio ebanjelioa hots eginez (*Kalkutako Teresa santua*)

Garizumako 4. astea.

San Segundo, *martiria*.

Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*.

San Oscar Romero, *martiria*, *San Salvadorreko artzapezpikua*.

[Ezeziel profetaren liburutik 47,1-9.12: Ura ikusi nuen tenplutik ir-  
teten; eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. **Sal 46**  
[45]: Jaun ahalguztiduna geurekin dugu, Jakoben Jainkoa gure go-  
torleku.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,1-3.5-16.

Aldi hartan, juduen jai bat ospatzen zen, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Bada Jerusalemen, Ardien Atea delakoaren ondoan, hebreeraz Betzata deritzan uraska bat, bost aterpe dituen. Aterpeetan gaixo asko egon ohi zen, lurrean etzanda: itsu, herren eta elbarri.

Bazen han hogeita hemezortzi urtez gaixorik zegoen gizon bat. Jesusek, han etzanda ikusi eta aspalditik egoera hartan zegoela jakinik, esan zion: «Nahi al duzu sendatu?» Gaixoak erantzun zion: «Jauna, ez dut inor ura mugitzean uraskara sartuko nauenik; ni iristerako, besteren batek aurea hartzen dit». Jesusek esan zion: «Jaiki, hartu ohatila eta zabilta». Une berean sendaturik gertatu zen gizona, ohatila hartu eta ibiltzen hasi zen.

Larunbata zen egun hura, atsedeen-eguna. Horregatik, juduek esan zioten sendatuari: «Larunbata da, eta ez duzu zilegi ohatila eramatea». Hark erantzun zien: «Sendatu nauenak berak esan dit: “Hartu ohatila eta zabilta”». Orduan, galdegin zioten: «Nor da ohatila hartu eta ibiltzeko esan dizuna?» Sendatuak, ordea, ez zekien nor zen, Jesus ezkutatu egin baitzen inguruko jendearen artean.

Gero, Jesusek tenpluan aurkitu zuen eta esan zion: «Begira, sendaturik zaude. Ez egin bekaturik berriro, okerragorik gerta ez dakizun». Joan zen gizon hura, eta juduei jakinarazi zien Jesus zela sendatu zuena. Horregatik, hain zuzen, erasotzen zioten juduek Jesusi: larunbatez halako gauzak egiten zituelako.

**S**endatze-mirari guztietan, gaixoak berez edo beste batzuen bidez jo izan du Jesusengana, laguntza eske. Gaurko kasu honetan, Jesus da

hurbildu zaiona, uraskan eta ondoren tenpluan, 38 urte gaixo daramatzan gizonari. Hau oso pasibo ageri da, baita sendatua izatea nahi duen galdetu dionean ere; soilik, bere ezina azaldu du, eta erantzukizuna besteren bizkar botatzeko jarrera nabari zaio. Etzanik eta inolako laguntzarik gabe, ez al dago gizon hau bizitzatik at? Baina Jesusek sendatu egin du. Jesusen hitz bizi-emaileak hautsi du gizon honen pasibotasuna. Eta lekuko bihurtuko da. Har dezagun pasarte hau ikasbidetzat, ahalgabe, etsirik, guztiz pasibo sentituko garen mementorako. Horrelakotan, Jesusen helmenean ipini beharko genuke geure burua; hori asko espero izatea uste izan arren, agertuko zaigu hura.

\*\*\*

### Oscar Romero santuaz izpi batzuk

«Zugan errukia topatzen du umezurtzak». «Oseas profetaren hitz hauek dogma batek baino hobeto azaltzen dute zer den Yahve, Jainkoa: pobreen Jainkoa. Gaur Oscar Romerori aplikatzen ahal dizkiogu hitz hauek» (*Jon Sobrino S.J.*).

Ahotsik gabekoen ahots izan zen Romero, zapalduen defendatzaile, negar dagitenean kontsolatzaile. El Salvadorreko jendeagan aurkitu zuen bere herria. Berak esana da: «Ez dut utziko alde batera neure herri hau». Behinola Yahvek Egipton zegoen Israel herriaz esan bezala: «Beti izango nauzue zeuekin». Eta esaten zuen Romerok: «Zuekin biziko ditut arrisku guztiak». Eta babesa eskaini nahi zion Errepublikako Presidenteari erantzun zion: «Esan nahi dizut, neure segurtasun pertsonala baino lehen eta gehiago axola zaizkidala 108 familien eta ezkutatuaren segurtasuna eta lasaitasuna. Ongizate pertsonala, neure bizitzaren segurtasuna, ez zaizkit axola, nire herrian sistema ekonomiko hau ikusten dudana bitartean, gizarte aldeak gero eta handiago egitera jotzen duen sistema ekonomiko hau ikusten dudana bitartean».

Garizumako 4. astea.

JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA.

San Dimas (*lapur ona*).

---

§ Isaias Profetaren liburutik 7,10-14.

Egun haietan, mezu hau eman zion Jaunak Akaz erregeari Isaias profetaren bidez: «Eska iezaiozu Jaunari, zeure Jainkoari, ezaugarri bat zeuretzat, lurraren barrenean nahiz zeruen goienean».

Akazek erantzun zion: «Ez dut ezaugarririk eskatuko, ez dut tentatuko Jauna». Orduan Isaiasek esan zuten:

«Entzun, Daviden etxe:

Gutxi al deritzozue gizakientzat aspergarri izateari?

Nire Jainkoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue?

Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria.

Begira, birjina haurdun dago eta semea izango du;

Emmanuel ipiniko dio izena, hau da, “Jainkoa gurekin”».

[Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

§ Hebrearrei liburutik 10,4-10.

Senideok: Zezenen eta akerren odolak ez ditzake bekatuak desegin. Horregatik, Kristok, munduan sartzean, dio:

«Ez zenuen oparirik eta eskaintzarik nahi izan;

baina gorputza eratu zenidan.

Erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik

ez zenuen atsegin izan.

Orduan, esan nuen:

Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko;

hau dago Liburuan nitaz idatzia».

Lehendabizi dio: «Ez zenuen nahi izan, ez atsegin izan, oparirik eta eskaintzarik, ez erre-oparirik, ez bekatuen barkamen-oparirik», nahiz eta gauza guztiok legeak agindutakoak izan. Ondoren beste hau dio: «Hemen nauzu, zure nahia betetzeko».

Lehenengo kultura kentzen du, bigarrena jartzeko. Eta Jesu Kristok, behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariaren bidez, Jainkoaren nahia bete duelako izan gara gu sagaratuak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitetz, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoberen herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zuek jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

**J**ainkoak Mariari Gabriel aingeruaren bidez hitz egin dio. Umiltasunak oratutako eszena da; Jainkoak txikitasunari, xumetasunari,

Garizumako 4. astea.

JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENEA.

San Dimas (*lapur ona*).

---

ematen dion lehentasuna nabari da beste behin: aingerua ez da joan Jerusalemera, Tenplura, apaiz nagusiari berri ematera –Zakariasen, Joan Bataiatzailearen aitaren, kasuan bezala–; baizik eta Nazareten aurkeztu da, garrantzirik gabeko herrixka batean, eta Mariagana, landa-emakume batengana, jo du. Gauza handiak egin nahi dituenean, txikia denaz baliatzen da Jainkoa! Aingeruak esan dio, bere Semearen Ama izateko aukeratu duela Jainkoak. Eta Mariak, den-dena grazia dela eta ez norberaren merezimendu, bera gainditzen duen Jainkoaren hitz ahaltzuaz fidaturik, bere baiezkua jaulki du: «Gerta bedi nigan zure hitzak esana».

Mariak «bai» esaten laguntzen ahal digu geuri ere; hain zuzen, txikienak garela uste izan arren, Jaunak kontuan gaitu gu ere, eta eska diezaguke geure lankidetzaren aletxoak. Eska dezagun, kutsa diezagula Mariak esperantzazko bere fedea, geure bizitzan Jaunari harrera egiteko, gerta dakizkigukeen gorabeherak eta guzti, zeinetan askotan utzi beharko baitiugu Jainkoari Jainko izaten, Jainko harrigarri eta ezin manaiatu.



Garizumako 4. astea.  
 San Braulio, *gotzaina*.  
 San Kastulo, *martiria*.

[Irteera liburutik 32,7-14: Egizu atzera, Jauna, zeure herriari egin diozun mehatxutik. Sal 106 [105]: Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriarganako onginahiagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,31-47.

Aldi hartan, Jesusek esan zien judu-agintariet: «Nik neure buruaren alde egingo banu aitormen, nire aitormenak ez luke balioko. Beste batek du nire alde aitormen egiten, eta jakin badakit hark nire alde egiten duen aitormenak balio duela.

Zuek mandatariaik bidali zenizkioten Joan Bataiatzaileari, eta hark aitormen egin zion egitari. Ez dut hau esaten inongo gizakiren aitormen-beharrik dudalako, zuek salba zaitezten baizik. Joan Bataiatzaile argi-zuzi piztua eta distiratsua zen, eta zuek, alditxo batez, poz hartu nahi izan zenuten haren argiaz.

Baina Nik badut Joanen aitormena baino hoberik: Nik betetzeko, Aitak eman dizkidan egintzak; nire egintzek egiten dute aitormen nire alde eta Aitak bidali nauela frogatzen. Bidali nauen Aitak berak ere egiten du aitormen nire alde. Baina zuek ez duzue inoiz haren mintzorik aditu, ez haren aurpegirik ikusi, eta haren hitzak ere ez du zuen baitan lekurik, hark bidaliagan ez sinesteak erakusten duen bezala.

Aztertzen dituzue Liburu Santuak, betiko bizia haietan aurkituko duzuelakoan, eta horiek dute, hain zuzen, nire alde aitormen egiten; hala ere, ez duzue nigana etorri nahi, betiko bizia izateko.

Ez dut gizakiengandik aintzarik onartzen; baina ongi ezagutzen zaituztet eta badakit ez duzuela Jainkoa maite. Ni neure Aitaren izenean etorria naiz, baina zuek ez nauzue onartu; norbait bere izenean etorriko balitz, hura bai, onartuko zenukete. Nola sinets dezakezue zuek, elkarrengandik onartzen baduzue aintza, eta Jainko bakarragandik datorren aintzak ez badizue axola?

Ez uste izan Aitaren aurrean Nik salatuko zaituztedanik; bada salatuko zaituzten norbait: Moises bera, zeuen itxaropen duzuen. Izan

Garizumako 4. astea.  
San Braulio, *gotzaina*.  
San Kastulo, *martiria*.

---

ere, Moisesi sinetsiko bazeniot, neuri ere sinetsiko zenidakete, nitaz idatzi baitzuen hark; baina hark idatzia sinesten ez baduzue, nola sine-tsiko duzue nik esana?»

**U**raska ondoan etzanik zegoen gaixoa Jesusek larunbatean sendatu duela eta, «juduak» (agintari erlijiosoak) ezbai zakarrean hasi dira Jesusekin. Bere asmoa frogatzen duten testigantzak azaldu dizkie Jesusek: Aitaren testigantza, bera egiten ari den egintzena, Joan Bataiatzailearena, Liburu Santuena (Moises). Baina arerioek temati eusten diote berenari. Horregatik, beren zirrikitu isila azaleratu die Jesusek: beren aintzaren bila dabilta eta bestek eskaintzen dieten aintzaren bila. Eta guk geuk, geure eztabaida eta ezbaietan, zenbat aldiz esan ohi dugu, argudio apartsuez baliatuz, arazo itxuraz zuzenak defenditu nahi ditugula? Egiaz, ordea, jendearen aurrean ondo nola geldituko bila gabiltzalarik, egiaz geure burua toki onean jarri nahiz, egiaz geure aintzaren eta ohorearen bila, eta delako «arazo zuzen hori» mozorrotze hutsa delarik geure harrokeriarentzat.

Garizumako 4. astea.  
Santa Lidia, *martiria*.  
San Ruperto, *gotzaina*.

[Jakinduria liburutik 2,1a.12-22: Heriotza lotsagarriara kondenatuko dugu. Sal 34 [33]: Hurbil zaie Jauna bihotz-hautsiei.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7,1-2.10.25-30.

Aldi hartan, Jesus Galilean zebilen; ez zuen Judean ibili nahi, juduek hil egin nahi baitzuten.

Hurbil zen Etxola-jaiia, juduen jaietariko bat. Jesusen senideak jaietara joan zirenean, Jesus ere joan zen; baina ez agerian, erdi ezkutuan baizik.

Jerusalemdar batzuek zioten: «Ez al da hau hil nahi dutena? Lasai asko ari da, bada, hizketan, eta ez diote ezer esaten. Onartu ote dute agintariek hau dela Mesias? Baina hau badakigu nongoa den; Mesias etorriko denean, ordea, ez du inork jakingo nongoa den».

Orduan, Jesusek, tenpluan irakasten ari zela, oihuka esan zuen: «Ni ezagutzen nauzue eta badakizue nongoa naizen. Baina Ni ez naiz neurez etorri, baizik eta fidagarria denak bidali nau, eta zuek ez duzue hura ezagutzen. Nik, bai, ezagutzen dut, harengandik bainator eta hark bidalia bainaiz».

Orduan, atxilotu egin nahi izan zuten; baina ezin izan zion inork eskurik erantsi, ez baitzen artean iritsia haren ordua.

«**E**z nator neure gisa, baizik eta neure Aitak bidali nau». Jesus «bidalia» da: bere bizitza misiotzat hartu du, misio salbatzaitzat. Baina, aldi berean, gu bidaltzen gaituen bidali bat da Jesus. «Aitak bidali nauen bezala, hala bidaltzen zaituztet nik zuek». Kristoren misioa luzatu nahi dugu guk. Horretara eragiten digu Frantzisko aita santuak, premia-tsuki: «Gaur egun misio-egoera iraunkorrean eratu behar dugu geure burua. Gure Eliza irteeran den eliza da (jendeagana joateko prest dagoena). Kristau guztiak dira misiolari; jada ez dugu esaten «ikasle» eta «misiolari» garel, baizik eta «ikasle misiolari» garel (Evangelii Gaudium 25,120). Galde egun: geure bizitza misio gisa bizi al dugun, geure anai-arreba ditugun gizon-emakumeengana bidaliak bezala? Alegia, nola bizi dugu geure bizitza: geuretzako bezala, gainerakoentzako bezala?»

Garizumako 4. astea.

San Sixto III.a, 44. aita santua.

Santa Gundelina, *abadesa*.

San Kastor, *martiria*.

[Jeremias profetaren liburutik 11,18-20: Hiltzera daramaten bildots otzana bezala nintzen ni. Sal 7: Zugan babesten naiz, Jauna, ene Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7,40-53.

Aldi hartan, jende arteko batzuek, Jesusen hitzak entzutean, hau zioten: «Hauxe da egiaz etortzekoa den profeta». Beste batzuek esaten zuten: «Hauxe da Mesias». Beste batzuek, berriz: «Galileatik etor ote daiteke Mesias? Ez al dio Liburu Santuak Mesias Daviden jatorrikoa izango dela eta haren herritik, Betleemetik, etorriko dela?» Iritzi kontrajarriak zeuden, bada, jendearen artean Jesusi buruz. Batzuek atxilotu egin nahi zuten; baina ez zion inork eskurik gainean jarri. Guardiak apaizburu eta fariseuengana itzuli ziren, eta hauek galdetu zieten: «Zergatik ez duzue ekarri?» Guardiiek erantzun zieten: «Ez du sekula inork gizon horrek bezala hitz egin».

Fariseuek erantzun zieten: «Zer? Zuek ere liluratu al zaituzte? Sinetsi ote du harengan agintari edo fariseuetako batek ere? Baina legea ezagutzen ez duen jende hori madarikatua dago».

Orduan, Nikodemok, fariseu haietako batek, behinola Jesusengana joan zenak, esan zien: «Zilegi al da gure legearen arabera inor gaitzestea, berari entzun eta zer egin duen jakin gabe?» Besteek erantzun zioten: «Galilearra al zara zu ere? Aztertu Liburu Santuak eta ikusiko duzu Galileen ez dela inoiz profetarik sortu». Ondoren, nor bere etxera joan zen.

«**J**ainkoaren Hitza ez da hutsik itzultzen...» (Is 55,10-11). Ikus dezagun nola bete den Isaias profetaren baieztapen hori Nikodemogan. Fariseua da, ezkutuka bisitatu du Jesus, eta utzi dio honi bere Hitza esan diezaion, Hitz interpelagarria da, ulertu ez badu ere. Ulertu ez duen, baina, zapuztu ere, zapuztu ez duen Hitz horrek, bere lana egiten

jarraitu du gizon horren bihotzean; hain zuzen, geroago egun-argitan agertuko da Jesus heriotzara galtzeko batzuek agertu duten nahia juridikoki gaitzesteko, baina, artean, Jesusenganako bere fedea azaldu gabe. Sinestedun lotsati da. Behin betiko urratsa, Jesus erail ondoren eman du: lurrin ugari ekarriko duenean, Gurutziltzatua hilobiratzeko. Hitza erne eta hazi da harengan. Eska dezagun, gugan ere gauza bera gerta dadin, gura genukeen baino erritmo nagiagoan gertatuko bada ere.

\*\*\*

Senekak Neron ikasleari esaten zion: «Zu ezin urrundu zara duzuna duzun zoritik, zeure altueratik; bere zaitu zu goi-altuera horrek, eta noranahi zoazela, hara doa bera ere bere ospe eta guzti. Zure goi-goiko zori horrek duen zorra da zu ezin izan ahal izatea garrantzi gutxiagoko (“est haec summae magnitudinis servitus non posse fieri minore”); hain zuzen, premia hauxe duzu komunean jainkoekin, jainkoekin batean. Zeren haiek ere loturik baitaizka zeruak, eta haiei ez dagokie beherago jaistea, zuri ere ez dagokizun bezala, arriskuan erori gabe. Zu “iltzaturik” zaude zeure goi-postuan» (*SÉNECA, De clementia, III, 6, 2 s. Aipatua GERD THEISSE N en, El movimiento de Jesús. Historia social de una revolución de valores, Salamanca, Sígueme, 2005, 310.*)

Konpara ezazu San Pauloren testuarekin: «Kristo Jesusek, jainkozko izaerako izanik, ez zion gogor eutsi nahi izan jainkozko bere mailari; bestela baizik, hustu egin zen bere handi izateaz eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. (Flp 2,6-11).

Garizumako 5. astea.  
 San Konstantino, *abadea*.  
 Santa Gladys, *erregina*.

§ Ezekielen Profezia liburutik 37, 12-14.

Honela mintzo da Jainko Jauna: «Nik irekiko ditut zuen hilobiak, ateraraziko zaituztet zeuen hilobietatik, ene herri, eta Israelgo lurraldera eramango.

Eta zuen hilobiak ireki eta horietatik ateraraziko zaituztedanean, ene herri, orduan jakingo duzue Ni naizela Jauna. Neure espiritua ezarriko dut zuengan, eta biziberrituko zarete. Zeuen lurraldean ezarriko zaituztet, eta jakingo duzue, Nik, Jaun honek, esandakoa bete egiten dudala». Hala dio Jainko Jaunak.

[Sal 130 [129]: Jaunagan dago errukia, harengan askatasun ugaria.]

§ San Paulok Erromatarrei 8, 8-11.

Senideok: Grina txarren menpean bizi direnak ezin izan gogo-ko Jainkoari. Zuek, ordea, ez zarete grina txarren menpean bizi, Espirituaren menpean baizik, Jainkoaren Espiritua zuengan bizi baita.

Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. Kristo zuengan baldin badago, berriz, gorputza bekatuagatik hilik egon arren, espirituak badu bizia Jainkoaren salbamen-indarrari esker. Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi bada, Kristo hilen artetik piztu zuenak berak bizi araziko du zuen gorputz hilkorra ere, zuengan bizi den Espirituaren bitartez.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11, 1-45.

Aldi hartan, Lazaro izeneko gizon bat gaixo zegoen. Betaniakoa zen, Maria eta honen ahizpa Martaren herrikoa (Maria hau –gaixo zegoen Lazaroren arreba– Jesus ukenduz igurtzi eta oinak bere ile-adatsez xukatu zizkiona zen). Lazaroren bi arrebek albiste hau bidali zioten Jesusi:

Garizumako 5. astea.

San Konstantino, *abadea*.

Santa Gladys, *erregina*.

«Jauna, zure adiskidea gaixorik dago». Jesusek, hori aditzean, esan zuen: «Gaitz hau ez da hiltzeko gaitza, Jainkoaren aintza azaltzeko baizik, gaitz honen bidez Jainkoaren Semearen aintza azal dadin».

Jesusek oso adiskide zituen Marta, honen ahizpa eta Lazaro. Hau gaixorik zegoela jakinda ere, zegoen lekuan gelditu zen Jesus beste bi egunez. Ondoren, esan zien ikasleei: «Goazen berriz ere Judeara».

Ikasleek esan zioten: «Maisu, oraintsu juduek harrika egin nahi zituzten, eta hara joan behar duzula berriro?» Jesusek erantzun zien: «Ez al ditu egunak hamabi ordu? Egunez dabilenak ez du estropezu egiten, eguzkiak argitzen baitio bidea; gaez dabilenak, ordea, estropezu egiten du, ez baitu argirik». Eta jarraitu zuen: «Lazaro gure adiskidea lo dago; baina banoa esnatzera».

Ikasleek esan zioten: «Jauna, lo badago, sendatuko da» (Jesusek Lazaroren heriotzaz esan zuen hori; baina ikasleek ohiko loaz ari zela uste zuten).

Orduan, Jesusek garbi esan zien: «Lazaro hil egin da eta poztzen naiz han ez izanaz, zuen onerako izango baita, horrela sinets dezazuen. Goazen, bada, haren etxera». Tomasek, Bikia zeritzanak, esan zien ikaskideei: «Goazen geu ere, berarekin hiltzera».

Jesus iritsi zenean, jadanik lau egun zeraman Lazarok hilibian. Betania hurbil dago Jerusalemdik, hiru bat kilometrora. Eta judu asko etorri zen Marta eta Mariagana, anaiarengatik doluminak ematera.

Marta, Jesus zetorrela entzun orduko, bidera atera zitzaion; Maria, berriz, etxean gelditu zen. Martak esan zion Jesusi: «Jauna, hemen izan bazina, gure anaia ez zen hilko. Hala ere, badakit eskatuko dioguztia emango dizula Jainkoak».

Jesusek erantzun zion: «Piztuko da zure anaia». Eta Martak: «Badakit piztuko dela azken egunean, hildakoen piztuerakoan».

Jesusek esan zion orduan: «Ni naiz piztuera eta bizia; nigan sinesten duena, hilik ere, biziko da, eta bizi dena, nigan sinesten badu, ez da betiko hilko. Sinesten al duzu hori?» Martak erantzun zion: «Bai,

Garizumako 5. astea.

San Konstantino, *abadea*.

Santa Gladys, *erregina*.

Jauna, sinesten dut Zu Mesias zarela, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zena».

Ondoren, bere ahizpa Mariari deitzera joan zen Marta, eta esan zion isilka: «Maisua hemen da eta dei egiten dizu». Hori entzutean, berehala jaiki eta Jesusengana joan zen. Jesus artean herrian sartu gabe zegoen, Martak aurkitu zuen lekuan bertan. Etxean Mariari nahigabean laguntzen zeuden juduek, hura bat-batean jaiki eta irten zela ikustean, jarraitu egin zioten, negar egitera hilobira zihoa-lakoan.

Mariak, Jesus zegoen tokira iristean, ikusi zueneko, oinetara ahuspez erori eta esan zion:

«Jauna, hemen izan bazina, gure anaia ez zen hilko».

Maria eta harekin etorritako juduak negarrez ikusirik, barruak zirraratu egin zion Jesusi eta, zeharo hunkiturik, galdetu zuen: «Non ipini duzue?» Erantzun zioten: «Jauna, zatoz eta ikus». Jesusek negarrari eman zion.

Han zeuden juduek esan zuten: «Begira zein maitea zuen!» Baina haietako batzuek esan zuten: «Itsuari begiak ireki zizkion honek, ez al zezakeen hau hiltzea galarazi?»

Jesus, osterata ere hunkiturik, hilobira hurbildu zen. Haitzuloa zen, harlauzaz estalia. Jesusek esan zuen: «Ken harlauza!»

Hildakoaren arreba Martak esan zion: «Jauna, kiratsa botako du, lau egun baditu eta». Jesusek erantzun zion: «Ez al dizut esan, sinesten baduzu, Jainkoaren aintza ikusiko duzula?»

Kendu zuten, bada, harria. Jesusek, begiak zerurantz jasorik, esan zuen: «Aita, eskerrak zuri, entzun didazulako. Nik badakit beti entzuten didazula; baina inguruan dudan jendeagatik diot, Zuk bidali nauzula sinets dezaten».

Hau esanda, oihu egin zuen ozenki: «Lazaro, zatoz kanpora!» Eta hildakoa atera egin zen. Esku-oinak oihal-zerrendaz loturik eta aurgipia zapiz estalirik zituen. Jesusek esan zion: «Aska ezazue eta utzi joaten».



Garizumako 5. astea.

San Konstantino, *abadea*.

Santa Gladys, *erregina*.

Maria ikustera joandako judu askok, Jesusek egina ikustean, harrengan sinetsi zuen.

**J**oanen ebanjelioko azken seinale hau, Jesusen piztueraren aurre-irudi bezala aurkeztu du ebanjelariak. Lazarok ere alboratuko du bere hilibiko harria. Pasadizo honek ez luke gurekin zerikusi handirik izango, Jesusen adiskide bati, Lazaro izenekoari, egindako bizi-erregalu hutsa balitz, azkenean berriro ere hil egin baitzen. Baina Jesusen mirari honek ez du ikuspuntu edo asmo lurreko bizi-tza luzatzea, baizik eta betiko bizi fededun guztientzat. Jesusek berak esan digu: «nigan sinesten duena, hil bada ere, biziko da, eta bizi dena eta nigan sinesten duena ez da betiko hilko». Jesusek beragan sinetsi duenari eman dion bizi-tza hau, heriotzaren ondoren gozatuko duen betiko biziaren aurre-rapena da jada. Hauxe da gure esperantza. Bizi izateko deia jaso dugu. Jesusengan dugun fedeak bermatzen digu hori eta dastatzeko eskaintzen. Horretarako, bere Espiritua eman digu, gure baitan bizi dena eta –San Paulok eta Ezekiel profetak dioten bezala– bizi-aziko gaituena. Eta Espiritu horrekin adorea izango dugu –Lazarok egin zuen bezala– estutzen gaituzten bendak eta hil-oihalak alde batera uzteko, ilunpe hotzean bahitzen gaituen harlosa baztertzeke eta Espirituaren fruituak –maitasuna, poza, bakea...– ereitera irteteko.

Garizumako 5. astea.

San Joan Klimako, *abadea*.

Santa Irene, *martiria*.

[Danielen Profezia liburutik 13, 1-9. 15-17. 19-30. 33-62: Errugabe izanik ere, hil beharra dut. Sal 23 [22]: Ibar beltz ilunean banabil ere, ez naiz gaitzaren beldur, Zu nirekin baitzaude.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 1-11.

Aldi artan, Jesus Oliamendira joan zen. Biharamun-egunsentian, ordea, tenplura agertu zen berriro, eta herri guztia etorri zitzaion; Jesus eseri eta irakasten hasi zitzaien.

Lege-maisuek eta fariseuek adulterioan harrapatutako emakume bat ekarri zioten eta, erdian ipiniz, esan zioten Jesusi: «Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. Moisesek horrelakoak harrika hiltzeko agindu zigun legean. Zuk zer diozu?» Azpikeriaz esaten zioten hori, zertan salatu izateko.

Jesus, ordea, makurtu eta atzamarrez lurrean idazten hasi zen. Baina haiek galde eta galde ari baitzitzaizkion, zutitu eta esan zien: «Zuetan bekaturik gabe dagoenak bota diezaiola lehenengo harria». Eta, berriro makurturik, lurrean idazten jarraitu zuen. Haiek, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziren, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela.

Jesusek, zutiturik, esan zion: «Emakume, non dira salatzaileak? Ez al zaitu inork gaitzetsi?» Hark erantzun: «Inork ere ez, Jauna». Orduan Jesusek: «Ezta Nik ere, ez zaitut gaitzesten. Zoaz eta ez egin berriro bekaturik».

**S**aia gintezke emakume gajo haren bihotzean sartzen, sumatzeko, nola bizi izan zuen «zu eta ni» haren une hura, aurrez aurreko hura, soilik hitz pare batek arnastua, San Agustínek hain bihozko deskribatua: «relictis sunt duae, misera et misericordia» («biak bakarrik geratu ziren: errukarria eta errukia»). Egin dezagun gogoeta: zenbat aldiz geratu izan garen geure bizitzan biok bakarrik: errukarria eta Jesusen errukia, eta zenbat aldiz entzun izan dugun emakume hark bezala,

Garizumako 5. astea.

San Joan Klimako, *abadea*.

Santa Irene, *martiria*.

samurki eta animagarri esandako hau: «Nik ere ez zaitut gaitzesten». «Ez egin gehiago bekaturik». Eta galde egilogun geure buruari, ikasi ote dugun Jesusengandik harrera ona eskaintzen eta barkatzen, eta ez inor harrikatzen –beti bigarren aukera bat emanez–, halakoaren egitate zuzengabeak eta gaitzesgarriak ez onetsi arren.

\*\*\*

### Zazpi bekatu nagusiak

K.o. VI. mendean, Gregorio I.a aita santuak zazpi bekatu nagusi aipatu zituen:

1. Harrokeria
2. Inbidia edo bekaizkeria
3. Gula
4. Lizunkeria
5. Haserrea
6. Diru-gosea
7. Alferkeria

Duela gutxi, kazetari batek egindako galderei erantzunez, zazpiko beste bekatu-zerrenda bat izan litekeen honi bide eman dio Gianfranco Girottik, Vatikanoko Penitentzialaritza Apostolikoko gotzainak:

1. Haustura bioetikoak; adibidez, kontrazepzioa
2. Esperimentu moralki dudagarriak; adibidez, zelula amen gaineko ikerketa
3. Drogadizioa
4. Ingurumena kutsatzea
5. Behartsuen eta aberatsen arteko aldea handitzea
6. Gehiegizko aberastasuna
7. Pobretasuna eragitea

Garizumako 5. astea.

San Amos, *profeta*.

Santa Balbina, *birjina*.

[Zenbakiak liburutik 21,4-9: Sugeek zizta egindako guztiak, brontzezko sugeari begiratzean, sendatu egingo dira. Sal 102 [101]: Entzun, Jauna, nire otoitza, hel bedi zugana nire deiadarra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,21-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien fariseuei: «Ni banoa, eta nire bila ibiliko zarete; baina zeuen bekatuan hilko zarete. Ni noan tokira zuek ezin zarete joan». Orduan, entzuleek esan zuten: «Bere burua hil behar ote du? Horregatik esan ote du “Ni noan tokira zuek ezin zarete joan”?»

Jesusek jarraitu zuen: «Zuek behekoak zarete, Ni goikoa naiz; zuek mundu honetakoak zarete, Ni ez naiz mundu honetakoa. Horregatik esan dizuet, zeuen bekatuetan hilko zaretela; zeren, “Ni naizela” sinesten ez baduzue, zeuen bekatuetan hilko baitzarete». Orduan, esan zioten: «Nor zara Zu?»

Jesusek erantzun: «Hasieratik ari natzaizue esaten. Badut zuetaz zer esanik eta zer gaitzetsirik asko. Bidali nauena fidagarria da; eta Nik, hari entzun diodana, horixe bera esaten diot munduari». Haiek ez ziren jabetu Aitaz mintzo zitzaiela.

Jesusek, beraz, esan zien: «Gizonaren Semea jasoko duzuenean, orduan jakingo duzue Ni naizela, eta ez dudala neurez ezer egiten; baizik eta Aitak erakutsi didana bakarrik esaten dudala. Ni bidali nauena nirekin dago; ez nau bakarrik utzi, hark atsegin duena egiten baitut beti».

Jesusek gauza hauek esan zituenean, askok sinetsi zuen harengan.

**E**gun hauetan, Itun Zaharreko irakurgaiak gizon zintzo sufritzai-  
learen inguruan mugitzen dira, Jainkoak ez duela utzi bera bakarrik,  
heriotzara galdua, esanez; aldi berean, ebanjelioan Jesusek eztabaidan  
jarraitzen du juduekin, erdigunetzat Jesusen jatorria eta nortasuna di-

Garizumako 5. astea.

San Amos, *profeta*.

Santa Balbina, *birjina*.

---


tuztelarik. Jesusek, guztiz bere buruaren jabe, agertu die bidalia dela bera eta jatorriz «goikoa» dela. Azken galderaren aurrean: «Zein zara zu»? , gurutzera jo du Jesusek, hura bere errebelazio eta aintza den aldetik: «Gizonaren Semea gurutzera jasoko dutenean, jakingo dute bera zein den». Gurutziltzatua / goratua ez du utziko Jainkoak heriotzaren esku, baizik eta haren bidez betiko bizia emango dio (Jn 3,14), eta beragana erakarriko du dena (Jn 12,32-34). Horregatik, geure bizitzan, usu jarri beharko ginateke Gurutziltzatuari begira: beraren maitasunak, gurutzean iltzatuak, liluratuko gaitu.



## APIRILA / JORRAILA

**AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:**  
Adikziotik askatzen joatea.

**Egin dezagun otoitz:** Adikziopean bizi den jende guztiak laguntza eta lagunarte ona izan ditzan.



Garizumako 5. astea.  
San Venantzio, *gotzaina*.  
Santa Teodora, *martiria*.

---

[Danielen liburutik 3,14-20.91-92.95: Jainkoak bere aingerua bidali du bere zerbitzariak libratzera. Sal: Daniel 3: Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,31-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien beragan sinetsi zuten juduei: «Nire hitzean irauten baduzue, egiaz nire ikasle izango zarete; ezagutuko duzue egia, eta egiak aske egingo zaituzte».

Erantzun zioten: «Gu Abrahamen ondorengoak gara, eta ez gara inoiz inoren esklabo izan. Nola diozu aske izango garela?»

Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Bekatu egiten duena bekatuaren esklabo da. Esklaboa ez da etxean betiko geratzen; semea, bai, betiko geratzen da. Beraz, Semeak askatzen bazaituzte, benetan aske izango zarete. Badakit, bai, Abrahamen ondorengoak zaretela; baina Ni hil nahian zabiltzate, nire hitza ez baita zuengan sustraitzen. Neure Aitaren ondoan ikusi dudana mintzo naiz Ni; zuek, berriz, zeuen aitagandik ikasi duzuen egiten duzue».

Haiek erantzun zioten: «Abraham dugu aita». Jesusek orduan: «Abrahamen seme bazinete, Abrahamek egin zuena egingo zenukete. Zuek, ordea, Ni hil nahian zabiltzate, eta Jainkoari entzundako egia besterik ez dizuet esan. Abrahamek ez zuen horrelakorik egin. Zuek zeuen aitak egiten duena egiten duzue».

Erantzun zioten: «Gu ez gara sasikume; aita bakarra dugu, Jainkoa». Jesusek orduan: «Zuen aita Jainkoa balitz, maite izango nindukezue, Ni Jainkoagandik atera bainaiz eta etorri; Ni ez naiz neure kabuz etorria, hark bidalia baizik»

**G**izon askea izan zen Jesus. Beraren garaikideak gehienik harriarazi zituena haren askatasun huraxe izan zen (Ch. Duquoc). Jesusek berak esana da: «... Semeak askatasuna ematen badizue bakarrik izango



Garizumako 5. astea.

San Venantzio, *gotzaina*.Santa Teodora, *martiria*.

zarete egiaz aske». Askatasun hori eskatu beharrekoa den dohaina da. Irakats diezagula Jesusek «egian bizitzen» –hau da, berari eta beraren mezuari atxikirik– aske izateko. Aska dezala berak gure askatasuna hede eta beldur guztietatik... berak bezala guk ere zerbitzari-askatasuna bizitzeko. Berak posible bihurtuko du San Paulok eskatzen zuen hau: «Askatasunerako deia jaso dugu, baina ez zarete baliatu behar askatasunaz, hura zeuen egoismoa besteri ezartzeko aitzakiatzat hartuz, baizik eta, alderantziz, zerbitzari izatera eragin behar dizue batak bestearekiko maitasunez» (Galaziarrei 5,13-17).

\*\*\*

### Jesus bere garaiko judu arrunt eta soil?

Jacob Neusner rabino estatubatuarra da, judu aztertzaile handia. «Un rabino habla con Jesús» liburua idatzi du. Imajinatzen du, Kristoren garaikidea dela bera, Jesusi jarraitzen dion taldekoa dela, Mendiko Hitzaldia ere entzun diola. Azaltzen du, Jesus berak eta haren irakaspenak liluratzen badute ere, azkenean, damurik, ezin bihurtu dela haren ikasle, eta Moisesen ikasle izaten jarraitzea erabaki duela.

Erabaki horren arrazoi guztiak batean bildu ditu; dio: gizon horrek esaten duena onartu nahi bada, Jainkoaren aginpidea bera aitortu behar zaio Jesusi. Ez da mugatu gizon hori Moisesen Legea, Tora, «betetzera», baizik ordezkatu egin du hura.

Interesgarria da Jakob honek bere Maisuarekin sinagogan irudikatu duen solasa: Maisuak: «Zure Jesus horrek utzi al du bazterrera Torako zerbait?» Neusner rabinoak: «Ezer ez». Maisuak: «Beraz, zerbait gehitu al dio?» Neusner rabinoak: «Bai, bere burua».

Neusner rabinoak argi eta garbi utzi du ezinezkoa dela Jesus bere garaiko judu «arrunt» eta soiltzat hartzea (*Raniero Cantalamessa kaputxinoaren prediku batetik hartua*).

Garizumako 5. astea.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaia*.

[Hasiera liburutik 17,3-9: Herri askoren aita izango zara. Sal 105

[104]: Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,51-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Egi-egiaz diotsuet: Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko».

Juduek esan zioten: «Orain bai dakigula deabruaren menpe zaudela. Abraham hil egin zen eta profetak ere bai; eta Zuk diozu: “Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko”? Gure aita Abraham baino handiago al zara, bada, Zu? Hura hil egin zen eta profetak ere bai; nor zarelakoan zaude?»

Jesusek erantzun zien: «Nire burua Neuk ohoratuko banu, nire ohore horrek ez luke ezer ere balioko; baina Aitak, zeuen Jainkoa omen duzuenak, ohoratzen nau Ni; zuek, ordea, ez duzue hura ezagutzen; Nik, bai, ezagutzen dut, eta ezagutzen ez dudala esango banu, gezurti izango nintzateke zuek bezalaxe; baina ezagutzen dut eta gordetzen ere haren hitza. Zuen aita Abraham pozik zen nire eguna ikusiko zuen itxaropenez; ikusi zuen eta alaitasunez bete zen».

Orduan, juduek esan zioten: «Ez dituzu oraindik berrogeita hamar urte, eta Abraham ikusi duzula?» Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Abraham sortu baino lehenagokoa naiz Ni».

Orduan, harriak hartu zituzten hari jaurtitzeko; baina Jesus ezkutatua egin zen eta tenplutik atera.

«**N**ire Hitza gordetzen duenak ez du jakingo zer den betiko hiltzea». Alabaina, bizi-eskaintza honek ez du jaso hau beste erantzunik: setati ez ulertu nahi izatea. Juduen ustean, Jesus bizitza fisikoaz bakarrik mintzo da. Jesusek, ordea, dio goragokoa dela bera Abrahamen aldean –eta honek gozatu egin zuen geroko promesen ikuspenaz–; baina

Garizumako 5. astea.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

juduek garaikide batez mintzo balitz bezala hartu dute. Eta Jesusen deiadar honen aurrean: «Abraham bizi zen baino lehenago banintzen ni» –zeinetan Moisesi egindako Jainkoaren izenaren errebelazioa iradokitzen baita (Irteera 3,6.13-15 hur.)–, ez dute jada aintzat hartzen arrazoirik: Jesus biraolari da, harrika garbitu beharrekoa. Jesus ezkutatatu egin zen, beraren «ordua» ez zelako iritsia artean: bere bizia gure mesedetan eskaintzeko «ordua», alegia.

\*\*\*

### Bideko Andre Maria

Duela gutxi arte, debozio handia zioten Iruñean Bideko Andre Mariari. Besteak beste, Mariak Elisabeti egindako bisitaren bidea iradokitzen du Bideak. Eta, nagusiki, Jesus bere errailetan ernetzetik gurtzekoan Jesus zeruan sortu zen arte, berak, Mariak, egin behar izan zuen Bidea. Beti ere, Jesus bide, argi eta bizi aitortuz.

«Ni neu [Jesus] naiz bidea, egia eta bizia, inor ezin etorri da Aita-gana nire bidez ez bada» (Joan 14,6).

«Argimutilla da zure hitza nire oinentzat, argia da nire biderako» (Salmo 119,105).

«Jaunagan esperantza dutenek berrituko dituzte beren indarrak, arranoaren hegoak bezala igoko dira, korri egingen dute eta ez dira nekatuko» (Isaias 40,31).

Garizumako 5. astea.

San Sixto 1.a., 7. aita santua.

[Jeremias profetaren liburutik 20,10-13: Neurekin dut Jauna, gudari indartsu. Sal 18 [17]: Neure larrialdian dei egin nion Jaunari, eta entzun zuen nire oihua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,31-42.

Aldi hartan, juduek berriro harriak hartu zituzten Jesusi harrika egiteko. Jesusek esan zien: «Egintza onik asko egin dut zuen aurrean Aitaren izenean; horietako zeinengatik egin nahi didazue harrika?»

Erantzun zioten: «Ez zaitugu egintza onak egiteagatik harrikatu nahi, birao egiteagatik baizik; gizaki izanik, zeure burua Jainko egiten duzulako».

Jesusek erantzun zien: «Ez al dago idatzirik zuen Liburu Santuan: “Nik esan dut: jainko zarete”? Beraz, Jainkoak “jainko” esaten die bere hitza zuzendu zienei, eta Liburu Santuak esana ukaezina da. Nola diozue, bada, Nik, Aitak sagaratu eta mundura bidali nauen honek, birao egiten dudala, Jainkoaren Seme naizela esateagatik? Nire Aitaren egintzak egiten ez badituzte, ez sinetsi niri; baina egiten baldin badituzte, niri sinesten ez badidazue ere, sinetsi egintzei. Horrela, behin betiko jakingo duzue Aita nigan dagoela eta Ni Aitagan».

Berriz ere atxilotu egin nahi izan zuten, baina ihes egin zien eskue-tatik. Berriro Jordanez beste aldera joan zen Jesus, garai batean Joan bataiatzen ari izan zen lekura.

Han gelditu zen aldi batez, eta jende asko joaten zitzaion. Hau zioten: «Joanek ez zuen ezaugarriarik batere egin, baina hark honetaz esan zuen guztia egia zen». Eta han askok sinetsi zuen Jesusengan.

**B**ukatu da eztabaida latza zeinetan Jesusek beren sinesgabetasuna aurpegiratu baitie; are gehiago esan die: «Nire Hitza ezin da sartu zuen bihotzean» (8,37); «Ezin aditu duzue nire Hitza» (8,43): determinismo-moduko zerbaiten biktima izango bailiran tratatu ditu. Baina salatzen

Garizumako 5. astea.

San Sixto 1.a., 7. aita santua.

duena da, ezen, ezin «aditu» badute, berek beren burua hartarako ezgai bihurtu dutelako dela. Fedea dohain bat da, eskertu beharrekoa, baina baita landu beharrekoa ere, sinestedunak arriskua baitu sorgor bihurtzeko. Horra nondik nora otoitzaren beharra. Egoki adierazi zuen Kierkegaard-ek: «Fedea da otoitzaren ama; baina badira kasuak zeinetan alabek behar baitute elikatu ama». Otoitza –alaba– da ama –fedea– elika dezakeena.

\*\*\*

### Age quod agis

Ez dezazula barre egin zaharren bizkar

AEAA sindromea diagnostikatu didate.

(Arreta Eskasia Aktibatua Adinarekin)

Honela azaldu zait:

Autoa garbitzea pentsatu dut. Garajera bidean, atariko mahaian posta-gutunak ikusi ditut.

Autoa garbitu aurretik, gutunak irakurtzea erabaki dut.

Atariko mahai gainean utzi ditut autoaren giltzak, eta kartazal hutsak eta propaganda zakarrontzira botatzera jo dut, eta ikusi dut zakarrontzia beterik dagoela.

Gutunak –tartean faktura bat– atariko mahaian uztea erabaki dut eta zakarrontzia kanpora eramatea.

Orduan otu zait, kanpora noanez, ordaindu dezakedala faktura txeke batez eta atetik hamar minutura dagoen postontzian bota dezakedala.

Atera dut patrikatik txeke-taloitegia eta konturatu naiz bakarra gelditzen zaidala (*jarraituko du 178. orrian*)

Garizumako 5. astea.

San Benito Palermokoa, *erlijiosoa*.

[Ezekiel profetaren liburutik 37,21-28: Herri bakar bihurtuko ditut. Sal: Jeremias 31: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11,45-57.

Aldi hartan, Maria ikustera joandako judu askok, Jesusek Lazaro-ekin egina ikustean, harengan sinetsi zuen. Haietako batzuek, ordea, fariseuengana joan eta Jesusek egin zuena kontatu zieten.

Orduan, apaizburuek eta fariseuek Batzarra bildu zuten, eta esan: «Zer egin? Gizon hau ezaugarri asko egiten ari da. Horrela jarraitzen uzten badiogu, denek sinetsiko dute honengan, etorriko dira erromatarrak eta suntsitu egingo dizkigute bai tenplua eta bai herria». Batzarkideetako batek, urte hartan apaiz nagusi zen Kaifasek, esan zien: «Zuek ez dakizue ezer. Ez al zarete konturatzen hobe duzuela gizon bat herriagatik hiltzea, herri osoa galtzea baino?» Kaifasek ez zuen hori bere kabuz esan; baizik eta, urte hartan apaiz nagusi zenez, profeta bezala hitz egin zuen, Jesus herriaren alde hilko zela adieraztean; eta herriaren alde ez ezik, baita sakabanaturik zeuden Jainkoaren seme-alabak elkartzeko ere. Eta egun hartan, Jesus hiltzea erabaki zuten.

Horregatik, Jesus ez zen agerian ibiltzen juduen artean. Basamortu ondoko bazter batera alde egin zuen, Efraim izeneko herrira, eta han egon zen ikasleekin. Juduen Pazkoa gainean zen, eta herrialdeko jende asko Jerusalemara igo zen Pazkoa baino lehen, garbikuntzak egiteko. Jerusalemara etorriak Jesusen bila zebiltzan eta, tenpluan topogitean, galdetzen zioten elkarri: «Zer deritzozue? Ez ote da jaietara etorriko?» Apaizburuek eta fariseuek agindua zuten, baldin inork Jesus non zen jakiten bazuen, sala ziezaiera, atxilotu ahal izateko.

**J**udu askok sinetsi zuen Jesusengan, Lazaroren piztuera ondoren. Apaizburuek eta fariseuek, asaldaturik, Sanedrino –Lege Biltzarra– bil-

Garizumako 5. astea.

San Benito Palermokoa, *erlijiosoa*.

du zuten. Azaldu zuten, gizon arriskutsua zela Jesus, bezeroak kentzen zizkielako eta erromatarren interbentzioa sustatu zezakeelako. Orduan, Kaifas apaiz nagusiak, oharkabean Jainkoaren tresna bihurturik, –eta horixe da «joandar ironia»–, Jesusen heriotzaren zentzurik sakonena aldarrikatu zuen: «herriagatik hilko zen Jesus eta Jainkoaren seme-alaba barreiatuak elkartzeko». Zenbat bider egiten dugun arrastaka geure egoismoa –botererik ez galtzea– eta geure beldurra –bestek parte hartu eta geure pribilegioak kentzea– mozorrotzen dituen dinamika horretan, argudiatzen dugularik, guztientzat komenigarria dena bilatzen dugula eta, hartarako, alderik ahulena sakrifikatu behar izaten dugula.

\*\*\*

### Age quod agis

Ez dezazula barre egin zaharren bizkar  
(176. orritik dator)

Etxeko idazgelara joatea erabaki dut beste txeke-taloitegi baten bila, eta hartzen ari nintzen Coca-Cola aurkitu dut mahai gainean, ahazturik utzia.

Lata atera dut, paperen gainera eror ez dadin, eta konturatu naiz berotzen ari dela; hala, hozkailura eramatea erabaki dut.

Sukalderakoan, ohartu naiz barra gaineko loreontzia urik gabe da-goela.

Coca-Cola barran utzi eta goiz guztia bila pasatu dudana betaurrekoak aurkitu ditut.

Neure idazgelara eramatea erabaki dut, eta ondoren loreei ura botatzea.

Eraman ditut betaurrekoak idazgelara.

Ur-pitxer bat bete dut sukaldean

eta, bat-batean, telebistaren urrutiko kontrola ikusi dut, norbaitek sukaldeko mahaian ahaztua.

(Gogoratu naiz, bart beraren bila ibili ginela zoroak bezala). (*jarraituko du 193. orrian*)

## ERRAMU.

San Bizente Ferrer, apaiza.

## § Isaias Profetaren liburutik 50, 4-7.

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-eroriei adore-hitza emateko.

Goizero dit belarria ernearazten, ikasle onak bezala entzun dezadan. Jainko Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo.

Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei; masailak, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei.

Jauna dut laguntzaile; horregatik, ez naiz kikildu;

horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala, bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

[Sal 22 [21]: Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?]

## § San Paulok Filipinoarrei 2, 6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik,

ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari;

bestela baizik, zegokion aintza utzi

eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion,

Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen, zeruan, lurpean eta lurpean,

eta mihi guztiek aitortzen Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitararen aintzarako.



ERRAMU.

San Bizente Ferrer, apaiza.

† Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Mateoren liburutik 26, 14–27, 66.

*Zenbat agintzen didazue, Jesus zuei eskura emateagatik?*

**K** Aldi hartan, Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaizburuengana joan eta esan zien:

**S** «Zenbat agintzen didazue, Jesus zuei eskura emateagatik?»

**K** Haiek zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zioten. Orduz gero, Jesus haiei eskura emateko egokiera bila zebilen Judas.

*Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?*

Legamiagabeko Ogien Jaiko lehen-egunean, ikasleek Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten:

**S** «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?»

**K** Jesusek erantzun zien:

† «Zoazte hirira, halakoagana, eta esaiozue: “Maisuak dio hurbil dela haren ordua, eta zuen etxean ospatu nahi duela Pazkoa ikasleekin”».

**K** Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta pazko-afaria prestatu zuten.

*Zuetako batek saldu egingo nau.*

Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus hamabi ikasleekin eta, afaltzen ari zirela, esan zuen:

† «Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau».

**K** Ikasleak, oso goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion banaka:

**S** «Nik ote, Jauna?»

**K** Hark erantzun:

† «Nirekin plater beretik jaten ari den batek salduko nau. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jαιο izan ez balitz».

## ERRAMU.

San Bizente Ferrer, apaiza.

**K** Orduan, Judasek, salduko zuenak, galdetu zion:

**S** «Ni al naiz, Maisu?»

**K** Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk esan duzu».

*Hau nire Gorputza da. Hau nire Odola da.*

**K** Afaltzen ari zirela, Jesusek ogia hartu zuen eta, bedeinkapen-otoitza eginez, zatitu eta ikasleei eman zien, esanez:

† «Hartzazue, jan: hau nire Gorputza da».

**K** Gero, edalontzi bat hartu eta, esker onezko otoiitza eginez, eman zien, esanez:

† «Edan guztiok honetatik: hau nire Odola baita, itunaren Odola, bekatuak barkatzeko askoren alde isuriko dena. Hara zer diotsuedan: hemendik aurrera ez dut gehiago ardo honetatik edango, neure Aitaren erreinuan zuekin ardo berria edango dudan eguna arte».

**K** Gorazarreak abestu ondoren, Oliamendirantz atera ziren.

*Joko dut artzaina, eta artaldeko ardiak sakabanatu egingo dira.*

Jesusek esan zion:

† «Gaur gauean zuen guztion sinesmenak huts egingo du Ni nai-zela eta, honela baitago idatzirik Liburu Santuan: “Joko dut artzaina, eta artaldeko ardiak sakabanatu egingo dira”. Baina Ni, piztu ondoren, aurretik joango natzaizue Galileara».

**K** Orduan, Pedrok esan zion:

**S** «Beste guztien sinesmenak huts egiten badu ere, nireak inola ere ez».

**K** Jesusek erantzun zion:

† «Benetan diotsut: Gaur gauean bertan, oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu».

**K** Pedrok esan zion:

**S** «Zurekin hil behar badut ere, ez zaitut inola ere ukatuko».

**K** Eta gauza bera zioten ikasle guztiek.

*Tristura eta larria sentitzen hasi zen.*

Jesus ikasleekin Getsemani zeritzan landa batera iritsi zen, eta esan zien:

† «Zaudete hemen, Ni hara otoitz egitera noan bitartean».

**K** Pedro eta Zebedeoren bi semeak eraman zituen berekin. Tristura eta larria sentitzen hasi zen, eta esan zien:

† «Hiltzeko zorian nago tristuraz; gelditu hemen eta zaudete erne nirekin batean».

**K** Eta aurreraxeago joanik, ahuspez erori zen eta otoitz egin zuen, esanez:

† «Ene Aita, ahal bada, urrun ezazu nigandik edari mingots hau. Baina ez bedi egin Nik nahi bezala, Zuk nahi bezala baizik».

**K** Joan zen ikasleengana eta lo aurkitu zituen. Pedrori esan zion:

† «Beraz, ordubete ere ezin izan zarete nirekin erne egon? Zaudete erne eta egin otoitz, tentaldian eror ez zaitetzten: gogoz kartsu izan arren, ahula baita gizakia».

**K** Bigarren aldiz aldendu eta otoitz egin zuen, esanez:

† «Ene Aita, edari mingots hau nahitaez edan behar badut, egin bedi zure nahia».

**K** Eta berriro itzulirik, lo aurkitu zituen, begiak astun baitzituzten. Haiek utzita, berriro ere aldendu eta hirugarren aldiz otoitz egin zuen, lehengo hitz berak esanez. Gero, ikasleengana joan eta esan zien:

† «Egin lo eta hartu atsedan. Hara, iritsi da ordua Gizonaren Semea bekatarien esku utzia izateko. Jaiki, goazen, hurbil da salduko nauena».

*Heldu eta atxilotu egin zuten.*

## ERRAMU.

San Bizente Ferrer, apaiza.

**K** Oraindik hizketan ari zela, han azaldu zen Judas, Hamabieta-ko bat; jende-talde handia zetorren harekin, apaizburuek eta herriko zaharrek bidalita, ezpatak eta makilak eskuetan zituztela. Saltzaileak seinale hau emana zien:

**S** «Nik musu emango diodana, huraxe da; atxilot ezazue».

**K** Berehala Jesusengana hurbildu eta esan zion:

**S** «Agur, Maisu!»

**K** Eta musu eman zion. Jesusek esan zion:

† «Adiskide, egizu egitekoa».

**K** Orduan, besteek, Jesusengana hurbildurik, heldu eta atxilotu egin zuten. Jesusekin zeudenetariko batek, eskua luzatuz, ezpata ateratu zuen, apaiz nagusiaren morroia jo eta belarria moztu zion. Jesusek esan zion:

† «Itzuli ezpata bere lekura; ezpata darabilena ezpataz hilko da. Zer uste duzu? Ezin diodala neure Aitari dei egin laguntza eske? Hamabi aingeru-talde eta gehiago ipiniko lituzke berehala nire esku. Baina nola beteko lirateke orduan Liburu Santuak, honela gertatu behar duela baitiote».

**K** Une hartan, Jesusek jende-taldeari esan zion:

† «Lapur baten bila bezalaxe etorri zarete, ezpata eta makilekin, Ni harrapatzera. Egunero esertzen nintzen tenpluan irakasten, eta ez ninduzuen atxilotu. Baina hau guztia profetek idatzia bete dadin gertatu da».

**K** Orduan, ikasle guztiek Jesus utzi eta ihes egin zuten.

*Ikusiko duzue Gizonaren Semea  
Jainko ahalguztidunaren eskuinean esertzen.*

Jesus atxilotu zutenek Kaifas apaiz nagusiaren etxera eraman zuten, han baitzeuden bilduta lege-maisuak eta herriko zaharrak. Pedro, Jesusi urrutitik jarraituz, apaiz nagusiaren jauregiraino joan zen eta, barrura sarturik, morroiekin eseri zen, hura guztia zertan bukatzen zen ikusteko.

Apaizburuak eta Batzar Nagusi osoa Jesusen kontra gezurrezko testigantza bila zebiltzan, heriotzara kondenatzeko; baina ez zuten aurkitzen, gezurrezko testigu asko azaldu arren. Azkenean, bi azaldu ziren, esanez:

**S** «Honek esan zuen: “Jainkoaren santutegia desegin dezaket eta hiru egunean berriro eraiki”».

**K** Zutitu zen orduan apaiz nagusia eta esan zion:

**S** «Ez al diezu ezer erantzun behar zure kontrako salaketa horiei?»

**K** Baina Jesus isilik zegoen. Apaiz nagusiak esan zion:

**S** «Jainko biziagatik eskatzen dizut: Esaguzu Zu zaren Mesias, Jainkoaren Semea».

**K** Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk esan duzu. Eta gehiago diotsuet: Orintxetik Gizonaren Semea Jainko ahalguztidunaren eskuinean eseria eta zeruko hodei gainean etortzen ikusiko duzue».

**K** Orduan, apaiz nagusiak bere jantziak urratu zituen, esanez:

**S** «Biraoa esan du. Ba al dugu lekuko beharrik? Zeuk entzun duzue biraoa. Zer deritozue?»

**K** Haiek erantzun:

**S** «Heriotza merezi du».

**K** Orduan, aurpegira listua bota eta ukabilka erabili zuten; beste batzuek masailekoak ematen zizkieten, esanez:

**S** «Asma ezak, Mesias: zeinek jo hau?»

*Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu.*

**K** Pedro kanpoan zegoen eserita, patioan; neskame batek hurbildu eta esan zion:

**S** «Zu ere Jesus Galilearrarekin ibili ohi zinen».

**K** Pedrok guztien aurrean ukatu zuen:

**S** «Ez dakit zertaz ari zaren».

## ERRAMU.

San Bizente Ferrer, apaiza.

**K** Atarira irten zen, eta beste neskame batek ikusi eta esan zien ingurukoiei:

**S** «Hau Jesus Nazaretarrarekin ibili ohi zen».

**K** Pedrok berriro ukatu zuen, zin eginez:

**S** «Ez dut ezagutzen gizon hori!»

**K** Handik laster, han zeudenek Pedrogana hurbildu eta esan zioten:

**S** «Bai, zu ere horietakoa zara; hizkeran ezagun duzu».

**K** Orduan Pedro biraoka eta madarikazioka hasi zen:

**S** «Ez dut ezagutzen gizon hori!»

**K** Eta berehala oilarrak jo zuen. Jesusek esana gogoratu zitzaion Pedrori: «Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu», eta, kanpora irtenik, negarrari eman zion saminki.

*Pilato gobernariari eskura eman zioten Jesus.*

Eguna argitu zuenean, apaizburuek eta herriko zahar guztiek bildu eta Jesusen aurkako erabakia hartu zuten, heriotzara kondenatzeko. Eta loturik hartu eta Pilato gobernariari eskura eman zioten.

*Ez da zilegi diru hau tenpluko diru-kutxara botatzea, odol-saria da eta.*

Judas saltzaileak, Jesus kondenatu zutela ikusirik, damu izan zuen eta zilarrezko hogeita hamar txanponak apaizburuei eta herriko zaharrei itzuli zizkien, esanez:

**S** «Bekatu egin dut errugabea heriotzara emanez».

**K** Baina haiek erantzun zioten:

**S** «Eta guri zer? Hor konpon!»

**K** Orduan, dirua tenpluan jaurtirik, handik atera eta bere burua urkatu zuen. Apaizburuek dirua jaso eta esan zuten:

**S** «Ez da zilegi diru hau tenpluko diru-kutxara botatzea, odol-saria da eta».

**K** Eta, elkarrekin erabakia hartu ondoren, «Eltzegilearen Soroa» erosi zuten, kanpotarren hilerritarako. Horregatik, gaur egun ere, soro hari «Odol Soro» deritza. Honela bete zen Jeremias profetak esana: «Zilarrezko hogeita hamar txanpon hartu zituzten; hori izan zen israeldarrek ezarri zioten salneurria. Eta Eltzegilearen Soroa erosteko erabili zituzten, Jaunak agindu zidan bezala».

*Juduen erregea al zara Zu?*

Jesus Gobernariaren aurrera aurkeztu zuten. Gobernariak galdetu zion:

**S** «Juduen erregea al zara Zu?»

**K** Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk diozu».

**K** Apaizburuak eta herriko zaharrak salatu eta salatu ari ziren Jesusen aurka, baina hark ez zuen hitzik erantzuten. Pilatok esan zion:

**S** «Ez al duzu entzuten zenbat gauza ateratzen duten zure kontra?»

**K** Jesusek salakuntza bakar bati ere ez baitzion erantzunik ematen, zeharo harriturik zegoen Gobernaria. Pazko-jai guztietan preso bat askatzeko ohitura zuen Gobernariak, herriak nahi zuena. Bazen orduan preso sonatu bat, Barrabas zeritzana. Herria bildu zenean, Pilatok galdetu zion:

**S** «Nor nahi duzue askatzea, Barrabas ala Jesus, Mesias delakoa?»

**K** Bai baitzekien bekaitzez emana ziotela Jesus. Auzitegian eseririk zegoela, emazteak mandatu hau bidali zion:

**S** «Ez egin ezer errugabe honi; asko sufritu dut bart ametsetan hori dela eta».

**K** Baina apaizburuek eta herriko zaharrek jendea berotu zuten, Barrabasen askapena eta Jesusen heriotza eska zitzaizkien. Gobernariak berriro galdetu zion:

**S** «Bietako zein nahi duzue askatzea?»

**K** Haiek erantzun:

## ERRAMU.

San Bizente Ferrer, apaiza.

**S** «Barrabas».

**K** Pilatok esan zien:

**S** «Eta zer egin behar dut Jesusekin, Mesias delakoarekin?»

**K** Denek erantzun zuten:

**S** «Josi gurutzean!»

**K** Eta hark:

**S** «Zer oker egin du, bada?»

**K** Haiek, gero eta deiadar handiagoz:

**S** «Josi gurutzean!»

**K** Pilatok, dena alferrik zela eta gainera iskanbila sortzera zihoala ikusirik, ura hartu eta eskuak garbitu zituen jendearen aurrean, esanez:

**S** «Ez naiz gizon honen heriotzaren erantzule. Zeuek ikusi!»

**K** Herri osoak erantzun zuen:

**S** «Gu eta gure ondorengoak egiten gara horren heriotzaren erantzule!»

**K** Orduan, Barrabas askatu zien eta Jesus, zigorkarazi ondoren, haiei eskura eman zien, gurutziltza zezaten.

*Agur, juduen erregea!*

Gobernariaren gudariak jauregira eramán zuten Jesus eta gudari-talde osoa bildu zuten haren inguruan. Soinekoak erantzi eta purpurazko kapa jantzi zioten. Arantzaz eginiko koroa ezarri zioten buruan eta kanabera eskuan. Eta, aurrean belaunikaturik, iseka egiten zioten, esanez:

**S** «Agur, juduen erregea!»

**K** Listua botatzen zioten eta, kanabera kendurik, buruan jotzen zuten. Nahiko iseka egin ondoren, kapa kendu eta bere soinekoak jantzi zizkioten. Gero, gurutzean jostera eramán zuten.

*Jesusekin batean bi gaizkile gurutziltzatu zituzten.*



ERRAMU.

San Bizente Ferrer, apaiza.

Ateratzean, Zireneko gizon bat aurkitu zuten, Simon zeritzana, eta Jesusen gurutzea eramatera behartu zuten. Golgota izeneko lekura iritsi zirenean –Golgotak «Buru-hezur» esan nahi du–, behazunez nahastutako ardoa eman zioten edatera; Jesusek dastatu zuen, baina ez zuen edan nahi izan. Gurutzean josi zutenean, gudariak Jesusen jantziak banatu zituzten, zotz eginez, eta han gelditu ziren eserita hura zaintzen.

Buruaren gainaldean kondenazioaren arrazoia ipini zuten idatzia: **HAU JESUS DA, JUDUEN ERREGEA**. Jesusekin batean bi gaizkile gurutziltzatu zituzten, bata eskuinean eta bestea ezkerrean.

*Jainkoaren Seme baldin bahaiz,  
jaits hadi gurutzetik!*

Handik igarotzen zirenek iraindu egiten zuten Jesus, buruari eraginez eta esanez:

**S** «Santutegia desegin eta hiru egunean berriro eraikitzen omen huen horrek, salba ezak heure burua, Jainkoaren Seme baldin bahaiz! Jaits hadi gurutzetik!»

**K** Era berean, apaizburuek, lege-maisuek eta herriko zaharrek ere burla egiten zioten, esanez:

**S** «Besteak salbatu dizkik, eta bere burua ezin salbatu. Israelgo erregea omen duk; jaits dadila orain gurutzetik, eta sinetsiko diagu beragan. Jainkoagan jarria dik uste ona; libra dezala orain, maite baldin badu; ez zian, ba, esaten Jainkoaren Semea zela?»

**K** Berarekin gurutzean josirik zeuden bi gaizkileek ere irain egiten zioten.

*Eli, Eli, lema sabaktani.*

Eguerditik hirurak arte, ilundu egin zuen lurbira osoan. Hirurak inguruan, Jesusek oihu handiz esan zuen:

## ERRAMU.

San Bizente Ferrer, apaiza.

† «Eli, Eli, lema sabaktani»,

**K** hau da:

† «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?»

**K** Hau entzutean, bertan zeuden batzuek esan zuten:

**S** «Eliasi deika ari duk».

**K** Berehala, haietako batek, lasterka joan, ozpinetan bustitako belakia hartu eta, kanabera bati muturrean erantsiz, edatera eman zion. Besteek, ordea, zioten:

**S** «Egon, ea datorkion Elias salbatzera».

**K** Baina Jesusek, berriro deiadar handia eginez, azken arnasa eman zuen.

### Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.

Orduan, santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen, goitik beheraino; lurrikara izan zen eta harkaitzak zartatu egin ziren; hilobiak ireki eta hilik zegoen santu asko piztu egin zen. Hauek, beren hilobietatik atera eta, Jesus piztu ondoren, hiri santuan sartu ziren eta jende askori agertu zitzaizkion. Lurrikara eta gertakari guztiok ikustean, erromatar ehuntariak eta harekin Jesus zaintzen zeuden besteek, beldurrak jota, esan zuten:

**S** «Benetan, Jainkoaren Semea zen hau».

**K** Bazen han emakume asko ere, urrutitik begira; Jesusi jarraituz Galileatik etorriak ziren, haren zerbitzari; haien artean, Maria Magdalena, Santiago eta Joserren ama Maria, eta Zebedeoren semeen ama.

*Josek harkaitzean zulatutako bere hilobi berrian  
ipini zuen Jesusen gorpua.*

Ilunabarrean, Jose zeritzan Arimateako gizon aberats bat etorri zen, bera ere Jesusen ikaslea. Pilatogana aurkeztu eta Jesusen gorpua eskatu zion. Orduan, Pilatok emateko agindu zien. Josek, Jesusen gor-

pua harturik, izara garbi batean bildu eta harkaitzean zulatutako bere hilobi berrian ipini zuen. Gero, harri handi bat irauliz, hilobiko sarrera itxi zuen eta joan egin zen. Maria Magdalena eta beste Maria hilobi aurrean eserita zeuden.

*Badituzue zeuen guardiak;  
zoazte eta zaindu dakizuen eran.*

Pazko-jaiia prestatzeko egunaren ondoren, larunbatean, apaizbueruek eta fariseuek Pilatogana elkarrekin joan eta esan zioten:

**S** «Jauna, oroitu gara gezur-saltzaile hark, artean bizi zela, nola esan zuen: “Hiru egunen buruan piztuko naiz”. Agindu ezazu, beraz, hilobia zaintzeko hirugarren eguna arte; ez dadila gerta haren ikasleek gorpua ostu eta gero “Piztu da hilen artetik” herriari esanez etortzea. Azken engainu hau lehenbizikoa baino okerragoa izango litzateke».

**K** Pilatok erantzun zien:

**S** «Badituzue zeuen guardiak. Zoazte eta zaindu dakizuen eran».

**K** Joan ziren, bada, eta hilobia segurtatu zuten, harria zigitatuz eta guardia ipiniz

**J**esusek Jerusalemera egindako sarrera eta jarraitzaileengan eragin duen gogo-berotasuna oroitu eta ospatu ditugu prozesioan; baina, segidan, Jaunaren Nekaldia entzun eta bizi dugu. Ez gaitezen gelditu hasierako gogo-berotasunarekin. Erramu-adarrak eskuan tente eta zatitugula egindako prozesio honek gurutzera gidatu behar gaitu; hartan gauzatu zen Jesusen benetako garaipena.

Jesus asto baten gainean iritsi da, errege baketsu. Salbatzaile bezala dator –horregatik onartu du «Hosanna» deidarra–, baina dakarren salbazioa bere bizia gurutzea eramatearekin gauzatuko du. Beraz, gurutzera gidatzen gaitu, Jesus Errege salbatzailetzat aitortzeak.

Gurutzera gidatu gaituzte bi irakurgaiek ere: Zerbitzariaren kantiak lur joa dagoenari arnasa-hitz gupidatsu bat esateko gai den bezala

## ERRAMU.

San Bizente Ferrer, apaiza.

aurkeztu digu zerbitzari hori. San Paulo, berriz, Jainkoaren Semearen beheratzeaz mintzatu zaigu, esklabo-izaera hartzeraino zerbitzari bihurtu denaz, gizakiaren solidario egite aldera; baina «gogozko beheratze» horretatik, eta berori dela medio, Aitak goratu egingo du, Krea-zioaren Jaun bihurtzeraino.

San Mateok, azkenik, Nekaldiaren kontra, esan digu, profetek iragarri eta herriak espero zuena dela Jesus. Baina beraren mesianismoak, juduen iguripenaren kontra, sufrikario eta azkeneraino leial den Zerbitzariaren aurpegia du. Horregatik, «paganoen abesbatza» batek, gurutzearen oinean, Jesusen benetako nortasuna aldarrikatu du: Jainkoaren Seme esaneko izatea.

Aste Santua.

San Ireneo, *gotzaina* (eliz gurasoa).

[Isaias profetaren liburutik 42,1-7: Ez du oihu egingo, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,1-11.

Pazkoa baino sei egun lehenago, Jesus Betaniara joan zen; han bizi zen Lazaro, Jesusek hilen artetik piztu zuena. Afaria eskaini zioten; Marta zerbitzatzen ari zen, eta Lazaro Jesusekin mahaian zeudenetarikoa bat zen. Mariak, nardo jatorrezko kilo erdi bat lurrin-usain gozoduna, balio handikoa, harturik, oinak igurtzi zizkion Jesusi, eta bere ile-adatsez xukatu. Etxea lurrin-usainez bete zen.

Judas Iskariotek, salduko zuen ikasleak, esan zuen: «Zergatik ez da saldu ukendu hori hirurehun denarioan, eta dirua behartsuei eman?» (Hori esan zuen, ez behartsuak axola zitzaizkiolako, lapurra zelako baizik, eta, diru-poltsa berak zenez, hara botatzen zutenetik ostu egiten zuelako.). Jesusek esan zion: «Utziozu bakean; nire hilobiratze-egunerako egin du hori. Izan ere, behartsuak beti dituzue zeuen artean; baina Ni ez nauzue betiko izango».

Juduetariko asko, Jesus Betanian zegoela jakinik, hara joan zen, Jesusengatik ez ezik, baita hilen artetik piztu zuen Lazaro ikusteagatik ere. Apaizburuek, orduan, Lazaro ere hiltzea erabaki zuten, hura zela-eta herritar askok haiengandik alde egiten baitzuen eta Jesusengan sinesten.

**D**euteronomio liburuan esana da: «Ez da herrian behartsurik faltako» (Dt 15,11). Yahveren agindu bat da, behartsuei lagundu behar zaiela. Txatal horren asmoa gauza bat zehaztea zen: agindu horrek bere balio osoa izango duela etorkizunean eta mugarik gabe, zuzengabeke-riak indarrean jarraituko duelako gizon-emakumeen artean. Jesusek ere gogoratu du agindu hori, baina gehitu du: «Behartsuez beti izan behar da ardura; halere, Mariak gaur ondo jokatu du nitaz ardura-tzean, laster hilko bainaiz». Bere keinu bihotz zabalez –Judasen probetxu zikoitzaren kontra–, Mariak –honela interpretatu du Jesusek– ho-

Aste Santua.

San Ireneo, *gotzaina (eliz gurasoa)*.

**nen heriotza, hilobia eta antzatzea iragarri ditu. Eta iragarri du, aldi berean, gugatik emana den bizitza hori perfume bat izango dela, bere lurrinaz mundua mozkortuko duena.**

\*\*\*

### **Age quod agis**

Ez dezazula barre egin zaharren bizkar  
(178. orritik dator)

Familyra eramatea erabaki dut, han egon behar baitu, loreei ura bota ondoren.

Ur-pixka bat bota diet loreei eta gehiena lurrera joan zait.

Beraz, sukaldera itzuli naiz, urrutiko kontrola mahai gainean utzirik, eta trapu batzuk hartu ditut zorua lehortzeko.

Eta family-rantz joan naiz trapu horiekin zer egin nahi nuen gogoratzen saiatuz.

Arratsean:

- autoak garbitu gabe jarraitzen du,
- faktura ordaindu gabe gelditu da,
- zakarrontziak beterik jarraitzen du,
- Coca-Cola lata bero bat dago barran,
- loreek ez dute edan urik,
- txeke bakarra dago txeke-taloitegian,
- ezin aurkitu dut telebistaren urrutiko kontrola,
- ezta betaurrekoak ere,
- Eta ez dut ideiarik autoaren giltzak non gelditu diren!

Pentsatzen jarri naiz:

Nolatan, arratsalde osoan kolpe zurrik jo gabe, nago hain nekatua?

**EZ DEZAZULA BARRERIK EGIN. ORAINO GERTATU EZ BAZAIZU, ETORRIKO ZAIZU TXANDA!**

Aste Santua.

La Salleko San Joan Bautista,  
*apaiza eta fundatzailea (Salletarrak).*

**[Isaias profetaren liburutik 49,1-6:** Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin. **Sal 71 [70]:** Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,21-33.36-38.**

Aldi hartan, ikasleekin mahaian eseria zegoela, larritu egin zitzaion Jesusi barrua, eta argi adierazi zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Zuetako batek salduko nau». Ikasleak elkarri begira jarri ziren, zeinez ari zen asmatu ezinik.

Ikasleetako bat, Jesusek hain maite zuena, haren ondo-ondoan zegoen mahaian. Simon Pedrok keinu egin zion, zeinez ari zen galdetzeko adieraziz. Hark, burua Jesusen bular gainean jarriz, galdetu zion: «Zein da, Jauna?»

Jesusek erantzun zion: «Ogi-puska busti hau emango diodana, huraxe da». Eta ogi-puska bustiz, Judasi, Simon Iskarioteren semeari, eman zion. Eta ogi-puskarekin batera Satanas sartu zitzaion barrura.

Orduan, Jesusek esan zion: «Egin behar duzuna egizu berehala». Mahaikideetako inork ez zuen ulertu zergatik esan zion hori. Judasek diru-poltsaren ardura zuenez, zenbaitek uste izan zuen jairako behar zena erosteko edota behartsuei zerbait emateko esan ziola. Judas ogi-puska hartu eta berehala atera zen. Gaua zen.

Atera zenean, esan zien Jesusek: «Oraintxe agertuko da Gizonaren Semearen aintza, eta haren bidez Jainkoarena. Jainkoaren aintza haren bidez agertzen bada, Jainkoak ere bere aintzaz beteko du hura, eta berehala gainera.

Semetxook, oraintxe ez nago luzarorako zuekin. Nire bila ibiliko zarete, baina juduei esan niena bera esaten dizuet zuei ere: “Ni noan tokira, zuek ezin zarete joan”».

Simon Pedrok galdetu zion: «Jauna, nora zoaz?» Jesusek erantzun: «Ni noan lekura zuk ezin didazu jarraitu orain niri; geroago bai, jarraituko didazu».

*Aste Santua.*

La Salleko San Joan Bautista,  
*apaiza eta fundatzailea (Salletarrak).*

---

Pedrok esan zion: «Zergatik ezin dizut jarraitu orain? Neure bizia emango dut zuegatik». Jesusek erantzun zion: «Zeure bizia emango duzula nigatek? Egi-egiaz esaten dizut: Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu».

«**G**aua zen». Judasen saldukeriak jarri du jada abian Jesusen kondena eta heriotza zitala eragingo dituzten gertaeren kate luzea. Eta Jesusek iragarri ditu, aldi bertsuan, Pedroren ukoak. Egoera zail eta gogaikarri horren aurrean, nola erreakzionatu du Jesusek? Bere heriotza aurreratu eta Eukaristia eratu du: muturrerainoko maitasun-eskaintza bihurtu du bere heriotza. Maitasunaren garaitza osoa da, haustura-gertaera bat komunio edo elkartasun-gertaera bihurtu du. Eukaristian parte hartzen dugunean, Jesusek Azken Afarikoan Eukaristia horri erantsi zion maitasunaren dinamismoa hartzen dugu. Eukaristiak indarra emango digu, geure bizitzako egoera latzak, kontra-koak, ilunak maitasun-garaipen bilakatzeko.



Aste Santua.

San Dionisio, *gotzaina*.

[Isaias profetaren liburutik 50,4-9a: Ez nien aurpegia saihestu irainei. Sal 69 [68]: Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz, mesede-garaia duzu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 26,14-25.

Aldi hartan, Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaizburuengana joan eta esan zien: «Zenbat agintzen didazue, Jesus zuiei eskura emateagatik?» Haiek zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zioten. Orduz gero, Jesus haiei eskura emateko egokiera bila zebilen Judas.

Legamiagabeko Ogien Jaiko lehen-egunean, ikasleek Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten: «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?» Jesusek erantzun zien: «Zoazte hirira, halakoagana, eta esaiozue: “Maisuak dio hurbil dela beraren ordua, eta zuen etxean ospatu nahi duela Pazkoa ikasleekin”». Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta pazko-afaria prestatu zuten.

Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus hamabi ikasleekin eta, afaltzen ari zirela, esan zuen: «Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau». Ikasleak, oso goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion banaka: «Nik ote, Jauna?»

Hark erantzun: «Nirekin plater beretik jaten ari den batek salduko nau. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jaino izan ez balitz».

Orduan, Judasek, salduko zuenak, galdetu zion: «Ni al naiz, Maitasun?» Jesusek erantzun zion: «Zeuk esan duzu».

**Z**ergatik saldu zuen Judasek Jesus? Diru-goseagatik? Jesusez zuen usteak huts egin ziolako? Ez dakigu: beti hauskorra den gizakiaren misterioa da. Baina ezaguna dugu adiskide batek egin zion sal-

Aste Santua.

San Dionisio, *gotzaina*.

---

dukeriak Jesusi eragin zion atsekabea, hura ere bereetako bat izateko aukeratua zuen, ba. Judas damutu zen bere saldukeriaz: itzuli zituen jasoak zituen hogeita hamar monetak; aitortu zuen bere erruduntasuna. Baina bere erruaren lehen urrats horretan loturik geratu zen, prozesu ororen unerik nartzisistarenean zurrun: zikindua duen norberaren irudiaz mindurik. Pedrok ez bezala, ez zion eman biderik Jesusen begiratuari. Pedrok eutsi zion Jesusekin bizi izandakoari eta gogoratu zen bekatariak salbatzera etorria zela hura, eta negar egin zuen saminki. Judasek ez zion eutsi Jesusekin bizi izandakoari. Eta guk? Eutsi diezaiogun beti.

\*\*\*

### Jainkoa zer den agertu Jesusek (Ostegun Santua)

Jainkoa zer den agertu du Jesusek, gainerakoen zerbitzari bihurtuz. Bere burua deseginez, bere betera da heldu.

Gaur oinak garbitzearen seinalean aurkitu dugu eta eukaristian. Bihar, heriotza jasatean.

.....

Ogi zatitua eta banatua naiz ni.

Odola (Bizia) naiz ni, alde guztietara isuria.

Hori bera behar dut izan neuk ere,  
gizatasunaren betera iritsi nahi badut.

.....

Neure egoismoa galtzeko gai banaiz,  
lortuko dut Biziazen betea.

Hiltzeraino, neure burua emateko gai banaiz,  
zinezko Biziazi eutsiko diot betiko.

*(Javier Leoz; egokitua eta zatia).*

## § Irteera liburutik 12,1-8.11-14.

Egun haietan, honela mintzatu zitzairen Jauna Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hilabete hau izango duzue hilabete nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren elkarte osoari: “Hil honen hamarrean, bakoitzak abere xehe bat hartuko du, familia eta etxe bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia aski ez bada, aldameneko bizilagunekin elkartuko da, bakoitzak jan dezakeenaren arabera zenbat lagun behar den kontuan harturik. Aberea akatsik gabea izango da, arra, urtekoa, arkume nahiz antxume. Hilaren hamalaua arte gordeko duzue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar elkarteko guztiek hilko dute. Gero, odola hartu eta jango duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua odoloztatuko dituzue. Gau horretan, suan erre jango duzue haragia, legamiagabeko ogiz eta belar mingotsez lagundurik.

Honela jango duzue: gerria loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango duzue, Jaunaren Pazkoa baita, hau da, Jaunaren igarotzea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naiz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen-ume guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emango diet Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango duzue ezaugarri zuek zaudeten etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz; horrela, Nik egiptoarrak jotzean, izurriak ez zaituzte suntsituko.

Egun hau gogoangarri izango duzue eta jai nagusiz ospatuko duzue Jaunaren ohoretan. Jai honen ospakizuna betiko lege izango duzue belanez belaun”»

[Sal 116 [115]: Esker onezko kalizak Kristoren odolean elkartzen gaitu.]

## § San Paulok 1 Korintoarrei 11,23-26.

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker

Aste Santua.

San Maximo, *aitorlea*.

onezko otoitza eginez, zatitu zuela eta esan: «Hau nire Gorputza da, zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri».

Afal ondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz sinatua; egizue hau, edaten duzuen baikoitzean, nire oroigarri».

Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen baikoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,1-15.

Pazko-jaia ganean zen. Jesusek, mundu hau utzi eta Aitagana joateko ordua iritsi zitzaiola jakinik, munduan ziren beretarrek maite izanik, azkenean bete-betean maitatu zituen.

Afaltzen ari ziren. Ordurako deabruak sartua zion buruan Simon Iskarioteren seme Judasi Jesus saltzeko asmoa. Jesus, Aitak dena bere esku jarri ziola, Jainkoagandik etorria zela eta Jainkoagana zihoala jakinik, jaiki zen mahaitik, erantzi zuen soingainekoa eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen; gero, ontzi bat urez bete eta ikasleei oinak garbitzen hasi zitzaien, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen.

Simon Pedrogana iritsi zenean, honek esan zion: «Jauna, Zuk niri oinak garbitu?» Jesusek erantzun zion: «Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen; geroago ulertuko duzu».

Pedrok berriro: «Zuk ez didazu niri sekula oinak garbituko». Jesusek erantzun: «Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zerikusirik izango».

Simon Pedrok esan zion: «Jauna, orduan oinak ez ezik, baita eskuak eta burua ere». Jesusek erantzun zion: «Garbitua hartu duenak ez du oinak baizik garbitu beharrik, erabat garbi baitago; eta zuek garbi zaudete, baina ez denok». Izan ere, bazekien nork salduko zuen; horregatik esan zuen: «Ez zaudete denok garbi».

Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zion: «Ulertzen al duzue egin dizuedana? Zuek Maisua

Aste Santua.

San Maximo, *aitorlea*.

eta Jauna deitzen didazue, eta ongi deitu ere, halaxe naiz eta. Beraz, Nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkiozue. Jarraibide eman dizuet, zuek ere Nik zuekin bezalaxe joka dezazuen».

**B**i agindu bizitzera eragin digu Jesusek, biak bereizezinak eta osagarriak: «Egizue hau ene oroigarri» (afaria); «nik egin dudana, egin zuek ere» (zerbitzua). Ogia partekatzeak –Jaunak egin duen buru-eskaintza ospatzen duen kultu-egintzak– jarraipen bat izan behar du, ezinbestean, bizitzan gainerakoei egindako zerbitzua ospatzean; zerbitzari izateko indarra Jaunaren aurrean eta elkarrean partekatutako ogiak emango digu. Eukaristia, beraz, zerbitzu-konpromisoa da. Historian gauzatu den zerbitzu-maitasunaren egintzarik handiena oroitzen dugu Eukaristian. Baina «aldarrikatu» beharra dugu buru-eskaintza hori, liturgia-ospakizunaren segidan, geure bitzta konprometitu eta zerbitzukoaz.

Horixe adierazi nahi du, Eukaristia gure bizitzako erdigunea dela esateak. Gure bizitzako 24 orduak buru-eskaintza eta zerbitzu izan beharko lukete: bata bestearen zerbitzari bihurtzea maitasunez. Eta eguneroko puntu batean horixe ospatzen dugu berariaz, eskerrak demazkiogu Jainkoari hori egiteko gai bihurtu gaituelako, eta sentitzen dugu, nola itsasten gaituen Jaunaren Espirituak Jesusen gorputzean, gugatik egin baitu bere buru-eskaintza eta geuk ere beste horrenbeste egin dezagun.

Zerbitzari al gara? «Zerbitzari» izateko, azpian kokatu behar dugu eta ez zerbitzatu nahi dugunaren gainean.

Aste Santua.

San Ezekiel, *profeta*.

San Makario, *gotzaina*.

### § Isaias profetaren liburutik 52,13–53,12.

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, gorengo mailara jasoa izango da. Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrituko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontatu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko. Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena? Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargarririk; mesprextatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mesprextatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez. Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eraman.

Guk, berri, zigortuztat geneukan, Jainkoak zauritu eta atseka-betuztat. Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra: haren zauriek sendatu gaituzte.

Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza geure bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua. Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu. Gogorki eta zuzengabe eraman zuten; baina haren zoria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekeriarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan.

Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta ase izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen.

Aste Santua.

San Ezekiel, *profeta*.San Makario, *gotzaina*.

Horregatik, jendetza ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kideztat hartu zutelako. Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

[Sal 31 [30]: Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!]

§ Hebrearrei liburutik 4,14-16; 5,7-9.

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zeruetan sartua dugunez gero, euts diezaiogun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitzen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun.

Kristok, bere giza bizitzaldian, deiar dar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten guztientzat

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 18,1–19,42.

*Getsemanin, Jesus preso hartu  
eta loturik eraman.*

**K** Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Zedron erreka igaro eta beste aldean zegoen baratze batera sartu ziren. Judasek ere, Jesus salduko zuenak, ezagutzen zuen leku hura, maiz bildua baitzen Jesus han bere ikasleekin.

Judas, beraz, tenpluko gudari-taldea eta apaizburuak eta fariseuen guardiak harturik, hara joan zen. Zuzi, argiontzi eta armez horniturik

Aste Santua.

San Ezekiel, *profeta*.

San Makario, *gotzaina*.

zihozen. Jesusek, ondo baitzekien gertatuko zitzaion guztia, bidera atera eta esan zien:

**S** «Noren bila zatozte?»

**K** Haiek erantzun:

**S** «Jesus Nazaretarraren bila».

**K** Hark orduan:

† «Ni naiz».

**K** Han zen guardiekin batean Judas saltzailea ere. Jesusek «Ni naiz» esan zienean, atzeraka hasi eta lurrera erori ziren. Berrito galdetu zien:

† «Noren bila zatozte?»

**K** Haiek erantzun:

**S** «Jesus Nazaretarraren bila».

**K** Eta Jesusek:

† «Esan dizuet Ni naizela. Nire bila bazatozte, utzi hauei joaten».

**K** Horrela bete zen Jesusek berak esandakoa: «Eman dizkidayunetatik ez dut bat ere galdu».

Orduan, Simon Pedrok, aldean zeraman ezpata atera, apaiz nagusiaren morroia jo eta eskuineko belarria moztu zion. Morroiak Malko zuen izena. Jesusek esan zion Pedrori:

† «Itzuli ezpata zorrora. Ez al dut, ba, edan behar Aitak eman didan edaria?»

*Jesus Anasen etxera eraman zuten lehenengo.*

**K** Gudari-taldeak bere buruzagiarekin eta judu-agintarien guardiek Jesus preso hartu eta, loturik, Anasen etxera eraman zuten lehenengo; urte hartako apaiz nagusi Kaifasen aitagarreba zen Anas hau (Kaifas zen juduei aholku hau eman ziena: «Hobe da gizon bat herriagatik hiltzea»).

Simon Pedro eta beste ikasle bat Jesusen atzetik joan ziren. Beste ikaslea apaiz nagusiaren ezaguna zen eta, Jesusekin batera, apaiz



Aste Santua.

San Ezekiel, *profeta*.San Makario, *gotzaina*.

nagusiaren jauregiko patiora sartu zen; Pedro, berriz, kanpoan gelditu zen, ate ondoan. Atera zen orduan apaiz nagusiaren ezaguna zen ikaslea eta, atezainari hitz egin ondoren, Pedro barrura sarrarazi zuen. Atezain zegoen neskameak esan zion Pedrori:

**S** «Zu ere ez al zara gizon horren ikasleetakoa?»

**K** Pedrok erantzun:

**S** «Ez, ez naiz!»

**K** Morroiak eta guardiak sua piztu eta berotzen ari ziren, hotz eginen baitzuen. Pedro ere haiekin zegoen, berotzen. Apaiz nagusiak bere ikasleez eta irakatsiaz galdetu zion Jesusi. Jesusek erantzun zion:

† «Ageri-agerian hitz egin izan diot Nik mundu guztiari; sinagogan eta tenpluan irakatsi izan dut beti, judu guztiak biltzen diren lekuan, eta ezer ere ez dut ezkutuan esan. Zergatik galdetzen didazu niri? Galdetu nire entzuleei eta emango dizute esan dudanaren berri.

**K** Hori esan zueneko, han zegoen guardia batek masaileko bat eman zion, esanez:

**S** «Horrela erantzuten al diozu apaiz nagusiari?»

**K** Jesusek erantzun zion:

† «Gaizki hitz egin badut, esan zertan; baina ongi hitz egin badut, zergatik jo nauzu?»

**K** Orduan, Anasek Kaifas apaiz nagusiagana bidali zuen Jesus lotua.

*Zu ere ez al zara, ba, horren ikasleetakoa?*

*Ez, ez naiz!*

Bitartean, han zegoen Simon Pedro berotzen, eta esan zioten:

**S** «Zu ere ez al zara horren ikasleetakoa?»

**K** Pedrok ukatu egin zuen, esanez:

**S** «Ez, ez naiz!»

**K** Apaiz nagusiaren morroietako batek, Pedrok belarria moztu zionaren ahaideak, esan zion:

Aste Santua.

San Ezekiel, *profeta*.

San Makario, *gotzaina*.

**S** «Ez ote zaitut, ba, neuk ikusi horrekin baratzean?»

**K** Ukatu egin zuen Pedrok berriz ere, eta berehala oilarrak jo zuen.

*Nire erregetza ez da mundu honetakoa.*

Kaifasen etxetik Gobernariaren jauregira eraman zuten Jesus. Goizalde zen. Juduak ez ziren jauregian sartu, beren burua ez kutsatzeko, bestela ezin izango baitzuten pazko-afarian parte hartu. Pilatok kanpora atera eta galdetu zion:

**S** «Zertaz salatzen duzue gizon hau?»

**K** Haiek erantzun zioten:

**S** «Gaizkilea ez balitz, ez genizukeen ekarriko».

**K** Pilatok esan zion:

**S** «Eraman zeuek eta epaitu zeuen legearen arabera».

**K** Juduek orduan:

**S** «Guri ez zaigu zilegi inor heriotzara kondenatzea».

**K** Horrela beteko zen Jesusek esandakoa, zein heriotzaz hilko zen adierazi zuenean. Pilato jauregira sartu zen berriro eta, Jesusi deiturik, galdetu zion:

**S** «Zu al zara juduen erregea?»

**K** Jesusek erantzun:

† «Zeure kabuz galdetzen didazu hori ala besteek esan dizute hori nitaz?»

**K** Pilatok esan zion:

**S** «Judua ote naiz, ba, ni? Zeure herritarrek eta apaizburuek ekarri zaituzte nigana. Zer egin duzu?»

**K** Jesusek erantzun:

† «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Nire erregetza mundu honetakoa balitz, nire jendeak borroka egingo luke, Ni juduen eskuetan ez erortzeko. Nire erregetza, ordea, ez da hemengo».

**K** Orduan, Pilatok esan zion:

**S** «Beraz, errege zara Zu?»

Aste Santua.

San Ezekiel, *profeta*.San Makario, *gotzaina*.**K** Jesusek erantzun zion:**†** «Bai, errege naiz, zeuk diozun bezala. Honetarako jaio eta etorri naiz mundura: egiaren testigantza egiteko. Egiarena denak entzuten du nire ahotsa».**K** Pilatok galdetu zion:**S** «Zer da egia?»**K** Hori esanik, berriz ere juduengana atera eta esan zien:**S** «Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi. Baina baduzue ohitura nik Pazko-jaietan preso bat askatzekoa: nahi al duzue juduen erregea askatzea?»**K** Haiek, berriz, deiadarka:**S** «Hori ez! Askatu Barrabas!»**K** Barrabas hau bidelapurra zen.*Agur, juduen errege!*

Pilatok, orduan, Jesus zigorkatzeko agindu zuen. Gudariek, arantzazko koroa eginik, buruan ezarri zioten eta purpurazko mantua bota zioten gainera. Eta, hurbildurik, esaten zioten:

**S** «Agur, juduen errege!»

**K** Eta masailekoka zerabilten. Atera zen berriro ere Pilato eta esan zien juduei:

**S** «Hara, kanpora dakarkizuet, jakin dezazuen ez diodala errurik aurkitzen».

**K** Atera zen, bada, kanpora Jesus, arantzazko koroa eta purpurazko mantua zeramatzala.

Pilatok esan zien:

**S** «Hona gizona!»**K** Apaizburuak eta guardiak, hura ikustean, deiadarka hasi ziren:**S** «Gurutzera hori! Josi gurutzean!»**K** Pilatok esan zien:**S** «Eraman zeuek eta gurutziltzatu; nik ez diot errurik aurkitzen».

Aste Santua.

San Ezekiel, *profeta*.

San Makario, *gotzaina*.

**K** Juduek erantzun zioten:

**S** «Guk badugu legea, eta lege horren arabera heriotza-zigorra me-rezi du, Jainkoaren Seme egin baitu bere burua».

**K** Hori entzutean, are gehiago beldurtu zen Pilato eta, berriro jau-girera sarturik, galdetu zion Jesusi:

**S** «Nongoa zara Zu?»

**K** Jesusek, ordea, ez zion erantzun ere egin. Orduan, Pilatok esan zion:

**S** «Ez al didazu erantzun behar? Ez al dakizu aginpidea dudala Zu askatzeko nahiz gurutziltzatzeko?»

**K** Jesusek erantzun zion:

† «Ez zenuke nire gain inolako aginpiderik izango, Jainkoak eman ez balizu. Horregatik, zure eskura eman nauenak bekatu handi-agoa du».

*Ken hori, ken! Josi gurutzean!*

**K** Ordudanik, Jesus askatu nahian zebilen Pilato. Baina juduak deiadarka hasi zitzaizkion:

**S** «Hori askatzen baduzu, ez zara enperadorearen adiskide. Bere burua errege egiten duena enperadorearen aurka ari da».

**K** Pilatok, hitz horiek entzutean, kanpora eraman zuen Jesus eta auzitegian eserarazi, «Har lauzatua» zeritzan lekuan –hebreeraz «Gabbata»–. Pazzo-jairako prestaketa-eguna zen, eguerdi ingurua. Pi-latok esan zien juduei:

**S** «Hona zuen erregea!»

**K** Orduan, haiek deiadarka:

**S** «Ken hori, ken! Josi gurutzean!»

**K** Eta Pilatok:

**S** «Gurutziltzatu egin behar al dut zuen erregea?»

**K** Apaizburuek erantzun zioten:

Aste Santua.

San Ezekiel, *profeta*.

San Makario, *gotzaina*.

**S** «Ez dugu enperadorea beste erregerik».

**K** Orduan, Pilatok haien esku utzi zuen, gurutziltza zezaten.

*Gurutzean josi zuten,  
eta harekin batean beste bi.*

Hartu zuten, beraz, Jesus, eta, gurutzea sorbaldan zeramala, «Buru-hezur» –hebreeraz «Golgota»– zeritzan lekurantz atera zen. Han josi zuten gurutzean, eta harekin batean beste bi, alde banatan, eta erdian Jesus. Pilatok kartel bat idatzi eta gurutze-buruan ipini zuen; hau zegoen idatzia: **JESUS NAZARETARRA JUDUEN ERREGEA**.

Judu askok irakurri zuen kartela, hiritik hurbil baitzegoen Jesus gurutziltzatu zuten lekua; gainera, hebreeraz, latinez eta grekoz zegoen idatzia. Juduen apaizburuek esan zioten Pilatori:

**S** «Ez idatzi “Juduen erregea”, baizik “Juduen erregea dela dioena”».

**K** Pilatok erantzun zuen:

**S** «Idatzia bego idatzirik!»

*Nire jantziak beren artean  
banatu zituzten.*

**K** Gudariak, Jesus gurutzean josi ondoren, haren jantziak hartu eta lau zati egin zituzten, bakoitzarentzat bat; gero, tunika hartu zuten, baina josturarik gabea, goitik behera ehundua, zenez, esan zioten elkarri:

**S** «Ez dezagun urratu; zotz egin dezagun, ea zeinentzat den».

**K** Horrela bete zen Liburu Santuak dioena: «Nire jantziak beren artean banatu zituzten, eta nire tunika zotz egin». Hain zuzen ere, horixe egin zuten gudariak.

Aste Santua.

San Ezekiël, *profeta*.

San Makario, *gotzaina*.

*Horra hor zeure semea!*

*Horra hor zeure ama!*

Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari:

† «Emakume, horra hor zeure semea!»

**K** Gero, ikasleari esan zion:

† «Horra hor zeure ama!»

**K** Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.

*Bete da dena!*

Ondoren, Jesusek, dena betea zela jakinik, Liburu Santuak esana erabat bete zedin, esan zuen:

† «Egarri naiz!»

**K** Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, ezpainetara hurbildu zioten. Ozpina hartu zuenean, Jesusek esan zuen:

† «Bete da dena!»

**K** Eta, burua makurtuz, azken arnasa eman zuen.

**Hemen, belauniko jarri  
eta egonalditxo bat egingo da.**

*Odola eta ura atera ziren.*

Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten nahi larunbatean gorpuak gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako bie;

Aste Santua.

San Ezekiel, *profeta*.San Makario, *gotzaina*.

baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzas saihetsa zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

Ikusi zuenak berak aitortzen du eta egiazkoa da haren aitormena. Hark badaki egia dioela, zuek ere sinets dezazuen. Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen hau: «Ez diote hezurrik hautsiko». Eta beste pasarte batean hau dio: «Zulatu zutenari begiratuko diote».

*Jesusen gorpua oihal-zerrendaz lotu zuten,  
tarteant lurrun-gaiak ezarriz.*

Gero, Arimateako Josek Jesusen gorpua eramateko baimena eskatu zion Pilatori. Jesusen ikaslea zen Jose, baina isilpean, juduen bel-durrez. Pilatok baimena eman zion. Hark, orduan, joan eta Jesusen gorpua eraman egin zuen.

Etorri zen Nikodemo ere, behin batean gauez Jesus ikustera joan zen hura, hogeita hamarren bat kiloko mirra eta aloezko nahastura zekarrella. Hartu zuten, bada, Jesusen gorpua eta oihal-zerrendaz lotu zuten, tarteant lurrun-gaiak ezarriz, juduek hobiratzeko duten ohituraren arabera. Jesus gurutziltzatu zuten lekutik hurbil, baratze bat zegoen, eta baratzean ordu arte inor ehortzi gabeko hilobi berria. Hilobia hurbil zegoenez, hantxe ipini zuten Jesus, juduen Pazko-eguna hastear baitzegoen.

**L**oiolako San Ignaziok, Gogo Jardunetan [196-107], leihotxo hiru-koitza eskaini digu Gurutziltzatuagana hurbiltzeko.

*Lehenak* azpimarratzen du: a) Maitasunaren askatasuna: nahi due-lako doa Jesus Gurutzera: «Neuk ematen dut bizia, ez dit inork kentzen»; b) Nekaldiaren errealitate sakona maitasunean datza, eta ez su-frimenean. Soilik, maitasunak du salbatzen.

*Bigarrenak* egiaztatzen du, nola den jainkotasuna ezkutatzen: a) «Ezkutatzen da», hain justu, jainkotasun ori ez delako ari, arrazoiz

Aste Santua.

San Ezekiel, *profeta*.

San Makario, *gotzaina*.

espero zitekeen bezala, hau da, «bere arerioak suntsituz», baizik eta berak sufritudz «hain krudelki». Ahalmenaren ordezt ezina ageri da, ahuldadea, Maitasunaren zaurgarritasuna; b) Maitasun den Jainkoaren buru-agerpenaren une pribilegiatua da gurutzeta. Presentziaren gehieneko hori hunkiturik kontenplaztera deituak gara ezkututzen den Jainkotasunaren itxuraz handiena den Absentzia horretan.

*Hirugarrenak* «nigatik» delakoa azpimarratzen du. «Nigatik» horrek, dudarik gabe, «ni naizela-eta», «nire hutsegiteak direla-eta» esan nahi du. «Nigatik» horrek nire mesedetan ere esan nahi du, ordea; horrenbestez, erabateko konfiantza esan nahi du. Jainkotasuna ezkututzen delako hori «Mysterium fidei» (fede-misterio) baldin bada, eta Kristok maitasunaren askatasunez «sufritu duela eta sufritu nahi duelako hori «Mysterium caritatis» (karitate-misterio) baldin bada, Kristo «ni naizela-eta, nire mesedetan» hiltzen delako hori «Mysterium spei» (esperantza-misterio) da.



Pazko Gaubeila.

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*.

## § Irteera liburutik 14,15–15,1a.

Aldi hartan, Jaunak esan zion Moisesi: «Zergatik ari zatzaizkit oihuka? Esan israeldarrei aurrera egiteko. Eta zuk jaso makila eta luzatu eskua itsas gainera: erdi bi egingo da itsasoa eta israeldarrak erditik igaroko dira, oinik busti gabe. Nik setatsu bihurtuko ditut egiptoarrak, atzetik jarrai diezazueten, eta neure aintza agertuko dut faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar. Orduan jakingo dute egiptoarrek Ni naizela Jauna, neure aintza agertuko dudanean faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar».

Israeldarren aurretik zihoan Jainkoaren aingerua atzealdera pasatu zen; laino-adarra ere lekuz aldatu eta atzealdean kokatu zen, israeldarren eta egiptoarren artean jarriz. Lainoa ilunpe bihurtu zen, eta ezin izan ziren gau osoan elkarrengana hurbildu.

Luzatu zuen Moisesek eskua itsaso gainera eta, Jaunak eraginda, ekialdeko haize indartsuak jo zuen gau guztian. Haizeak itsasoa lehortu zuen, eta urak erdibi egin ziren. Itsasoa zabaldutako lehor-bidetik igaro ziren israeldarrak, oinik busti gabe, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa. Egiptoarrak, faraoiaren zaldi, gurdi eta zaldizko guztiak, israeldarrei erasoka itsas erdiraino sartu ziren.

Goizaldean, Jaunak su- eta laino-adarretik egiptoarren gudarosteari begiratu zion eta nahasmendua sortu zuen haren baitan. Gurdien gurpilak trabatu zituen, nekez mugitzen zirela utziz. Orduan, egiptoarrek esan zuten: «Goazen ihesi israeldarrendik, Jauna ari baita haien alde eta gure aurka».

Baina Jaunak esan zion Moisesi: «Luzatu eskua itsas gainera, urak egiptoarren gainera, haien gurdien eta zaldizkoen gainera, bihur daitezten». Luzatu zuen Moisesek eskua itsas gainera; eguna argitzean urak ohiko lekura itzuli ziren, eta egiptoarrek, ihes egiteko ahaleginean, urarekin aurrez aurre topo egin zuten; Jaunak itsas hondora amildu zituen egiptoarrak. Beren lekura itzultzean, urek estali egin zituzten is-

Pazko Gaubeila.

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*.

raelarren atzetik itsasoan sartu ziren gurdiak, zaldizkoak eta faraoiaren gudaroste osoa; ez zen bat bakarra ere bizirik atera. Israeldarrak, berriz, oinik busti gabe igaro ziren itsas erditik, urak ezker-eskuin ziztuztela harresi gisa.

Egun hartan Jaunak salbatu egin zuen Israel egiptoarren eskuetatik, eta hilik ikusi zituen Israelek egiptoarrak itsasbazterrean. Eta Jaunak egiptoarren kontra erabili zuen ahalmen handia ikusirik, herriak begirune izan zion Jaunari, eta Jaunagan eta honen zerbitzari Moisesengan jarri zuen uste ona.

Orduan, Moisesek eta israeldarrek kantu hau abestu zioten Jaunari:

[Sal: Ir 15, 1b-2. 3-4. 5-6. 17-18 (R/. 1b): Jaunari diot kantatzen, garaien handia lortu duelako.]

### § San Paulok Erromatarrei 6,3-11.

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugu bat. Bataioaren bitartez harekin heriotzan hoberatuak izan gara, Aitarean aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun.

Izan ere, harena bezalako heriotzan hari itsatsiak izan bagara, hala-xe izango gara harena bezalako piztueran ere. Badakigu lehengo gure izaera Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatuzko gure izaera hori ezereztua gelditi zedin eta aurrerantzean bekatuaren esklabo izan ez gintzen. Izan ere, norbait, hiltzen denean, bekatutik aske gelditzen da.

Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko; herioak ez du gehiago aginterik harengan; haren hiltzea bekatuentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitzea Jainkoarentzat bizitzea da. Berdin zuek ere; hartu kontuan bekatuentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.

Pazko Gaubeila.

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*.

[Sal 118 [117]: Aleluia, aleluia, aleluia. Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita. Esan bezate israeldarrek: haren maitasuna betikoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28, 1-10.

Larunbata igaro eta asteko lehen-eguna argitzean, Maria Magdalena eta beste Maria hilobia ikustera joan ziren. Bat-batean, lurrikara handia izan zen; Jaunaren aingeru bat zerutik jaitsi zen eta, hurbildurik, harria irauli zuen eta gainean eseri. Tximista zirudien, eta elurra bezain zuria zuen soinekoa. Zaintzaileak beldurrez dar-dar eta hilda bezala gelditu ziren.

Aingerua emakumeei mintzatu zitzaien: «Zuek ez beldur izan. Badakit, Jesus gurutziltzatuaren bila zabilzate. Ez dago hemen; piztu da, berak esan bezala. Zatozte eta ikusi ezarria egon zen lekua. Zoazte bizkor haren ikasleei esatera: “Piztu da hilen artetik eta zuen aurretik joango da Galileara. Han ikusiko duzue”. Hau da esan behar nizuena».

Hilobitik arin-arin alde egin eta, ikaraz baina poz-pozik, lasterka joan ziren ikasleei berri ematera.

Hartan, Jesus atera zitzaien bidera eta agur egin zien. Emakumeek, hurbildurik, oinak besarkatu zizkieten eta gurtu egin zuten. Orduan, Jesusek esan zien: «Ez beldur izan! Zoazte eta esan nire senideei Galileara joateko. Han ikusiko naute».

**P**oztu zaitzete, bizi da Jesus! Bizi dena ez da haren oroitzapen soilak, Jesus bera bizi da. Poztu zaitzete! Zeren eta Paulok aldarrikatu duenez: Jesus piztu ez balitz, munduko zoritxarrekoenak izango ginatke. Baina Jesus piztu da beraren gorputzaren Buru bezala, hasikin bezala. Haren piztuerak berekin du gure piztuera ere, hazi baten gisa. Izan ere, Jesusi, haren mezuari, haren bizierari, haren auziari «bai» ezabaezina ematean, Jainkoak eman digu geuri ere, gizakioi, bere «bai» bat. Gu geu ginen Jesusen arazo eta auzi: guretzat bizi izan zen bera eta guga-

Pazko Gaubeila.

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*.

---

tik hil zen. Jainko leial eta errukitsuak, Jesus dela medio, gizakiaren aldeko izan nahi du betiko, aldia eta espazioa baino harago, eta gizaki osoa, den bezala, gorputz eta arima, baino harago. Horregatik, Elkar-goaren Jainkoa Piztueraren Jainkoa da. Eta, orain, Berpiztuak agertu digu, ezen eskaintako beraren bizitza haren zentzu ezkutua zela zinezkoa, jatorrizkoa. Eta agertu digu, ezen egin dezakegula geure bizi –eta horregatik da gozamen guretzat– albiste alai hori, ezen Erreinuagatik burututako buru-eskaintza guztiek dutela berekin piztueraren argia; agertu digu, ezen norberaren bizitzaren eskaintza guztiak, zatitxo bat izanik ere, direla bizi-sortzaile.

\*\*\*

**TOPO EGITEAREN PAZKOA**

**Emakumeak,  
FEDEAREN aintzindari,  
Jesusen bila dabilta.  
Eguneroko GALILEAN hura  
aurkituz, Elizaren apostoluen  
apostolu izango dira.**

**Ebanjelioa**

Jesusen Piztuera

PAZKOA.

San Zenon, *gotzaina*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 10,34a.37-43.

Egun haietan, honela mintzatu zen Pedro: «Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazaretoko Jesusena, alegia; Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen.

Eta gu gara hark juduen lurraldean eta Jerusalemen egindako guzti-tien testigu. Jesus hau habe batetik zintzilik hil zuten; baina Jainkoak piztu egin zuen hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena eman zion; ez, ordea, herri guztiari, Jainkoak aurrez testigutzat aukeraturakoei baizik: guri, alegia, hura hilen artetik piztu ondoren harekin jan eta edan dugunoi.

Jesusek berak agindu zigun herriari predikatzeke eta aitortzeke, bera dela Jainkoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiek aitormen hau egiten dute hartaz: harengan sinets dezaten guztiek bekaturen barkamena hartuko dutela, haren izenean».

[Sal 118 [117]: Hau da Jaunak egin duen eguna, gu pozteko eta alaitzeko eguna.]

§ San Paulok Kolosarrei 3,1-4.

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean eserita. Irrika itzazue goiko gauzak, eta ez lurrekoak, hilik baitzaudete, eta zuen bizia Kristorekin dago Jainkoagan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, zuek ere aintzatsu agertuko zarete harekin batean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,1-9.

Asteko lehen egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harrira hilobitik kendua ikusi zuen.

Jesusen Piztuera

PAZKOA.

San Zenon, *gotzaina*.

Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten».

Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera abiatu ziren lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baina ez zen sartu.

Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen. Izan ere, ordu arte ez zuten ikasleek ulertu Liburu Santuak dioena, Jesusek hilen artetik piztu behar zuela.

**E**banjelariak ez dakar ezer Pedroren erreakzioaz hilobia hutsik ikustean –ezaguna dugu, ordea, beraren geroagoko aitortpena Berpiztua piztu ondoren, gaurko lehen irakurraian datorrenez–. Eszenak ikasle maitea du erdigune; «ikusi zuen eta sinetsi». Gorpua falta delarik, hil-oihalak, ondo tolestuak, seinale-balio izan ziren berarentzat. Eta maisuari zion maitasunak argia eragin zion bere barnean: Jesusek garaitu du heriotza. Jesusen bular ondoan erdi etzan den ikaslea da, Jesusen bihotzak eta barnekoitasunak ondo-ondoan dutena, atxilotze-gauan Jesus ez ukatzeko adorea izan duena; ikasle hori izan da lehena Jesus bizi delako seinaleak ulertzen. Lehena izango da, halaber, Jesus berpiztuari antzematen Tiberiades aintzira-ertzean: «Jauna da».

Jesusen hilobiko harlauza kendu zuten, ezin izan zuen itxi Jesusen historia betiko. Aurrera doa historia hau, eta gu gara jarraiarazten dutenak. Horretarako, harreman estua gorde beharra dugu Jesusekin –haren bularrean erdi etzanik–, uler dezagula –guk testigantza egin ahal izateko–, ezen bera bizirik dela, bendak eta hil-oihalak, gure mundu honetan hain ugariak, baino harago.

[Apostoluen Eginak liburutik 2,14.22-23: Jesus hori piztu egin du Jainkoak, eta gu guztiok gara horren testigu. Sal 16 [15]: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,8-15.

Aldi hartan, emakumeak hilobitik arin-arin alde egin eta, ikaraz baina poz-pozik, lasterka joan ziren ikasleei berri ematera.

Hartan, Jesus atera zitzaien bidera eta agur egin zien. Emakumeek, hurbildurik, oinak besarkatu zizkioten eta gurtu egin zuten. Orduan, Jesusek esan zien: «Ez beldur izan! Zoazte eta esan nire senideei Galileara joateko. Han ikusiko naute».

Emakumeak bidean zihoazela, guardiako batzuek hirira joan eta gertatutako guztiaren berri eman zieten apaizburuei. Hauek, zaharrekin bildu eta hitzartu ondoren, dirutza handia eman zieten gudariei, hau aginduz: «Esazue, haren ikasleek gauzez etorri eta zuek lo zeundetelarik, gorpua lapurtu dutela. Eta Gobernariaren belarrietara ezer iristen bada, geuk hitz egingo diogu eta arriskutik aterako zaituztegu».

Haiek dirua hartu eta agindu bezala egin zuten. Eta gaurdaino zabaldu da kontu hori juduen artean.

«**Z**oazte Galileara, han nauzue ikusiko». Gauza bera diosku geuri ere. Galilea ez baita Jesusek Jainkoaren Erregetza hots egin zuen eremu hutsa, baizik eta berari nola jarraitu ikasteko ingurumena da: «Jesusen arazoa Galilean hasi zen», esan ohi zuen San Pedrok. Galilean hasi zen arazo hori, Jesusen eguneroko jarduera izan zen, premian zirenekin topo egitera irtetea. Berpiztuak berriro bidali ditu ikasleak Galileara, beren Maisuaren jarduera gogora ekarriz, bera beti begi aurrean dutela, ikas dezaten berek ere irteten Berri Onaren gose-egarri diren gizon-emakumeekin topo egitera: bidera irteten. Horrela ikusi ahalko dugu Jesus, horrela ikusaraziko dugu.

Pazkoaldia. Zortziurrena

San Tiburtzio, *martiria*.

Santa Liduvina, *birjina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 2,14a.36-41: Bihotz-berri zaitezte eta baitaiatu guztiok Jesus Mesiasen izenean. Sal 33 [32]: Jaunaren graziaz betea dago lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,11-18.

Aldi hartan, Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?» Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten».

Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabilta?» Hark, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut». Jesusek esan zion: «Maria!» Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni!» (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz Aitagana igo. Zoaz nire senideengana eta esaiezu: “Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”».

Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jauna ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

**M**aria Magdalena emakume maitemindua zen (maite zuen Jesus bizi zenean, maite zuen Jesus hil zutenean, maite zuen Jesus Aitak berpiztu zuenean); baina malkoek itsutu egiten zizkieten begiak, hainbat bider guri ere itsutzen dizkiguten bezala, eta ondoan zuen Bizidunari ezin antzeman izan zion. Iraganari temati atxikirik, Magdalena zurrundurik zegoen mundu zaharkituan, hila zen munduan, eta ez zen gai begiak irekitzeko Jainkoaren berritasunari. Baina Berpiztua – bere ardiei dei egiten dien Artzain Onak bezala, beraren izena esanez– berarekin



Pazkoaldia. Zortziurrena  
San Tiburtzio, *martiria*.  
Santa Liduvina, *birjina*.

topo egitera irten zen; Berpiztuak irekitzen baitu beti etorkizuna –baita guri ere– eta seinalatzen Galilea –jarraipenaren lekua–, non bera aurretik joaten baita gure bidelagun; ez gaitu uzten iragan zurrungarrian ainguraturik: bide berriak estreinatzen ditu.

*Maria Magdalena  
hilobira joan zen goizean  
goiz.  
Atera ziren Pedro eta  
beste ikaslea,  
eta hilobira abiatu ziren.*



Pazkoaldia. Zortziurrena.

San Kreszente, *martiria*.

Molokaiko Damian dohatsua, *aitorlea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 3,1-10: Dudana emango dizut: Jesu Kristoren izenean, jaiki eta ibil zaitez. Sal 105 [104]: Poztu zaitez-te bihotzez Jaunaren bila zabilzatenok.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,13-35.

Egun hartan bertan, asteko lehen-egunean, Jesusen bi ikasle Emaus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalemdik hamaika kilometrora. Jerusalemen gertaturiko guztiez mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus berbera hurbildu zitzairen eta haiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu.

Jesusek esan zien: «Zertaz diharduzue hizketan bidean elkarrekin?» Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta bietako batek, Kleofas zeritzanak, erantzun zion: «Zu izango zara Jerusalemen egun hauetan gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!» Jesusek galdetu zien: «Zer gertatu da, ba?»

Haiek erantzun zioten: «Nazaretoko Jesusi gertatua; profeta ahaltsua zen egitez eta hitzez Jainkoaren eta herri guztiaren aurrean; baina gure apaizburuek eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutzean josi. Guk uste genuen hark askatuko zuela Israel; baina bada hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela; goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeruak agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutar batzuk ere izan dira hilobian, eta emakumeek esan bezala aurkitu dute; baina bera ez dute ikusi».

Orduan, Jesusek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez al zuen, bada, Mesiasek hori guztia sufritu behar, bere aintzan sartzeko?» Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek hari buruz zioten guztia azaldu zien. Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, Jesusek aurrera jarraitzeko keinua egin zuen. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu».

Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. Haiekin mahaian zegoe-la, Jesusek, ogia harturik, bedeinkapen-otoitza esan, zatitu eta eman zien. Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu zuten; baina Jesus desagertu egin zitzaien.

Haiek elkarrri esan zioten: «Ez al genuen bihotza sutan, bidean hitz egiten zigunean eta Liburu Santuak azaltzen zizkigunean?» Eta berehala altxatu eta Jerusalemara itzuli ziren. Han Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, hau ziotela: «Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio».

Bi ikasleek bidean gertatua kontatu zieten eta nola ezagutu zuten ogia zatitzean.

**K**risto bidera datorkigu gaur ere, bideko bi txoko pribilegiatutan. Bere Hitzean: beti izaten du esatekorik gure bizitzako une bakoitzera-ko, ilun, zurixka edo dirdaitsu delarik ere unea; hain zuzen, Salmoeak adierazten dutenez: «argi-zuzi da nire urratsentzat zure Hitza». Eta Eukaristian: Jaunak –beraren bizitza osoa sinbolizatzen duen– ogia puskatu eta gurekin partekatzean, Emausko bi ikasleei bezala, berari presente nola antzeman erakusten digu, fisikoki ikusteko moduko presentzia ez bada ere, elkarteko ospakizunean, eta geure bizitza banatzen eta gainerakoekin partekatzen. «Geldi zaitetz gurekin!», esan zioten Emauskoek. «Geldi zaitetz nirekin!» diosku Jesusek, bizi denak; izan ere, ni jada zuekin nago neure Hitzean eta neure Ogian.

Pazkoaldia. Zortziurrena

Toribio Santua Liebanakoa.

Santa Bernardita Soubirouskoa (Lourdeskoa 1844-1879),  
*birjina.*

[Apostoluen Eginak liburutik 3,11-26: Biziaren sorburua hil zenuten, baina Jainkoak piztu egin du hilen artetik. **Sal 8:** Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan!]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,35-48.**

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ezagutu zuten Jauna ogia zatitzean.

Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek, beldur-ikaraz beterik, mamua ikusten ari zirela uste zuten. Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Ni naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta Nik bai, ikusten duzuenez». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien.

Haiek, ordea, pozaren pozez oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?» Arrain erre puska bat eskaini zioten.

Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hau xe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen legean, profetetan eta salmoetan nitaz idatzitako guztia bete beharrekoa zela».

Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzaizen. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasek sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete gauza hauen testigu».

**J**esusek badio gehiago ere: «Erreparatu ene eskuei eta oinei, zulaturik. Ez naiz mamu bat. Neu naiz, ni neu». Esan nahi du, Berpiztu hori gurutziltzatu duten hura bera dela. Gure aurrean duen presentzia era berri batekoa da, bai, baina berekin ditu bere zauriak, eta horiei erre-

paratzeko eskatu digu, zauri horiek nondik nora etorri zaizkion gogoan hartu ahal izateko: gugatik eskaini zuen bere bizitza osoa adierazten dute: jendea bedeinkatuz eta bide eginez higatu zituen esku-oinak dira. Piztuerak ez du esan nahi, ezen, Jesus bere aintzan dagoelako, haren lurreko bizitza jada igaro zen «estualditxo» soil bat izan zela, jada eta behin betiko ezabatua dela: hutsetik haste bat dela. Ez; Jesus historiakoak gure jarraipenerako arau eta eredu izaten jarraitzen du.

\*\*\*

### Emausko bi ikasleak eta Jesus berpiztua

Jesusen ikasleatarik bi  
Jerusalemdik kanpora doaz.  
Triste eta lur jota.  
Bihotzean itzali egin zaie  
Jesusengan jarria zuten esperantza,  
gurutzean hiltzen ikusi baitute.  
Halaz guztiz, hartaz gogoeta egiten jarraitzen dute.  
Ezin ahaztu hartaz.  
Amets hutsa izan ote da guztia?  
Bizi izan duten guztiaz hizketan  
eta eztabaidan ari direla,  
Jesus hurbildu zaie eta bidelagun dute.  
Alabaina, ikasleek ez diote antzeman (*J.A. Pagola*).  
Afaltzera gelditu eta ogia zatitzean  
antzeman diote.

Pazkoaldia. Zortziurrena.  
San Fortunato, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 4,1-12: Ez dugu beste inor salba gaitza-keenik. Sal 118 [117]: Etxegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,1-14.

Aldi hartan, berriro agertu zitzaien Jesus ikasleei Tiberiades itsasertzean. Honela gertatu zen agerpena. Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Bikia zeritzan Tomas, Natanael Galileako Kanakoa, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Simon Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Gainerakoek erantzun zioten: «Zurekin goaz gu ere». Atera eta ontzira igo ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu.

Eguna argitu zuenean, ur-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: «Mutilak, ba al duzue jatekorik?» Haiek erantzun: «Ez». Jesusek orduan:

«Bota sarea txaluparen eskuinaldera eta aurkituko duzue». Bota zuten, bada, eta, hainbeste arrain harrapatu zutenez, ez ziren sarea ateratzeko gauza.

Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela aditu zueneko, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta jauzi egin zuen urera. Beste ikasleak txalupan etorri ziren, sarea arrainekin arrastaka zekartela, lehorretik hurbil baitzeuden, ehunen bat metrora.

Lehorrera jaitsi zirenean, su-txingarrak ikusi zituzten eta arrain bat gainean, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetako batzuk». Igo zen Simon Pedro ontzira eta lehorrera atarra zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea urratu. Jesusek esan zien: «Zatozte gosaltzera». Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzera, bai baitzekiten Jauna zela. Orduan, Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman zien, baita arraina ere.

Pazkoaldia. Zortziurrena.  
San Fortunato, *martiria*.

Hirugarren aldia izan zen hau, Jesus, hilen artetik piztu ondoren, ikasleei agertu zitzaiena.

«**B**ota sareak!» Arrantzuan gau osoak alferrik eman izan ditugun arren, eta jabetuak garen arren baliabide eskasak ditugula, sareak berriro botatzera gonbidatzen gaitu Berpiztuak, munduan; jakinik, batzuetan beraren presentzia esperimintatzea kostatzen bazaigu ere, «lanean ari dela bera» han –Loiolako San Ignaziok esango lukeenez–. Beraren hitzaz fidaturik, geure lanean bera lankide dugula jakinik, borrokara joko dugu berriro; baina, jakin behar dugu, batzuetan gauean egiten duela berak arrantzu-lana emaitza handiko; esaterako, gauean enearnazten du hazia ere, nahiz eta temati erein beharra izaten dugun. Baina orduan bakarrik ez dira sareak hutsik itzuliko: bera gure bizitzaren ertzean badago edota gure ontzi berean badago: itxuraz hilak diren aintzira edo lakuetan egingo dugu arrantzuan.

\*\*\*

Bidea da Jesus  
Errealitatearen Azken Misteriora  
gidatzen eta hurbiltzen gaituen bide bezala  
aurkeztu zaigu Jesus.  
Jainkoak ez du inor derrigortzen.  
Inor ez du behartzen proben eta ebidentzien bidez.  
Azken Misterio hori isiltasun da eta errespetuzko erakarpen.  
Jesus da bere Ontasunera ireki gaitzakeen bidea (*J. A. Pagola*)

Pazkoaldia. Zortziurrena.

Santa Atanasia, *aitorlea*.

San Eusebio, *gotzaina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 4,13-21: Guk ezin dugu inola ere entzun eta ikusi duguna isilean gorde. Sal 118 [117]: Eskerrak Zuri, Jaina, erantzun didazulako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,9-15.

Asteko lehen-egunean, goizean goiz, pizturik, Jesus Maria Magdalenari, zazpi deabru atera zizkionari, agertu zitzaion aurrea. Hura Jesusekin bizi izan zirenei berri ematera joan zen, triste eta negarrez baitzeuden. Baina haiek, bizi zela eta berak ikusi zuela entzutean, ez zioten sinetsi. Ondoren, ikasleetako biri agertu zitzairen, beste itxura batean, auzo batera bidean zihoazela.

Hauek ere besteei berri ematera joan ziren; baina hauei ere ez zieten sinetsi.

Azkenik, Hamaikei agertu zitzairen, mahaian zeudela, eta aurpegi-  
ra bota zien beren sinesgabetasuna eta burugogorkeria, bera pizturik ikusi zutenei sinetsi ez zietelako. Eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei».

**B**erpiztuarekin topo egitea ez zen jaio ikasleen gogotik, hura bizi-  
rik ikusi nahi izatetik; ez zen jaio topo egite hura hark Jesus bizi zela  
sinestea erraztuko ziela uste izatetik. Aitzitik, kanpotik etorri zitzairen  
topo egiteko aukera; hartarako, ordea, beren burugogorkeria gain-  
ditu beharra izan zuten; alegia, ez ziren batere jarriak, gizabidez eta  
arrazoibidez ezin gertatu den zerbait sinestera; jarrera hori itzulika-  
tu beharra izan zuten. Berpiztuaren errieta bihozkoikiak eta hurbiltasun  
pertsionalak eragin zieten begiak irekitzera eta beren bihotz gogorra  
biguntzera. Horrela, sinesgabeak misiolari sutsu bilakatu ziren, lehen  
irakurgaiak azpimarratu digunez. Gu geu ere segurtasun zale gara beti,  
begi-bistakoen maitale beti; baina Berpiztuak, gure duda-mudak eta  
guzti, bera bizi dela aldarrikatzen bidali gaitu. Gutaz fidatu da. Horre-  
la, gure ahuldadean haren beraren indarra nabarmenduko da.



Pazkoaldia 2. astea A  
Jainkoaren errukiaren eguna.  
San Leon IX.a, 152. aita santua.

§ Apostoluen Eginak liburutik 2, 42-47.

Senideek zintzo irauten zuten apostoluen irakaspenak entzuten eta elkarte-bizitzan, ogia zatitzen eta otoitzean.

Jende guztia izaturik zegoen apostoluek egiten zuten hainbeste mirari eta ezaugarriekin. Sinestedun guztiak batasunean bizi ziren eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldu eta guztien artean banatzen zuten dirua, bakoitzaren beharrari zegokionez.

Egunero bildu ohi ziren elkarrekin tenpluan, eta etxeetan zatitzen zuten ogia, otorduak pozik eta bihotz xaloz eginez. Jainkoa goresten zuten, eta herri osoak begi onez ikusten zituen. Eta Jaunak egunetik egunera biltzen zituen elkartera salbatzen zirenak.

[Sal 118 [117]: Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.]

§ San Pedroren 1. gutunetik 1, 3-9.

Bedeinkatua Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita! Bere erruki handiaz itxaropen bizira sortu gaitu berriro, Jesu Kristo hilen artetik piztuz. Horrela, hondatu, zikindu edota zimeldu ez daitekeen ondarea itxaro dugu, zuentzat zeruetan gordea dagoena. Jainkoaren indarrak zaintzen zaituzte sinesmenari esker, azken garaian agertuko den salbamena irits dezazuen.

Horregatik, zaudete pozik, nahiz eta oraindik alditxo batez zenbait probaldi sufritu behar izango duzuen. Horrela, zuen sinesmenak bere jatortasuna erakutsiko du, galkorra izan arren suan garbitzen den urrea bezala; eta urrea baino askoz baliotsuagoa den zuen sinesmenak gorespena, aintza eta ohorea iritsiko du, Jesu Kristo agertuko denean.

Maite duzue Jesu Kristo, ikusi ez baduzue ere. Eta ikusi gabe harngan sinesten duzuela, ezin esan ahaleko pozez, poz distiratsuz,

Pazkoaldia 2. astea A  
 Jainkoaren errukiaren eguna.  
 San Leon IX.a, 152. aita santua.

alaitzen zarete eta zeuen sinesmenaren helburua, zeuen salbamena, iristen duzue.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 19-31.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, atek itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, hala bidaltzen zaituztet Nik zuek». Eta haien gainera arnasa botatz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez baditut, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez baditut, ez dut sinetsiko».

Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, atek itxirik zeudela eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik».

Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

Beste ezaugarri asko ere egin zuen Jesusek ikasleen aurrean, liburu honetan idatzirik ez daudenak; hauek idatzi dira sinets dezazuen Mesias eta Jainkoaren Semea dela Jesus eta, sinetsiz, haren izenean bizia izan dezazuen.

Pazkoaldia 2. astea A  
 Jainkoaren errukiaren eguna.  
 San Leon IX.a, 152. aita santua.

**J**esusek ikasleekin bigarrenegun egin duen topaketa «astearen lehen egunean» izan da –«igandeari» egiten zaion aipua da: liturgia-batzarrak «Jaunaren eguna» ospatzeari—. Ebanjelariak, lehen une batean, Jesusen falta duen elkarteak deskribatu digu: gaua bizi du elkarteak (Argia falta zaio, absente baitago Jesus); atearik itxirik ditu (elkartera atalagaz joa dago, bere baitan itxia); beldurrak estutu egin du eta zurrundu elkartera.

Baina, aurkeztu da Jesus eta «haien erdian» jarri. Erdigune bihurtu da, elkartearen erreferentzia-gune. Elkarteak, erdigune horri atxiki zaionean, berreskuratu du bakea, gainditu du beldurra, bete da pozez, arnastu ditu guztiak Jesusen ufadak (hatsa ufatu), ireki ditu atearik eta irten da mundura; izan ere, bidaliak direla sentitu dute, Jesusen misioa bera luzatzera.

Saiatu beharra dugu gure bizitzako eta elkarteetako erdigune Jesus izan dadin: Jesus bera, haren irizpideak, haren baloreak, haren lehen-tasunak. Orduan, bizirik sentituko da elkartera eta jakingo du munduari bizia nola eman; horrela joango da lehen elkarte haren antza hartzen, zinetan, bere baitan Berpiztuaren Espiritua zuelako, solidaritatea bizi baitzuten, afektiboa (sentiera bera zuten) eta izatezkoa (ondasunak partekatzen zituzten).

[Apostoluen Eginak liburutik 4, 23-31. Otoitza bukatzean, Espiritu Santuaz beterik gelditu ziren guztiak, eta ausardiaz hots egiten zuten Jainkoaren hitza. **Sal 2:** Zorionekoak, Jauna, zugan babesten direnak!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 1-8.

Bazen fariseuen taldean Nikodemo izeneko gizon bat, juduen buruzagietakoa. Honek gauetz Jesusengana etorri eta esan zion: «Maisu, badakigu Jainkoak guri irakasteko bidali zaituela; inork ez baitezake egin Zuk egiten duzun ezaugarririk, Jainkoa berekin ez badu».

Jesusek erantzun zion: «Egi-egiaz diotsut: Ezin du inork Jainkoaren erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada».

Nikodemok galdetu zion: «Nola jaio daiteke norbait, zaharra izanik? Sar ote daiteke amaren sabelean eta berriz jaio?»

Jesusek erantzun zion: «Egi-egiaz diotsut: Ezin da inor Jainkoaren erreinuan sartu, urretik eta Espiritutik jaiotzen ez bada. Gizakitik berez jaioa gizaki da, Espiritutik jaioa espiritu. Ez harritu berriro jaio behar duzuela esan dizudalako. Haizeak edonondik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaio denarekin».

**N**ikodemo «gauetz» ibili zen Jesusen bila. Gu ere, bilatzaileok, galdezka ibili ohi gara «geure gaualdietan», eszeptiko, posible ote den birjaiotzea. Jesusek baietz esan digu. Hartarako, gure barnean sartzan utzi behar zaio Espirituari eta gida gaitzan laga: Espiritua berritzaile da beti. Esan nahi du, ezin aurkeztu dizkiogula planak jada eginik, ezin ibili garelara berari aurrea hartu nahiz, baizik eta bere askatasun misteriotsuaz gida gaitzan utzi behar diogula («nahi duen lekuan ufatzen du»). Agian, arazoa ez da izango bizitzaz aldatzea, baizik eta beste era batean bizitzea. Horretarako, Jesusen baloreak txertatuko ditu Espirituak gugan, Jesusen biziera eratzen zuten balore haiek. «Birjaiotze» honek ausardia eskatzen du; baina, lehen irakurgaiak kontatu digunez, Espirituak barnetik betetzen gaitu, baina kanporantz eragiten, eta adorea emanez jokatzen du.

Pazkoaldiko 2. astea.

Canterbury-ko San Antselmo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 4,32-37: Sinestedun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz. Sal 93 [92]: Errege da Jauna, ospez jantzia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,5a.7b-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Berriro jaio behar duzue. Haizeak edonondik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaio denarekin».

Nikodemok galdetu zion: «Nola gerta daiteke hori?»

Jesusek erantzun: «Zu maisu zara Israelen eta ez dakizu hori? Egi-egiaz diotsut: Guk dakiguna esaten dugu eta ikusi duguna aitortzen; baina zuek ez duzue gure aitormena onartzen. Nik lurreko gauzak esatean sinesten ez baduzue, nola sinetsiko didazue zerukoak esatean? Ez da inor zerura igo zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Eta Moisesek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten».

«**I**ritsi da ni aintzatua izateko ordua» –esan zuen Jesusek agur-afarian–. Gurutzeratzean lortu du Jesusek bere aintza: «Aintzatua –jaso-izango naizenean, den-dena erakarriko dut neureganantz». Goratua edo aintzatua izatea ez da gurutzeratzearen eta heriotzaren ondoren datorkion zerbit; baizik eta gurutzeran berean lortu du Jesusek bere aintza, bere aintzaren agerpena. Joan ebanjelariak Semearen buru-eskaintzaren une berean ikusi du Jainkoak gurekin duen solidaritate handienaren egintza, agape (maitasun) peto-petoaren egintza. Buru-eskaintzaren egintza hori bere-berez da agerpen: Jainkoa maitasun da. Buru-eskaintza horretan ageri da azkeneraino maite gintuela: «Jainkoak hartaraino maite zuen mundua, non bere Semearen eskaintza egin baitzuen». Eta eskaintza egin, guk betiko bizia izan dezagun egin du.

[Apostoluen Eginak liburutik 5,17-26: Kartzelan sartu zenituzten gizonak tenpluan daude eta herriari irakasten ari dira. Sal 34 [33]: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,16-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan.

Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali, mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik. Harengan sinesten duena ez dago kondenatua; sinesten ez duena, berriz, kondenatua dago jadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Hauxe da kondenazioaren arrazoa: argia mundura etorria dela, eta gizakiek ilunpea nahiago izan dutela argia baino, haien egiteak gaiztoak zirelako. Izan ere, gaizkia egiten duenak gorroto dio argiari, eta ez dator argira, haren egiteak agerian geldi ez daitezen. Egiaren arabera ari dena, berriz, argira dator, haren egiteak Jainkoak nahi bezala eginak direla ager dadin».

**J**ainkoak bere Semea bidali du mundura, ez juzkatzeko eta gaitzes-teko, baizik eta salbatzeko. Jainkoaren eskaintza-eskua zabalik dago. Horregatik, argi, bizi eta esperantza bezala aurkeztu da Kristo. Baina gizakiak uko egin diezaioke, nahiago izan dezake ilunpea; izan ere, ezkutatatu beharreko anai-arreben aurkako gaiztakeria handia izaten du bere baitan: horrela norberak baztertzen du bere burua salbazio-eskaintzatik. Auzia gure bizitza osoan barna ari da luzatzen eta garatzen. Geu ari gara geure burua juzkatzen, egiten ditugun aukeren eta hartzen ditugun erabakien bidez, askotan Ebanjelioko irizpideen kontrakoak direnen bidez: 1) gure jarrera, berariaz edo zeharka, Kristoren beraren eta Kristoren baloreen aurrean; 2) anai-arreben eta, bereziki, pobreen, premiadunen... aurrean, zeinekin bat egin baitzuen Jesusek («neuri egin zenidaten»). Geure erabakien bidez, geure epaia ari gara lantzen gu geu.

Pazkoaldiko 2. astea.  
San Jorje, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 5,27-33: Geu gara gauza hauen testigu, baita Espiritu Santua ere. Sal 34 [33]: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,31-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Goitik datorrena denen gainetik dago. Lurretik sortua lurrekoa da eta lurrekoaz mintzo da. Zerutik datorrena denen gainetik dago; ikusi eta entzun duena airtortzen du; baina haren aitormena ez du inork onartzen. Haren aitormena onartzen duenak Jainkoak egia dioela baieztatzen du. Izan ere, Jainkoak bidali zuenak Jainkoaren hitzak esaten ditu, neurririk gabe ematen baitio bere Espiritua.

Aitak Semea maite du, eta haren esku jarri du dena. Semeagan sinesten duenak betiko bizia du; baina Semeagan sinesten ez duenak ez du bizia ikusiko, baizik eta Jainkoaren haserrea du gainean».

«**Z**erutik etorririk», ikusi eta entzun duenaz mintzo zaiguna da Jesus. Aitak, maite duelako, dena bere esku jarri dio Jesusi: baita beragan sinesten dutenei betiko bizia emateko gaitasuna ere. Baina, auzia ez da gure bizitza bukatzean gertatuko den zerbait; era berean, betiko bizi hori ere ez da azkenean emango digun zerbait. Orduan iritsiko da, bai, bere betera betiko bizi hori, baina geure orainaldian berean ere dastatzen ahal dugu berarekin komunio edo elkartasunean bizitzea den hori. Horretarako bere Espiritua eman digu, eskuzabal, mugarik gabe. Espiritu horrek emango digu ahalbidea jada testigu izateko, geure mundu honetan, «ikusi eta entzun dugunaz»: alegia, geroaren esperantza orainaldian bizi ahal izateko errealitate dela adieraz dezakegu.

Pazkoaldiko 2. astea.

Sigmaringo San Fidel, *apaiza eta martiria*.

---

[Apostoluen Eginak liburutik 5, 34-42. Apostoluak pozez atera ziren Batzarretik, Jesusen izenagatik irainak jasateko Jainkoak duin aurkitu zituelako. Sal 27 [26]: Gauza bat eskatzen diot Jaunari: bizi nadila Jaunaren etxean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 1-15.

Aldi hartan, Galilea edo Tiberiadesko itsasoaz bestaldera joan zen Jesus. Jendetza handia zihoakion ondoren, ikusten baitzuten nolako ezaugarriak egiten zituen gaixoengan.

Jesus, orduan, mendira igo eta han eseri zen ikasleekin. Hurbil zen Pazkoa, juduen jai nagusia. Jesusek, jende asko zetorkiola ikusirik, esan zion Feliperi: «Non erosiko dugu ogia hauei jaten emateko?» (Zirikatzeko esan zion hori, ongi baitzekien zer egin behar zuen). Felipek erantzun zion: «Berrehun denarioren ogia ez litzateke nahikoa izango, bakoitzak puska bat izateko».

Ikasleetako batek, Simon Pedroren anaia Andresek, esan zion: «Bada hemen bost garagar-ogi eta bi arrain dituen mutiko bat; baina zer da hori horrenbesterentzat?» Jesusek jendea eserarazteko agindu zien ikasleei. Belar ederra zen leku hartan eta denak eseri ziren. Bosten bat mila gizonezko ziren.

Jesusek ogiak hartu eta, esker onezko otoitza esan ondoren, eseritakoen artean banatu zituen, eta orobat arrainak ere, nahi adina. Ase zirenean, Jesusek esan zien ikasleei: «Bil itzazue hondarrak, ezer gal ez dadin». Bildu zituzten, bada, eta hamabi saski bete zituzten bost garagar-ogietatik jan zutenek utzitako hondarrez.

Jendeak, orduan, Jesusek egindako ezaugarria ikusirik, hau zioen: «Hauxe da, benetan, mundura etortzekoa zen profeta». Jesusek, ordea, errege egiteko, indarrez eraman nahi zutela oharturik, mendira alde egin zuen berriro, berak bakarrik.



Pazkoaldiko 2. astea.

Sigmaringengo San Fidel, *apaiza eta martiria*.

**O**giak eta arrainak ugaltzekoan, Azken Afarikoan Jesusek egin zituenak gogorazten dizkiguten keinuak deskribatu dira. Horregatik, lehen kristau-elkarteek mirarizko ugaltze hori Eukaristiarekin erlazioan zuten. Eta katakonbetako artean, II.an mendean jada, ogiak ugaltze horrek eukaristia-afaria sinbolizatzen zuen. Jesus Bizi Ogi bezala sinesteak eta berari jarraitzeak ogiak ugaltzera konprometitzen gaituzte, beraz. Anai-arreba arteko eginkizun solidarioa da Eukaristia: borroka egitea munduan goserik jasan ez dadin, hartarako nire ogia eta nire arraina besteren esku jartzea... ditudan baliabideak soilenak direla iruditzen arren; Jesusek ugalduko du gure ahalegina, munduan guxtienez hamabi saskitara sobera atera arte.

\*\*\*

### Diognetori gutuna (zatitxoa)

Hitz gutxitan esateko: arima gorputzean zer, horixe dira kristauak munduan. Arima, izan ere, gorputzeko atal guztietan dago zabaldurik; horrela, kristauak munduko hiri guztietan daude barreiatuak. Arima gorputzean bizi da, baina jatorria ez du gorputzean; kristauak munduan bizi dira, baina ez dira mundukoak. Arima ikusezina gorputz ikusgarriaren kartzelan dago hesitua; kristauak munduan bizi dira ikusgarri, baina ikusezina dute beren erlijioa. Gorputzak nazka dio arimari eta borroka egiten dio, honengandik irainik hartu ez badu ere, soilik plazerez gozatzea eragozten diolako; munduak ere nazka die kristauei, hauengandik irainik hartu ez badu ere, soilik beraren plazeren aurka daudelako. (*Oharra: Garaiko ikuspegi dualista gorabehera*).

Pazkoaldiko 2. astea.  
SAN MARKOS, EBANJELARIA.

§ San Pedroren 1. gutunetik 5, 5b-14.

Senide maiteok: Izan zaitezte denok apalak zeuen harremanetan, Jainkoak harroei aurre egiten baitie; apalei, berriz, onginahia azaltzen. Beheratu zaitezte, beraz, eta jarri Jainko ahaltsuaren eskumenean, bere garaian gora zaitzaten. Utzi Jainkoaren esku zeuen kezka guztiak, bera baita zuetaz arduratzen.

Izan zaitezte neurritsu eta egon erne; zuen etsaia, deabrua, zuen inguruan dabil, goseak dagoen lehoia bezala, nor irentsiko. Egiozue aurre, sinemenean sendo, jakinik mundu zabalean diren beste senideak ere zuenak bezalako sufrimenduak jasaten ari direla. Eta pixka batean sufritu ondoren, dohain guztien emaile den Jainkoak, Kristoren bidez betiko bere aintzara deitu zaituztenak, bizkortuko zaituzte, sendo egingo eta finko ezarriko. Berari dagokio indarra menderen mendetan. Amen.

Anaia leialtzat daukadan Silvanoren eskuz idatzi dizuet gutun labur hau, zuei adore eman eta Jainkoaren benetako dohaina zein den adierazteko asmoz. Iraun sendo dohain horretan.

Babilonia honetan bizi den eta zuek bezalaxe Jainkoak aukeratua den eliz elkarte honek agurtzen zaituzte, baita nire seme Markosek ere. Agurtu elkar, senideen maitasun-laztanaz. Bakea Kristorenak zaretan guztioi.

[Sal 89 [88]: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan

hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete, eta sendatu egingo dira».

Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jasoa izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten ziztuzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

**J**esus berpiztuaren agerpen guztietan ageri da misio-mandaturen bat. Ez da arrazoi bakarra poz oro komunikagarria delakoa. Erroa edo sustraia piztuera eginkizun izatean datza. Jesus piztu zen, bai, baina Kristo osoa egiteko dago oraino. Jesus bera, jada, egun batean gizakia eta mundua izango direna da. Izan ere, Jesusen piztuera gertakizun kosmikoa izan zen. Piztuera harekin, Historian berritasun osoa murgildu zen, gizakiari, historiari eta kreaio osoari dagokien berritasun osoa. Gizaki berria –Kristogan estreinatua–, zeru berria eta lur berria eraikiz joateko ahalbide hau Berpiztuak emana dugu, grazia gisa; baina eginkizun horretan partaide da bera gurekin.

Pazkoaldiko 3. astea.

San Isidoro, gotzaina eta eliz irakaslea.

§ Apostoluen Eginak liburutik 2, 14. 22-33.

Mendekoste-egunean, Pedrok, Hamaika apostoluen artean zutik, ahotsa altxatuz, honela hitz egin zuen: «Juduok eta Jerusalem bizi zareten guztiok, entzun arretaz nire hitzak. Denok dakizuenez, zuen aurrean sinesgarri egin zuen Jainkoak Nazaretoko Jesus, haren bidez egintza ahaltsuak, mirariak eta ezaugarriak eginez. Jainkoak zuen eskura eman zuen, bere asmoaren eta aurrez hartutako erabakiaren arabera, eta zuek hil egin zenuten, sinesgabeen eskuz gurutzean josiz; baina Jainkoak piztu egin zuen, heriotzaren lokarrietatik askatuz, Herioak ezin baitzuen hura bere menpean eduki.

Izan ere, hau dio Davidek hartaz:

“Begi aurrean ikusten nuen beti Jauna; eskuinean dudala, ez naiteke dardara. Horregatik alai dut bihotza, pozik mihia, eta nire gorputzak ere itxaropenean du atsedean. Ez baituzu nire bizia Herio-leizera egotziko, ezta ere zeure fededuna hilobian usteltzen utziko. Bizirako bidea erakutsiko didazu, alaitasunez beteko nauzu zeure aurrean”.

Senideok, uztazue argi eta garbi esaten gure aita David hil egin zela eta hobiratu egin zutela. Haren hilobia geure artean dugu gaurdaino. Baina profeta zen eta bazekien Jainkoak zin eginez agindu ziola, haren odoleko bat eseriko zela beraren tronuan. Beraz, aurrez ikusi zuen Mesias piztuko zela, eta honetaz mintzo zen hau esatean: haren bizia ez zuela Herio-leizera egotziko eta ez zela haren gorputza hilobian ustelduko. Jesus hori piztu egin du Jainkoak, eta gu guztiok gara horren testigu. Jainkoak bere eskuinaldera altxatu du elarik, agindutako Espiritu Santua hartu du Aitarengandik eta guri isuri; hauxe da zuek ikusten eta entzuten ari zaretena».

Pazkoaldiko 3. astea.

San Isidoro, gotzaina eta eliz irakaslea.

[Sal 16 [15]: Bizirako bidea erakutsiko didazu, Jauna.]

§ San Pedroren 1. gutunetik 1, 17-21.

Senide maiteok: Nor bere egintzen arabera, bereizkeriarik gabe, epaitzen duenari «Aita» deitzen diozuenez gero, joka ezazue begirunez munduko erbestealdian bizi zaretan bitartean. Badakizue zeuen gurasoengandik hartutako biziera zentzugabetik askatuak izan zaretela, ez gauza ustelkorrez, urrez nahiz zilarrez, baizik eta bildots garbi eta akats gabe bezala, zuen alde bere burua eskaini duen Kristoren odol baliotsuaz. Mundua mundu izan aurretik zegoen Kristo Jainkoaren asmoan eta azken garai hauetan agertu da zuen onerako. Eta zuek haren bidez sinesten duzue hilen artetik piztu eta aintzaz bete zuen Jainkoagan; horrela, zeuen sinesmena eta itxaropena Jainkoagan jarria duzue.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 13-35.

Egun hartan bertan, asteko lehen-egunean, Jesusen bi ikasle Emaus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalemdik hamaika kilometrorra. Jerusalemen gertaturiko guztiez mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus berbera hurbildu zitzaian eta haiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu.

Jesusek esan zien: «Zertaz diharduzue hizketan bidean elkarrekin?» Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta bietako batek, Kleofas zeritzanak, erantzun zion: «Zu izango zara Jerusalemen egun hauetan gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!» Jesusek galdetu zien: «Zer gertatu da, ba?»

Haiek erantzun zioten: «Nazaretoko Jesusi gertatua; profeta ahaltsua zen egitez eta hitzez Jainkoaren eta herri guztiaren aurrean; baina gure apaizburuek eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutzean josi. Guk uste genuen hark askatuko zuela Israel; baina bada

Pazkoaldiko 3. astea.

San Isidoro, gotzaina eta eliz irakaslea.

hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela; goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeruak agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutar batzuk ere izan dira hilobian, eta emakumeek esan bezala aurkitu dute; baina bera ez dute ikusi».

Orduan, Jesusek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez al zuen, bada, Mesiasek hori guztia sufritu behar, bere aintzan sartzeko?» Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek hari buruz zioten guztia azaldu zien. Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, Jesusek aurrera jarraitzeko keinua egin zuen. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitetz gurekin, berandu baita eta iluna ganean dugu».

Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko.

Haiekin mahaian zegoela, Jesusek, ogia harturik, bedeinkapen-otoitza esan, zatitu eta eman zien. Orduan begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu zuten; baina Jesus desagertu egin zitzairen.

Haiek elkarri esan zioten: «Ez al genuen bihotza sutan, bidean hitz egiten zigunean eta Liburu Santuak azaltzen zizkigunean?» Eta behala altxatu eta Jerusalemera itzuli ziren. Han Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, hau ziotela: «Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio».

Bi ikasleek bidean gertatua kontatu zieten eta nola ezagutu zuten ogia zatitzean.

**K**ontaera honetan «lehen» bat eta «gero» bat ageri dira. «Lehen» horretan ikasle batzuk «begi labur» ageri dira: eskura dituzte datu guztiak, baina ez dira gai haiek irakurtzeko; «triste» dira: gurutzea adiskide baten eta lider baten azkena izan da; «etsirik» ageri dira: Mesias garaile (eta nazionalista) bat espero zuten –jada ez–; «iheskor» ageri dira: elkartetik hanka egin dute. Baina bat-batean topo egin dute Ber-

Pazkoaldiko 3. astea.

San Isidoro, gotzaina eta eliz irakaslea.

piztuarekin, antzeman diote (eta aitortu ere aitortu dute); eta hor hasi da «geroa»: begiak ireki zaizkie; bihotza sutan dute; esperantza birjaio da; iheskor zirenak elkartera doaz denek batean testigantza egiteko Jesus bizi dela.

Geure burua dakusagu bidaiari horiengan: itsu, triste eta etsirik bizi gara. Baina egoera hori izan daiteke «lehen» soil bat. Izan ere, Berpiztua bidera irten zaigu eta, antzematen badiogu, «gero» bat izango dugu Emauskoek bezala. Zeren eta Berpiztuarekin topo egite horrek, aurki gaitzan uzten badiogu, eraldatu egingo gaitu eta kanbiatu: ulertaraziko digu zer zentzu duen sufrikario den Mesias batek Jainkoaren egitasmoan: «gari-aleak, hiltzen ez bada, ez dakar fruiturik». Bihotza sutan jarri digu, esan digunean, gurutzea duela muturrerainoko bere maitasuna agertzeko lekua. Esperantza itzuli digu. Izan ere, Paulok esan ohi zuenez, maitasunean oinarritzen den esperantzak ez du sekula huts egiten. Eta elkartean birtxertatu gaitu guztiok batean testigantza egiteko.

Pazkoaldiko 3. astea.

San Pedro Kanisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita.*

Maria Antonia Bandres, dohatsua (Tolosan 1896-1919),  
*birjina.* San Pedro Chanel, *apaiza, marista eta martiria.*

[Apostoluen Eginak liburutik 6,9-15: Ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari. Sal 119 [118]: Zorioneakoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,22-29.

Bost mila gizonezkoei, ase ziren arte, jaten eman ondoren, ur gainean oinez ikusi zuten Jesus ikasleek. Biharamunean, itsasoaz bestaldean zegoen jendea ohartu zen han txalupa bakarra izan zela, eta Jesus ez zela ikasleekin ontziratu, baizik eta hauek bakarrik joan zirela. Bitartean, beste zenbait txalupa etorri zen Tiberiadestik, Jaunak esker onezko otoi-tza egin ondoren ogia jan zuten ingurura.

Jesus eta ikasleak han ez zeudela ikustean, jendea txalupetara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoaz bestaldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?» Jesussek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Nire bila zabilzate, ez ezaugarriak ikusi dituzuelako, ogia asetzeraino jan duzuelako baizik. Ahalegindu zaitezte, ez galtzen den janariagatik, irauten duenagatik baizik, betiko bizia ematen duenagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue, bera egin baitu Jainko Aitak bere aginpi-dearen ordezkari».

Orduan, galdetu zioten: «Zer egin behar dugu, Jainkoak nahi duena egiteko?» Jesussek erantzun zien: «Hau da Jainkoak nahi duena: berak bidali duenagan zuek sinestea».

**J**esusek aurpegiratu die ezen ez direla gai izan ogiak ugaltzearen «seinalea» interpretatzeko. Mirari hark beste norabait jotzen zuen: beste elikadura baterantz eraman nahi zituen Jesussek, bukaerarik gabeko bizia ematen duen egiazko ogirantz, eta bera zen ogi hori. Baina jan duten ogiarekin konformatuko dira, eta Jesus errege egin nahi dute, beraien arazo ekonomikoak konpondu ditzan eta beraien amets nazionalistak gauzatu. Jesussek aurpegiratu die beren bilaketa horretan be-



San Pedro Kanisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita*.  
 Maria Antonia Bandres, dohatsua (Tolosan 1896-1919),  
*birjina*. San Pedro Chanel, *apaiza, marista eta martiria*.

---

**ren probetxua bilatzen dutela soil-soilik, eta ez Jesus bera, baizik beren burua. Zenbat bider esaten dugu guk geuk Jesusen bila gabiltzala, egiaz eta soilik geure buruaren probetxua bilatzen dugularik? Horixe egiten dugu, Jainkoa geure eskura jarri nahi izaten dugunean, geure burua Jainkoaren eskuetan ezarri ordez.**

\*\*\*

M<sup>a</sup> Antonia Bandres Tolosan jaio zen 1898an. Ama alabagan balore handiak txertatzen saiatu zen; besteak beste, Andre Mariaganako debozioa.

Oso garazi hasi zen behartsuekiko ardurara bizitzen; Kristoren aurpegia ikusten zuen behartsuengan. Berezko izaera zakarra leunduz joan zen amaren eta etxeko zerbitzari finaren laguntzarekin

Ikasketak, Tolosako San Jose ikastetxean egin zituen, santu izango zen eta «Jesusen Alabak» kongregazioa fundatu zuen Andoaingo Kandidaren ikastetxean. Bandres ezaguturik, hau iragarri zion Kandidak: «Jesusen Alabetakoa izango zara zu». Nobiziadua egitekoan aitortu zuen: «Jainkoagatik bakarrik utzi dut dena», familiarekiko atxikidura handia baitzuen. 1918an egin zuen profesioa Salamancan. Eta, kasik harekin batean, osasuna galtzen hasi zen. Bere gaixotasunean, harriturik utzi zuen sendagilea, gaixotasuna bizitzeko eragatik. Eskainiak zituen Antoniak bere sufrimenduak bere osaba ateoaren alde, eta lortu ere lortu zuen haren konbertsioa. Jaunak eta Andre Mariak lagundurik, honetaraino iritsi zen: «Hau al da hiltzea? Bai gozoa dela bizitza erlijiosoan hiltzea! Sumatzen dut, Andre Maria ondoan dudala, Jesussek maite nauela eta nik maite dut...». 1919an hil zen, 21 urteko. Joan Paulo II.ak dohatsu deklaratu zuen beraren kongregazioaren Jesusen Kandida Maria fundatzailearekin batean 1996-05-12an.

Pazkoaldiko 3. astea.

San Prudentzio, *gotzaina*

(*Gasteizko elizbarrutiko eta Arabako Zaindaria*).

[Apostoluen Eginak liburutik 7,51–8.1a: Jesus Jauna, hartzazu nire bizia. Sal 31[30]: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure bizia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,30-35.

Aldi hartan, jendeak esan zion Jesusi: «Zein ezaugarri egiten duzu, guk haiek ikusi eta zugan sinesteko? Zer egiten duzu? Gure arbasoek mana jan zuten basamortuan, Liburu Santuak dioen bezala: “Zeruko ogia eman zien jaten”».

Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia; nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia; zeren Jainkoaren ogia zerutik jaitsi eta munduari bizia ematen diona baita».

Orduan, haiek Jesusi: «Jauna, emaguzu beti ogi horretatik». Jesusek erantzun zien: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigana datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango».

**J**oanen ebanjelioan Jesusek bere burua zehazteko eman dituenetako lehen baieztapena da. Zazpi dira –orobatasuna adierazten duen zenbaki biblikoa da–: «bizi-ogia»; «argia»; «atea»; «artzain ona»; «piztuetra»; «bidea»; «egiazko mahatsondoa». Agerpen-formulak dira; Jesusek esan nahi digu, bera fedez eta konfiantzaz onartzen badugu, berak ase ditzakeela gure premiak eta esperantzak, gure bizitzan modu askotan azaldu ohi direnak. Batzuetan, geure gose-gabeziarako janaria behar izaten dugu edota ate bat geure itxitasun egoistatik irteteko; beste batzuetan, argi bat geure itsutasunarentzat edota artzain bat lepoan eramán gaitzan... Jesusen azalpen hauetatik zein beharko nuke nik orain?

Pazkoaldiko 3. astea.

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*  
(Europako Zaindaria).

## § San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 1,5–2,2.

Senide maiteok: Hona hemen Jesu Kristogandik entzuna dugun mezua eta zuei iragartzen dizueguna: Jainkoa argi da eta harengan ez da inolako ilunik. Harekin elkartasunean bizi garela esan eta ilunpetan baldin bagabiltza, gezurra diogu eta ez gara egiaren arabera ari. Baina argitan bagabiltza, elkartasuna dugu batak bestearekin eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu.

Bekaturik ez dugula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago gure baitan. Geure bekatuak aitortzen badi-tugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak barkatuko dizkigu beka-tuak, eta gaiztakeria guztitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurti egiten dugu bera, eta haren mezua ez dago gudan.

Ene seme-alabok, bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitaren aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekaturen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen barkamenerako ere.

[Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lu-rren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xu-meari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik.

Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zai-tuztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-a-pala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Pazkoaldiko 3. astea.

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*  
(Europako Zaindaria).

**J**esusek bere «aberri txikian» –Galilean– gauzatu duen predikuan ez du lortu espero zuen arrakastarik. Baina «itxurazko» porrot horrek bide eman dio zeruko bere Aita ulertzeko, harekiko ezagutza bihozkoia sakontzeko: txikien Jainkoa da Aita. Jainkoa gai da, bere askatasun goren-gorenean, bere aintza nahi duen lekuan kokatu eta azaltzeko. Jesussek aitortu dio askatasun hori Aitari eta goretsi du horregatik. Jainkoak bere aintza bihozberatasun askean jarri nahi izan du, ez-perfektuagana, ahulagana eta ezdeusagana beheratzean. Horixe «iruditu zaio on». Horrek eragin zion San Agustini esatera: «Jainkoaren goratasuna ulertu nahi baduzu, ulertu lehenik beraren beheratasuna». Ikas dezagun Jesusen Jainko horrengandik, beti «gora» nola egingo bizi garenok.

\*\*\*

### Europaren Zaindariak

Hainbat santu deklaratu ditu gure Eliza maiteak Europaren Zaindari. Lagunduko ahal diote gure Europa honi garai bihurri hauetan bide egoki bat bilatu, aurkitu eta jarraitzen.

Hona Zaindarien zerrendatxoak:

Sienako Katalina, apirilaren 29an.

San Zirilo eta San Metodio, otsailaren 14an.

San Benito, uztailaren 11n.

Edith Stein, Gurutzeko Teresa Benedikta santua, abuztuaren 9an.

Suediako Brigida santua, uztailaren 23an.

Pazkoaldiko 3. astea.

San Pio V.a, 225. *aita santua*.  
Santa Sofia, *birjina eta martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 8,26-40: Hona ura; zerk eragozten du ni bataiatzea? Sal [66] 65: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,44-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ezin da inor nigana etorri, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu. Eta Nik piztuko dut azken egunean. Hau dio profeten liburuak: “Jainkoaren ikasle izango dira denak”. Aitari entzun eta hark irakatsia bereganatzen duena nigana dator. Horrek ez du esan nahi inork Aita ikusi duenik; Jainkoagandik etorri denak bakarrik ikusi du Aita.

Egi-egiaz diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du. Ni naiz bizia ematen duen ogia. Zuen gurasoek mana jan zuten basamortuan eta, halere, hil egin ziren. Bestelakoa da zerutik jaisten den ogia; honetatik jaten duena ez da hilko. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudana ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana».

**J**esusengan sinestea edo Jesusi «aditza», Aitak ematen digun grazia dugu eta, aldi berean, giza eginkizun bat: izan ere, astiro jardun behar izaten da eta argira hurbildu eta ez hari ihes egin (Jn 3,19-2). Baina Jainkoak ez du jokatzeko inor bortxatuz eta behartuz, baizik eta «erakarritz», «diluratuz» –«diluratu nauzu eta lilura nazazun utzi dizut» (Jeremias 20,7)–. Izatez, gizakia ez da inoiz libreago, maitasun-eskaintza bati maitasunez erantzuten dionean baino. Eta maite gaituen Aitak, Semeagana gidatu nahi gaitu, janari bat eman diezagun, basamortuko mana baino hobea, haren indarrarekin «bideari ekin ahal diezaiogun» (1 Erregeak 19,4-8) erabat eta behin betiko Aitaren Etxera irits gaitezen.




## MAIATZA / ORRILA

### AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:

Diakonoen alde.

**Egin dezagun otoitz:** Hitzaren eta behartsuen zerbitzuan leial, Eliza osoarentzat seinale eta ezaugarri argi izan daitezten.



Pazkoaldiko 3. astea.

SAN JOSE LANGILEA (Meza berezia, ikus beherago)

[Apostoluen Eginak liburutik 9,1-20: Neure zerbitzurako aukeratu dut gizon hori, jentilei nire izena adieraz diezaien. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,52-59.

Aldi hartan, juduak eztabaidan ari ziren beren artean: «Nola eman diezaguke honek bere haragia jaten?»

Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta Nik piztuko dut azken egunean. Zeren nire haragia egiazko janari baita eta nire odola egiazko edari. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta Ni harengan.

Bizia den Aitak bidali nau eta Ni Aitari esker bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena niri esker biziko da. Hau da zerutik jaitsi den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalakoa, haiek hil egin baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da».

Hau guztia Kafarnaumgo sinagogan irakatsi zuen Jesusek.

**L**augarren ebanjelioarentzat, ikasle-izaera Kristoren elkartasun-bizitzan datza. Horregatik blaitzen dituzte ebanjelio horren orrialdeak honelako formulak: «elkarrekiko atxikimendua», «ni zuengan eta zuek nigan» (Jn 6,56; 14, 19-20), eta errepikatzen da «iraun» aditza –«aihenak mahatsondoan iraun behar du, fruiturik emango badu» (Jn 15)–. Izan ere, Jesusek, bere bizitza propioan eta zorian inplikatu nahi gaituelako, asimilazioaz eta, are, gu beragan eraldatuz, janari eta edarizat eman digu bere burua. Den guztiarekin eman digu bere burua: haragi eta odol. Beraz, bera «jan eta edan» beharra dugu; esan nahi du, geure egin behar ditugula beraren mentalitatea, beraren sentimenduak, beraren lehentasunak eta berak duen zerbitzari izateko gogoia. Hala ari al gara egiten?



## SAN JOSEREN JAIKO MEZA

## § Hasiera liburutik 1,26–2,3.

Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia geure irudiko, geure antzeko; mendera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, etxeko abereak eta lurreko narrastiak».

Jainkoak, beraz, bere irudiko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudiko egin zuen; gizaseme eta emakume kreatu zituen. Eta bedeinkatu egin zituen Jainkoak eta esan zien: «Sor itzazue umeak eta ugaritu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabiltzan piztia guztiak».

Jainkoak esan zuen: «Begira, zuei ematen dizkizuet lurraren aza-lean diren hazidun landare guztiak eta hazidun fruitua dakarten zuhaitz guztiak; janari izango dituzue horiek. Abereei, zeruko hegaztiei eta lurrean dabiltzan bizidun guztiei, berriz, belarra ematen diet janari». Eta hala izan zen. Eta egindako guztia ikusi zuen Jainkoak, eta oso ona zen. Eta arrats eta goiz: seigarren eguna burutu zen.

Honela, burutuak gelditu ziren zeru-lurrak eta hauetan dagoen guztia. Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak egindako lana, eta zazpigarren egunean, egindako lan guztiaren ondoren, atsedean hartu zuen. Jainkoak bedeinkatu egin zuen zazpigarren eguna eta sagaratu, egun horretan hartu baitzuen atsedean bere kreaizio-lan guztitik.

[Sal 90 [89]: Sendotu ezazu, Jauna, gure eskuen lana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, eta irakasten hasi zen sinagogan. Jendeak, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Ez al da, ba, arotza-

Pazkoaldiko 3. astea.  
SAN JOSE LANGILEA

ren semea? Ez al da Maria honen ama, eta Santiago, Jose, Judas eta Simon honen anaiak? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi? Nondik du, beraz, hori guztia?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik».

Eta ezin izan zuen han mirari askorik egin, ez baitzuten sinesten.

**A**roztegi batean lan egin zuen Jesusek beste hainbat gizakik bezala. Jesusek, bere esku langiletsuz, Jainkoaren borondatea egin nahi izan zuen: munduari giza aurpegia eman. Bere lan-egun haiek gogora ekarriz, geroago esango du; «Nire Aitak lanean dihardu, horregatik duk nik lan egiten» (Jn 5,17). Lanaren balioa erakutsi zigun horrela –Jainkoak agindua dela Adamek bekatu egin aurretik–, den apalena izanik ere mundua «gizakiaren etxe» bihurtzeko balio duela eta krea-tzean Jainkoak gizakiari emandako duintasuna azaltzen duela: krea-tzaile kreatu zuen gizakia Kreatzaileak; mundua eraldatzeko eginkizuna emanez, zeina, geure fedez dakigunez, Jainkoak egina baita eta Jainkoarentzat.

### Jose, arotza

2005eko maiatzaren 1ean, eta lehen aldiz bere aitasantutza-aldian, Vatikanoko leihora atera zen Benedikto XVI.a, Joan Paulo II.aren ohi-turari jarraituz. Eta, noski, San Joseri buruz hitz egin zuen: «Gaur maiatza hasten dugu, kristau-herrian ongi errotutako ospakizun liturgiko batekin, San Jose Langilearenarekin. Eta dakizuenez, ni ere Jose deitzen naiz. Pio XII.a Aita Santuak ezarri zuen oroitzapen-egun hau, duela berrogeita hamar urte; lanaren garrantzia nabarmentzeko, hain zuzen ere, eta baita Kristoren eta Elizaren garrantzia ere langileen munduan. Gaurko gizartean ere beharrezkoa da “lanaren ebanjelioaren” testigantza egitea, Joan Paulo II.ak Laborem exercens bere entziklikan aipatu bezala.

Desio dut inoiz lanik ez falta izatea, gazteek batez ere, eta lan-baldintzak izan daitezela gero eta errespetu handiagokoak pertsonentzat». «Joseren bizitza osoa hartzen du “arotzaren” tituluak. Lana izan zen Nazaretoko bere Familiari izan zion maitasuna adierazteko eguneroko bidea. Jesus ere esaneko izan zen, Joseren lanean parte hartuz, eta ezagutu ere “arotzaren semetzat” ezagutzen zuten» (Benedikto XVI.a).

\*\*\*

### Lanaren munduaren garrantzia

Frantzisko aita santuak sindikatuen nazioarteko batzarra deitu zuen 2017ko azaroaren 23-24rako, Erroman. «Populorum progressio-tik Laudato si’-ra» zuen lema. Lan duinari ematen dion inportantziaren seinaleetako bat da. Lana eta langileen mugimendua giza garapen oso, iraunkor eta solidarioaren erdigune bilakatzea da helburua. Abiapuntuzat Elizaren Irakaspen Soziala eman dute. Hainbat eliz agiriri egiten zaio erreferentzia: herrien garapenerako Populorum progressio delakoari, Elizaren kezka sozialari buruzko Sollicitudo rei socialis delakoari, giza lanari buruzko Laborem exercens delakoari, giza garapen osoari buruzko Caritas in veritate delakoari eta guztion etxeari dagokion ardurari buruzko Laudato si’ delakoari. Bost aita santuren ekarpenak agerian ipintzen du lanari eta giza garapen oso, iraunkor eta solidarioari eskaintzen zaion ardura. Frantzisko aita santuak dei errepikakorra egiten du: «solasaldi berri bat asmatzera, gure planeta honen geroa eraikitzeko egiten ari garene moduz». Kontuan hartuko lituzkeena ingurumenaren, ekonomiaren, gizartearen, kulturaren aldeak, erlijiosoak barne. «Lanaren mundua giza lehentasun bat da. Beraz, kristau-lehentasun bat».

Pazkoaldiko 3. astea.

San Atanasio, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

San Felix, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 9,31-42: Eraikiz eta ugalduz zihoan Eliza, Espiritu Santuagandiko adoreari esker. Sal 116 [115]: Nola ordainduko diot Jaunari egin didan on guztia?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,60-69.

Aldi hartan, Jesusen ikasleetako askok esan zuten: «Gogorra da hizkera hau. Nork adi dezake?»

Jesusek, bere baitan oharturik ikasleak marmarka ari zirela, esan zien: «Onartezina iruditzen al zaizue hori? Eta Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, orduan zer? Espiritua da bizia ematen duena; gizakiak ezin du berez ezer eman. Nik esan dizkizuedan hitzak espiritu eta bizi dira. Baina badira zuen artean sinesten ez duten batzuk». Izan ere, Jesusek hasieratik zekien nork ez zuten sinesten eta nork salduko zuten. Eta esan zuten gainera: «Horregatik esan dizuet ezin dela inor ere nigana etorri, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen».

Geroztik, haren ikasleetariko askok atzera egin zuten, eta aurrerantz ez zen harekin ibili. Orduan, esan zien Jesusek Hamabiei: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?» Erantzun zion Simon Pedrok: «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek betiko bizia dute. Eta guk sinetsi dugu eta badakigu Zu zarela Jainkoaren Santua».

**G**auri ere zuzendu digu galdera Jesusek: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?» Edo, beste era batean esanik: «Zergatik ez dugu alde egiten? Zergatik gara kristau “ingurumari fedegabe honetan”?» Eta Pedrorera bezalako ausardia apal eta fidakorrez aitortuko dugu: «Ez alde egiteko dudan arrazoi bakarra, zu zeu zaitut, Jauna; zutaz dudan esperientzia, nahiz eta zuri jarraitzea ez den arrosa-bide. Labur esanda, zugan sinesten dudalako eta liluratu nauzulako». Baina ez alde egiteko arrazoia, beragan sinesten dugulako bada, aztertu beharrekoa dugu geure bizieraren eta erantzun horren arteko koherentzia.

Apostoluen Eginak liburutik 2, 14a. 36-41.

Mendekoste-egunean, Pedrok honela hitz egin zien juduei: «Jakin beza ziur Israel herri osoak, Jaun eta Mesias egin duela Jainkoak zuek gurutziltzatu zenuten Jesus hau».

Hitz hauek bihotza ukitu zietelarik, Pedrori eta gainerako apostoluei esan zieten: «Anaiok, zer egin behar dugu?»

Pedrok erantzun zien: «Bihotz-berri zaitezte eta bataiatu guztiok Jesus Mesiasen izenean, bekatuak barka dakizkizuen, eta Espiritu Santua hartuko duzue dohainik. Izan ere, zuentzat eta zuen seme-alabentzat agindu zuen Jainkoak dohain hau, baita Jaunak gure Jainkoak deituko dituen atzerritar guztientzat ere».

Beste hitz askoren bidez ere egiten zien Pedrok testigantza, eta arrenka eskatzen zien, esanez: «Salba ezazue zeuen burua gizaldi galdu honengandik».

Pedroren hitza onartu zutenak bataiatu egin ziren, eta egun hartan hiruren bat mila lagun bildu zitzaion taldeari.

[Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

§ San Pedroren 1. gutunetik 2, 20b-25.

Senide maiteok: On egiteagatik nekeak jasan behar badituzue, hori gauza ederra da Jainkoaren begietan. Horretarako deitu zaituzte Jainkoak; izan ere, Kristok berak ere nekeak jasan zituen zuengatik, zuei eredua utziz, haren urratsei jarrai diezaiezuen. Hark ez zuen bekatu-rik egin, haren ahoan ez zuten aurkitu maltzurkeriarik. Iraitzen zutenean, ez zuen irainez erantzuten; nekeak jasatean, ez zuen mehatxurik egiten; aitzitik, zuzen epaitzen duenaren eskuetan jartzen zuen bere burua.

Gure bekatuak bere gain hartu eta gurutzera eramán zituen, gu, bekatuak hilik, zuzen bizi gaitezen; haren zauriek sendatu zaituz-

Pazkoaldiko 4. astea.

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*.

tete. Ardi galduak bezala zenbiltzaten; baina orain zeuen artzain eta zaintzaileagana bihurtu zarete.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 1-10.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Egi-egiaz diotsuet: Artegian, atetik ez, baino beste nonbaitetik sartzen dena lapurra da eta harrapatzailea. Atetik sartzen dena, berriz, artzaina da. Honi ireki egiten dio atezainak, eta ardiek aditzen dute haren ahotsa; ardi bakoitzari bere izenaz deitzen dio, eta kanpora ateratzen ditu. Ardi guztiak atera ondoren, aurretik joaten zaie eta ardiek jarraitu egiten diote, ezagutzen baitute haren ahotsa. Arrotzari, ordea, ez diote jarraituko; aitzitik, ihes egingo diote, arrotzaren ahotsa ez baitute ezagutzen».

Jesusek adibide hau eman zien, baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Orduan, honela azaldu zien Jesusek: «Egi-egiaz diotsuet: Ni naiz ardien atea. Nire aurretik etorritako guztiak lapurrak ziren eta harrapatzaileak; horregatik, ardiek ez zieten jaramonik egin. Ni naiz atea. Ate honetatik sartzen dena onik izango da, lasai sartuko da eta aterako, eta aurkituko du jatekoa. Lapurra ez doa artaldera ostu, hil eta hondatzera baizik; Ni, berriz, bizia izan dezaten etorri naiz, bizia ugari izan dezaten».

**J**esus da gidatzen gaituen artzaina, nori bere izenaz dei eginez. Ez gara harentzat zenbaki hotz bat, baizik eta ordezkazezineko «zu» bat; horregatik gonbidatzen gaitu berarekin harreman pertsonalak ezartzera, «bizia ugari» izan dezagun: berarena, partekaturik. Bidelagun dugu beti bera, baina ez gaitu ordezkatzin; ez digu askatasuna ezabatzen; aitzitik, bera hain hurbileko izateak are handiago bihurtzen du askatasun hori. Bere eskuak «indartsu» ditu: segurtasuna ematen du haiek gainean sentitzeak, «beraren onberatasuna eta leialtasuna bidelagun ditugu geure bizitzako egun guztietan». Batzuetan, halere, esku «ga-

rratz» izaten dira, mendate ilunetik gidatzen baikaitu eta ezin ulertu dugun bidez (Isaias 55,8-9). Baina, nahasmendu-une horietan beretan ere, badakigu esku onetan gaudela.

Bera atea da gainera, hartatik sartzen eta irteten dira ardiak. Bai, Aitaganako irispide den atea da Jesus, baina baita kanpora ematen duen atea ere; hain zuzen, Artzain Onak ez du nahi bere artegian hesitua den elkarterik; alderantziz, irten egin behar du, bere fedearen testigantza egiteko eta gizon-emakumeen tristura eta esperantza partekatzeke, asko bizi baitira, eta askotan, noraezean galdurik, «artzainik gabeko ardiak bezala».

\*\*\*

### San Felipe eta Santiago, *apostoluak*

#### § San Paulok 1 Korintoarrei 15,1-8.

Senideok: Irakatsi nizuen Berri Ona oroitarazten dizuet. Zuek onartu egin zenuten, horretan sendo oinarrituak zaudete eta salbatu ere horrexek salbatzen zaituzte, nik iragarri nizuen bezala eusten badiozue. Bestela, alferrik sinetsiko zenuten.

Nik hartu nuena bera eskualdatu nizuen lehen-lehenik, hau da, Kristo gure bekatuengatik hil zela, Liburu Santuek esan bezala; hobiratu egin zutela eta hirugarren egunean piztu egin zela, Liburu Santuek esan bezala; Pedrori agertu zitzaiola, eta ondoren Hamabiei; gero, bostehun eta gehiago senideri agertu zitzaion batera –horietako gehienak bizirik daude oraindik, batzuk hil badira ere–; gero, Santiagori agertu zitzaion, ondoren apostolu guztiei.

Beste guztiei agertu ondoren, neuri ere agertu zitzaidan, garaia baino lehen jaiotako haurra bezalakoa naizen honi.

[Sal 19 [18]: Zeruek Jainkoaren aintza dute kontatzen.]

Pazkoaldiko 4. astea.

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,6-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Tomasi: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu».

Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzen-gatik.

Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

**J**esusek Feliperi egin dion galdera hori bidelagun dugu geuk ere geure ibilian. Jesus hain gizatiar eta xume agertzen zaigu, non ez baitugu ezagutzen, bidean bere ondoren joanik ere. Koloka ipintzen digu begiratzeko dugun geure era, hain lau eta azalekoa, eta gauzen gardentasuna atzematera eragiten digu, Jainkoaren biziaren sakontasuna, alegia, beraren sorkari txikienetan grabatua. Birtualtasunaren sareek asebetetzen dizkigute begiak eta harrapaturik, zabarturik, eusten digute, funtsezkotik urrun. Bizi dudan aro honetan, neuk al dut hautatzen bihotza non jarri?, esan al dezaket Jesus dudala benetan neure bidea, neure egia, neure bizia?



Pazkoaldiko 4. astea.

San Jose Maria Rubio, *apaiza, jesuita.*

[Apostoluen Eginak liburutik 11,1-18: Jentilei ere eman die Jainkoak bizira daraman bihotz-berritzea. Sal 42 [41]: Jainko biziaren egarri naiz: noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 11-18

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Ni naiz artzain ona. Artzain onak bere bizia ematen du ardien alde. Ez, ordea, morroiak, artzain ez denak eta ardiak bereak ez dituenak; honek, otsoa datorrela ikustean, ardiak utzi eta ihes egiten du; eta otsoak ardiak harrapatu eta sakabanutu egiten ditu. Izan ere, morroiari lansaria zaio axola, eta ez ardiak.

Ni naiz artzain ona. Ezagutzen ditut neure ardiak, eta neureek ezagutzen naute Ni, Aitak Ni ezagutzen nauen eta Nik Aita ezagutzen dudan bezalaxe. Nik neure bizia ematen dut ardien alde. Baditut artegi honetakoak ez diren beste ardi batzuk; hauek ere erakarri egin behar ditut; adituko dute nire ahotsa eta artalde bakarra izango dira, artzain bakarraren gidaritzapean.

Horregatik maite nau Aitak: neure bizia ematen dudalako, berriro eskuratzeko. Ez dit bizia inork kentzen, Neuk ematen dut neure kabuz. Neure esku dut ematea eta neure esku berriro eskuratzea. Hori da neure Aitagandik hartu dudana agindua».

**A**rtzain Onak bere bizia eman du, bai hurbil dituen ardiengatik, bai urrun direnengatik. Bere gogoa guztiak elkartzea du artalde bakar batean Artzain bakar batekin. Horregatik gonbidatu gaitu gaur gu urrun diren horien bila joatera eta, erabateko topaketa hori iritsiko den egun handia arte, urrun diren horietan guztietan ere «Hitzaren hazia» ikustera dei egin digu – Elizaren lehen Guraso Apostolikoak mintzo ziren jada Hitzaren hazi horretaz–; izan ere, Espirituak «haragi orotan banatu zuen jada [hazi hori], eta, dei egin digu, beraiekin –gizaki guztiekin, zeinen ondradutasuna Kristoren marka inplizitua baita– partekatzerara barnean duten gauzarik hobena; arazoa, guztien artean anai-arreba arteko mundua eraikitzea da; horixe baitute amesten Jainkoak eta haren Semeak –Aita islatu eta agertu digun Artzainak–.

Pazkoaldiko 4. astea.

Santa Felizisima, *martiria*.

Santa Irene, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 11, 19-26: Jentilei ere Jesus Jaunaren Berri Ona iragartzen hasi ziren. Sal 87 [86]: Goretsazue Jauna, nazio guztiok.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 22-30.

Aldi hartan, tenpluaren sagarapen-jaiak ospatzen ziren Jerusalem. Negua zen. Jesus tenpluan zebilen, Salomonen aterpean. Inguratu zuten juduek eta esan zioten: «Noiz arte eduki behar gaituzu zalan-tzan? Zu bazara Mesias, esaguzu argi eta garbi».

Jesusek erantzun zien: «Esan dizuet, eta ez duzue sinesten. Nik neure Aitaren izenean egiten ditudan egintzek ematen dute nire alde testigantza; zuek, ordea, ez duzue sinesten, nire ardietakoak ez zare-telako».

Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa; Nik ezagutzen ditut, haiek jarraitu egiten didate, eta Nik betiko bizia ematen diet; ez dira betiko galduko, ez dizkit inork ere eskutik kenduko».

Haiek eman dizkidan nire Aita beste guztiak baino handiagoa da, eta ezin ditu inork ere kendu nire Aitaren eskutik. Aita eta biok bat gara».

**J**esusek errepikatu du: «Ni ikusi nauenak, Aita ere ikusi du». Orain, baieztapen horren hondo-hondoko erroa aldarrikatu nahi digu: «Aita eta biok bat gara». Aitak eta Semeak pentsaera eta egintza berak dituzte: Semeak egiten dituen egintzak Aitaren egintza dira. Eta Aita maitasun delako, egintza horiek maitasuna dute muin: Jesusek barkatu, argitu, elikatu egiten du, bizia ematen... Egintza horiek Aitaren ontasuna eta Semearekin duen elkartasuna agertzen dute. Jesusek beti bere egintzei erreparatzeko eskatzen dio jendeari, ez da gelditzen hitz hutsean. Izan ere, Loiolako Ignaziok esaten duen bezala, «maitasuna gehiago txertatzen da egintzetan hitzetan baino». Eta gu?, zenbat bider gelditzen gara hitz hutsarekin!

Pazkoaldiko 4. astea.

Domingo Savio santua, *aitorlea*.San Luzio, *profeta eta doktorea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 12,24–13,5a: Bereizi niretzat Bernabe eta Saulo. Sal 67 [66]: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,44-50.

Aldi hartan, Jesussek oihu eaginez esan zuen: «Nigan sinesten duenak nigan ez ezik, Ni bidali nauenagan ere sinesten du. Eta Ni ikusten nauenak Ni bidali nauena ere ikusten du.

Ni argi izateko etorri naiz mundura, nigan sinesten duen inor ilunpean geldi ez dadin. Nire hitzak entzun bai, baina betetzen ez dituenak, ez dut Nik gaitzesten, ez bainaiz mundua gaitzestera etorri, mundua salbatzera baizik.

Ni ukatu eta nire hitzak onartzen ez dituenak badu nork gaitzetsi; Nik adierazitako hitzak berak gaitzetsiko du azken egunean; Nik ez baitut neure kabuz hitz egin, baizik eta bidali nauen Aitak agindu dit zer esan eta zer irakatsi. Eta badakit haren aginduak betiko bizia ematen duela. Horrela, bada, Nik esaten dudana, Aitak agindu bezala esaten dut».

**J**esusek, bere ministerioaren amaieran, jendaurrean jaulki zituen azken hitzak dira. Beraren mezuaren laburpen dira. Beraren hitza aditzera eta gordetzera egin digun dei zorrotza dira; horregatik esan ditu «oihu eaginez», bihotzean ezarri eta itsatsi dakizkigun. Aitaren bidalia da Jesus, harekin bat bizi da, horregatik du hura agertu; argi da, bizia ematen du, eta gizakia salbatzera etorri da. Salbatzera etorri dela eta soilik salbatzera, azpimarratu eta nabarmendu nahi izan du; galdurik eta kondenaturik sentitzen dena, bere burua eskainitako salbazio horretatik berak zokoratu duelako da. Erreparatu dezagun: zertatik salbatu beharko ninduke ni gaur?, zein ezkortasunetatik, zein ahuldadetatik, zein joera egoistatetik... dut liberatu beharra? Ez dezadala neure burua nik neuk zokoratu!

Pazkoaldiko 4. astea.

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*.San Juvenal, *martiria*.San Benedikto II.a, *aita santua*.

[Apostoluen Eginak liburutik 13,13-25: Daviden hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea, Jesus alegia. Sal 89 [88]: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betierez betiere.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,16-20.

Jesusek, bere ikasleei oinak garbitu ondoren, esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Morroia ez da nagusia baino handiago, ezta bidalia ere bidaltzailea baino handiago. Hortaz jabeturik, zorionekoak izango zarete, horren arabera jokatzen baduzue.

Ez naiz zuek guztiotaz ari; badakit, bai, zein aukeratu ditudan; baina bete beharrekoa da Liburu Santuak dioen hau: “Nire ogitik jaten duena kontra altxatu zait”. Aurrez, gertatu baino lehen, esaten dizuet, gerta dadinean, “Ni naizela” sinets dezazuen.

Egi-egiaz diotsuet: Nik bidalia onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali ninduenak onartzen du».

«**Z**orionekoak zuek, betetzen baduzue». Zerbitzuaren zoriontasuna da. Oinak garbitzea Jesusen keinu profetikoa izan zen; beraren bizitzaren eta nekaldiaren zentzua argitzen du: ez da etorri zerbitza dezaten, baizik zerbitzari izatera eta bizia ematera. Bera imitatzera gonbidatu gaitu Jesusek. Benetako iraultza da. Jainkoa gizakiaren oinetan jarri da, eta, honen duintasuna aitortuz, zerbitzari bihurtu da. Zerbitzaria makurtu egin da; ez dio begiratu sekula inori goitik behera. Hausnar dezagun, prest ote gauden zoriontasun honen onuradun izateko; horretarako, ez da aski baiestea, baizik eta praktikatu egin behar egunero zerbitzu-maitasuna. Ba al da oinik zeinen aurrean ez baitut belaunikatu nahi edota ez bainuke sekula garbitu nahi?

[Apostoluen Eginak liburutik 13,26-34: Agintzaria geuri bete digu Jainkoak, Jesus berpiztuz. Sal 2: Nire seme zara zu; Nik zaitut gaur sortu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,1-6.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez izan kezkarik; sinetsi Jainkoagan eta sinetsi nigan ere. Nire Aitarenean bizitoki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, Ni nagoen tokian zuek ere egon zaitezten. Zuek badakizue Ni noan tokirako bidea».

Tomasek esan zion: «Jauna, ez dakigu nora zoazen, eta nola jakin bidea?» Jesusek erantzun: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik».

«**A**postoluen Eginak» liburuan, fedea eta kristau-biziera «bide» bezala deskribatzen ditu Lukasek. Kristauak «bidearen jarraitzaile» dira (Eg 9,2; 13,10; 16,17; 18,25-26; 19,9-23; 22,4; 24, 18.22); «Jesusen bidea» jarraitzen dutenak dira kristauak. Jesusek burutzen zituen egintzak gauzatzen dituzte berek ere: bera agertzeko Aitak eskatzen zizkionak ziren Jesusen haiek. Gauza bera eskatzen digu guri ere. «Bidea», metafora ederra da kristau-biziera deskribatzeko; biziera horrek beti dinamikoa izan behar duela azpimarratzen du; nekeak gorabehera, ez dugula sekula planto egin behar, baizik eta beti aurrerantz jo eta jo. Baina Jesus bidea da, bai, baina baita ibili dabilen bidelagun ere (Lk 24,15). Kristau izateko, Jesusen bidea egin behar duzu... eta egin ere, harekin batean ginez.

Pazkoaldiko 4. astea.

San Gregorio Berruezakoa, *gotzaina, beneditarra*

(*Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan*).

Santa Luminosa, *birjina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 13,44-52: Jentilengana joko dugu. Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,7-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu».

Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik.

Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

«**B**idearen jarraitzaile izan nahi dugu». Eta egin dezakeguna da hori, geurekin dugulako Espiritua, Jesusek, «Aitagana igo zenean», agindu eta bidali ziguna. Espirituak bideari ekitera bultzatzen gaitu, baita bidezidor berrietan barna ere, eta –hau da gauza txundigarria– Espirituak guran duen presentziak ahalbideturik, Jesusek berak egin zituenak baino «egintza handiagoak» ere egin genitzake. Jesusen bidearen jarraitzaile izatea ez datza haren fotokopia izatean. Esana du olerkariak: «ibiliz egiten da bide». Geuk ere esaten ahal dugu, Espirituaren laguntzaz jarraitzen ahal diogula Jesusi gaur eguneko erronkei (ez baitira duela XXI mendekoak) erantzungo dieten bide berrietan barna. Espirituak lagunduko digu bide egiten Jesusen urratsei segika ibiltzean.

## § Apostoluen Eginak liburutik 6, 1-7.

Egun haietan, ikasleak ugaritu zirelarik, marmarra sortu zen greko hizkuntzakoen artean hebreera hizkuntzakoen aurka, haien andre alar-gunak eguneroko janari-banaketan bazterrera uzten zituztelako.

Hamabiek, ikasleen batzar orokorra bildurik, esan zuten: «Ez da bidezko guk Jainkoaren hitzaren predikua alde batera uztea, janari-banaketaz arduratzeko. Beraz, senideok, aukera itzazue zeuen artean izen oneko zazpi gizon, Espiritu Santuaz eta jakinduriaraz beteak, eta haiei emango diegu egiteko hori; guk, horrela, otoitzean eta hitzaren zerbitzuan jardungo dugu».

Batzar osoak ontzat eman zuen proposamena, eta hauek aukeratu zituzten: Esteban –sinesmenez eta Espiritu Santuaz bete–, Felipe, Prokoro, Nikanor, Timon, Parmenas eta Nikolas, Antiokiako judu berria; aurkeztu zizkieten apostoluei, eta hauek, otoitz eginez, eskuak ezarri zizkieten buruan.

Jainkoaren hitza zabaltzen ari zen; ikasleen taldea franko ugarituz zihoaen Jerusalemen, eta apaiz asko ere sinestedun egiten zen.

[Sal 33 [32]: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugan baitugu geure uste ona.]

## § San Pedroren 1. gutunetik 2, 4-9.

Senide maiteok: Hurbil zaitezte Jaunagana. Harri bizia da Jauna, gizakiek baztertua, baina Jainkoaren begietarako aukeratua eta bikaina; harengana hurbiltzen zaretelarik, zuek ere, harri bizi bezala, espirituzko tenpluaren eraikuntzan parte hartzen duzue eta apaiz sagaratuak zarete, Jainkoari atsegin zaizkion espirituzko opariak Jesu Kristoren bitartez eskaintzeko.

Hau dio, izan ere, Liburu Santuak: «Hona Nik Sionen harria ipini, giltzarri aukeratu eta bikaina. Horretan sinesten duenik ez da lotsaturik geldituko».

Zuentzat, beraz, sinesten duzuenontzat, harri hori aintzagarri da; sinesten ez dutenentzat, berriz, «etxegileek baztertutako harria giltzari bihurtu da, eta baita behaztopa-harri ere, erorarazteko harkaitz». Hitza onartzen ez dutenek egiten dute behaztopa; hori da ezarri zaien zoria.

Zuek, ordea, jatorri hautatua zarete, errege eta apaiz, nazio santua, Jainkoak beretzat eskuratutako herria, ilunpetatik bere argi zoragarriara deitu zaituzten Jainkoaren egintza bikainak iragar ditzazuen.

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 1-12.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez izan kezkarik; sinetsi Jainkoagan eta sinetsi nigan ere. Nire Aitarenean bizen asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, Ni nagoen tokian zuek ere egon zaitzetzen. Zuek badakizue Ni noan tokirako bidea».

Tomasek esan zion: «Jauna, ez dakigu nora zoazen, eta nola jakin bidea?» Jesusek erantzun: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu».

Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagana nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagana nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzen-gatik.

Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa».



**P**azkoaldi honetan entzuten ari garen lehen irakurgaietan, nabari dugu nola zihoazen hazten «bidearen jarraitzaileak» eta nola egiten zieten aurre, ausardiaz, zetozkien oztopoei: aurre egiten bazieten, Jesusen Espirituaren laguntza sumatzen zutelako izaten zen: hura zuten gidari eta adore.

Geu ere «harri bizi» gara: Eliza eraikitzaera deituak eta zertaratuak; tenplu handi batek sinbolizatzen du Eliza hori, zimentarrian, hau da, Kristogan oinarritua –Kristo da «bidea», hain justu «egia» eta «bizia» delako–. Honek guztiak esan nahi du, Eliza eginkizun bat dela. Ez dago errematatua; eraikitzen joan beharrekoa da egunero-egunero, harriz harri, «anai-arreben» elkarte izan dadin. San Pedrok jaulkitzen dituen «doretxoak» eta alabantzak ez dira hierarkiari eginak, ezta kleriko edo erlijiosoei... ere, baizik eta fededun guztiei, «bidearen jarraitzaile» guztiei. Guztioi dagokigun arazoa da Eliza eraikitzea, guztion erantzukizuna. Eliza hori emazte bat izatea –Kristoren Emaztea, deitu ohi zion San Paulok–, zimurrik gabea, zikinik gabea, gure baitan dago, ez bakarrik, baina baita, gure etsenpluaren, gure atxikimendu-zentzuaren, gure fedearen koherentziaren baitan.

Pazkoaldiko 5. astea.

San Jeremias, *profeta*. Santa Susana, *martiria*.

Domingo Iturrate dohatsua (Dima 1901 – Cuencan 1927),  
*apaiza, trinitarioa*.

[Apostoluen Eginak liburutik 14,5-18: Berri on hau adierazten dizuegu: utz ditzazuela idolo hutsalak eta bihur zaitezte! Jainko biziagana. Sal 115 [113B]: Ez guregatik, Jauna, baizik zeure izenaren ohoregatik erakutsi zeure ospea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,21-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nire aginduak onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite, eta Ni maite nauena nire Aitak maite izango du, eta Nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio».

Esan zion Judasek, ez Iskariotek, besteak baizik: «Jauna, zer dela-eta agertuko zatazizkigu guri eta ez munduari?»

Jesusek erantzun zion: «Ni maite nauenak gordeko du nire hitza; nire Aitak maite izango du, eta Aita eta biok harengana etorriko gara eta harengan egingo dugu bizileku. Ni maite ez nauenak, ordea, ez ditu gordetzen nire hitzak. Eta entzuten duzuen hitza ez da nirea, bidali nauen Aitarena baizik.

Zuekin naizen artean esan dizuet hau. Baina Aitak Laguntzailea, Espiritu Santua, bidaliko dizue nire izenean; hark irakatsiko dizue dena eta gogoraraziko Nik esan dizuedan guztia».

**E**spiritua oroitzapen da: orainaldi bihurtzen du Jesusen iragana. Espirituak «den-dena irakatsiko digu» eta «gogora ekarriko» Jesusek esan zuen guztia (Jn 14,26). Berak dizkigu «irakasten», bai Jesusen keinueen zentzua, bai haren mezuaren sakontasuna. Beraz, Espirituaren beharra dugu, gudan Jesus eguneratu dezan eta, horrela, Jesus geure garaikide izan dezagun. Kristau-bereizmena, geure barnea jarrera egokian ipintzean datza, Jesusen Espirituak gida gaitzan uzteko. Eta Espiritu horren beharra dugu; izan ere, Kristoren jarrera geure egiteak –haren jarraitzaile guztiak bilatzen dutena, hain zuzen– haren jarrera hura geure «hemen eta orainari» egokitzea esan nahi du, hogeita bat mendeen ondoren.

[Apostoluen Eginak liburutik 14,19-28: Jainkoak beraien bidez egin-dako guztia azaldu zioten elkarteari. Sal 145 [144]: Zure adiskideek ager bezate, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.)

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,27-31a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Bakea uzten dizuet, neu-re bakea ematen; Nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez beldur izan. Entzun duzue esan dizuedana: “Banoa, baina itzuliko naiz zuengana”. Benetan maite baninduzue, poztuko zinatekete Aitagana noalako, Aita Ni baino handiagoa baita.

Orain esan dizuet, gertatu baino lehen, gerta dadinean sinets dezazuen. Ez dut jadanik luze hitz egingo zuekin, bai baitator mundu honetako buruzagia. Horrek ez du nire gain ahalmenik; baina munduak jakin behar du Nik maite dudala Aita eta Aitaren agindua bete egiten dudala».

**A**postoluei, triste ikusirik, bakea agindu die Jesusek. Pazko-egunean bete du promes hori. Haren bakea ez da munduarena bezalakoa, hainbat bider hutsala eta elkarrekiko beldurrean oinarritua. Jesusena, Espiritua emateari lotua, ugaritasuna edo barne-baretasun soila baino harago doa: Jesus iraunkorki geurekin ukaitea da eta Jainkoaren seme-alaba izatearen dohaina. Eta presentzia hau izateak, Semeagan seme-alaba garela, «munduak» ezin suntsitu duen bakea ukaitea da. «Niri itsatsirik, bakea izango duzue; munduan larritasunik izango duzue, baina, aupa, garaitua dut nik mundua» (Jn 16,31). Guri esana da hori, geure beldurren artean.

Pazkoaldiko 5. astea.

Zeruko Andre Maria **Fatiman** agertua.

San Andres Huberto Fournet, *apaiza*.

[Apostoluen Eginak gutunetik 15,1-6: Jerusalemera igo zitezela erabaki zuten, apostoluekin eta arduradunekin auzia argitzera. **Sal 122 [121]:** Goazen pozik Jaunaren etxera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburitik 15,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan badago, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzten den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute.

Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

**Z**ein da egurketariaren eta mahastizainaren arteko aldea? Hona zer abesten duen mahastizainak aihenak kimatzen dituenen: «Ez beldur izan kimatzeari berdea denean zure egurra, ez dut ene probetxurako kentzen dudana, gelditzen dena zait axola» (M. Menapace). Egurketariak bere burua du helburu eta nola berotuko helmuga, eta moztu egiten du eta zaharra (egurra) zaio axola; mahastizainak, aldiz, arbola du buruan, mahatsondoa, eta moztzen badu, berria zaiolako axola moztu du, fruitua ematen duen bizia zaiolako axola. Horrela dihardu Jaunak bere mahastizain-eskuez. Berak bizitzan askotan kimatzen bagaitu, astindurik ematen badigu, mahatsondoa kimatzea bezala da beraren egintza: fruitu eman dezagun; «gelditzen dena zaio berari axola.

[Apostoluen Eginak liburutik 1,15-17.20-26: Zotz eginik, Matiasi egokitu zitzaion, eta hamaika apostoluekin elkartu zuten. Sal 113 [112]: Bere herriko handikiekin eserarazi du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,9-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala.

Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino.

Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagsiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitizuet.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

**M**atias apostolua aukeratzeko ekintzan bi alde nabarmendu dira: 1) Jesusez kutsatua izan behar du (haren jendaurreko bizitzan bidelagun izana eta haren Piztueraren lekuko izana); 2) Elkarteari kontsulta egin zaio, baina erabakia zotz eginez hartu da, elkarte osoak Jainkoari eskatu ondoren Jainkoa bera izan dadin hauteslea. Beraz, Matias, bitartekaritzak gorabehera, Jainkoak berak aukeratu du. Horrela, Matiasi ere esan ahal izan dio Jaunak: «Ez nauzue zuek ni aukeratu, baizik eta neuk aukeratu zaituztet zuek». Geu ere Jaunak berak aukeratu gaitu, maite gintuzten beste batzuen bitartekaritza eta otoitzak tarteko izanik. Baina dei horri erantzun ahal izateko, Jesusez kutsaturik bizi beharko genuke. Hala al gaude?

Pazkoaldiko 5. astea.

San Isidro, *nekazaria*.

Santa Joana Lestonac-ekoa, *fundatzailea*

(*Mariaren Lagundia*).

[Apostoluen Eginak liburutik 15,22-31: Espiritu Santuak eta guk erabaki dugu zuei zamarik ez ezartzea, behar-beharrezko direnak izan ezik. **Sal 57 [56]:** Goretsiko zaitut, Jauna, herrien artean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,12-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino.

Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan gutzia adierazi baitizuet.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela edonon; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen gutzia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

**D**oan aukeratu gaitu Jesusek, bere adiskide izateagatik, beragan txertaturik egoteagatik aihenak mahatsondoan bezala, honen izerdiaz elikatzen baitira eta hala ematen baitute fruitu. «Ni gabe ezin egin duzue ezer», esan du Jesusek mahatsondoaren alegorian. Eta, gauza bera era baikorrean adieraziz, San Paulok esan ohi zuen: «dena dezaket kemen ematen didan harengan». Jesusengan «iraun ezean», ezin eman dugu fruitu, ezta maitatu ere besteak maitasun jator eta eskuzabalez; baina Jesusekin, haren hondoari itsatsirik, badezakegu. Jesusekin bizi ditugun harremanak zinezko atxikimendu pertsonal al dira, solaskide-esperientzia barnekoi, lantzen ditugunak, geure bizitzan eremu bat eskaintzen diegunak? Hala bada, aurkitua dukegu altxor bat, bizi-baltsamo bat: adiskide leiala (Ben Sirak 6,14-16).

Pazkoaldiko 5. astea.

San Mikel Garikoitz, *apaiza, fundatzailea (Betharramgo Jesusen Bihotzeko Apaizen Elkarte [Betharramdarra]).\**

[Apostoluen Eginak liburutik 16,1-10: Zatoz Mazedoniara eta laguniezaguzu. Sal 100 [99]: Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,18-21.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Munduak gorroto badizue, jakizue zuei baino lehen niri izan didala gorroto. Mundukoak bazinete, munduak maite izango zintuzkete, norik berea maite duen legez; baina Nik aukeratu eta mundutik atera zintuztedanez, munduak gorroto dizue, mundukoak ez zaretelako.

Gogoratu esan nizuena: morroia ez da nagusia baino handiago. Ni pertsegitu banaute, zuek ere pertsegituko zaituztete; nire hitza hartu badute, hartuko dute zuena ere. Nire izenagatik egingo dizuete hori guztia, bidali nauena ezagutzen ez dutelako».

«**M**undu» terminoak, ebanjelioko pasarte honetan, gizadia esan nahi du, Jainkoaren kontrako egitura sozio-erlijioso bezala harturik, Jesusen kontrako egitasmotzat harturik: Antierreinu da. Jesusek seme-alaben mundu-izaera hau aldatzen ez digun bitartean, «mundu honen seme-alaba» izango gara. Egitura zuzengabeak izateaz gain, heredatzen eta baitaratzen diren irizpideak jariatzen dituen mundua da; inguratzen gaituen airea bezala baitaratzen eta arnasten diren irizpideak, alegia: berezko gauza bailiran, hala izan beharreko bailiran, balio duen gauza bailiran. Jesusek, ordea, «mundu» horretatik liberatuz aukeratu gaitu eta Jainkoaren seme-alaba eta beraren anai-arreba bihurtuz. Ondorioz, munduak gorroto izango gaitu Jesus gorroto izan zuen bezala. Maisuaren eta ikasleen zoriak batera doaz; baina elkartasun horrek indar emango digu «mundura» itzultzeko, tentazioa gainditi ahal izateko.

\* San Andres Bobola, *apaiza, martiria, jesuita.*

San Ubaldo, *martiria.* Santa Gema Galgani, *birjina.*

Pazkoaldiko 6. astea.  
San Paskoal Bailon, *erlijiosoa*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 8, 5-8. 14-17.

Egun haietan, Felipe Samaria hirira jaitsi eta Mesiasen berri ematen hasi zen. Felipek esaten zuena entzun eta egiten zituen mirariak ikustean, gogo batez onartzen zuen jendeak haren predikua; izan ere, deabrudun askorengandik ateratzen ziren espiritu gaiztoak deiadarka, eta elbarri eta herren asko sendatzen zen. Poz handia izan zuten hiri hartan.

Jerusalemen zeuden apostoluek, Samariak Jainkoaren hitza onartu zuela jakitean, Pedro eta Joan bidali zituzten hara. Iritsi zirenean, bertakoen alde otoitz egin zuten, Espiritu Santua har zezaten. Izan ere, artean haietako inorengana jaitsi gabe zegoen Espiritua; Jesus Jaunaren izenean bataiatuak baizik ez zeuden. Orduan, Pedrok eta Joanek eskuak ezarri zizkieten buruan eta Espiritu Santua hartu zuten.

[Sal 66 [65]: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.]

§ San Pedroren 1. gutunetik 3, 15-18.

Senide maiteok: Gora ezazue Jauna, Kristo, zeuen bihotzean, eta egon beti prest zeuen itxaropenaren arrazoia emateko eskatzen dizueten guztiei; baina egizue apaltasunez eta begirunez, kontzientzia garbiz jokatu. Horrela, kristau bezala duzuen jokabide onaz gaizki esaka ari direnak lotsatu egingo dira zuen kontra esaten dutenaz. Hobe da, izan ere, Jainkoak hala nahi izanez gero, ongi egiteagatik sufritzea, gaizki egiteagatik baino.

Kristok heriotza jasan zuen bekatuengatik behin betiko, erruga-beak errudunengatik, zuek Jainkoagana eramateko. Gizakia zenez, heriotza jasan zuen, baina bizia hartu zuen berriro Espirituagandik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 15-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Maite banauzue, beteko dituzue nire aginduak. Nik Aitari eskatuko diot, eta beste Laguntzaile



Pazkoaldiko 6. astea.

San Paskoal Bailon, *erlijiosoa*.

bat emango dizue, beti zuekin egon dadin, egiaren Espiritua. Munduak ezin du hartu, ez baitu ikusten, ez ezagutzen; zuek, ordea, ezagutzen duzue, zuengan bizi baita eta zuekin egongo betiko.

Ez zaituztet umezurtz utziko, itzuliko naiz zuengana. Laster munduak ez nau ikusiko; zuek, ordea, ikusiko nauzue, Ni bizi bainaiz eta zuek ere biziko baitzarete. Egun hartan ulertuko duzue Ni Aitagana nagoela, eta zuek nigan eta Ni zuengan. Nire aginduak onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite, eta Ni maite nauena nire Aitak maite izango du, eta Nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio».

**G**aurko hiru irakurgaietan Espirituaren, Laguntzailearen (Abokatua), ezaugarri bera ageri da: gure alde ari da, alegia.

–Espiritu hori ari ohi zen hasiera hartako Eliza hura hazarazten. Felipek, Espirituaren eraginez, Berri Ona hots egiteaz gain, Jesusen keinu askatzaileak ere biziara eta iraunarazi egiten zituen. Horregatik, hiria poz-pez ageri zen. Espiritu Kontsolatzaile horrek emango digu geuri ere adorea, geure mundu honetan kontsolatzaile izateko, hainbat eta hainbat deskontsolamenduren artean.

–Espiritu hori zen lehen kristau-elkarte haiei eragiten ziena, beren bihotzean ainguraturik zeramaten eta Kristo piztu eta bizirik zegoelako uste sendoak eragiten zien esperantzaren arrazoi ematera. Geu ere geure esperantzaren arrazoi berri emateko gai egiten gaitu, jendeak, esperantzadun ikusten gaituelako, horretarako zein arrazoi ditugun eskatzen digunean; alabaina, berri emateko, gonbidatuz bai, inor behar-tuz sekula ez.

–Jesusek ez gaitu uzten «babesik gabe». Konfiantza dugu «Egiaren Espirituan»: argia eta indarra emango dizkigu Jesusen beraren eta haren mezuaren egiatik ez urruntzeko; kemena emango digu (Jainkoaren eta anai-arreben) «maitasunean bizi» esapideak laburbiltzen dituen beraren aginduak betetzeko; kemena emango digu ez erortzeko ere, geure bizitza Jesusen egian sustraitzetik ateratzera eragiten diguten trikimailu sotiletan.

Pazkoaldiko 6. astea.

San Joan I.a, 53. *aita santua eta martiria.*

Santa M<sup>a</sup> Josefa Sancho Guerra (Gasteiz 1842-Bilbo 1912),  
*birjina eta fundatzailea.*

[Apostoluen Eginak liburutik 11,11-15: Jaunak bihotza ireki zion, Pauloren hitzak gogoz onar zitzan. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,26–16,4a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nik Laguntzailea, jatorria Aitagari duen egiaren Espiritua, bidaliko dizuet Aitagandik. Hark, etortzean, aitormen egingo du nire alde. Eta zuek ere egingo duzue aitormen, hasieratik nirekin baitzaudete.

Zuen sinesmenak huts egin ez dezan esan dizuet hau. Zeren eta judu-elkartetik bota egingo baitzaituztete; are gehiago, badator ordua, zuek hilko zaituztenak Jainkoari kultu ematen diola uste izango duena. Eta horrela jokatuko dute, ez Aita, ez Ni, ezagutu ez gaituztelako. Aurrez esaten dizuet, hori gertatzean esana nizuela gogora dezazuen».

**E**spirituaren eginkizuna Jesusen gainean testigantza egitea da. Horixe da ikaslearen eginkizun edo misioa ere. Bi testigantza horiek, ordea, ez dira zein bere aldetik aritzekoak. San Agustinek dioenez: «Berak hitz egingo duelako, zuek ere hitz egingo duzue; berak inspiratuz, zuek hitzez». Espiritua ikusezina da munduarentzat (Jn 14,7): haren testigantza, ikasleak bitarteko direla bakarrik ezagut daiteke. Baina, haren hatsari esker, testigantza egin dezakegu Jesusen gainean «munduaren» etsaigoaren aurrean; hau batzuetan pertsekuzio fisikoz eta bortxaz azalduko da; beste batzuetan sotilagoa izango da eta iseka, ironia edo zokoratze sozial —«sinagogatik» kanporatzeko era bat— bezala azalduko da. Baina tirandurazko une horietan, Espirituak irmo eutsiko digu fedean.

[Apostoluen Eginak Liburutik 16,22-34: Sinetsi Jesus Jaunagan, eta salbatuko zarete zu eta zure etxeoak. Sal 138 [137]: Zeure eskuintez salbatzen nauzu, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,5-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Orain, bidali ninduen Aitagana noa, eta zuetako inork ez dit nora noan galdetzen. Baizik eta hori esan dizuedalako, tristurak bete du zuen bihotza.

Hala ere, egia diotsuet: hobe da zuentzat Ni joatea; izan ere, joaten ez banaiz, ez zaizue etorriko Laguntzailea. Joaten banaiz, ordea, bidali egingo dizuet.

Hura etortzean, agerian jarriko du munduaren errua bekatuari, zuzentasunari eta epaiari buruz: bekatuari buruz, nigan sinesten ez duelako; zuzentasunari buruz, Aitagana noalako, eta ez nauzue gehiago ikusiko; epaiari buruz, mundu honetako buruzagia jadanik gaitzetsia dagoelako».

«**K**omeni zaizue ni joatea». Magdalenari bezala esaten digu geuri ere: «Utz nazazu! Banoa, bai, baina hemen gelditzeko, beste presentzia-modu batean bada ere: neure Espirituaren bidez». Pozteko arrazoia, benetan. «Berpiztua ez dago jada, ez gure aldian, ez gure espazioan. Jainkoaren bizia bizi du jada. Ez da bizi jada munduko txoko batean bakarrik, zerura igo aurretik bezala, baizik eta bere Espirituaren ahalmenaz espazio guztiak gainditzen ditu, ez dago jada leku bakar batean bakarrik, baizik eta presente dago gizon-emakume guztien aldamenean, eta guztiek dei egin diezaiokete, alde guztietan eta historia guztian barna» (Benedikto XVI.a). Poztu gaitezen beraren hurbiltasun berrituz!

Pazkoaldiko 6. astea.

San Bernardino Sienakoa, *apaiza, frantziskotarra*.

[Apostoluen Eginak liburutik 17,15.22–18,1: Zuek ezagutu gabe gurtzen duzuen, horixe iragartzen dizuet nik. Sal 148: Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,12-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gauza asko dut oraindik zuei esateko, baina oraingoz ez zarete gai ulertzeko. Halere egiaen Espiritua etortzean, hark gidatuko zaituzte egia osoraino. Ez da bere kabuz mintzatuko, baizik eta entzungo duena esango dizue eta etorkizuna iragarriko. Hark nire aintza azalduko du, adieraziko dizuen niretik hartuko baitu.

Aitak duen gutzia nirea da; horregatik esan dizuet Espirituak niretik hartuko duela adieraziko dizuen».

**E**spiritua ez da Jesusen «oroitzapen» soil; gainera, haren «irudi-mena» da. Indar irudikagarri-edo da Espiritua, Jesusek utzi diguna, egoera berritan gertatzen garenean, bereizten eta erabaki egokia hartzen jakin dezagun, hemen eta orain, Jesusek egingo zukeen moduan, gure tokian egon izan balitz. «Etorri datorkizuen gauza berri oro interpretatuko dizue». Espirituaren presentzia, gudan, kreatoria izango da; ez, noski, Jesusena ez bezalako irakaspen bat emanez, baizik eta Jesusen irakaspen bera eskainiz, baina «haragiturik», hau da, bizi ditugun inguruabar berriei aplikaturik. Jesusek dio: «Nigandik hartuko du berak eta haren interpretazioa eskainiko dizue». Ez dugu zertan izan Jesusen «fotokopia» soil, ezta haren imitzaile mimetiko ere; baina bai beti leial haren Espirituari.

[Apostoluen Eginak liburutik 18,1-8: Haiekin gelditu zen bizitzen eta lanean, eta sinagogan eztabaidan jarduten zuen. Sal 98 [97]: Ager-tu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,16-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro».

Ikasleetako batzuek hau zioten elkarren artean: «Zer ote da esaten digun hau: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”, eta “Aitagana noa”? Zer esan nahi ote du horrako “gutxi barru” horrekin? Ez diogu antzik ere ematen zertaz ari den».

Konturatu zen Jesus galdegin nahi ziotela, eta esan zien: «Eztabaidan ari zarete zeuen artean esan dizuedan honetaz: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”. Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aieneka egongo zarete; mundua, berri, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poz bilakatuko da».

**J**esus bere bizia emateaz ari da, bere heriotzaz, ikasleei eragingo dien atsekabeaz, eta bere itzuleraz berpiztu ondoren, berriro egingo baitute topo orduan berarekin poz handiz. Hurrenkera hau gure esperientzia espiritualean berregiten da. Buru-eskaintza, nork bere buruari uko egitea, iruditzen zaigu, lehen urrats batean, «bizia galtzea» dela, pixka bat hiltzea dela –hildura– eta tristura ematen digu. Baina «gale-  
ra» hau itxurazkoa da soilik; nekoso direla ematen duten baloreak, hala nola, eskuzabaltasuna, desatxikimendua, sakrifizioa,...., izatez, nork bere bizia irabazte dira eta ingurumenean bizia sustatze. Jesusek esana da: haziak «galdu egiten du» bere bizia, baina, egiaz, irabazi egiten du eta handitu; izan ere, buru-eskaintza horrek, gure munduan bizia bizi-go izan dadin egiten du.

Pazkoaldiko 6. astea.

Santa Joakina Vedruna, *fundatzailea*

(*Karitateko Karmeldarrak*).

Santa Rita Casia-koa, *erlijiosa agustindarra*.

[Apostoluen Eginak liburutik 18, 9-18: Nire herri izango den jende asko dut Nik hiri honetan. Sal 47 [46]: Jainkoa da mundu osoaren errege.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,20-23a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aieneka egongo zarete; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poztu bilakatuko da.

Emakumea, erditzerakoan, triste egon ohi da, ordua etorri zaiolako; haurra izan ondoren, ordea, ahaztu egiten da larrialdiaz, munduari gizaki bat jaio zaiolako pozik.

Zuek ere triste zaudete orain; baina agertuko natzaizue berriro, eta poztuko zarete, eta zuen poza ez dizue inork kenduko. Egun hartan ez didazue ezer galdetuko».

**S**an Paulok idatzia: «geu ere, Espiritua hasikin dugunok, intzirika ari gara geure barnean, seme-alaben izaera betearen zain» (Erm 8,18-39). Intzirika ari gara, kreazio osoa ere ari den bezala, zeinak intziri unibertuala egiten baitu, urduri. Baina Espirituak gai egin gaitu, sumatzeko, ez dela ustea galdu izanak eragindako intziria eta deiadarra, baizik eta haurgintzako deiadarra, mundu berri bat eta Gizadi berri bat astiro erditzearen deiadarra, zeinen jaiotzan parte hartzera deituak baikara. Haurgintza horretaz mintzo zaigu Jesus. Esperantzaz bizi gara (24. txatala), intziri egitera behartzen gaituen esperantzaz –izan ere, oraino ikusten ez denaren esperantza da: Gizadi berri baten utopia–; baina sostengu gotorra duen esperantza da, gauza guztiak berri bihurtzen dituen Espirituagan.

Pazkoaldiko 6. astea.

San Desiderio, *gotzaina*.

Santa Almerinda, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 8,23-28: Liburu Santuen bidez, Jesus zela Mesias frogatu Apolok. Sal 47 [46]: Jauna da mundu osoaren errege.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,23b-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Aitar izerbait nire izenean eskatzen badiozue, emango dizue. Orain arte ez diozue ezer eskatu nire izenean. Eskatu eta hartuko duzue, zuen poza bete-betea izan dadin.

Orain arte irudi bidez hitz egin dizuet; baina badator ordua irudi bidez hitz egingo ez dizuedana, baizik eta argi eta garbi emango dizuet Aitaren berri. Egun hartan nire izenean eskatuko duzue, eta ez dizuet esaten Nik Aitari zuen alde eskatuko diodala; zeren Aitak berak maite baitzaituzte, zuek Ni maite izan nauzuelako eta Jainkoagandik etorri naizela sinetsi duzuelako.

Aitagandik irten eta mundura etorri nintzen; orain mundua utzi eta Aitagana noa berriro».

**H**au izan da Bidaliaren ibilbidea, beraren bizitzaren norabidea: «Aitagandik irten nintzen eta mundura etorri naiz. Orain mundua utzi eta Aitagana noa berriro» (Jn 16,28); «Neure eta zuen Aitagana noa, neure eta zuen Jainkoagana» (Jn 20,17). Eta guri agertzera etorri zen: zenbateraino maite gaituen Aitak, maitasunez kreatu baikintuen eta maitasunez dugu bera zain-zain. Hori baita gure zoria ere: Aitaren etxera bidean goaz, han bizi gaitezen Semeagan seme-alaba bezala. Aitaren etxea dugu geure etxe: han «xukatuko ditu gure begietako malkoak, han ez da izango heriotzarik, ez oihurik, ez nekerik, mundu zaharrarena gauza iragana izango baita» (Ap 21,4).

Pazkoaldiko 7. astea. Igoakunde

Stradako Andre Maria, jesuiten ama-elizan:  
Gesù elizan Erroman.

### § Apostoluen Eginak liburutik 1,1-11.

Teofilo maitea: Neure lehenengo liburuan, hasieratik zerura jasoa izan zen eguna arte Jesusek egin eta irakatsi zuen guztia idatzi nuen. Zerura igo aurretik, Espiritu Santuaren eraginez aginduak eman zizkien berak aukeratutako apostoluei. Jesus apostoluei agertu zitzairen bere nekaldiaren ostean eta bizirik zegoeneko frogara asko eman zien, berrogei egunez bere burua ikustera emanaz eta Jainkoaren erreinuaz hitz eginez.

Haiekin bazkaltzen ari zen batean, hau agindu zien: «Ez alde egin Jerusalemdik. Zaudete han Nik Aitaren partetik egin dizuedan agintzaria bete zain. Joanek urez bataiatu zuen; baina zuek Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak egun gutxi barru».

Orduan, bildurik zeudenek galdegin zioten: «Jauna, orain ezarriko al duzu berriro Israelgo erreinua?» Jesusek erantzun zien: «Aitak bakarrik du hori erabakitzeke ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea. Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalem, Judea osoan, Samarian eta lurraren azken mugaraino».

Hori esanik, gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu zien arte. Oraindik zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizaseme azaldu zitzaizkien ondoan, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor zerura begira? Zuen ondotik zerura igo den Jesus hori, zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe etorriko da berriro».

[Sal 47 [46]: Oihu alaien artean igo da Jainkoa, turuta-soinuz Jauna.]

### § San Paulok Efesoarrei 1,17-23.

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutze-



Pazkoaldiko 7. astea. Igokundea

Stradako Andre Maria, jesuiten ama-elizan:  
Gesù elizan Erroman.

ko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera dei egin dizuen, zein aberatsa den fededunentzat oinordekotzan prestatua duen aintza eta zein handia den sinesten dugunon alde erabiltzen duen ahalmena.

Ahalmen eta indar hori Kristogan erakutsi zuen Jainkoak, berau hilen artetik piztu eta zeruan bere eskuinaldean eserarazi zuenean. Jainkoak aginte, botere, indar eta nagusigo ororen gainetik ezarri du Kristo, eta mundu honetan ez ezik, datorren munduan ere aipa daitekeen izen ororen gainetik.

Dena jarri du Jainkoak Kristoren oinazpian, eta berau ezarri du denen gainetik Elizaren buru.

Haren gorputza da Eliza, unibertsoa erabat betetzen duen Kristok betea.

† Jesu Kristoren Ebanjelioaren bukaera San Mateoren liburutik 28, 16-20.

Aldi hartan, Hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek adierazi zien mendira. Ikusi zutenean, gurtu egin zuten; batzuk, ordea, zatlantzan zeuden.

Jesus, hurbildurik, honela mintzatu zitzaien: «Aginpide osoa eman dit Jainkoak zeru-lurretan. Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz, eta Nik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz. Eta Ni zeuekin izango nauzue gunerero munduaren azkena arte».

**J**esusen «Igokundea», gertaera desberdin bat baino gehiago, Piztueraren koroa da. Bekatuaren eta heriotzaren gainean Kristok lortutako garaipena nabarmentzen du, eta Kristoren aintza eta gorespena aurkezten, nekaldiarekin eta heriotzarekin jasan zuen umilazioaren kontrapuntu gisa. Gainera, Jesusek, gure bizitzaren eta unibertsoaren

Pazkoaldiko 7. astea. Igokunde

Stradako Andre Maria, jesuiten ama-elizan:

Gesù elizan Erroman.

Jaun bilakaturik, bere ikasleei (berauen ahuldadea eta guzti: «duda-mudak zituzten») misio edo eginkizun bat gomendatu die, bera bidelagun izango dutela hitzemanetz.

Lukasen kontaeran, ikasleek ikusi duten azken gauza, Jesusen eskuak izan dira, bedeinkazioa ematen (Lk 24,51). Bedeinkazioa ematea, Liburu Santuetan, agur esateko era bat da (Hasiera 24,60; 28,11), baina, beti ere, agurtzen ditueni onarpen babesgarri bat eskainiz; horregatik, agur-bedeinkazio honek ez die eragin ikasleei tristurarik.

Eukaristia bakoitzaren bukaeran, egia esateko, ez zaigu agurrik esaten, baizik eta bedeinkatu egiten gaituzte. Aitarengana itzuli den eta bere aintzatik Espiritu Santua bidaltzen digun Jesus Jaunak bereei eman dien bedeinkazioa gogorarazten digute. Kristau guztiak animatzen dituen bedeinkazioa da, beren bizieraz kalean azal dezaten aldrean ospatu dutena: Kristo piztu da, bizi da, itzuliko da! Berpiztuaren lekuko –gutaz fidatu da gure ahuldadea eta guzti– izateko, misiorako, bedeinkatzen gaituzte.

Santa Bizenta Maria Lopez Bikuña (Kaskante 1847-Burgos 1890), *birjina, fundatzailea* (Maria Sortzez Garbiaren Erlijosak).\*

[Apostoluen Eginak liburutik 19,1-8: Hartu al zenuten Espiritu Santua, sinetsi zenutenean? Sal 68 [67]: Munduko erreinuak, kanta Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,29-33.

Aldi hartan, ikasleek esan zioten Jesusi: «Orain bai argi hitz egiten duzula, eta ez irudi bidez. Orain badakigu dena dakizula eta ez duzula inork galdetu beharrik; horregatik sinesten dugu Jainkoagandik etorri zarela».

Jesusek erantzun zien: «Orain sinesten duzuela? Hara, badator ordua, hobeki esan, etorria da, nor bere aldetik joanez sakabanatu eta Ni bakarrik utziko nauzuen ordua. Baina Ni ez nago bakarrik, neurekin baitut Aita.

Hau esan dizuet, nigan bakea izan dezazuen. Izango duzue larrial-dirik munduan; baina izan adore, garaitu dut Nik mundua».

«**M**unduan borrokatu beharra izango duzue». Jesusi jarraitzea ez da arrosa-koloreko gauza. Behin baino gehiagotan erasoko digu «Jesus, bera bakarrik uzteko» tentazioak. Baina ez genuke bihozgabetu behar, tentazioak ditugulako. Jesusek ere jasan zituen eta garaile irten zen eta Aitaren borondatea zerbitzu-senaz, zorrotzago, betetzeko asmoaz. Tentazioak –gainditua denean– hazarazi egiten gaitu Jainkoaren begietan, sendotasuna eta jatorritasuna sortzen ditu. Tentazioak zaildu egiten du pertsona: aukera izaten da norberaren nortasuna finkatzeko. Horregatik, Jesusek, otoitz egiten irakatsi digunean, GURE AITAn, ez digu esaten tentaziorik ez izatea eskatu behar dugunik, baizik eta ez gaitzeला hartan erori. Eta beti, tentazio artean, Jesusek gogorarazi digu: «Izan bihotz, bizi bakea. Garaitu dut nik mundua».

\* San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea, beneditarra*.  
San Gregorio VII.a, *aita santua, beneditarra*.  
Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina*.

Pazkoaldiko 7. astea.

San Felipe Neri, *fundatzailea* (Oratoriokoak).

[Apostoluen Eginak liburutik 20,17-27: Neure ibilaldia burutu eta Jesus Jaunak eman didan egitekoa bete behar dut. Sal 68 [67]: Munduko erreinuak, kanta Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,1-11a.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta esan zuen: «Aita, iritsi da ordua. Ager ezazu zeure Semearen aintza, Semeak zure aintza ager dezan. Gizon-emakume guztien gain aginpidea eman diozunez gero, betiko bizia eman diezaiela Zuk berari emandakoei. Hau da betiko bizia: Zu, egiazko Jainko bakar hori, eta Zuk bidalitako Jesus Mesias ezagutzea.

Nik zure aintza agertu dut munduan, Zuk eman zenidan egitekoa betez. Orain, Aita, emadazu aintza zeure ondoan, eman mundua mundu izan baino lehen zure ondoan nuen aintza.

Agertu diet zure izena mundutik bereizi eta eman zenizkidan gizon-emakumeei. Zeureak zenituen, Zuk niri eman zenizkidan, eta haiek onartu dute zure hitza. Badakite orain Zuk eman didazun guztia zugandik datorrela. Zuk niri eman zenizkidan hitzak eman dizkiet Nik, eta hauek onartu dituzte. Eta benetan jakin dute zugandik atera nintzela, eta sinetsi Zuk bidali ninduzula. Hauen alde erregutzen dizut; ez dut munduaren alde erregutzen, Zuk eman dizkizadunon alde baizik, zureak direlako. Bai, dudan guztia zurea da eta Zuk duzuna nirea, eta hauengan agertu da nire aintza. Ez naiz aurrerantzean munduan egongo; hauek, bai, munduan jarraituko dute. Ni, berriz, zugana noa».

**J**esusen apaiz-otoitza hasi dugu. Joan ebanjelariak xheki deskribatu du une hori: ordua da, mundu honetatik Aitagana igarotzeko ordua: bereak azkeneraino maite izan zituen ordua; ordua, zeinetan konturatu baitzen «Jainkoagandik etorri zela eta Jainkoagana itzultze-

Pazkoaldiko 7. astea.

San Felipe Neri, *fundatzailea (Oratoriokoak)*.

ra zihoala»; aintzatzearen ordua da («Iritsi da ordua: ager ezazu zeure Semearen aintza, zure Semeak zurea ager dezan»); bere bizia eskaintzeko ordua da («bizia eman diezaien gomendatu dizkiozun guztiei»). Ordu horretan, bere bizi-eskaintza jada hurbil duela, Jesusek otoitzari eman dio bereengatik... gugatik (7,20). Utz diezaiogun, blaitu gaitzan, Jesusek gure alde ari duen otoitzak.

\*\*\*

### San Felipe Neri

Florentzian jaio zen Felipe 1515-07-22an. Txikitatik agertu zuen otoitz-zaletasuna. Domingotarren San Marco komentutik hurbil bizi zen, eta gustukoa izaten zuen hara joatea. 18 urteko zela, aitak merkataritza-lanbidea ikastera bidali zuen. Laster utzi zuen, ordea, lan hura, eta Montecassinora erretiratu zen. Hango otoitz-giroan argi ikusi zuen bere bokazioa. Erromara joan zen 1533an, ez diru, ez inolako egitasmo; Jainkoaren arduraren fidaturik. Florentziako jaun baten etxean jarri zen bizitzen; haren semeak heziz saiatu zen gastuetarako ateratzen. 1535ean filosofia eta teologia ikasten hasi zen. Laster, aski bazekielana-eta, apostolutzari ekin zion. Harrigarria zuen bere umorea. Ezagunak agurtzeko era berezia zuen: «Kaixo, anaiok, noiz hasi behar dugu hobeak izaten?» Oso soil eta neurritsu bizi zen. Askotan penitentzia handiak eginez ere bai. Hiltzean konturatu ziren, bi saiheits-hezur puskatu zituela. Baina apostolutza zuen kaskoan. Bere aitor-entzuleak apaiz egitera eragin zion. Bien artean, Hirutasun Santuaren kofradia fundatu zuten erromesentzat. 1551n apaiztu zen. Ohiko apostolutzari, aitorlekua gehitu zion. Asko azpimarratu ohi zuen otoitza. Esan ohi zuen: «Otoitzik gabeko gizona arrazoirik gabeko animalia da». Bere biziera horrek Oratorio delakoa sortzera eramane zuen. Une batean debekatu zioten predikatzea eta aitorlekuan jartzea ere. Baina laster bukatu zen debekua. 1595ean hil zen. Ordurako «Erromako apostolu» izena emane zioten. 1622an santu deklaratu zuen Gregorio XV.ak.

Pazkoaldiko 7. astea.

San Agustin Canterburykoa, *gotzaina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 20,28-38: Jainkoaren eskuetan uzten zaituztet; hark badu ahalmen eraikitzeko eta oinordekotza emateko. Sal 68 [67] Munduko erreinuak, kanta Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,11b-19.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu horrek, zaindu itzazu zeure ahalmenaz Zeuk eman dizkidazunok, bat izan daitezen Gu Geu bat garen bezala. Hauekin izan naizen bitartean, Nik zaindu ditut zeure izenean eman dizkidazunok. Hauen ardura izan dut eta ez da bat ere galdu, galdu behar zuena bai-zik; horrela, Liburu Santuek diotena bete da.

Orain, ordea, zugana noa. Oraindik munduan nagoela esaten dut hau guztia, nire poza berengan izan dezaten, eta bete-betea izan dezaten. Zure hitza eman diet Nik; baina munduak gorroto die, mundukoak ez direlako, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Ez dizut eskatzen hauek mundutik ateratzeko, Gaiztoagandik gordetzeko baizik. Ez dira mundukoak, Ni ere mundukoa ez naizen bezala.

Sagara itzazu egia bidez; zure hitza da egia. Ni mundura bidali ninduzun bezala, Nik ere mundura bidali ditut. Eta hauengatik sagaritzen dizut neure burua, hauek ere sagara ditzazun egia bidez».

**F**ededunek beren artean bizi behar duten batasuna azpimarratu du Jesusek: Aitaren eta Semearen arteko batasunaren isla jator izan beharko luke. Batasun horrek sinesgarri egingo gaitu munduaren begietan, honetara bidaliak baikara. Zeren eta Jainkoak ez baikaitu santu egiten mundutik «bereiziz», baina bai hartan bizi den gaitzetik liberatuz. Etengabeko bereizmena eskatzen du horrek, Espirituak lagundurik. Izan ere, munduko egitura anbiguen artean bizi beharra dugu. Eta horrela funtzionatzen du munduak, zeinetatik ez baikaitu Jesusek atera; beraz, baliabideen beharra dugu, kultura-beharra, aginpidea ukaitea, geure tasunak garatzea... eta guzti-guztia Jainkoaren aintzarik handienerako. Arriskua, ordea, «edukitzearen» eta «ixtura izatearen» mundu honetan berrintzertzekoa dugu, eta gatz gezatu bihurtzekoa.

Pazkoaldiko 7. astea.

San Justo, *gotzaina*.San Viktor, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 22,30; 23,6-11: Erroman ere nire testigu izan behar duzu. Sal 16 [15]: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,20-26.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu hori, ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita hauen hitzaren bidez nigan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu denak bat izan daitezela. Aita, Zu nirekin eta Ni zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin, munduak sinets dezan Zuk bidali nauzula.

Zuk eman zenidan aintza bera eman diet Nik, bat izan daitezen, Gu biok bat garen bezala: Ni hauekin bat eta Zu nirekin bat. Horrela guztiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du Zuk bidali nauzula eta Ni maitatu nauzun bezala maitatu dituzula hauek ere.

Aita, Zuk eman dizkidazunak Ni nagoen tokian nirekin egotea nahi dut, nire aintza, mundua izan baino lehen maite izan nauzulako eman didazun aintza, ikus dezaten.

Aita zuzen hori, munduak ez zaitu ezagutu; Nik, ordea, ezagutu zaitut, eta hauek jakin dute Zuk bidali nauzula. Jakinarazi diet zure izena, eta aurrerantzean ere jakinaraziko, Zuk niri didazun maitasuna hauengan izan dadin, eta Ni ere hauengan izan nadin».

**K**ristauen batasun-eza eskandalu bat da; Jainkoaren asmoaren eta Kristoren borondatearen kontrakoa, eta kaltegarri ebanjelioa hots egitearentzat. Horixe aldarrikatu zuen, atsekabez, Vatikanoko II.a kontzilioak, ekumenismoari dagokion dekretuan. Ordudanik, urrats garrantzizko asko egin da Eliza katolikoaren eta beste Eliza eta kristau-elkarteen artean. Baina elkartasun osoa (zeinen ikonoa Hirutasuna baita) oso urrun dago oraino. Kristoren deiadarrak, «guztiak bat izan daitez-

Pazkoaldiko 7. astea.

San Justo, *gotzaina*.

San Viktor, *martiria*.

la, zu, Aita, nigan eta ni zukan bezala» delakoak, bihotz-zimiko zorrotz izaten jarraitzen du. Teologoek arteko elkarrizketak jarraitu beharra du. Baina, bestean aldetik, «ekumenismo espiritual (edota otoitzezkoa) sustatzen saiatu beharko genuke –bereziki beste kristauekin–: horixe da mugimendu ekumenikoaren arima.

\*\*\*

### Mundu osoan bizikide

Jainko Aita eta Ama,  
 «aldi guztietako gizon-emakumeen,  
 batez ere behartsuen eta atsekabetuen,  
 poza eta esperantza, tristura eta larria» (Gaudium et spes, 1)  
 besarkatzera dei egin diguzu;  
 lagundu iezaguzu,  
 zure Semeak bere mundualdian  
 bizi izan zituen biziera eta azken zoria  
 gogoan izanik,  
 egin dezagula geure zure dei hori  
 eta nabaritu dezala poz-pezik gukan jarrera hori  
 inguruan dugun jende guztiak.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure bidelagunaren bidez. Amen.



[Apostoluen Eginak liburutik 25,13-21: Hila den eta Paulok bizi dela dioen Jesus. Sal 103 [102]: Jaunak zeruan ezarri du bere aulkia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,15-19.

Jesusek, ikasleei agertu eta haiekin gosaldu ondoren, esan zion Simon Pedrori: «Simon, Joanen semea, hauek baino maiteago al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Bazka itzazu nire bildotsak».

Bigarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Zaindu itzazu nire ardiak».

Hirugarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenez galdetu ziolako, eta erantzun zion: «Jauna, Zuk dena dakizu; Zuk badakizu maite zaitudala». Orduan, Jesusek esan zion: «Bazka itzazu nire ardiak. Bene-benetan diotsut: gazteago zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa eta nahi zenuen tokira joaten zinen; zahartzean, ordea, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko dizu gerrikoa eta nahi izango ez duzun tokira eramango zaitu».

Horrela, zer-nolako heriotzaz Jainkoari aintza emango zion adierazi zuen Jesusek. Ondoren, esan zion: «Jarraitu niri».

**B**ukatzera goaz, bai Pazkoaldia, bai Jesusen agur-hitzaldiaren irakurketa. Azken honetan zenbat maite gaituen ahogozatu dugu: «Aitak ni maite nauen bezala, hala maite zaituztet nik zuek». Eta bukaeran, bereari erantzutera gonbidatu gaitu, eta, Pedrori bezala, galdera egin digu: «Maite al nauzu?» Zer erantzungo diogu? Burua makurtuz, baina konfiantza osoaz, esango diogu: «Dena dakizu zuk nitaz, eta badakizu, nire ahuldadeak eta guzti, maite-maite zaitudala». Eta berak, neure eguneroko gorabeheren bidez –Pedrori ontzian, sareen artean eta gainerako tresneria artean bezala– bere deia «berretsiko dit»: «jarrai ieza dazu». Eta beste behin, gainerakoengana joateko esango dit, haiengan nahi duela nik bera maita dezadan: Maita ezazue batak bestea...

Pazkoaldiko 7. astea.

San Fernando III.a, *erregea*.

Santa Joana Arc-ekoa, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 28,16-20.30-31: Erroman gelditu zen, Jainkoaren erreinua hots egiten. Sal 11 [10]: Zuzenek ikusiko dute, Jauna, zure aurpegia. ]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,20-25.

Aldi hartan, Pedrok, itzuli eta Jesusek maite zuen ikaslea ondoren zetorrela ikusi zuen, afarikoan, Jesusen bular gainean jarririk, «Jauna, nor da salduko zaituena?» galdetu ziona. Hura ikusi zuenean, bada, Pedrok galdetu zion Jesusi: «Jauna, eta hori zer?» Jesusek erantzun zion:

«Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer? Zuk jarraitu niri».

Hitz hauek zirela eta, ikasle hura hilko ez zelako zurrumurrua sortu zen senideen artean. Jesusek, ordea, ez zion esan ez zela hilko, beste hau baizik: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer?»

Ikasle huraxe da gauza hauez guztiez testigantza egiten duena eta idatzi dituena, eta badakigu egiazkoa dela haren testigantza.

Beste gauza asko ere egin zuen Jesusek. Guztiak banan-banan bilduko balira, nik uste, mundu osoan ere ez liratekeela sartuko idatz litezkeen liburuak.

**J**akina, beti ahal dugu –eta behar dugu– ikasi besteengandik. Baina ikaste horrek, geugan dugun gauzarik hoberena ateratzeko balio izan behar digu. Guzti-guztiok baititugu dohain bereziak. Jainkoak, Buztingileak (Is 45,9; 64,8; Erm 9,20-21; Sal 99,3), ez gaitu kreatu seriean ekoizteko edo produzitzeko. Artzain Onak nori bere izenaz dei egiten digu. Jesusek ez du nahi geure abildade eta gaitasunak lurpera ditzagun. Harentzat gutako bakoitza bakar gara eta besterik ez bezalako. Jaunak berari jarraitzera dei egin digu, geure dohainak berari itzuliz; nor bere bidea egitera dei egin digu, beraren bidea berak egin zuen bezala eginez; zain egon gabe ikusminez edo bekaizkeriaz –Pedro egon dela ematen duen bezala– gainerakoei zer eskatuko dien: «Zuk, jarraitu neuri!», esan digu.

## § Apostoluen Eginak liburutik 2,1-11

Mendekoste-eguna iritsi zenean, leku berean bildurik zeuden ikasle guztiak. Bat-batean, haize-bolada indartsu batena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta ikasleak zeuden etxe guztia bete zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk agertu zitzaizkien, eta, banatuz, bakoitzaren gainean kokatu ziren. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion bezala.

Bazen egun haietan Jerusalemen judu jainkozalerik asko, zerupean diren herri guztietakoak. Burrunba hura entzutean, jendetza handia bildu zen eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien.

Harri eta zur, honela zioten: «Mintzo direnok, ez al dira guztiak galilearrak? Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak geure jatorriko hizkuntzan? Gure artean badira partiarrek, mediarrek eta elamdarrak; baita Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponton eta Asian bizi direnak ere; badira Frigiakoak eta Panfiliakoak, Egiptokoak eta Zirene inguruko Libiakoak, baita erromatarrak ere; eta denok, judu nahiz judu berri, kretar nahiz arabiar, geure hizkuntzan entzuten diegu Jainkoaren egintza harrigarriak hots egiten».

[Sal 104 [103]: Zeure arnasa bidal gugana eta lur-azala berritu, Jauna.]

## § San Paulok 1 Korintoarrei 12,3b-7.12-13.

Senideok: Ezin du inork esan «Jesus da Jauna!» Espiritu Santuak eraginda ez bada. Era askotakoak dira dohainak, baina bat bakarra Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten duena. Bakoitzari denen onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren dohainak.

Pazkoaldiko 8. astea.

**MENDEKOSTE.** Andre Mariaren Ikustaldia Elisabeti.

Santa Gertrudis, *aitorlea*. San Noe Mawaggali, *martiria*.

San Eduardo Cestak (1801-1868), *Baiona, apaiza eta fundatzailea*,

Gorputzak, bat izanik ere, atal asko du; baina atal guztiek, asko izanik ere, gorputz bat bakarra osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat berarengan izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu.

### NEURTITZA

Zatoz, bai, Gogo Guren eta bidal zerutik  
zeure argi-izpia. Zatoz, gaixoen aita, zatoz, dohain-emaile, zatoz,  
bihotzen argi.  
Poz-emaile bikaina, etxelagun atsegin, sargorian haize fin. Lan ar-  
tean atsedean, nekean aringarri, malkoetan pozgarri.  
Bete, argi dohatsu, zintzoen bihotzeko zirrikiturik barnena. Zure  
laguntza gabe, ez du gizakiak ezer, ez du ezer on denik.  
Garbi zikin dagoena, busti lehor dagoena, zauriak oro senda.  
Zurrun dena bigundu, makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.  
Zugan uste on duten zintzoei isuri zazpi dohain zerutik. Zintzo sa-  
ria eman, osasun hil artean, poza betierez betiere.  
Amen. Aleluia.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,19-23.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarriarik, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, hala bidaltzen zaituztet Nik zuek». Eta haien gainera arnasa botatz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenen, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenen, ukatu egingo die».

**E**spiritua ematea, Pazko Misterioaren gailurra da.

Espiritua Jainkoaren indar berritzailea da: «bizi-emailea», «haize» aske eta burrundaratsua, «arnasa», «su-mihia». Bere egitekoa, askotarikotasunean elkartasuna eraikitzea du. Adiskidetzaila da: Elizari jaulkitako dohaina da, gizakiak Jainkoagandik eta beren artean aldentzen dituzten bekatuak kentzeko. Espiritua Maitasun-dohaina da: Maitasun-dohainaren lehen egintza barkazioa da.

Berriztapen eraldatzailea, misio adiskidetzaila eta elkarte-sortzailea: hori da Espirituak Elizan eta berau osatzen duten fededunetako bakoitzean eta bidali bezala gomendatu dien misioan burutzen duen eginkizuna. Bidelagun dugu misio horretan, adorea emanez eta lur joaraziz geure gotorlekutze beldurtiei.


Adiskidetzaille eta elkarte-egile bagara, Espirituaren dinamikan sartuak gara. Eskerrak eman beharrean gara, beraz, ematen dizkigun dohainengatik; erregalu huts bezala, harrokeriarik gabe hartu beharreko ditugu, goitik etorriak direlako. Aintzat hartu beharrekoak ditugu Jainkoaren dohainak besteengan ere, bekaizkeriarik gabe, erregalu direlako niretzat ere. Baliatu beharreko ditugu, zuloan ezkutatu orde: neure dohainak eta besterenak. Hala ez bada, Espiritua «itzaltzen ari gara»! (1 Ts 5,19).



## **EKAINA / BAGILA**

**AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:**  
Bihotzaren bidea.

**Egin dezagun otoitz:** Sufritzen ari direnek bizi-bidea aurki dezaten,  
Jesusen Bihotzak uki ditzan utzirik.



Urteko 9. astea.  
San Justino, *martiria*

[San Pedroren 2. gutunaren hasiera 1, 2-7: Agindutako ondasun baliotsu eta bikainak eman dizkigu, horien bidez Jainkoaren izaeran parte izan dezagun. Sal 91 [90]: Ene Jainko, zugan dut nik konfiantza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 1-12.

Aldi hartan, Jesus parabola bidez hitz egiten hasi zitzaien apaizburuei, lege-maisuei eta herriko zaharrei: «Gizon batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu, bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen. Gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen.

Bere garaian, morroi bat bidali zien nekazariei, mahastiko fruitutik zegokion partea jasotzera; baina haiek morroiari heldu, jo eta esku hutsik bidali zuten. Berrito beste morroi bat bidali zien; hau ere buruan jo eta irainez bete zuten. Beste bat ere bidali zien geroago, eta hil egin zuten. Ondoren, beste asko bidali zizkien, eta batzuk jo eta besteak hil egin zituzten.

Bazuen oraindik beste norbait, bere seme maitea, eta huraxe bidali zien azkenik, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”. Nekazariak, ordea, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk! Hil dezagun eta mahastiaren jabe izango gaituk”. Hartu, hil eta mahastitik kanpora bota zuten.

Zer egingo ote du mahasti-jabeak? Joan eta garbitu egingo ditu nekazari horiek, eta mahastia beste batzuen esku utziko. Ez al duzue Liburu Santuetako hura irakurri: “Etxegileek baztertutako harria gilzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?”»

Apaizburu eta herriko zaharrak Jesus atxilotu nahian zebiltzan, ongi jabetu baitziren beraiengatik esan zuela parabola hura. Baina jendearen beldurrez, utzi eta alde egin zuten.

**J**esuitek, Mendekoste ondoko astelehenean, San Ignazioren zauria ospatzen dugu. Iruñean kanoi-balak herren utzi zuen hura, erabat



Urteko 9. astea.

San Justino, *martiria*

suntsitu baitzion gertaera hark kaskoan zerabilen ametzeko mundu lehiakor hura, zaldun bezala Erregearen gortean. Biziraun zezakeen Ignaziok herren arnegatu bezala bizitza guztirako. Baina bere gaixoaldia irakurriz eman zuen eta Jesusen bizitza bere bizipen eginez. Horrela sortu zen beraren konbertsioa, Ignaziok honela definitua: «bideari ekiteko grazia». «Kanoikada» hark San Pauloren esaldi hau egiaztatzen balio izan zuen: «Badakigu Jainkoak bera maite dutenen onerako bideratzen dituela gauza guztiak» (Erm 8,28). Eta gu? «Tiro egin» al digu Jaunak «kanoikadaren bat», hasierako ezbeharrak eta guzti, gure onerako izan denik?

\*\*\*

### San Justino martiria

Justino Samarian jaio zen II. mende-hasieran. Familia paganoan. Kristau egirik, kristau filosofo deitu izan zaio. Behin behineko giza jakinduriaren eta kristau-errebelazioaren irakaspenen sintesia egiten saiatu direnetakoa da. Kristau-predikari konbentzitu izan zen. Bere pentsatu behar hartan lortutakoa jakitera emateko, bi Apologia idatzi zituen. Besterik ere idatzi zuen, ordea. Besteak beste, Diálogo con Trifón delakoa. Berak eman zion hasiera juduen aurkako literaturari. Baina guretzat garrantzizkoenak bi Apologiak dira; hauetan deskribatzen digu nola azaltzen zuten kristauak hasiera hartan kristautasuna eta nola ospatzen zituzten Bataioa eta Eukaristia; liburu hauetan ez da argudio filosofikorik ageri, baizik eta testigantza hunkigarria; bere burua zorioneko sentitzen du giro horretan. Jarrera horrek bizia eman beharra ekarriko zion. Hain zuzen, Erromara joana zen, eta beste filosofo batek, zeinekin eztabaida handiak izan baitzituen, salatu egin zuen. Justino juzkatu eta kondenatu zuen epailea ere filosofoa zen, baina harentzat kristau besterik ez zen Justino, eta kristau guztiak bezala lepo egin beharra.

Urteko 9. astea.

San Martzelino, *apaiza*, eta San Pedro, *exorzista, martiriak*.

[San Pedroren 2. gutunetik 3, 12-15a. 17-18: Zeru berriak eta lur berria itxaro ditugu. Sal 90 [89]: Jauna, gure ihesleku Zu izan zara gizalditik gizaldira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 13-17.

Aldi hartan, fariseuen eta Herodesen alderdiko batzuk bidali zizkioten Jesusi, hitzen batean harrapatzeko asmoz. Etorri eta esan zioten: «Maisu, badakigu egiazale zarela eta ez dizula axolarik inoren zeresanak; Zuk ez diozu gizakiaren itxurari begiraten, baizik eta Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzu. Zilegi da Zesarri zerga ordaintzea ala ez? Ordaindu behar diogu ala ez?»

Baina Jesusek, haien azpikeriaz oharturik, esan zien: «Zergatik zatzokidate zirika? Ekarrri txanpon bat, ikusteko». Ekarrri zioten, eta Jesusek galdetu zien: «Norenak dira irudi eta izen hauek?» Haiek erantzun: «Zesarrenak».

Jesusek, orduan: «Emaiozue Zesarri Zesarrena eta Jainkoari Jainkoarena». Eta txunditurik gelditu ziren.

**J**esusek bere erantzunean fariseuek eta herodestarrek beren galderan planteatu ez duten gai bat tartekatu du: «*eman Jainkoari Jainkoarena*». Botere tenporala jainkatzeko eta absolututzat emateko ahalegin oro gaitzetsi du zeharka: Jainkoak bakarrik eskatzen ahal dio gizakiari den-dena. Honek ez du esan nahi, bistan da –askoz gutxiago gure garai honetan, guztiz Jesusena ez bezalakoa den testuinguru honetan–, aitortu behar ez denik hiri sekularraren eta beronen eskubide legezko eta eztabaidaezinen autonomia: «*eman Zesarri Zesarrena*». Boterea, zuzenetsia denean eta bere mugapean zertzen eta gizabidez garatzen denean, obeditu beharrekoa da. Bestelakoetan, apostoluek Sanedrinarri (juduen lege-biltzarrari) esandakoa oihukatu beharko genuke: «*Jainkoari behar zaio obeditu gizakiari baino lehen*» (Eginak 5,29).

Urteko 9. astea.

San Joan XXIII.a, *aita santua*.Lwangako San Karlos eta lagunak, *martiriak*.

[San Paulok 2 Timoteori 1, 1-3. 6-12: Indarberri ezazu nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina. Sal 123 [122]: Zugana jasotzen ditut, Jauna, begiak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 18-27.

Aldi hartan, saduzear batzuk etorri zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla). Eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: “Norbaiti anaia hiltzen bazaio, emaztea seme-alabarik gabe utziz, ezkon bedi alargunarekin, anaia ondorengo emateko”.

Behin batean, baziren zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena alargunarekin ezkondu zen, eta seme-alabarik gabe hil zen; berdin hirugarrena ere. Horrela, zazpiak ondorengorik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, hildakoak piztuko omen direnean, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?»

Jesusek erantzun zien: «Ez ote zabiltzate oker, Liburu Santuek dioten hori eta Jainkoaren ahalmena ezagutzen ez dituzuelako? Izan ere, hildakoak piztean, ez da inor ezkonduko; zeruko aingeruak bezala izango dira denak. Gainera, hildakoen piztueraz, ez al duzue irakurri Moisesen liburuan, sasia sutan zegoeneko pasartean, Jainkoak berak nola esaten dion: “Ni Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoben Jainkoa naiz”? Ez da hilen Jainkoa, biziena baizik. Oker zaudete oso».

**P**iztuera ez da oraingo bizitza honen luzapen soila, baizik eta bizitza eraldatu bat. Piztueraz dugun fedea Jainkoak gizakiarekin egin nahi izan duen elkargoan oinarritzen da; gizakia oso-osorik hartzen duen (gorputz eta arima) eta espazioa eta aldia baino harago doan elkargoa da. Horregatik, bizi direnen Jainkoa da. Nolakoa izango den

Urteko 9. astea.

San Joan XXIII.a, *aita santua*.

Lwangako San Karlos eta lagunak, *martiriak*.

**bizi berri hori? Ezin imajinatu dugu geure giza ahalmen mugatuez. Baina misterioak ez du esperantza iluntzen: soilik, apaltasunera gonbidatzen gaitu eta gogoan izatera lurrean oraindik ere errones garela (ahul eta mugatu). Espero dugun bizi berri horren zer-nolako zehatza argitu ezin badugu ere, esperantza geratzen zaigu, irmo sostengatua Jainko adiskidearen leialtasunean.**

\*\*\*

### San Joan XXIII.a aita santua

Bere izena Angelo Giuseppe Roncalli zuen. Bergamon (Italia) jaio zen 1881ean. Mundu guztiarentzat «Gizon on bat izan zen», txikitatik jainkozaletasun handikoa. Ustekabeko eragina izan zuen Elizan eta mundu osoan. Bakezale handia eta Vatikanoko II.a Kontzilioa abian ipini zuena. Gogoangarriak dira beraren bi entziklika hauek: *Pacem in terris* eta *Mater et Magistra*.

1895ean hasi zuen bere «Arimaren egunkaria». Gogoetsu ageri da, Andre Mariaren zale. Bernardino, Luis Gonzaga, Estanislao de Kostka eta Joan Berchmans santuak oso gogoko. Sentiberatasun handia nabari zaio Kristorekiko, Elizarekiko, bere familiarekiko eta giza-di osoarekiko maitasunean.

1905ean apaiztu zen. Kargu asko eta handiak bete behar izan zituen. 1953an Veneziako patriarka izendatu zuten eta kardinal. 1958an aita santu aukeratu zuten, 77 urteko zela. Inori ez zitzaion otu, egingo zuena egiten ahaliko zuenik. Berak ere ez; hala zioen: «Ezin jarri naiz denboran urrunera begira». Izendatu zutenetik hiru hilabetera deitu zuen Kontzilioa, 1962ko urriaren 11n hasiko zena. Hil aurretik esana du: «Bizitzan gehiena balio duena Jesu Kristo bedeinkatua da, beraren Eliza santua, beraren Ebanjelioa, egia eta ontasuna». 1963ko ekainaren 3an hil zen. Frantzisko aita santuak santu deklaratu zuen 2014-04-27an. (*ZENIT 2014-06-03tik hartutako izpiak*).

## § Isaias Profetaren liburutik 52, 13–53, 12.

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, gorengo mailara jaso izango da. Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrিতුko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontatu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko.

Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena? Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargarririk; mespretxatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mespretxatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez.

Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eraman. Guk, berriz, zigortuzat geneukan, Jainkoak zauritu eta atsekabetuztat. Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra: haren zauriek sendatu gaituzte.

Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza geure bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua. Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu.

Gogorki eta zuzengabe eraman zuten; baina haren zoria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekeriarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan. Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bitzta luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta ase izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen.

Urteko 9. astea.

**JESU KRISTO GURE JAUNA,**

**BETIEREKO APAIZ NAGUSIA.** San Frantzisko Caracciolo,  
*fundatzailea (Arauzko Kleriko Txikiak).*

---

Horregatik, jendetza ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kideztat hartu zutelako. Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

[Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

§ Hebrearrei idazkitik 10,12-23.

Jesu Kristo, opari bat bakarra bekatuengatik eskaini ondoren, Jainkoaren eskuinaldean eseri zen behin betiko. Eta, orain, Jainkoak etsaiak oin-aulkitzat noiz jarriko dizkion itxaroten dago. Izan ere, opari bakar baten bidez beren betera eraman ditu Jainkoarentzat behin betiko sagaratuak direnak. Aitorpen bera egiten digu Espiritu Santuak ere, hau esatean:

Hona hemen etorkizunean  
haiekin egingo dudana ituna:  
Bihotzean ezarriko dizkiet  
neure legeak, buruan idatziko.  
Hala diot nik, Jaunak.  
Eta haien bekatuak eta gaiztakeriak  
ez ditut gehiago gogoratuko.

Horrela bada, bekatuak barkaturik daudenean, ez da bekatuen barkamenerako opari beharrik. Beraz, senideok, Jesu Kristoren odolari esker konfiantza dugu santutegian sartzeko, Jesusek errezelean barrena –hau da, bere gorputzean barrena– bide berri eta bizia ireki baitigu. Jesus apaiz handia Jainkoaren etxeko buru dugunez, hurbil gakizkion bihotz zintzoz eta sinesmen osoz, barrua bekatu-kontzientzia guztitik garbiturik eta gorputza ur garbiz txukundurik. Iraun dezagun sendo itxaropena aitortuz, leiala da-eta hitza eman diguna.

# 4

Osteguna / Eguena

EKAINA / BAGILA

Urteko 9. astea.

JESU KRISTO GURE JAUNA,

BETIEREKO APAIZ NAGUSIA. San Frantzisko Caracciolo,  
*fundatzailea (Arauzko Klerigo Txikiak).*

† Jesus Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 22,14-20.

Ordua etorri zenean, Jesus mahaian jarri zen apostoluekin eta esan zien: «Banuen gogoan, sufritu aurretik pazkoa-afari hau zuekin egiteko. Hara zer diotsuedan: ez dut gehiago Pazkoa ospatuko, hau Jainkoaren erreinuan bere betera iritsi arte». Eta edalontzi bat hartu, esker onezko otoitza egin eta esan zuen: «Hartzazue eta banatu zeuen artean. Hara zer diotsuedan: ez dut gaurdanik gehiago ardo honetatik edango, Jainkoaren erreinua iritsi arte». Gero, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu eta eman zien, esanez: «Hau nire Gorputza da, zuentzat emango dena. Egizue hau nire oroigarri». Afal ondoan gauza bera egin zuen edalontziarekin, esanez: «Edalontzi hau itun berria da, zuentzat isuriko den nire Odolaz ezarria.

**E**ukaristia buru-eskaintza baten oroitzapena da, buru-eskaintza egitera zirikatzen gaitu: Kristo bizi izan zen bezala bizitzera. Ospakizun horretan parte hartzen duten guztientzat da hori. Partikularki, ordea, batzarburu den apaizari dagokio. Egun honetan, apaizen alde erregutzeko eskatzen digu Elizak. Beroriek oso jabeturik daude ezen buztin-ontzian daramatela altxor bat. Horregatik dute gure otoitzen premia. Erregutu dezagun, gauzatu dadila beraien bizitzan Eukaristian ospatzen dutena. Oso egoki adierazi du Uriarte monsinoreak: «Ezin ordezkatu du inork emankorki Zerbitzaria, buru-eskaintza egiteari dagokionez, Zerbitzari berarekin ogi bihurtzen ez bada anai-arrebentzat. Horrela, Eukaristian batzarburu izatea erronka bihurtzen da; izan ere, berekin du bere burua erabat ematearen dohaina, Zerbitzariaren urratsi jarraituz. Batzarburu denak Kristo apaiz eta biktima ordezkatzeko du».

Urteko 9. astea.

San Bonifazio, *beneditarra, gotzaina eta martiria.*

[San Paulok 2 Timoteori 3, 10-17: Jesu Kristoren jarraitzaile zintzo bezala bizi nahi duten guztiek izango dituzte erasoaldiak. Sal 119 [118]: Gainezka dute bakea, Jauna, zure nahia maite dutenek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburitik 12, 35-37.

Aldi hartan, Jesusek, tenpluan irakasten ari zela, esan zuen: «Nola esan dezakete lege-maisuek Mesias Daviden ondorengo dela? Hona zer dioen Davidek Espiritu Santuaren argiaz: “Hona Jaunak nire Jau-nari esana: Eseri nire eskuinean, zure etsaiak oinazpian jartzen dizki-zudan bitartean”.

Davidek berak “Jauna” esaten dio; beraz, nola izan dezake bere ondorengo?» Jendetza ugariak atseginez entzuten zion.

**N**olatan izan daiteke Jesus Daviden seme, Davidek berak Jauna esaten badio? Jesusek ez du ukatu, bera, Mesias, Daviden ondorengo dela. Baina iradoki du, titulu hori ez-oso dela; izan ere, Mesias politiko eta nazionalistatza hartzera eragin zezakeen. Bere egiazko jatorria, Davidengan baino gehiago, Jainkoagan beragan du. San Paulok esana duenez: «Daviden seme da haragiaren arabera, baina Jainkoaren Seme ahaldu Espiritu santutzailearen arabera» (Erm 1,3-4). Jesus, bere ez-tabaidak elite erlijiosoekin —«adituekin»— amaitu dituenean, herri xumeagana («óchlos») itzuli da: honekin gustura sentitu ohi da, baita hau ere Jesusekin. Herriak «gozatu» egiten du haren hitzekin, ez bakarrik atsegin eta liluragarri dituelako, baita batez ere «haren hitzak bizi-e-maile» direlako (Jn 6,63).



Urteko 9. astea.

San Norberto, *gotzaina*.San Martzelino Champagnat, *fundatzailea (Maristak)*.

[San Paulok 2 Timoteo 4, 1-8: Hots egin Berri Ona. Gainean dut mundu honetatik abiatzeko ordua, eta Jaunak garaipenaren koroa emango dit. Sal 71 [70]: Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburitik 12, 38-44.

Aldi hartan, Jesusek, bere irakastaldian, esan zion jendeari: «Zabiltzate kontuz lege-maisuekin! Gogoko dute harro-harro jantzita ibiltzea eta plazetan jendearen agurrak hartzea; gogoko dituzte sinagogetan aurreneko aulkiak eta jai-otorduetan mahaiburuak. Eta, azkengabeko otoitzen aitzakiaz, alargunen ondasunak irensten dituzte. Horrelakoek epairik zorrotzeta izango dute».

Jesus tenpluko diru-kutxaren aurrean eseria zegoen, jendeak kutxara dirua nola botatzen zuen begira. Aberats askok ugari ematen zuen. Etorri zen emakume alargun behartsu bat ere, eta bi txanpon bota zituen, huskeria bat. Jesusek, ikasleei dei egin eta esan zien: «Benetan diotsuet: Alargun behartsu honek beste guztiak baino gehiago bota du kutxara. Izan ere, beste guztiak sobera dutenetik eman dute; honek, ordea, bere eskasian, zeukan guztia, bizitzeko behar zuena, eman du».

«**A**larginen ondasunak irensten» dituztenen diru-gosearen aurka, eskuzabal mugitzen den alargun behartsua goretzi du Jesusek; ez du eman sobera duenetik, baizik eta beretzat duenetik. Eta, horrela, duena ematean, bere burua eman du. Nork bere burua eman gabe zerbait emateko ahalbidea, gizakiaren (ez Jainkoaren) ahalbide triste bat da. Gizakiaren erregaluak, hori bera baino zerbait sakonagorik adieraztera deitua izanik ere –esker ona eta erregalua egiten duenaren eskaintza–, ezkutuko asmo bat gorde ohi du batzuetan: zerbait eman, nork bere burua ez emateko. Erregalua eginik, kito beste guztia. Hausnar dezagun, zenbat aldiz egin izan dugun hori guk geuk: eman dugu... geure burua ez emateko.

Urteko 10. astea.

Santa Eugenia, *martiria*.

San Roberto, *abadea*.

### § Irteera liburutik 34, 4b-6. 8-9.

Egun haietan, goizean goiz, bi harlauzak harturik, Sinai mendira igo zen Moises, Jaunak agindu bezala. Orduan, Jainko Jauna laino batean jaitsi eta Moisesekin gelditu zen, eta honek Jaunaren izenari dei egin zion. Moisesen aurretik igaro zen Jauna, hau hots eginez: «Jauna, Jauna, Jainko bihozbera eta errukitsua, haserregaitza eta onginahiz eta leialtasunez bete!»

Berehala, lurreraino ahuspeztu zen Moises eta esan zuen: «Jauna, gogoko banauzu, zatoz, arren, gurekin! Herri hau burugogorra da, bai; baina barkatu Zuk gure gaiztakeriak eta bekatuak, eta har gaitzazu zeure ondareztat».

[Sal: Dn 3, 52. 53. 54. 55. 56 (R/. 52b): Bedeinkatua Zu, Jauna, gure arbasoen Jainkoa: R/. Aintza eta gorespen zuri gizaldietan!]

### § San Paulok 2 Korintoarrei 13, 11-13.

Senideok: Poztu zaitezte, saiatu on-onak izaten eta eman elkarri adore; izan iritzi bereko eta bizi bakean. Eta maitasunaren eta bakearen Jainkoa zuekin izango da.

Agur ezazue elkar besarkada santuaz. Fededun guztiek agurtzen zaituztete. Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, Jainkoaren maitasuna eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin guztiokin.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan.

Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali, mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik. Harengan sinesten duena ez dago kondenatua; sinesten ez duena, berriz, kondenatua dago dadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako».

Urteko 10. astea.

Santa Eugenia, *martiria*.San Roberto, *abadea*.

**J**ainkoa, bere baitan, «askotarikoa» da eta «elkarrekikoa», eta beraren baitan gauzatzen den maitasun-trukea kreazioaren eta salbazioaren sorburu da. Jainkoa ez da unibertso bakarti infinitu bat; pertsona arteko elkertasuna da; sutondo-sukalde bat bezala da, familia bat bezala. Jainkoa bere izan barnekoenean bizitza partekatua da, elkarrizketa, elkarrekiko buru-eskaintza, besarkada, komunikazio maitekorra, etengabeko eta betiereko buru-eskaintza. Jainkoa maitasun-irakidura da. Bere baitan komunikazio den Jainko horrek irten egin nahi izan du bere baitatik, bere burua komunikatu eta gu kreatu. Jainkoaren egundoko egitasmoa, bere barne bizi propioa, Aitaren eta Semearen eta Espirituaren arteko dohain eta maitasun elkarrekiko den hori, partekatzea izan da, gurekin.

Maitasun hirukoitz hori geure izanaren eta zoriaren argigarri dugu. Komunio edo elkartasun den Jainko horren irudi bagara, komunio edo elkartasun izatea dira gure izana eta zoria. Jainkoaren irudi izatearen geure duintasunari saldukeria egiten diogu solidaritate gabeko buru-askitasunean murgildurik bizi ohi garenean; geure bokazioa besteengana irekitzea dugu, etengabeko harreman maitekorrean. Horretara eragiten digute Aitaren guztiokiko aitatasunak, Jesus geure anaia nagusiak proposatu digun anai-arreba arteko seme-alabatasunak eta elkartasun-indar kreatzaile den Espirituak.

Urteko 10. astea.

San Santiago Berthieu, *apaiza, martiria, jesuita*.

San Maximo, *gotzaina*.

San Heraklio, *gotzaina*.

---

[Erregeak 1 liburutik 17, 1-6: Zerbitzari du Elias Israelen Jainkoak. Sal 121 [120]: Gure laguntza Jaunaren izena, zeru-lurren egilearena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 1-12.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten:

«Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak atsekabetuak, beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko. Zorionekoak apalak, berek izango baitute agindutako lurra ondare. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak, beraiek baititu Jainkoak aseko.

Zorionekoak errukitsuak, beraiek baititu Jainkoak erruki izango. Zorionekoak bihotz-garbi direnak, berek ikusiko baitute Jainkoa.

Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango baitira. Zorionekoak zuzentasunagatik erasoa jasaten dutenak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean. Poztu zaitetze eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan. Zuen aurreko profetak ere halaxe erabili zituzten».

«**J**ainkoaren Erreinuko Agiri Nagusia» dira Zoriontasunak. Erreinuaren dinamikan sartu eta bizitzeko jarrera edo joera bezala aurkeztu ditu Mateok. Bizi-programa edo egitarau dira. Zoriontasunetan, garai hartan ez ezik, gurean ere –agian, argi aitortu gabe, gure bizitza propioan ere– indarrean diren baloreen aurkako kontra-balore bezala aurkeztu ditu Jesusek. Horietan laburbildu ditu Jesusek

bere borrokaz eta heriotzaz defendatu dituen baloreak. Bihotzetik irteten zitzaizkion: bera haiek bizitzen ari baitzen jada, eta uste baitzuen –bere esperentziaz– pena merezi zuela haiek norberaren bizi bihurtzea berak bezala. Sakon bizi izan zituen eta horregatik sentitu zen «dohatsu» eta «zorioneko». Horregatik eskatu die jarrera hori berrari jarraitu nahi diotenei.

\*\*\*

### San Santiago Berthieu

Duela gutxi kanonizatu du Benedikto XVI.ak Santiago Berthieu. Jesuita frantses honek bere bizitarik gehiena Madagaskarren egin du, bertako malgatxeekin. Eta lekuko mugimenduen biktima izan zen; beren independentziaren bila, kolonoen kontra ari ziren. Erlijio katolikoa potentzia kolonialari eskua emanik bizi zen, eta aipatu mugimendukoek uste zuten atzerritarren dominazioari eusten ari zela. Alabaina, Berthieu ez zen nahastu sekula arazo horietan; karitateak eraginda ziharduen eta buru-belarri eskaini zitzaizen bere fededunei; halaz guztiz, matxinoek fusilaturik hil zen, baretasun- eta gizatasun-etsenplua utziz.

Urteko 10. astea.

San Efren, *diakonoa eta eliz irakaslea*.

San Jose Antxietakoa, *apaiza (Brasilen apostolu),  
martiria, jesuita*.

[Erregeak 1 liburutik 17, 7-16: Irin-katilua ez zen ahitu, Jaunak Eliasen ahoz esana zuen bezala. **Sal 4:** Erakutsi guri, Jauna, zeure aurpegi argitsua!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 13-16.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurraren gatz. Baina gatzak gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko baizik.

Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean ipintzeko, argimulilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien.

Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten».

**G**aur eguneko kulturaren ageri da ezen postmodernitateak, arrazoiaren desengainaturik, esperientziari ematen diola balioa eta kontarari (esperientziak azaltzen dituen testuari) —«metakontaren» (ustekizun global, abstraktu eta oro hartzaileen) aurka—; kultura horretan, ondorioz, inoiz baino garrantzikoago bihurtu da «fede narratzailea edo fede kontatua». Gaur ez dugu kutsatuko fedea argudioez bakarrik, baizik eta testigantza, bizitzako gertaerez: bizitza Jainko biziaren eta haragi egindako haren Semearen esperientzia pertsonal sakon bezala kontatuz. Fedea eskualdatu, «ikusi eta entzun dugunaz» mintzo bagara bakarrik eskualdatuko dugu. Beraz, besteentzat gatz eta argi izateko, lehenik gatzu edo gazitu eta argitu gaitzan utzi behar diogu Jesusi. Esperientzia hau izango da ondoren kontatuko duguna geure testigantza eta azalduko duguna geure egintza onen bidez.

Urteko 10. astea.  
San Alexandro, *gotzaina*.

[Erregeak 1 liburutik 18, 20-39: Ikus dezala herri honek, Jauna, Zu zarella Jainkoa, eta Zuk itzularaziko diozula bihotza zeuregana. **Sal 16 [15]:** Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzera etorria naizenik; ez naiz baztertzera etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte.

Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

**J**esusek bere betera eraman nahi izan du Legea. Horregatik jo du «legalismoaren» aurka. Aldi guztietako «lege-maisuak» giza eta erlijio-segurtasuna izan ohi dute amets: une bakoitzean jakin behar izaten dute zehatz zer egin –agindua dagoelako–, arriskatu gabe bereizmenera joz. Legearen letrari josirik edo azalean gelditu ohi dira, haren espirtuan sakondu gabe, zorrotzagoa baita espirtua. Adibidez, legeak garizumako ostiraletan haragirik ez jateko agintzen duela?; jende horrek aski izaten du legearen letra betetzea, baina ez zaio axola otarraina edo ganbak jatea. Legalismoaren beste arrisku bat: legea eskuan duzula, norbait, zure ustez, komenigarria ez den moduan bizi bada, gaitzetsi egingo duzu, are gehiago, pertsegitu ere egingo duzu. Ez al naiz erortzen ni neu noiz edo noiz burubide horretan?

Urteko 10. astea.

SAN BERNABE APOSTOLUA.

§ Apostoluen Eginak liburutik 11,21b-26;13, 1-3.

Egun haietan, asko bihurtu ziren Jaunagana eta fededun egin.

Jerusalemgo eliz elkarteak honen guztiaren berri jakin zuelarik, Bernabe bidali zuen Antiokiara. Poztu zen hara iritsi eta Jainkoak bere onginahiaz haien artean egina ikusi zuenean, eta bihotz-bihotzez Jaunarekiko leial irauteko adore ematen zien guztiei; Bernabe gizon ona baitzen, eta Espiritu Santuaz eta sinesmenez betea, jendetza handia elkartu zitzaion Jaunari.

Handik Tarsora joan zen Bernabe Sauloren bila eta, aurkitu zuenean, Antiokiara eraman zuen. Urtebete osoa eman zuten elkarrekin lanean eliz elkarte hartan, jende askori irakasten. Hain zuzen, Antioikian eman zieten ikasleei lehenengoz «kristau» izena.

Bazen Antiokiako eliz elkartearen zenbait profeta eta irakasle: hala nola, Bernabe, Simeon -izengoitiz Beltza-, Luzio zirenaikarra, Manaen –umetan Herodes erregearekin batera hazia– eta Saulo. Behin, barau egunez, Jaunaren kultu-ospakizun batean zeudela, Espiritu Santuak esan zien: «Bereizi niretzat Bernabe eta Saulo, Nik dei egin die-dan egitekorako». Orduan, barau eta otoitz egin ondoren, haiei eskuak buruan ezarri eta bidali egin zituzten.

[Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garai-pena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,7-13.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu duzue, eman hutsean. Ez eraman urrerik, ez zilarririk, ez diruririk gerrikoan; ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta malaririk ere, zor baitzaio langileari behar duen jatekoa.



Urteko 10. astea.  
SAN BERNABE APOSTOLUA.

---

Edozein herritan nahiz auzotan sartzen zaretela, jakizue ba ote den konfiantzazko inor, eta gelditu haren etxean, herri hartatik atera arte. Etxean sartzean, egin bake-agurra; etxeok duin badira, hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira».

**B**ernabe gizon Espiritu Santuaz betea zen; «gogotsu» aholkatzen zuen eta «alai». Baina, alaitasunera ez ezik ausardiaz jokatzera eragin zion Espirituak ebanjelizatzaileen lehen belaunaldi hari, bide berriak irekitzera eta mundu paganoari Jesusen Berri Ona aldarrikatzera. Adore eta ausardia horiek berak eman nahi dizkio gaur egun Espirituak Elizari eta gutako bakoitzari. Hornitzen gaituen Jesusen Espirituak ez gaitu gidatzen bide tristetan barna, ezta ezkortasun-bide zurrungarrietan ere. Espirituaren berezitasuna –Loiolako Ignaziok Gogo Jardunetan [315] dioenez– «adorea eta indarra ematea da... oztopo guztiak baztertuz» beti aurrera eginez jarraitzeko. Haren ezaugarria eragitea da zailtasunei «bekoz beko begiratzera» [325].

Urteko 10. astea.

San Joan Sahagungoa, *apaiza*.

Santa Paula Frassinetti, *fundatzailea*

(*Santa Dorotearen ahizpak*). San Onofre, *ermitaia*.

[Erregeak 1 liburutik 19, 9a. 11-16: Zaude zutik mendian, Jaunaren aurrean. Sal 27 [26]: Zure aurpegi bila nabil, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 27-32:

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzina-koei agindua: “Ez egin adulteriorik”. Nik, ordea, hau diotsuet: Emakumeari irrikaz begiratzen dionak egin du jadanik adulterioa bere bihotzean.

Eskuineko begia galbide bazaizu, atera eta bota zeuregandik urruti; hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura jaurtia izan baino. Eskuineko eskua galbide bazaizu, moztu eta bota zeuregandik urruti; hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura joan baino.

Agindua dago hau ere: “Emaztea uzten duenak eman diezaiola dibortzio-agiria”. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere emaztea uzten duenak –legez kontra elkartuak ez badira behintzat– adulteriora bultzatzen du emaztea; eta utzitako emakumearekin ezkontzen denak adulterioa egin du».

**E**makume ezkondu bat desiratzeaz ari da, hau da, beste baten emaztea desiratzeaz; beraz, besterena desiratzeaz. Ez da erotismo-kontua, baizik eta zuzentasun-kontua. Jesusek azpimarratu du, adulterioa begiratu likitsaz hasten dela, bihotzean; han jaiotzen dira desirak, gero egitate bihurtzen direnak. Ekialdeko ahoberokeria tipikoaz baieztatu du, saihestu egin behar direla bekaturako bide labaingarriak, horrek ukapen oso mingarriak eskatuko baditu ere. Dibortzioa kasik gizonetzkoaren eskubide bakarrik zen garai hartan, Jesusek liberatu egin du emakumea gizonetzkoaren objektu juridiko huts eta senarraren jabetza izatetik, eta berarentzat sakratua den ezkontza-bizitzan bien parekotasuna aldarrikatu du duintasunari eta eskubideei dagokienez.

Urteko 10. astea.

San Antonio Paduakoa, *apaiza eta eliz irakaslea*.  
San Fandila, *apaiza eta martiria*.

[Erregeak 1 liburutik 19, 19-21: Eliseok jaiki eta Eliasi jarraitu zion.  
Sal 16 [15]: Zu zara, Jauna, nire ondarea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 33-37.

Aldi hartan, Jesusesk esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzina-koei agindu zitzaiena: “Ez egin gezurrezko zinik”, eta “bete Jaunari egindako zinak”. Nik, ordea, hau diotsuet: Ez egin inolako zinik, ez zeruagatik, Jainkoaren tronua baita; ez lurragatik, haren oin-aulkia baita; ezta Jerusalemengatik ere, Errege handiaren hiria da eta. Ez egin zinik zeure buruagatik ere, ez baitezakezu zeure ile bakar bat ere zuri edo beltz bihurtu.

Zuek esan ezazue “bai”, bai denean, eta “ez”, ez denean; gainerakoa gaiztoagandik dator».

**J**esusen garaiko gizartea zinaz baliatzen zen, neurriz gainetik ere bai. Norberaren hitza zin eginez bermatu behar izateak mesfidantza-giroa adierazten du. Baina Erreinua iritsi izanak egiatasun-giroa berregin du, eta alferrikako ematen du edozein berme edo bestelako froga. Giro honetan, ahozko «bai» edo «ez» esapideak bat etorri behar du bihotzeko «bai» edo «ez»ekin. Jesusen ikasleak ondradutasun eta egiatasun erabatekoetan mugitu behar du, bai edo ez esatea aski duelarik. «Bihotz-garbi» izan behar du: pertsona «jator» eta «garden»; hala-koagan «itxurak» «izana» islatu behar du. (Harrigarria da ezen kristau bezala aurkezten direnek zin egin beharra sentitzen dutela; eta «laiko» bezala aurkezten direnek promesa egiten dutela soilik).

Urteko 11. astea.

KRISTOREN GORPUTZ ODOL SANTUAK

San Eliseo, *profeta*.

§ Deuteronomio liburutik 8, 2-3. 14b-16a.

Honela mintzatu zitzaion Moises Israel herriari: «Gogoratu Jai-nak zeure Jainkoak basamortuan berrogei urte hauetan eginarazi dizun bidea: atsekabetu egin zaitu eta probatu, zure barne-asmook ezagutze-ko eta zuk beraren aginduak beteko zenituen ala ez jakiteko.

Behar gorrian jarri zintuen, gosea pasarazi eta mana eman zizun jaten, ez zuk eta ez zure gurasoek ezagutzen ez zenuten janaria, zuri jakinarazteko gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi, baizik eta Jaunaren ahotik ateratzen den hitz guztitik bizi dela.

Ez ahaztu Jauna zeure Jainkoa. Berak atera zaitu Egiptotik, eskla-botza-lurraldetik; berak eraman zaitu suge pozoitsuz eta eskorpioiz betetako basamortu handi eta ikaragarrian barrena, urik gabeko eremu elkor horretan barrena; berak atera du sukarririk ura eta edaten eman dizu; berak eman dizu jaten basamortuan zure gurasoek ezagutu ez zuten mana».

[Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna!]

§ San Paulok Korintoarrei 1 gutunetik 10, 16-17.

Senideok: Jainkoa bedeinkatuz hartzen dugun esker onezko kalizak ez al gaitu Kristorekin bat egiten haren odolean? Eta zatitzen dugun ogiak ez al gaitu Kristorekin bat egiten haren gorputzean? Ogia bat de-nez, guztiok gorputz bat gara, ogi bakarretik hartzen baitugu denok.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 51-58.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudan ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana».

Juduak eztabaidan ari ziren beren artean: «Nola eman diezaguke honek bere haragia jaten?» Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Gi-

Urteko 11. astea.

KRISTOREN GORPUTZ ODOL SANTUAK

San Eliseo, *profeta*.

zonaren Semearen haragia jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta Nik piztuko dut azken egunean. Zeren nire haragia egiazko janari baita eta nire odola egiazko edari. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta Ni harengan.

Bizia den Aitak bidali nau eta Ni Aitari esker bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena, niri esker biziko da. Hau da zerutik jaitsia den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalakoa, haiek hil egin baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da».

**J**ai hau, Eukaristian Jesus egiaz eta benetan dagoela azpimarrazteko sortu zen, presentzia hori ukatzen zutenen kontra. Adorazio mugigarria dei egiten digun jaia da. Adorazio isila, lehenik eta behin, «neurrigabeko ikono» den Eukaristiaren aurrean. Horretan Jesus, gurekin geratu nahi duelako, janaritzat ematen zaigu, bizia izan dezagun, «betiko bizia» –ez basamortuan manak ematen zuen bezalakoa, galkorra baitzen–, jadanik dastatu dezakeguna Jesusekin bat –«bizileku gaitu gu»–.

Baina maitasun-misterioaren aurreko adorazio honek, isiltasunean eta liluraz landu beharreko honek, ez gaitu uzten geldi barnekoitasun indibidualista batean. Eukaristiak ez gaitu bakantzen, baizik eta, San Paulok dioenez, solidaritatea eta batasuna sortzera eragiten digu, gorputz bat, elkarte bat, Eliza bat eratzera. Horregatik, egun honetan kalera «ateratzen ditugu» geure ekisaindu edo kustodiak. Eta, horrela, geure prozesioetan testigantza egin nahi izaten dugu ezen Kristo geure eguneroko eremuetara eraman nahi dugula, horietan bizikide baikara; ezen solidaritatea erein nahi dugula txoko eta plaza guztietan. Jesusek berak egin zuen bezala: «on eginez ibili zen». Laburtu dezagun guztia Pedro Casaldáligaren poesia bateko esaldi honekin: «Zu janez jakingo dugu janari izaten» (besteentzat).

Urteko 11. astea.

Santa Maria Mikaela, *birjina, fundatzailea*

(*Aldareko Sakramentuaren Adoratzailleak*).

San Amos, *profeta*.

[Erregeak 1 liburutik 21, 1-16: Nabot harrikatu egin zuten hil arte. Sal 5: Egin jaramon, Jauna, nire intziriari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 38-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzina-koei agindua: “Begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain”. Nik, ordea, hau diotsuet: Gaizkileari ez erantzun gaizki; bestela baizik, eskuineko masalean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere; soinekoa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere; norbaitek mila pauso egitera behartzen bazaitu, egin bi mila berarekin. Eskatzen dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu».

«**T**alio-legearen» aurka, Jesusek indarkeriaren indarkeria-katea eten nahi izan du, bota dizuten harri bera jaurtiz sortu ohi dena. Indarkeriari uko egite hori ez dator etsipenetik («Barka iezaiozu, ezin duzu ezer egin-eta»), ezta kalkulu baikor batetik ere («Zeure barkazioaz etsaia zeure adiskide bihurtzen duzu»). Adibide zehatz eta xaxagarritz –ez dira hitzez hitz hartzekoak–, ez-jarkiera edo ez-aurre egitea baino harago joateko gonbita egin digu Jesusek: besteak egin didan kaltea ez itzultzera bakarrik ez, baizik eta gaizkiari ongiatz erantzutera (cf. Erm 12,19-21). Ez-indarkeria aktibo hori da Jainkoaren Erreinuko benetako lekukoek agertu behar duten jarrera mundu zuzengabe eta indarkeriazko honetan.

Urteko 11. astea.  
 Santa Justina, *martiria*.  
 San Bernabe, *monjea*.

[Erregeak 1 liburutik 21, 17-29: Israel bekatura eraman duzu. Sal 51 [50]: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin otoitz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria.

Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariak ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

«**N**atura azpiratzen duen ustekeria» ote da, bada, etsaiak maitatzea? Agindu hau ez da «berezko» postulatu bat, ez da «naturala». Nolan izango zen, bada, berezkoa? Jokabide «berezko edo naturalarekin» bistako kontraste eginez formulatu zuen Jesusek. Aurreuste guztiz «antinatural» batetik proposatu zuen: Jainkoaren Erreinua hasia zela eta gizakiak erantzun egin behar ziolakotik. Maitasunaren proposamen hori ezin hartu da antzekoei eskainitako maitasun «berezkoaren edo naturalaren» betetasuntzat. Mateok ez zuen proposatu arrazoizkoa edo berezkoa zelako, baizik eta ezarri zuen hura, Emanuel denez, Jainko-gurekin denez, bere elkartearen hurbil dagoelako egun guztietan munduaren azkena arte. Berak dio laguntzen bere eginahalean. Eta graziak –Aitaren buru-eskaintzak Jesus Jaunagan– aurea hartzen diolako eskakizunari eta posible bihurtzen duelako.

Urteko 11. astea.

Santa Valeriana, *martiria*.

San Inozentzio, *martiria*.

[Erregeak 2 liburutik 2, 1. 6-14: Suzko gurdi batek bereizi egin ziotuen bata besteagandik, eta Elias zerura igo zen. Sal 31 [30]: Izan bihotz, Jaunagan itxaroten duzuen guztiok!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 1-6. 16-18:

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeuretan dagoen Aitaren saririk izango.

Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerrek zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

«**E**zkutua», gutako bakoitzaren txoko hura da, zeinetara ezin baita iritsi jada gizakia, baina bai, soilik, Jainkoaren bista. Non esperimentatu ote zuen Jesusek hori?; alegia, Jainkoa txoko hartara ere begira



Urteko 11. astea.

Santa Valeriana, *martiria*.San Inozentzio, *martiria*.

bizi dela, nahiz eta gizakiek, ezin dutelako edo axola ez zaielako, begiratzera utzi dioten? Ba, Nazaretoko urte haietan hain justu: gizakiei ez zieten atentziorik ematen urte haiek, baina bai Jainkoari. Jainkoa begira zuela jakinik –eta Aita begira zuelako gozatuz– bizi izan zuen Jesussek bere eguneroko ezkutu hura. Horrela erakutsi zigun Jainkoarentzat ez dagoela bitzta anonimorik. Jainkoak –egiten ari garena txikiena eta arruntena izanik ere – ez dio uzten gureari begiratzeari, distirarik ez duen hari berari ere eta, horregatik, gizakiaren begiek ezin erreparatu duten hari.

\*\*\*

### Otoitza

Badakusazu, oi Kristo, nire larria,  
 badakusazu nire adore-falta,  
 badakusazu nire indar-falta,  
 badakusazu nire pobretasuna,  
 badakusazu nire ahuldadea,  
 eta nitaz, oi Hitz, izan erruki!  
 Egizu dirdira nire gain antzina bezala,  
 argitu nire arima, argitu nire begiak  
 zu ikusteko, munduko argi zaren hori (Jn 8,12),  
 zu, gozamena, zoriona,  
 betiko bizia,  
 aingeruen zoramena,  
 zu, zeruko Erreinua  
 eta Paradisukoa,  
 zuzenen koroa,  
 halakoen Epailea eta Erregea.  
*(San Simeon, Teologo Berria, 949-1022 inguruan),  
 monje ortodoxoa, gorazarrea)  
 (ekainaren 20an, 330. orrian jarraituko du).*

Urteko 11. astea.

San Markos eta San Martzelino, *martiriak*.

San Ziriako eta santa Paula, *martiriak*.

[Ben Siraken liburutik 48, 1-15 (gr. 1-14): Elias zurrunbiloan desagertu zenean, haren espirituaz bete zen Eliseo. Sal 97 [96]: Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz:

“Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua,

egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak,

geuk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero,

ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen,

baina atera gaitzazu gaitzetik”.

Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

**J**esusek ez digu utzi otoitzerako tekninarik; zer jarrera bizi azaldu digu: seme-alaba garela sentitzea, begira dugun eta maite gaituen Aita horren aurrean. Aita horren begiradak liberatuko gaitu lepoan darabagun antzerkiko «pertsonaiaren» zamatik, eta inor eta ezer antzeztu beharrik ez izatearen, merezimendurik pilatu beharrik ez izatearen, pobretasuna mozorrotu beharrik ez izatearen askatasun miresgarria esperimenteraziko digu. Ez dugu hitz askoren beharrik Jainkoarekin hitz egiteko. Isiltasuna bizi behar da. Jeronimo Savonarolak esana da: «Otoitzak isiltasuna du aita eta bakardadea ama». Isiltasunean adi daiteke soilik. Eta isiltasunean adituko ditugu, guretzat ere esandakotzat, Aitaren hitz hauek: «Zu zara ene seme / alaba maitea, ene kutuna». Harrera honek segurtasun pozgarritz beteko gaitu.

### § Deuteronomio liburutik 7, 6-11.

Honela mintzatu zitzaion Moises Israel herriari: «Jaunarentzat, zeure Jainkoarentzat, sagaraturiko herria zara; berak aukeratu zaitu munduko herri guztien artean beraren herri, beraren jabego berezi, izateko.

Jaunak atsegin izan eta aukeratu bazaituzte, ez da beste herriak baino handiago zaretelako –txikiena baitzarete–, baizik eta zuen arbasoei eginiko zina bete nahi izan duelako; horregatik, hain zuzen, atera zaituzte ahalmen handiz esklabotzatik eta askatu Egiptoko faraoiaren menpetik.

Aitor ezazu, beraz, Jauna zure Jainkoa dela egiazko Jainkoa: Jainko leiala, maite dutenei eta haren aginduak betetzen dituztenei ituna gordetzen eta onginahia mila belaunaldiz agertzen diena; gorroto dionari, berriz, zuzenean ematen dio ordaina eta suntsitu egiten du; luzatu gabe ematen dio ordaina.

Bete, bada, gaur ematen dizkizudan aginduak, legeak eta erabakiak».

[Sal 103 [102]: Jaunaren maitasuna betidanik betidaino begirune diotenentzat.]

### § San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 4, 7-16.

Seme-alaba maiteok: Maita dezagun elkar, maitasuna Jainkoagandik baitator, eta maite duen guztia Jainkoagandik jaioa da eta ezagutzen du Jainkoa. Maite ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa, Jainkoa maitasun baita.

Jainkoak digun maitasuna honetan agertu zen: Jainkoak bere Seme bakarra bidali zuela lurrera, gu haren bidez bizi gaitezen. Honetan datza maitasuna: ez guk Jainkoa maite izatean, baizik eta hark gu maite izatean, eta bere Semea gure bekaturen barkamen-oparizat bidali izatean.

Urteko 11. astea.

JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA.

San Romualdo, *abadea, fundatzailea (kamaldulitarrak)*.Santa Juliana Falconieri, *birjina*.

Seme-alaba maiteok, Jainkoak gu hain maite izan bagaitu, guk ere maitatu egin behar dugu elkar. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi. Elkar maite badugu, Jainkoa gugan dago, eta haren maitasuna bere betera iritsi da gugan.

Guk badakigu haren gaudela eta hura gugan, eta hori, bere Espiritua eman digulako.

Guk ikusi dugu eta aitortzen Aitak bere Semea bidali zuela munduaren salbatzaile.

Norbaitek aitortzen badu Jesus Jainkoaren Semea dela, Jainkoa haren gugan dago, eta hura Jainkoagan. Guk ezagutu dugu eta sinetsi Jainkoak digun maitasuna. Jainkoa maitasun da; maitasunean diraue-na Jainkoagan dago eta Jainkoa haren gagan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik.

Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaitzuet. Hartzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

**J**esusek esan zuen: zure altxorra non, han zure bihotza. Non ipini zuen Jesusek bere bihotza, bere izan osoa? Abbak eta Erreinuak polarizaturik bizi izan zen Jesus. Horiek zituen bere altxor. Haren bihotzarekin sintonizatu nahi badugu, Jesusen altxorra bera bizi behar dugu: saia gaitezen hura bezala munduan seme-alabagoa –Jainko maitemin-

du baten seme-alaba gara: horixe dugu geure duintasuna– eta anai-arreba artekotasuna ezartzen –Abba beraren seme-alaba gara–; horregatik behar dugu batak bestea maitatu.

Baina jarrera horri eutsi ahal izateko, Jesusengana hurbildu beharra dugu, ikasle maiteak egin zuen bezala: haren bular ondoan etzan zen eta haren bihotz-taupadak entzun zituen. Eta bihotz xumez egin behar da hori –txiki batenaz–; izan ere, haur baten bihotza dutenak bakarrik bedeinkatzen ditu Aitak eta sarrarazten ditu bere Erreinuaren dinamikan. Jesusengana joan beharra dugu; izan ere, haren bihotzarekin sintonizatzeko geure gogoa handia izan arren, nekez ipintzen dugu geurea tonuan, hainbat eta hainbat nekez akiturik dagoelako eta, are, larritasunez gelditua. Hark gurekin egin nahi du bide eta, Emausera zihoazen ikasleekin egin zuen bezala, bihotza sutan jarriko digu eta, ki-detasun barnekoi horretan, bidea arin eta leun egingo zaigu.

Urteko 11. astea.

Santa Florentina, *birjina*.

San Silverio, 58. *aita santua*.

[Kronikak 2 liburutik 24, 17-25: Zakarias tenplutik aldarera bitartean hil zenuten. Sal 89 [88]: Beti gordeko diot neure maitasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 24-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezin da inor bi nagusiren morroi izan; izan ere, bata gorroto izango du eta bestea maiteko, edota bati leial izango zaio eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete Jainkoaren eta diruaren morroi izan.

Horregatik diotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jango edota gorputza zerez jantziko. Ez ote da bizia janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago? Begira zeruko hegaztiei: ez dute ereiten, ez uztarik biltzen, ez mandioan pilatzen; hala ere, zeruko zuen Aitak janaritzen ditu. Ez al duzue zuek haiek baino askoz gehiago balio?

Asko kezkatuta ere, zuetako nork luza lezake apurtxo bat bizitza? Eta jantzia, zergatik kezkatu? Begira nola hazten diren loreak zelaian: ez dira lanean nekatzen, ez dute iruten; baina, egia esan, Salomon bera ere, bere ospe guztian, ez zen jantzen horietako bat bezain apain.

Beraz, gaur belardian dagoen eta bihar suan erreko den belarra Jainkoak horrela jantzen badu, zenbatez gehiago zuek, sinesmen txikikook? Ez kezkatu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. Jentilak arduratu ohi dira horiez guztiez. Zeruko zuen Aitak badaki horien guztien beharra duzuela. Bilatu lehenbizi Jainkoaren erreinua eta beronen zuzentasuna, eta gainerako guztia gehigarri emango dizue Jainkoak.

Ez kezkatu, bada, biharko egunaz, biharko egunak ere ekarriko baitu bere kezka. Aski ditu egun bakoitzak bere buruhaustea».

**D**iruarekiko grina neurrigabeak kezka eragiten du, larria sortzen eta ikasle batek beharko lukeen egiazko balore-hurrenkera hausten: guztien gaintik Jainkoaren Erreinuaren eta haren zuzentasunaren

Urteko 11. astea.

Santa Florentina, *birjina*.  
San Silverio, 58. *aita santua*.

bila ibiltzea hankaz gora jarriz. «Zuzentasuna» terminoa tartekatzean, Mateok azpimarratu du ezen Erreinuaren bila ibiltzea ez dela jarrera erlijioso barnekoi hutsa, baizik eta Jainkoari eta haren Erreinuari aho-katzen zaien jokabidea dela. Beraz, gizon-emakumeen artean ordenu zuzena inplikatzeko duen bilaketa da; zeren eta Jainkoaren Erreinuaz zabaltea giza harreman berrietan gauzatzen baita. Baina, «bilatu guztien ginetik» delakoak ez du baztertzen, baizik eta barne hartzen du «gero» bat: ardura egoki bat (ez antsiakoa, baizik eta Aitarek onberatasunean fidatu) bizitzako oinarrizko premiez zuzena da.

\*\*\*

## Otoitza

*(ekainaren 17tik dator, 324. orritik)*

Zergatik duzu ezkututzen zeure aurpegia?  
Zergatik zara nigandik urruntzen, zu, ene Jainko,  
zu, inoiz ere urrundu nahi ez duzun hori  
maite zaituztenengandik?  
Zergatik didazu ihes egiten, zergatik nauzu erretzen,  
zergatik nauzu zauritzen eta zapaltzen?  
Badakizu maite zaitudala  
eta zure bila nabilela neure arima guztiaz.  
Ager zakizkit, zeuk hitzeman bezala...  
Ireki iezazkidazu bi ate-orriak,  
eztei-aretoa, ene Jainko;  
bai, ez itxi atea  
zure argiarena, ene Kristo!  
*(San Simeon, Teologo Berria, 949-1022 inguruan),  
monje ortodoxoa, gorazarrea).*

Urteko 12. astea.

San Luis Gonzaga, *jesuita*.

San Ramon Rodakoa, *gotzaina*.

§ Jeremias Profetaren liburutik 20, 10-13.

Honela mintzo zen Jeremias:

«Jendearen mehatxuak entzuten ditut, beldur-ikara nonahi: “Salatu, sala dezagun”.

Adiskideak berak ere begira ditut, nik noiz huts egingo: “Ea engainatzen dugun, diote; orduan menderatuko dugu eta mendekua hartuko”.

Baina neurekin dut Jauna, gudari indartsu; eroriko dira nire etsaiak, ezin izango naute garaitu; haien asmoek porrot egingo dute, haien lotsa sekulakoa izango da, ahaztezina betiko. Jaun ahalguztiduna, zuzen aztertzen duzuna, gizakiaren buru-bihotzak ikusten dituzuna, zure esku utzi dut neure auzia: ikusiko ahal dut zure mendekua etsaien bizkar!

Kanta Jaunari, goretsazue Jauna, hark askatu baitu gaiztoen esku-tik behartsuaren bizia».

[Sal 69 [68]: Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz.]

§ San Paulok Erromatarrei 5, 12-15.

Senideok: Gizon baten bidez sartu zen bekatua munduan, eta bekatuaren bidez heriotza; horrela, heriotza gizaki guztiengana zabaldu zen, guztiak egin zutelako bekatu. Egia da legea baino lehen bazela bekatua munduan; baina bekatua ez zaio inori ezartzen, legerik ez badago. Hala ere, Adamengandik Moisesenganaino nagusi izan zen heriotza gizakien gain, baita Adamen hutsegitearen antzeko bekatu-rik egin ez zutenen gain ere. Adam etortzekoa zenaren irudi da.

Baina Jainkoaren dohainarekin ez da bekatuarekin bezala gertatzen. Izan ere, gizon bakar baten bekatuaz denak hil badira ere, asko ugariago zabaldu da denentzat Jainkoaren grazia eta dohaina, beste gizon bakar bati esker, Jesu Kristori esker, alegia.



Urteko 12. astea.

San Luis Gonzaga, *jesuita*.San Ramon Rodakoa, *gotzaina*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 26-33.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ez izan jendearen beldur! Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezer ezkutu ere jakingo ez denik. Gaueko ilunpean esaten dizuedana esan zuek egun-argitan, eta belarrira entzuten duzuen hots egin etxe-gainetik. Ez izan beldurrik gorputza hil, bai, baina bizia kendu ezin dutenei; izan beldur, gorputza ez ezik, pertsona osoa ere infernuan gal dezakeenari.

Ez al dira bi txori txanpon batean saltzen? Hala ere, ez da bat barra ere lurrera erortzen zuen Aitaren baimenik gabe. Zuen buruko ileak ere zenbatuak ditu Jainkoak. Ez, bada, beldur izan; txori guztiek baino gehiago balio duzue zuek.

Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean».

**H**iru irakurgaiek beldurra adoretz garaitzera eragin digute, konfiantza izanik une ilun horietan ere Jauna geure ondoan dugula. 1) Jeremias profeta etsaiek inguraturik sentitu da, beldurrak harturik; baina Jauna lagun duela jakinik, bihotzak gora egin dio ekinean jarraitzeko. 2) San Paulok badaki heriotza eta bekatua oso zabaldurik daudela munduan. Baina bekatua ugaldu denean, are gehiago ugaldu da grazia. Ezkortasunaren aurka, konfiantza esperantzadunak izan behar du kristauaren jarrera nagusia. 3) Jesusek, «misio-hitzaldia» delakoan, aholkatu digu: «Ez beldur izan. Pertsekuzioak eztanda egin arren eta etsaien ingurumenak hesitu arren, zuei bihotz-galera eragiteko... segi zeuen fedearen testigantza egiten agerian, adoretzu eta ausarti —«egun-argitan eta teilatutik»—. Heriotza etorriko bazaizue ere, Jainkoak betiko bizia itzuliko dizue; biziaren Jauna baita, beteko du hitza. Baina, edozein kasutan, mutur-muturreko kinka horietan, zeuen ondoan izango duzue bera eta txolarreak baino hobeto zainduko zaituzte, zuen Aita baita. Eta Jesus bera ere ondoan izango duzue kinka ilun horietan, bihotz emanez eta zuen alde jarritz.

Har dezagun kontuan Jainkoaren Hitza, behin eta berriz agintzen digu hurbil izango dugula kinka larrietan.

Urteko 12. astea.

San Paulino Nolakoa, *gotzaina*.

San Joan Fisher, *gotzaina* eta Tomas Moro santua,  
*aita familiakoa, martiriak*.

[Erregeak 2 liburutik 17, 5-8. 13-15a. 18: Jaunak bere aurretik bota zuen Israel, eta Judaren leinua besterik ez zen gelditu. Sal 60 [59]: Emaguzu garaipena zeure eskuinaz, Jauna, eta erantzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 1-5.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez gaitzetsi inor, Jainkoak zuek gaitzetsi ez zaitzaten. Izan ere, zuek besteak nola epaitu, hala epaituko zaituzte Jainkoak; eta zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak.

Nolaz ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta ez zara zeure begiko habeaz ohartzen? Eta nola esan diezaiokezu senideari: “Uztazu zeure begitik lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean habeaz duzula? Itxurazale hori! Atera lehenik zeure begitik habeaz, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko».

**G**ainerakoek egiten dutena eta nola jokutzen duten sumatzea saihestezina da. Beraz, arazoa ez da juzkatze hutsa, baizik eta judizio gaitzesgarriak ekiditea (cf. Lk 6,37). Jesusek geure joera hipokrita aurpegiratu digu: gainerakoen akatsei erreparatzen diegu, kontuan izan gabe, geure nartzisismoak hesiturik, geugan ugari ditugunak. Hizkuntza hiperbolikoz eta eginkorrez, ohartarazten digu ezen geure begietan ditugun habeak –eta itsutzen gaituztenak– kentzeaz arduratu behar dugula lehenik, gainerakoen begietan diren «izpiak» ateratzera jo aurretik. Osterantzean, gainerakoak juzkatzeko darabilgun neurri zorrotzaz juzkatuko gaitu Jainkoak. Juzkatzean, begi-bistan izan behar da Jainkoaren auzia.

[Erregeak 2 liburutik 19, 9b-11. 14-21. 31-35a. 36: Nik babestuko dut hiri hau eta salbatuko, neuregatik eta Davidengatik. Sal 48 [47]: Sendo ezarri du Jainkoak bere hiria betiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 6. 12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez eman zakurrei gauza sakratuak, ez bota zerriei zeuen harri bitxiak, hankapean erabil ez ditzaten eta, zuen kontra itzulirik, zatika ez zaitzateten.

Besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia egin zuek ere besteei; horixe da Moisesen legeak eta profetek diotena.

Sar zaitztezte ate estutik; zabala baita hondamenerako atea eta lasaia bidea, eta asko dira hortik doazenak. Baina bai estua dela bizirako atea eta meharra bidea, eta gutxi dira aurkitzen dutenak!»

**M**endiko Hitzaldiaren bukaera-aldean datorren «Urrezko Arauak» [«Besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia egin zuek ere besteei»] ez du ematen Jesusek irakatsi duena bezain erradikala den, asko gutxiago ere; izan ere, elkarrekiko printzipioan oinarritzen da hura eta «baliokidetasun-logika» suposatzen du; etsaiak maitatzearen Jesusen agindua, berriz, «gain-ugaritasunaren logikan» (doan ematean) oinarritzen da. Nola bateratu biak? Mendiko Hitzaldiaren irakaspenak antzaldatu egin du urrezko araua eta beste esanahi bat eman dio. Arau hori «Legea eta profetak» da, baina Jesusek berrinterpretatu duen moduan harturik. Honela parafrasea genezake: «Gizon-emakumeek guri egitea gustatuko litzaigukeena: ez gintzaketela zauritu beren amorruaz, ez gintzaketela juzkatu, maita gintzaketela beraien etsai bagina ere... onar gintzaketela eta trata Aitaren seme edo alaba bezala, joka lezaketela gurekin Aitak jokutzen duen bezala». Horixe da etsaiekin egin behar duguna.

Urteko 12. astea.

**SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA.**

San Orentzio, *martiria*.

§ Isaias Profetaren liburutik 49,1-6.

Entzun, uharteok! Aditu, urrutiko herriok! Jaio aurretik deitu ninduen Jaunak, amaren sabelean nengoela gogoratu zen nitaz. Ezpata zorrotz bihurtu zidan ahoa, bere eskupean babestu ninduen; gezi zorrotz bihurtu ninduen eta gezi-ontzian gorde. Eta esan zidan:

«Zu zara nire zerbitzaria, Israel, zure bidez agertuko dut neure ospea».

Nik, berriz, hau nioen:

«Alferrik nekatu naiz; alferrik eta hutsean akitu ditut neure indarrak».

Baina Jaunaren baitan zegoen nire eskubidea, Jainkoaren eskuetan nire lansaria. Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabelean eratu ninduena haren zerbitzari izateko, Jakoben leinuak harengana bihurrazteko eta Israel herria biltzeko. Ohorez jantzi nau Jaunak eta neure Jainkoa izan dut indar.

Jaunak esan dit:

«Ez da aski zu nire zerbitzari izatea, Jakoben leinuak berreraikitzeke eta Israelen bizirik geldituak itzularazteke. Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin»».

[Sal 139 [138]: Eskerrak zuri, harrigarriro egin nauzulako.]

§ Apostoluen Eginak liburutik 13,22-26.

Egun haietan, honela mintzatu zen Paulo: «Jainkoak David eman zien errege, honetaz aitormen hau eginez: “Aurkitu dut David, Jeseren semea, nire gogoko gizona, nik nahi guztia beteko duena”.

Hitzemana zuenez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea: Jesus. Hau etorri baino lehen, Joan Bataiatzaileak bihotz

Urteko 12. astea.

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA.

San Orentzio, *martiria*.

-berritzeko bataioa hots egin zion Israel osoari. Eta bere bizitza bukatzera zihoanean, honela zioen Joaneke: «Ez naiz ni zuek uste duzuen; badator nire ondorene beste bat, eta ni ez naiz inor haren oinetakoak askatzeko ere»».

Senideok, Abrahamen ondorengo zaretenok, eta zuek, Israelen Jainkoa gurtzen duzuenok, geuri bidali zaigu salbamen-hitz hau».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,57-66.80.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuen. Jakin zuten auzokoeke eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkioten.

Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitar-tean inor izen hori duenik».

Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «Joan du izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakarias, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goستن.

Beldurrak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiak beren baitaroko esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?» Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

Haurra gorputzez hazten ari zen, eta espirituz sendotzen; basamortuan bizi izan zen, Israel herriaren aurrean agertu zen eguna arte.

**«Zer izango da haur hau?»** Irakur gaieke ezaugarri batzuk eman dizkigute nor izan zenaz: a) Aldi luzean agorra izan zen ama bategandik jaio zen; amaren sabelean berean sentitu zuten misio bat bete beharra. Elisabeten sabelean berean hasi zen misio hori betetzen, amak

Urteko 12. astea.

**SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA.**

San Orentzio, *martiria*.

Jesusez haurdun zen Mariaren bisita hartu zuenean. 2) Basamortutik gauzatu zuen bere misioa, Tenplutik urrun, botere zibilaren eta erlijiosoaren eremuetatik urrun, aldiri edo periferiatik. Bihotz-berritzeko baitiora dei eginez. Askatasun eta indar adoretsez, ezpata zorrotz eta gezi leunez bezala, boteretsuei aurre eginez. 3) Bere misioa ondoren zetorren norbaiten aitzindari izatea izan zuen, zeinen duin ez baitzen sentitzen, ezta hari oinetakoak askatzeko ere: Jesusen aitzindari, alegia. Horregatik, ez zuen sekula protagonista agertu nahi izan; aitzitik, apal-apal beste hura seinalatu zuen. Esaten zuen bera ez zela argia, baizik eta Argiaren lekuko, ez zen senargaia, baizik eta Senargaiaren adiskide. 4) Azkeneraino eutsi zion bere misioari leial, nahiz eta une jakin batzuetan bereizmenera jo behar izan zuen duda-mudei aurre egiteko. Haren heriotza Kristorenaren aurre-irudi izan zen.

Gizon honengandik hartzen ahal dugu ikasgaiarik asko: misioarekiko leialtasuna, askatasuna hura burutzeko eta apaltasun zirraragarria.

\*\*\*

### San Joan Bataiatzailearen Jaioteguna

Elizak joan-etorri handikotzat du Joan Bataiatzailearen Jaiotza. Liturgian, Jesusenaz eta Andre Mariarenaz gain, Joan Bataiatzailearen Jaioteguna bakarrik ospatzen da. Gainerako santuen kasuan, bakoitzaren heriotza-eguna, hau da, zerura jaiotze-eguna, bakarrik ospatu ohi da, edota bakoitzaren bizitzako gertaera berezi baten eguna.

Joan basamortura joan zen, oso garaiz, Jainkoak gomendatu zion eginkizunerako bere burua prestatzera, hots, Salbatzailearen etorrerarako bideak hots egin ahal izateko prestatzera. Oso gogoangarria da hau: bere aita Zakarias apaiza izan arren, Joan ez zen joan Jerusalemgo Tenplura.

[Erregeak 2 liburutik 24, 8-17: Joiakin erregea Babiloniara erbesterratu zuen Babiloniako erregeak, herriko handikiekin batera. Sal 79 [78]: Libra gaitzazu, Jauna, zeure izenaren ohoreagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 21-29.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski niri “Jauna, Jauna” esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hau da beharrezkoa: zerruan dagoen nire Aitaren nahia egitea. Epai-egunean askok esango dit: “Jauna, Jauna, ez al genuen zure izenean hitz egin eta zure izenean deabruak bota eta zure izenean mirari asko egin?” Baina Nik erantzungo diet: “Ez zaituztet inoiz ezagutu; alde nigandik, gaizkileok!”.

Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea harkaitz ganean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz ganean oinarritua baitzegoen.

Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar ganean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu».

Jesusek hitzaldi hau bukatu zuenean, txunditurik zegoen jendetza haren irakaspenaz, nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-mai-suek bezala.

**B**i etxeen parabolak geure bizitza zeren ganean eraikitzen dugun galdetzera garamatza. Agian, entzuten ditugu Jesusen hitzak, errepikatu ere bai, baina haien ganean eraiki ez. Zeren eta ez baita nahikoa, ez entzutea, ez esatea: «bete» egin behar da. «Bete» gabe, ez dago ikaslerik. Delako «betetze» hori Jainkoaren nahia zehazki betetzean

San Felix, *ermitaua*.Santa Orosia, *birjina*.San Adalberto, *diakonoa eta abadea*.

datza, Kristok bere hitzez eta bizieraz adierazi duen bezala betetzean. Parabolak orobat eragiten digu geure lur jotze pertsonalen esperientzia tristeak berrikustera eta haztatzera ere, une zalapartatsuetan (haize, ekaitz, eurite) gertatu izan zaizkigunak, alegia. Duda-muda horiek ez al digute adierazten «eraikitzaile zentzugabe garela»? geure bizitzari badaezpadako aldamiok edota zoru hareatsua ezartzen diogula sotsengentzat?

\*\*\*

### Mirariak badira munduan

Behin irla batean gertatu zitzaiona dakar Boff-ek. Bera eta beste «jakintsu» bat hitz eta pitz. Azkenean, bertako arrantzale baten emazteak, Anak, galdegin zigun: «Hitz egin dezaket mirariez?» Eta kontatu zuen: «Duela urte batzuk aste santuan Jainkoak eskaini ziguna da. Etxean ez genuen, ez arrainik, ez urik. Janaria eta beste ekarri behar zuen itsasontzia ez zen etorri. Nire senarrak, arrantzalea da, egunak zeramatzan ezer harrapatu gabe. Zer jan behar genuen aste santuan? Soilik, espagueti pixka bat genuen. Orduan, senarra eta biok, kezkatirik, itsasoa ikustera joan ginen. Batak eta besteak, triste, Jainkoari eskatu genion gu, txiki eta apalok, zaintzeko. Itsasoa bare-bare zegoen. Bat-batean olatu handi bat harrotu zen, eta harkaitzen kontra jo, eta, erretiratzean, milaka sardinatxo gelditu zen arrokatari preso. Neure gonazpikoa erantzi eta arrainez bete nuen. Eta korrika joan nintzen neure lau auzokoei dei egitera. [...]. Jainkoak entzuna zuen txikien eta apalen erregua».

Izan ere –komentatzen du Boffek–, bada oraindik mirarietan sinesen ez duen jenderik; guztia, bere zentzumen espiritualak aktibatu ez dituelako. Aktibatzen badituzte, asko, mirari asko sumatuko dute beren bizitzan. Baina baldintza bat bete behar da: txiki eta apal bihurtu, Ana eta beronen senarra bezala. (*Boffen «Los milagros existen 2005-05-13» idazkitik hartua*).



Urteko 12. astea.

San Pelaio, *martiria*.San Josemaria Escriba, *fundatzailea (Opus Dei)*.

[Erregeak 2 liburutik 25, 1-12: Juda erbestera eramán zuten. Sal 137 [136]: Nire mingaina ahosabaian itsats bekit, zutaz oroit ez bānendi.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 1-4.

Jesu menditik jaitsi zen eta jende askok jarraitu zion. Legenar-dun bat hurbildu zitzaion eta, aurrean ahuspezturik, esan zion: «Jauna, nahi baduzu, garbi nazakezu».

Jesusek eskua luzatu eta ukitu zuen, esanez: «Nahi dut, izan zaitez garbi». Eta berehala garbitu zitzaion legenarra. Jesusek agindu zion: «Kontuz gero! Ez esan ezer inori! Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini Moisesek agindutako oparia, ezaugarri izan dezaten».

**A**rgia da ebanjelioak egin digun galdera: Nola jokutzen dugu zokoratuekin? Bazterturik jarraitu dezaten nahi al dugu, gogaikarri eta «ez-garbi» jotzen ditugulako; beste aldera begira jartzen al gara halakoak ez ikusteko eta ez «ukitzeko»?; ala eskua luzatzen diegu Jesusek bezala? Zer dira ene bizitzan etorkinak, «paperik gabeak», alderraiak, homosexualak, ezgaituak, adin handiko bakartiak,,? Eta zer dira «herri lepradunak» –begira dezagun Afrikara, adibidez–; halakoen tragediā sumatzen dugu komunikabide sozialen bidez; saiatu al gara zerbait egiten geure ahalbideen arabera –eta hauek egiatasunez aztertu behar-ko genituzke–: laguntza ekonomikoa, neure alditxo bat eskaintzea boluntario-lanetarako, aberastasun banaketa zuzenaren defentsa irmoa, solidaritate-mugimenduei sostengua... emateko?

Urteko 12. astea.

San Zirilo Alexandriakoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

San Zoilo, *martiria*.

[Negar Kantak liburutik 2, 2. 10-14. 18-19: Egin oihu Jaunari bihotzez, egin intziri, Siongo harresiok. Sal 74 [73]: Ez ahaztu betiko zeure dohakabeen biziaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 5-17.

Aldi hartan, Jesus Kafarnaum herrian sartu zelarik, erromatar ehuntari bat etorri zitzaion, arrenka esanez: «Jauna, elbarri eta oinazetan dago nire morroia etxean». Jesusek esan zion: «Joan eta sendatuko dut».

Baina ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko; baina esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du».

Hori entzunik, harritu egin zen Jesus eta ondoren zetozkionei esan zion: «Egia esan, Israelen ez dut inorengan aurkitu horrenbesteko sinemenik. Eta hau diotsuet: Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta zeruetako erreinuko mahaian eseriko dira, Abraham, Isaak eta Jakobekin; erreinuaren oinordeko zirenak, berriz, kanpoko ilunpera botako dituzte; han izango da negarra eta hortz-karraska!»

Ondoren, ehuntariari esan zion: «Zoaz, eta gerta bekizu sinetsi duzun bezala». Eta ordu hartan berean, sendatua gertatu zen morroia.

Gero, Pedroren etxera joan zen Jesus, eta haren amaginarreba oheratua aurkitu zuen sukarrak. Hartu zuen Jesusek eskutik eta sukarrak alde egin zion; orduan, emakumea jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzaien.

Arratsean deabrudun asko eraman zioten Jesusi, eta honek deabruak bere hitzez bota eta gaixo guztiak sendatu zituen. Horrela bete zen Jainkoak Isaias profetaren bidez esana: «Hark bere gain hartu zituen gure ahuleriak, eta gure gaitzak eraman».

Urteko 12. astea.

San Zirilo Alexandriakoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.San Zoilo, *martiria*.

**M**ateoren ebanjelioan, «Moises berria» da Jesus, irakaslea. Baina ez du irakasten bere hitzaz bakarrik, baita bere keinuez eta egitatez ere baizik: hitzaren eta jardueraren Mesias da. Horregatik, Mateok hitzaldiekin batera kontaerak dakarzkigu (sendatzeak, exortzismoak...: Jesusek iragarri duen Erreinuaren indarraren «seinale» dira). Mendi-ko Hitzaldiaren segidan, sendatzeak ageri dira. Nabarmenena, ehuntari paganoaren zerbitzari paralitikoaren osasuntzea da –paganismotik etorritako elizaren hasikina–; ehuntariaren fedea «esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia»– harriturik utzi du Jesus. Gaur egun, jaunartze aurretik, hitz haiek berak esaten ditugunean, ehuntari fededun hark jaulki zituen fede berarekin irten beharko lukete gure bihotzetik.

\*\*\*

### Fede falta ala fede ezezaguna?

2018-04-15eko Homilian jaulki nituen hitzak dira segidakoak.

Gaurko ebanjelioko hitz hauek jarri ditu lerro-buru aipatu jesuitak [Kolombian bizi da; une honetan ez naiz gogoratzen izenaz]: «Zergatik dituzue duda-muda horiek bihotzean?» Eta segidan Unamunoren tragedia kontatu digu, fedearen inguruan; Unamunok berak kontatua nobela batean. Nobelako protagonista, Zamoran bizi den apaiz bat da; ez du sinesten betiko bizitzan; kredoa esatean, isildu egiten da «sinesten dut haragiaren piztuera eta betiko bizitza» iristen denean. Unamunoren beraren egoera islatzen du apaiz horrek. Apaiz horrekin batean, nobelan beste bi pertsona ageri dira: emakume bat, oso fededuna, apaiza animatzen duena fedean sakontzera, eta gizonezko ateo bat, apaizaren fedearen inguruko ahuldadea eta bila egiten duen borroka ikusirik, konbertitu egin da.

Unamunok, nobela horretan, bere argazkia egin digu, eta gu guztiona. Askotan sentitu ohi dugu geuk ere apaizaren zalantza hori. Hitzez eta teorian ez bada, geure jokabideetan.

Unamuno 1936-12-31n hil zen. Bere hilobian epitafio hau jartzeko eskatu zuen: «Sar nazazu, Aita betikoa, zeure bularrean, sukalde misterioitsu horretan, hor egingo dut lo, zeren eta lur jota bainator hain kinka gogorra pasatu behar izatetik. Hau soilik eskatzen diot Jainkoari: izan dezala errukia ateo honen arimarentzat».

Urteko 13. astea.

San Ireneo Lyongoa, *gotzaina eta martiria*.

§ Erregeak bigarren liburutik 4, 8-11. 14-16a.

Behin batean, Eliseo Xunemdik igaro zen. Bazen han andre handiki bat, eta bere etxera eraman zuen Eliseo bazkaltzera. Harrezkero, handik igarotzen zen bakoitzean, bertan gelditu ohi zen Eliseo bazkaltzen. Behinola, andreak esan zion senarrari: «Begira, badakit gure etxera etorri ohi den hori Jainkoaren gizon santua dela. Egin diezaiogun goian gela txiki bat; ohea, mahaia, aulkia eta argiontzia ipiniko dizkiogu, gurera etortzean bertan geldi dadin».

Etorri zen behin Eliseo eta, goiko gelara sarturik, bertan etzan zen. Eliseok Gehazi bere morroiari esan zion: «Zer egin dezakegu andre honen alde?» Gehazik erantzun zion: «Begira, ez du haurrik eta senarra zahartua du». Eliseok esan zion morroiari: «Dei egiozu».

Dei egin zion eta andrea atean agertu zen. Eliseok esan zion: «Datarren urtean, garai honetan, semea izango duzu besoetan».

[Sal 89 [88]: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betierez beti.]

§ San Paulok Erromatarrei 3-4. 8-11.

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugu bat. Bataioan hobiratuak izan gara harekin batean heriotzan, Aitareen aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun.

Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko; herioak ez du gehiago aginterik harengan; haren hiltzea bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitzea Jainkoarentzat bizitzea da. Berdin zuek ere; hartu kontuan bekatuarentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.

Urteko 13. astea.

San Ireneo Lyongoa, *gotzaina eta martiria*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 37-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Aita nahiz ama Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai; semea nahiz alaba Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai. Bere gurutzea hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzat gai. Bere biziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du.

Zuek onartzen zaituztenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du. Profeta bat, profeta delako, onartzen duenak profetari zor zaion saria izango du, eta pertsona zuzen bat, zuzena delako, onartzen duenak pertsona zuzenari zor zaion saria izango du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, baso bat ur fresko besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko».

**E**sapideen lehen sailean, berari jarraitzearen eskakizun zorrotzak adierazi ditu Jesusek. Proposamen hauek esapide hirukoitz eta erradikal honekin amaitu ditu: «Ez da niretzat gai» baldintza hauek onartzen ez dituenak. Esapideen bigarren sailean, eskakizunak leundu gabe, haiek garatzeko pistak eman dizkigu. Harrerez mintzo zaizkigu. Harrera egitea, beste bati geure etxea edo lagunartea irekitzea da: geurean tarte bat eskaintzea eta geurearen partaide egitea, garenaren eta dugunaren partaide. Beste bati harrera egiten diozunean zeure buruari erdigunea kentzen diozu: zeure baitatik irteten zara; zeureari desatxikitzen zaitzaizkio. Nork bere burua erdigune izateari uzten dio. Eta horrela hasi ohi gara ulertzen Jesusek esan nahi zuena, beragatik bizia «galtzeaz» eta benetan «salbatzeaz» mintzo zenean. Jesusek bere bizia galdu zuen, ematen aritu baitzen bekatariak, gaixoak eta behartsuak... onartzean: horrela «salbatu» egin zuen bere bizia. Hain justu, Aitak berpiztu egin zuen, arrazoi emanez. Harrera honetaz –«salbatzeko» «galtzea» denaz– mintzo zaizkigu lehen irakurgaia (Eliseo profeta eta emakume xunemdarra) eta ebanjelioa (baso bat ur ematea). Kasu bietan, harrera egiteak –munduaren begientzat galera iruditu arren, desatxikitzea eskatzen duelako– bizia eragin du.

Urteko 13. astea.

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.

Santa Maria, *San Markosen ama*.

### § Apostoluen Eginak liburutik 12,1-11.

Aldi hartan, Herodes erregea eliz elkarteko batzuei gogor erasoz hasi zen. Joanen anaia Santiago ezpataz hilarazi zuen eta, hori juduei atsegin zitzaie la ikusirik, Pedro ere preso hartu zuen. Pazko-astea zen. Pedro atxilotu eta kartzelan sartu zuen, bada, eta launa gudariko lau talderen zainpean jarri, Pazko ondoren herriaren aurrean agerrarazteko asmoz. Pedro kartzelan zaindua zeukaten bitartean, eliz elkar-  
tea otoitzean ari zitzaion haren alde Jainkoari etengabe.

Herodesek hura kartzelatik atera behar zuen aurreko gauean, Pedro lo zegoen bi gudariren artean, bi katez loturik, eta guardiak atean kartzela zaintzen zeudelarik. Bat-batean, Jaunaren aingerua agertu eta gela guztia argiz bete zen. Aingeruak, saihetsean ukituz, Pedro esnarazi eta esan zion: «Jaiki azkar». Erori egin zitzaizkion kateak eskuetatik. Gero, aingeruak esan zion: «Lotu gerrikoa eta jantzi oinetakoak». Hala egin zuen; eta aingeruak berriro: «Jantzi soingainekoa eta jarraitu niri».

Haren ondoren atera zen Pedro; ez zekien aingeruaren bitartez gertatzen ari zena egia zen ala ez; ametsa iruditzen zitzaion. Lehenengo eta bigarren zaintzaile-taldeen ondotik igarota, kalera zeraman burdinazko ateraino iritsi ziren. Atea berez zabaldu zitzaion eta kanpora irten ziren. Kale bat igaro ondoren, aingeruak bakarrik utzi zuen Pedro. Gertatuaz jabeturik, Pedrok esan zuen: «Orain badakit Jaunak bere aingerua bidali duela, ni Herodesen eskuetatik eta judu-herriak niretzat zituen asmoetatik askatzera».

[Sal 34 [33]: Beldur guztietatik libratu ninduen Jaunak.]

### § San Paulok 2 Timoteori 4,6-8.17-18.

Anaia maitea: Ni neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; gainean dut mundu honetatik joateko ordua. Borroka ona egin dut, bu-

Urteko 13. astea.

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.

Santa Maria, *San Markosen ama*.

katu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain dut garai-penaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didan koroa; eta niri ez ezik, baita haren agerraldia maitasunez itxaro duten guztiei ere.

Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten. Berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau gaitz guztitik eta salbatuko, zeruko bere erreinura eramanez. Berari aintza menderen mendetan. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

**P**edro eta Paulo Elizaren bi zutabe dira. Pedro arrantzale soil bat zen; Paulo, gizon eskolatua, fariseua. Jenio bizikoak biak; hain justu, talka ere egin zuten batak bestearekin, baina elkar errespetatu zuten funtsean. Batak Jesus ukatu zuen, besteak pertsegitu; baina biek egin zuten negar nork bere bekatuaz. Biak itsutu ziren Jesusez; berari eta

Urteko 13. astea.

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.

Santa Maria, *San Markosen ama*.

---

berak hots egindako Erreinuari eskaini zioten nork bere bizia. Eta Jesussek biak egin zituen bere-bere: Pedrori Elizaren «arroka» eta «administratzaile» izateko eginkizuna gomendatu zion; Elizaren batasunaren berme izango zen; hartarako, bere anai-arreben fedea baietsi behar zuen. Paulori Israelgo mugapetik beste kultura eta jende batzuetara irteteko eginkizuna edo misioa eman zion, Jesusen beraren Berri Ona hots eginez. Pedro, eztabaida gabeko bere lidergoaz, elkartearen bateratzaile izan zen; Paulo elkarte-sortzaile izan zen, horrela Elizaren pluraltasuna segurtatuz. Ez zuten falta izan pertsekuziorik, auzi-mahairik, kartzelarik, irainik..., baina haietan guztietan Jaunaren sostengua sumatu zuten. Biak hil ziren martiri. Biak ditugu nortasun-eredu eta bi karismen etsenplu, Elizan sekula ere galdu behar ez genituzkeenak: Jesusen izenean bide berriak harrotzera eragiten duen ausardia eta batasun irmoa bermatzen duen mezu batekiko eta pertsona batekiko leialtasuna.



[Amosen Profezia liburutik 3, 1-8; 4, 11-12: Jaunak hitz egitean, nork ez zabaldu haren mezua? Sal 5: Gida nazazu, Jauna, zeure zuzentasunaren bidetik.]


† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 23-27.

Aldi hartan, Jesus txalupara igo zen eta ikasleek jarraitu zioten. Bat-batean, ekaitz handia sortu zen itsasoan, eta olatuek txalupa estali egiten zuten. Jesus, berriz, lo zegoen. Ikasleek hurbildu eta esnatu zuten, esanez: «Salba gaitzazu, Jauna! Galtzera goaz!»

Hark esan zien: «Zergatik zarete hain beldurti, sineste txikikook?» Eta, zutituri, haserre egin zien haizeari eta itsasoari, eta barealdi handia egin zen.

Ikasleek, harriturik, hau zioten: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?»


**M**ateo ebanjelariak, hitz erdika eta sinbolismoz –itsasoak eta olatuek Itun Zaharrean gaitzaren indarrak sinbolizatzen dituzte, Jainkoak garaituak–, katekesi sakon bat eskaini digu eliz elkartean. Jesusengan konfiantza izan behar da, ur harroak, gaua eta aurkako haizea... gorabehera; esan nahi da, Elizaren bizitzari tarteka astindu latza ematen dioten zailtasunak eta arriskuak gorabehera. Jauna lagun eta sosteng du, eta ertzeraino gidatzen du, bera ere ontzi berean doalako: ez du uzten bera bakarrik –lo dagoela eman arren–. Eliza horrek, jakina, aitortu egin behar du bere baitan duen Jaunaren presentzia hori («Emmanuel» da), eta aitortu, orobat, mundu osoaren aurrean Jainkoaren Semea dela Jaun hori. Elizan, Jesusekin bizi gara ontziraturik.



**UZTAILA / GARAGARRILA**

**AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:**  
Gure familiak.

**Egin dezagun otoitz:** Gaur egungo familiek maitasun, begirune eta aholku-jendea lagun izan dezaten.



## UZTAILA

Urteko 13. astea.

San Aaron (*Moisesen anaia*).

Santa Regina, *aitorlea*.

Santa Ester, *erregina*.

## Asteazkena / Eguaztena

# 1

[**Amosen Profetia liburutik 5, 14-15. 21-24:** Kendu nire aurretik zeuen kantuen zarata-hotsa; datorrela justizia, agortzen ez den erreka bezala. **Sal 50 [49]:** Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 28-34.**

Aldi hartan, Jesus beste itsasertzera, gerasatarren lurraldera, iritsi zenean, bi deabrudun irten zitzaizkion bidera, hilobi artetik aterata. Hain baitziren gaitoak, ez zen inor ausartzen bide hartatik ibiltzen. Deiadarka esan zioten: «Zer duzu gurekin, Jainkoaren Seme horrek? Garaia baino lehen guri oinaze ematera etorri al zara?»

Handik urrutira gabe, txerri-talde handi bat zebilen uxarrear, eta deabruak eskatu zioten Jesusi: «Botatzekotan, bidal gaitzazu txerri-taldera».

Jesusek esan zien: «Zoazte!» Haiek atera eta txerrietan sartu ziren, eta txerri-talde osoa ezpondan behera itsasora amildu zen eta urean ito.

Txerri-zainek ihes egin zuten eta, hirira joanik, dena kontaktu zuten, baita deabrudunei gertatua ere. Orduan, herri osoa atera zen Jesusengana eta, ikusi zutenean, beren lur-mugetatik alde egiteko eskatu zioten.

«**Zoazte**». Jesusen hitz ahalsua da gaitzaren indarren aurka, lurralde paganoan bi pertsona deabrudunez jabetu direnen aurka jaulkia. Deabru-boterea deserrotzeari eman dio Jesusek, eta txerriek sinbolizatzen duten eremu likitsera eragin die, azkenean hondamendira (itsasora) botaz. Agerian jarri da beste behin Jesusen ahalmena, gu zapalkuntzatik eta loturetatik liberatzeko. Txerri-zainek herri gutzia mugiarazi dute Jesusi handik joan dadin eskatzeko: amorruz, txerriak galdu dituztelako ala haren jainkozko ahalmenak eragin dien beldurragatik? Gauza da, jende hori gutzia kezkatuago ageri dela beren ondasun materialez, pertsonen askatasunaz baino. Ez ote da hau bera, zoritzarrez, gaur egungo egoera?

# 2

## Osteguna / Eguena

## UZTAILA

Urteko 13. astea.

Santuak: Bernardino Realino, Juan Francisco Régis eta Francisco de Gerónimo; Dohatsuak: Julián Maunoir eta Antonio Balducci, *apaizak, jesuitak*. San Juvenal, *martiria*. San Odon, *gotzaina*.

[Amosen Profetia liburutik 7, 10-17: Jaunak bidali ninduen bere herriri profetizatzerara. Sal 19 [18]: Jaunaren erabakiak egiazko, den-denak bidezko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 1-8.

Aldi hartan, Jesus txalupara igo, itsasoaz bestaldera igaro eta bere herrira etorri zen. Hortan, elbarri bat ekarri zioten, ohatilan etzana. Jesusek, lagun haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Zan bihotz, seme! Barkatuak dituzu bekatuak».

Orduan, lege-maisu batzuek hau zioten beren baitan: «Biraoka ari duk hau».

Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zergatik dituzue burutapen gaizto horiek zeuen baitan? Zer da errazago, “barkatuak dituzu bekatuak” esatea ala “jaiki eta zabiltza” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu hone-tan bekatuak barkatzeko ahalmena. Orduan, esan zion elbarriari: “Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera!”» Hura jaiki eta etxera joan zen.

Hau ikustean, izaturik gelditu zen jendea eta Jainkoa goresten zuten, gizakiei horrenbesteko ahalmena eman zielako.

**J**esus ez da egon elbarriak barkazioa eskatu zain; baizik eta aurrea hartu dio: onartu du eta barkatu. Jesus bekatariengana –beren bekatuak aitortu diezazkieten zain egon gabe– salbatzeko hurbildu izanak egiten du sinesgarri bekatariet duen maitasuna. Izan ere, bekatariak, Jesusek alde zurretik maite duela jakinik, ez du erreparorik bekatari dela aitortzeko. Beraz, jada barkazioaren ingurunean sartua delarik bihurtzen da bekataria bere bekatua aitortzeko eta barkatua dela sentitzeko gai: barkatuak izan garen bekatari gara beti. Hori gertatu zitzaion elbarriari: Jesusek maite zuela, onartu eta barkatu ziola sentitu zuen. Ondoren Jesusek eman zion absoluzioa, ez zen izan jada emana zion barkazioaren baiespina baizik.

Urteko 13. astea.

SAN TOMAS, APOSTOLUA.

San Heliodoro, gotzaina.

[San Paulok Efesoarrei 2,19-22: Apostoluen oinarri gainean eraikiak zaudete. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,24-29.

Tomas, hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez badituz, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez badituz, ez dut sinetsiko».

Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik».

Tomasek erantzun zion: «Ène Jauna eta ene Jainkoa!» Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

**J**esusek bere zauriak adiskidetzeko eta saneatzeko tresna bihurtu ditu Tomasen beraren zaurientzat. Jesusek bere zauriak ukitzera gonbidatu duenean, Tomas bere zauriez jabetu dadin nahi izan du, beraren fedeari eman zion egundoko krisiak eragin zizkionez, alegia. Bere sinesgabetasunaren ezkutuko zauriak Jesusen ageriko zauriak ukitzera irits daitezzen utzi behar die Tomasek. Horrela saneatu ahal du bere sinesgabetasuna eta horrela iritsi ahal du fede-egintzara. Gregorio Handia aita santuak dioenez, «bere zaurien ebakiondoa erakutsi dionean, sendatu egin du Jesusek haren sinesgabetasunaren zauria». Jesusek gozo-gozo erakutsi ditzake bere zauriak, jada erabat sendaturik dituelako.

Urteko 13. astea.  
 SAN TOMAS, APOSTOLUA.  
 San Heliodoro, gotzaina.

Horrela, Jesusek irakaspen handia eman digu: beraren zauriek – eta, beraz, baita gureek ere, bizitzan hainbatetan jasaten ditugunek, eta, jakina, ez fisikoek bakarrik, baita batez ere mingarrienak diren moralek, erabat sendatuak direnean– nahiz eta ebakiondoa eta arrastoa gorputzean gelditu, mingostasuna eragin ordeztu, indar saneagarria eta adiskidetzalea izan dezaketela besteentzat.

\*\*\*

### Eliza apostolutarra (1)

«"Apostolutarra" terminoak apostoluei egiten die erreferentzia: apostoluen arabera. Hitzak, beraz, kristautasunaren hasiera eta harekiko adostasuna iradokitzen ditu. Ideia hau guztiz zuzena da, baina osatu beharra du. Esango genuke, definizio horrek, nolabait esateko, egiaren erdia bakarrik dakarrela. Beste erdia eskatologiari [azkenaldiak] egindako erreferentziak osatuko luke. Kristo "alfa eta omega da, hasiera eta azkena, den hura, zen hura eta etortzekoa den hura, *Pantokratorra*" (Apokalipsia 1,8; 21,6;22,13). Apostolutasuna ezaugarri hura da, Elizarentzat, aldi berean, grazia eta erantzukizuna edo gauzatu beharreko eginkizuna den hura; betebeharrak ezartzen dion hura: alfaren eta omegaren arteko tartea betetzea, batetik besterako jarraitutasuna, bukaeraren eta hasieraren funtsezko identitatea segurtatuz. Ondorioz, apostolutasuna biei, nola bukaerari hala hasierari, erreferentzia eginez hartu behar dugu. Goratua izan bedi Jainkoa! Adostasun ekumeniko sakon baten objektu den egia baten aurrean gaude, nahiz eta teologia bakoitzak bere ñabardurei eta harmonikoei eusten dien» (*Yves M.-J. Congar, El Espíritu Santo, Herder, 1991, 244. or.*). (*Jarraituko du abuztuaren 24an, 444. orrialdean.*)

Urteko 13. astea.

San Valentin Berrio-Otxoa (Elorrio 1827 – Vietnam 1861),  
*domingotarra, gotzaina, eta lagunak, martiriak.*

[Amosen Profezia liburutik 9, 11-15: Nire herri Israelen zoria aldatuko dut eta beren lurraldean landatuko ditut. **Sal 85 [84]:** Jaunak bakea agintzen dio bere herriari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 14-17.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleak Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Zergatik guk eta fariseuek sarritan egiten dugu barau, eta zure ikasleek ez?»

Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon al daitezke triste senar berria berekin duten bitartean? Etorriko zaie senar berria kenduko dieten eguna; orduan, bai, egingo dute barau.

Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten, jantzia behartu egingo bailuke adabakiak, eta zerratada handiagoa egingo. Ez da ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; bestela, zahagiak lehertu egingo lirateke, eta ardoa isuri eta zahagiak hondatu. Ardo berria zahagi berrietan sartzen da, eta horrela biek irauten dute».

**J**esus ez da erreformatzaile soil bat, antzinakoari eusteko adabaki batzuk dakartzana: «ardo berria zahagi berrietan ipini behar da». Ardo berria ekarri du Jesusek, beste jokaera bat. «Aszetismo» hitzak ez du balio haren biziera laburbiltzeko (ez zen esenio bat, ez zuen jokatu Bataiatzaileak bezala). Halere, ondo zehazten dute haren biziera honelako hitzek: «erruki», «gupida», «askatasun», «maitasun»... Biziera berri hori bizitzera gonbidatzen gaitu: ardo berria zahagi berrietan ipintzera, adabakirik gabekoetan, hau da, honelako biziera egiteko prest dagoen bihotzean: zerbitzu, buru-eskaintza, gupida eta erruki-biziera, alegia. Gaingitu beharra dugu adabakietara eta ezina leuntze hutsera jotzeko dugun jarrerara: ardo berria adabaki zahardun zahagietan ipintzeko jarrera, alegia; azkenean, erabat urratuko baillitzateke eta ardoa galduko.



## § Zakariasen Profezia liburutik 9, 9-10.

Honela mintzo da Jauna:

«Poztu biziro, Sion hiri eder! Egin irrintzi, Jerusalem hiriburu! Hara, badatorkizu zeure erregea: zuzen eta garaile dator, apal eta asto baten gainean, astakume baten gainean. Berak hondatuko ditu Efraimgo gudu-gurdiak eta Jerusalemgo zaldiak; hautsiko ditu gudu-uztaiak, eta bakea iragarriko die nazioei. Itsasotik itsasora aginduko du, Eufrates ibaitik lurraren azken mugetaraino».

[Sal 145 [144]: Ene Jainko, ene errege, bedeinkatuko dut zure izena betiere.]

## § San Paulok Erromatarrei 8, 9. 11-13.

Senideok: Zuek ez zarete grina txarren menpean bizi, Espirituaren menpean baizik, Jainkoaren Espiritua zuengan bizi baita.

Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi bada, Kristo hilen artetik piztu zuenak berak bizi-araziko ditu zuen gorputz hilkorak ere, zuengan bizi den Espirituaren bitartez.

Zorretan gaude, beraz, senideok, baina ez grina txarrekin, horien arabera bizitzeko. Horrela bizitzen bazarete, hil egingo zarete; baina Espirituaren bidez giza egintza gaiztoei uko egiten badiezue, biziko zarete.

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik.

## UZTAILA

Igandea / Domeka

5

Urteko 14. astea.

San Antonio Maria Zaccaria, *apaiza, fundatzailea*  
(*bernabitak*).

Santa Elisabet Portugalekoa, *erregina*.

Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarrria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarrria leuna baita, eta nire zama arina».

**J**esusek Aita bedeinkatu du, ez baitzaie agertzen «jakintsuei eta adituei», baizik eta jende xumeari. Lehen haiek buruaskidun dira, ez dute irakasle beharrik; zuzenak dira beren ustez eta, horregatik, gutxietsi egiten dute berak bezalako ez den jendea; Legearen letratsu dira, eta jasanezineko lepo-fardel bihurtzen dute lege hura. Itsu-hondo dira, Jesus Semearen jardueraz eta irakaspenez bere burua agertu nahi izan dien Aitari bihotza irekitzeko. «Txikiak», berriz, apalak dira; ahul eta, agian, ezdeus dira gizartean, munduaren aurrean berme izan litzaketen ahalik, famarik eta jakintzarik gabeko, baina garbi dituzte begiak, egiazale dute asmoa eta bihotza beti prest han sartu nahi dutenei sartzen uzteko eta irakaspena hartzeko. Hauei dohain gisa azaltzen zaie Jesusen Jainkoa. Jesusek, Aita inork baino hobeto ezagutzen baitu, ezagutzen du horren zergatia. Izan ere, bete-beteko sintonia dago Jesusen Jainkoaren eta «txiki» direnen artean: «beti handiago den Jainkoa» «beti txikiagoa den Jainkoa» da, errukiaren errukiz txikiago egin dena. Eta Jainko askatzaile bezala agertu ohi zaie: zama legalista itogarrietatik askatzaile, elkarrekin goldean egiteko uztarri bera partekatzeko prest. Egin gaitzen txiki.

Urteko 14. astea.

Santa Maria Goretti, *birjina eta martiria*.

[Oseasen Profezia liburutik 2, 16. 17b-18. 21-22: Neure emazte egin-go zaitut betiko. Sal 145 [144]: Errukiorra eta bihozbera da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,18-26.

Aldi hartan, Jesus mintzatzen ari zela, buruzagietako bat etorri zitzaion eta, ahuspezturik, esan zion: «Hil berria dut alaba; baina zatoz hari eskua ezartzera, eta biziko da». Jesus jaiki eta ondoren joan zitzaion bere ikasleekin.

Hontan, hamabi urte hartan odol-jarioz zegoen emakume bat atzetik hurbildu zitzaion Jesusi eta soineko-ertza ukitu zion, hau baitzioen bere baitan: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz».

Itzuli zen Jesus eta, emakumea ikustean, esan zion: «Izan bihotz, alaba! Zeure sinesmenak sendatu zaitu». Eta ordu beretik sendatua gelditu zen.

Iritsi zen Jesus buruzagiaren etxera eta, hango erostariak eta jendearen istilua ikustean, esan zien: «Alde hemendik! Neskak ez dago hila, lo dago». Haiek barre egin zioten.

Jendea bidali zutenean, sartu zen Jesus eta eskutik heldu zion neskatxari, eta neskatxa jaiki egin zen. Inguru hartan guztian zabaldu zen gertatuaren berri.

**E**makumearen fedea goratzean, Jesusek leun eta fin dihardu. Horela, sendaketetan eta barkazio-pasadizoren batean, «Zeure fedeak sendatu zaitu; zeure fedeak salbatu zaitu» esatean, Jesusek agertu du, garaipen hura ez duela berea, baizik eta pertsona bekataria edo gai-xoa animatu eta konbentzitu nahi du, sendatu dena bera izan dela bere fedeaz sendaketa bideratu duena. Jesusek kontuan hartzen du gizonezkoa edo emakumea izan. Jesus gai da gizakiaren barnean energia batzuk mugiarazteko, norberak duenik eta alderik hobena piztu eta sustatuko duten energiak, alegia. Eta gaurko bi mirari hauetan, beragana konfiantzaz jotzeko ausardia ernearazi du, eragozpen zirela ematen zuten oztopo guztiak gorabehera.

Urteko 14. astea.

San Fermin (Iruñea 3. mendean? – Amiens?), *gotzaina eta martiria, Nafarroako Zaindaria.*

[Oseasen Profezia liburutik 8, 4-7. 11-13: Haizea erein dute, eta ekaitza jasoko. Sal 115 [113 B]: Israeldarrok, izan konfiantza Jaunagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,32-38.

Aldi hartan, deabruaren menpe zegoen mutu bat ekarri zioten Jesusi. Honek deabrua bota zuen, eta mutua hizketan hasi zen. Jendeak, harriturik, zioen: «Ez da Israelen egundaino horrelakorik ikusi».

Fariseuek, berriz, hau zioten: «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak».

Herriz herri eta auzorik auzo ibili ohi zen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekaturia eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uzlara».

**E**rruki-egintza korporal eta espiritualei dagokienez, gaur egun lau pobretasun-mota bereizten dira: pobretasun fisiko eta ekonomikoa, larriena eta ikusgarria; kultura-pobretasuna, formazio-aukerak ukatzearekin jendea gizarte-ingurumenetik bazterten duena; harreman-pobretasuna, jendea gizarte-ingurumenetik bakantzen duena; pobretasun espirituala: barne-hustasunean, etsipenean edo utzieran datza. Guztiok gara pobretasun hauen aurka borrokatzera deituak, Jesusen gupidak eraginik; hura bere garaiko gizartean hurbildu egin zitzaizen behartsuei (pobretasun fisikoa), marjinautuei eta gutxietsiei (kultura-pobretasuna), gaixoei eta bakanduei –adibidez, deabrudunei eta lepradunei– (harreman-pobretasuna), eta noragabeei eta bekatariei (pobretasun espirituala).

Urteko 14. astea.

Santa Priszila, *martiria*.San Prokopio, *martiria*.

[Oseasen Profezia liburutik 10, 1-3.7-8.12: Jaunagana jotzeko garaia duzue. Sal 105 [104]: Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 1-7.

Aldi hartan, Jesusek, hamabi ikasleei dei eginik, ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko.

Hona hamabi apostoluen izenak: lehenbizi Simon, Pedro deritzana, eta honen anaia Andres; Santiago Zebedeorena eta honen anaia Joan; Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo zergalaria, Santiago Alfeorena eta Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena.

Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samariako herrialdean ere, baizik eta zoazte Israel herriko ardi galduetara. Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua».

«**J**endeak, ikustean, errukia eragiten zion...» Jesusi. Errukizko begi horiek izan dira bidalketaren abiapuntu. Ikastaldi baten ondoren, unea iritsirik ikusi du bere ikasleak misiolari bidaltzeko. Misio horrek – dei hori geuri ere egina sentitzen dugu– eskatzen du: 1) Ez galtzea behin ere begiratu gupidatsu hori eta Berri Onaren aire pozgarria. Horretarako, ahalmen gizatiartzaile eta zerbitzuzkoaz –ez-dominatzaileaz– jantzi ditu: «aginpidea eman zien espiritu likitsak botatzeko eta gaixotasun eta oinaze guztiak sendatzeko». Eta 2) etengabeko erreferentzia egin behar diote Kristori –hark die dei egin eta hark ditu bidali–: bidalia ez da sekula misioaren jabe; etengabeko erreferentzia horretaz ahazten bada, egingo du, bai, zeregin eta egitarau pertsonalik, baina ez da izango Kristoren misioaren luzagarri.

Urteko 14. astea.

Txinako martiriak: San Agustín Zhao Rong, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*. Santuak: Leon Ignazio Mangin, *apaiza*, Maria Zhu Wu eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*.

[Oseasen Profezia liburutik 11, 1-4. 8c-9: Ikaraz jartzen zait bihotza. Sal 80 [79]: Erakutsi guri, Jauna, aurpegi argia, salba gaitezen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu duzue, eman hutsean. Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan; ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen jatekoa.

Edozein herritan nahiz auzotan sartzen zaretela, jakizue ba ote den konfiantzazko inor, eta gelditu haren etxean, herri hartatik atera arte. Etxean sartzean, egin bake-agurra; etxeokoa duin badira, hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira.

Onartzen ez bazaitzute eta zuen hitza entzun nahi ez, etxe nahiz herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa. Benetan diotsuet: auzi-egunean Sodomak eta Gomorrak zigor bigunagoa izango dute herri hark baino».

**M**isioa: 1) ez da oinarritu behar baliabide boteretsuetan. Loiolako Ignaziok, pasarte honi erreparatuz, jesuiteri eskatu zien «predika zezatela pobretasunean»; ondotxo zekien Ignaziok pobretasunak askatasuna ematen diola mezulariari. 2) Jendearen salbazio osoa (gorputz eta arima) bilatu behar da. Lau agindurekin adierazi du Jesusek: «senda itzazue, piztu itzazue, garbitu itzazue, bota itzazue». 3) Eskaintza gozagarria da, ez du asmotan, ez konkistatzea, ez ezer ezartzea. «Bakea zuei» agurra izan behar du beti ahoan eta bihotzean misiolariak. 4) Doakoa da, eta ez du ibili behar ordainbide bila, ezta mendetasun afektibo bila ere. 5) Mezuari uko egin diezaiokete, baina ez da zertan bihotza galdu. Hautsa astintzearen keinua onarpen-faltaren egiaztapena da, baina ez du esan nahi mendeku edo indarkeriarako eskubide duzunik.

Urteko 14. astea.  
 Santa Rufina, *martiria*.  
 San Felix, *martiria*.

[Oseasen Profezia liburutik 14, 2-10: Ez diegu gehiago «geure jainko» esango geure eskuz eginei. Sal 51 [50]: Nire ahoak iragarriko du zure gorespena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 16-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Hara, ardiak otso artea bezala bidaltzen zaituztet. Izan zaitezte, bada, sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo.

Kontuz jendearekin! Auzitegietara eramango zaituztete eta sina-gogetan zigorkatuko; agintarien eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Eramaten zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatan: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatuko, zuen Aitaren Espiritua mintzatuko da zuen bidez.

Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua.

Herri batean pertsegitzen bazaituztete, egin ihes beste batera. Benetan diotsuet: Gizonaren Semea etorri aurretik, ez dituzue Israelgo herri guztiak igaroko».

**M**ezuaren ukapenetik mezularia pertsegitzera pasatu ohi da jendea. Mateo ebanjelariak, Jesusen hitzez ari dela, kontuan du bere elkar-teea jasaten ari den pertsekuzioa. Jesusek iragarritako pertsekuzioa beti gertatu da historian barna eta betikitzen jarraitzen du gaur egun ere. «Nigatik» pertsegituak diren kristauak dira, Jesusekin berarekin eta haren baloreekin bat egiten dutelako. Gaur sentibera izan beharko genuke «santuen elkartasuna» bizitzeko –hainbat aldiz aitortu, bai, baina bizi ez duguna–; esker onez miresteko hainbat lagunek historian barna Eliza indartsu egin dutelako beren adoreaz, eta, haiekin bat eginez, otoitz egin beharko genuke gaur egun beren bizia Kristogatik adoretu ematen ari diren kristautentzat.

Urteko 14. astea.

San Benito, *abadea (Europako Zaindaria)*.

### § Esaera Zaharrak liburutik 2,1-9.

Ene seme, nire esanak onartu eta nire aginduak gogoan gordetzen badituzu, jakinduriari kasu eta zuhurtzari jaramon egiten badiezu; adimenari dei eta zuhurtzari oihu egiten badiezu, horiek dirua eta altxorrek bezala bilatzen badituzu, orduan ulertuko duzu Jaunaganako begirunea, eta Jainkoa ezagutzera iritsiko zara. Jauna baita jakinduria ematen duena, beragandik datoz ezaguera eta zuhurtzia.

Berak ematen die arrakasta zintzoei eta babesba jokabide zuzeneko; zuzenbidea babesten du eta zintzoen jokabidea zaintzen. Orduan ulertuko duzu zer den justizia eta zuzenbidea, jatoriasuna eta jokabide on oro.

[Sal 34 [33]: Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna.]

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,27-29.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?»

Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta negatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurra uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare».

**P**aulo VI.ak, San Benito Europako Zaindari aldarrikatzean, airtortu zuen, monasterio beneditarrek konfiguratu zutela Europa kontinentearen batasuna, «gurutze, liburu eta goldearekin kristau-zibilizazioa» gizarteratzean. Gaurko irakurgetan pertsonaia handi izan zen Nurtziako Benitoren ezaugarri batzuk azpimarratzen dituzte: jakinduria espirituala eta desatxikimendua. Zuzentasuna bizitzera daraman



Urteko 14. astea.

San Benito, *abadea (Europako Zaindaria)*.

**jakinduria espiritual hura lema honek sintetizatzen du: «Ora et labora». Europa materialista eta postkristau honetan geure egin dezakegun proposamena da. Eta proposatzen digu, balore transzendentalen (otoitz egin) esperientziatzko lekuko izatea, eta, aberastasunen banaketa zuzena, Europan historia egoistan barna hainbat aldiz hautsia, faboratuko duen zuzentasunaren alde (lan egin) jokatzea.**

\*\*\*

### **San Benitoren Araudia Hitzaurrea (zatitxo bat)**

«Aditu, ene seme, maisuaren aginduak eta makurtu zeure bihotze-ko belarriak. Hartu gogo onez hain samurra den aitaren gomendioak eta bete itzazu, obediencia biziz desobediencia nagikeriaz alde batera utzi zenuenara itzul zaitez. Zuri, beraz, doakizu orain nire hitza, zuri, edozein zarella, zeure gogo propioari uko egin nahi diozun horri eta obediencia arma indartsu eta argiak hartu nahi dituzun horri, Kristo Jaunaren, zinezko gure Erregearen, banderapean borroka egiteko.

Ororen gaintetik, erregutu iezaiozu, otoitz guztiz errepikakorrez, eraman dezala berak azken onera hasi nahi duzun ongi oro; gu bere semeen artean hartu nahi izan gaituenez gero, egun batean gure egitatez tristatu beharrik izan ez dezan. Izan ere, halako ardura izan behar dugu, beti, geuregan ipini dituen ondasunak beraren zerbitzurako erabiltzeko, non ez dezan izan, ez bakarrik, aita irainduk bezala, bere semei beren ondarea kendu beharrik, baizik eta, areago, beharurik gerta ez dadin, jaun beldurgarri eta geure okerrenatik haserretu bezala, gu betiko zigorrera galtzera, berari aintzara jarraitu nahi izan ez zioten zerbitzari gaizto gisa».

Urteko 15. astea.

San Joan Gualberto, *abadea*.

San Hilario, *martiria*.

### § Isaias Profetaren liburutik 55, 10-11.

Honela mintzo da Jauna:

«Euria eta elurra zerutik jaisten dira eta ez dira berriro hara itzulzen lurra ase, ernaldu eta ernamuindu gabe, ereiteko hazia eta jateko ogia eman ditzan; hala egingo du nire ahotik ateratako hitzak ere: ez da nigana hutsik itzuliko, baizik eta egingo du Nik nahi dudana eta beteko Nik ezarritako helburua».

[Sal 65 [64]: Lur onean erori zen haziak ugari eman zuen fruitua.]

### § San Paulok Erromatarrei 8, 18-23.

Senideok: Nire iritzian, oraingo neke-lanak ezer gutxi dira gero gugan azalduko den aintzaren aldean. Izadia bera ere irrikaz dago, zain-zain, Jainkoak noiz agertuko bere seme-alaba izatea zer den. Izadiak bere benetako helburua galdua izan arren –ez bere gogoz, horretara behartu zuenarengatik baizik–, badu itxaropena, esklabotzatik eta hondamenetik askatua izan eta Jainkoaren seme-alaben aintzazko askatasunean parte izateko.

Badakigu, jakin ere, izadi osoa erdiminetan intzirika dagoela orain arte. Eta hura ez ezik, gu geu ere bai; Espiritua lehen dohain bezala hartu dugunok intzirika gaude geure barruan, Jainkoak noiz askatuko eta bere seme-alaba noiz egingo gaituen zain.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,1-23.

Egun hartan, Jesus etxetik irten eta itsasertzean eseri zen. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion inguruan, txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, hondartzan zegoen. Gauza asko esan zien, parabola bidez hitz eginez:

«Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Bes-

Urteko 15. astea.

San Joan Gualberto, *abadea*.San Hilario, *martiria*.

te zenbait ale harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, lur axala izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu.

Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuen hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar. Belarririk duenak entzun beza».

Ikasleek hurbildu eta galdera egin zioten Jesusi: «Zergatik hitz egiten diezu parabola bidez?» Jesusek erantzun zien: «Zuei eman zaizue zeruetako erreinuaren misterioak ezagutzea; horiei, ordea, ez. Izan ere, duenari eman egingo zaio eta gainezka izango du; ez duenari, ordea, duen apurra ere kendu egingo zaio. Hona zergatik hitz egiten didan parabola bidez: begiratu bai, baina ikusten ez dutelako; entzun bai, baina aditzen ez dutelako, ezta ulertzen ere. Horrela, Isaias profetak esana betetzen da horiengan:

“Entzungo duzue, bai, baina ulertu ez; ikusiko duzue, baina ohartu ez. Izan ere, herri honek gogortu egin ditu buru-bihotzak, gortu belarriak, itsutu begiak.

Ez dezaten begiez ikusi, ez belarriez entzun, ezta buruaz ulertu ere, horrela nigana bihur ez daitezen eta salba ez ditzadan”.

Zorionekoak, ordea, zuen begiak, ikusten dutelako, eta zuen belarriak, entzuten dutelako. Benetan diotsuet: profeta eta zintzo asko ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuten ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuten entzun».

Jesusek esan zien ikasleei: «Entzun ereilearen parabolaren esanahia: erreinuaren mezua entzun bai, baina ulertzen ez duenari, Gaiztoak etorri eta kendu egiten dio bihotzean ereindakoa. Hori da bide-bazterrean ereindakoa.

Harri artean ereindakoa hauxe da: hitza entzutean, berehala pozik hartzen duena; baina, sustrairik gabea eta iraupen txikikoa izanik, hitza dela-eta estutasun edo erasoaldiren bat sortu orduko, berehala huts egiten du.

Urteko 15. astea.

San Joan Gualberto, *abadea*.

San Hilario, *martiria*.

Sasi artean ereindakoa hauxe da: hitza entzun bai, baina mundu honetako ardurak eta diru-goseak ito egiten diote hitza, fruiturik gabe utziz.

Lur onean ereindakoa, berriz, hauxe da: hitza entzun eta ulertzen duena. Honek ematen du fruitua: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar».

**J**esusek bere parabola-hitzaldiari ekin dio. Bere esperantza eta bere errealismoa batu ditu hor, krisialdi batean. Jarraitzen diotenak galdezka ari dira: Zergatik ez da hazten gure talde hau? Zergatik zure hitzak, Jainkoarena bada, ez du eraldatzen mundua?

Lehen parabolarekin, ereilearenarekin, Jesusek argitu du, Jainkoaren hitzak ez duela fruitu ematen automatikoki; hain zuzen ere, Erreina Maitasun den, eta ez ezarpen, Jainko baten proposamena delako; eta maitasun-proposamen delako, onartua ez izateko arriskua duela berekin. Erreinuaren misterioa ezin interpreta daiteke efikaziaren kategoriez (ez da zuzena, Erreinuari dagokionez, “aski da baliabideak jartzea emaitza egokiak lortzeko” delako printzipioa); Erreinuarena, elkarriketa pertsonal baten misterioa da: erantzun amodiozkoa eta, ondorioz, askea bilatzen duen Maitasun batena. Hitzak onartzen du lurrrak ematen duen erantzuna, askotan ezkorra bada ere. Baina lurra ona eta emankorra denean, hitza ez da itzultzen hutsik inoiz ere, fruitu ugari ematen du, bateko ehunera iristeraino. Horregatik irakatsi digu Jesusek, ausart eta iraunkor erein behar dugula, lur-baldintza hobekak etorri zain gelditu gabe. Gure egitekoa eskuzabal ereitea da. Horixe gogorarazi digu San Paulok: «urri ereiten duenak urri biltzen du, eta oparo ereiten duenak bildu ere oparo biltzen» (2 Ko 9,6).

Urteko 15. astea.

San Enrique, *enperadorea*.  
San Silas, *San Pauloren laguna*.

[Isaias Profetaren liburutik 1,10-17: Garbi zaitezte, garbitu; kendu nire begien aurretik zeuen egintza gaiztoak. Sal 50 [49]: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 34–11, 1.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ez uste izan munduari bakea ekartzera etorria naizenik; bakea ez, baizik banaketa ekartzera etorria naiz. Bai, semea aitagandik banatzera etorri naiz, alaba amagandik eta erraina amaginarrebagandik banatzera. Eta nork bere etxe-koak izango ditu etsai.

Aita nahiz ama Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai; semea nahiz alaba Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai. Bere gurutzera hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzat gai. Bere biziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du.

Zuek onartzen zaituztenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du.

Profeta bat, profeta delako, onartzen duenak profetari zor zaion saria izango du, eta pertsona zuzen bat, zuzena delako, onartzen duenak pertsona zuzenari zor zaion saria izango du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, baso bat ur fresko besterik ez bada ere ematen dio-na, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko».

Hamabi ikasleei argibide hauek ematen amaitu zuenean, joan egin zen Jesus handik, herri haietan irakastera eta mezua hots egitera.

**M**isioari dagokion hitzaldi latza hitz kontsolagarritz amaitu da. Mezulariak onartzen dituztenek jasoko duten sariaz mintzo da Jesus; horren arrazoia, Jesusek halakoekin bat egiten duelako: «zuek onartzen zaituenak ni neu onartzen nau». Beraz, Jesusentzat, beraren misioa jarraitzen zuten ebanjelio-mezulariak beraren ordezkari ziren /

Urteko 15. astea.

San Enrique, *enperadorea*.

San Silas, *San Pauloren laguna*.

dira. Izan ere, gizon batek bidali duena gizon hori bera izango balitz bezala da; horregatik, Jesusen bidaliak onartzea nahiz ukatzea Jesus bera onartzea nahiz ukatzea da. Jaunak bidali gaituela sentitzen dugunean eta dakigunean, konpromiso indartsu bat dago tartean, ez gure aldetik bakarrik, baita Jesusen aldetik ere. Jaunak gure alde egin duen apustu hori arnasbide dugu.

\*\*\*

### Zein naiz ni zuretzat?

Zein naiz ni zuretzat?

Jesus, Zu zara...

aldarrikatzeko hitza, / esan beharreko egia,  
piztu beharreko argia, / bizi behar den bizia,  
maitatu behar den maitasuna.

Jesus, Zu zara...

partekatzeke poza, / eman beharreko bakea,  
jan behar den bizi-ogia.

Jesus, Zu zara...

goseak dagoen elikatu beharrekoa,  
egarri den ase beharrekoa, / biluzik den jantzi beharrekoa,  
harrera zor zaion etxegabea,  
maitatu beharreko bakardadekoa,  
onartu beharreko mesprextatua.

*(Kalkutako Teresa santua)*

*(LIBURUXKA ESPIRITUALA ZUZENDARI*

*ETA PASTORAL TALDEENTZAT 19/20 IKASTURTEA, Jesuitak)*

Urteko 15. astea.

Zudaireko Esteban eta lagunak, *martiriak*.  
San Kamilo Leliskoa, *apaiza, fundatzailea (Kamilotarrak)*.

[Isaias Profetaren liburutik 7, 1-9: Sendo sinesten ez baduzue, ez duzue sendo iraungo. Sal 48 [47]: Sendo ezarri du Jainkoak bere hiria betiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 20-24.

Aldi hartan, Jesus miraririk gehienak egin zitueneko herriak gaitzesten hasi zen, bihotz-berritu ez zirelako: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan bezainbeste mirari gertatu izan balitz, bihotz-berrituak ziratekeen aspaldi, dolu -jantziz eta hautsez estalirik. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango dute Tirok eta Sidonek, zuek baino.

Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko zarela? Lurraren barrenaraino eroriko zara! Izan ere, zuregan bezainbeste mirari gertatu izan balitz Sodoman, gaurdaino iraungo zukeen. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango du Sodomak, zuk baino».

**J**esus kexu da: bere «aberi txikian» –Galilean– egin dituen predikuak eta mirariek ez du arrakastarik izan. Deiadar egin du: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan adina mirari gertatu izan balitz, aspaldi bihoz-berrituak ziratekeen!» «Aiene» hauek Lukasek zorientasunen ondoren jaulki zituen «aiene»en antzekoak dira. Madarikazio baino gehiago, lantu dira eta oharpen: bihotz-berritzeko dei. Gure bizitzara erakarriz, egin dezagun gogoeta: Jaunak ez ote luke jaulki beharko «aiene» asko, «eguneroko hainbat mirariren aurrean» –zeinetan era batean edo bestean hurbildu eta iradokitzen digunean– sorgor eta itsu gelditzen garenean?

Urteko 15. astea.

San Buenaventura, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

Joan Maiorga (Donibane Garazi 1530 – Brasilera bidean

kortsarioek hil 1570), *dohatsua, jesuita eta lagunak, martiriak*.

[Isaias Profetaren liburutik 10, 5-7. 13-16: Harrotzen ote da aizkora aizkolariaren aurka? Sal 94 [93]: Jaunak ez du bere herria zapuztuko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

**G**alileako bere jarduerak itxuraz porrot egin izanak, Aita bere bihotz barnean sakonkiago ezagutzera eragin dio Jesusi: Aita, ez da «jakintsuen eta adituen» Jainkoa, baizik txikiena, ahulena, munduko «handitasunetik» urrun direnena, hitz eta egintza salbatzailearen premia dutela uste dutenena. Hauek dira Jainkoaren hurbiltze salbatzailearen hartzekodun nagusi. Jainkoa beheratzearen arrazoia ez datza jende honengan, Jainkoagan baizik: Maitasuna, izan ere, premiarik handiena duenagana doa lehenik eta munduak aintzat hartzen ez duenagana. Geure burua txiki, hauskor, geure bizitza munduaren baloretan oinarritzen ez dugulako aintzat hartuak ez garela sentituko dugunean... jakin dezagun, Jainkoaren «ahultasun» garela.



Urteko 15. astea.

Karmelo Mendiko Andre Maria (Karmengo Ama).  
Larreko Andra Maria, Karmengo Ama

[Karmengo Amaren Meza: Zakarias 2,14-17: Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorkizu-eta! Salmoa: Lukas 1,46-55: Zorionekoa zu, Maria Birjina, betiko Aitaren Semea ekarri zenuena. Mateo 12,46-50: Eskua bere ikasleetara luzatuz, Jesusek esan zuen: «Horra nire ama eta nire senideak».]

[Isaias Profetaren liburutik 26, 7-9. 12. 16-19: Lurpean etzanak esnatuko dira eta pozez oihuka ekingo diote. Sal 102 [101]: Zerutik lurrera birgiratu du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

**B**eragana hurbiltzera gonbidatu gaitu Jesusek, geure txikitasuna esperimentatuko dugunean. Batzuetan, txikitasun honek bizi-nekearen itxura hartuko du, hainbat borrokak eta behin eta berriz hasi beharrak eragindako nekearena; beste batzuetan, estutasunaren aurpegia izango du, problema berri eta zaharrak direla-eta, errepikakorrak, zeini aurre egin behar izaten baitiegu; beste batzuetan, geure tupustak eta inkoherentzia agertuko zaizkigu, putzu baten antzeko, zeinetatik ezin baikara irten eta ez baitakigu nola irten... Horrelako uneetan, jo dezagun beragana, konpromisoa hartua baitu behar ditugun pazientzia eta apaltasuna irakasteko, gaizki onartua dugun geure txikitasuna jasaten laguntzeko. Horretarako, egun egokia dugu gaurko hau Karmengo Andre Mariaren bitartekaritza eskatzeko, itsasoko izarra dugu bera, gidaria itsaso harroan: berak eramango gaitu, dudarik gabe, Jesusengana.

Urteko 15. astea.

Santa Segunda, *martiria*.

San Leon IV.a, *103. aita santua*.

[Isaias Profetaren liburutik 38, 1-6. 21-22. 7-8. Entzun dut zure eskaria, eta ikusi ditut zure malkoak. **Sal: Is 38:** Zuk gorde duzu, Jauna, nire bizia hondamen-leizetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 1-8.

Aldi hartan, larunbatean gari-soroetan barrena zihoan Jesus. Ikasleak goseak zeuden eta galburuak moztu eta jaten hasi ziren.

Hori ikustean, fariseuek esan zioten Jesusi: «Begira, larunbatez zilegi ez dena egiten ari dira zure ikasleak».

Hark erantzun: «Ez al duzue irakurri zer egin zuen Davidek, bera eta lagunak goseak gertatu ziren batean? Nola Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituzten, legez ez berak ez beraren lagunek, baizik eta apaizek bakarrik jan zitzaizketenak?»

Edota ez al duzue irakurri Moisesen legean apaizek larunbatero hausten dutela tenpluan atsedeen-legea, horregatik errudun izan gabe? Ba, Nik diotsuet: bada hemen tenplua baino gehiago den norbait. Uler-tu bazenute zer esan nahi duen Jainkoak esandako honek: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”, ez zenituzketen errugabeok gaitzetsiko. Zeren Gizonaren Semea larunbataren nagusi baita».

**L**arunbat-agindua gizatiar erakundea izan zen hasiera batean, gizar-izaera sakonekoa (Dt 5,14 hur.): «larunbata» behartsuentzat zen, goseak bizi zirenentzat, esklaboentzat... baina –kasuistika zela mediozama zapaltzaile bilakatu zen. Jesusek –bera Tenplua baino handiagoa eta «larunbataren Jaun» dela esanez– fariseuei aurpegiratu die erritu-legeak betetzea maitasuna bizitzearen gainetik ezarri dutela. Jesusentzat larunbat-agindua guztiz behekoa da maitasunaren eta errukiaren aginduaren aldean; behin ere ez dago sufritzen ari den edo gaixo dagoen jendearen gainetik. Horrenbestez, erakutsi digu ezen sufritzen ari denaren aldeko aukera serioa eta konprometiturik ez duen kultu pertsonala nahiz jendaurrekoko kultu hutsala dela, fariseuarra.

Urteko 15. astea.  
San Federiko, *gotzaina*.

[Mikeasen Profezia liburutik 2, 1-5: Lurrak gutiziatzen dituzte, eta etxeetan lapurreta egiten. Sal 10 [9 B]: Ez ahaztu errukarriez, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 14-21.

Aldi hartan, fariseuek, sinagogatik atera zirenean, elkar hartu zuten Jesusen kontra, hura nola galduko.

Jakin zuen hori Jesussek eta alde egin zuen handik. Jende askok jarraitu zion, eta Jesussek denak sendatu zituen, eta agindu zien ez zeza-tela ezagutzera eman. Horrela, Jainkoak Isaias profetaren bidez esana bete zen:

«Hona hemen nire zerbitzaria, Nik aukeratua, nire maitea, atsegin dudana.

Honengan ipiniko dut neure espiritua; zuzenbidea iragarriko die herriei.

Ez du haserterik sortuko, ez oihurik egingo, ez da kaleetan haren mintzoa entzungo.

Kanabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi pitzua dagoen argi-metxa ez du itzaliko, zuzenbidea nagusiarazi arte.

Hura izango dute itxaropen nazioek».

**F**ariseuen asmoen berri jakitean, alde egin zuen Jesussek handik. Atzerakada hau ez da izan ihes egitea: jende askok jarraitu dio, eta gutzien oinazeak sendatzen jarraitu du berak. Hori du bere izaera eta bere jarduera. Mateo ebanjelariak, «konplimendu-aipamen» luze bat eginez, Zerbitzariaren lehen Kantika aplikatu dio, azaltzeko, profetek iragarri zuten Mesias jasankorra dela Jesus, garaikideen iguripenetatik oso urruneko. Espirituaz bete den Mesias da, otzana eta apala –ez da harropuztu bere arrakastengatik–, baizik eta pazientziaz ahulari atxiki zaio –kanabera pitzatuari, alegia–; jende zurbilari bihotz ematen saiati da –itzaltzeaz dagoen metxari, alegia–, eta esperantza harrotu du horrela. Jesusen jarduera eredu dugu geure lan pastoralerako.

Urteko 16. astea.  
Kordobako Santa Aurea, *martiria*.

§ Jakinduria liburutik 12, 13. 16-19.

Ez da gauza guztiez arduratzen den Zu beste jainkorik, ez duzu zure epaia zuzena dela inori frogatu beharrik. Zure indarra da justiziaren oinarria, eta gauza guztien nagusi izateak guztiekin errukior izatera zaramatza. Guztiz ahaltzu zarela sinesten ez dutenei zeure indarra erakusten diezu, eta, zure indar hori aitortu ez arren, ausardiaz jokutzen dutenak nahasten dituzu; baina Zuk, zeure indarraren nagusi zaren horrek, neurritasunez epaitzen duzu eta bihozberatasun handiz gobernatzen; zeure esku duzu nahi duzunean indarrak baliatzea.

Horrela jokatzu erakutsi diozu zeure herriari gizon zuzenak giza-kiaren adiskide izan behar duela, eta, bekatariari bihotz-berritzeko aukera emanez, itxaropenez bete dituzu zeure seme-alabak.

[Sal 86 [85]: Ona zara, Jauna, eta barkabera.]

§ San Paulok Erromatarrei 8, 26-27.

Senideok: Espiritua datorkigu geure ahulerian lagun, guk ez baitakigu behar bezala otoitz egiten; baina Espirituak berak erregutzen du gure alde, ezin esan ahaleko intziriz. Eta bihotzak aztertzen dituen Jainkoak ezagutzen du zein den Espirituaren gogoia, Espirituak Jainkoaren asmoen erara erregutzen baitu fededunen alde.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 24-43.

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinuarekin gizon batek soroan hazi ona erein zuenean bezala gertatzen da. Jendea lo zegoela, etorri zen etsaia eta gari artean iraka erein zuen eta alde egin.

Garia hazi eta burutu zenean, han azaldu zen iraka ere. Joan ziren, orduan, morroiak etxeko nagusiagana eta esan zioten: “Jauna, ez al

Urteko 16. astea.

Kordobako Santa Aurea, *martiria*.

zenuen hazi ona erein soroan? Nondik dator, bada, iraka?” Nagusiak erantzun zien: “Etsaiaren lana da hori”. Morroiek, orduan: “Joango al gara iraka biltzera?” Eta nagusiak: “Ez! Ez dadila gerta, iraka biltzean garia ere ateratzea. Utzi biak batera hazten uztaroa iritsi arte; orduan, igitariei esango diet: bildu lehendabizi iraka, lotu balatan eta erre; garia, berriz, jaso nire mandiora”».

Jesusek beste parabola hau esan zion jendeari: «Zeruetako erreinua gizon batek soroan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago egiten da eta zuhaitz bihurtzen, txoriek etorri eta haren adarretan habiak egiteko moduko zuhaitz».

Beste parabola hau ere esan zion jendeari: «Zeruetako erreinua legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta ore guztia harrotzen da».

Irakaspén hau guztia parabola bidez eman zion Jesusek jendeari, eta ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik. Honela bete zen Jainkoak profetaren bidez esana:

«Parabola bidez mintzatuko naiz,  
munduaren hasieratik gordea zegoena azalduko dut».

Ondoren, jendea agurturik, etxera joan zen Jesus. Orduan, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Argi iezaguzu soroko irakaren parabola».

Jesusek erantzun zien: «Hazi ona ereiten duena Gizonaren Semea da; soroa mundua; hazi ona erreinuko seme-alabak dira; iraka, berriz, gaiztoarenak; iraka erein duen etsaia deabrua da; uzta munduaren azkena, eta uzta-biltzaileak aingeruak.

Iraka bildu eta suan erretzen den bezala, hala gertatuko da munduaren azkenean ere. Gizonaren Semeak bere aingeruak bidaliko ditu, eta haren erreinutik bereizi egingo dituzte gaizkileak eta besterentzat gaizpide izan direnak, eta su-labera botako dituzte. Han izango da ne-

Urteko 16. astea.

Kordobako Santa Aurea, *martiria*.

garra eta hortz-karraska! Orduan, zintzoek eguzkiak bezala egingo dute distira beren Aitaren erreinuan. Belarririk duenak aditu beza».

«**G**ure salbazio da Jainkoaren pazientzia» (2 Pedro 3,15). Jainkoak badaki zain egoten, badaki bigarren aukera bat eskaintzen. Geure esperientziak dakigu hori, geurekin izan duen portaeraren bidez ikasia. Bera imitatzea gonbidatzen gaitu parabola honek. Izan ere, guk, jo eta hautsi egiteko joera izan ohi dugu, zalapartaka, eta sura botatzeko joera gainerakoengan aurkitzen dugun iraka edo belar txarra, zirt eta zart txartzat eman izan duguna (txarra, gure ustez). Gariak eta irakak zuztarrak korapilatuak izan ohi dituzte; zurtoinak ernetzean nahasirik azaldu ohi dira. Zain egon beharra izaten da, hazten utzi beharra, bihotz-berritzeko astia eman beharra (giza ikuspegitik –ez laborantza-hutsekotik–), iraka gari bihur daitekeelako; eta bihotz-berritzeko ahalbide horiek Jainkoak bakarrik ezagutzen dituelako.

Jakinduria liburuan irakurri dugu: «persona zuzenak gizakiaren adiskide izan behar du, eta, bekatariari bihotz-berritzeko aukera ematen jakin behar du; horrela emango die itxaropena seme-alabei: bekatukoan damurako aukera ematen diela». Horrelakoa da Jainkoa, horrela adierazten dio gizakiari besteekin zuzen izaten. Pertsona zuzenak gizatiar izan behar du, Jainkoa bezain «gizatiar»: zain egoteko prest, baratzeko prest, esperantzazko pazientzia duen jarreradun.

Urteko 16. astea.

San Apolinar, *gotzaina eta martiria*.San Elias, *profeta*.

[Mikeasen Profezia liburutik 6, 1-4. 6-8: Gizaki hori, erakutsi zaizu zer nahi duen Jaunak zugandik. Sal 50 [49]:  
Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 38-42.

Aldi hartan, lege-maisu eta fariseu batzuek esan zioten Jesusi: «Maisu, Zuk egindako seinale bat ikusi nahi genuke».

Jesusek erantzun zien: «Seinale eske ari da gizaldi gaitzo eta desleial hau; baina ez zaio seinalerik emango, Jonas profetarena besterik. Zeren, Jonasek arrainaren sabelean hiru egun eta hiru gau egin zuen bezala, hala egingo baitu Gizonaren Semeak ere hiru egun eta hiru gau lurraren barruan.

Auzi-egunean ninibetarrek gizaldi honen aurka altxatu eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikua, eta baduzue hemen Jonas baino gehiago den norbait.

Auzi-egunean gizaldi honen aurka jaikiko da hegoaldeko erregina eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriazko hitzak entzutera, eta baduzue hemen Salomon baino gehiago den norbait».

**J**esusek goratu zuen ehuntariaren, odoljariodunaren, kanaandar alargunaren fedea. Beragan zuten konfiantza nabarmentzen zuen fede hark, berarekiko atxikimendua, beren burua beraren eskuetan uztea. Fede horrek ahalbidetzen du Jesus mirariak egiteko. Horrelako fedetik ez zenean, Nazareteko bisitan adibidez, ez zuen «miraririk» egiten. Gure fedea, lehenik eta behin, Kristo berarekiko atxikimendua da: ez du sostengutzat «seinalerik»; aitzitik, berarekiko erabateko konfiantza da. Atxikimendu horixe zen fariseuei eta lege-maisuei falta zitzaiena, seinale eske etorri zaizkion haiei, alegia. Fede hori da beti landu behar duguna; fede hori da gure esperantzaren oinarria: gu salbatzeko «hirugarren egunean piztu zelako» esperantzarena.

Urteko 16. astea.

San Lorenzo Brindiskoa, *apaiza eta eliz irakaslea*.

[Mikeasen Profezia liburutik 7, 14-15. 18-20: Itsas hondora botako ditu gure bekatu guztiak. Sal 85 [84]: Erakutsi guri, Jauna, zeure maitasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 46-50.

Aldi hartan, Jesus jendeari hitz egiten ari zela, haren ama eta anai-arrebak azaldu ziren kanpoan, berarekin hitz egin nahian. Batek esan zion: «Aizu, hor dituzu kanpoan ama eta anai- arrebak, zurekin hitz egin nahian».

Jesusek, berriz, erantzun zion: «Nor da nire ama eta nor nire anai-arreba?»

Eta, bere ikasleengana eskua luzatuz, esan zuen: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba. Izan ere, zeruko nire Aitaren nahia egiten duena, horixe dut Nik anaia eta arreba eta ama».

**E**ntzule zituen ikasleak «barnean» zeuden. «Kanpoan» beraren ama eta anaiak. Bi aditzondo horiek urruntasuna eta berritasuna adierazten dituzte. Bigarrenek odol-lotura seinalatzen dute. Lehenek, berriz, familia berria, ahaidetasun espiritualak elkartua: Jesus irakasten ari zaien bezala Jainkoaren borondatea betetzen dutenak dira. Arnasa-emaile da Jesusen aldarrikapen hau: kristau-elkarteko garenok –beraren familia berrikoak, alegia– beraren oso hurbileko gara –«anaia eta ama» gara–; aldi berean, ordea, oharpen-hitz da: elkarte horretako kide izateko, ez dira nahikoa erakunde-loturak, baizik eta Aitaren borondatea bete behar da. Zinezko ikaslea, obeditzen eta egiten duena da, eta ez hitz egite eta jaiotze hutsean geratzen dena.



Urteko 16. astea.  
Santa Maria Magdalena.

[Kantarik Ederrena liburutik 3,1-4: Aurkitu nuen neure bihotzeko kuttuna. Sal 63 [62]: Zure egarriz daukat gogoa, Jauna, ene Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,1-2.11-18.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zion: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten».

Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan, negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?» Hark erantzun zion: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten».

Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabilta?» Hark, baratze zaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut».

Jesusek esan zion: «Maria!» Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni!» (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz Aitagana igo. Zoaz nire senideengana eta esaiezu: «Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana»».

Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zion ikasleei: «Jau-na ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

**M**aria Magdalena, negarrez, gorpu baten bila dabil. Bere tris-turaren arrazoia, beraren bizitzari zentzua ematen zion pertsona baten galera du, berarentzat den-dena zen pertsona hura. Eta «agerpen» guztietan bezala, Jesus berpiztuarena da ekimena, lehen urratsa alegia,

Urteko 16. astea.

Santa Maria Magdalena.

---

bere burua ezagutzera emateko. Aski izan du Jesusek Magdalenaren izena esatea. Jesus ikus duenean, besarkatu du eta atxiki egin nahi du. Baina Jesusek irakatsi dio «aska nazazu!», beraren presentzia gure artean Espiritua dohain ematen zaigularik gauzatuko dela, berak isuriko baitigu Espiritu hori Aitagana itzuliko («igoko») denean. Beraz, Jesus berpiztua joan da baina gure artean geratuz; Aitagana «igo da», baina bere Espiritua eman digu. Magdalenak, «apostoluen apostolu» denez, «bere anaiei», eta, beraz, guri, berri ematera joan behar du.

\*\*\*

### Maria Magdalena

Maria Magdalena mendetan zehar desitxuraturik ikusi izan da, sasi-interpretazioak tarteko. Ez zen izan prostituitu bat. Berrikitan baztertu egin da uste hori eta Jesusen jarraitzaile eta ikasletzat hartua da gaur egun. Hain justu ere, Jesusen piztueraren lehen lekukotzat. Andre Maria bera baino lehenagokotzat? Ebanjelioek ez diote ezer azken galdera honetaz. Jakina, ez zen izan Jesusen emazte, ez zuen izan Jesusekin seme-alabarik. Aditu ez-kristau batek esan duenaren kontra.

Magdalan jaio zen, Genesaret aintzira inguruko hirian. Arrantza -portua zen. Arrantzale asko ezagutuko zuen han. Tartean Santiago eta Joan?, Pedro eta Andres? Hauen bidez ezagutu ote zuen Jesus. Ez dezagun jo xehetasun biografikoen bila. Bibliako gauzetan mezu salbatzailea dugu axola zaiguna.

Jesusen piztueraren lekuko izan zen Maria. Ebanjelioaren arabera, hutsik aurkitu zuen Jesusen hilobia. Negarrari eman zion, atsekabez. Jesus agertu zitzaion, ordea, baina hasieran ez zion antzeman. Hartan, Jesusek «Maria» esan zion, eta orduan bai, orduan antzeman zion. Eta besarkatu egin nahi izan zuen.

Pertsonaia handia da Maria guretzat. Apostolu da. Jesusen maitale suhar. Geure buruari galdetzekoa genuke: apostolu al naiz ni?, maite al dut Jesus?, erakartzen al nau Jesusek?

Urteko 16. astea.

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea (Salbatzaile Santu-santuaren Ordena) (Europako Zaindaria).*\*

## § San Paulok Galaziarrei 2,19-20.

Senideok: Ni legeak eraman ninduen legearekiko lokarria etetera, Jainkoarentzat bizitzeko. Kristorekin gurutziltzaturik nago, eta honezkero ez naiz ni bizi, Kristo bizi da nigan. Eta bere bizia nire alde emateraino maitatu ninduen Jainkoaren Semeaganako sinesmenean oinarriturik bizi dut oraingo neure giza bizitza.

[Sal 34 [33]: Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna.]

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburitik 15,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan badago, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute.

Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

**B**i hitz errepikakor errepikatzen dira irakurri ditugun zortzi txaletan: «iraun-egon» (zazpi aldiz) eta «fruitu eman» (lau aldiz). Ikasle izatea «irautea» da, atxikirik bizitzea, Jesusengan txertaturik, aihenak

\* Maturana, *dohatsua* (Berriz) (Bilbon jaio 1884-07-25 – Donostian hil 1934).

Urteko 16. astea.

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea (Salbatzaile Santu-santuaren Ordena) (Europako Zaindaria).*\*

mahatsondoan bezala. Alabaina, iraute hau ez da egote hutsa, baizik dinamikoa, Jesusen sentimenduek, baloreek eta jarrerak eratu dezaten uztea, Jesus bera ageri delarik ikaslearen bizitzan, fruitu gisa. Izerdi bero hori galtzen ez joateko, beharrezkoa dugu etengabeko harreman hori Jesusekin; horrela, haren hitzak «barnetik» entzuteko aukera izango dugu; zeren eta gure bihotzetik igarotzen denak bakarrik aldarazten baitu gure biziera; beraz, beharrezkoa du bihotz horrek Jesusen izerdiak blaitu dezan. Horrela jokatu ezean, «ikasle soziologiko» izango gara, kristautasuna herentziaz bakarrik biziko dugu edo ohikeria geldoz.

\*\*\*

### Gaueko ametsetik iratzartzen

Gauero gara oro itzaltzen,  
goizero pizten,  
eta bien bitartean / amets dugu egiten  
begiak itxita.  
Goizero ere pizten,  
gauero itzaltzen,  
bien bitartean / amets bat bizitzeko  
begiak irekita...  
eta begi itxiek baino  
amets ametsagoa bizitzeko!  
Begiak irekitze hutsak iratzarri  
gaituelakoan,  
beste ametsik ez dagoelakoan  
behin gauekoak itzaliz gero...  
Gaueko ametsetik  
guztiok gara goizean iratzartzen,  
zein guti, ene! / eguneko ametsetik.  
(Joxan Artze: "Heriotzaren ataria")  
(Arantzazuko egutegia 2019-04-02)

\* Maturana, *dohatsua* (Berriz) (Bilbon jaio 1884-07-25 – Donostian hil 1934).

Urteko 16. astea.

Joan Pedro Bengoa (*Arrasate 1890 – Carrion de Calatrava 1936*), Nizeforo Jesusena eta Mariarena,\*

[Jeremias Profetaren liburutik 3, 14-17: Neure gogoko buruzagiak emango dizkizuet, eta herri guztiak bilduko dira Jerusalemen. **Sal:** Jr 31: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 18-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzun ereilearen parabolaren esanahia: erreinuaren mezua entzun bai, baina ulertzen ez duenari, Gaiztoak etorri eta kendu egiten dio bihotzean ereindakoa. Hori da bide-bazterrean ereindakoa.

Harri artean ereindakoa hauxe da: hitza entzutean, berehala pozik hartzen duena; baina, sustrairik gabea eta iraupen txikikoa izanik, hitza dela-eta estutasun edo erasoaldiren bat sortu orduko, berehala huts egiten du.

Sasi artean ereindakoa hauxe da: hitza entzun bai, baina mundu honetako ardurak eta diru- goseak ito egiten diote hitza, fruiturik gabe utziz.

Lur onean ereindakoa, berriz, hauxe da: hitza entzun eta ulertzen duena. Honek ematen du fruitua: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar».

**A**zter dezagun geure burua. Zenbat aldiz ez diogu utzi fruitu emanen Jainkoaren hitzari? Agor gertatu izan da geure arduragabekeria-une askotan: «entzun» bai, baina ez dugu «aditu» izan askotan, eta azalean gelditu izan da hitz hori; eskakizunik aurkeztu izan digun uneetan, galdu egin ditugu hasiera hartako gogo-berotasuna eta iraupena; edota estutzen gintuzten problemen aurrean, ez diogu eman ez aukerarik, ez astirik interpela gintzan; edota, ongizate eroso eta egoistak liluraturik,

\* Zakaria Fernandez (*Zentroniko 1917 – Ciudad Real 1936*) eta beste 23 lagun, dohatsuak, Daimiel-eko pasiotarrak, martiriak (1936). Santa Kristina, *martiria*. San Arnulfo, *martiria*.

Urteko 16. astea.

Joan Pedro Bengoa (*Arrasate 1890 – Carrion de Calatrava 1936*), Nizeforo Jesusena eta Mariarena,\*

geure trasteria artera bota izan dugu. Har dezagun asmoa, horrelako uneak gainditzeko eta hazia loratzen utzi genuen une hura bezalakoak sustatzeko, bateko ehun emango ez badu ere; Jesus ulerkorra da: aski izaten du bateko 30 edo 60rekin ere.

\*\*\*

### Joan Pedro Bengoa

Santa Agedan, Arrasatetik hurbil (Gipuzkoan), jaio zen Jose Maria Bengoa, 1890-06-19an. 1907-08-15ean Deustun sartu zen pasiotar. 1910ean Mexikora destinatu zuten, ikasketak jarraitzera. Komentuko eliza garbitzea zuen bere lana. 1914an Mexikotik atera behar izan zuten, eta Ameriketako Estatu Batuetara joan zen. Chicagon apaiztu zuten 1916-06-17an. Handik Kubara bidali zuten 1918an, baina denbora gutxirako, urte berean Daimiel-era (Ciudad Real) destinatu baitzuten. Joan Pedrok hitzaldi eta misio asko predikatu zuen Espainiako herri askotan eta «Jainkoaren gizon» izen handia eman zion jendeak. 1936-07-21ean, gaueko 11:30etan, aitortu eta jaunartu ondoren, komentutik atera zituzten fraide guztiak milizianoek eta hilerrira eraman. Ez zituzten bertan hil, baina sakabanatu beharra izan zuten. Joan Pedro Bengoak eta Leoz anaiak Ciudad Realera jo zuten eta bertako ostatu batean gorde. Gobernadore zibilak agindurik, ostatu eta hotelak miatu zituzten, haietan fraiderik gordetzen ote zen ikusteko. Irailaren 24an atera eta Ciudad Realgo seminaria eraman zituzten, kartzela bihurtua baitzuten. Gaueko hamarretan atera eta aldameneko herrira, Carrión de Calatrava-ra alegia, eraman eta han fusilatu zituzten, hilobi komunean ehortzi, beste zortziehunen bat lagunekin. 1989an dohatsu oihukatu zuen Joan Paulo II.ak. (*«Egunean Eguneko Ebanjelioa», Deustuko Unibertsitatea, 2006*).

\* Zakaria Fernandez (*Zentroniko 1917 – Ciudad Real 1936*) eta beste 23 lagun, dohatsuak, Daimiel-eko pasiotarrak, martiriak (1936). Santa Kristina, *martiria*. San Arnulfo, *martiria*.

Urteko 16. astea.  
SANTIAGO, APOSTOLUA.  
San Kristobal, *martiria*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 4,33; 5,12.27-33;12,2.

Egun haietan, Apostoluek aginpide handiz egiten zuten Jesus Jau-naren piztueraren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guz-tiak. Mirari eta egintza harrigarri asko gertatzen zen herrian aposto-luen eskuz.

Batzar Nagusiaren aurrera ekarri zituzten apostoluak, eta apaiz nagusiak esan zien: «Ez al genizuen zorrotz agindu ez irakasteko Je-susen izenean? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakas-penez; gainera, gizon horren heriotzaren erantzukizuna geuri leporatu nahi diguzue».

Pedrok eta beste apostoluek erantzun zuten: «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek egur batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak goratu egin du bere eskuinaz, Buruzagi eta Salbatzaile eginez, Israeli bihotz-berritzea eta bekaturen barkamena emateko. Geu gara gauza hauen testigu, geu eta esaneko zaizkionei Jainkoak ematen dien Espiritu Santua».

Erantzun honek beren onetik atera zituen batzarkideak, eta hil egin nahi zituzten apostoluak. Eta Herodes erregeak ezpataz hilarazi zuen Joanen anaia Santiago.

[Sal 67 [66]: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 4,7-15.

Senideok: Altxor baliotsu hau buztinezko ontzian daramagu, argi ager dadin honenbesteko indarra Jainkoagandik datorrela, eta ez gu-gandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina zapaltzen ez; larri gaude, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik utzita ez; lurrera botatzen gaituzte, baina suntsitzen ez; nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu geugan, Jesusen bizia ere geugan ager dadin.

Urteko 16. astea.

SANTIAGO, APOSTOLUA.

San Kristobal, *martiria*.

Bizi garen bitartean, beti heriotzara garamatzate Jesusengatik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia ere ager dadin. Horrela, gugan heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia.

Hau dio Liburu Santuak: «Sinetsi nuen, eta horregatik hitz egin nuen». Guk ere, sinesmen-espíritu bera dugularik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten dugu, jakinik, Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta haren ondoan ipiniko gaituela zuekin batean. Hau guztia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina askorengana zabaltzean, esker ona ere ugal dadin, Jainkoaren aintzarako.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,20-28.

Aldi hartan, zebedotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean».

Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?» Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!» Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariek menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzatua izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».



Urteko 16. astea.  
SANTIAGO, APOSTOLUA.  
San Kristobal, *martiria*.

**H**itz egin dezagun, ez «Santiagorako [hirirako] bideaz», baizik Santiagoren bideaz, apostoluak egin behar izan zuenaz, bere ikasle-ikasketakoan. Santiagori eta beraren anaia Joani, ezizen bat ezarri zien Jesusek: «trumoikumeak»; izaera oldarkorreko, indarkeriazko zirelako. Zentzarazi egin zituen Jesusek: tolerantzia eta ulermen-falta zuten, alderdikoi eta ikusmira estuko ziren, handinahi: tronuak eskatu zizkionten Jesusi.

Pazientzia izan zuen Jesusek Santiagorekin, beste ikasleekin bezalaxe, asko kostatu baitzitzaizen baitaratzea Jesusen mesianismoak gurutzetik igaro behar zuela. Guztiak misiorako prestatzen saiatu zen Jesus, pertsekuzioari aurre egin ahal izateko prestatzen: zerbitzari izan beharra azpimarratu zien ikaslearen ezaugarritzat. Jesusi zioten txera gorabehera, ezin ulertu izan zuten haren ikuskera. Berpiztuarekin topo egin zutenean bakarrik ireki zitzaizkien begiak. Horrek errotik aldara-zien biziera: adoretz hots egin zuten Ebanjelioa; beldurra galdu zieten giza agintariei. Eta, buztin-ontzian bazen ere, altxor handi baten eroale bihurtu ziren: Jesusen nekaldiaren eroale. Sendotasun sinestezin bat eman zien horrek. Santiago izan zen apostoluetan lehena Jaunaren kaliza partekatzen.

Santiago hau (eta ez «moro-hiltzailea») izan behar dugu kristauok irakasle, handinahia alde batera utzi eta zerbitzura garamatzen bidea egiteko.

Urteko 17. astea.

San Joakin eta Santa Ana, Andre Mariaren gurasoak.

### § 1 Erregeak liburutik 3, 5. 7-12.

Egun haietan, Jauna agertu zitzaion ametsetan Gabaonen Salomoni, eta esan zion: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut».

Salomonek erantzun zion: «Jauna, ene Jainkoa, nire aita Daviden ordezkari, zeure zerbitzari hau, egin nauzu errege. Ni, ordea, gaztea naiz eta ez dakit nola gobernatu. Zure zerbitzari hau Zeuk aukeratu duzun herriaren erdian dago, herri izugarria, ugariaren ugariz ezin konta ahalekoa. Emaiozu zeure zerbitzari honi adimen argia, zure herria gobernatzeko, eta ona eta txarra bereizteko. Bestela, nola gobernatu zure herri handi hau?»

Atsegin izan zitzaion Jaunari Salomonen eskaria, eta esan zion: «Hori eskatu duzulako, eta ez zeuretzat urte asko, aberastasunak edota zeure etsaien heriotza, baizik eta zuzen gobernatzeko jakinduria eskatu duzulako, beteko dut zuk eskatua; zure aurretik inork izan ez duen eta zure ondoren ere inork izango ez duen adinako jakinduria eta adimena emango dizut».

[Sal 119 [118]: Bai maite dudala, Jauna, zure legea!]

### § San Paulok Erromatarrei 8, 28-30.

Senideok: Badakigu bera maite dutenen onerako bideratzen dituela Jainkoak gauza guztiak, bere aurre-erabakiaz deitu dituenen onerako, alegia.

Aurrez ezagutu zituenak aukeratu ere egin zituen, bere Semearen irudiko izan zitezen eta, horrela, Semea senide askoren artean lehen- seme izan zedin. Aurrez aukeratu zituenak deitu ere egin zituen; deituak, berriz, zuzentzat hartu, eta zuzentzat hartuak aintzaz bete.

Urteko 17. astea.

San Joakin eta Santa Ana, Andre Mariaren gurasoak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 44-52.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeruetako erreinuarekin soroan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du eta, pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta soro hura erosten du.

Era berean, zeruetako erreinuarekin, harribitxi bila dabilen merkatarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten du.

Era berean, zeruetako erreinuarekin itsasora bota eta mota gutietako arrainak biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da. Beterik dagoenean, bazterrera ateratzen dute eta, eseririk, onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen. Horrela gertatuko da munduaren azkenean: aingeruak etorri eta gaiztoak zintzoen artetik bereziko dituzte eta su-labera botako. Han izango da negarra eta hortz-karraska!»

Jesusek galdetu zien ikasleei: «Ulertu al duzue hau guztia?» «Bai», erantzun zioten. Eta Jesusek: «Beraz, zeruetako erreinuko ikasle egin den lege-maisua, bere altxorretik zaharrak eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da».

**A**ltxor-bilatzaileek beren jardueran azaldu ohi duten egundoko poza azpimarratu dute parabolatxo biek. Dena saltzeko erabakia ez da sortu egin behar bat bete behar izate hutsetik: «bete behar duzu»tik; baizik eta pertsona biak altxorraren distiraz eta harribitxiaren dirdiraz liluraturik sentituak izatetik. Parabola hauekin Jesusek diosku ezen «Erreinuaren Jainkoa» aurkitzea –gugana «Abba» (Aita) bezala hurbiltzen baita eta anai-arreben elkarre baten («Jainkoaren Erreinuaren») errege izan nahi baitu– altxor bat aurkitzea bezalako dela. Eta aurkitzearen poz honi konpromiso bat darraiola, mugitu behar bat: dena saltzea, soroa edo harribitxia erosteko.

Urteko 17. astea.

San Joakin eta Santa Ana, Andre Mariaren gurasoak.

Kristau-bizitzan gertatzen den lehen gauza, aurkitzea izaten da: altxor bat edo harribitxi bat aurkitzea: Jainkoaren Erreinua aurkitzea. Eta badakigu, Jainkoaren Erreinu hori Jesusengan haragitu dela. Jesusekin egindako topaketa horretatik –altxorra edo harribitxia den horretatik– jaiotzen da geure bizitzan balore-hierarkia bat eratzeko gogoia. Baliotsuena, jakina, Jesus da, haren biziera, haren baloreak... Gainerako guztia, hark guretzat duen altxor-izaera ez galtzearen mende dago. Hura da gure oinarritzko eta funtsezko aukera.

\*\*\*

### Zatoz, Espiritu Santua

Maria Magdalena Pazzi-koaren hitzak dira: «Zatoz. Espiritu Santua. Datorrela Aitaren batasuna, Hitzaren onginahia. Zu, egiaren Espiritu hori, santuen saria zara, arimen gozamina, ilunean argia, pobreen aberastasuna, maitaleen altxorra, goseak direnen ase, erromesen kontsolamendua; azken batean, hura zara, zeinetan bildurik baitaude altxor guztiak» (*Liturgia de las Horas II, abuztuaren 25a*).

[Jeremias Profetaren liburutik 13, 1-11: Ezertarako balio ez duen gerriko honen pareko izango da herri hori. Dt 32: Sortu zintuen Jainkoa zenuen baztertu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 31-35.

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinua gizon batek soroan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago bihurtzen da eta zuhaitz egiten, txoriek etorri eta haren adarretan habiak egiteko moduko zuhaitza».

Beste parabola hau ere esan zien: «Zeruetako erreinua legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta ore guztia harrotzen da».

Irakaspen hau guztia parabola bidez eman zion Jesusek jendeari, eta ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik. Honela bete zen Jainkoak profetaren bidez esana:

«Parabola bidez mintzatuko naiz,  
munduaren hasieratik gordea zegoena azalduko dut».

**M**ostaza haziaren parabolak bion arteko alde handia azpimarratzen du: ezdeus diruditen Erreinuaren hasieren eta azkena harrigarriro ona izango duelakoaren segurtasunaren artekoa. Horixe baita Jainkoaren jarduera: alde handiak ditu Jainkoak gustuko. Horregatik, ahul dena hautatzen du behin eta berriz, bere asmo salbatzailea aurrera eramateko. Erreinuak izan lezake itxura murriz bat, baina abian da jada eta ez da batere ikusgarri. Jesusek hitzeman du, ordea, Erreinua bere betera iritsiko dela. Horrenbestez, dasta genezake oraintxetik Erreinu hori esperantzaz. Helmuga horren ziurtasunak aurreratatu du jada, orainaldian, Erreinuaren hasberri mantso eta itxuraz xumean alegia, jomuga dugun geroa, gure lankidetzaren arnasten duen geroa.

Urteko 17. astea.

Julian Plazaola (*Donostia 1915*), Lazaro Mujika (*Idiazabal 1867*), Braulio Maria Corres (*Torralba, Nafarroa, 1897*), *dohatsuak*, eta lagunak, *erlijiosoak eta martiriak (1936)*,\*

[Jeremias Profetaren liburutik 14, 17-22: Gogora ezazu eta ez hautsi gurekin egina duzun ituna. Sal 79 [78]: Libra gaitzazu, Jauna, zeure izenaren ohoregatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 36-43.

Aldi hartan, jendea agurturik, etxera joan zen Jesus. Orduan, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Argi iezaguzu soroko irakaren parabola».

Jesusek erantzun zien: «Hazi ona ereiten duena Gizonaren Semea da; soroa mundua; hazi ona erreinuko seme-alabak dira; iraka, berriz, gaiztoarenak; iraka erein duen etsaia deabrua da; uzta munduaren azkena, eta uzta-biltzaileak aingeruak.

Iraka bildu eta suan erretzen den bezala, hala gertatuko da munduaren azkenean ere. Gizonaren Semeak bere aingeruak bidaliko ditu, eta haren erreinitutik bereizi egingo dituzte gaizkileak eta besterentzat gaizpide izan direnak, eta su-labera botako dituzte. Han izango da negarra eta hortz-karraska! Orduan, zintzoek eguzkiak bezala egingo dute distira beren Aitaren erreinuan. Belarririk duenak adi beza».

«**S**orora, parabolaren aipatua, mundua izan daiteke edota Eliza; baita, ordea, lagun bakoitzaren bihotza ere eta, jakina, baita Jesusen ikasle izan nahi duenarena ere. Gure bihotzean biak dira bizi: garia eta iraka. Gariaren eta irakaren bizikidetasun hau gogaikarri gertatzen zaio geure buruaz marrazten dugun irudi nartzisistari; baina onuragarri da hori, uste hau sakon bizi ahal izateko: Jainko errukitsuaren handitasuna gure ahuldadean agertzen dela, Jainko hori baitugu beti ikuspuntu. Onartu beharra dugu ezen bizitzako bidean geure hornidura-tokamen dugula iraka hori; aintzat hartu beharrekoa dugu iraka eta bizikidetzat; baina, pazientzia handiz, saiatu beharra gure garirik hobena ito ez dezan, erabat ezin kenduko dugula jakin arren.

\* San Joan Jainkoaren ordenakoak.

San Pedro Poveda, *apaiza, fundatzailea (Teresatar Institutzioa) eta martiria (1936)*.

Urteko 17. astea.

Santa Marta, *Lazaroren arreba eta Mariaren ahizpa.*

[Jeremias Profetaren liburutik 15, 10. 16-21: Zergatik azkenik gabe-ko oinaze hau? Nigana itzultzen bazara, neure zerbitzura hartuko zaitut berriro. Sal 59 [58]: Zu izan zaitut, oi Jainko, ihesleku larrialdian.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11,19-27.

Aldi hartan, judu asko etorri zen Marta eta Mariagana, anaiarengatik doluminak ematera.

Marta, Jesus zetorrela entzun orduko, bidera atera zitzaion; Maria, berriz, etxean gelditu zen. Martak esan zion Jesusi: «Jauna, hemen izan bazina, gure anaia ez zen hilko. Hala ere, badakit eskatuko diozun guztia emango dizula Jainkoak».

Jesusek erantzun zion: «Piztuko da zure anaia». Eta Martak: «Badakit piztuko dela azken egunean, hildakoen piztuerakoan».

Jesusek esan zion orduan: «Ni naiz piztuera eta bizia; nigan sinesten duena, hilik ere, biziko da, eta bizi dena, nigan sinesten badu, ez da betiko hilko. Sinesten al duzu hori?» Martak erantzun zion: «Bai, Jauna, sinesten dut Zu Mesias zarela, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zena».

**H**erioak pertsona maite bat lapurtzen digunean, «zergatik» zaurgarri batek jotzen gaitu, Marta bezala: Zergatik ez duzu saihestu heriotza hori, Jauna? Min gizatar ulergarria da. Jesusek berak ere jasan zuen. Hirutaraino errepikatu digu ebanjelariak Jesusek negar egin zuela Lazaro bere adiskidea galdu zuenean. Halere, Jesusek, malkoak ezereztu gabe, biziki segurtatu dio Martari beraren neba bizi eta biziko dela: «Neu naiz Piztuera eta Bizia: betiko bizia dakart». Jesusentzat, beragan sinetsi duena igaro da heriotzatik bizira; horregatik, «hil bada ere, biziko da». Eta Marta «zergatik» delakotik esperantzazko federa igaro da: «Sinesten dut, Jauna». Geuk ere egingo dugu urrats hori Jainkoaren laguntzarekin.

Urteko 17. astea.

San Pedro Krisologo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

Braulio Corres *dohatsua eta lagunak, martiriak*.

[Jeremias Profetaren liburutik 18, 1-6: Nola buztina eltzegilearen eskuetan, hala zarete zuek nire eskuetan. Sal 146 [145]: Zorionekoa Jakoben Jainkoa lagun duena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 47-53.

Aldi hartan, esan zion Jesusen jendeari: «Zeruetako erreinuarekin itsasora bota eta mota guztietako arrainak biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da. Beterik dagoenean, baztertera ateratzen dute eta, eseririk, onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen. Horrela gertatuko da munduaren azkenean: aingeruak etorri eta gaiztoak zintzoen artetik bereziko dituzte eta su-labera botako. Han izango da negarra eta hortz-karraska!»

Jesusek galdetu zien ikasleei: «Ulertu al duzue hau guztia?» «Bai», erantzun zioten. Eta Jesusen: «Beraz, zeruetako erreinuko ikasle egin den lege-maisua, bere altxorretik zaharrak eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da».

Jesusek, parabola hauek amaitu zituenean, alde egin zuen handik.

**P**arabolen hitzaldian, gaur ere balioudun diren galderei erantzunez jardun du Jesusen (J.L. Sicre): 1) Zergatik ez dute onartu guztiek Jesusen mezua? Ereilearen parabola. 2) Zer jarrera izan behar dugu mezu hori ukatzen dutenekiko? Garia eta iraka. 3) Ba al du etorkizunik hain jende gutxi onartua den mezu horrek? Mostaza hazia eta legamia. 4) Merezki al du mezu horrekin konprometitzea? Altxorra eta harribixia. 5) Zer gertatuko zaie mezua onartu, baina Erreinuaren idealen arabera bizi ez direnei? Sarearen parabolaz, pazientzia izaten irakatsi digu eta zuzenbidea Jainkoaren esku uzten, hura baita epai zehatza jaulki dezakeena, akats egiteko beldurrik gabe.



[Jeremias Profetaren liburutik 26, 1-9: Jende guztia Jeremiasen inguruan pilatu zen Jaunaren tenpluan. Sal 69 [68]: Erantzun, Jauna, zeure maitasun handiaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen eta irakasten ari zitzaizen sinagogan. Jendeak, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotzaren semea? Honen amak ez al du izena Maria, eta honen anaiek Santiago, Jose, Simon eta Judas? Eta honen arrebak ez al dira gure artean bizi? Nondik du, beraz, honek hori guztia?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik».

Eta, haien sinesgogorkeriagatik, ez zuen han mirari askorik egin.

**B**asamortuan, Tenpluko hegaletik bere burua botatzeko eskatu dio tentatzaileak Jesusi, azaltzeko, jendaurreko bere bizitzaren lehen unetik, Jainkoa berekin duela eta Jainkoaren gain eskua duela berak. Keinu hura beraren misio edo egitekoaren berme gertatuko omen zen. Jesusek, aldiz, mirarizko mesianismoaren gainetik, anonimatuko mesianismoa hautatu du: ez dio kenduko misio horrek bere burua astiro eta nekez agertu beharreko ahalegina, horrek berekin izango dituen gatazkak eta ezin ulertuak jasan beharra; izan ere, errezeloz eta harri-duraz deiadar egiteko bide emango die herrikideei: «Ez al da, bada, hau arotzaren semea?» Jesusek ez gaitu salbatu bera gure izaeraz eta historiaz kanpoko izanik, baizik eta barneko eta beheko izanik, «beste bat gehiago» bezala izanik.

\*\*\*

Urteko 17. astea.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria).*

## Loiolako San Ignazio: Meza berezia

### § Jeremias profetaren liburutik 20,7-9.

Liluratu egin nauzu, Jauna, eta ni zure lilurapean erori; bortxatu egin nauzu eta menderatu.

Barregarri gertatu naiz egun osoan; burlaka ari zaizkit denak. Hitz egiten dudan bakoitzean, garrasi egiteko da; indarkeria eta zapalkuntza salatuz hots egin beharra dut; Jaunaren hitza irain- eta iseka-bide da niretzat egun guztian. Hau nioen neure baitarako: «Gogoratu ere ez dut egingo; ez dut gehiago haren izenean hitz egingo».

Baina, orduan, sua bezalako zerbait sentitzen nuen barruan; hezurretaraino erretzen ninduen; saiatzen nintzen hura itotzen, baina ezin!!

[Sal 1: Bai dohatsu gau eta egun Jaunaren legea hausnartzen duena!]

### § Paulo santuak 1 Korintoarrei 10,31–11,1.

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzue, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei gauza guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, guztiak salba daitezen.

Izan zaitzte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

### † Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien:

«Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle.

Urteko 17. astea.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria).*

Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”.

Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde zurreratik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hoxe milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz.

Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

**L**oiolako Ignaziok erromestzat izan zuen beti bere burua. Beraren autobiografiak izenburu hau du: «Erromesaren kontaera». Honela deskribatu du bere konbertsioa, gerla bateko zauriaren gaixondo luze batean gertatua: «bideari ekitearen grazia». Eta Stradako Mariari eskatu ohi zion, «jar zezala bera bere Semearekin», baina gurutzea lepoan daraman Semearekin, zeinez liluraturik sentitzen baitzen Ignazio.

Bidaiari batena izan zen Ignazioren bizitza, lurraldeak eta kulturak zeharkatu zituen, «Jainkoaren Maiestatea» nola zerbitzatuko bila. Eta, Konpainiako Jeneral izendaturik, Erroman iltzaturik gelditu bazen ere, erromes izaten jarraitu zuen, misiotara bidalitako bere lagunei, ehunka gutunen bidez, lagun eginez.

Erromesa bilatzaile da beti. Horregatik, beraren erromes-bizitzan galderak ageri ziren beti: Zer egin dut Kristogatik, zer ari naiz egiten, zer behar dut egin? Galdera hauei erantzuteko, makila batez ez, baizik beste tresna batez baliatu zen: bereizmenaz. Oso adi bizi behar zuen Espirituaren ufadari. Eta Jainkoaren ahotsaz bereizmena egin ondoren, bideari ekin behar zion, ahotsari jarraitu eta zerbitzurik hobena eskaintzeko. Finkaturik ez bizitze horretara gonbidatzen gaitu Ignaziok.

\*\*\*

Urteko 17. astea.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria).*

### LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

- R/. Loiolako semea gure zaindaria,  
entzun, arren, gure eskaria.  
Jainkoaren aurrean izan zaitez  
gure lagun,  
zerua irabazi dezagun.
1. Iruñean zauriturik,  
Loiolan santutu,  
Andre Mariaren bitartez  
zinen bihotz-berritu,  
santu handia,  
zerutik iguzu lagun,  
gure bihotzak berri ditzagun.-R/.
2. Zure gazte bizitza  
bekataria zen,  
ta gero santutasunaren  
mendira igo zinen.  
Gure bihotzak  
zurekin jaso ditzagun,  
Jaunaren aintza bila dezagun.-R/.






## ABUZZTUA / DAGONTLA

### AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:

Itsasoko mundua.

**Egin dezagun otoitz:** Itsasoan lan egiten eta bizi den jende guztiarentzat; haien artean, marinel, arrantzale eta beraien familientzat.



Urteko 17. astea.

San Alfonso Maria Ligorio, *gotzaina eta eliz irakaslea, fundatzailea (erredentoristak).*

---

[Jeremias Profetaren liburutik 26, 11-16: Jaunak bidali nau, hitz hauek guztiak hots egitera. Sal 69 [68]: Mesede-garaia duzu, Jauna; erantzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 1-12.

Aldi hartan, Jesusen berri jakin zuen Herodes Galileako gobernariak, eta esan zien bere zerbitzariari: «Joan Bataiatzailea da! Hildakoen artetik piztu da, eta horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori».

Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta, loturik, kartzelan sartu zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Filiporen emaztea zen Herodias. Joanek esan ohi zion Herodesi: «Ez duzu zilegi emazte hori edukitzea». Herodesek hil egin nahi zuen, baina jendearen beldur zen, profetatzat baitzuten denek.

Herodesen urtebetetzean, Herodiasen alabak dantzan egin zuen guztien aurrean eta atsegin izan zitzaion Herodesi. Hargatik, eskatutako guztia emango ziola agindu zion neskatxari, zin eginez. Neskatxak, bere amaren aholkuari jarraituz, esan zion Herodesi: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea; baina mahaikideen aurrean egindako zinatagatik, eskatua emateko agindu zuen, eta Joani lepoa moztu zioten kartzelan. Azpilean burua ekarri eta neskatxari eman zioten, eta neskatxak amari.

Joanen ikasleek haren gorpua jasotzera etorri eta lur eman zioten; gero, Jesusi berri ematera joan ziren.

**G**aurko ebanjelioko esenan lau pertsonaia ageri dira. Herodes: badaki honek egitera doana ez dela zuzena, baina jendearen aurrean ondo agertu nahiak harrapatu du. Eta, bere kontraesanei estalitxo bat ezarriz, Bataiatzailea erailtzea erabaki du. Herodias: bere portaera gaiztoa gogorarazten dion gizona begi-bistatik kendu nahi duen ema-



Urteko 17. astea.

San Alfontso Maria Ligorio, *gotzaina eta eliz irakaslea, fundatzailea (erredentoristak).*

kumea da; horrela, lasai bizi ahalko da kontzientzia interpelazio orri blindaturik. Alaba, txaloaren ilusiopean bizi da eta dantzari panpinatza: darabilten besteen mendeko. Hiru horien aurrez aurre, Bataiatzailea daukagu: ez zaio axola zuzen ez dena adorez salatzeagatik bizia jokatzea. Agian, geure bizitzaren uneren batean lehen hiru horietakoren baten antzeko izan gara; baina ez al genuke nahi Bataiatzailearen adorea bizitzea? Eska diezaiogun Jaunari.

\*\*\*

### San Alfontso Maria Ligorio

Alfontso Napolitik hurbil jaio zen, 1696an. Hamazazpi urteko zela doktorea zen Zuzenbide zibil eta kanonikoan. Auzi batean galtzaile gertatu, eta auzia argiro zuzengabekotzat eta trikimailu politikotzat eman zuelarik, abokatutza utzi eta eliz ikasketak egin zituen, eta 1726an apaiztu. Predikari gogotsua zen eta aitor-entzule bihozbera. Otoitzaren indarra eta Andre Mariarekiko konfiantza hots egin zuen nonahi. «Erosle Santuaren» Institutua –Erredentoristak– eratu zuen 1732an. 1762an Sant’Agata dei Goti (Benevento) elizbarrutiko apezpiku egin zuen Klemente XIII.ak, gogoz kontra. Hezueriak –gotak– jota, erretiratu egin zen, baina idazten jarraitu. 1787an hil zen, 91 urte zela.

Garaiko jansenisten pesimismo erlijioso eta zorrotzari, printzipio nagusi hau kontrajari zion: «Copiosa apud Deum redemptio» (*egundokoa Jainkoaren salbamen*); *hari beretik, teologia moralean* «probabilismoaren metodoa» ezarri zuen. Gogoeta bikain hau utzi zigun: «Jainkoak, jakinik gizakiari bihotza on eginez irabazten zaiola, dohainez bete nahi izan zuen, Jainkoa maitatu beharra senti zezan» (*«Egunean Eguneko Ebanjelioa», Deustuko Unibertsitatea, 2006*).

**§ Isaias Profetaren liburutik 55, 1-3.**

Honela mintzo da Jauna:

«Egarri zareten guztiok, zatozte ur bila, etorri, dirurik ez duzenok ere; erosi garia eta jan ordaindu gabe, erosi ardoa eta esnea hutsean. Zergatik eralgi dirua, goserik utziko zaituzten janaritan, eta lansaria, aseko ez zaituzten gauzatan? Entzun niri arretaz, eta ondo jango duzue, janari gozo mamitsuz elikatuko zarete.

Etorri nigana eta egon adi, entzudazue eta biziko zarete. Betiko ituna egingo dut zuekin, Davidi eginiko maitasunezko agintzariari leial eutsiz».

[Sal 145 [144]: Zabaltzen duzu eskua, Jauna, eta ase ematen diguzu.]

**§ San Paulok Erromatarrei 8, 35. 37-39.**

Senideok: Nork aldenduko gaitu Kristok digun maitasunetik? Atsekabeak, larriak, erasoaldiak, goseak, jantzirik ezak, arriskuak, ezpatak? Horietan guztietan erraz ateratzen gara garaile, maite izan gaituen hari esker.

Ziur dakit: ez heriok eta ez bizik, ez aingeruk eta ez goiko beste indarrek, ez oraingok eta ez gerokok, ez inolako boterek, ez ortziko eta ez lur azpiko indarrek, ez beste inolako izakik, ez gaituela aldenduko Jainkoak Jesu Kristo gure Jaunagan agertu digun maitasunetik.

**† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 13-21.**

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen heriotzaren berri jakitean, Jesus leku bakarti batera joan zen bera bakarrik txalupaz. Baina ohartu zen jendea eta oinez jarraitu zion herrietatik. Txalupatik ateratzean, Jesussek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen eta gaixoak sendatu zizkien.

Ilunabarrean, ikasleek hurbildu eta esan zioten: «Leku bakartia da hau eta orduak aurrera doaz. Bidal ezazu jendea, auzoetara joan eta ja-

Aingeruen Andre Maria. San Eusebio Vercelli-koa, *gotzaina*.  
San Pedro Julian Eymard, *apaiza, fundatzailea (Sakramentu Santuaren Apaizak)*. San Pedro Fabro, *apaiza, jesuita*.

tekoa eros dezan». Jesusek esan zien: «Ez dute zertan joan; emaezue zeuok jaten». Haiek, orduan: «Ez dugu hemen bost ogi eta bi arrain besterik». Eta Jesusek: «Ekarri hona».

Jendeari belar gainean esertzeko agindu ondoren, hartu zituen bost ogiak eta bi arrainak, eta, begiak zerurantz jatorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Asetzeraino jan zuten guztiek, eta gelditutako hondarrez hamabi saski bete bildu zuten. Bost mila gizon inguru ziren jan zutenak, emakumeak eta haurrak aparte.

**B**ada otoitza bat, mahaia bedeinkatzekoa, xumea eta sakona; gaurko ebanjelioaren mezua laburtzeko egokia. Dio: «Jauna, eman ogia gose denari, eta zure gosea ogia ugari duenari». Jesus baita gure gosea asetzen duen janaria (Is 55,1-3: «Entzun, egarri zaretenok; etorri, gose zaretenok»); hala da, ohartuki nahiz oharkabea, bizitzan bidaiari garenontzat bizi-zentzuaren bila, bete-betearen bila; hala da, ondasun materialek zamaturik, zirrikiturik uzten ez dutenentzat beste gose-mota bat sentitzeko —«elikatzen ez dutenetan gastatzen dute beren dirua»—; baina, ezagutuko balute eta asetzen saiatuko balira, gizatarrago bihurtuko lireratek halakoak ere. Zeren eta, Giovanni Papinik esaten zuenez: «Guztiok, Jauna, behar zaitugu; eta zure beharrik ez duela uste duenak are gehiago behar zaitu». Eta janaria da, berari jarraituz, berak eragirik —«eman zeuek jaten jendeari»—, mundu baten alde ari garenontzat, zinetan guztiak eseri ahalko baitira, anai-arreba bezala, inori ere ogirik faltako ez zaiolarik. Zeren eta, Teresa santuak zioenez, «Jainkoak ez du eskurik; gu geu gara Jainkoaren eskuak».

Urteko 18. astea.

Santa Kandida Maria Jesusena (Andoain 1845 – Salamanca

1912), *birjina, fundatzailea (Jesusen Alabak)*.

San Pedro Osmakoa, *gotzaina*. Santa Lidia, *martiria*.

[**Jeremias Profetaren liburutik 28, 1-17**: Hananias, ez zara Jaunak bidalia, eta gezurrezko konfiantza ematen diozu herri honi. **Sal 119 [118]**: Irakatsi niri, Jauna, zeure aruak.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 22-36.**

Jendea ase ondoren, ontzian sarrarazi zituen Jesusek bere ikasleak eta bere aurretik bestaldera joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali eta gero, mendira igo zen Jesus bera bakarrik, otoitz egitera. Ilundu zuenean, han zegoen bakarrik. Txalupa, ordurako, lehorretik urruti zihoan, olatuek astindua, haizea kontra baitzuen.

Goizaldera, Jesus haiengana joan zen, ur gainean oinez. Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, ikaratu egin ziren, mamuren bat zelakoan, eta beldurraren beldurrez deiadarka hasi ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Ni naiz; ez beldur izan!» Orduan Pedrok esan zion: «Jauna, benetan Zu bazara, agindu iezadazu ur gainean zuregana joateko». Jesusek erantzun: «Zatoz!»

Pedro ontzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen, ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion eta, urperatzen hasi zelarik, deiadar egin zuen: «Jauna, salba nazazu!» Berehala Jesusek eskua eman eta heldu zion, esanez: «Sinesmen txikiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?»

Ontzira igo zirenean, haizea gelditu egin zen. Eta ontzian zeudenak Jesusen aurrean ahuspez jarri ziren, esanez: «Egiaz Jainkoaren Semea zara Zu!»

Itsasoa igaro ondoren, Genesareten iritsi ziren lehorrera. Bertakoek, Jesus ezagutu zutenean, inguruko lurralde guztian zabaldu zuten berria, eta gaixo guztiak eraman zizkioten. Soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

# 3

Astelehena

ABUZZTUA / DAGONILA

Urteko 18. astea.

Santa Kandida Maria Jesusena (Andoain 1845 – Salamanca 1912), *birjina, fundatzailea (Jesusen Alabak).*

San Pedro Osmakoa, *gotzaina*. Santa Lidia, *martiria*.

---

**I**zaten dira uneak zeinetan fedea koloka ipintzen baita; eta zeinetan ikarak, ziurgabetasunak, nahasmenduak –hain ondo sinbolizatzen dituztenak gaurko ebanjelioko gauak, olatu nahasiek eta haize zaka-rrak– astindu egiten baikaituzte; eta galdera egiten baitugu, abaildurik –Pedrok bezala, ahots batean gainerako ikasleekin–: sumatzen dugun Jesus hori ez ote da mamu hutsa?, irudi agian oso gizatarra duen arren, ez ote da gure ilusio huts, aitortzen dizkiogun transzendentziari eta jainkozko nortasunari dagokienez? Loiolako Ignaziok, Gogo Jardunetan, oroitzapena lanean jartzera gonbidatzen gaitu, gogoratzera lehorte horretan geure bizitzako beste une kontaezinak, zeinetan Jesusen presentzia argia izan baikenuen eta babeslea, gure bizitzari zentzua ematen ziona. Hurbiltasunaren esperientzia bizi horiek gogoratuz, Jesusek galdegiten digu: Nolatan duda horiek, ni zeuekin nauzue-eta, batzuetan ezkutuka nabilela eman arren?

Urteko 18. astea.

San Joan Maria Vianney, *Ars-eko apaiza*.

[Jeremias Profetaren liburutik 30, 1-2. 12-15. 18-22: Zeure bekatu izugarriengatik egin dizut hori. Jakoben herriaren zoria aldatuko dut. Sal 102 [101]: Eraiki du Jaunak berriro Sion eta bera aintzaz bete agertu da.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15, 1-2. 10-14.

Aldi hartan, Jerusalem dik etorritako zenbait lege-maisu eta fari-seu hurbildu zitzaion Jesusi eta galdetu zioten: «Zergatik hausten dute zure ikasleek zaharren ohitura? Ez dute eskuen garbikuntza egiten jan aurretik».

Jendeari dei egin eta esan zion Jesusek: «Entzun eta ulertu ongi: Gizakia ez du ahotik sartzen denak kutsatzen; ahotik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia».

Hurbildu zitzaizkion orduan ikasleak eta esan zioten: «Ba al dakizu hitz horiekin fariseuak suminduta utzi dituzula?» Jesusek erantzun zion: «Zeruko nire Aitak landatu ez duen landarea sustraitik aterako dute. Utziezue! Itsu dira, eta itsu-gidari. Eta itsuaren gidaria itsua bada, biak eroriko dira zulora».

**E**ztabaida –gaur oso laburturik irakurria–, erritu-garbitasunaz lege bihurtu dituzten baina oker ulertutako tradizioez da. Horien aurka, Jesusek defendatu du, pertsona Jainkoaren aurrean garbi edo ez -garbi egiten duena norberaren bihotzetik irteten dena dela, ondoren ekintzetan agertzen dena. Gidari erlijiosoak, Jainkoarekiko harremanen erdigunetzat ageriko ekintza hutsak hartzen badituzte, itsu-mando dira, itsua den herri baten gidari, oso eroso baitago herri hori axaleko eta konpromisorik gabeko erlijiotasun bati emanik. Kexu honekin adierazi da itsutasun bikoitz hori: «Herri honek mihi-puntaz ohoratzen nau, baina urrun du bihotza nigandik». Egin dezagun gogoeta: gu gu ez al gara batzuetan otoi-tzetan eta errituetan babesten, geure bihotza inori eman beharrik ez izateko?

[Jeremias Profetaren liburutik 31, 1-7: Maite zaitut, betidanik maite ere. Sal: Jr 31: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15, 21-28.

Aldi hartan, Tiroko eta Sidongo lurraldera alendu zen Jesus. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion: «Jauna, Daviden Semea, erruki zakizkit! Oinaze gorritan dauka deabruak nire alaba». Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun.

Ikasleak, hurbildurik, erreguka ari zitzaizkion: «Egiozu kasu, eta doala, deiadarka baitatorkigu atzetik». Jesusek, ordea: «Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak».

Baina emakumea, hurbildurik, ahuspez jarri zitzaion, esanez: «Lagun iezadazu, Jauna!» Jesusek, orduan: «Ez dago ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea». Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak».

Orduan, Jesusek esan zion: «Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzun hori». Eta une hartatik sendatua gelditu zitzaion alaba.

**J**esusek esaten ahal zion emakume kanaandarrari: «Zein astuna edo gogaikarria zaren! Zoaz, eta gerta dadila sendatua zure alaba». Edota: «Zein aztia zaren zeure argudiatzeko eran!» Baina emakumeagana Jesusek laudatu duena, ez da izan beraren seta, ezta beraren buru-argitasuna ere, baizik eta fedea. «Bai handia dela zure fedea!» (J.L. Sicre). Esan al dezake Jesusek gutaz: zein handia den zure fedea!? Izaten dira bizitzan uneak, zeinetan, estutasunak edo ezinak edo ilunak zulatzen gaituelako, geure fedea garrasika bakarrik adierazi ahal izaten baitugu. Ez dezagun kezkarik izan horrela adierazteko; baina izan dadila beti otoitz-garrasi, izan dadila konfiantza eutsi baten oihu, kanaandar emakumearena izan zen bezalako. Geuk ere «armagabetu-

Urteko 18. astea.

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea, Erroman.

Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria

---

ko» dugu orduan Jesus, zeinek ez baitigu eman sekula harri-koxkor bat ogi-puska baten ordeZ.

\*\*\*

[Elurretako Andre Maria. Zakarias 2,1-13: Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorkizu-eta! Apokalipsia 21,1-5a: Jerusalem berria ikusi nuen, bere senargaiarentzat apaindutako andregaiia bezala. Salmoa: Judit 13: Zugan du gure herriak bere edertasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!»

Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

**I**kasleek baztertu egin nahi dute, bere alabaren osasuna oihuka eskatuz, inguruan duten emakume nahastailea. Nekagarri da Maisuarrentzat, baina, egia esateko, berek dute hura nekagarriago. Azkenean haren alde erregutu diote Jesusi, baina ez gupidaz, baizik eta eragiten ari den iskanbilagatik.

Azkenean, lortu du emakumeak Jesusekin hitz egitea. Gai da ama hori bere burua txakurkume batekin konparatzeko, alabaren osasuna lortzekotan. Otoitz jarraiki eta apal horrek, fedez gainezka, sendatuko duen esperantza eta ama baten maitasun den horrek, harridura eragin dio Jesusi: bete dadila horrenbeste opa duzuna!



Urteko 18. astea. JAUNAREN ANTZALDATZEA.  
San Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak.*

§ Daniel Profetaren liburutik 7,9-10.13-14.

Begira nengoela, tronu batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat eseri zen. Haren soinekoa elurra bezain zuri, buruko ilea artilea bezain garbi! Haren aulkia eta gurpilak, sugar kiskalgarri! Suzko ibaia ateratzen zen haren aurretik. Jendetza izugarria zuen zerbitzari, milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik. Auzia hasi eta zabaldu ziren liburuak. Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzeko zuen. Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

[Sal 97 [96]: Errege da Jauna, Goi-goikoa, lur guztiaren gainetik.]

§ San Pedoren 2. gutunetik 1,16-19.

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jauna ahalmenez etorriko den egunaz hitz egin genizuenean, ez ginen oinarritu irudipenezko ipuinetan, geure esperientzian baizik, geure begiz ikusi baikenuen haren handitasuna.

Jesusek bere Aita Jainkoagandik hartu zituen ohorea eta aintza, hau esan baitzion Jainkoaren aintza bikainetik etorritako mintzoak: «Hau da nire Semea, nire maitea, honengan dut neure atsegina». Guk geuk entzun genuen zerutik etorritako mintzo hori, berarekin mendi santuan ginela.

Badugu profeten hitza ere, hitz guztiz sendoa, eta zuek ederki egiten duzue hitz horri adi-adi egonez: toki ilunean argi egiten duen kriseilua bezala da zuentzat, eguna zabaldu eta goizeko izarra zuen bihotzean jaiki arte.

Urteko 18. astea.

JAUNAREN ANTZALDATZEA.

San Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 1-9.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta honen anaia Joan eta mendi garai batera eraman zituen aparte. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean: aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion eta jantziak argia bezain zuri. Hartan, Moises eta Elias agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan.

Orduan, Pedrok esan zion Jesusi: «Jauna, bai ederki gaudela hemen! Nahi baduzu, hiru txabola egingo ditut: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat».

Hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta ahots batek esan zuen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea, hau dut atsegin. Entzuiozue». Hori entzutean, ahuspez lurrera erori ziren ikasleak, belduraren beldurrez.

Hurbildu zitzaion Jesus, ukitu eta esan zien: «Jaiki zaitetzte; ez beldur izan». Begiak jasorik, Jesus bakarrik ikusi zuten, beste inor ez.

Menditik behera jaisterakoan, Jesusek agindu zien: «Ez esan inori ikusi duzuen hau, harik eta Gizonaren Semea hilen arteatik piztu arte».

**B**i prefaziotan ageri zaigu Antzaldatzearen mezua: «Jesusek, mendi santuan, bere aintzaren distira agertu zien, testigantza gisa, Legearekin eta Profetekin bat, nekaldia piztuerarako bidea dela» (Gari-zumako 2. igandea). «Kristok Elizaren esperantza arnastu zuen; izan ere, beragan agertu zuen Kristok, egun batean bera burutzat aitortuko duen gorputz osoan distiratuko duen argitasuna» (gaurko mezakoan).

Guk esperantzazko oroitzapena izatea nahi du Kristok. Geure bizitzan ilunaldia eta asperdura iritsiko zaizkigunean, gogora ekarri behar beste egun eta ordu haiek, beste argialdi haiek, zeinetan ahogozatuak baititugu Kristoren presentzia gozagarria eta azken zoria, gure bizitzaren helmuga dena. Izan ere, izaten dira gure bizitzan Tabor mendiko esperientziak eta uneak ere —eta eskatu egin behar izaten ditugu halakoak izateko —: halakoetan Jainkoa hurbil eta bero-bero, aintzatsu

Urteko 18. astea.

JAUNAREN ANTZALDATZEA.

San Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak*.

eta kontsolatzaile... agertu ohi zaigu; gauza guztiek zentzurik badutela ikusi ahal izaten dugu halakoetan, eta esperantza nagusitzen da gure aurpegiak. Eta behin betikoa izango duen aurpegi horrekin egingo digu harrera Jesusek geure bizitza hilkor horren bukaeran. Esperantza hori da inoiz galdu behar ez duguna, berari jarraituz bide gurutziltzatuetan bide egitean.

\*\*\*

### Eguneroko Tabor mendia

Zeure buruaz ahantzi zarenean,  
 azkena den jendearen zerbitzuan senperrenak egin dituzunean,  
 bidelagun sufrimena onartu duzunean,  
 galtzen ikasi duzunean,  
 irabaztea jada helburu ez duzunean,  
 zeuk behar zenuena partekatu duzunean,  
 pobrearen alde arriskatu zarenean,  
 errugabearen malkoak xukatu dituzunean,  
 norbait bere infernutik atera duzunean,  
 munduaren bihotzean sartu zarenean,  
 zeure gogoia Jainkoaren eskuetan jarri duzunean,  
 zeure harrokeriatik garbitu zarenean.  
 horrenbeste metatze alferretik hustu zarenean,  
 zauritua sentitu zarenean...  
 distira dagi zugar, doan, Jainkoaren argiak,  
 haren presentzia sumatzen duzu udaberriko freskotasuna dariola,  
 [...] Eta ez zaude hodeietan,  
 Jainkoak doan eskaintzen dizun Tabor mendian zaude,  
 gozatu dezazun jadanik oraina  
 eta bide egin dezazun irmo eta beldurrik gabe.

(*Ulibarri, Florentino*).

Urteko 18. astea.

San Sixto II.a, *aita santua* eta lagunak, *martiriak*.

San Kaietano, *apaiza (teatinoen fundatzailea)*.

[Nahumen Profezia liburutik 2, 1. 3; 3, 1-3. 6-7: Zoritzarrekoa zu, Ninibe, hiri odolzale hori. Sal: Dt 32: Nik dut heriotza eta bizia ematen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 24-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzeta eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du.

Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu? Eta zer eman dezake gizakiak bizia berriro eskuratzeko? Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruekin eta orduan bakoitzari bere jokabidearen arabera ordainduko dio. Egia diotsuet: hemen direnetako batzuk ez dira hilko, Gizonaren Semea errege bezala etortzen ikusi arte».

**N**ekaldiaz Jesusek egindako lehen iragarpena da, atzo irakurri genuen Antzaldatzearen pasadizoa baino lehentxeago egina. Jesusek argi utzi nahi du, beraren mesianismoa Sufrimendu-zerbitzariarena dela. Jarraitu nahi dionak ere beraren ondoren egin beharko du bide. Gurutzeta lepoan hartu beharko du; izan ere, harekin eta haren baloreekin azkeneraino koherente izan nahi badu, ezin ulertu eta oztopo askori aurre egin beharko die. «Bizia galdu beharko du» –munduaren ustez–; baina, zinez, bizitza gizatiarrago bat, desatxikiago bat eta, ondorioz, be-teago bat «irabazteko» izango da. Errotikotasun horrek beldurra eragiten badigu, eska diezaiogun Jaunari «bera desiratzeko desioa»; jakinik, San Agustinek dionetz, «Jainkoak zerbait eskatzen duenean, hura gau-zatzeko indarra ematen duela aldi berean».

Urteko 18. astea.

Domingo santua, Guzmangoa, *apaiza, fundatzailea* (*domingotarrak*).

[Habakuken Profezia liburutik 1, 12–2, 4: Zintzoa bere leialtasunari esker biziko da. Sal 9: Ez duzu, Jauna, eskutik uzten zure bila dabilenik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 14-20.

Aldi hartan, gizon bat hurbildu zitzaion Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Jauna, erruki zakizkio nire semeari; epilepsia ematen dion deabrua du eta gorriak ikusarazten dizkio. Maiz botatzen du sura eta urera. Ekarki diet zure ikasleei, baina ezin izan dute sendatu».

Jesusek esan zien: «Hau gizaldi sinesgogorra eta makurra! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarki mutila hona». Jesusek gogor eraso zion deabruari eta atera egin zen mutilagandik; ordu hartatik sendatua gelditu zen.

Ikasleek, Jesusengana hurbildurik, bakarrean galdetu zioten: «Eta guk, zergatik ezin izan dugu bota deabrua?» Jesusek erantzun zien: «Zuen sinesmena txikia delako. Egia diotsuet: sinesmena bazenute, mostaza-hazia bezain txikia izanik ere, mendiari “aldatu hemendik hara” esanez gero, aldatu egingo litzateke; ez litzateke zuentzat ezinezkorik izango».

**B**i bider aurpegiratu die Jesusek ikasleei beren «fede eskasa» (Mt 6,30; 8,26). Oraingoan, benetako fedea izateko eskatzen digu beraiei eta geuri, mostaza haziaren neurri soilekoa izango bada ere. Horrelako fedea izateak, azkeneraino Jainkoaren eta Jesusen ahalmenean fidatzen dena, ezina dirudiguna ere gauzatu dezake. Judu-hiperbole batez baliatuz, Jesusek diosku, mendiak lekualdatuko dituela. Esan nahi baita, adorea emango digula besteak (deabruduna, adibidez) eta gu geu estutzen gaituzten loturei aurre egiteko; eta indarra emango digula «posible» huts denari egokitua dugun geure konpromiso-gabezia hausteko, egokitzapen hori statu quo zuzengabearen pareko baita, eta ausardia emango digula mendiak antzo mugiezin direla ematen duten egitura zapaltzaileei azpia jaten saiatzeko.

Urteko 19. astea.

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein), *erlijiosa eta martiria, Europako Zaindaria*.

### § Erregeak lehenengo liburutik 19, 9a. 11-13a.

Egun haietan, Elias Horebera, Jainkoaren mendira, etorri eta hango hartzulo batean gelditu zen. Jaunak esan zion: «Atera eta zaude zutik mendian, Jaunaren aurrean; Jauna igaroko da».

Jaunaren aurretik haize zakar indartsuak jo zuen, mendiak urratzen eta harkaitzak zartatzen zituela; baina Jauna ez zegoen haizean. Haizearen ondoren, lurrikara izan zen; baina Jauna ez zegoen lurrikarran. Lurrikararen ondoren sua; baina Jauna ez zegoen suan. Suaren ondoren haize fin baten hotsa.

Entzun zuenean, Eliasek aurpegia estali zuen soingainekoaz; gero, irten eta zutik gelditu zen hartzulo aurrean.

[Sal 85 [84]: Jauna, zeure onginahia erakutsiezaguzu, zeure salbame-na emaguzu.]

### § San Paulok Erromatarrei 9, 1-5.

Senideok: Egia diot –Kristo dut lekuko–, ez diot gezurrik; neure kontzientziak ere, Espiritu Santuak argituta, hala aitortzen dit: handia da nire nahigabea, etengabea nire bihotzeko mina.

Ni neu madarikatua, Kristogandik aldendua, izatea ere onartuko nuke, baldin eta hori nire odoleko senideen onerako izango balitz. Israelen ondorengoak dira eta Jainkoak seme-alabatzat hartu zituen; haiek dituzte Jainkoaren presentzia aintzatsua, itunak, legea, kultura eta agintzariak; haienak dira arbasoak eta, giza jatorriari dagokionez, haiengandik dator Kristo, gauza guztien gaisetetik dagoen Jainkoa. Be-deinkatua izan bedi mendeetan. Amen.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 22-33.

Jendea ase ondoren, ontzian sarrarazi zituen Jesusek bere ikasleak eta bere aurretik bestaldera joateko agindu zien, berak jendeari agur

Urteko 19. astea.

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein), *erlijiosa eta martiria, Europako Zaindaria.*

egin bitartean. Jendea bidali eta gero, mendira igo zen Jesus bera bakarrik, otoitz egitera. Ilundu zuenean, han zegoen bakarrik. Txalupa, ordurako, lehorretik urruti zihoan, olatuek astindua, haizea kontra baitzuen.

Goizaldera, Jesus haiengana joan zen ur gainean oinez. Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, ikaratu egin ziren, mamuren bat zelakoan, eta beldurraren beldurrez deiadarka hasi ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Ni naiz; ez beldur izan!» Orduan Pedrok esan zion: «Jauna, benetan Zu bazara, agindu iezadazu ur gainean zuregana joateko». Jesusek erantzun: «Zatoz!»

Pedro ontzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion eta, urperatzen hasi zelarik, deidar egin zuen: «Jauna, salba nazazu!» Berehala Jesusek eskua eman eta heldu zion, esanez: «Sinesmen txikiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?»

Ontzira igo zirenean, haizea gelditu egin zen. Eta ontzian zeudena Jesusen aurrean ahuspez jarri ziren, esanez: «Egiaz Jainkoaren Semea zara Zu!»

**P**edrok bezala, arriskatuz Jesusi jarraitzea erabakitzen dugunean –uhin-olatuen gainean ibiliz–, sarritan atzematen dugu zein hauskorra dugun geure fedea. Beldurra ematen digu; geure konfiantzak huts egiten digu, hondoratu egiten gara. Pedrok bezala, kontrako haizearen indarrari bakarrik erreparatzen diogu, olatuen mehatxuari... eta ahaztu Kristoren presentzia hurbilaz, haren deiaz... hondorik gabe sentitzen gara: etsipenak jotzen gaitu. Jesusek, berriz, berarekin topo egitearen arriskuari adorez aurre egiteko eskatzen digu; beraren presentzia sumatuz, beraganantz bide egitera ausartu gaitetzen, fedearen ahultasunez, jakinik, ez dugula sekula izango lur irmoan gabiltzan segurtasunik, ezta begi-bistako ziurtasunik ere, baina, beraren hitzaz eta berberaz fidaturik, ur mugikorrean ibiltzea dela, bai, baina berak bere esku salbatzailea ematen digularik. Fededunak, duda-mudek jo-

Urteko 19. astea.

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein), *erlijiosa eta martiria, Europako Zaindaria*.

**rik ere, badaki bide egiten ahal duela hondoratu gabe, Jaunak luza-  
tzen dion eskutik.**

**Beste batzuetan, beti jaun eta aske den Jainkoa agertzen ahal zaigu  
geuri ere geure bizitzan bakea eta sosegua eskainiz –haize gozo bezala–,  
bihotzera samur hitz eginez. Balia gaitezen une horiez, eta ekar ditzagun  
gogora, kontrako haizearekin arraunean egin behar izaten dugunetan.**

\*\*\*

### Santa Teresa Benedikta (Edith Stein)

Edith 1891n jaio zen Alemanian, judu-familia batean. Edmund Husserl-en (judua eta fedegabea) ikasle eta jarraitzaile izan zen. 1914an lehertu zen gerratean fronteko ospitale batean erizain aritu zen. Bilatzaile sutua zen, ordea, eta Max Scheler-ekin topo egiteak katolizismorako bidea erraztu zion. 1933an Koloniako karmeldarren komentuan sartu zen, bere familia haserre zuelarik. 1938an, nazismoaren beldur, Holandako beste komentu batera jo zuen. 1942an Gestapok atxilotu, eta, 51 urteko zela, martiri hil zen. Joan Paulo II.ak santu deklaratu zuen 1998an.

Oso garaiz barruntatu zuen bere heriotza, segidako agiri honetan ageri denez.

«Oraintxetik, pozik eta Jainkoaren Gogoari atxikiz, onartzen dut Jainkoak niretzat aurreikusia duen heriotza.

Jaunari erregutzen diot, onar ditzala nire bizitza eta nire heriotza bere ohore eta aintzarako, Eliza Santuaren onerako, gure Ordena Santuaren, nire familiartekoen eta Jainkoak eman dizkidan guztien santutasunerako eta onbide guztizkorako: ez dadila galdu horietako inor.

Onar ezazu, Jauna, zeure zerbitzari ez-duin honen burua zeuk martiritzaz koroatzea».

Testamentu Espirituala, 1939-06-09.



Urteko 19. astea.

San Lorenzo, *diakonoa eta martiria*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 9,6-10: Alai ematen duena maite du Jainkoak. Sal 112 [111]: Pertsona onak errukitu eta eman egiten du.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 12,24-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Gari-alea, lurtean erori eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina, hiltzen bada, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, Ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena ohoratu egingo du Aitak».

**G**ari-alearen parabola txikiarekin laburtu zuen Jesusek zer izan zuen bere bizitza: bere burua erein eta bizia eman. Ikasleak gauza bera egin dezan nahi du: bere burua erein, emankor izateko, bizi-emaille izateko. Ikasleak ez du biribildu behar bere baitan, baizik eta denik eta duenik eta gauzarik hoberena eman gainerakoei. Zerbitzua esan nahi du horrek, desatxikimendua, ukapena, buru-eskaintza, Aldi berean, orde, norberaren ingurumenean bizia ematen saiatzea esan nahi du. Pedro Casaldáligak olerkiz esana beteko da orduan: «Bizitzaren azkenean galdegingo didate: / Zer egin duzu? / Eta nik ez dut ezer esango. / Irekiko ditut neure eskuak hutsik / eta izenez betea dudan bihotza». Eskuak hutsik, duguna besteei emanez ibili izan garelako; baina bihotza izenez beterik Jesusek bezala.

Urteko 19. astea.

Santa Klara, *birjina, frantziskotarra.*

[Ezekielen Profezia liburutik 2, 8–3, 4: Liburua janarazi zidan eta ez-tia bezain gozo gertatu zitzaidan. Sal 119 [118]: Bai gozoa nire-tzat, Jauna, Zuk hitzemaña!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 1-5. 10. 12-14.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zio-ten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?» Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien:

«Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez ba-zarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau.

Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan.

Zer deritzozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu eta bat galtzen bazaio, ez al da laurogeita hemeretziak mendian utzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu, benetan diotsuet, poz handiagoa izango du bakar harengatik, galdu ez diren laurogeita hemeretziengatik baino.

Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».

**J**aiotzaren basilikak, Betleemen, badu ate bat, metro bat eta ho-gei zentimetro altu dena; haurrak bakarrik igaro daitezke hartatik makurtu gabe. Gidariak argitu ohi die bisitariei, Erdi Aroan eraiki zutela horrela, sarrasenoak basilikara zaldiz sartu eta otoiitzean ari ziren kristauen artean sarraskirik egin ez zezaten. Baina –L. Gonzá-lez-Carvajalek dioenez– politagoa da ate txiki hori sinbolotzat hartzea: «Jainkoagana bi eratara irits gintezkeela: edota haur izanez edota asko makurtuz». Jesusek ohartarazi zigun: «Aldatu eta haurrak bezalako egiten ez bazarete, ez zarete sartuko zeruko erreinuan».

[Ezekielen Profezia liburutik 9, 1-7; 10, 18-22: Egin gurutze-itxurako ikur bana, Jerusalemen ari dituzten higuingarrikeria guztiengatik negar egiten dutenen bekokian. Sal 113 [112]: Jaunaren ospea zera baino gorago.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zure senideak bekatu egiten badu zure aurka, zoaz beragana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berriz, har itzazu zeurekin lagun bat edo bi, auzia bi edo hiru lekukoren aitopenaz erabaki behar da eta. Hauei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko.

Benetan diotsuet: zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua.

Beste hau ere badiotsuet: zuetako bik elkar hartzen badute mundu honetan Jainkoari zerbait eskatzeko, emango die zeruko nire Aitak. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun bilduak dauden tokian, han naiz Ni haien artean».

**G**eure fedea besteekin bizitzera eta partekatzerara dei egin digu Jaunak. Elkartearen garrantzia ondo azpimarratu du Jesusek: 1) Bera, «Emanuel» (Jainkoa gurekin) –eta hau muin-ideia da Mateoren ebanjelioan–, presente dago elkartean, edozein lekutan elkartuak direnen artean, Jesusek erakarrik eta haren espirituak arnasturik sentiturik bizi direlarik; 2) modu berezian aditzen du Aitak elkarrekin eskatzen dutenen otoitza, Jesusek elkarrekin lotu dituela eta anai-arreba arteko elkartea eratzen dutela sentitzen dutelako. Kristautasuna ez da, beraz, erlijio indibidualista bat; elkartea balio handiko laguntza da fedea bizitzeko. Eta nire fedea, indibidualista al da?

[Ezekielen Profezia liburutik 12, 1-12: Zoaz erbestera egun-argiz, haien aurrean. **Sal 78 [77]:** Ez ahaztu Jainkoaren egintza handiez.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 21–19, 1.

Aldi hartan, hurbildu zitzaien Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jau-na, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz bar-katu behar diot? Zazpi aldiz?»

Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko.

Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia. Baina morroi hark berak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-lagunarekin topo egin zuen, eta, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordain iezadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspez-turik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

Beste morroiak, gertatua ikusirik, bizi-ro atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten.

Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu didaalako; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nin-zen bezala?” Eta nagusiak, haserre bizioan, borroeroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte.

Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok elka-ri bihotzez barkatzen ez badiozue».

# 13

Osteguna / Eguena

ABUZTUA / DAGONILA

Urteko 19. astea.

San Pontziano, *18. Aita Santua*, eta San Hipolito, *apaiza, martiriak*. Felipe Jesusena Munarriz (Allo 1875 – Barbastro 1936), *klaretarra, dohatsua*, eta lagunak, *martiriak*.

---

Hitzaldi hau bukatu zuenean, Galileatik alde egin eta Judeako mugetan sartu zen Jesus, Jordanez bestaldera igaroz.

**I**nondik ere, Jesusen parabola hau entzun zutenak asko poztuko ziren azken hau aditzean: lagun bati zorra ordaintzeko gai izan ez zen hark bere zigorra jaso zuen. Geuk ere gozatzen dugu, ondo bukatzen den parabola honen gorabeherekin. Baina geure buruari egoztea tokatzen zaigunean... zenbat kostatzen zaigun barkatzea! Barkatzea ez da une bateko egitate bakan bat, baizik eta jarrera bat, gauza jarraikia, izan behar du. Hau da, betikoa. Jarrera hau lortzeko, Jainkoak behin eta berriz barkatu izan digun geure esperientzia sakondu behar-ko dugu: Jainkoak ez du gogoan gordetzen berarekiko dugun egundoko zorra. Errukia baitaratu duena ezin ibiliko da barkazioaren mugak zein diren kalkulatzen.

Urteko 19. astea.

San Maximiliano Maria Kolbe, *apaiza eta martiria*,  
*kaputxinoa*.

[Ezekielen Profezia liburutik 16, 1-15. 60. 63: Erabatekoa zen zure edertasuna, Nik eman nizkizun apaingarriei esker, eta prostituzioan hasi zinen. **Sal: Is 12:** Baretu da zure haserrea eta kontsolatu nauzu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 3-12.

Aldi hartan, fariseu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi eta, zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari bere emaztea edozein arrazoirengatik uztea?»

Hark erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Liburu Santuak dioena? Hasieratik Egileak gizaseme eta emakume egin zituela, alegia, eta esan zuela: “Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira”. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banatu».

Haiek galdetu zioten: «Zergatik eman zuen, bada, Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena?» Jesusek erantzun zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek emaztea uzteko baimena; baina hasieran ez zen horrela. Hau diotsuet: bere emaztea utzi –legearen kontra elkartuak ez badira behintzat– eta beste batekin ezkontzen denak, adulterioa egiten du».

Ikasleek esan zioten orduan: «Baldin horrelakoa bada senar-emazteen arteko lotura, ez du merezi ezkontzea». Jesusek erantzun zien: «Ez dira denak hori onartzeko gai, Jainkoak gai egiten dituenak baizik. Batzuk ez dira ezkontzen, jaiotzaz ezin dutelako; beste batzuk giza eskuz ezinduak izan direlako; beste batzuk, berriz, zeruetako erreinuagatik hala erabaki dutelako. Onar dezakeenak onar beza».

**T**arozzi italiar soziologoak dio, «itzuliko txartelaren sindromepeko gizaratean» bizi garela. Luzaroko konpromisoak izutu egiten gaitu;

Urteko 19. astea.

San Maximiliano Maria Kolbe, *apaiza eta martiria,*  
*kaputzinoa.*

konpromiso baten aurrean, jenderik gehienak patrikan gordetzen du itzuliko txartela, konpromisorik gabeko abiapuntura itzuli behar izango badu ere. Jesusek, Jainkoaren hasierako ametsera joz, ezkontza ez du hartzen lege-hitzarmen soiltzat, baizik eta gizonaren eta emakumearen arteko behin betiko elkargotzat: maitasun leialean oinarritua, «izaki bakar bat» izatera daramatzana. Sakramentuak bere grazia-laguntza ematen du amets hori gauzatzeko. Baina, jakina, lankide izan behar da grazia horrekin, leialtasuna eguneroko eginkizun bihurtuz, sostengutzat lau zimentarri hartuz: maitasuna, errespetua, elkarrizketa eta barkazioa.

\*\*\*

### Bokazioa

Zer da hau, gero? Bihotza dar-dar: poza, galdera, lilura, kezka... Zerbait, norbait ari zait, ezti-ezti, bihotzean... Ez dakit zer-nor den.

Gazte aberats bat Jesusengana etorri zen. «Zer egin behar dut betiko bizia lortzeko?» Jesusek azkenean: «saldu zeure ondasunak, eman behartsuei, eta zatoz, jarraitu niri». Gaztea triste joan zen; lotura handiegia zituen (ik. Mateo 19,16-22).

Zazpi urteak joan dira. Hamar urteak ere bai. Baita hogeita hamar... urteak ere. Eta mintzo zaizun hau beti bila, beti bila. Nire zoria gaur, une honetan, ordu honetan... Jainkoaren arabera non den bila. Garai bateko urduritasunik gabe. Bare-bare. Lasai. Poz-pozik.

«Bihotz-bihotzez nabil zure bila, Jauna; erakutsi niri zeure arauen [proposamenen] bidea» (Sal 119,10.33).

## ABUZTUA / DAGONILA Larunbata / Zapatua

Urteko 19. astea.

ANDRE MARIAREN ZERURATZEA.

Ondarroan, Antiguako Andra Maria.

Durangon, Uribarriko Andra Maria. San Tarsizio, *martiria*.

# 15

### § Apokalipsi liburutik 11,19a; 12,1.3-6a.10ab.

Ireki zen Jainkoaren santutegia zeruan eta haren itun-kutxa agertu zen santutegian. Seinale handia agertu zen zeruan: emakume bat eguzkiz jantzia, ilargia oinazpian eta hamabi izarreko koroa buruan. Haurdun zegoen eta, erdiminez eta haurgintzako oinazez, garrasika ari zen.

Beste seinale bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituen, eta buruetan koroa bana. Bere isatsez zeruko izarren herena arrastaka hartu eta lurrera jaurti zuen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko.

Emakumeak semea izan zuen, herri guztiak burdinazko makilaz gobernatuko dituen; hartu zuten semea eta Jainkoaren tronuraino eramán zuten. Emakumeak, berriz, basamortura egin zuen ihes; han leku bat prestatua zion Jainkoak.

Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten:

«Orain etorri dira gure Jainkoaren salbamena, indarra eta erregetza, eta beraren Mesiasen agintea».

[Sal 45 [44]: Zure eskuinean dago erregina, urre finez apaindua.]

### § Paulok 1 Korintoarrei 15,20-27a.

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnaten lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten elkartasunagatik guztiak itzuliko dira bizira.

Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitua denez; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezeztatu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok erre-



ge izan behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da. Izan ere, «gauza guztiak haren menpean jarri ditu Jainkoak».

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihi handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamena, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana. Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak. Lagun etorri zaio bere morroi Israeli, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzemana, Abrahami eta ondorengoei betiko esana».

Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

**M**ariaren jai guztien sintesia da Andre Mariaren Jasokundea. Mariaren Pazko-jaiak da. Herri fededunak, poz-oz, zorionak ematen

## ABUZTUA / DAGONILA Larunbata / Zapatua

Urteko 19. astea.

ANDRE MARIAREN ZERURATZEA.

Ondarroan, Antiguako Andra Maria.

Durangon, Uribarriko Andra Maria. San Tarsizio, *martiria*.

# 15

dizkio. Kristok, piztu eta garaile, bere ondoren daramatza beraren biziera onartzen duten guztiak. Maria, beraren Ama, izan zen beraren urratsei jarraitu zien lehen ikaslea. Horixe aldarrikatzen dugu festaburu honetan: Maria, Jainkoaren eta Kristoren Ama, lurreko bizitzaldia beterik, zerura jaso izan zela, gorputz eta arima, zeruko aintzara.

Gainera, «Salve Regina»n otoizten duguna aldarrikatzen dugu: «geure esperantza» dugu Maria. Ama bere seme-alabei (orain erromes) deika ari zaiela. Berarekin partekatzeke eginak gara berak jada lortua duen zoria. Bere bizitza zoriontsutik bere ondoan ikusi nahi gaitu, eta hartatik erreguka dihardu guretzat, hala gerta dadin. Horregatik aldarrikatzen dugu: Salve, spes nostra (Aupa, gure esperantza!)

Baina «Salve Regina»n esaten dugu «ad te clamamus» ere, berari erregutzen diogu bere adorea eta eskaintza-gaitasuna eman diezazkigun, Jainkoaren lankide izateko, geure mundu hau eraldatzeko beraren lanean, gure mundu honentzat Jainkoak bihotzean duen diseinu maite-tsuaeren antzekoago bihurtzeko. Horrela, geure bilakatuko dugu Andre Mariaren «Magnificat»a.



Andre Maria koroatua.  
Fra Angelico

Urteko 20. astea

San Esteban Hungariakoa, *erregea*.  
San Roke, *Martiria*.

## § Isaias Profetaren liburutik 56, 1. 6-7.

Honela mintzo da Jauna:

«Gorde zuzenbidea, egin justizia, iristear baitago nire salbamena, agertzeaz nire garaipena.

Jaunaren kultu-zerbitzurako, haren izena maitatzeko eta haren morroi izateko atxikiko zaizkion atzerritarrak, larunbata profanatu gabe gordetzen dutenak eta nire itunean leial irauten duten guztiak neure mendi santura ekarriko ditut, eta pozez beteko neure otoitz-etxean; onartuko ditut neure aldare gainean haien erre-opariak eta sakrifizioak; nire etxea otoitz-etxe baita, eta hala deituko dute herri guztiek».

[Sal 67 [66]: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.]

## § San Paulok Erromatarrei 11, 13-15. 29-32.

Senideok: Zuei, jentiloi, diotsuet: «Jentilen apostolu naizenez, opsu egin nahi dut neure zerbitzu hau, ea neure jatorrikoen inbidia pizten dudan eta horietako batzuen batzuk salbatzen ditudan. Israeldarrak baztertzetik Jainkoarekin baketzea etorri baldin bazaio munduari, zer ote datorke Jainkoak haiek berriro onartzetik? Heriotzatik bizira izultzea izango litzateke hori!

Behin betikoak dira Jainkoaren dohainak eta deia. Zuek, garai batean Jainkoarekin gorbizi zinetenok, orain, israeldarrak gorbizi izateari esker, errukia lortu duzue. Era berean haiek ere: orain gorbizi bihurtu dira, zuei egin zaizuen errukiari esker errukia lor dezaten. Jainkoak gorbizi izaten utzi baitzien gizon-emakume guztiei, denez erruki izateko».

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15, 21-28.

Aldi hartan, Tiroko eta Sidongo lurraldera alendu zen Jesus. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion: «Jauna, Daviden Semea, erruki zakizkit! Oinaze gorritan

Urteko 20. astea

San Esteban Hungariakoa, *erregea*.

San Roke, *Martiria*.

dauka deabruak nire alaba». Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun.

Ikasleak, hurbildurik, erreguka ari zitzaizkion: «Egiozu kasu, eta doala, deiadarka baitatorkigu atzetik». Jesusek, ordea: «Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak».

Baina emakumea, hurbildurik, ahuspez jarri zitzaion, esanez: «Lagun iezadazu, Jauna!» Jesusek, orduan: «Ez dago ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea». Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak».

Orduan, Jesusek esan zion: «Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzun hori». Eta une hartatik sendatua gelditu zitzaion alaba.

**J**esusek ireki zuen zirrikitua eta ez zuen mugatu bere jarduera Israelgo mugetara: pagano batzuen sufrimenari eta fedeari beraren bihotza sakon hunki zezaten utzi zien. Hain zuzen, jokabide hori agindu bihurtu zuen Igokundearen aurretik, kristauek jarraitu beharrekotzat: «Zoazte, egin ikasleak herri guztietan». (Jainkoak maite dituen pagano hauei egiten diete aipamen lehen bi irakurgaiek).

Jesulentzat, lehen egitekoa giza oinazea arintzea izan zen, oinaze hori ez baitzen Jainko Aitaren gogokoa. Kanaandar emakumearen eskaria bat zetorren Aitaren gogoarekin; izan ere, Jainkoa gupidatsu da gizon-emakume guztiekin. Eta Jesusek halaxe aitortu zuen, emakumearen konfiantza gorestean.

Gure gizarte pluralista honetan «kanaandar» asko dago: etorkinak dira, gure fedeko ez direnak eta «paganotzat» ematen ditugunak edota, nahasgarri zaizkigulako eta gu ez bezalako direlako, gurekin zerikusirik ez dutelakotzat hartzen ditugunak... baina sufritzen ari direnak dira, eta hori da oinarritzko arazo Jesulentzat, halakoengan aurkitu ahal izan zuen, bai salbazio-antsia, bai beraien erara adierazitako fedea, bai adiskide baten premia, hurbilduko eta zinez aitortuko eta onetsiko zien batena beren bihotzean gorderik zuten gizatasunik jatorren hura. Gupidak Jesulentzat ez zuen mugarik; ez luke izan behar guretzat ere.

[Ezekielen Profezia liburutik 24, 15-24: Ezekiel seinale izango da zuentzat: hark egin duen guztia egingo duzue. Sal: Dt 32: Sortu zintuen Jainkoa zenuen baztertu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 16-22.

Aldi hartan, gazte batek Jesusengana hurbildu eta esan zion: «Maisu, zer onik egin behar dut betiko bizia eskuratzeko?» Jesusek erantzun zion: «Zergatik galdetzen didazu onari buruz? Jainkoa bakarrik da ona. Betiko bizian sartu nahi baduzu, bete aginduak».

Hark, berriz: «Zein agindu?» Eta Jesusek: «Ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, hartu aintzat aita-amak, eta maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala». Gazteak, orduan: «Hori guztia bete dut; zer falta dut oraindik?» Jesusek erantzun zion:

«Guztiz ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri».

Hitz hauek entzutean, nahigabeturik joan zen gaztea, ondasun handien jabe baitzen.

«**G**azte aberatsa, prest dago beti gauzak metatzen joateko, merezimendu eta jarduera erlijiosoak berak ere. Hark egin dion galderari erantzunez, Jesusek ikusarazi dio ezen bizitza ez dela bermatzen gauzak gehituz, baizik eta kenduz, salduz, erabat gabeturik gelditu arte, arindurik eta aske, jarraitzaile bihurtzeko» (F. Pérez Herrero). Ondorioz, arazoa ez zuen gazte aberatsak falta zitzaiona, baizik eta sobera zuena: aberastasunetik irrika. Jesusi jarraitzeak bere-bere du Jesusen bizitza eta aberastasunak behartsuekin partekatzea. Gazteak triste alde egin zuen; pentsatzekoa da Jesus ere triste geldituko zela. Segitzeko geure asmoan, ez al dugu tristatu izan Jesus, galdu nahi ez genituenei atxikirik gelditzeagatik?

## ABUZTUA / DAGONILA Asteartea / Martitzena

Urteko 20. astea.

San Agapito, *martiria*.

Santa Juliana, *martiria*.

San Alberto Hurtado Cruchaga, *apaiza, jesuita*.

# 18

[Ezekielen Profezia liburutik 28, 1-10: Zu gizaki huts zara eta ez jainko, nahiz eta Jainkoaren pareko zarela uste duzun. **Sal:** Dt 32: Nik dut heriotza eta bizia ematen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 23-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Benetan diotsuet: aberatsa nekez sartuko da zeruetako erreinuan. Berrito diotsuet: jostorrazaren begitok gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino».

Hitzok entzutean, ikasleek, zeharo harriturik, honela zioten: «Nor salba daiteke, orduan?» Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezkoa da hori, baina Jainkoak dena dezake».

Orduan, Pedrok esan zion: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?»

Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurrak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare.

Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

**G**ameluaz eta jostorraz Jesusek jaulkitako esaldi hiperboliakoak kezka eragin zien ikasleei, eta geuri ere erasaten digu. Gogoeta egia bat egitera bultzatzen gaitu, gure bizitzan diruak zein joko duen aztertzeko. Dirua zerbitzari ona da, baina nagusi txarra. Batzuetan irudi dakiguke ezinezkoa dela inguratzen gaituen espiral diruzale eta kontsumista honen atzaparretatik aske gelditzea; baina gogora gaitzen Jesusek zioen hartaz: ezina gizakiarentzat, daitekeena Jainkoarentzat. Eta adibide ona dugu ebanjelioko pertsonaia hura; Zakeo aberatsa zen, baina berari begira jartzen utzi zion Jesusi; ordudunik erabakitzeko eta gauzatzeko indarra jaso zuen: ordudunik ez zion emango itsu-itsuan metatzeari, baizik eta partekatzea izango zuen bere ametsa.

[Ezekielen Profezia liburutik 34, 1-11: Horien hortz artetik aterako ditut ardiak eta ez dituzte berriro elikagai izango. Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 1-16.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. Eguneko lansaria zilarrezko txanpon batean hizketatu ondoren, mahastira bidali zituen langileak.

Goizeko bederatzia aldera berriro atera zen eta, beste batzuk plaza lanerako zain ikusirik, esan zien: “Zoazte zuek ere nire mahastira eta ordainduko dizuet bidezko dena”. Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuten. Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, beste batzuk oraindik geldi aurkiturik, esan zien: “Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?” Haiek erantzun zioten: “Ez gaitu inork hartu lanerako”. Hark, orduan: “Zoazte zuek ere nire mahastira”.

Iluntzean mahasti-nagusiak esan zion arduradunari: “Deitu langileei, eta emaiozu bakoitzari bere soldata, azkenekoetatik hasi eta lehenengoetara”. Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Lehenengo ordukoek, txanda iritsi zitzaientean, besteek baino gehiago hartuko zutela uste zuten; baina haiek ere zilarrezko txanpon bana hartu zuten.

Orduan, nagusiaren kontra gaizki esaka hasi ziren, eta esan zioten: “Azkeneko hauek ez dute ordubete besterik lan egin, eta gurekin berdindu dituzu, egun osoko nekea eta beroa jasan dugunokin”. Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: “Adiskide, ez dizut bidegabekeriarik egiten. Ez al ginen zilarrezko txanpon batean hizketatu? Tori dagokizuna eta zoaz. Zuri bezainbat eman nahi diot azkeneko honi ere. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala inbidia duzu, ni ona naizelako?”

## ABUZTUA / DAGONILA Asteazkena / Eguaztena

Urteko 20. astea.

San Joan Eudes, *apaiza, fundatzailea (eudistak)*.

Ezekiel Moreno Santua, *gotzaina (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*.

# 19

Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkeneko».

**J**esusek ez du, parabola honetan, «gizarte-zuzenbidez» eta «lanelko deontologiaz» hitz egiteko asmorik, baizik eta guztiok geure bihotzean daramagun «fariseu legalistari» hitz egin nahi dio, gizakiaren eta Jainkoaren arteko harremanez merkatarik-ikuspegia duenari. «Fariseuarentzat», egokitasun hertsia egon beharko luke (Jainkoaren) sariaren eta (Jainkoari) eskainitako lanaren artean. Lanorduek, hau da, gizakiaren egintzek merezimendua sortuko lukete, Jainkoaren aurrean eskubidetzat aurkez litekeena: «erosi» egingo lukete Jainkoa. Jesusen irakaspen nekaezinak, berriz, adierazten du Jainkoak ez diela erreparatzen merezimenduei, baizik eta jendearen premiari. Haren maitasunaren premia lukeenak –azkena balitz ere–, lortuko luke –«bera ona delako»–, eta ez «merezi lukeenak».



Urteko 20. astea.

San Bernardo, *abadea eta eliz irakaslea*.  
San Samuel, *Israelen epailea eta profeta*.

[Ezekielen Profezia liburutik 36, 23-28: Bihotz berria emango dizuet eta barnean espiritu berria ezarriko. Sal 51 [50]: Ur garbiz zipriz-tinduko zaitzudet, eta garbi geldituko zarete zeuen kutsadura guztietatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 1-14.

Aldi hartan, Jesusek berriro parabola bidez hitz egin zien apaizburuei eta herriko zaharrei:

«Zeruetako erreinuarekin bere semearen ezteiak ospatu zituen erregearekin bezala gertatzen da. Bidali zituen morroiak gonbidatuei dei egitera, baina haiek ez zuten etorri nahi izan.

Berriro beste morroi batzuk bidali zituen mandatu honekin: “Esaiezue gonbidatuei: Hara, gertu daukat bazkaria; hilak ditut zezenak eta zekor gizenduak, prest dago dena. Zatozte ezteietara”. Baina gonbidatuek ez zioten jaramonik egin: bata bere lurretara joan zen, bestea bere negozioetara eta gainerakoek, morroiei heldurik, irainez bete eta hil egin zituzten.

Haserretu zen erregea eta, bere soldaduak bidaliz, hil egin zituen hiltzaile haiek, eta su eman haien herriari.

Gero, bere morroiei esan zien: “Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai. Zoazte, bada, bidegurutzeetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak”. Atera ziren morroiak bideetara eta aurkitutako guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto. Eztei-gela bazkaltiarrez bete zen.

Erregeak, bazkaltiarak ikustera sartu zenean, eztei-jantzirik gabe zegoen bat ikusi eta esan zion: “Adiskide, nolatan sartu zara hona eztei-jantzirik gabe?” Hark hitzik ez. Erregeak mahai-zerbitzariei esan zien, orduan: “Esku-oinak lotu eta bota ezazue kanpora, ilunpera; han izango da negarra eta hortz-karraska!” Zeren gehiago baitira deituak, aukeratuak baino».

Urteko 20. astea.

San Bernardo, *abadea eta eliz irakaslea*.

San Samuel, *Israelen epailea eta profeta*.

**J**ainkoak Erreinuko jai-otorduan parte hartzera gonbidatu gaitu. Hasiera batean, ez diogu aitzakiarik aurkeztu: gustura onartu digu gonbita «bai» gozagarri batekin. Otordu-aretoa bete dadin nahi du Jaunak, eta bidegurutzetara joateko eskatu digu mahaikide berriren bila; agian, hasieran zerbait harriturik bada ere, etorriko baitira esker onez. Baina parabolak diosku, ez dela aski gonbita onartzea, baizik eta haren hariko bihurtu behar dugula: «eztei-jantziz jantzi». Gonbita onartzeak «janzkera» bat onartzea esan nahi du: «Kristoz jantzea» da, Jesusen erara, Jesusen kaxara bizitzea. Bestela, Jaunak ez digu utziko eztei-aretoan sartzen. Orduan hasiko al gara aitzaki-maitzaki?

\*\*\*

### San Bernardo abade zistertarra

San Bernardo 1090ean jaio zen. Gazterik Cîteaux-ko («Cistercium») zistertar monasterioan sartu zen 1112an. Oso kezkatua zegoen hango abadea, Esteban Harding, monasterioan inor sartzen ez zelako. Bernardok, ordea, beste hogeita hamar lagun eraman zituen berekin. 1115ean Clairveaux-ko monasterioko abade izendatu zuten. Han biziko zen hil arte. Ikasle izana zuen Eugenio III.a aita santuak eskaturik, 1146an bigarren gurutzadarako deia egin zuen. Frantzia, Alemanian eta Italian barna ibili zen bakea eta batasuna predikatuz. Bere irakaspene eta mirariez txunditurik uzten zuen jendea. Barne espiritualtasunari indar handia eman zion; Kristoren gizatasuna eta Mariarekiko debozioa predikatu zituen. 1153an hil zen Clairvaux-n.

Bernardo z ipi batzuk. «Maitasuna aski da bera bakarrik, berez bakarrik atsegintzen du eta bera bakarrik kausa dela». 1130ean Erroman bi aita santu izendatu zituztenean, ahalegin handia egin zuen legezkoa ez zenak amore eman zezan. Predikatu zuen gurutzadak porrot egin zuenean, hau atera zitzaion: «Bedeinkatuak, Jauna, zure auzi-mahai guztiak». Asko zaindu zuen adiskidetasuna: «Maita dezagun elkar, maitatuak gara; geure onerako da, baita besteen onerako ere».

Urteko 20. astea.

San Pio X.a, 257. aita santua.

San Bonoso eta San Masimiano, *martiriak*.

[Ezekielen Profezia liburutik 37, 1-14: Hezur iharrok, entzun Jaunen hitza. Israel etxe, ateraraziko zaituztet hilobitik. Sal 107 [106]: Eskerrak Jaunari, haren maitasuna betikoa baita.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 34-40.

Aldi hartan, Jesusek saduzearrak hitzik gabe utzi zituela jakitean, elkarrekin bildu ziren fariseuak, eta haien arteko lege-gizon batek azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zein da legeko agindurik nagusia?»

Jesusek erantzun: «Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz». Hau da agindurik nagusia eta lehena. Eta bigarrena horren parekoa da: «Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala». Bi agindu hauetan oinarritzen dira Liburu Santu guztiak».

**J**esusen erantzunaren jatorrizkotasuna, honetan datza: 1) Zentraltasunean. Jesusek dio, bi agindu hauek laburtzen eta sostengatzen dituztela Lege guztia eta profetak. Maitasun-agindu bikoitz honek ematen dio zentzua beste edozein arauri –maitasunerako baliabide eta bide diren heinean izango dira baliozko-. 2) Parekotasunean. Bi agindu hauek parekatu egin ditu Jesusek; hartaraino parekatu ere, bat bakar bihurtu baititu. «Bigarrena» –esan du– lehenaren «antzekoa» da: lagun hurkoa maitatzea Jainkoa maitatzea da. Jesusek badaki, Jainkoa maite duena, hark bera maite duela sentitzen duelako, gai dela gainerako jendea maitatzeko eta bere burua maitatzeko (egoismo-era guztiak alde batera utziz).

Urteko 20. astea.

Andre Maria Birjina Erregina.

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*.

[Andre Mariaren MEZA: Isaias 9,2-4.6-7. Sal 113 [112],1-2.3-4.5-6.7-8. Jesu Kristoren Ebanjelioa Lukasen liburutik 1,26-38.]

[Ezekielen Profesia liburutik 43, 1-7a: Jaunaren aintza tenpluan sartu zen. Sal 85 [84]: Gure lurraldean kokatuko da Jaunaren aintza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 1-12.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzairen jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez. Zama astunak eta eraman ezinezkoak lotzen dituzte, eta besteei leporatzen; baina berek atzamar batez ere ez dituzte mugitzen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo deigarriak mantu barrenean. Afarietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta denek “maisua” deitzea.

Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” deitzen, bakarria baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurrian inori “aita”, bakarria baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi inori “gidari” deitzen ere, bakarria baita zuen gidaria, Kristo.

Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

**J**esu jendeari eta ikasleei mintzo zaie. Mateoren testuak, kristauak Sinagogatik kanporatuak izan ziren aldia islatzen du; argiro polemikoa da tonuera. Elkartean, batetik, izan behar ez dena adierazten du (tolerantziarik eza, harrokeria, oilarkeria, irakaspenaren eta bizitzaren arteko koherentziarik eza...) eta, bestetik, kristau-elkartean

Urteko 20. astea.

Andre Maria Birjina Erregina.

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*.

ezaugarri izan behar dena («zuek, aldiz,... anai-arreba zarete; bat bakarra duzue zeuen Aita eta bat bakarra zeuen gidaria, bata bestearen zerbitzari zarete»). Testu bizi-bizia da, kontzientzia sakon aztertzeraz eragiten digu, haztatzeko, ea, batetik, ba ote den gure elkartean behin eta berriz errepikatzen den gaitzespen mingarririk eta, bestetik, borroka egitera eragiten digu etsenplutzat proposatu diguna lortze aldera.

\*\*\*

### Ama Maria (zatitxoa)

Agur, Maria,  
gure sufrimendu guztien Ama.  
Zu zara gizaki gurutziltzatuaren oinean  
zutik dagoen andrea,  
zu zara errugabe zapalduaz  
eta preso torturatuaz  
negar dagiten guztien ama.

Agur, Maria,  
gure itxaropen guztien Ama.  
Zu zara izar distiratsua  
Jainkoagana doan  
herriarentzat,  
zu zara iragarpena  
gizadi antzaldatuarentzat,  
zu zara arrakasta  
Jainkoak betirako  
egin duen kreazioarentzat.

(*M. Hubaut*)

Urteko 21. astea.

Santa Arrosa Lima-koa, *birjina*.

San Joan Leskar-ekoa, *gotzaina* (*Baionako elizbarrutian*).

San Zakeo Jerusalemekoa, *gotzaina*.

### § Isaias Profetaren liburutik 22, 19-23.

Hau diotso Jaun ahalguztidunak Xebnari, errege-jauregiko arduradunari:

«Bota egingo zaitut kargutik eta zauden lekutik kenduko. Egun hartan neure zerbitzari Eliakimi, Hilkiaseen semeari, dei egingo diot; zure soingainekoa jantzarazi, zure gerrikoa ezarri eta zure aginpidea emango diot. Aita baten pareko izango da Jerusalemgo bizilagunen-tzat eta Judako herriarentzat.

Daviden jauregiko giltzak jarriko dizkiot lepoan; hark irekia ez du inork itxiko; hark itxia ez du inork irekiko. Iltzea egur gogorrean bezain sendo ezarriko dut Eliakim, eta bere senitartearen harrogarri izango da».

[Sal 138 [137]: Jauna, zure maitasuna betikoa da, ez utzi bertan behera zeure eskuen lana!]

### § San Paulok Erromatarrei 11, 33-36.

Bai handia eta sakona Jainkoaren eskuzabaltasuna, jakinduria eta ezaguera! Bai aztergaitzak haren erabakiak eta bai sumaezinak haren bideak! Nork ezagutu du Jaunaren pentsamendua? Nor izan da haren aholkulari? Nork eman dio hari lehenengo, gero hark itzuli behar izateko? Harengandik dira gauza guztiak, haren bidez eta harentzat. Aintza berari betieran! Amen.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 13-20.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei:

«Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Orduan, bera Mesias zela inori ez esateko agindu zien Jesusek ikasleei.

**B**eraren bila dabilzan lehen bi ikasleengana itzulirik, esan die: «Etorri eta ikusiko duzue». Eta ez alderantziz: «ikus», lehenik eta, egiten dudana on iruditzen bazaizue, «etorri». Jarraitzean –«etorri eta partekatu nire bizitza»– ezagutuko dute Jesus: «ikusiko duzue».

Eta zuek, nor naizela diozue? Galdera honi zuzen –ez adimenez bakarrik, baizik bizi-jarreraz– erantzun ahal izateko, Jesus Jaunari jarraitu behar zaio: haren irakaspena bete, harekiko maitasunean sakondu. Loiolako Ignaziok gogo-jardunen egileari erregutu dezala eskatzen dio: «nigatik gizon egin den Jaunaren barne ezagutza (hondokoa), bera are gehiago maitatzeko eta are gehiago zerbitzatzeko». «Erregu zirkularra» da: zenbat eta gehiago ezagutu, hainbat eta gehiago maitatuko dut, eta zenbait eta gehiago maitatu eta jarraitu Jesusi, hainbat eta sakonkiago ezagutu dut.

Jesusekiko segimenean hartu du Pedrok ere Jesus Mesiaztat airtortzeko grazia –Aitaren errebelazioa–. Horren ondoren, eginkizun bat gomendatu dio Jesusek: «arroka» izatea eta eliz elkartearen administratzaile, aginpide zabalez (giltzak; lotu eta askatu). Guri ere, jarraitzearen jarraituz gero eta sakonkiago ezagutuko dugularik –eta haur baten, txiki baten bihotzez eskatu behar zaio hori Aitari–, esango digu zein izan nahi duen berak guretzat geure egunez egunekoan.

Urteko 21. astea.

SAN BARTOLOME, APOSTOLUA.

§ Apokalipsi liburutik 21,9b-14.

Aingeru batek esan zidan: «Zatoz, emaztegaia erakutsi behar dizut, Bildotsaren emaztea». Hartu ninduen aingeruak eta mendi handi eta garai batera eraman ninduen espirituz; Jerusalem hiri santua erakutsi zidan, zerutik Jainkoagandik jaisten, Jainkoaren aintzaz dirdaitsu. Haren distira harribitxi eder baten antzekoa zen, jaspe harria bezain gardena.

Harresi sendo eta garaia zuen, hamabi atekoa, eta ate gainetan hamabi aingeru eta hamabi izen idatziak, israeldarren hamabi leinuen izenak. Hiru ate ekialdera zeuden, hiru iparraldera, hiru hegoaldera eta hiru mendebaldera. Hiriko harresiak hamabi oinarri zituen, eta hauek idatziak Bildotsaren hamabi apostoluen izenak.

[Sal 145 [144]: Zure fededunek ager dezatela, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,45-51.

Aldi hartan, Felipek Natanael aurkitu zuen, eta esan zion: «Moisek legearen liburuan eta profetek beren idazkietan aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joserren semea, Nazaretetia». Natanaelek esan zion: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?» Felipek erantzun: «Zatoz eta ikus».

Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan».

Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».



Urteko 21. astea.

SAN BARTOLOME, APOSTOLUA.

**I**sraeldar jator horri, Natanaeli, Jesusek egin dion deian islaturik ageri zaizkigu norberaren bokazioaren ezaugarri batzuk. Ikasleen bokazioa Jesusen begiratuaz hasi izan da beti. Geuk ere nabari ohi dugu begiratu hori: «Ikusi zintudan». Zer ikusi zuen gudan pikondopean zabarturik geunden hartan? Berarena izan zen lehen ekintza. Ez genuen irabazi geuk geure bokazioa; Jesusen begien begiratuari josia da: berak nahi izan zuelako. Ikasleek bezala, geuk ere «aurkitu dugu bera». Bilatzen genuen harribitxia zen. Topo egite horretatik dator gure konpromisoa. Eta Jesusek Natanaeli egin dion promesa, «ikusiko duzu gauza handiagorik» delako hura, gauzatuz doa gure segimenean. San Paulorekin aitortzen dugu, atzemanezineko aberastasuna dela Kristo.

\*\*\*

### Apostolutasuna (2)

«Jesusek eraturako eliz erakundearen funtsezko osagaiak: haren hitza, sakramentuak, hamabien ministerioa eta, are era erradikalagoan, hamabi hauen ezarpena (Mk 3,14), Jainkoaren herri berriaren kimua, Jakob-Israelen hamabi semeak antzinako herri haren kimu izan ziren bezala. Eta hasiera hartan egon ziren bezala, hala egongo dira hama-biak azkenean ere, hain justu juzkatzeko Israel Berriko tribuak fidel etsu ote zieten erakundetze-arauei. Beharrezkoa da, esan ohi zuen Newmanek, «bera itzuli arte zain bizitzea». Apostolutasunaren alde eskatologiko honek bere lekua du azken auzian. Bibliak beronetaz hitz egiteko, ardien eta ahuntzen bereizketa (Mt 25,32) aipatzen du, edota urre- eta harri-oinarri gainean eraikiko denaren eta suan erreko den egur eta lasto gainean eraikiko denaren bereizketa (1 Ko 3,12 hur.); apostoluek juzkatuko dute azkenera, omegara, alfabetoko azken letrara iritsiko dena, historian egina izango dena, hasiera hartakoarekin bat ote datorren, zeinen lekuko berak izan baitziren, berak baitira eta berak izango baitira azkenean». (*Yves M.-J. Congar, El Espiritu Santo, Herder, 1991, 245. or.*)

Urteko 21. astea.

San Luis Frantziakoa, *erregea*.

San Jose Calasanz, *apaiza, fundatzailea (eskolapioak)*.

[San Paulok 2 Tesalonikarrei 2, 1-3a. 14-17: Eutsi tinko hartu dituzuen irakatsiei. Sal 96 [95]: Badator Jauna lurra epaitzera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 23-26.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Barazkirik kaxkarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue; legeko gauzarik garrantzizkoenak, berriz, zuzenbidea, errukia eta leialtasuna, bazterrera uzten. Hauek bete behar zenituzten, haiek baztertu gabe. Gidari itsuok! Eltxoa iragazten duzue, eta game-lua irensten!

Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Edalontzia eta platera kanpotik garbitzen dituzue, barrutik lapurretaz eta gutiziaz beterik dauden bitartean. Fariseu itsu hori! Garbitu ezazu lehenik edalontzia barrutik, kanpotik ere garbi geldi dadin».

**O**raingoan, fariseuei eta lege-maisuei egin behar izan die aurre Jesusek, agintari erlijiosoi. Salaketa gogorra da («Aiene»z hasten diren zazpi akusazio; hipokrita deitzen die sei aldiz, eta «gidari itsu» bost aldiz). Pasarte hau irakurtzeak, zinezko azterketa egitera behartu beharko litzuzke gaur Elizako agintariak; eta dei errepikakorra da gaur oraino indarrean dauden jarduera batzuk zuzentzeko. Geuri ere eragiten digute, ordea, salaketa horiek, hartarainoko aginpiderik ez badugu ere, geure portaeran zeresanik baldin badute: adibidez, jarrera izan ohi dugu gauzak besteei arbitrarioki ezartzeko, jarrera izan ohi dugu ez bereizteko garrantzizkoa dena eta ez dena (eltxoak iragazi eta game-luak irentsi), jarrera izan ohi dugu esatearen edo itxurak egitearen eta bizi dugunaren edo garenaren arteko inkoherentzia hipokrita izateko...

# 26

## Asteazkena / Eguaztena ABUZZUA / DAGONILA

Urteko 21. astea.

Santa Teresa Jesusena Jornet eta Ibars, *birjina* (*Adin handikoen Zaindaria*). Santa Joana Elisabet Bichier des Âges, *birjina, fundatzailea* (*Gurutzearen Alabak*).

[San Paulok 2 Tesalonikarrei 3, 6-10. 16-18: Lanik egin nahi ez duenak ez dezala jan. Sal 128 [127]: Zorionekoa Jaunari begirune diona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 27-32.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Hilobi zurituen antzeko zarete: kanpotik itxura ederrekoak, baina barrutik hil-hezurrez eta ustelkeriaz beteak! Zuek ere honelakoak zarete: kanpotik zintzoak jendearen aurrean, baina barrutik itxurakeriaz eta gaiztakeriaz beteak.

Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Profeten hilobiak eraikitzen eta gizon zintzoen hilarriak apaintzen dituzue, esanez: “Gure arbasoen egunetan bizi izan bagina, ez genukeen parterik hartuko haiekin profeten hilketan”. Horrela, zuek airtortzen duzue profetak hil zituztenen ondorengoak zaretela. Bete, bada, zuek ere zueen gurasoen egintza gaiztoen neurria!»

«**P**rofetak erail zituztenen seme zarete». Hau da, haiek bezalako zarete. Profetak gogaikarri izaten dira, mina eragiten duen egiazko kritika egiten baitute eta «utopia bultzatzailea» (bideari ekinarazten duena) seinalatzen duten «eguneko ametsak» egiten baituzte. «Bere profetak opari egiten dituen gizarteak lortzen du, bai, bere bakea, baina galdu egiten du bere geroa» (Toni de Mello). Arrazoi handiagoz esan daiteke hori Elizaz. Kitzikagarri izango diren profeten beharra dugu. Jakina, ez ausarkeriaz mugitzen direnak, baina bai ausartak. Eta kristau orok izan beharko luke hats profetikorik. Bataioaren bidez, «apaiz, errege/erregina eta profeta» gara. Pentsa dezagun, halere, ez arriskatzegatik, zer esanagatik, zenbat aldiz itotzen dugun hats hori eta, oker deitzen dugun geure «zuhurtasunagatik», zenbat amets esperantzagarri eta zuzengabekeria salagarri gordetzen ditugun geure kolkoan.

Urteko 21. astea.

Santa Monika, *aitorlea*.

San Lizerio, *gotzaina*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 1, 1-9: Kristogan aberastu zaituzte gauza guztietan. Sal 145 [144]: Ene Jainko, ene errege, bedeinkatuko dut zure izena betiere.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 24, 42-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete erne, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Hartu hau gogoan: etxeko nagusiak baleki gaueko zein ordutan etorriko den lapurra, erne egongo litzateke eta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Egon, bada, prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko zaizue-eta Gizonaren Semea.

Izan zaitezte morroi leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak etxeko morroiei bere orduan janaria banatzeko eginkizuna eman dion morroia bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindu egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina beste morroi gaizto hura, nagusiak luzatu egingo duelakoan, bere morroi-lagunak jotzen eta mozkorrekin jan-edanean hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, eta gogor zigortuko du eta itxurazaleek merezi dutena emango dio. Han izango da negarra eta hortz-karraska!»

**G**ure gizarte zaratatsu honetan, etengabeko dei erakargarriz beatea den honetan, arrisku handia bizi dugu gure fedea epeltzeko edota lokartzeko. Horregatik, bizitzan bidera etengabe etorri ohi zaigun Jaunak, adi eta azti egotera dei egiten digu, gau eta egun, aktiboki zain-zain biziz, guztiz prest, gomendatzen dizkigun zereginak zerbitzari fidelak bezala betez: besteekiko arreta arduratsu betez, bere etxeko baititu haiek ere, bereziki beheragokoak badira. Horrela, etorriko denean, gauzatuko da «zerbitzatua den zerbitzariaren zoriontasun» hau: «Zorionekoa zerbitzariak, Jaunak, etorriko denean, azti aurkituko dituenak; egiaz diotsuet, aurreko mantala jantziko duela, mahaian eseraraziko dituela eta zerbitzatzen hasiko zaiela» (Lukas 12,37-39).

Urteko 21. astea.

San Agustin, *gotzaina eta eliz irakaslea*.  
Santa Florentina Cartagenakoa, *abadesa*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 1, 17-25: Guk Jesu Kristo gurutziltzatua predikatzen dugu, gizakientzat onartezina dena, baina deituentzat Jainkoaren jakinduria da. Sal 33 [32]: Jaunaren graziaz beterik dago lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatzekin bezala gertatzen da. Neskatzetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zuenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen.

Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkio-te bidera!” Jaiki ziren neskatzak guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”.

Baina, erostera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten. Iritsi ziren, azkenik, beste neskatzak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”.

Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

**N**eskatzak zentzudunek ordezko olioia hartu dute; zentzugabeek ez. Guztiak lokartu dira, senargaia atzeratu delako; bitartean, kriseiluak olioia erretzen ari dira. Senargaia iristean, batzuek erraz erantzun ahal izan diote; besteek ez. Parabolak konkluditzen du: «Beraz, egon erne, ez dakizue-eta, ez eguna, ez ordua». Baina neskatzetako inor ez da erne

Urteko 21. astea.

San Agustin, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

Santa Florentina Cartagenakoa, *abadesa*.

egon! Horrek esan nahi du, erne egotea, kasu honetan, ordezko olioaz zentzuz hartzearen pareko izan dela. Zer esan nahi du honek eguneroko bizitzarako? Aldez aurretik prestatu behar dela: Jesusekin, senargaiarekin, topo egiteko ordua prestatzea ez da bat-bateko gauza. Etengabeko solasa mantendu behar da berarekin, egunero, behin betiko etorriko denean, eztei-otorduaz gozatu ahal izateko.

\*\*\*

### Ez da zaharra

Ez da zaharra, buruko ilea galdu duena,  
baizik azken esperantzari uko egin diona.

Ez da zaharra,  
bihotzean maitasuna beti sutan duena.

Ez da zaharra,  
bere buruaz federik duena,  
poz sanoz bizi dena,  
konbentziturik  
bihotzarentzat ez dagoela adinik.

[San Paulok 1 Korintoarrei 1, 26-31: Munduak baliogabetzat duena aukeratu du Jainkoak. Sal 33 [32]: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,17-29.

Aldi hartan, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaia emaztea edukitzea».

Horregatik, gorroto zuen Herodiasek Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuzen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion.

Etorri zitzaion, ordea, Herodias aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudalburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzan egin zuen, eta atsegin izan zitzaion Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatxari: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin egin ez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskatxa eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?» Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua».

Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion, eta azpilean ekarri zuen burua; neskatxari eman zion, eta neskatxak amari.

Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

\* San Adelfo, *martiria*. Santa Sabina, *martiria*.

**J**oanen heriotza, Herodesek eragina, mingarria izan zen Jesusentzat, aitzinirudi izateaz gain. Horregatik, geroago aurre egin zion Jesusen Herodesi, aurpegiratu egin zion, «azeri» edo «ezdeus» deituz; azaldu zion, ez ziola beldurrik eta ez zuela isilaraziko. Eta Nekaldikoan, josteta politikoz, Pilatok Herodesengana bidali zuenean, Jesusen ez zion erantzun hitzik ere. Herodesek aztikeria dibertigarri bat espero zuen, baina Jesusen isiltasun hutsa eskaini zion. Izaten dira hitz bizi gertatu ohi diren isiltasunak ere. Gerta dakiguke, geure bizitzako uneren batean, zuzengabekeriaren, gauza mespretxagarri baten aurrean, aukera bakarra isiltasuna izatea; baina isiltasun adoretua; arriskutsua izateari utziko ez diona, Joanentzat egin zuen salaketa izan zen bezala.

\*\*\*

### San Joan Bataiatzailearen martiritza

Herodes Antipasek, Jesusen txikitako Herodes Handiaren semeak, Joan Bataiatzailea hiltzeko agindu zuen. Hilketa hori Jesusenaren aurre-irudi eta iragarpen da; Jesusi egingo diotena iragarri du, eta Jesusen ikasleei egingo dietena. Hain zuzen, eginkizun arriskutsua leporatu die zeruko Aitak Jesusi, eta Jesusen ikasleei. Boteretsuen asmoak eta desioak salatzen eginkizuna. Behartsuen alde ageri da Jesus, behartsuen alde ariko dira ikasleak. Beren boterea, beren diru-irabaziak arriskuan eta koloka ikusiko dituzte agintariak. Beraz, «garbitu dezagun, ditzaugun», esango dute. Hala egin dute Joan Bataiatzailearen kasuan, hala Jesusen eta ikasleen kasuan, hala historia guztian. Azken hitza, ordea, beste bat izango da; ez da izango ez boteretsuena, ez heriotzarena. Rafael anaiak dohatsuaren hilobian, Venta de Bañosko Trapan, idazkun hau irakur daiteke: «Gure jakinduria osoa espero izaten jakitean datza» (*«Egunean Eguneko Ebanjelioa, Deustuko Unibertsitatea, 2006»*).

\* San Adelfo, *martiria*. Santa Sabina, *martiria*.



Urteko 22. astea.

Esteban Zudairikoa (Ameskoan jaioa) *apaiza*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*.

## § Jeremias Profetaren liburutik 20, 7-9.

Liluratu egin nauzu, Jauna, eta ni zure lilurapean erori; bortxatu egin nauzu eta menderatu. Barregarri gertatu naiz egun osoan; bur-laka ari zaizkit denak. Hitz egiten dudan bakoitzean, garrasi egiteko da; indarkeria eta zapalkuntza salatuz hots egin beharra dut; Jaunaren hitza irain- eta iseka-bide da niretzat egun guztian. Hau nioen neure baitarako: «Gogoratu ere ez dut egingo; ez dut gehiago haren izenean hitz egingo». Baina, orduan, sua bezalako zerbait sentitzen nuen barruan; hezurretaraino erretzen ninduen; saiatzen nintzen hura itotzen, baina ezin!

[Sal 63 [62]: Zure egarriz daukat gogoa, Jauna, ene Jainkoa.]

## § San Paulok Erromatarrei 12, 1-2.

Senideok: Jainkoaren errukiagatik eskatzen dizuet eskain deza-zuela zeuen burua opari bizi, santu eta Jainkoarentzat atsegingarri; hori da egiazko zuen gurtza. Ez egokitu mundu honen iritzietara, baizik eta eraberrri zaitezte zeuen pentsaera aldatuz; horrela bereizi ahal izango duzue zer den Jainkoak nahi duena, zer den ona, atsegingarri zaiona eta bikaina.

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 21-27.

Aldi hartan, Jesus bere ikasleei azaltzen hasi zitzaien beharrezko zela bera Jerusalemara igotzea, eta han asko sufritu beharra zuela apaiz-buruen eta lege-maisuen aldetik; hil egingo zutela eta hiru egunen buruan piztuko zela. Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion: «Inola ere ez, Jauna! Ez zaizu horrelakorik gertatuko!»

Baina Jesusek, itzulirik, esan zion Pedrori: «Alde nire ondotik, Satan! Oztopo zara niretzat, zure asmoak ez baitira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

Urteko 22. astea.

Esteban Zudairikoa (Ameskoan jaioa) *apaiza*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*.

Jesusek esan zien, gainera, ikasleei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzeta eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu? Eta zer eman dezake gizakiak bizia berriro eskuratzeko? Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruekin eta orduan bakoitzari bere jokabidearen arabera ordainduko dio».

**A**sko kostatu zitzaizen Pedrori eta gainerako ikasleei ulertzea Jesusek sufritu egin behar zuela: eskandalagarri gertatu zitzaizen. Baina Jesusek garbi adierazi zien, beraren mesianismoa ez zela politikoa eta garailea, baizik eta Yahveren Zerbitzariarena. Geuk ere lanak izaten ditugu gurutzeta onartu eta Zerbitzariaren bidetari jarraitzeko. Alabaina, Jesusi zinez segitu nahi badiogu, onartu beharko ditugu Jesusen baloreak defendatzeak berekin dituen gatatzak; leku zabala egin beharko diegu geure bizitzan desatxikimenduari, buru-eskaintzari, solidaritate bilakatzen den zilbor-hestetari begira ez egotetari, batez ere gurutzeta lepoan dutenen alde... Ezin ahaztuko dugu sekula gurutzeratu baten ikasle gabela. Jakina, kontua ez da gurutzeta gurutzeagatik maitatzea. Jesusek argi esan digu: gurutzeta lepoan «nigatik» hartzea da arazoa, eta «bizitza nigatik galtzea». Jesusek liluraturik bizitza da kontua.

Munduaren baloreen arabera bizi denarentzat, «bizitza galtzea» da buru-eskaintza eta edozein ukapen. Baina guk «ez diogu munduari egokitu nahi» geure bizitza. Ekar dezagun gogora Antonio Machadoren saeta: «Ezin abestu dut, nahi ere ez / zur gaineko Jesus hori, / baizik itsasoan ibili zena». Itsasoan ibili zen Jesusi bakarrik jarraitu nahi al diogu?

Urteko 22. astea.

San Ramon Nonnato, *apaiza, kardinala*.San Jose Arimateakoa eta Nikodemo, *Jesusen ikasleak*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 2, 1-5: Jesu Kristo gurutziltzatua hots egin nizuen. Sal 119 [118]: Bai maite dudala, Jauna, zure legea!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 16-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera, bera hazitako herrira, joan zen, eta larunbatean, ohi zuenez, sinagogan sartu eta zutik jarri zen irakurgai egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen:

«Jaunaren Espiritua nire gainean dago, hark gantzutu bainau, behartsuei Berri Ona emateko. Gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau, zapalduen askatasuna ematera, Jaunaren onginahi-urtea hots egitera».

Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri egin zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan. Jesus honela hasi zitzaien: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Denek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren onginahiaz esaten zituenengatik. Baina hau zioten: «Ez al da, ba, hau Joserren semea?»

Orduan, Jesusen esan zien: «Harako esaera hura gogoraziko didazue, noski: “Sendagile, sendatu zeure burua”, eta esango: “Egitzazu hemen ere, zeure herrian, Kafarnaumen egin omen dituzun gauzak”».

Eta erantsi zuen: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik».

Hitz hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen

Urteko 22. astea.

San Ramon Nonnato, *apaiza, kardinala*.

San Jose Arimateakoa eta Nikodemo, *Jesusen ikasleak*.

---

mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

**S**intesi-pasadizo bat da gaurko ebanjelio hau; geroago gertatuko den guztia aitzinirudikatu du Lukasek: alde batetik, Jesusen misioaren egitaraua aurkeztu du eta, aldi berean, egitarau horrek eragingo dituen erreakzio kontraerriak aurrean ditu. Herritarren ukoa Jesusen eginkizunak, beronen ikasleen artean ere, eragingo duen aurkaritzaren aitzinatze sinbolikoa da. Jesus hil nahi horrek gurutzeko beraren gero-ko heriotza iragartzen du. Baina Jesus, bere jaun-ahalmenez, «beraien artetik» aurrera joan zen eta «bere bideari jarraitu zion». Horrela, Jesusen piztuera aitzinirudikatu du Lukasek: heriotzatik aske gelditu dela eta ebanjelizazioak, judu-herriaren mugez gaindi, aurrera egingo duela iragarri digu. Horrela, gizaki oren bihotzeko bidelagun izango da Jesus.






## **IRAILA**

**AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:**  
Planetako baliabideen errespetua.

**Egin dezagun otoitz:** Planetako baliabideak arpila ez ditzagun, baik eta zuzen eta begirunez parteka ditzagun.



Urteko 22. astea.

San Josue, *patriarka*.

San Gil (Egidio), *ermitaua*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 2, 10b-16: Giza maila hutsez, gizakiak ez du onartzen Jainkoaren Espirituari dagokiona; Espiritua duenak dena juzkatzen du. Sal 145 [144]: Zintzoa da Jauna bere bide guztietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 31-37.

Aldi hartan, Jesus Galileako Kafarnaum hirira jaitsi zen, eta larunbatetan jendeari irakasten zion. Txunditurik zegoen jendea haren irakaspenaz, nagusitasunez hitz egiten baitzuen.

Bazen sinagogan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihu bizian hau zioen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzeraz al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua».

Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!» Deabruak jendeari lurrera bota zuen gizona, baina batere kalterik egin gabe atera zen harengandik.

Ikaraturik gelditu ziren denak, elkarri galdezka: «Zer da hau? Nagusitasunez eta indarrez agintzen die espiritu gaiztoei, eta hauek atera egiten dira». Jesusen entzutea herrialde hartako bazter guztietara zabaldu zen.

**J**esus, Nazaretoko sinagogan iragarritako egitaraua garatzen hasi da. Harriturik zegoen jendea esaten eta egiten zuenaz. Ahalmenez eta aginpidez agertzen zen Jesus. Boterea ezarri egin ohi da; aginpideak konbentzitu egiten du. Jesusi ahalmena Espirituak gantzutua izatetik zetorkion (Lk 4,14-18), eta espiritu likitsari aurre eginez azaldu zuen («Isildu zaitetz eta irten!»). Aginpideak, berriz, fama batean zuen jatorria, bizitza koherente batetik jaiotakoan: bere barnean zuen zinezkotasuna islatzen zuen Jesusek; horregatik zuen jendeak hura gogoko, horregatik zen konbentzigarri eta jokabidea aldarazteko gai. Hurbil gaitetzen, harriduraz, Jesusengana, «geure deabruetatik» libera gaitzan eta irakats diezagun jendeari aurrean aginpide konbentzigarri bat azaltzen, bizitza koherentetik jaioa.



Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733 – Paris 1792, Iraultzakoan), *dohatsua, apaiza*, eta lagunak, *martiriak (Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan)*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 3, 1-9: Gu Jainkoaren lankideak gara; zuek, berriz, Jainkoak lantzen duen soroa, Jainkoak eraikitzen duen etxea. Sal 33 [32]: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 38-44.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen etxean sartu zen. Simonen amaginarreba sukar handiaz zegoen, eta haren alde zerbaite egiteko eskatu zioten.

Orduan, harengana makurturik, zorrotz agindu zion sukarrari, eta sukarrak alde egin zion. Berehala jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzairen amaginarreba.

Eguzkia sartu zenean, gaixoak zituzten guztiek, edozein zela ere haien gaitza, Jesusi eramaten zizkioten, eta hark, bakoitzari eskuak ezarriz, sendatu egiten zituen.

Askorengandik deabruak ere ateratzen ziren, deiadarka esanez: «Zu Jainkoaren Semea zara!» Jesusek zorrotz galarazten zien hitz egitea, bazekiten-eta Mesias zela.

Eguna argitu orduko, atera eta bazter bakarti batera joan zen. Jendea haren bila zebilen eta, aurkiturik, eutsi egin nahi zioten, alde egin ez ziezaien. Baina Jesusek esan zien: «Gainerako herrietan ere adierazi beharra dut Jainkoaren erreinuaren Berri Ona, horretara bidali bainau Jainkoak». Eta Judeako sinagogetan ibili zen Berri Ona hots egiten.

**H**iru ebanjelio sinoptikoek jaso dute pasarte hau; Jesusen egun tipiko bat deskribatzen du: Jesusek egiten eta esaten zuenaren labur-

\* Santiago Bonnaud, *apaiza*, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nicolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*.

Urteko 22. astea.

Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733 – Paris 1792, Iraultzakoan), *dohatsua, apaiza*, eta lagunak, *martiriak (Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan)*.

---

pen-edo da. Egun horretan irakatsi, sendatu eta otoitz egiten du. Pedroren amaginarreba sendatu izana nabarmendu du Lukasek; labur kontatua bada ere, Jesusek bere sendatzeekin egin nahi zuenaren eredu bezala ageri da: zorrotz agindu zion sukarrari (konjuria bailitzan), eta emakumea, sendaturik, zerbitzatzen hasi zitzaien. Jesusek askatu egiten du jendea, zutik ipintzen du... gainerakoei zerbitzatzeko. Zerbitzu horrek Galileako beste emakume batzuek, Jesusek bere ministerioan bidelagun izango dituenean, egingo dutena aurreratu du. Emakumeen zerbitzu hori, Jesusen gogokoa, ez luke ahaztu behar Elizak sekula; askoz gutxiago gaur egungoak.

\*\*\*

### Martiritza

«Antzinako Elizan, kristau-bizitzaren gailurtzat ematen zuten martiritza. Adibidez, ereilearen parabolaz hitz egitean, San Ziprianok (+258) dio ezen martiriak direla ehuneko ehun ematen dutenak. Hona arrazoia: martiritza Kristorenaren antzeko heriotza da. Lehen hiru mendeetako kristautentzat, Kristoren zinezko imitazioa da martiritza (*Gabino Uribarri, Selec Teol 143/1997, 166. or.*).

\* Santiago Bonnaud, *apaiza*, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nicolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*.

Urteko 22. astea.

San Gregorio Handia, *64. aita santua eta eliz irakaslea.*

[San Paulok 1 Korintoarrei 3, 18-23: Guztia zuena da. Zuek, ordea, Kristorenak zarete, eta Kristo Jainkoarena. Sal 24 [23]: Jaunarena da lurra, eta lurra betetzen duena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 1-11.

Aldi hartan, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren hitza entzuteko; Genesaret aintzira-ertzean zegoen Jesus. Bi txalupa ikusi zituen ur-bazterrean geldi; arrantzaleak, ontzietatik jaitsita, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen txalupa haietako batera, Simonenera, eta lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion. Gero, eseri eta txalupatik jendeari irakasten jardun zuen.

Hitzaldia bukatzean, esan zion Simoni: «Jo itsaso zabalera eta bota sareak arrantzurako». Simonek erantzun zion: «Maisu, gau osoan eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; hala ere, Zuk diozunez gero, botako ditut sareak». Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak lehertzeko zorian baitzeuden. Beste txalupako lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; etorri ziren, eta bi txalupak bete zituzten, ia-ia hondoratzeraino.

Gertatua ikusirik, Jesusen oinetan ahuspeztu zen Simon Pedro, esanez: «Alde nigandik, Jauna, bekataria naiz eta». Izan ere, zur eta lur zeuden Simon eta harekin ziren guztiak, eginiko arrantzuagatik, eta gauza bera gertatzen zitzairen Simonen arrantzu-lagun ziren Zebedeoren seme Santiagori eta Joani ere. Baina Jesusek esan zion Simoni: «Ez beldur izan, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara». Haiek txalupak lehorreara atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten.

**B**ekatari agertu denean (Aldendu zaitetz nigandik!) dei egin dio Jesusek Pedrori, fidatu egin baita beronetaz, nabari dion ahuldadea eta guzti. Gutaz ere, bekatarioz, fidatu da, eta aintzirara, lakura, bidali gaitu, «itxuraz hutsik dagoenera», olatu zakarrek ere astindua denera. Eta

Urteko 22. astea.

San Gregorio Handia, 64. aita santua eta eliz irakaslea.

esan digu –Pedrori bezala– «egin arraunean itsasoan barna!», animatu zaitez zeure adorerik eza eta zeure txoko eroso baina harago joatera. «Giza arrantzale» izatera dei egin digu: gizon-emakumeak bildu eta elkartzera, denak «heriotzatik» eta zentzugabetasunetik atera eta bizirako bidean ipintzera, Erreinuaren munduan txertatuz, Jesusen jarraitzaile. Eginkizuna beldurgarri gerta dakiguke; baina beraren hitzean fidatuz heldu diogu lanari, bere hitzaz arnastuko baikaitu hurbileko ertzetik edota geure ontzitik beretik.

\*\*\*

### Konfiantzaren Zoriontasunak

Zorionekoak seguru sentitzen direnak, eta lasai, beren familiako, beren elkarteko, beren Jainko onaren maitasun beroan.

Zorionekoak konfiantza beren adiskidetasunaren bidezidor sendoen bihurtzen dutenak.

Zorionekoak beren familia elkarrizketaz, egiazkotasunez eta pozez sendotzen dutenak, bizikidetasun bare eta konfiantzazkoan.

Zorionekoak besteez fidatzen direnak, besteengan konfiantza dutenak, beti konfiantza berri tuaz, uste handiagoa izaten baitute gizadiaren onberatasunean, egoismoan baino.

Zorionekoak uste dutenak ezen beren burua besteengan jartzea eta konfiantza segura direla gizakiaren ezaugarririk berezkoenak.

Zorionekoak bere burua beren Ama Jainkoagan jartzen dutenak, haur bat bere aitaren altzoan lasai eta zorioneko lokartzen den bezala.

Zorionekoak beren adiskidetasunaren bidexka konfiantzaren asfalto leun, segur eta iraunkorrez estaltzen dutenak.

Zorionekoak ziurtasunari konbentzitzen uzten diotenak ezen beren elkarteko kideak dituztela besarkatzen dituen eta beren burua anai-arreba arteko eskuetan uztera gonbidatzen dituen Jainkoaren beso (*Miguel Ángel Mesa*).

Urteko 22. astea.  
San Moises, *profeta*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 4, 1-5: Jaunak agertuko ditu bihotzeko asmoak. Sal 37 [36]: Jaunagandik dator zintzoen salbamena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 33-39.

Aldi hartan, fariseuek eta lege-maisuek esan zioten Jesusi: «Joanen ikasleek sarri egiten dute barau eta otoitz, baita fariseuen ikasleek ere; zureak, ordea, jan eta edan ari dira».

Jesusek erantzun zien: «Nola nahi duzue ezteietara deituek barau egitea, senar berria berekin dutelarik? Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, egun hartan, egingo dute barau».

Parabola hau ere esan zien: «Inork ez du jantzi berririk urratzen, zaharrari adabakia ipintzeko; bestela, jantzi berria hondatu egingo litzateke, eta zaharrari ez litzaioke berriaren adabakia egoki etorriko. Ez du inork ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; ardo berriak zahagiak lehertu egingo lituzke; ardoa isuri egingo litzateke eta zahagiak galdu. Ardo berria zahagi berrietan sartu behar da. Ardo zaharrek in ohitua dagoenak ez du berririk nahi, “zaharra hobea duk” esaten baitu».

**J**esusek, «senargai» bera dela esatean, azpimarratu du, berarekin iritsi dela «ertortzekoa zena». Horregatik, barauaren ordeztan anai-arreba arteko otordua egin behar da: Mesiasak eratuko duen elkarte berria adierazten du horrek. Otordu horietan, irekiak eta jai-girokoak ziren horietan, Jesusek agertu nahi zuen, otorduak gauzatuz, posible zela ordeztoko beste giza elkarte-era bat. Jesusen otordu horietako gailurra Azken Afaria izan zen. Baina Jesusen heriotzak ez zituen eten otordua haiek, eta Berpiztua bertako egin zen bildurik zegoen elkartearen, harenkin janean. Eta gauza bera egiten jarraitzen du gurekin; Eukaristia ospatzen dugunean, bertan egon ohi da eta gurekin jaten du «senargai berpiztu» gisa.

Urteko 22. astea.

San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*.

Santa Teresa Kalkutakoa, *fundatzailea*  
(*Karitateko Misiolariak*).

[San Paulok 1 Korintoarrei 4, 6b-15: Goseak, egarriak eta biluzik ibili gara. Sal 145 [144]: Hurbil dago Jauna dei egiten diotenengandik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 1-5.

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Eta ikasleak galburuak moztu, eskuetan aletu eta jaten ari ziren. Fariseu batzuek esan zieten: «Nolatan ari zarete larunbatez zilegi ez dena egiten?»

Jesusek erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Davidek egin zuena, bera eta beraren lagunak goseak gertatu zirenean? Jainkoaren etxean sartu eta, Jaunari eskainiriko ogiak hartuz, jan egin zituen, eta bere lagunei ere eman zizkien, legez apaizek bakarrik jan zitzaketen ogiak izanik». Eta esan zien: «Gizonaren Semea larunbataren nagusi da».

**L**arunbateko atsedeen-arauaren jatorrizko asmoa Jainkoa aitortzea izan zen, esker onez, Kreatzaile eta Askatzaile aitortuz, herriari bizia eman ziolako eta aske egin zuelako. Baina fariseuek hertsapen edo uztarri bihurtu zuten larunbata, jaitzat aitortu ordez. Jesusentzat, larunbata ez zen ezer absolutu eta esklabogile. Izan ere, Legea eta, beraz, larunbata, gizakiaren onerako jarri du Jainkoak. Bere aginpidea aitortuz, esan die Jesusek: «Gizonaren Semea larunbataren jaun da». Eta, jaun denez, bere askatasunean partaide egin ditzake bere ikasleak, Legearen eta larunbataren aurrez aurre, David baino gorengoago eta larunbataren jaun dela esatearekin biziki haserretu ziren beraren arerio solaskideak.

Menora (7 besoko argimutila [hobe: berezkoa + sei beso], Irteera liburua 25.31; 37.17-26...)



Argazkian menora bat (argimutila) zizelkatua harri batean. Galileako Magdala herriko sinagoga batean aurkitua. Segur aski, Maria Magdalakoak eta Jesusek ezagutua.

Menora, gaur egun, juduen sinbolorik handienetakoa da.

Urteko 23. astea.

San Eleuterio, *abadea*.

Angostoko Andre Maria (iraileko 1. igandea)

## § Ezekielen Profezia liburutik 33, 7-9.

Honela mintzatu zitzaidan Jauna: «Gizaseme, Israel herriaren begirale izendatu zaitut. Nik esandakoa entzutean, ohartarazi egin behar diezu nire izenean. Gaiztoen bati hilko dela esaten badiot, eta zuk ez badiozu ohartarazten bere jokabidea alda dezan, gaiztoa bere erruz hilko da, baina zuri eskatuko dizut haren heriotzaren kontua. Aitzitik, zuk ohartarazten badiozu gaiztoari, bere jokabidea alda dezan, eta hark ez badu aldatzen, gaiztoa bere erruz hilko da, baina zuk onik aterako duzu zeure bizia».

[Sal 95 [94]: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».]

## § San Paulok Erromatarrei 13, 8-10.

Senideok: Ez izan zorrik inorekin, elkar maitatzekoa baizik, zeren lagun hurkoa maite duenak betea baitu legea. Izan ere, harako «ez egin adulteriorik, ez hil inor, ez ostu, ez gutiziatu» eta beste edozein agindu, esaera honetan biltzen da: «Maita ezazu lagun hurkoa zeure burua bezala».

Lagun hurkoa maite duenak ez dio gaitzik egiten. Maite duenak, beraz, erabat betetzen du legea.

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zure senideak bekatu egiten badu zure aurka, zoaz beragana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berriz, har itzazu zeurekin lagun bat edo bi, auzia bi edo hiru lekukoren aitopenaz erabaki behar da eta. Hauei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko.

Urteko 23. astea.

San Eleuterio, *abadea*.

Angostoko Andre Maria (iraileko 1. igandea)

Benetan diotsuet: zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua.

Beste hau ere badiotsuet: zuetako bik elkar hartzen badute mundu honetan Jainkoari zerbait eskatzeko, emango die zeruko nire Aitak. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun bilduak dauden tokian, han naiz Ni haien artean».

**O**nar dezagun, ez hitzez hitzez, baina, bai, zentzarazpenaz ebanjelio honek proposatzen digun «espirituaz» edo «hatsaz». Ere mu mugatuetan praktika dezakegu, esku-eskura ditugunetan. Kanpotik datorrigun zentzarazpena edo beste baten zuzenketa oso lagungarri gerta dakiguke; guztiok baikara epaile gaizto geure buruarekiko; besteen laguntza behar izaten dugu, geure auto-engainuei antzemateko eta geure hutsak, sarritan oharkabekoak, agerian ipintzeko (horrela, «salbatzaile» izaten ditugu besteak).

Zentzarazpena, ordea, zeregin delikatua da. «Anai-arreba» artekoa izango bada, baldintza batzuen pean egin behar izaten da: 1) Maitasunez eta maitasuna eragitekoa izan behar da –maitasun horretaz mintzo da bigarren irakurgaia–. Maitasunik ez bada, gupidarik gabeko kritika edo juzkua izango da; are gehiago, mendekua. Maite duzun hura bakarrik zentzarazi beharko zenuke; 2) pazientzia: a) norbait zentzaraztean, ez nuke ahaztu behar ni neu nor naizen, neure ahuldade eta guzti: bestearen akatsekiko ulerker eta pazientziadun izan beharko nuke; beste bati ezin eskatu zaio une bakoitzean bere egin dezakeena baizik; 3) elkarrekikotasuna: neuk ere onartu beharra dut besteek ni zentzaraztea; apal-apal onartzen baitut hobera egin beharreko sorkari makal bat naizela.



Urteko 23. astea.

Santa Regina, *martiria*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 5, 1-8: Bazter ezazue legamia zaharra, Kristo, gure Pazko Bildotsa, opari eskainia izan denez gero. Sal 5: Gida nazazu, Jauna, zeure zuzentasunaren bidetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 6-11.

Beste larunbat batez, Jesus sinagogan sartu eta irakasten hasi zen. Bazen han eskuineko besoa elbarria zuen gizon bat.

Lege-maisuak eta fariseuak zelatan zegozkion, larunbatez sendatuko ote zuen, zertan salatu izateko. Jesusek, haien gogoetei igarririk, beso-elbarriari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona, erdira». Hura jaiki eta zutik gelditu zen.

Jesusek esan zien orduan: «Galdera bat: larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala hondatzea?» Eta, inguruko guztiei begira, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen eta sendatu egin zitzaion.

Lege-maisuak eta fariseuak beren onetik atera ziren eta Jesusi zer egingo ari ziren beren artean.

**J**uduen tradizioalan ez zegoen debekatua larunbatean gaixo baten bizia salbatzea, hil ala biziko kasua zenean. Baina gaizki ikusia zegoen hiltzeko arriskuan ez zegoen bat sendatzea, biharamuna arte ondo itxaron bazezakeen. Jesusentzat, ordea, Legea hitzez hitz hartzearen gaitetik zegoen Legearen espiritua edo muina, bere jatorrizko asmoaren arabera, gizakiaren ona bilatzen baitu. Giza sufrimena arintzea itxaron ez dezakeen gauza da. Besoa gogorturik edukitzeagatik murrizturik zeukan gizon bati bizitza bere betera itzultzea zen, Jesusen aburuz, Jainkoa ohoratzeko erarik hobena, «biziaren adiskide» baita Jainkoa. Horregatik, jendea xaxatzeko, sendatu egin du Jesusek gizona.

Urteko 23. astea.

**ANDRE MARIA BIRJINAREN JAIOTZA.**

Artziniagako, Koruko, Guadalupeko, Arrateko, Haizpeko...

Andre Maria.

---

§ Mikeasen Profezia liburutik 5, 1-4a.

Honela mintzo da Jauna:

«Zu, Efratako Betleem, Judako leinuetan txikiena, zuegandik aterako da Israelen buruzagia. Aspaldikoa da honen sortzea, betiereko egunetakoa. Horregatik, utzi egingo du Jaunak herria, amak haurra izan dezan arte.

Orduan, atzerian bizirik gelditutako senideak Israelgoengana itzuliko dira. Sendo utsiko dio eta artzain bizkorra izango da Jaunaren indarrez, Jaunaren bere Jainkoaren izen handiaz. Lasai biziko dira herritarrak; handi agertuko baita hura lurraren mugetaraino, eta bakea ekarriko du».

[Sal 13 [12]: Pozaren pozez nago Jaunarekin.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 1-16. 18-23.

Abrahamen eta Daviden ondorengo den Jesu Kristoren jatorri-liburua.

Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda eta haren senideak; Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sortu zituen, Faresek Esrom, Esromek Aram, Aramek Aminadab, Aminadabek Naason, Naasonen Salmon; Salmonek Rahabengandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek Jese, Jese David erregea.

Davidek Uriasen emazte izanagandik Salomon sortu zuen, Salomonek Roboam, Roboamek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joram, Joramek Ozias, Oziasek Joatam, Joatamek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiasen Manases, Manasesek Amon, Amonek Josias; Josiasen Babiloniako erbastealdian Jekonias eta haren senideak sortu zituen.

Eta Babiloniako erbastealdi ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zuen, Salatielek Zorobabel, Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakim,

# 8

Asteartea / Martitzena

IRAILA

Urteko 23. astea.

ANDRE MARIA BIRJINAREN JAIOTZA.

Artziniagako, Koruko, Guadalupeko, Arrateko, Haizpeko...  
Andre Maria.

Eliakimek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akim, Akimek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob; Jakobek, berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joresekin ezkontzeko hitzeman zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen: «Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du, eta Emanuel ipiniko diote izena (Emanuel izen honek “Jainkoa gurekin” esan nahi du)».



Andre Mariaren Jaiotza, Krisrok ekarri dizkigun ...  
dohain guztien hasiera izan da: Mariagan  
haragituko da Jainkoaren Semea.

Urteko 23. astea.

**ANDRE MARIA BIRJINAREN JAIOTZA.**

Artziniagako, Koruko, Guadalupeko, Arrateko, Haizpeko...

Andre Maria.

**Z**orionak emateko eguna dugu gaurko hau. Lehenik eta behin, Andre Maria, geure Ama zoriondu behar dugu. Beraren urtebetetzean. Pentsa dezagun, seme-alaba on bezala, zer erregalatzen ahal diogun. Dударik gabe, ez du nahi izango gauzak erregalatzea, baizik geure zerbait, geure txera adierazten duen zerbait. Bigarrenik, batak bestea zoriondu beharko genuke, garenak garelako, kristau garelako Andre Mariari esker, haren jaiotza ospatzean. Berak eman digu «biziaren egi-lea», Kristo. Bera gabe ez zen jaioko Emanuel, Jainkoa gurekin. Berak, bere xumetasunaz eta buru-eskaintzaz –bere «bai etengabeaz» bizitza osoan–, sarbidea egin dio gure munduan Jesusi, gure Salbatzaileari. Zorionak, Ama; zorionak, Andre Maria!

\*\*\*

### **Amak haurrari bezala, Jesusek Elizari**

«Jainkoak emakumea Adamen saihetsetik egin zuen bezala, hala eman zizkigun Jesu Kristok beraren saihetsetik irtendako ura eta odola, Eliza eraikitzeko. Eta orduan Jainkoak Adamen saihetsa hartu zuen bezala, lo zegoela, hala eman zizkigun ura eta odola, Kristo hila zegoela. Erreparatu nola batu zaion Kristo bere emazteari, erreparatu zein janariz elikatzen duen. Janari beraz jaiotzara eta elikatzen gara guztiok. Ama, bere izaeraz beraz, erdi duen hura bere odolaz eta esnez elikatzen emana den bezala, hala elikatzen ditu Kristok bere odolaz birjaiotzera berak eragin dien haiek» (*San Joan Krisostomo, ik. Liturgia de las Horas II, Viernes Santo 394. or.*)

[San Paulok 1 Korintoarrei 7, 25-31: Ez kondua zaudela? Ez ibili banandu nahian. Ezkongabea zarela? Ez hasi emazte bila. Sal 45 [44]: Entzun, alaba, eta ikus, makur ezazu belarria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 20-26.

Aldi hartan, Jesusek, ikasleei begira, esan zien:  
 «Zorionekoak behartsuok, zuena baita Jainkoaren erreinua.  
 Zorionekoak orain gose zaretanok, aseko baitzaituzte Jainkoak.  
 Zorionekoak orain negar egiten duzuenok, barre egingo baituzue.  
 Zorionekoak zuek, Gizonaren Semea dela-eta jendeak gorrotatu,  
 beren artetik bota eta madarikatuko zaituztetenean eta izen txarra emango dizuetenean. Alai zaitezte egun horretan eta egin pozez jauzi, handia izango baita zuen saria zeruan; gauza bera egin zieten profetei jende horren gurasoek.  
 Baina ai zuek, aberatsok, hartu baituzue zuen poza!  
 Ai zuek, orain aseak zaudetenok, gose izango baitzarete!  
 Ai zuek, orain barre egiten duzuenok, aiene eta negar egingo baituzue!  
 Ai zuek, mundu guztiak zuetaz ondo hitz egingo duenean, gauza bera egin baitzieten sasiprofetei jende horren gurasoek!»

**J**esus pertsona hauei mintzo zaie: materialki behartsu izateagatik, gose direnei, sufritzen eta negar egiten dutenei, mespretxatuak direnei. Zorioneko deklaratu ditu, Jainkoaren Erreinua hasia delako... Jainkoa, izen hau egiaz merezi duen errege duin bat bada, baliatuko da bere ahalmenaz behartsuen alde (halakoa zen «errege ideala» Itun Zaharreko tradizioan). Beraz, esperantza miresgarria ireki zaie behartsuei. Berek Erregetzat baitute Jainkoa: beren alde dute Jainkoa. Munduak jakin behar du berak direla Jainkoaren kutunak. Zoriontasunek Jainkoa eta Jesus zeinen alde dauden azaltzen digute, gu geu zeinen alde gauden pentsatzeko. Behartsuen alde atera zen Pedro Claver, jesuita, «esklabo beltzen esklaboa».

\*\*\*

Urteko 23. astea.

Arantzazuko Andre Maria.

San Pedro Claver, *apaiza, misiolaria, jesuita.*

## ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN MEZA.

[Judit liburutik 15,8-10; 16,13-14. Salmoa: Lukas 1,46-54].

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi-aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabetek Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, neure Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!» Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barnea».

### Arantzazuko Ama

Gaur ospatzen ari gara Arantzazuko Andre Mariaren, Gipuzkoako Zaindariaren, eguna. Tradizioak dioenez, Rodrigotxok (Baltategi baserrikoak) Andre Mariaren harrizko irudi txiki bat aurkitu zuen, Jesus Haurra besoetan zuela.

«Arantzan zu?», galdetu omen zuen txunditurik. Gaurko festa-egun honetako ebanjelioak garbi esaten digu: fede sakonaz onartu du Mariak Jainkoaren hitza. Elisabeten senar Zakarias ez da fidatu ainguraren hitzaz; Mariak, aldiz, konfiantza osoa eskaini dio: «gerta bekkit zuk diozuna». Arantzazuko Andre Mariaren goratasun betea ospatzen dugun honetan, goratasun horretarako bidea zein dugun agertzen digu zeruko amak: bihotza besteengana irekitzea da bidea.

[San Paulok 1 Korintoarrei 8, 1b-7. 11-13: Senideen kontzientzia hezigabea kaltetuz, Kristoren kontra egiten duzue bekatu. Sal 139 [138]: Gidatu ni, Jauna, betiko bidetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 27-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau diotsuet zuei, entzuleoi: Maita itzazue zeuen etsaiak, egin on gorroto dizuetenei, be-deinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari ez ukatu jantzia ere. Eskatzen dizun edonori eman, eta zeurea kentzen dizunari ez itzularazi. Eta besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei.

Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere maite dituzte beren maitaleak. Eta on egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue on, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere aurreratu ohi diote elkarri, dagokiena hartzekotan.

Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin on eta eman maileguz, ordainari begiratu gabe; handia izango da zuen saria eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita hura esker txarrekoentzat eta gaiztoentzat. Izan zaitezte errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala.

Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

**J**esusek esan digu, zeruko Aitak bezala maitatu behar dugula. «Odolkiak ordainetan» ez den maitasunaz –maitatuko zaitut, maite ba-

Urteko 23. astea.

San Nikolas Tolentino-koa, *aitorlea*.

Frantzisko Garate (Loiola 1857 – Bilbo 1929),

*dohatsua, jesuita*.

nauzu-, baizik maitasun asimetrikoaz: maitatuko zaitut, maite ez banauzu ere. Hain zuzen, halako Aitaren semea edo alaba ez da inori gaitzik egiten ez diona, eta bere egoismo erosoan hesiturik gelditzen dena eta, agian, isileko gorrotoa gordetzen duena, baizik eta on egiten diona merezi ez duenari; horrela, maitatzera arriskatzen da bat trukean ezer espero gabe. Horrelako maitasunak ikasten du, Jaunaren laguntzaz, ez laidoak ahazten, baina bai iragana gogoan hartzen, oroimena pozoi elkorgarriaz zitaldurik geldi ez dadin moduan; horrela, iraindu zaituena-rekiko balizko harreman berri bati irekitzen diozu bidea.

\*\*\*

### Frantzisko Garate, S.J.

Frantzisko Garate Aranguren «Errekarte» baserrian, Loiolako do-  
nretxe ondoan, jaio zen 1857-02-03an. Hamalau urte arte baserrian  
bizi izan zen, fede-giro beroan. 1871n jesulagun sartu zen Urduñan,  
eta 1876-02-02an Anaia Laguntzaile izateko zin egin zuen. Nabarmen-  
ak ziren Frantziskoren jainkozaletasuna eta otoitz-zaletasuna, baita  
beraren alaitasuna, gaixoekiko gozotasuna, karitatea eta langiletasuna.  
1888an Deustuko egoitzako atezain izendatu zuten; berrogeita bat  
urtez beteko zuen egiteko hori, eguneroko lan, zerbitzu eta eginkizun-  
netan santu izanez eta bere jarduera etengabe otoitz bihurtuz. Rafaela  
Ibarra dohatsua ezagutu zuen. 1929-09-09an, Arantzazuko Andre  
Mariaren egunean, hil zen. 1985-10-06an dohatsu izendatu zuen Joan  
Paulo II.a aita santuak («Egunean Eguneko Ebanjelioa», *Deustuko  
Unibertsitatea*, 2006).



Tomas Zumarragakoa (Gasteiz 1577 – Japonia 1622),  
*dohatsua, apaiza, eta lagunak, martiriak (Gasteizko elizbarrutian).*

[San Paulok 1 Korintoarrei 9, 16-19. 22-27: Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko.  
 Sal 84 [83]: Bai maitagarria zure egoitza, Jaun ahalgutziduna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 39-42.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Izan ote dai-teke itsua itsuaren gidari? Ez ote dira biak zulora eroriko? Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ondo eskolaturiko ikaslea bere irakaslea adinakoa izango da. Nolatan ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko habeaz ohartzen ez? Nolatan esan diezaio-kezu senideari: “Adiskide, uztazu begian duzun lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean duzun habea ikusten ez duzula? Itxurazalea halakoa! Ate-ra lehenik zeure begitik habea, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidea-ren begitik lasto-izpia ateratzeko».

**J**esusek hitz oso gogorra aurpegiratu izan die, behin eta berriz, fariseuei: «hipokrita». Horrekin, geuk ere gainerakoen epaile eta fis-kal izateko dugun joera salatu nahi du; horrela jokatzan baitugu ge-ure buruaz autokritika egin gabe, geure akatsak begi aurrean jarriko lizkigukeena. Autokritika hori gabe, itsu baten itsuaurreko izan nahi lukeenaren antzeko izango gara; izan ere, hipokrita batek bere burua munduko bikainenaren bikaintzat har lezake, bere barnea lerdoturik duelarik. Eta orduan, zulora eroriko da eta zulora eramango ditu gi-datu nahi dituenak. Maisuarena egin nahi izaten dugu, aholkuak eman nahi izaten ditugu, gu geu bidea ikusteko gai ez garelarik, begiak ixten dizkigun «habeak» eragozten digulako.

Urteko 23. astea.

Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).

(*ikus beherago Estibalizko Andre Mariaren Meza*)

[San Paulok 1 Korintoarrei 10, 14-22: Guztiok gorputz bat gara, ogi bakarretik hartzen baitugu denok. Sal 116 [115]: Gorespen-oparia dizut, Jauna, eskainiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 43-49.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da zuhaitz onik fruitu txarra ematen duenik, ezta zuhaitz txarrik ere fruitu ona ematen duenik. Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; elorritik ez da pikurik biltzen, ezta sasitik mahatsik hartzen ere. Ona denak ona ateratzen du bere barneko ondasun-altxorretik, eta gaiztoak gaitza bere gaiztakeri altxorretik; ahoak esan, bihotzari gainezka dariona esaten baitu.

Zergatik esaten didazue “Jauna, Jauna!” eta ez duzue egiten esaten dizuedana? Erakutsiko dizuet noren antzeko den nigana etorri eta nire hitzak entzun eta betetzen dituen: etxea eraikitzean, zulatu, sakondu eta zimenduak harkaitzean hartu zituen gizonaren antzekoa da. Uholdea gertatzean, jo zuen ur-boladak etxea, baina ezin izan zuen dardarazi, sendo eraikia baitzegoen.

Entzun bai, baina betetzen ez dituen, berriz, etxea lur gainean, zimendurik gabe, eraiki zuen gizonaren antzekoa da. Jo zuen ur-boladak eta berehala erori zen eta erabat porrokatua gelditu».

**G**eure bihotzean murgil egitera konbidatu gaitu Jesusek. Zuhaitz sano batek, fruitu txarrik ez, baizik onik emango dizun bezala, bihotz on batek ere, koherentziaz, hitz eta egintza onak kanporatuko ditu, testigantza izango direnak, gainerakoei zeruko Aitaren onberatasuna imitatzeraz eragingo dietenak. Jesusek, beraz, bihotza sarri-sarri miatzeko eskatzen digu. Izan ere, gainerakoekin erabiltzen ditugun hitzak eta portaera zakar, kritikiko, urruneko, kaltegarri... badira (fruitu txarrak, alegia), seinale argia, gure portaeraren hondoan dagoena garbikuntza behar duen bihotz bat dela: inolaz ere islatzen ez dituen zeruko Aitaren bihotzaren taupadak, baizik eta harrokeriaz bete dagoena.

\*\*\*

Urteko 23. astea.

Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).

## ESTIBALIZKO ANDRE MARIAREN MEZA

[Sirak 24,1-2.5-6.12-16.26-30: Maria, jakinduriaren aulkia. **Salmoa:**  
1 Samuel: Jauzika daukat bihotza Jaunagan, nire Salbatzaileagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihi handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna,  
pozaren pozez daukat neure barrua,  
Jainkoa baita nire salbamina,  
ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.

### Estibalizko Andre Maria Birjina

Estibalizko santutegiaren lehenbiziko albiste idatzia 1074koa da, Estibalizko Jaun edo Kondeak elizako eskuineko aldea Donemiliaga Kukulako (Errioxa) monasterioari emate-agirian. Sortzez, bertako jaunaren otoitz-leku izango zen santutegia. XII-XVI mende artean joera eta debozio handia zion Arabako herriak Estibalizko santutegiari. Bi jai nagusi izan ohi ziren Estibalitzen: Jainkoaren Semearen Gizakundekoa –gehienetan Garizuman izaten denez, maiatzaren 1ean ospatu ohi zu-

Urteko 23. astea.

Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).

ten— eta irailleko igande batean, ziur aski Estibalizko Andre Mariari uzta-  
tarenгатik eskerrak emateko. 1608an Frantziskotarrek beren ardurapean  
hartu nahi izan zuten Estibalizko santutegia, eta Gasteizko Udalak bai-  
mena ere eman zien; baina ez zuten antolatu anaidirik. XIX. mendeko  
gerrateak zirela eta, santutegi oineko Villafrancako parrokiara jaitsi zu-  
ten Andre Mariaren irudia. XX. mendean berpiztu eta indarberritu egin  
zen Estibalitzeko joera eta debozioa, batez ere 1906an santutegia era-  
berritu eta urriaren 21ean Andre Maria berriz ere hara igo zutenez ge-  
rozitik. 1915ean aldare nagusi berria sagaratu zuen apezpikuak. 1923az  
geroz, antzina kaperauarena zen etxea handiturik, beneditar lekaide-tal-  
dea kokatu zen Estibalitzen. (*Dionisio Amundarain*).

### Estibalizko Andre Mariaren Goratarrea

Estibalizko Ama maitea:  
Izar eder eta zeruko atea:  
Pozturik agurtzen zaitugu,  
pozturik agurtzen zaitugu.

Goratua zu zeru gainean,  
bedeinkatua lur zabalean.  
Agur zuri, biotzez Agur!  
Ama maite, biotzez Agur!

1. Arabako lurretan  
sinismen gaztelu bat  
zeruak eman zion  
Euskalerrinari.  
Ordutik, Ama maite,  
izan zera guretzat  
zoritxar-illunpetan  
izar ditzizari.

2. Arriagako Batzar  
Nagusietarako  
Zu jeitxi oi zinduten  
San Juan bezperan;  
Argatik dira gure  
Oitura eta Legeak  
ain garbi: Zuri eskutik  
artuak aukeran.

(*Errepika Lekuonatarrena omen:  
osaba-ilobena  
eta bertsoak Nemesio  
Etxanizenak*).

Urteko 24. astea.

San Joan Krisostomo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

## § Siraken liburutik 27, 33–28, 9.

Amorrua eta haserrea higuigarriak dira; horietan maisu da gizon bekataria.

Mendekatzen denak Jaunaren mendekua jasan beharko du, bekatuen kontu zorrotza hartuko dio.

Barkatu lagun hurkoari egin dizun iraina, eta, zuk erregutzean, barkatuko dizkizu Jainkoak ere zeure bekatuak. Gizaki batek, amorrua badio beste bati, nolatan eska diezaioke Jaunari osasuna?

Bere kidekoarentzat errukirik ez duenak, nolatan eskatuko du bere bekatuen barkamena?

Gizaki huts besterik ez denak amorruari eusten badio, nork lortuko dio bere bekatuen barkamena?

Gogoratu amaiera eta egin uko gorrotoari; gogoratu ustelkeria eta heriotza, eta jarraitu leial aginduei.

Gogoratu aginduak, eta ez izan gorrotorik lagun hurkoari; oroitu Goi-goikoaren itunaz, eta ez hartu iraina kontuan.

[Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna, haserregaitza eta onginahiz betea.]

## § San Paulok Erromatarrei 14, 7-9.

Senideok: Gutako inor ez da beretzat bizi, ezta beretzat hiltzen ere. Bizi bagara, Jaunarentzat gara bizi, eta hiltzen bagara, Jaunarentzat gara hiltzen. Beraz, nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara.

Honetarako hil eta piztu zen Kristo: hildakoen eta bizien Jauna izateko.

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 21-35.

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?»

Urteko 24. astea.

San Joan Krisostomo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

Jesussek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko.

Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia. Baina morroi hark berak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-lagunarekin topo egin zuen, eta, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordain iezadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

Beste morroiak, gertatua ikusirik, bizirotseka ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten.

Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu didaialako; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?” Eta nagusiak, haserre bizioan, borroeroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte.

Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue».

**P**arabola honek gogorazten digu, gutako bakoitza Jainkoaren aurrean gaudimen gabeko (ordaindu ezineko) zordun ginela —eta hala gertatzen garela sarritan—, ezin baitiogu «ordaindu», «itzuli», bekatuak adierazten duen zorra. Halere, behin eta berriz barkatu digu berak. Baina graziaren esperientzia hori, dohain oro bezala, eskakizun eta eginkizun da. Parabolak diosku: «Izan gainerakoekin Jainkoak zuekin izan duen errukia bera. Hala ez bada, Jainkoak ez dizue barkatuko.

Urteko 24. astea.

San Joan Krisostomo, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

Gainerakoak maite dituenak bakarrik maite baitu Jainkoa –eta barkazioa maitasunaren era sakon bat da–. Ikusten ez duen Jainkoa maite duela esan, baina ikusten duen anaia edo arreba maite ez duena gezurti bat da. Jainkoari –barkazioa eskatzen diogun eta ematen digunari– diogun maitasuna, anaiari edo arrebari diogun maitasunean egiaztatzen da; eta barkatuz, iraintzen nauenean, bizikiago maite ohi dut. Ez dugu barkatzen Jainkoaren barkazioa irabazteko, baizik eta Jainkoari, bere barkazioagatik, geure esker ona azaltzeko: anaia / arreba da «leku» zeinetan nahi baitu Jainkoak geure esker ona azal dezagun. Hori egiten ez badugu, gure esker ona mihi-puntakoa bakarrik izango da. Gaurko lehen irakurgaiak ere gauza bertsua adierazi digu.



ESTIBALIZKO ANDRE MARIA

Urteko 24. astea.

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA.

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*.

### § Zenbakiak liburutik 21,4b-9.

Egun haietan, herria, bidez gogaituta, gaizki esaka hasi zen Jainkoaren eta Moisesen aurka: «Zertako atera gintuzun Egiptotik? Basamortuan hiltzeko? Ez dugu ogirik, ez urik, eta asperturik gaude mana delako janari kaskar honekin».

Jaunak suge pozoitsuak bidali zizkion herriari, eta haien zitzadaz israeldar asko hil zen. Orduan, Moisesengana joan eta esan zioten: «Bekatu egin dugu, Jaunaren eta zure kontra gaizki esaka jardunez. Erregutu Jaunari sugeak gugandik urruntzeko».

Erregutu zuen Moisesek herriaren alde, eta Jaunak esan zion: «Egizu brontzeko sugea eta ipini haga baten muturrean. Sugeek zizta egindako guztiak, brontzeko sugeari begiratzear, sendatu egingo dira». Egin zuen Moisesek brontzeko sugea eta hagaren muturrean ipini zuen. Eta sugereren batek norbaiti zizta egiten zionean, brontzekoari begiratzear sendatu egiten zen.

[Sal 78 [77]: Ez ahaztu Jaunaren egintza handiez.]

### § San Paulok Filipoarrei 2,6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez denen belauinak makur daitezen, zeruan, lurpean eta lurpean, eta mihi guztiek aitoren deitzen Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.



Urteko 24. astea.

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA.

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,13-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Ez da inor zerura igo zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Moisesek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten.

Izan ere, hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali mundua kondenatuzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik».

**Z**er zentzu izan lezake, «konforta», erosotasuna eta ongizaterik handiena sutuki bilatzen duen gizarte batean, «Gurutzearen Gorapena» deitzen dugun jai bat ospatzeak? Kristauok ospatzen badugu, fedearen mundutik dakigulako da, Gurutzeak agertzen digula: 1) Aitaren maitasuna; 2) Semearen solidaritatea gurekin. Eta agerpen bikoitz hori ez da mindurazalea, baizik gozagarria.

1. - Jainkoak bere Semea bidali du mundua salbatzera, ilunetik eta bekaturik ateratzera. Gurutziltzatuaren begiratuak Jainkoaren maitasun ahaltsu eta sinesgarria agertzen digu. Aitak Semea eman du –harrapa dezaten utzi du– maitasunez. Ez du izan beste era ez-dudagarriagorik gizakioi esateko gure salbazioa nahi duela.

2. - Gurutzeak Semearen solidaritatea agertzen digu. «Doloretako gizona» da. Askoren bekatua bere gain hartu zuena... Haren zauriek sendatu gintuzten» (Isaias 53,11-12). Jainkoaren Semeak gure sufrimean «jasan» zituen (Hebrearrei 2,18) eta bere egin bere haragian.

Bera kontenplatzean, geure sufrimenean hurbileko nabari dugu, eta hurbiltasun horrek berak eragiten digu, solidaritatez, gurutzetik jaistera makilatua eta zapaldua den jendea, gurekin sufritzen duen Jainkoaren irudi direnak.

Urteko 24. astea.

DOLORETAKO ANDRE MARIA.

[San Paulok 1 Korintoarrei 12, 12-14. 27-31a: Zuek Kristoren gorputza zarete, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal. Sal 100 [99]: Jaunaren herri gara eta haren larreko artalde.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 25-27.

Aldi hartan, Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari: «Emakume, horra hor zeure semea!» Gero, ikasleari esan zion: «Horra hor zeure ama!»

Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.

«**H**orra hor zeure ama». Jesusen jarraitzaile izan nahi duen ikasleak, onartu beharra du Andre Maria bere amatzat, bere-bere bezala, berari dagokion norbait bezala, ezin ukorik egin dion norbait bezala. Baina Jesusek gurutzetik eskatu duen egitatea elkarrekikoa da: Andre Mariari ere eskatu dio bere seme-alabatzat har gaitzan. Beraz, Andre Mariaren amatasun espiritualaren ordua da. Andre Mariak, gurutzearen oinean egoten jakin eta gu seme-alabatzat hartu gintuenak, ez gaitzala utzi bakarrik eta irakats diezagula gurutzearen oinean egoten, geure bizitzan gurutze hori etorriko zaigunean.

\*\*\*

### Neurtitza (Doloretako Andre Mariarena)

Zutik, gurutze ondoan, / Ama samina zegoan, / eta Semea zintzilik.  
/ Haren arimaren mina!, / zazpi ezpatek egina, / han zegoen larririk.

Hain estu eta atsekabea, / Seme bakardun Andrea, / Ama bedeinkatua!  
/ Oinazez eta atsekabez, / Seme kutunaren lanez / zegoen kupidua.

Urteko 24. astea.

DOLORETAKO ANDRE MARIA.

Nork ez du negar egingo, / Jesusen Ama halako oinazez ikusita? /  
Ama Semeak ikustean / biak oinaze berean / elkarrekin josita?

Bazekien beretarren / erruz zutela zigortzen / Jesus, bere maitea.  
/ Inortxok ere ez laguntzen, / eta azken arnasa ematen / han zekusan  
Semea.

Hots, Ama, maite-iturri, / zurekin oinaze bizi / har dezadan egizu.  
/ Sutu Kristoren maitean / bihotz hau, eta haren aurrean / eder egin  
nazazu.

Ama, nire bihotzari / Kristoren zauriak jarri, / otoi, mami-mamian.  
/ Seme horren neke-lanak / erdiz bidal niregana, / maite nauen sarian.

Zurekin negar bizian / naukazu, eta haren zorian, / hil nadin arte-  
raino. / Zurekin gurutze ondoan / lagunduz, negar malkoan / nagon  
bizi naizeino.

Birjinetan ederrena, / zakizkit samurrena, / niri negar eragin. /  
Kristoren neke-herio / zauriak hartzeko, bihotz / hau adoretu egin.

Zauri ni zeure zauriez, / zora ni zeure odolez, / gurutze-iturripean.  
/ Sugarrez erre ez nazaten / nire alde jarri, arren, / Ama azken egunean.

Hemendik irtetekoan, / Amaren bidez ni noan, / Kristo, garaipene-  
ra. / Nire gorputz hau hiltzean, / arima doala hegan / Zeruko pozetara.  
Amen.

Urteko 24. astea.

San Kornelio, *aita santua* eta San Zipriano, *gotzaina, martiriak*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 12, 31–13, 13: Sinesmenak, itxaropenak eta maitasunak diraute orain; baina hiruretan handiena maitasuna da. Sal 33 [32]: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 31-35.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zeinekin konparatuko nuke gizaldi honetako jendea? Zeinen antzekoa da? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da, honela oihu egiten baitiete batzuek besteei:

“Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek negarrik ez”.

Izan ere, etorri da Joan Bataiatzailea, ogirik jaten eta ardorik edaten ez duela, eta deabruak hartua dagoela diozue. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta hau diozue: “A zer tripazaina eta mozkorra, zergalari eta bekatarien adiskidea!” Baina hura onartu dutenek arrazoi eman diote Jainkoaren jakinduriari).

**J**esus plazan jolasean ari diren haurrei begira jarri da. Talde batek besteari ezteietara jolas egitea proposatu dio; besteak ez du nahi. Eta lantuetara jolas egitea proposatu dio besteari; besteak ez du nahi. Konparazio honekin bere garaikideak salatu nahi ditu Jesusek, ez baitzuten jakin Jainkoaren asmoak ikusten, ez zorrotza eta penitentziagilea izan zen Joan Bataiatzaileagan, ez mozkortzat eta tripazaintzat salatu zuten Jesusengan. Geure bizitzari aplikatuz, pentsa dezagun zenbat aldiz hurbildu izan zaigun pozaren, dantzaren, eztei-otorduren Jainkoa, eta guk esker onik agertu ez, eta zenbat aldiz hurbildu izan zaigun uko egitea eta sakrifizioa eskatzen dituen Jainkoa, eta guk konpromisorik hartu nahi ez. Behin eta berriz, burugogor eta gorbizi izan gara.

Urteko 24. astea.

San Roberto Belarmino, *gotzaina eta eliz irakaslea, jesuita.*

[San Paulok 1 Korintoarrei 15, 1-11: Horixe da hots egiten dugun mezua, eta horixe zuek sinetsi duzuen. Sal 118 [117]: Eskerrak Jainari, ona baita.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 36-50.

Aldi hartan, fariseu batek bazkaltzera gonbidatu zuen Jesus. Joan zen, bada, Jesus fariseuaren etxera eta mahaian jarri zen.

Honetan, emakume bat, herrian bekatari bezala ezaguna, Jesus fariseuaren etxean bazkaltzen zela jakinik, bertara joan zen, harzurizko ontzi bat ukendu zeramala. Jesusen atzean, oinen ondoan, jarri zen negarrez, eta haren oinak malkoz bustitzen hasi zen; gero, ileaz xukatu eta musukatu ondoren, ukenduz gantzutu zizkion.

Hau ikusirik, gonbidatu zuen fariseuak bere baitan zioen: «Gizon honek, benetan profeta balitz, jakin behar luke zer-nolakoa den bera ukitzen ari den emakumea, bekataria baita».

Jesusek esan zion: «Simon, badut zerbaiz zuri esateko». Hark erantzun: «Esazu, Maisu».

«Mailegu-emaile batek bi zordun zituen: batak bostehun denario zor zizkion, eta besteak berrogeita hamar. Nondik ordaindu ez zute-larik, barkatu egin zien biei. Bietako zeinek izango ote du maiteen?» Simonek erantzun zion: «Gehien barkatu zaionak, nik uste». Jesusek esan zion: «Zuzen diozu».

Eta, emakumeagana itzulirik, Simoni esan zion: «Ikusten al duzu emakume hau? Zuenean sartu naizenean, zuk ez didazu oinak garbitzeko urik eman; honek, berriz, malkoz busti dizkit oinak eta bere ileaz xukatu. Zuk ez nauzu musu emanez agurtu; hau, berriz, sartu denetik ez da gelditu nire oinei musuka. Zuk ez didazu burua olio gantzutu; honek, berriz, oinak ukenduz gantzutu dizkit. Hau diotsut, beraz: hainbesteko maitasuna agertzen duenean, bekatu asko barkatu zaion seinale da; gutxi barkatu zaionak maitasun txikia agertzen du». Eta emakumeari esan zion: «Barkatuak dituzu bekatuak».

Urteko 24. astea.

San Roberto Belarmino, *gotzaina eta eliz irakaslea, jesuita.*

Beste bazkaltiarrek beren artean esaten hasi ziren: «Nor ote dugu bekatuak barkatu ere egiten dituen hau?»

Baina Jesusek esan zion emakumeari: «Zeure sinesmenak salbatu zaitu. Zoaz bakean».

«**A**sko maitatu zuen, asko barkatu baitzion [Jaunak]». Dolores Aleisandre-k izen egokia eman dio Jesus gantzutu duen emakume bekatariari: «demasaren ikonoa». Izan ere, esker on sakonak alde batera uztera eragin dio maitasun «arrazoizko» bat, kalkulatzaila, tantaka erantzuten duena. Emakume esker oneko honi trumilka dario maitasuna; ohitura sozial eta erlijioso guztiak hautsi ditu Jesusengana iritsi eta duenik eta hobereana, bere parfumea, ezer gorde gabe, isurtzeko; Jesusengan bildu du lehen beste amodio batzuetan barreiatua zuen maitasuna. Emakume honek erakutsi digu, barkatuak izan garela geu ere, «maitasun demas» bat bizitzeko, aldarrikatzeko hitzez eta egitatez gainerakoan aurrean, Jaunaren errukiaren geure esperientzia sakona: Jauna ez dela ibili gurekin sekula tori eta tati.

Karlos Eraña (Aretxabaleta 1884 – Ciudad Real 1936),  
*marianista*, Fidel Fuidio eta Jesus Hita, *dohatsuak, erlijioso*  
*eta martiriak*. San Jose Kupertino-koa, *frantziskotarra*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 15, 12-20: Kristo piztu ez bada, zentzurik gabea da zuen sinesmena. Sal 17 [16]: Esnatzean zure presentziaz naiz aseko, Jauna.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 1-3.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo ibili zen Jesus, Jainkoaren erregetzaren Berri Ona hots egiten. Berekin zituen Hamabiak, baita espiritu gaiztoetatik eta gaitzetatik sendatua zuen zenbait emakume ere: Maria Magdalena –honengandik zazpi deabru bota zituen–, Joana –Herodesen etxezain Kusaren emaztea–, Susana eta beste asko; hauek beren ondasunez laguntzen zieten Jesusi eta honen ikasleei.

**G**alilean barna egin duen bidaia misiolari honetan, bidelagun ditu Jesusek emakume batzuk –haietako bat, gutxienez, ezkondua, Joana–, eta beren ondasunez laguntzen diote. Gauza ezohikoa zen hau juduen artean. Harritu egin da jendea Jesusen askatasun honetaz, garaiko ohitura puritano guztiak hautsi baititu eta emakumeekiko estimu sakona erakutsi. Emakumeak lagun ditu, zerbitzari eta laguntzaile. Beraren heriotzaren lekuko izango dira eta Berpiztuaren agerpenaren lehen onuradun izango dira. Han izango dira Elizaren jatorrian ere (Egink 1,14). Emakumeari Jesusek agertu dion estimu horrek bizirik eta biziro jarraitu beharko luke gaur egungo Elizan, beraren lagunartean, laguntzaren, lankidetzaren beharra du.

Urteko 24. astea.

San Jenaro, *gotzaina eta martiria*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 15, 35-37. 42-49: Ereiten dena ustelkorra da, pizten dena ustelezina. Sal 56 [55]: Zure aurrean ibiliko naiz, oi Jainko, biziaren argitan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 4-15.

Aldi hartan, herri guztietatik jendetza handia bildu zitzaion batean, Jesusek parabola hau esan zien: «Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta zapaldu egin zuten eta txoriek jan. Beste zenbait harri artean erori zen eta, erne orduko, ihartu egin zen, hezetasunik ez zuelako. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, harekin batera eroririk, ito egin zuten hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta erne eta bateko ehun eman zuten fruitua».

Hau esanik, honela egin zuen oihu: «Entzuteko belarririk duenak entzun beza».

Orduan, parabola honek zer esan nahi zuen galdetu zioten ikasleek Jesusi. Honek erantzun zien: «Zuei eman zaizue Jainkoaren erreinua-ren misterioak ezagutzea; besteei, ordea, parabola bidez hitz egiten diet. Horrela, begiratzen dute, baina ikusten ez; entzuten dute, baina ulertzen ez.

Hona, bada, parabolaren esanahia: Hazia Jainkoaren hitza da. Bide bazterreko hazia bezalakoak hauek dira: hitza entzuten dutenak, baina deabrua etortzen zaie eta kendu egiten die hitza beren bihotzetik, sinetsi eta salba ez daitezten. Harri arteko hazia bezalakoak hauek dira: hitza entzutean pozik hartzen dutenak; baina, sustrairik gabeak izanik, denboraldi batean sinesten dute, baina tentaldi-garaian atzera egiten dute. Sasi artean eroritako hazia bezalakoak beste hauek dira: hitza entzuten dutenak, baina bizitzako arduren, diruaren eta atseginen artean itota gelditzen dira eta ez dira iristen fruitua ematera. Lur oneko hazia bezalakoak, berriz, hauek dira: hitza bihotz onez eta zabalez entzunik, barruan gorde eta iraupenez fruitua ematen dutenak».



Urteko 24. astea.

San Jenaro, *gotzaina eta martiria*.

**E**reiteko eskatu digu Jesusek. Baina ereiterakoan, izan dezagula gogoan haziaz eman digun irakaspena: 1) Hazia haziz joan ohi da gauez, ereilea lo dagoenean. Eta Jainkoak emanarazten dio fruitua. Erein dezagun hazia –nahi genukeen erritmoan hazten ikusiko ez badugu ere–, eta utzi diezaiogun Jainkoari lorarazi dezan. 2) Haziak «usteldu» egin behar du –hil–, fruitua, bizia, emango badu. Erreinurako ereiten ahal dugun haziak –bizia emateko bizia eskaini behar da, norberaren bizia– emango dio gure biziari ere sakrifizio eta gurutze-jite edo aire bat. 3) Hazia txikarra izan ohi da, mostaza hazia, adibidez. Geure munduan ereiten ahal dugun hazi txikar horrek irudi lezake gauza ez-deus bat, baina haziko da eta ehoko du ehun solidario bat, Erreinua bere betera iritsi arte.

\*\*\*

### Denbora (1)

Denbora: lehena, oraina, geroa.  
 Noiz zen lehen, noiz da orain, noiz gero?  
 Nola ihes egin lehena, oraina, geroa  
 pentsatzeari?  
 Nola pentsatu oraina den betikoa?  
 Nola, betikoa den oraina?  
 Oker gabilta betikoa pentsatzeko  
 oraina luzatzen.  
 Oker, oraina pentsatzeko  
 betikoa ukatzen.  
 Ezin ulertu zozoak  
 bere oin azpian duen metal-haritik  
 doala farolaren argia?

(B. Gandiaga)

Urteko 25. astea.

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak (Koreako martiriak)*.

### § Isaias Profetaren liburutik 55, 6-9.

Bila ezazue Jauna, aurki daitekeen bitartean; hots egiozue, hurbil dagoen bitartean. Utz beza gaiztoak bere bidea, gaizkileak bere asmo txarrak; itzul bedi Jaunagana, errukiz hartuko baitu, gure Jainkoagana, guztiz barkabera baita.

Nire asmoak ez dira zuenak bezalakoak, ezta zuen jokabidea ere nirea bezalako, dio Jaunak. Nola zerua lurraren gainetik garai, hala nire jokabidea zuen jokabidearen gainetik, nire asmoak zuen asmoen gainetik.

[Sal 145 [144]: Hurbil dago Jauna dei egiten diotenengandik.]

### § San Paulok Filipoarrei 1, 20c-24. 27a.

Senideok: Ziur nago, ni bizirik nahiz hilik egon, bere handitasuna agertuko duela Kristok nigan. Izan ere, niretzat, bizitzearen arrazoia Kristo da, eta hiltzea irabazpide. Baina bizitzen jarraituz lan onuragarria egin ahal badezat, ez dakit nik zer aukeratu.

Bi aldeetatik nago estu: batetik, hil egin nahi nuke, Kristorekin izateko; niretzat hau askoz hobea delarik; baina, bestetik, nik bizirik jarraitzea beharrezkoago da zuentzat.

Hauxe bakarrik eskatzen dizuet: bizi zaitezteela Kristoren Berri Onari dagokion bezala.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 1-16.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. Eguneko lansaria zilarrezko txanpon batean hizketatu ondoren, mahastira bidali zituen langileak.

Goizeko bederlatziak aldera berriro atera zen eta, beste batzuk plaza lanerako zain ikusirik, esan zien: “Zoazte zuek ere nire mahastira

Urteko 25. astea.

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak* (*Koreako martiriak*).

eta ordainduko dizuet bidezko dena”. Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuen. Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, beste batzuk oraindik geldituz aurkiturik, esan zien: “Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?” Haiek erantzun zioten: “Ez gaitu inork hartu lanerako”. Hark, orduan: “Zoazte zuek ere nire mahastira”.

Iluntzean mahasti-nagusiak esan zion arduradunari: “Deitu langileei, eta emaiozu bakoitzari bere soldata, azkenekoetatik hasi eta lehenengoetara”. Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Lehenengo ordukoek, txanda iritsi zitzaientean, besteek baino gehiago hartuko zutelara uste zuten; baina haiek ere zilarrezko txanpon bana hartu zuten.

Orduan, nagusiaren kontra gaizki esaka hasi ziren, eta esan zioten: “Azkeneko hauek ez dute ordubete besterik lan egin, eta gurekin berdindu dituzu, egun osoko nekea eta beroa eraman dugunokin”. Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: “Adiskide, ez dizut bidegabekeriari egin. Ez al ginen zilarrezko txanpon batean hizketatu? Tori dagokizuna eta zoaz. Zuri bezainbat eman nahi diot azkeneko honi ere. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala inbidia duzu, ni ona naizelako?”

Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkeneko».

«**H**arreman merkantilistak», fariseuaren tipikoa denak, uste du, Jainkoa «ordaintzaile» hertsia dela. Uste horren arabera, gehiago ordaindu behar dio mahastian goiz-goizetik (umetatik) lan egin duenari arratsean (bizitzan berandu) hasi denari baino. Kexu ziren parabolako soldatadun haien erreakzioa bera izaten da gurea ere. Jesusek, ordea, beste honekin trukatu du «eredu» hori: gu bekatarion eta Jainkoaren artean ez da ematen «salmenta-harremanik»: nik eman, zuk zor. Haren errukiak eta maitasunak ahalbidetzen dute gugan, grazia gisa, jokabi-

Urteko 25. astea.

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak (Koreako martiriak)*.

de ona, berarenaren antzekoa. Gure egintza onek eta lan-ordu ugarik badute baliorik, baina ez Jainkoa erosteko, baizik eta haren graziaren «fruitu» dira, erregalu eman digun graziaren fruitu; grazia horrek ematen digu egintza onak egiteko ahala. Jainkoa da gizakia eta beronen egintzak on egiten dituena. Beraz, Jainkoaren doako maitasuna ez da gure egintza onen meneko, ezta beraren mahastian egin izan ditugun ordu latz edo leunen meneko ere. Haren maitasuna, haren grazia, dohain bat da beti, sekula ere irabazi gabea.

Poztu gaitezen haren mahastira langile berriak etortzeaz, azkenean, gu bezala, esker oneko azalduko direnak –nahiz irudi dakigukeen haiek baino lan handiagoa eginak garela–. Maite zaitugulako, Jauna, maita zaitzaten nahi dugu!

\*\*\*

## Denbora (2)

Denbora pasatuz doa  
presaka gure ondotik;  
denbora lineala da,  
bueltatu gaitza errotik;  
pasatu denak alde du  
izangoaren auzotik.  
Denborara jausi ginen,  
denboraren esku gara;  
denborak gaitu bultzatzen  
denboratik denborara;  
denboraz berak jaurtiko  
gaitu denboraz landara.

(B. Gandiaga)  
(Arantzazu egutegia 2019-01-21)

Urteko 25. astea.  
 SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA.  
 San Jonas, *profeta*.

§ San Paulok Efesoarrei 4,1-7.11-13.

Senideok: Nik, Jaunagatik preso nagoen honek, eskatzen dizuet, bizi zaitezela hartu duzuen bokazioari dagokionez. Izan beti apal, otzan eta jasankor, elkar maitekiro eramanez. Saia zaitezte Espirituak sortzen duen batasunari eusten, bakearen lokarritz.

Bat bakarra da gorputza eta bat bakarra Espiritua, Jainkoak egin dizuen deiari dagokion itxaropena ere bat bakarra den bezala. Bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra Bataioa; bat bakarra guztien Jainkoa eta Aita, guztien gainetik dagoena, guztien bidez ari dena eta guztiengan bizi dena.

Gutako bakoitzak Kristok eman nahi izan dion neurrian hartu du dohanina. Berak apostolu egin zituen batzuk, beste batzuk profeta, beste batzuk Berri Onaren hotsegile, beste batzuk artzain eta irakasle; horrela gai egiten ditu fededunak beren zerbitzu-lanerako eta Kristoren gorputza eraikitzeko, harik eta guztiok Jainkoaren Semearen sinesmen eta ezagutza berberak izatera iritsi arte, heldutasun beteko pertsona, Kristoren betetasunaren neurriko pertsona, izatera iritsi arte.

[Sal 19 [18]: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,9-13.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri». Mateok zutitu eta jarraitu zion.

Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste zergalari eta bekatarari asko ere etorri eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalariekin eta bekatariekin?»

Hori aditzean, Jesusek esan zion: «Ez dute osasundunek sendagile beharra, gaixoez baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz

Urteko 25. astea.

SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA.

San Jonas, *profeta*.

---

jabetuko bazinete: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

**J**esusen dei horrek posible egin du mugiezineko ematen zuen hura, zerga-mahaian eseria eta izen txarreko egoera baten sinbolo zen hura, liberatu ahal izatea, eta «zutitu» ahal izatea, eta bideari ekin eta Jesusen jarraitzaile bihurtu ahal izatea. Mateok ez zuen kemenik sentitu sekula bere «mahaia» uzteko; orain, ordea, pertsona eraldatua da, duintasuna berreskuratu du, gizarteratu eta Jesus ez liluratu da. Jesusen dei errukitsuari zor dio hori guztia. Dei egin dionean, onartu egin du Jesusen ordu arte «baztertua» zena eta «barneratu» egin du, non?, eta bere maiteenen taldean, «hamabien» taldean. Esklabo bihurtzen gaituen «mahaiari» loturik sentitu arren, Jesusen hitz ahaltzuak, esaten uzten badiogu, aska gaitzake.

Frantziska Amezual (Abadiño 1881), Justa Maiza (Ataun 1897), Kontxi Odriozola (Azpeitia 1882), Klara Ezkurra (Arrasate 1896), Feliziana Uribe (Muxika 1893)

[Esaera Zaharrak liburutik 21, 1-6. 10-13: Nahiago du Jaunak giza-kiak justiziaz eta zuzenbidez jokatzea, sakrifizioak eskaintzea baino. Sal 119 [118]: Gida nazazu, Jauna, zeure aginduen bidetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 19-21.

Aldi hartan, ama eta anai-arrebak joan zitzaizkion Jesusi, baina jendearen jendeaz ezin iritsi ziren beragana. Eta jakinarazi zioten Jesusi: «Hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, Zu ikusi nahian».

Jesusek erantzun zien: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba: Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenak».

**L**ukasen ebanjelioan Jesus ez da mugatu bere «familia berria» «Jainkoaren borondatea betetzen dutenak direla» esatera (Markosek eta Mateok egin duten bezala; gainera, deklaratu du «Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenek» osatzen dutela (Lk 9,21). Eta Lukasentzat, Jesusen haurtzaroko kontaeran azpimarratu duenez, Maria da Jaunaren hitza entzun eta bete duena: «Gerta bedi nigan zure hitzaren araber» (Lk 1,38). Andre Maria ere, beraz, Jesusen familia berriko kide da: bere ama du eta beraren ikasle izan zen. Andre Mariagandik ikasi behar dugu Jesusen «ama, anaia eta arreba» izaten, beraren familia berrian.

\* Kotsuelo Cuñado (Bilbo 1884), Antonia Gosenz Saez de Ibarra (Gasteiz 1870), Daria Campillo (Gasteiz 1873) eta lagunak, *vedrunatarak, dohatsuak, birjinak eta martiriak*, 1936.

Urteko 25. astea.

San Pio Pietrelcina-koa, *apaiza, kaputxinoa*.

[Esaera Zaharrak liburutik 30,5-9: Ez nazazu egin ez txiro, ez aberats; eman soilik bizitzeko behar dudana. Sal 119 [118]: Kriseilu da zure hitza, Jauna, nire oinentzako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 1-6.

Aldi hartan, Jesusek, Hamabiak beregana bildurik, deabru guztiak botatzeko ahalmena eta gaitzak sendatzeko indarra eman zien. Eta Jainkoaren erreinua hots egitera eta gaixoak sendatzera bidali zituen, esanez: «Ez hartu ezer biderako, ez makilarik, ez zakutorik, ez ogirik, ez dirurik, ezta aldatzeko soinekorik ere. Etxe batean sartzen zaretela, gelditu han herri hartatik atera arte. Eta onartzen ez bazaituztete, herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaletzab».

Atera ziren, bada, eta herriz herri joan ziren, Berri Ona hots eginez eta alde guztietan gaixoak sendatuz.

**J**esusek Hamabiak bidali ditu eta aginpidez jantzi. Honetatik datorkie aginpide hau: Jesusengan ikusi dutena egin eta hari entzun diotena hots egin behar izatetik: Jainkoaren Erreinua aldarrikatu behar dute. «Zuei entzuten dizuenak neuri dit entzuten», esango du Jesusek geroago (Lk 10,16). Jesusen presentzia, beraren ikasleak direla medio bistaratuko da: ikasleak ikusten dituenak Jesus bera ikusiko du (Jn 12,45). Horixe da bidalia denaren handitasun apala. Jesusen misioa luzatzea da arazoa, eta ez nork bereari ekitea. Horregatik, misioak Jesusen beraren harikoa izan behar du: baliabide eskasez eta jendearen harrera eskuzabalari mugatua.



Urteko 25. astea.  
Mesedeetako Andre Maria.

[Kohelet liburutik 1, 2-11: Ezer ez berririk eguzkipean. Sal 90 [89]:  
Jauna, gure ihesleku Zu izan zara.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 7-9.

Aldi hartan, jakin zuen Herodes agintariak gertatzen zen guztia, eta zer pentsatu ez zekiela zegoen. Batzuek Joan Bataiatzailea hilen artetik piztu zela zioten; beste batzuek Elias profeta agertu zela; beste zenbaitek, berriz, antzinako profetaren bat piztu zela.

Herodesek, ordea, honela zioen: «Joani neuk moztu nion lepoa. Nor da, beraz, hau, horrelakoak entzuten baititut honi buruz?» Eta Jesus ezagutzeko egokiera bila zebilen.

**J**esusek esan zien: «Etorri eta ikusiko duzue». Jesus ezagutu nahi baduzu, ez duzu gelditu behar urruneko behatzaile soil bezala, baizik eta hurbildu egin behar duzu beragana, entzun, ikasi; ondoren hasiko zara «ikusten»: Jainkoaren Seme, Salbatzaile... dela antzemango diozu. Herodesek «ikusi» bakarrik egin nahi izan zuen, jakin-nahi hutseko behatzaile bezala, entzunak baitzituen jendearen esanak Jesusi buruz. Ez zuen, ez fede, ez kontzientzia-kezkarik; Jesusez kontatzen ziren mirariak bakarrik ikusi nahi zituen. Geroago, ekarri zioten Jesus Herodesi (Pilatok bidalita); orduan ere «etorri» gabe «ikusi» nahi izan zuen. Eta Jesusen isiltasun gaitzeslearekin egin zuen topo. Jende sinesgabeari animatu beharko genuke, zintzo bila dabilena, arriskatzera Jesusengana hurbilduz: «etor zaitez»; «etortze» horrekin «ikusten» has daiteke.

Urteko 25. astea.

San Kleofas, *Jaunaren ikaslea*.

[**Kohelet liburutik 3, 1-11**: Gauza bakoitzak bere garaia du eguzki-pean. **Sal 144 [143]**: Bedeinkatua Jauna, nire harkaitza.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 18-22.**

Jesus otoitzean bera bakarrik ari zela, ikasleak hurbildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien: «Nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias».

Inori ez esateko agindu zien Jesusek zorrotz. Eta esan zien, gainera, ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztuko da».

**J**esusek otoitz egiteko ohitura zuen bere bizitzako une erabakitzaileetan. Halaxe egin du oraingoan ere, ikasleei bera beraiantzat zein den galdetzera doan honetan. Pedrok erantzun dio: Mesias zara zu. Egia da hori, baina ez da erantzun osoa. Horregatik, horrela ez deitzeko eskatu dio. Mesias zein zentzutan den, beraren heriotzaren ondoren ulertuko dute: sufrimen-mesias da. Jesusek otoitz egin beharra sentitu zuen, ikasleengan konbentzimendu hori sartzeko, bera Mesias politiko eta garaitzat hartzeko jarrera nabari baitzien beti. Ez ote genioke eskatu behar geuk ere berari, Berpiztu bezala gugatik erregutu dezan, gugatik otoitz egiten jarrai dezan, bera zer eta zein den eta guretzat zer izan nahi duen ulertzeko, eta bera geure gustura irudikatzen jarrai ez dezagun?

Urteko 25. astea.

San Kosme eta San Damian, *martiriak*.

[Kohélet liburutik 11, 9–12, 8: Oroitu zeure Egileaz gazte zaren bitartean, hautsa lurrera eta arnasa Jainkoagana itzuli baino lehen. **Sal 90 [89]:** Jauna, gure ihesleku Zu izan zara gizalditik gizaldira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 43b-45.

Aldi hartan, Jesusek egiten zituengatik txundituta zeuden guztiak. Hark esan zien ikasleei: «Hartu ongi gogoan hitzok: “Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute”».

Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; ilun gertatzen zitzaien, eta ez ziren esanahiaz jabetzen; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien.

**H**aur epileptiko bat sendatua ikusirik, harriturik da jendea. Baina une horrez baliatu da Jesus bere nekaldia bigarrenenez iragartzeko. Txaloen eta poz-jauzien azalpen masiboek ezin desbideratu dute Jesus bere bizitzari eman dion ildotik. Eta espero dien zoria azpimarratu die Jesusek ikasleei –«sartu buruan»–. Halere, haiek ezin ulertu zuten hizkuntza hura, beldurra ematen zien gai horretaz galderak egiteak ere. Ez zuten ulertzen eta ez zuten ulertu nahi, beren burua ere Jesusen zori tragiko hartan nahasirik sumatzen zutelako? Aitortu dezagun geu ere beldurrak jotzen gaituela batzuetan Jesusi jarraitzeak berekin dituen zailtasunen aurrean; halaz guztiz, ez genuke ahaztu behar halako zailtasunen artean ere Jesus geure Emanuel izango dugula.

Urteko 26. astea.

San Bizente Paul, *fundatzailea*  
(*Pauldarrak eta Karitateko Ahizpak*).

### § Ezekielen Profezia liburutik 18, 25-28.

Honela mintzo da Jainko Jauna:

«Zuek diozue: “Ez da bidezkoa Jaunaren jokabidea”. Entzun, bada, israeldarrok: Nire jokabidea bidezkoa ez dela? Ez ote da zuena bidezkoa ez dena?

Zintzoa, bere zuzentasunetik aldendu, txarkeria egin eta hiltzen bada, egin duen txarkeriagatik hiltzen da. Eta gaiztoak, egin duen gaiztakeriatik aldendu eta zuzenbidez eta justiziaz jokatzeko badu, bizirik iraungo du. Egindako txarkeriez ohartu eta haietatik aldentzen bada, biziko da, bai, eta ez da hilko».

[Sal 25 [24]: Oroit zaitez zeure errukiaz, Jauna.]

### § San Paulok Filipinoarrei 2, 1-11.

Senideok: Egia bada Kristok adore ematen dizuela eta maitasunak kementsu egiten zaituztela, egia bada Espirituagan bat eginik bizi zaretela eta bihozbera eta errukitsu zaretela, bete nazazue pozez, denok iritzi eta sentiera bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz. Ez egin ezer norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, eta besteak norbera baino hobeak direla pentsatuz; ez norberaren onari bakarrik begiraturaz, besteena ere bilatuz baizik. Izan itzazue zeuengan Kristo Jesusi dagozkion asmoak:

Hark, Jainkoaren izaera bereko izanik,  
ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zego-  
kion aintza utzi

eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki  
bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez  
heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan  
bikainena eman zion,

Urteko 26. astea.

San Bizente Paul, *fundatzailea*  
(*Pauldarrak eta Karitateko Ahizpak*).

Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezten, zeruan, lurrean eta lurpean, eta mihi guztiek aitoren dezaten Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitarentzat aintzarako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21, 28-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburu eta herriko zaharrei: «Zuek zer deritzozue? Gizon batek bi seme zituen, eta bataregana joan eta esan zion: “Seme, zoaz gaur mahastira, lanera”. Hark erantzun: “Ez dut nahi”. Baina gero damutu eta joan egin zen. Bestearengana ere joan eta gauza bera esan zion. Eta hark erantzun: “Banoa, jauna”; baina ez zen joan. Bietan zeinek egin zuen aitaren nahia?» «Lehenengoak», erantzun zioten.

Orduan, Jesusek esan zien: «Egiaz diotsuet: Zergalariak eta emagalduek zuek baino lehenago sartuko dira Jainkoaren erreinuan. Izan ere, etorri zitzaizuen Joan Bataiatzailea Jainkoaren nahiari dagokion jokabidea hots eginez, eta ez zenioten sinetsi; zergalariak eta emagalduek, berriz, sinetsi egin zioten. Zuek, ordea, ikusi eta gero ere, ez zineten bihotz-berritu, hari sinesteko».

**J**ainkoaren pazientzia salbatzailea iradoki digu parabolak, gogoeztarako (2 Pedro 3,15). Parabolan datorren bigarren semeak zirti-zarta jaulki du: «Ez» hotz bat; baina «ondoren» damutu eta joan egin da. «Ondoren» horrek denboraldi bat esan nahi du. Parabolak ez du esan zenbat beranduago izan den «ondoren» hori, ezta zein arrazoik eragin dion semeari iritiz aldatzera: obeditzeko seme-betebeharra sentitu duelako joan ote da mahastira, gogo txarrez bada ere?, edota gustura joan ote da, aita onaren eskaria jatortzat hartu duelako? Baina hau badakigu: aitak zain egoten jakin duela eta ontzat eman duela semearen jokabidea, berandu samarrekoa izan bada ere.

Urteko 26. astea.

San Bizente Paul, *fundatzailea*  
(*Pauldarrak eta Karitateko Ahizpak*).

Jainkoak pazientzia du gizon-emakumeokin; beti eskaintzen digu bigarren, hirugarren edo laugarren aukera bat, hasierako gure «ez» hori «bai» bihur dadin. Ez du amore ematen «ez» hotz batengatik, beraren proposamenari bat-batean emandakoagatik; ezta ere, ordea, «bai» ustel batengatik ere –parabolako lehen semeak eman duena bezalako batengatik–: esperantza emaille izan da «bai» hori, baina laster egin du atzera, «ez» zurrungarri bihurtuz. Jainkoarentzat, gizakiaren bihotza ez dago inoiz ere beraren deiari emandako «ez» bati erabat loturik; horregatik, pazientzia du beti.

\*\*\*

Leon XIII.a aita santuak San Migel Goiaingeruari otoitza:

(*irailaren 29rako otoitza*)

«Migel goiaingeru santua,

Izan gure babes borrokan;

izan gure anparo

deabruaren gaiztakeriaren eta azpikerien kontra.

Izan dadila Jainkoa haren gainetik nagusi,

apal-apal eskatzen dugu:

eta zuk, Zerutar Armadaren Buruzagi horrek,

Jainkoak eman dizun indarrez,

bota infernura Satanas

baita, gizakia hondatu nahian,

munduan harat honat dabiltzan

gainerako espiritu zitalak. Amen.»

San Domingo Erkizia (Errezil 1589), *domingotarra*, San Mikel Aozaraza (Oñati 1598), *domingotarra*, *biak apaizak*, San Lorenzo eta lagunak, *martiriak* (Japonian 1637).

[Job liburutik 1, 6-22: Jaunak eman dit, Jaunak kendu. Bedeinkatua Jaunaren izena! Sal 17 [16]: Itzul nigana belarria, entzun nire mintzoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 46-50.

Aldi hartan, eztabaida sortu zen ikasleen artean, zein ote zen haieran handiena.

Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta, haurtxo bat hartu, beren ondoan jarri eta esan zion: «Haur hau nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauen hura onartzen du. Zeren zuetan txikiena, horixe baita handiena».

Orduan, Joaneke esan zion: «Maisu, gizon bat ikusi dugu zure ize-nearn deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa».

Baina Jesusek erantzun zion: «Ez galarazi, zeren zuen aurka ez dagoena zuen alde baitago».

**K**ristau-fedeak bere ahalmen gizatiartzailea azaldu beharko luke gaur egun. Maitasun den Jainko bat aldarrikatzen du fede horrek; bera Maitasun dela esaten duen Jainkoak ez du zertan izan totalitario, ez du zertan eragin intolerantziarik eta fanatismo. Baina argudiatze honetan historiak laguntza handirik ematen ez digulako –oso intolerante izan baikara–, ez da aski izango aldarrikatze hutsa; testigantza eskaini beharko dugu, giza balore guztiak sustatuz, eta halakoen alde borroka eginez. Gure fedeak, gaur egun, «jarrera ekumenikoa darion humanismoa» agertu beharko luke, zelerik eta errezelorik gabe giza balore guztiez gozatzeraz eramango lukeena, nonahitik datorrelarik ere. Fede erne eta adi bat, beraz, Pauloren aholku honi jarraituko diona: «zuzen, garbi... den oro, hartu zeuen gauzatza» (Flp 4,8).

Urteko 26. astea.

GOIINGERU SANTUAK: MIKEL, GABRIEL ETA  
RAFAEL.

§ Danielen Profezia liburutik 7, 9-10. 13-14.

Nik, Danielek, ikuskaria izan nuen gauetz. Begira nengoela, tronu batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat eseri zen. Haren soinekoa elurra bezain zuri, buruko ilea artilea bezain garbi! Haren aulkia eta gurpilak, sugar kiskalgarri! Suzko ibaia ateratzen zen haren aurretik.

Jendetza izugarria zuen zerbitzari, milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik. Auzia hasi eta zabaldu ziren liburuak.

Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzeko zuen. Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

[Sal 138 [137]: Eresi egingo dizut, Jauna, aingeruen aurrean.]

§ Apokalipsia liburutik 12, 7-12a.

Gudua izan zen zeruan: Mikel eta beronen aingeruak herensugearen aurka. Herensugea eta beronen aingeruak gogor borrokatu ziren, baina ezin izan zuten garaitu, eta aurrerantzean zeruan ez zen tokirik izan haientzat. Bota egin zuten, beraz, herensuge handia, antzinako sugea, deabru eta Satanask deritzana, mundu osoa engainatzen zuena; lurrera bota zuten bere aingeruekin batera.

Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten:

«Orain etorri dira gure Jainkoaren salbamena, indarra eta erregetza, eta beraren Mesiasen agintea; bota baitute gure senideen salatzaileak, gure Jainkoaren aurrean, gau eta egun, salatzen zituenak. Bildotsaren odolaz eta aitortu duten mezuaz lortu dute garaipena; nahiago izan zuten heriotza, bizia baino.

Poztu zaitezte, beraz, zeruok, eta haietan bizi zaretenok».



Urteko 26. astea.

GOIINGERU SANTUAK: MIKEL, GABRIEL ETA  
RAFAEL.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 47-51.

Aldi hartan, Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egun baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan».

Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

**J**esus da lotura-gunea zeruaren eta luraren artean. Baina Jainkoa aingeruez ere baliatu da salbamen-historian. Mezulari dira aingeruak. Behera eta gora dabilta. Behera etorri ohi dira, Migel adibidez, geure eguneroko borrokan adorea emateko. Edo, Gabriel adibidez, esperantza iragartzeko: hala iragarri zien Daniel profetari, Zakariasi, baina batez ere Mariari, honi Salbatzailearen Ama izango zela adierazi baitzion. Edo, Rafael adibidez, Eliza erromesaren bide-janari eta bidelagun baita, Tobias gaztearena izan zen bezala. Baina aingeruak gora ere joaten dira. Gure erreguak eta otoitzak aurkezten dizkiote Jainkoari. Aingeruekin bat egiten dugu, Eukaristian, prefazioaren bukaeran, «Santu» gospesen kantua abesten dugunean.

\*\*\*

Gaur, irailaren 29a, goiaingeruen jaia. Zein Jainkoa bezalako?, diosku Migelek; galdera da, mundu honetako gauzak jainkotzat hartzen ditugun guztioi egina. «Izan nahi al duzu Jainkoaren ama», galdegin dio Gabrieleke Mariari; galdera da, guri egina: izan nahi al duzu Jesusen lankide, Erreinua sortzeko? Rafaellek ikusmena eman dio Tobiasi; guri, itsuoi, egiten digun eskaintza da: nahi al duzu ikusi? Aupa eta izan konfiantza Jaunagan.

Urteko 26. astea.

San Jeronimo, *apaiza eta eliz irakaslea*.

[Job liburutik 9, 1-12. 14-16: Gizakiak ez du arrazoi Jainkoaren kontra. Sal 88 [87]: Hel bekizu, Jauna, nire otoitza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 57-62.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak bidean zihoazela, batek esan zion: «Noranahi jarraituko dizut». Jesusek erantzun zion: «Azeriek badituzte zuloak eta zeruko hegaztiek habiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri».

Beste bati esan zion: «Jarraitu niri». Baina hark erantzun: «Jauna, uztazu lehenik neure aitari lur ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Utzi hildakoei beren hildakoei lur ematen; zu zoaz Jainkoaren erreinua hots egitera».

Beste batek, berriz, esan zion: «Jarraituko dizut, Jauna, baina uztazu lehenik etxekoei agur egiten». Jesusek erantzun zion: «Goldeari heldu eta atzera begiratzen duena ez da gai Jainkoaren erreinurako».

**J**esusek eskatu dio ikasleari: 1) Prestasuna bera bezala bizitzeko, ez baitu izan burua non etzan: eskatu dio, soil-soil eta neurritsu bizitzea bakarrik ez, baizik eta nork bere burua ez babesteko norberaren ohitura eta tradizioetan, segurtasuna ematen diotelako, habia batek edo gordeleku batek bezala animalia bati. 2) Eskatu dio, utzi diezaiela «hildakoei» («espiritualki: Jainkoaren Erreinua onartu ez dutenei eta Jesusen deiarekiko sorgor direnei) hildakoak («fisikoki») lurperatzen. 3) Eskatu dio, ekin diezaiola jada bideari, gero gero ibili gabe; baizik eta ezar diezaiola eskua goldeari eta lurra lantzeari, herriminez atzera begira jarraitu gabe... zurrundu besterik egiten ez duen begiratuaz, gatz-irudi bihurtzen baikaitu –Lot-en emaztea bezala–.

\*\*\*

Urteko 26. astea.

San Jeronimo, *apaiza eta eliz irakaslea.*

**San Migel Aralarkoa**  
**Nor Jaungoikoa bezala?**  
 (Doinua: “Ave, Ave, Ave María...”)

MIKEL, MIKEL,  
 MIKEL GUREA,  
 GORDE, GORDE  
 EUSKALERRIA.

- |  |  |
|--|--|
| <p>1. Goazen euskaldunak<br/>         Aralarrera,<br/>         Mikel aingerua<br/>         bisitatzera.</p> <p>2. Aralar mendira<br/>         igo gaitezen,<br/>         Mikel ikustez<br/>         ez gera aspertzen.</p> <p>3. Aitortu dezagun<br/>         bere aurrean<br/>         nahiko dugula hil<br/>         geure fedean.</p> <p>4. Euskalen lurrean<br/>         ginaden jaio,<br/>         gure sinesthesia<br/>         bizirik dago.</p> <p>5. Gure aurrekoen<br/>         fede garbia<br/>         sekula gezurrez<br/>         nahasi ez dadila.</p> <p>6. Aurrekoetatik<br/>         dugu ikasi<br/>         oso zinez eusten<br/>         lege onari.</p> | <p>7. Egiak zizkion<br/>         gure herriari,<br/>         ondasun, mesede<br/>         asko ekarri.</p> <p>8. Ez dugu nahi hautsi<br/>         kristau legea,<br/>         ez dotrina gaiztoz<br/>         gaur nahastutzea.</p> <p>9. Osorik osoan<br/>         guztia gordez,<br/>         ez dezagun saldu<br/>         gezurren orde.</p> <p>10. Alferrik Satanas<br/>         lehiatuko da,<br/>         ez digu galduko<br/>         sinesthesia ona.</p> <p>11. Euskaldunak pobre<br/>         izan gintezke,<br/>         euskaldunik ez da<br/>         federik gabe.</p> <p>12. Aralartik Mikel<br/>         begira dago,<br/>         Luzbelek parterik<br/>         ez du izango.</p> |
|--|--|




## URRIA / URRILA

### AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:

Laikoen misioa Elizan.

**Egin dezagun otoitz:** Bataioaren indarra kontuan hartuz, laiko kristauek, emakumeek bereziki, partaidetza handiagoa izan dezaten Elizako erantzukizun-ekintzetan.



Urteko 26. astea.

Santa Teresa Jesus Haurrarena, *birjina eta eliz irakaslea*.

[Job liburutik 19, 21-27: Nik badakit nire eskubidearen babeslea bizi dela. Sal 27 [26]: Jaunaren ontasuna ikusi ustean nago bizidunen lurrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 1-12.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe hone-takoei!” Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitzete etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria. Ez ibili etxetz etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaitzete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”.

Baina herriren batean sartu eta onartzen ez bazaitzete, irten plazara eta esan: “Oinetan itsatsi zaigun zuen herriko hautsa ere hor asintzen dizuegu. Dena dela, jakizue hurbil dela Jainkoaren erreinua”. Begira: auzi-egunean Sodomak zigor bigunagoa izango du, herri hark baino».

**J**esusek 72 ikasle bidali ditu. Zenbaki horrek Hasiera liburuko 10. kapitulua zehar aipatzen du; hartan, zenbaki horrek lurreko herri guztien kopurua besarkatzen du. Esan nahi du, misioa orokorra dela, unibertsala. Bi aldiz esan du Jesusek misiolariiek aldarrikatu behar dutela: «Jainkoaren Erreinua zuengandik hurbil dago». Eta egon ere, hala dago, bai hiriko jendeak onartzen badu, bai ukatzen badu. Gai-xoak sendatzea, bizitza eta mahaia lege-aurreiritziak eta kezkek baino

Urteko 26. astea.

Santa Teresa Jesus Haurrarena, *birjina eta eliz irakaslea.*

harago partekatzea... salbazioa dakarren Erreinuaren hurbiltasuna ikusgarri bihurtzeko era zehatzak dira. «Bidean ez agurtu inor» delakoak misioak eskatzen duen presa premiatsua eta eskakizuna adierazten du. Honek guztiak galdera egitera garamatza: nolako da gure misio-irrika?

\*\*\*

### Gizakiarentzat zer?

Txakurrentzat txakurtegiak udalak,  
zezenketaren indarkeria salatu,  
katuentzat janari banatzaileak,  
katagorrientzat negu-laguntzak,  
txorientzat kaiola eta habiak,  
basapiztientzat babes-lege bereziak,  
erakunde mila,  
jaki mila, jantzi mila,  
lege mila abereentzat.  
Galzorian dagoen giza espeziearen babeserako, alabaina,  
erakunderik apenas sortzen den,  
bai, ordea, arma mila,  
muga mila,  
ezin mila,  
gizakiarentzat gizakia baita,  
gizon eta emakume,  
izan daitekeen etsairik porrokatuena.

*(Arantzazuko Egutegia, 2018-10-16)*

Urteko 26. astea.

AINGERU ZAINDARIAK.

San Saturio, *ermitaua*.

[Job liburutik 38, 1. 12-21; 40, 3-5: Egun batean ere agindu al diozu goizari? Iritsi ote zara itsasoaren iturburuetaraino? Sal 139 [138]: Gidatu ni, Jauna, betiko bidetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 1-5. 10.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?» Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien:

«Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni neu onartzen nau.

Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan».

**J**esusen garaian, haurra ez zen hartzen eskubidedun adin nagusiko izan arte; ez zen etxeko erdigune; ezdeus bat zen. Jesusek, berriz, jarraipen-eredutzat eman du haurra, ez beraren xalotasunagatik, baizik izan ohi duen konfiantza indargabeagatik eta indargabetzaileagatik. Haurra jakitun da, ezin duela ezer egin berez, eta laguntza eskatzen du bere premietarako, gurasoengan ipintzen du konfiantza. Baina, hain juxtu, «ezdeus diren horiengana», «txikietara» hurbiltzen da Jainkoa; halakoek gozatzen dute Jainkoaren lehentasunaz. Horregatik, halakoen aingeruak Jainkoaren aurrean daude beti, eskaintzen dien arretaren eta babesaren erakusgai. «Txiki horietako bati» harrera egiten dionak, Jesusi dio egiten, bat baita hau haiekin. Kontuz halakoak gutxiestearekin!



[Job liburutik 42, 1-3. 5-6. 12-16 (heb. 1-3. 5-6. 12-17): Orain, neure begiz ikusi zaitut! Beraz, damutzen naiz esandakoaz. Sal 119 [118]: Erakutsi aurpegi argia, Jauna, zeure zerbitzari honi.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 17-24.

Aldi hartan, hirurogeita hamabi ikasleak pozez beterik itzuli ziren, eta esan zioten Jesusi: «Jauna, deabruak ere menpean jartzen zaizkigu zure izenean».

Jesusek erantzun zien: «Tximista bezala zerutik erortzen ikusi dut Satanas. Begira, sugeak eta eskorpioiak zapaltzeko eta etsaiaren indar guztiak menperatzeko ahalmena eman dizuet, eta ezin izango dizue ezerk ere kalterik egin. Hala ere, ez poztu espirituak menpean jartzen zaizkizuelako; poztu, bai, zuen izenak zeruan idatzirik daudelako».

Une hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Eta, ikasleengana itzulirik, esan zien haiei bakarrik: «Zorioneakoak, zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak. Hara zer diotsuedan: profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuten ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuten entzun».

**N**ola Jesus hala ikasleak pozez gainezka ageri dira; izan ere, Erreina iritsi dela egiaztatu eta gaitza garaitua izaten ari dela nabari dute. Alabaina, gaizkiaren gain duten ahalmen hori, Jesusengandik datorkie (16. txatala) eta Jesusengan duten fedea bakarrik hondatu ahal ditu deabruak. Horregatik, adi egoteko esan die Jesusek, norberaren garai-

Urteko 26. astea.

San Frantzisko Borjakoa, *apaiza, jesuita*.

San Birila Leirekoa, *abadea (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*.

pena dela uste izatearen aurka. Hau da garrantzizkoa: Jesusen ahalmnaren tresna izan direla eta Jainkoaren arazoan lankide. Horregatik, beren izenak idatziak dituzte zeruan. Guri ere dagokiguna da gozamen hori. Zorioneko gara, jende xumeari agertzen zaion Aita ikusi dugulako, fedeaz, baita gaizkia menderatu duen Semea ere.

\*\*\*

### «Nik agindu guztia egingo duzuenean...» (Lk 17,10)

Zerbitzari huts gara

Ez zaitezte aspertu gizadiaren arazo handien kausaren bila ekin eta ekin. Konforma zaitezte halakoak konpontzeko zeuen esku duzuen egiteaz, zuen premia dutenei zeuen laguntza eskainiz. Zenbaitek esan ohi dit, karitatea eginez, bere erantzukizuna kentzen diodala Estatuari premian direnekiko eta pobreekiko.

Ez dit horrek buruhausterik eragiten, eskuarki Estatuek ez dute eskaintzen maitasunik. Besterik gabe, egin dezakedan guztia egiten dut, gainerakoa ez da nire eginkizun.

Hain onbera izan da Jainkoa gurekin! Maitasunez lan egitea, harrigana hurbiltzeko bide bat izaten da beti. Erreparatu Kristok egin zuenari lurreko bere bizitzan: «On eginez bizi izan zen» (Eginak 10,38).

Neure ahizpei gogorazten diet, Kristok jendaurreko bere hiru urteak gaixoak, lepradunak, haurrak eta beste sendatuz eman zituela. Horixe da, zehazki, geuk egiten duguna, ebanjelioa geure egitatez hots eginez.

Uste dugu, gainerakoei zerbitzatzea pribilejio bat dela. Bihotz-bihotzez egiten saiatzen gara uneoro. Ondo asko dakigu, gure egitate tanta bat besterik ez dela ozeanoan, baina gure egitate hau gabe tanta bat falta izango luke ozeanoak (*Kalkutako Teresaren meditazio*).

Urteko 27. astea.

San Frantzisko Asis-koa, *erlijiosoa eta fundatzailea*  
(*Frantziskotarrak*).

## § Isaias Profetaren liburutik 5, 1-7

Nire adiskidearen izenean nator kantatzera adiskidearen eta beraren mahastiaren kantua.

Nire adiskideak bazuen mahasti bat, mendi-malda jorian. Lurra harrotu, harriak kendu eta landare aukeratuak landatu zituen. Erdian talaiak eraiki zuen eta dolarea egin. Mahats ona espero zuen, eta sasi-mahatsa eman zion.

Orain, bada, Jerusalemgo bizilagunok, Judako gizon-emakumeok, erabaki zeuek nire eta nire mahastiaren arteko auzia. Zer egin niezaiokeen neure mahastiari, egin diodanaz gainera? Mahats ona espero nuen; zergatik eman dit sasimahatsa?

Esango dizuet, bai, zer egingo diodan neure mahastiari: hesia kenduko diot, larre bihur dadin; harresia zulatuko, zapal dezaten; lugorri bihurtuko dut: ez dute inausiko, ez jorratuko, eta sasiak eta laharrek hartuko dute; bertan euririk ez egiteko aginduko diet hodeiei.

Horra, bada: Israel da Jaun ahalguztidunaren mahastia, Judako herria haren landare-sail kuttuna. Zuzenbidea espero zuen Jaunak harrengandik, eta horra: zuzengabekeria! Justizia espero zuen, eta horra: aieneak!

[Sal 80 [79], 9 eta 12. 13-14. 15-16. 19-20 (R/. Is 5, 7a): Israel da Jaunaren mahastia.]

## § San Paulok Filipoarrei 4, 6-9.

Senideok: Ez izan ezeren kezkarik, baizik eta gorabehera guztietan agertu zeuen eskabideak Jainkoari, otoitz eta erregu eginez eta eskerrak emanez. Eta guk pentsa dezakeguna baino handiagoa den Jainkoaren bakeak gordeko ditu zuen gogo-bihotzak Kristo Jesusen bidez.

Gainerakoan, senideok, hartzazue aintzakotzat egiazko, gizabide-tsu, zuzen eta garbi den guztia, maitagarri eta goresgarri, bertutetsu

Urteko 27. astea.

San Frantzisko Asis-koa, *erlijiosoa eta fundatzailea*  
(*Frantziskotarrak*).

eta onargarri den guztia. Egizue nigandik ikasi, hartu eta entzun zenu-tena eta nigan ikusia. Eta bakea ematen digun Jainkoa zeuekin izango duzue.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21, 33-43.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburuei eta herriko zaharrei: «Entzun parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu; bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen; gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen.

Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, fruitutik zegokion partea jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. Berrito beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenean, bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”.

Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk. Hil dezagun eta guretzat izango duk ondarea”. Heldu zioten, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten». Jesusek galdetu zien: «Zer egingo die nekazari horiei mahasti-jabeak, itzultzean?»

Erantzun zioten: «Errukirik gabe hilko ditu, eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia».

Jesusek esan zien: «Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri: “Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?”

Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio».

**M**ateoren bertsioan, parabolaren azkena Markosenean eta Lukasenean ez bezalakoa da. Nagusiak, Jainkoak, mahastia, erreinua, Is-

Urteko 27. astea.

San Frantzisko Asis-koa, *erlijiosoa eta fundatzailea*  
(*Frantziskotarrak*).

raeli kendu, eta fruiturik emango duen herri bati emango dio. Aurretzean, herri hautatuak Jesusek hots egindako Erreinu onartzeari uko egin diolako, ikasleen misioa nazio guztiei hots egitea izango da, herri berri bat –Israel berri bat– eratzeko, fruiturik emango duen bat. Parabola zorrotz eta hunkigarri honek guztiok interpelutzen gaitu: ez da esaten, besterik gabe, Erreinu Elizaren arazo izango denik, baizik eta fruiturik emango duen herri batena. Azterketa kolektiboa eta pertsonala egiteko gonbita da. Izan ere, teoriarik, fruitu berririk eman behar duen herri –mahasti– berri horretako kide gara. Baina, hala ote gara? Isaiazen abestian mahasti-jabeak espero zituen fruituak, hauek ziren: zuzenbidea eta zuzentasuna ezartzea. Ba al da gure elizetan gizarte-sentiberatasun sozialik, zuzengabekeriaren aurka beti azti egotera eragiten duenik? Eta gure bizitzan, Jainkoak, berak halako arreta eskaini ondoren, mahatsa espero zuen; eman dioguna, ez al da izan mahats garratza? Azterketa, asmoz aldatzeko izan ohi da, behar izanez gero.

Urteko 27. astea.

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA.

San Froilan Leon-goia, *ermitaia eta gotzaina*.

### § Deuteronomio liburutik 8,7-18.

Egun haietan, honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Jaunak, zure Jainkoak, lurralde ederrera eramango zaitu: lurralde oparoa da, erreka, iturriz eta ibarretan eta mendietan sorturiko iturburuz hornitua; gari, garagar, mahasti, pikondo, mingranondo, olibondo, olio eta eztiz hornitua. Ogia neurrigabe jan ahal izango duzu eta ez zaizu ezer ere faltako. Hango harriek burdina dute eta mendietatik kobrea aterako duzu. Ase arte jango duzu, beraz, eta Jauna zeure Jainkoa be-deinkatuko duzu, eman dizun lurralde ederragatik.

Baina, kontuz! Ez ahaztu Jauna zeure Jainkoa, gaur ematen dizkizudan haren agindu, lege eta erabakiak bazterrerara utziz. Ez dadila gerta, ase arte jatean, zeuk eraikitako etxe ederretan bizitzean eta zeure behiak eta ardiak, zilarra eta urrea eta era guztietako ondasunak gehitzean, zeu harrotu eta Jauna zeure Jainkoa ahazturik uztea. Berak atera zaitu Egiptotik, esklabotza-lurraldetik; berak eraman zaitu suge pozoitsuz eta eskorpioiz betetako basamortu handi eta ikaragarrian barrena, urik gabeko eremu elkor horretan barrena, berak atera du sukarritik ura eta edaten eman dizu; berak eman dizu jaten basamortuan zure gurasoek ezagutu ez zuten mana. Atsekabetu eta probatu zaitu, bai, baina azkenean zure onerako izan da.

Ez esan zeure buruari: “Neure indarrez eta trebeziaz lortu ditut ondasun hauek guztiak”; gogora ezazu Jaunak, zeure Jainkoak, ematen dizula ondasun horiek lortzeko indarra; horrela, leial eusten dio gaur ere zure gurasoei zin eginez hitzemandakoari».

[Salmoa: 1 Kronikak 29: Zeureak dituzu, Jauna, handitasuna eta indarra.]

### § San Paulok 2 Korintoarrei 5,17-21.

Senideok: Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da. Hau guztia Jainkoagandik dator, Kristoren bitartez be-

Urteko 27. astea.

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA.

San Froilan Leon-goa, *ermitaua eta gotzaina*.

rekin adiskidetu baikaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua guri eman digu. Izan ere, Jainkoa zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen ari zena, gizon-emakumeei bekatuen kontua eskatu gabe, eta guri eman digu adiskidetzearen mezua.

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskidetu zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamera iritsi genezan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,7-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio.

Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei!»

**G**urasoek, askotan, ez dute haurrak eskatu beharrik izaten haren premia batez ohartzeko; halere, haurrak eskatzea nahi izaten dute, aita-gan eta amagan konfiantza eta segurtasuna jarriz; era bertsuan ari zaigu Jesus, etengabe eskatzera gonbidatuz; ez, noski, Aitari zerbait indarrez-edo kentzeko, beti baitago hura emateko prest, baizik eta, garena garelara eta bizi duguna bizi dugula kontuan hartuz, nahigabetzen eta kezkatzen gaituen geure zoritik beretik harekin harremanak sustatzeko. Bizitzako alderdi guztiak egin behar dira otoitz, ez Aitari zerbait falta zaiolako, baizik eta guk harekin jardun beharra dugulako. Bestetik, jendeari eta gauzei lotuak gara gu. Horregatik, gauza jakinak eskatzen ahal dizkio-

Urteko 27. astea.

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA.

San Froilan Leon-goia, *ermitaua eta gotzaina*.

gu Jainkoari. Baina Aitak – batez ere, Aita hori Jainkoa denean– ondo daki zer zaigun komeni. Jainkoak beti entzungo ditu eta beti erantzungo die gure erreguei, baina ez digu beti eskatua dugun hura emango, nahiz eta beti emango dizkigun «gauza onak», mesede egingo digutenak. Agian, eskari-otoitza ez da beharrezkoa izango filosofoen Jainkoaren aurrean, zeinen aurrean ezin baita inor belauniko jarri, ez otoitzik egin (Heidegger-ek esana), baina bai gizadiari agertu zaion Jainkoaren aurrean, gure ahuldadera hurbildu eta salbatu gaituenaren aurrean.

\*\*\*

### Txundidura eta esker ona

Eskerrak, Jauna, nire gorputzagatik:  
beraren hainbat gauza ematen ditut jakindakotzat:

Eskerrak, Jauna, neure gorputzagatik:  
Zure erregalu eta nire altxorrik estimatuena  
mundu honetan ibiltzeko.

Joateko eman dizkidazun oinengatik  
nire anai-arrebekin topo egitera,  
eskerrak, Jauna.

Zutik eusten didaten hankengatik,  
inoiz ere nekatu gabe nitaz,  
eskerrak, Jauna.

Eskuengatik, tresna baliagarri,  
lanerako, zerbitzatzeko eta besarkatzeko,  
eskerrak, Jauna.

Ezpain, aho, hortz eta mihiagatik,  
barre egiteko, hitz egiteko eta jateko gozoro,  
eskerrak, Jauna.

Begiengatik, aurkitzeko eta ikusteko  
hainbat zoramen eta edertasun neure inguruan,  
eskerrak, Jauna. (*Florentino Ulibarri*)  
(*jarraituko du urriaren 9an, 528. or.*)



Urteko 27. astea.

San Bruno, *fundatzailea* (Kartusiarrak).

[San Paulok Galaziarrei 1, 13-24: Bere Semea agertu zidan, haren Berrri Ona jentilei iragartzeko. Sal 139 [138]: Gidatu ni, Jauna, betiko bidetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 38-42.

Aldi hartan, Jesus herrixka batean sartu zen, eta Marta zeritzan emakume batek etxean hartu zuen. Bazuen honek Maria izeneko ahizpa bat, eta hau, Jaunaren oinetan eserita, haren hitza entzuten zegoen.

Marta, berriz, lanpetua zebilen etxeko zereginetan. Orduan, Martak Jesusen aurrean jarri eta esan zion: «Jauna, ez al dizu axola nire ahizpak lan guztia nire gain uztea? Esaiozu laguntzeko». Jaunak, orde, erantzun zion: «Marta, Marta, gauza askorengatik zabilta kezkatua eta larri; baina bakarra da beharrezko. Alderdirik onena aukeratu du Mariak, eta ez dio inork kenduko».

**J**esusek samariar onaren parabola jaulki eta lege-maisuari «Zoaz eta egin zeuk ere gauza bera» esan ondoren, berehala gertatu da eszena hau. Jesusek errukizko egintzak egitera eragin ohi zion jendeari, zerbitzari izatera. Beraz, Jesusek ez du gutxietsi Marta, ezta baliogabetu ere bere zerbitzu-jardueragatik, baizik bere ekin behararren ekin beharregatik, aritzearen aritzeagatik, hitza entzuteari tarterik ez uzteagatik. Samariar onaren pasarte eta Marta eta Mariarena elkarren osagarri dira, beraz, eta ez bata bestearen kontrako. Haietan esan digu: «Zoaz eta egin zeuk ere gauza bera», «Entzun ezazu Mariak bezala Jaunaren Hitza; hau duzu lehen gauza». Baina entzuteak, egitxia bada, Jesus bezala zerbitzuan konprometitzera eramango zaitu eta indarra emango dizu.

Urteko 27. astea.

Arrosarioko Andre Maria Birjina.  
Santana Justina, *birjina eta martiria*.

[San Paulok Galaziarrei 2, 1-2. 7-14: Jainkoak niri emandako dohaina aintzat hartu zuten. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 1-4.

Aldi hartan, Jesus otoitzean ari zen leku batean; bukatu zuenean, ikasleetako batek esan zion: «Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joanek bere ikasleei irakatsi zien bezala».

Jesusek esan zion: «Otoitzegitean, esazue:

“Aita, santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, emaguzu egunean eguneko ogia, eta barkatu gure bekatuak guk ere zor diguten guztiei barkatzen diegunez gero, eta ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen”».

**J**esusen berariazko lau otoitz jaso ditu Lukasek: Aita aintzatzea (Lk 10,21-22); Olio-mendiko otoitza (22,42); borraroen aldeko otoitza (23,24), eta gurutzeko otoitza (23,46); baina Lukasek gaurko pasarte honetan bakarrik esan digu, Jesusek bere hitzez irakatsi diela ikasleei otoitz egiten. Eta Jesusek irakatsi dien otoitz hori Jainkoari Aita esanez hasten da. Jesusek erregutu digu, haur batek bere burua aitaren eskue-tan jartzen duen bezalako konfiantzaz jarri behar dugula Jainkoaren aurrean. GURE AITAK, geure Aita dugun Jesusen Aitarekin seme-alaben harremanak bizitzera gonbidatzen gaitu; aldi berean, bizi-egitaraua dugu GURE AITA hori: partaide izan nahi dugu «beraren Erreina etortzeko» lanbidean.

Urteko 27. astea.

Santa Pelagia Antiokia-koa, *birjina eta martiria*.

[San Paulok Galaziarrei 3, 1-5: Legea betetzeagatik ala mezuari sinesenez erantzuteagatik hartu duzue Espiritua? Sal: Lk 1: Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 5-13.

Aldi hartan, esan zien Jesusek ikasleei: «Eman dezagun, zuetako batak adiskide bat duela eta gauerdian datorkiola, esanez: “Adiskide, emazkidak hiru ogi, itzuliko ditiat eta; lagun bat etorri zaidak bidaian eta ez zeukaat zer eskaini”. Eman dezagun, besteak barrutik erantzuten diola: “Utz nazak bakean! Atea itxia zegok, eta haurrak eta neu oheratuak; ezin naitekek ematera jaiki”. Hau diotsuet: adiskidea duelako ez bada ere, aspergarri izan ez dakion behintzat, jaiki eta emango dio behar duena».

Hau diotsuet, beraz: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitu, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, aita izanik, semeak arraina eskatuta, sugea emango ote dio arrainaren orde? Edota arrautza eskatuta, eskorpioia emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez ote die zeruko zuen Aitak Espiritu Santua emango eskatzen diotenei?»

**O**toitza beti aditu ohi du Jainkoak: baina hartzen duguna ez da izango, besterik gabe, eskatu dugun hura, baizik eta Espirituaren dohaina. Bere dohainik hobena emango digu Aitak: Espiritua, eska genitzakeen gauza guztien betearen betea. Zer falta izan lezake Espiritu hori duenak? Batzuetan, hain juxtu, hartua dukegun Espirituaren dohain horrek berak gidatuko gaitu onartzera geure gainetik kentzeko Jainkoari eskatu diogun hura, edota geuk egitera bultzatuko gaitu Jainkoari egiteko eskatu diogun hura (F. Riera). Espirituak indarra emango digu egoerei adoz eta era berri batean aurre egiteko, eskaria egitera eragin diguten egoerei, alegia. Espirituak gure baitatik aterako du indarra, ez genuela uste genuen hura.

Urteko 27. astea.

San Dionisio, *gotzaina*, eta lagunak, *martiriak*.

San Joan Leonardi, *apaiza*, *botikari*en zaindaria.

[San Paulok Galaziarrei 3, 7-14: Fedez bizi direnek hartzen dute bedein-kazioa Abraham sinestedunarekin batera. Sal 111 [110]: Gogoan du beti Jaunak bere ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 15-26.

Aldi hartan, Jesusek deabru bat bota ondoren, jendarteko batzuek zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten.

Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua erraustu egingo da eta etxea etxearen gain eroriko. Era berean Satanas ere: bere baitan zatiturik badago, nola iraun dezake haren erreinuak? Zuek diozuenek, Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen ditut. Baina Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen badituzte, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarrez botatzen badituzte, garbi dago iritsi dela zuengana Jainkoaren erreinua.

Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen duen birtartean, seguru dauzka bere ondasunak. Baina indartsuago den batek eraso eta menderatzen badu, segurantzia ematen zioten armak kendu eta banatu egiten ditu hari harrapaturiko ondasunak. Nire alde ez dagoena nire aurka ari da, eta nirekin biltzen ez duenak sakabanatu egiten du.

Espiritu gaiztoa, norbaitengandik atera ondoren, leku idorretan barrena ibili ohi da atsedean bila; baina aurkitzen ez duelarik, bere buruari esaten dio: “Itzul nadin atera nintzen neure etxera”. Iristean, etxea garbitua eta apaindua aurkitzen du. Orduan, joan eta beste zazpi espiritu hartzen ditu, bera baino gaiztoagoak, eta gizakiagan sartu eta bertan jartzen da bizitzen. Horrela, pertsona horren azken egoera lehengoa baino okerragoa gertatzen da».

Urteko 27. astea.

San Dionisio, *gotzaina*, eta lagunak, *martiriak*.  
San Joan Leonardi, *apaiza*, *botikari*en zaindaria.

«**N**ik deabruak Jainkoaren eskuz botatzen badituz, seinalea iritsia dela zuengana Jainkoaren Erreinua». Jesusek baieztapen hau, herriko jendeak salaketa bat leporatu diolako egin du –oraingoan salatzaileak ez dira agintari erlijiosoak–, deabruaren ahalmenaz jokatzeko duela bota baitiote; baieztapen hau kontsolamendu eragile baterako sorburu da. Gizakia zapaltzen duen gaitzaren indarrak garaituz goazen neurrian, oinarriz doa Jainkoaren Erreinua. Erreinuaren alde lan egitea ahalegin askatzailea da, beraz, sufrimendua arintzea da, esklabo bihurtzen gaituzten loturak haustea. Erreinu hori bere betera iritsi bitartean, aurre egin beharrean gara egunean eguneko geure gaitzari, okerrari, Jesusengan dugun fedea sostengutzat hartuz.

\*\*\*

### Txundidura eta esker ona

(*urriaren 5etik, 523. orritik dator*)

Neure sexu maitagarriagatik  
sentitzeko eta adierazteko,  
eskerrak, Jauna.

Nerbioengatik, eroale laster eta sentibera  
sentsazio eta emozioenak, eta nire gurarienak,  
eskerrak, Jauna.

Ene buruagatik, jeinu ederra,  
pentsatzeko, isil lanerako, ordenatzeko,  
eskerrak, Jauna.

Babes dudan larruagatik,  
forma emanez eta itxura eta segurtasuna,  
eskerrak, Jauna.

Bihotz nekazekin honengatik,  
maite duena eta bera maita dezaten uzten,  
eskerrak, Jauna.

Nire gorputz osoarengatik, semurtasun egina  
zure eskuek eta zure ufadak,  
eskerrak, Jauna. (*Florentino Ulibarri*)

Urteko 27. astea.

San Tomas Villanueva-koa, *gotzaina, agustindarra*.

San Daniel Comboni, *fundatzailea (Konbonianoak)*.

[San Paulok Galaziarrei 3, 22-29: Guztiok Jainkoaren seme-alaba zarete sinesmenari esker. **Sal 105 [104]:** Gogoan du beti Jaunak bere ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!»

Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

**J**esusek ez du gezurtatu esapide hori —«Zorionekoa eraman zintuen sabela»—; baina ñabardura bat erantsi dio. Aitortu du, beraren ama gorespen hori hartzeko duin dela, baina ez, hain zuzen, halako semea sortu duelako, baizik eta, funtsean, Jainkoaren hitza aditu eta bete duelako: «Zorionekoak, hobeki esan, Jainkoaren hitza aditu eta betetzen dutenak». Jesusen ama ere barne hartzen duen zoriontasuna da, beraz; izan ere, Jesusekin duen haragi- edo odol-loturaz baino gehiago, Jainkoaren hitza aditu eta onartu duen fededuna delako da Maria zorioneko. Herriko emakumeak egin duen gorespen hori, Jesusek erantsi dion ñabardura gehituz, geure-geure egiten dugu «Agur Maria» otoizten dugun bakoitzean.

## § Isaias Profetaren liburutik 25, 6-10a.

Egun hartan, jai-otordua emango die Jaun ahalguztidunak mendi honetan herri guztiei, jaki guri eta edari bikainekin, haragi mamitsu eta ardo zahar finekin.

Mendi honetan kenduko du herri guztien gainean hedatua dagoen destalkia, nazio guztiak estaltzen dituen oihala.

Betiko hondatuko du heriotza; xukatuko ditu Jainko Jaunak aurpegi guztietako negar-malkoak eta lur osotik aldenduko du bere herriaren lotsa, Jaunak hitz egin baitu.

Eta egun hartan esango da: «Hara gure Jainkoa! Itxaro genuen salbatuko gintuela; Jauna da: harengan genuen itxaropena. Poztu gaitzen eta alaitu, salbatu gaituelako. Jaunaren eskua mendi honetan kokatuko da».

[Sal 23 [22]: Jaunaren etxean naiz biziko luzaroen luzaro.]

## § San Paulok Filipoarrei 4, 12-14. 19-20.

Senideok: Badakit urritasunean nahiz ugaritasunean bizitzen; edozein egoeratarako zaildua nago eta edozertara jarria: aserik nahiz goseak egotera, ugari edukitzera nahiz beharrianera. Dena dezaket indartzen nauen Kristogan. Nolanahi ere, ongi egin zenuten nire atsekabeen zeuen solidaritatea agertzean.

Ordainetan, nire Jainkoak oparo beteko du zuen eskasia guztia, bere aberastasunen arabera Kristo Jesusengan. Aintza Jainko gure Aitari menderen mendetan. Amen.

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 1-14.

Aldi hartan, Jesusek berriro parabola bidez hitz egin zien apaizburuei eta herriko zaharrei: «Zeruetako erreinuarekin bere semearen

\* San Joan XXIII.a, 261. *aita santua*.  
(*Ikus beherago Begoñako Andre Mariaren Meza*)

Urteko 28. astea.

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiko zaindaria).

Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea*

(*Mariaren Mirabeak*).\*

ezteiak ospatu zituen erregearekin bezala gertatzen da. Bidali zituen morroiak gonbidatuei dei egitera, baina haiek ez zuten etorri nahi izan.

Berriro beste morroi batzuk bidali zituen mandatu honekin: “Esaiezue gonbidatuei: Hara, gertu daukat bazkaria; hilak ditut zezenak eta zekor gizenduak, prest dago dena. Zatozte ezteietara”. Baina gonbidatuek ez zioten jaramonik egin: bata bere lurretara joan zen, bestea bere negozioetara eta gainerakoek, morroiei heldurik, irainez bete eta hil egin zituzten.

Haserretu zen erregea eta, bere soldaduak bidaliz, hil egin zituen hiltzaile haiek, eta su eman haien herriari.

Gero, bere morroiei esan zien: “Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai. Zoazte, bada, bidegurutzetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak”. Atera ziren morroiak bideetara eta aurkitutako guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto. Eztei-gela bazkaltiarrez bete zen.

Erregeak, bazkaltiarak ikustera sartu zenean, eztei-jantzirik gabe zegoen bat ikusi eta esan zion: “Adiskide, nolatan sartu zara hona eztei-jantzirik gabe?” Hark hitzik ez. Erregeak mahai-zerbitzariei esan zien, orduan: “Esku-oinak lotu eta bota ezazue kanpora, ilunpera; han izango da negarra eta hortz-karraska!” Zeren gehiago baitira deituak, aukeratuak baino».

**I**sraelen aurkako epai gaitzesle hau, mezulariei (nola profetei hala Jesusen mezulariei) uko egin zielako, ezin hartu du herri haren lekuan jarria den elkarreak bere buruaz harrotzeko arrazoitzat. Artean ez dago ezer erabakirik gonbita onartze hutsagatik, bataiatu eta elkartean sartze hutsagatik. Elkartean batzuk besteekin bizi dira onak eta gaiztoak. Kideak ez dira, beraz, artean, salbazioaren jabe. Beren fedea egitatean bidez egiaztatu beharko dute. Hori adierazi nahi du ezteietara joan den, baina jai-jantzi garbirik gabe etorri denak. Azken esapide honekin, Ma-

\* San Joan XXIII.a, 261. aita santua.  
(*Ikus behegoko Begoñako Andre Mariaren Meza*)



teok interpelatu egin nahi gaitu: ez da aski fede-elkartean (Elizan) itxura eginez egotea. Benetan «barnean» egoteko eta, horrela, Jainkoaren Erreinuaren dinamikan parte hartzeko, «biziera berezi bat» bizi behar da –«jantzi egoki bat» jantzi behar da–. Gonbitari egiazko harrera egiteak «jantzi zaharra» aldatzea eskatzen digu, berri bat janztea. San Paulok esana zuen jada: «Kristoz jantzi beharra dugu». Kristauak Kristoren sentimenduak berak izan behar ditu, Kristoren irizpide eta balore berak; «Jesusen harira» bizi behar du. Hori adierazi nahi du jantzi «garbi eta egokiak». Gonbitari harrera egitean, jantzi al dugu arropa hori?

\*\*\*

### BEGOÑAKO ANDRE MARIAREN MEZA

[Ben Sirak 24,17-22: Maria, jakinduriaren aulkia. Salmoa: Lukas 1: Handiesten du nire arimak Jauna. San Paulok Galaziarrei 4,4-7: Bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,43-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemera joaten ziren urtero erromes Pazko -jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemera igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukaturik gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren haren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zituenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina

\* San Joan XXIII.a, 261. *aita santua*.

Urteko 28. astea.

**Begoñako Andre Maria Birjina** (Bizkaiko zaindaria).

Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea*  
(*Mariaren Mirabeak*).\*

zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark erantzun zien: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien.

Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen.

### **Begoñako Andre Maria**

Begoñako Andre Mariaren, Bizkaiko Zaindariaren, egun honetan, liturgia-ospakizunerako aukeratutako ebanjelioak, Jesus Haurraren gertakariaz, «galdu eta tenpluan aurkitua» izan zenaz, hitz egin digu. Lukas ebanjelariak, zera esanez amaitu du ebanjelioko pasarte hau: «Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak». Mariaren bizitzako ezaugarriak sakonenetakoak laburbiltzen duen esaldia da: sinesmena bihotzean bizi; Jainkoaren hitzaz fidatu zen Maria Deikunde edo Iragarpen egunetik beretik; zeruratua izan zenean, hara eraman zezan utzi zion Jainkoari. Mariak jakin zuen Jainkoari entzuten bere bizitzan, eta gure belarriak irekitzen ditu, Jesusen hitza gure barnera ere sar dadin. Andre Maria, otoitz egizu gure alde!

*Begoñako Andre Maria*



\* San Joan XXIII.a, 261. *aita santua*.

Urteko 28. astea.

Pilare-ko Andre Maria.

San Joan Beyzym, *dohatsua, apaiza, jesuita.*

§ **Kronikak 1 liburutik 15,3-4.15-16; 16,1-2:** Ekarri zuten Jainkoaren kutxa, eta Davidek harentzat eraikia zuen oihal-etxolaren erdian ipini zuten. **EDO Apostoluen Eginak liburutik 1,12-14:** Jesusen ama Mariarekin otoitzari emanak bizi ziren. **Sal 27 [26]:** Jaunak koroatu nau eta zutabe gainean goratu.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.**

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!»

Baina Jesussek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

**Z**enbat jende eta zenbat aldiz ez da hurbildu Pilareko Andre Mariagana Agur Maria bat otoizteko! Urrundik bada ere, egin dezagun hori bera orain. Pilareko Andre Mariak, zur-tailuz txikiak, bere besotan du Jesus, jendeari erakutsiz: horrela, Jesusengana garamatzen ama erregutzaila ageri da. Horregatik, konfiantzaz erregutzen diogu «geure alde», beraren Semearen anaia-arreba txiki garenontzat. Eta erregutu dezala «bekatari» garelako, nekez esaten diogunak garelako «bai» Jainkoaren hitzari berak agertu zuen konfiantzazko prestasunez. Beragana jo nahi dugu, bere pribilegioek –Sortzez Garbia eta Jainkoaren Ama izateak, hainbat aldiz gure debozioak eta txerak koroatu dutela jakiteak, edota, Pilarean gertatzen zaionez, mantua egunero aldatzen diotela ikusteak...– ez baitute urrundu gure begi-bistatik, ezta aldendu ere gugandik. Andre Mariak badaki, zerbait baino gehiago, borrokez eta garaipenez. Horregatik esaten ahal diogu, otoitz egizu gugatik «orain», gure borroketatik hurbil zarelako. Izan zaitetz zu gure fedearen «pilare»; lagundu iezaguzu fede horri irmo eusten, zeuk egin zenuen bezala, «zorioneko izan baitzinen sinetsi zenuelako». Eta eska diezaiogun, gure «heriotzako orduan» egin dezala beste behin bere zeregin hobetsia: gu Jesusengana eramatea. Horrela beteko da gugan ere, eta betiko, esapide herrikoi hura: «Jesusengana Andre Mariaren bidez».

Urteko 28. astea.

San Romulo, *gotzaina*. San Fausto, *martiria*, *laboraria*.

Santa Zeledonia, *birjina*, *beneditarra*.

[San Paulok Galaziarrei 5, 1-6: Erdaindua izateak edota ez izateak ez du ezer balio; maitasun-egintzetan agertzen den sinesmena da balio duena. Sal 119 [118]: Betorkit, Jauna, zure maitasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 37-41.

Aldi hartan, Jesusek hitzaldia bukatu zuenean, fariseu batek bere etxean bazkaltzera gonbidatu zuen. Sartu zen Jesus eta mahaian jarri. Fariseua harriturik gelditu zen bazkal aurretik eskuen garbikuntzarik egin ez zuela ikustean.

Orduan, Jaunak esan zion: «Zuek, fariseuok, edalontzia eta platera kanpotik garbitzen dituzue, zeuek barrutik lapurretaz eta gaiztakeriaz beterik zaudetelarik. Zentzugabeok halakook! Ez ote du kanpoko egin zuenak berak egin barrukoa ere? Hobe zenukete daukazuena limosnatzat emango bazenute! Horrela, gauza guztiak garbi izango lirateke zuentzat».

**E**rlijiori dagozkionetan, barne ikusmoldea kontrajarri dio Jesusek kanpo ikusmoldeari. Jainkori axola zaiona, ez dira kanpo errituak –kasu honetan garbiketa–, baizik barnea bera, «barrukoa», bihotza, gizakiaren sakontasun barnenekoaren sinbolo den aldetik. Jainkoak bihotza du ikusten (Eginak 1,24; 15,8); badaki zer dagoen errituzko garbitasunaren fariseu-iturapean: diru-gosea, lapurreta, iruzurra. «Barrukoa» delako hori behar da garbitu. Eta konbertsio garbitzailearen adierazpiderik hobena den hori kontrajartzen zaio diru-goseari; dohaina, alegia: eskuzabaltasuna, partekatzea. Horregatik, behartsuei «dimosna» ematean «barrukoa» ematen zaienean –diru-gosea, iruzurra... deseginez–, orduan gelditzen da bat garbi, hau da, erabat garbi Jainkoaren aurrean.

Urteko 28 astea.

San Kalisto I.a, 16. aita santua eta martiria.

[San Paulok Galaziarrei 5, 18-25: Kristorenak direnek gurutzean erail dute bekatuzko beren giza izaera, beronen grinekin. **Sal 1**: Zuri jarraitzen dizunak, Jauna, bizirako argia izango du.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 42-46.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Ai zuek, fariseuok! Barazkirik kaxkarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue, eta zuzenbidea eta Jainkoaren maitasuna, berriz, alde batera uzten. Hauek bete behar zenituzten, haiek baztertu gabe.

Ai zuek, fariseuok! Sinagogetan aurreneko aulkiak eta plazetan jendearen agurrak maite dituzue!

Ai zuek! Ikusten ez diren hilobiak bezalakoak zarete, jendea ohar-kabea haien gainetik baitabil».

Orduan, lege-maisu batek esan zion: «Maisu, horrela hitz eginez, gu ere iraindu egiten gaituzu». Jesusek erantzun zion: «Ai zuek ere, lege-maisuok! Eraman ezineko zamak leporatzen dizkiezue besteei, eta zeuek atzamar batez ere ukitu ez».

«**F**ariseuen eta lege-maisuen aurkako Jesusen gorbizatasuna –idatzi du Ch. Duquoc kristologoak–, “txikien” aldeko gorbizatasuna da». Jesusek aurre egin zien fariseuei; haietaz esaten zuen seinالاتu gabeko hilobi zirela, jende xumea, garbitu ordez, kutsatu egiten zutela legalismo xehez, maitasun gabekoz. Aurre egiten zien lege-maisuei ere, jendea xehatzen zuten zamak ezartzen zizkiotelako. Jainkoari itzuli nahi izan zion jende haren askatasuna, askapen-indarra (ez, ordea, derrigorrezkoa). Jesusen askatasuna ez zen izan Legeari itsu-itsuan kateatzea biltzen duen gizakiarena; Legearen espiritua nahi zion agertu jendeari: Aitarekiko seme-alaben obedientzia maitatia; hark «larunbata gizakiarrentzat egin baitu eta ez gizakia larunbatarentzat».

Urteko 28. astea.

Santa Teresa Jesusena Avilakoa, *birjina eta eliz irakaslea*.

[Ben Sirak 15,1-6: Jakinduriaraz eta adimen-espirituz beteko du eta soinekorik ederrenaz jantziko. Sal 89 [88]: Iragarriko diet zure izena neure senideei, goretsiko zaitut batzarraren erdian.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik.

Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarrria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarrria leuna baita, eta nire zama arina».

**J**akinduriaraz eta xumetasunaz mintzo zaizkigu irakurgaiak. «Santu kezkati eta ibiltari» haren, Jesusen Teresaren, ezaugarri zirenak sintetizatu nahi dituzte. Elizako Irakasle da –hala deklaratu zuen Paulo VI.ak–, inongo unibertsitatetan ikasi ez bazuen ere. Baina onartua zuen Jesusen deia: «Zatoz eta ikasi». Eta ikasi zuen, bai horixe. Eta, ondoren, irakatsi zigun. Bere prosa fresko umoretsuaz eta poesia biziak, jende asko eta kongregazio erlijioso asko elikatu ditu eta jarraitzen du elikatzen. Bere idazkietan bere fundazioetako joan-etorri eta pasadizoak kontatu ditu, baita Egoitza espiritualetarako igoerak eta bere aitor-entzuleekin izandako zailtasunak ere... Bizitza mugitua bizi izan zuen, baina beti ulertu zuen, jasateko Jesusek eskatu zion uztarrria, harekin berarekin, bere maite handia zuen harekin, partekatutako uztarrria zela.

[San Paulok Efesoarrei 1, 11-14: Lehendik Mesiasengan itxaroten genuen guk; zuek ere Espiritu Santuaz, zigiluz bezala, markatuak izan zarete. Sal 33 [32]: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 1-7.

Aldi hartan, milaka eta milaka lagun bildu zen, elkar zapaldu beharrean. Jesus hizketan hasi zitzaian, lehenik ikasleei zuzenduz: «Bili kontuz fariseuen legamiarekin, hau da, itxurazalekeriarekin. Ez dago ezer gorderik agertuko ez denik, ezta ezer ezkutuan ere jakingo ez denik. Zeren gaueko ilunean esan duzuen egun-argitan entzungo baita, eta etxe-zokoan belarrira esan duzuen etxe gainetik hots egingo.

Zuei diotsuet, ene adiskideoi: ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina hortik aurrera ezer egiterik ez dutenei. Esango dizuet nori beldur izan: izan beldur hiltzeko eta ondoren infernura botatzeko ahalmena duenari. Bai, horri izan beldur!

Ez al dira bost txori bi txanponetan saltzen? Hala ere, haietako bat bakarra ere ez dauka Jainkoak ahazturik. Zuen buruko ile guztiak ere zenbatuak ditu Jainkoak. Ez, bada, beldur izan: txori guztiak baino gehiago duzue balio zuek».

**1.** – Gurekiko bere txera azalduz hasi da Jesus: «zuei, ene adiskideoi, diotsuet». **2.** – Eta Maisuaren aginpideaz irakasten jarraitu du: Ez beldur izan gorputza bakarrik erail dezaketenei. Heriotza baino ahaltsuagoa da Jainkoa, eta berpiztuko zaituzte. Baina, bai, izan beldur heriotzaren ondoren epaile izango den Jainkoari. Ez da ikara-kontua, baizik beldurraz ari da, jatorrizkoan errespetua, benerazioa, seme-alaben obedientzia esan nahi duenaz. **3.** – Eta konfiantza izan dezagun erregutuz bukatu du Jesusek; konfiantza «Jainko horrengan, fida zintezkete horretaz pertsekuzio-aldian ere, larrialdian ere; balio handiko zarete berarentzat, berak arduraz zaintzen dituen txolarreak eta zuen buruko ileak baino balio handiagoko. Izan, beraz, konfiantza; izan ere, fedearen kontrakoa ez da federik eza, baizik ikara».

Urteko 28. astea.

San Ignazio Antiokiakoa, *gotzaina eta martiria*.

[San Paulok Efesoarrei 1, 15-23: Kristo ezarri du Elizaren buru. Haren gorputza da Eliza. Sal 8: Zeure eskulan guztien buru ipini duzu zeure Semea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 8-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko du Gizonaren Semeak ere Jainkoaren aingeruen aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dute Jainkoaren aingeruen aurrean. Gizonaren Semearen aurka zerbait esaten duenari barkatuko dio Jainkoak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenari ez dio barkatuko.

Sinagogetara, buruzagien eta agintarien aurrera, eramango zaituztetenean, ez ibili kezkatan nola egin edo zer esan zeuen alde, Espiritu Santuak adieraziko baitizue une hartan bertan zer esan behar duzuen».

**E**spiritu Santuari Jainkoaren «indarra» esaten zaio (Lk 1,8.35). Askotan garbi jakiten dugu zer egin; baina gauzatu egin behar izaten da; hartarako adorea, iraupena, behar izaten dugu. Espirituaren indarra da adore hori, Jainkoak gugandik nahi duena betetzeko ematen digun barne indarra. Ez da izaten ezohiko kasuetarako bakarrik; egoera eta ordu guztietarako izaten da. Halere, batez ere aldi zailletarako, nekaldietarako, probaldietarako agindu digu Jesusek laguntza hori. Eta Jesusi serio jarraitu nahi badiogu eta erabakiak haren irizpideen arabera hartu, ez dugu falta izango geure bizitzan aurre egin behar izango diogun judiziorik, errezelarik, epaimahairik..., «arriskutsutzat» hartzen gaituztelako edota, nolana den, «deserosotzat».



**§ Isaias Profetaren liburutik 45, 1. 4-6.**

Honela mintzo zaio Jauna Ziro erregeari, berak aukeratu eta sagaratuari:

«Eskutik heldu dizut, nazioak zure menpean jartzeko eta erregeei soinetik armak kentzeko; zure aurrean hirietako ateak erabat zabalteko. Jakob neure zerbitzariagatik, Israel neure aukeratuagatik, deitu zaitut zeure izenaz eta bete zaitut ohorez, zuk Ni ezagutzen ez nauzun arren. Ni naiz Jauna, eta ez da besterik; ez da jainkorik, Ni baizik.

Aginpidez jantzi zaitut, zuk Ni ezagutzen ez nauzun arren, ekialdetik mendebaldera jakin dezaten ez dela inor Ni besterik. Ni naiz Jauna, eta ez da besterik».

[Sal 96 [95]: Goretsi Jaunaren ospea eta indarra.]

**§ San Paulok 1 Tesalonikarrei 1, 1-5b.**

Paulok, Silvanok eta Timoteok, Jainko Aitarekin eta Jesu Kristo Jaunarekin bat eginik dagoen Tesalonikako eliz elkarteari: grazia eta bakea zuei.

Eskerrak ematen dizkiogu beti Jainkoari zuek guztiongatik, gure otoitzetan gogoan zaituztegula. Jainko gure Aitaren aurrean gogora dakargu etengabe zuen sinesmen ekintzailea, zuen maitasun saiataua eta Jesu Kristo gure Jaunagan duzuen itxaropen iraunkorra.

Badakigu, senideok, Jainkoaren maiteok, berak aukeratu zaituztela. Izan ere, guk zuei hots egindako Berri Ona ez genizuen hitz hutsez eman, baizik baita Espiritu Santuaren indar beteaz ere.

**† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 15-21.**

Aldi hartan, fariseuek elkar hartu zuten, galdera bat eginez Jesusi tranpa jartzeko. Horretarako, ikasle batzuk bidali zizkioten, Herodesen alderdikoekin, galdetzera: «Maisu, badakigu egiazale zarela eta

Urteko 29. astea.

SAN LUKAS, EBANJELARIA.

Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzula, Zuk ez baitiozu begiratzen gizakiaren itxurari. Emaguzu, bada, zeure iritzia: zilegi da Zesarri zerga ordaintzea ala ez?»

Jesusek, haien maltzurkeria igarriz, esan zien: «Zergatik zatozkitate zirika, itxurazaleok? Ea, erakutsi zerga-txanpona». Haiek denario bat aurkeztu zioten. Jesusek galdetu zien: «Norenak dira irudi eta izen hauek?» Haiek erantzun: «Zesarrenak».

Jesusek, orduan: «Eman, bada, Zesarrena Zesarri, eta Jainkoarena Jainkoari».

**J**esusek, bere erantzunaz, ez du esaten gizakiaren erdia (erdi material edo kultural edo ageriko) Zesarri dagokiola, munduko erreinua-rekin erlazionatua, alegia; eta bestea (erdi espiritual, pertsonal edo barneko) Jainkoari. Jesusek ez du ezarri hesirik bizitza erlijiosoaren eta bizitza politiko eta sozialaren artean, erlijioa eta fedea eremu pribatura eta indibidualera mugaturik geldituko lirakeelarik, gizarte-bizitzarekin zerikusirik gabe. Jesusek ez du nahi bi «erreinu» edo bi eremu desberdin sortzerik, Jainkoarena eta Zesarrena, zeinetan nork bere guztizko boterea, itxia eta bestegandik beregainekoa izango lukeen. Jainkoa bakarrik da Jauna, eta ez da hura besterik. Baina, Jainkoaren jauntasun osoa azpimarratu duelarik ere, Jesusek aitortu du eta, are gehiago, eskatu du, kontuan hartzeko ezarritako aginpidea eta errespetatzeko honen oinarrizko eskubideak: «eman Zesarri Zesarrena». Gaurko hitzekin esateko, kristauak hiritar on izan behar du. Bere eginkizuna, beraz, oker ulertutako Jainkoaren eremuan hesitu gabe, hiri duin bat antolatzen laguntzekoa du, «Jainkoaren irudi» den gizakiaren hiri duin bat.

Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Joguez, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*. San Pedro Alkantarakoa, *frantziskotarra, apaiza*.\*

[San Paulok Efesoarrei 2, 1-10: Jesusekin batean berpiztu gintuen eta zeruetan eserarazi. Sal 100 [99]: Jaunak egin gaitu, harenak gara.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 13-21.

Aldi hartan, jende arteko batek esan zion Jesusi: «Maisu, esaiozu nire anaiari senipartea nirekin erdibanatzeko».

Jesusek erantzun zion: «Lagun, nork jarri nau Ni zuen artean epaile edota ondasun-banatzaille?» Eta jendeari esan zion: «Kontuz! Gorde zeuen burua diru-gosetik, ondasunek ez baitiote inori bizia segurutzen, ugari izanda ere».

Gero, parabola hau kontatu zien: «Gizon aberats bati lurrak uzta handia eman zion. Eta honela hasi zen berekiko pentsatzen: “Zer egin, ez baitut uzta non jasorik”. Eta beretzat esan zuen: “Badakit zer egin: mandio zaharrak bota eta handiagoak egingo ditut eta haietan jasoko garia eta gainerakoak. Gero, esango diot neure buruari: “Ea, motel! Baduk hor gordeta urtetarako ondasunik aski; hartu atsedean, jan, edan eta bizi ongi!”

Baina Jainkoak esan zion: “Burugabea halakoa! Gaur gauean bertan hil behar duk. Norentzat izango duk pilatu duana?”» Eta honela amaitu zuen Jesusek: «Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, ondasunak beretzat pilatzen dituenari».

**D**iruak bere baitan du elixir mozkorgarri bat; sartzen uzten badiozu, zorabiatu egingo zaitu, sentiberatasun gabe utziko, burugabekuko. Parabolako gizon zoro hori jabe jabepekoa da: aberastasunak jabetu zaizkio. Fromm-ek esan bezala: «Gizakia katerik gabeko esklabo izan daiteke». Horregatik, Paulo santuak «idolatria» esaten dio diru-goseari; egiazko bizirik eman ezin duten jainkoengana jotzen baitu;

\* San Paulo Gurutzekoa, *fundatzailea* (pasiotarrak) *apaiza*. San Grat (Zuberoa VI. mendean), *gotzaina*.

Urteko 29. astea.

Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Joguez, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*. San Pedro Alkantarakoa, *frantziskotarra, apaiza*.\*

aitzitik, itotzen dutenengana axaleko zoriontasun engainagarritz. Bere dirua erabatekotzat hartuz, Jainkoa alde batera utziz programatu du zoroak bere bizitza, eta gainerakoez ahaztuz. Baina hil ondoren geurekin eramango duguna, Jainkoaren eta gainerakoen maitasunean inbertitu izan duguna izanen da.

\*\*\*

### Deabruak

Inguratzen gaituzte, engainatzen,  
maltzur suzirik, / barnetik hozka egiten.  
Inbidia dute izena,  
harrokeria, mespretxua, bortxa,  
larteria, iseka, hutsalkeria, / abusua...  
Itsutzen gaituzte, / nahasten beren hitz-jario  
etengabekoz, itxura hutseko logikaz.  
Bil-biltzen gaituzte arrazoiez,  
eta, gu konturatzerako,  
bakartzen eta urruntzen bata besteagandik.  
Mozorrotzen dute mina axola-ezaz  
eta apaintzen nostalgia irri arinez.  
Egia hutsaren Jauna, / maitasun posiblearena,  
zuzentasun jatorrarena, / Jainko giza aurpegiduna,  
Jainkoagana garamatzen gizona...  
Hautsi kateak / eta libratu gu gaitzetik. Amen.  
(José María R. Olaizola, S.J)  
*(LIBURUXKA ESPIRITUALA ZUZENDARI  
ETA PASTORAL TALDEENTZAT 19/20 IKASTURTEA, Jesuitak)*

\* San Paulo Gurutzekoa, *fundatzailea* (pasiotarrak) *apaiza*.  
San Grat (Zuberoa VI. mendean), *gotzaina*.

Urteko 29. astea.

Santa Aurora, *aitorlea*.San Kornelio, *ehuntaria*.

[San Paulok Efesoarrei 2, 12-22: Kristo da gure bakea. Bat egin ditu berak bi herriak. Sal 85 [84]: Jaunak bakea agintzen dio bere herriari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 35-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete prest, jantziak loturik eta kriseiluak pizturik; izan zaitetze nagusia ezteietatik noiz itzuliko zain dauden morroiak bezalakoak, iritsi eta atea jo bezain laster irekitzeko prest dauden morroiak bezalakoak.

Zorionekoak morroi horiek, nagusiak, iristean, zain aurkitzen baditu! Egia diotsuet: arropak aldaturik, mahaian eseraraziko ditu eta zerbitzatzen hasiko zaie. Eta gauerdian nahiz goizaldean badator eta horrela aurkitzen baditu, zorionekoak haiek!»

**E**rne bizitzeko erregua, konbentzimendu sakon batean oinarritzen da: etorriko da Jauna. Gauza ziurra da; nahiz ez jakin noiz, nahiz ez jakin ez aldia eta ez data; Jaunak luza dezake (Lk 12,45). Baina topo egitearen une hori iritsi bitartean, ezin eman diogu loari; ezin eman diogu zabarkeriari edo ezin babes gaitetze «artean bada denborarik» delako aitzakia erantzukizun gabea; aitzitik, prest bizi behar dugu, Jaunak aurki gaitzan gomendatutako lanak egiten. Itxaronaldia, beraz, zain-zain bizitzeko aldi da: fideltasunaren eta erantzukizunaren aldi. Zerbitzari leial bagara, iritsiko denean, Jaunak «zerbitzatutako zerbitzari» izateko zoriona izango dugu.

Urteko 29. astea.

Santa Ursula eta lagunak, *martiriak*.

Diego Luis de San Vitores, *dohatsua, apaiza*, eta San Pedro

Calungsod, *martiriak, jesuitak*.

[San Paulok Efesoarrei 3, 2-12: Kristoren misterioa orain agertu du Jainkoak: jentilak Kristo Jesusekin oinordeko-kide direla, alegia. Sal: Is 12: Aterako duzue ura pozik salbamenaren iturrietatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 39-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hartu gogoan hau: etxeko nagusiak, lapurra zein ordutan etorriko den jakingo balu, ez luke etxea zulatzen utziko. Egon prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea».

Pedrok galdetu zion: «Jauna, guretzat ala denentzat esan duzu parabola hau?»

Jaunak erantzun: «Izan zaitezte etxezain leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak, bere orduan behar den janaria banatzeko, morroi buru ipini duena bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina morroia, nagusiak luzatuko duelakoan, morroi-lagunak eta neskameak jotzen eta jan-edanean eta mozkorkerian hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, gogor zigortuko du eta desleialek merezi dutena emango dio.

Nagusiaren nahia zein den jakin arren, gauzak hark nahi bezala eratzen edo egiten ez dituen morroiak zigor gogorra izango du; nagusiaren nahia zein den jakin gabe, zigorra merezi duen zerbait egiten duenak, berriz, biguna. Askok eman zitzaionari, asko eskatuko zaio; eta askoren kargua eman zitzaionari, are kontu handiagoa eskatuko».

**P**edroren galderari erantzunez, administratzaile leial eta zuhuraren –morroi bat baino handiagoa da, konfiantzazko pertsona baita, zeinen gain utzi baititu nagusiak nola morroiak hala finantzak– parabola kontatu du Jesusek; ematen du, kristau-elkarteetako arduradunentzat

dela parabola. Baina guri ere esan nahi digu zerbait, alor batzuetan aginpidea dugunoi: etxeko bizitzan, hezkuntzan, lanbidean... Zerbitzu-jarreraz bete beharko genuke hori, geure ardurapean ditugunen ona kontuan izanik, eta pazientzia handiaz; izan ere, nekaturik eta urduri sentitzen bagara –geure lanaren fruiturik ez ikusteagatik– zerbitza gaitzaten eskatzera igaroko gara. Horretara iritsiko bagina, Jaunak, etortzean, baztertu egingo gintuzke.

\*\*\*

### AMERIKAR V. KONGRESU MISIOLARIAREN TXOSTENA (Periodista Digital 2018-09-09)

«Mingarri dugu Venezuela, mingarri dugu Nikaragua, mingarri Haiti, mingarri Hondurasko erailketak».

Eta bukatzeko: «Kongresuko adiskide preziatuok, Ameriketako Eliza guztietako adiskide maiteok: Zorionekoak bakegileak, berauei esango baitzaie Jainkoaren seme-alaba. Otoitzak, barkatzeak eta adiskidetasunak gotortu egiten dute gure bokazioa, gogo oneko gizon-emakume guztiei dagokienez, bakegile izatera iristeko. Adorez maitatu behar ditugu egia eta zuzentasuna, gizaki oren eskubide baitira».

Urteko 29. astea.

San Joan Paulo II.a, *aita santua*.

Nunilo (Novila) eta Alodia santuak, *ahizpak, birjinak eta martiriak (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan).*

[San Paulok Efesoarrei 3, 14-21: Izan dadila maitasuna zuen bizitzaren erro eta oinarri; horrela, Jainkoaren betetasunaz beteko zarete. Sal 33 [32]: Jaunaren graziaz dago lurra betea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 49-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego! Heriotza-uretan murgildu behar dut, eta hau larria hori bete arte! Munduari bakea ekartzera etorri naizela uste al duzue? Bakea ez, banaketa baizik. Zeren hemendik aurrera, etxe bateko bost senideak banaturik egongo baitira: hiru biren kontra eta bi hiruren kontra; aita semearen aurka eta semea aitaren aurka, ama alabaren aurka eta alaba amaren aurka, amaginarreba errainaren aurka eta erraina amaginarrebaren aurka».

**M**undura Jesusen sua eraman nahi duen ikasleak kontuan izan beharko du jendearen gogorkeria askorekin egingo duela topo. «Mundua» –Anti-erreinuak– ez du amore emango Jesusen baloreen aurrean. Munduan gaizkia izateak argitzen du, beraz, nolatan eragin ditzakeen maitasun-mezuak, «ezarritako» gizarte-bizitzan, banaketa eta nahasmendua. Zeren eta Jesusek eman nahi duen sua ez baitaugar xume bat; aitzitik, zaborreria desegitea eskatzen du eta gogor egitea su hori itzali nahi luketen guztien kontra. Halere, erretzen duen arren, mundu honetako hoztasun ilunera argia eta berotasuna dakartzan sua da. Ikasle gisa, gure aldi honetan su horren txingar izatea merezi duen gauza da; baina adorea eskatzen du.



Urteko 29. astea.

San Joan Kapestrano-koa (Italia), *frantziskotarra, apaiza.*

[San Paulok Efesoarrei 4, 1-6: Bat bakarra da gorputza, bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra Bataioa. Sal 24 [23]: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 54-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Sartaldean lainoa ikusi orduko, “euria dator” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Hegoak jotzen duenean, berriz, “sargori dago” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Itxurazaleok! Badakizue zeru-lurren itxurari antzematen, eta nolaz ez diozue antzematen garai honi? Zergatik ez duzue zeuen kabuz bereizten zuzena zer den?

Zeure etsaiarekin auzitegira zoazela, saia zaitetz bidean harekin konponbidea aurkitzen; bestela, epaileagana eramango zaitu eta epaileak ertzainaren esku jarriko, eta ertzainak kartzelara botako. Hara Nik esan: ez zara handik aterako, azken xentimoa ordaindu arte».

**J**esusek landa-jendeari aurpegiratu dio ezen badakiela eguraldiaren seinaleak irakurtzen, baina ez dela gai gaur egunean (kairos, grekoz) gertatzen ari dena interpretatzeko: Jesusek estreinatutako Erreinuaren presentzia interpretatzeko, alegia. Bizi-erabakia eskatzen duen aldia da, konbertsiorako deia. Gauza bera eskatzen digu geuri ere: orainari adi bizitzeko (Mateoren bertsio paraleloan: «aldien seinaleei»: 16,2-3). Historiaren une aldabera honetan, zer nahi du Jainkoak gugandik? Galdera honi erantzuteak bereizmen seriozaz jokatzeari eskatzen digu guri, fededun edota elkarte bateko kide garen aldetik. Zer ari zaitu esaten Jainkoa askotariko seinaleren bidez? Nola bizi dezakegu aldi hau «kairos» gisa, aukera erabakitzaile gisa?

Urteko 29. astea.

San Antonio Maria Claret, *gotzaina eta fundatzailea*  
(*Klaretarrak*).

[*San Paulok Efesoarrei 4, 7-16: Kristo da burua eta berak ematen dizkio gorputz osoari barne-lotura eta batasuna. Sal 122 [121]: Goazen pozik Jaunaren etxera!*]

† *Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 1-9.*

Aldi hartan, etorri zitzaizkion batzuk Jesusi, galilear batzuei gertauren berri ematera: nola Pilatok hil zituen, eskaintzen ari ziren oparrien odolarekin haiena nahastuz. Jesusek erantzun zien:

«Uste al duzue galilear haiek gainerako galilearrak baino bekatariago zirela, horrelako heriotza izan zutelako? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete. Eta Siloeko dorrea gainera erorita hil ziren hemezortzi haiek, uste al duzue gainerako jerusalemdarrak baino errudunagoak zirela? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete».

Eta parabola hau esan zien: «Gizon batek pikondo bat zeukan, bere mahastian landatua. Joan zen piku bila eta ez zuen aurkitu. Orduan, esan zion mahastizainari: “Bada hiru urte pikondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut aurkitzen. Moztu ezazu. Zertako eduki hor, lurra alferrik jaten?”

Mahastizainak, ordea, erantzun zion: “Jauna, utzazu aurtengoz; bitartean, ingurua aitzurtu eta ongarrria botako diot, ea aurrerantzean fruiturik ematen duen; eta bestela, moztu”».

«**E**z moztu oraindik!» Zenbat aldiz errepikatu ote du Jainkoak esapide hau gure bizitza pobre honen ganean! Pazientzia handikoa baitu bere maitasuna. Baina, aldi berean, urduria du bere pazientzia; ez da egoten zain axolagabe; baizik eta beti ari da iradoki eta iradoki, gonbidatu eta gonbidatu –gertatzen diren eta zaizkigun gertaera tragiko beraien bidez ere–. Horrela, galderak galdera ganean sustatzen dizkigu; segidako hau, adibidez: Noiz bukatu behar dut beti gero eta gero esanez ibiltzea: geroko gero hura?, noiz bukatu behar ditut neure

Urteko 29. astea.

San Antonio Maria Claret, *gotzaina eta fundatzailea*  
(Klaretarrak).

aitzakiak, neure alferkeria... behingoz nire fedea antzu izateari utzi diezaion eta nire bizitzan azaltzen has daitezen esperantzadun eraldaketa baten kimuak?... Jainkoaren pazientzia horretan, beti eginkor eta xaxagarri, ipintzen dugu geure konfiantza; horrek eragingo digu egitate onak egitera –Jainkoaren begietan eskubide edo moneta ez direnak inoiz ere–, baina geure fedea egiazkotasunaren «fruitu» direnak.

\*\*\*

### Jainkoa eta otoitza

«Ukitzen uzten dizun Jainkoa, ez da jada Jainko. Ezta ere, ez da Jainko, zure otoitzari obeditzen badio. Eta lehen aldiz ulertu nuen, otoitzaren handitasuna erantzunik ez izatean datzala, lehenik eta behin eta harreman honetan ez dela sartzen komertzioaren, salerosketaren, itsusitasuna. Eta otoitz egiten ikastea, isilik egoten ikastea dela. Eta hartan hasten dela maitasuna: inolako dohainik espero ez duzun hartan. Maitasuna, lehenik eta behin, otoitz-jarduera da, eta otoitza isiltasun-jarduera» (*Saint-Exupéry*).

Urteko 30. astea.

San Krispin eta San Krispiniano, *anaiak, martiriak*  
(*Zapatarien Zaindaria*).

### § Irteera liburutik 22, 20-26.

Honela mintzo da Jauna: «Ez gaizki erabili, ez zapaldu etorkina, zuek ere etorkin izan baitzarete Egipton.

Ez egin kalterik alargunari eta umezurtzari; zeren, kalte egiten badiezue, haiek nigana laguntza eske deiadar egitean, entzun egingo baitiet, sutuko da nire haserrea eta ezpataz hilko zaituztet; orduan, zuen emazteak bihurtuko dira alargun, eta zuen seme-alabak umezurtz.

Zuekin bizi den nire herriko behartsuren bati dirua maileguz ematen badiozu, ez izan zikoitz berarekin, ez ezarri interesik. Zeure lagun hurkoari soingainekoa hartzen badiozu bahituran, itzul iezaiozu eguzkia sartzerako; ez baitu hori beste estalkirik. Zerekin babestuko da, bestela, lo egiteko? Laguntza eske deiadar egitean, entzun egingo diot, errukiorra bainaiz Ni».

[Sal 18 [17]: Maite zaitut, Jauna, neure indar!]

### § San Paulok 1 Tesalonikarrei 1, 5c-10.

Senideok: Ongi dakizue zuen artean egin genuen guztia zuen one-rako izan zela. Eta zuek gu eta Jauna eredutzat hartu gintuzuen, Espiritu Santuaren pozez onartu baitzenuten Jainkoaren mezua, atsekabe askoren artean izanik ere. Horrela, eredu gertatu zarete Mazedoniako eta Akaiako fededun guztientzat.

Hain zuzen, zuenetik zabaldu da Mazedoniara eta Akaiara Jaunaren mezua; eta eskualde horietara ez ezik, bazter guztietara ere iritsi da Jainkoagan duzuen sinesmenaren entzutea, guk ezer esan beharrik gabe. Izan ere, haiek kontaktzen dute nolako harrera egin zeniguten zuengana joan ginenean eta nola, sasijainkoak utzirik, Jainko bizi eta egiazkoagana itzuli zineten, bera zerbitzatzeko eta zerutik etorriko den haren Seme Jesusen zain egoteko. Jainkoak hildakoen artetik piztu zuen Jesus, eta honek askatu gaitu etortzekoa den haserre-zigorretik.

Urteko 30. astea.

San Krispin eta San Krispiniano, *anaiak, martiriak*  
(Zapatarien Zaindariak).

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 34-40.

Aldi hartan, Jesusek saduzearrak hitzik gabe utzi zituela jakitean, elkarrekin bildu ziren fariseuak, eta haien arteko legegizon batek azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zein da legeko agindurik nagusiena?»

Jesusek erantzun: «“Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz”. Hau da agindurik nagusiena eta lehena. Eta bigarrena horren parekoa da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Bi agindu hauetan oinarritzen dira Liburu Santu guztiak».

**J**esusen erantzunaren aurrean, hau izan da lehen hasgorapena: bai erraza! Funtsezko agindu bakarra dugu hemendik aurrera; gainerako arau, manamendu, legeak... maitasunaren zerbitzari besterik ez dira. Hori dugu aurrerantzean funtsezko norabidea, kasuistikan gal ez gaitezen. Sinplifikagarria da, gainera: batera dakartza gure ahalegin guztiak. Baina, bigarren une batean, hau izan ohi da hasgorapena: bai zaila! Gauza ederra da, bai, maitasuna, baina gauza zehatz bat izango bada eta ez sentimentalismo abstraktu huts bat, aurpegi bati aplikatu behar izaten zaio. Eta, batzuetan, aurpegi horiek zimur izaten dira, edo hezur huts eta goseti.

Eta nola lehen irakurgaiak hala Jesusen mezuak esaten digute, maitatu behar ditugunen aurpegiak ez direla izaten beti, ez atsegin, ez gogazgarri. Lehen irakurgaiak gogoratzen zion Israel herriari arrotzak, umezurtzak eta emakume alargunak maitatu behar zituela: «desanparoren hirutasuna». Maitasuna, aurpegi bati aplikatzen zaionean –eta familiartekoa eta hurbileko adiskideena ez bezalakoa eta ez hain maitagarria denean–, nekoso gertatzen da. Baina, hain juxtu, bera aurpegi horietan ikus dezagun nahi du Jesusek –nagusiki maitasun-eza islatzen duten horiengan: gose, egarri, biluz, babesgabe edo gaixo denagan–. Bizi dezagun, beraz, maitasuna aurpegi jakin batzuetan; hala bizi izan zuen Jesusek. Jesusengandik ikas dezakegu geure bizitzako gauzarik funtsezkoena bizitzen: Jainkoa maitatzea, eta lagun hurkoa maitatzea, lehen maitasun haren egiaztapenik zinezkoena izango dena.

Urteko 30. astea.

San Evaristo, 5. *aita santua*,

[San Paulok Efesoarrei 4, 32–5, 8: Bizi zaitezte maitasunean, Kristoren antzera. **Sal 1**: Izan gaitezen Jainkoaren antzeko, haren seme-alaba maite garenez gero.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 10-17.

Aldi hartan, larunbatez sinagoga batean irakasten ari zen Jesus. Bazen han emakume bat, hemezortzi urte haietan espiritu baten menpe gaixo zegoena; erabat konkortua zegoen eta ezin zen inola ere zuzendu. Ikustean, Jesusek deitu eta esan zion: «Emakume, libre zara zeure gaitzetik». Eskuak ezarri zizkion, eta bat-batean zuzendu zen eta Jainkoa gorensten hasi.

Sinagogako buruzagiak, Jesusek larunbatean sendatu zuelako haserre, esan zion jendeari: «Astean sei egun daude lanerako; etorri egun horietan sendatzea, eta ez larunbatean».

Jaunak erantzun zion: «Itxurazaleok! Zuetako nork ez du larunbatez idia nahiz astoa ukulutik askatzen eta ura edatera eramaten? Eta Abrahamen ondorengo den honi, hemezortzi urtez Satanasek lotua eduki duen honi, ez ote zitzaion larunbatez lokarri hori askatu behar?»

Hitz hauekin, lotsa-lotsa eginik geratu ziren Jesusen etsai guztiak; jendetza, ordea, pozik zegoen hark egiten zituen gauza miragarri guztiengatik.

**J**esusek dio dei egin, eskuak ezarri, Jesusek du zuzendu konkordun zen emakumea. Hemezortzi urtez bizi izan da konkordun, lurrera begira, ez zerura. «Askatu egin du» Jesusek bere gaixotasun umiliagarritik, eta «Abrahamen alabaren» duintasuna itzuli dio. Jesusentzat garrantzizkoagoa zen emakume horren zoriona, berorren oinazea arintzea, larunbatari zegokion agindu bat hitzez hitz betetzea baino. Beste behin, Legearen espiritua arnastera eragin dio Jesusek jendeari: larunbata ahalik hobekien betetzea du bere asmo guztia: askapena,

Urteko 30. astea.

San Evaristo, 5. aita santua,

**bizitza duina eta atsedena eskainiz. Sinagogako buruzagiaren hipokresia salatu du, nahiago izan baitu honek, erruki urrun jokatzuz, arau bat betetzea, pertsona baten oinazea arintzea baino. Pentsa dezagun, Jesusek zuzendu gaitzakeela geure baitan ixten eta hesitzen gaituzten konkoretatik.**

\*\*\*

### **Opariak Jainkoari**

Abrahamek uste izan zuen, Isaak bere semea opari eskaintzeko eskatzen ziola Jainkoak.

Holokausto hitza, Septuagintak [K.a talde batek Hebreerako I.Z. grekora egindako itzulpena] Bibliaren itzulpenean erabilitako hitza da, opari-gaia erabat erretzean zetzan sakrifizio edo oparia adierazteko.

Jesusen martiritzak, historiaren aldrean opari egin izan diren biktima errugabe guztien sufrimendu unibertsala sinbolizatzen du.

Kristok uko egin zion inor hiltzeari. Bere heriotza onartu bazuen, indarkeriazko sakrifizio edo opari guztien gezurra desegiteko era barkatzat ikusi zuelako izan zen; horrenbestez, akter mandatariaren mekanika erabat ezabatuz.

Urteko 30. astea.

Bizente, Sabina eta Kristeta, *anai-arrebak, martiriak*.

[San Paulok Efesoarrei 5, 21-33: Handia da misterio hau, eta nik Kristori eta Elizari loturik ikusten dut. Sal 128 [127]: Zorionekoa Jaunari begirune diona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 18-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeren irudiko da Jainkoaren erreinua? Zeren antzekoa dela esango nuke? Gizon batek bere baratzean botatzen duen mostaza-haziaren antzekoa da: hazten da eta zuhaitz egiten, eta txoriek haren adarretan egiten dute habia».

Esan zuen gainera: «Zeren antzekoa dela esango nuke Jainkoaren erreinua? Legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta oraldi guztia harrotzen da».

**M**ostaza hazi bat, legamia-eskutadaxo bat. Salbamen-historian barna Jainkoak agertu du ezen ez duela «arbola garai edo altuen beharrik, baizik eta arbola xumeak dituela nahi sostengutzat» (Ezekiel 17,22-24), adar txikiak, alegia; nahiago izan du, bere egitasmoa gauzatzeko, gauza edo pertsona ahulaz eta txiki az baliatu. Errebelazioak ez digu esan sekula, kalitatea baino nahiago izan duenik Jainkoak kopurua, kantitatea; ezta ere benetako ebanjelio-testigantza baino gehiago baliabideen boterea nahi izan duenik. Askoz gehiago: San Paulok azpimarratu duenez, ahuldadean du testifikatzen Jainkoaren Espirituak bere indarra. Jainkoak jardun dezan egiazko oztopoa ez da gure ahuldadea, baizik eta ahuldade hori aitortu nahi ez izatea.



Urteko 30. astea.

San Simon eta San Judas, *apostoluak*.

[San Paulok Efesoarrei 2,19-22: Apostoluen oinarri gainean eraikiak zaudete. Sal 19 [18]: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,12-19.

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena ezarri zion– eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izan zena.

Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, halako indar bat baitzerion, denak sendatzen zituen.

**J**udas saltzailearen ordezkoa izendatzean, Hamabien taldeko izateko ezaugarrien artean, biok eskatu dizkio Pedrok izangaiari: jendaurreko bere bizitzan Jesusen bidelagun eta haren piztueraren lekuko izana izatea. Biok zituzten ezaugarri horiek: Simonek eta beste Judas honek; gainera, Jesusek berak deitu zituen, gaueko otoitzaldi baten ondoren. Gustura jakingo genuke, bai zergatik aukeratu zituen Jesusek, bai nongotarrak ziren, bai zer egin zuten gerora... Baina anonimatu hau ere, agian, ikasgai kontsolagarri gerta dakiguke: Jesus ez da ibili, ez du behar ere, jende «izarren» bila; aski du berari jarraitzeko, eguna joan eguna etorri berarekin lan egiteko eta bera bizi delako testigantza egia egiteko prest dagoen jendea. Ezaugarri horiek, 21 mende geroago, geuk ere izan eta bizi ditzakegu.

Urteko 30. astea.

San Nartziso Jerusalemekoa, *gotzaina*.

[San Paulok Efesoarrei 6, 10-20: Har itzazue Jainkoaren armak, zailtasun guztiak gainditurik, sendo irauin dezazuen. Sal 144 [143]: Bideinkatua Jauna, nire harkaitza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 31-35.

Aldi hartan, fariseu batzuk joan zitzaizkion Jesusi eta esan zioten: «Zoaz, alde egizu hemendik, Herodes Zu hil nahian baitabil».

Jesusek erantzun zien: «Zoazte eta esan azeri horri: “Hara, gaur eta bihar deabruak botatzen eta sendatzen jarraitu behar dut, eta hirugarren egunean nire azkena izango da”. Baina gaur, bihar eta etzi bideari jarraitu behar diot, profeta ez baitaiteke Jerusalemekoa kanpora hil.

Jerusalem, Jerusalem, profetak hiltzen eta Jainkoak zuri bidaliak harrikatzen dituzuna! Zenbat aldiz ez ote ditut bildu nahi izan zure seme-alabak, oiloak bere txitaldia hegalpean bezala, eta zuek ez duzue nahi izan! Horra, bada, hutsik geldituko zaizue etxea! Eta esaten dizuet ez nauzuela ikusiko, hau esango duzuen eguna iritsi arte: “Bideinkatua Jaunaren izenean datorrena”».

**H**erodesen mehatxuak eta guzti, Jesusek bere bideari jarraitu dio; konbentzimendu osoa du, bide hau ez dagoela agintari erlijiosoen eta politikoen esku, baizik Aitaren arazo dela. Nahiz eta susmoa izan duen Jerusalemekoa –profetak erailtzen dituen hirira– joateak heriotza ekar diezaiokeela, hartua du erabakia Aitak gomendatu dion misioa betetzeko, eta baitaratua du profetaren zoria. Eta bera bezalako izatera dei egin digu: Jainkoaren adierazezinako maitasunaren profeta izatera, izango dugun arren erasoka irtengo zaigun ukorik eta Herodesik; zeren eta profeta ez baita geroa auresaten duen norbait, baizik eta besteei laguntzen diena historia interpretatzen Jainkoaren ikuspuntutik.

Urteko 30. astea.

San Martzelo, *martiria*.Domingo Collins, *dohatsua, jesuita*.

[San Paulok Filipinoarrei 1, 1-11: Eginbide on hau zuengan hasi duenak bukatuko du Kristo etorriko den eguna arte. Sal 111 [110]: Jaunak eginak handi dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 1-6.

Aldi hartan, larunbat batean, fariseu-buruetako baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Ur-mina zuen gizon bat zegoen han Jesusen aurrean. Jesusek, orduan, lege-maisu eta fariseuei galdetu zien: «Zilegi da larunbatez sendatzea ala ez?» Haiek isilik gelditu ziren.

Orduan, Jesusek, gaixoa eskutik hartu, sendatu eta bidali egin zuen. Gero, haiei esan zien: «Zuetako nork, semea nahiz idia putzura erortzen bazaio, ez du berehala ateratzen, larunbata izanagatik?» Ezin izan zioten erantzun.

**O**raingoan gizonezko bat da; lehenago, emakume konkordun bat izan da. Jesusek badaki zelatari duela fariseu-jende hori. Hain zuzen, horregatixe, jende horri erronka eginez, dei egin dio hidropesiak joa den gaixoari eta sendatu du. Keinu horiekin, beti erronka botaz egindako horiekin, «zapatuaren» jatorrizko zentzua berreskuratu du Jesusek: atsedean hartuz jai egitea eta esker ona agertzea mundua eta gizakia duintasan handiko kreativegatik, eta ospatzea herria Egiptoko zapalkuntzatik askatu izana –eta gaurko pasarteko kasuan, zapalkuntza jakin batetik pertsona bat askatu izana dator, pertsonaren duintasuna murrizten duen gaixotasunetik, alegia–. Larunbatetan behin eta berriz errepikatu dituen sendatze horiekin erakutsi digu ezen beraren seme-laben ongizatea –bereziki ahulen eta premian direnena– dela Aita atsegintzen duena. Arazo honetan beti erronkari eta desafiatazaille izateko deia dugu Jesusen hau.

Urteko 30. astea.

San Alonso Rodriguez, *jesuita*.

[San Paulok Filipoarrei 1, 18b-26: Niretzat, bizitzearen arrazoia Kristo da, eta hiltzea irabazpide. Sal 42 [41]: Jainko biziaren egarri naiz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 1. 7-11.

Aldi hartan, larunbat batean, fariseu-buruetako baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Ohartu zen Jesus gonbidatuek aurreneko jarlekuak hartzen zituztela eta ohar hauek egin zizkien:

«Ezteietara gonbidatzen zaituztenean, ez jarri mahaiburuan, bali-teke-eta zu baino gonbidatu ospetsuagoren bat izatea; hala balitz, biok gonbidatu zaituztenak etorri eta esango lizuke: “Utzi tokia honi”. Orduan, azkeneko lekuan eseri beharko zenuke lotsaturik.

Alderantziz, gonbidatzen zaituztenean, jarri azkeneko tokian, gonbidatu zaituenak, datorrenean, esan diezazun: “Adiskide, igo gorago!” Horrela, oso toki onean geldituko zara mahaikide guztien aurrean. Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

**H**izketa-hondotzat, beste jai-otordu bat hartu du Jesusek beste behin: Zeruetako Erreinukoa. Hartan parte hartu ahal izateko, ikasleak ez du ibili behar lehen jarlekuen bila, baizik eta azkena hartu behar du, zerbitzariak hartu ohi duena. Gure gizarte lehiakor honetan, protagonista agertzea izaten da pena merezi duen gauza bakarra edo nagusia: lehen jarlekua-, miresmena eta inbidia eragitea-. Asmo egolatriko hauen aurka, apal izatera deitu gaitu Jesusek. Apaltasuna, Teresa santuak zihoenez, «egian ibiltzea» da. Kontua ez da, itxurak eginez, zeure burua beheratzea, baizik eta aitortzea gure duintasuna, parekoa gizon-emakume guztiengan, Jainkoaren sorkari izatea dela, eta ditugun dohainak eta nolakotasunak Jainkoaren erregalu ditugula, zerbitzurako emanak, eta ez gainerakoak geure zerbitzarizat hartzeko.

Urteko 30. astea.

San Alonso Rodriguez, *jesuita*.

**G**aurko santua, Alonso Rodriguez, anaia jesuita bat da; 40 urtez atezain egon zen Palma de Mallorcako Montesión Ikastetxean. Azkena bailitzan bizi izan zen, atea jotzen zuen pertsona bakoitzaren deia Jau-naren deitzat hartuz «Banoa, Jauna»; horregatik, goratua izan zen eta lehenengoan artean dago gaur egun Erreinu.

### Migratzaileak eta parekotasun-gabezia

*Mundo Negro (aldizkaria):* Zure amets handia?

*Serigne Mbaye senegaldarra:* Oso ekintzailea, aktibista, naiz. «Paperik gabeko» Elkarteko kide naiz eta «Mantzaleen eta Latazaleen» sindikatuko kide. Neure ametsa mundu hobe bat lortzea dut, eskubideen parekotasuna biziko duena. Guztiok dugu eskubidea aske bizitzeko eta aske bidaiatzeko. Espainola banaiz eta arratsalde honetan Senegalerako txartelik badago, aireportuan erosi eta hara joango naiz. Senegaldarra banaiz, berriz, eta Dakar-en banago eta Espainiara-ko txartelik ikusten badut ere, ezin egingo dut gauza bera. Neure anaia eta adiskide batekin kalera irteten banaiz eta poliziak alto ematen badigu, nire laguna komisariara eramango du. Zein da bion arteko aldea? Txartel bat: berari eragozten diona, nik bezalako eskubidez gozatzea. Parekotasun-gabezia hau ezereztu egin behar dugu. Neure bizia hori lortzera emana dut. Horrek nau zoriontsu egiten (*Mundo Negro 641 zenb., 2018ko iraila: Serigne Mbaye, senegaldarra da jatorriz; lortu ditu paperak Espainian; Jatetxe agro-ekologiko batean lan egiten du, kooperatiba batean*).




## AZAROA / ZEMENDIA

### AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:

Adimen artifiziala.

**Egin dezagun otoitz:** Robotikaren eta adimen artifizialaren aurrerapena beti gizakiaren zerbitzura erabil eta balia dadin.



Urteko 31. astea.

SANTU GUZTIEN OROIPENA.

Pedro Asuakoa (Balmaseda 1890 – Liendo [Kantabria] 1936),  
*dohatsua, apaiza, martiria.*

### § Apokalipsia liburutik 7,2-4.9-14.

Nik, Joanek, beste aingeru bat ikusi nuen ekialdetik igotzen, Jainko biziaren zigilua zuelarik, eta ozenki egin zien deiar lurra eta itsasoa hondatzeko ahalmena eman zitzaien lau aingeruei, esanez: «Ez hondatu lurra, ez itsasoa, ezta zuhaitzak ere, harik eta gure Jainkoaren zerbitzariak bekokian zigiluz markatu arte».

Zigiluz markatuak zenbat ziren entzun nuen: ehun eta berrogeita lau mila, israeldar leinu guztietatik hartuak.

Ondoren gizatalde handi bat ikusi nuen, inork kontaezin ahalekoa; nazio, arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendea zegoen, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantziak eta palma-adarra eskuetan. Eta ahots handiz egiten zuten deiar: «Tronuan eseria dagoen gure Jainkoari eta Bildotsari zor diegu salbamea».

Tronuaren, zaharren eta lau izaki bizidunen inguruan zutik zeuden aingeru guztiak ahuspeztu egin ziren tronuaren aurrean, eta Jainkoa adoratu zuten, esanez:

«Amen. Bedeinkazioa, aintza, jakinduria, esker ona, ohorea, ahalmena eta indarra gure Jainkoari menderen mendetan. Amen».

Orduan, zaharretako bat mintzatu zitzaidan, esanez: «Soineko zuriz jantziak dauden horiek, zein dira eta nondik datoz?» Nik erantzun nion: «Ene Jauna, zeuk jakingo duzu». Hark esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira; beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dituzte eta zuritu».

[Sal 24 [23]: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]

### § San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 3,1-3.

Seme-alaba maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako.



Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango gara oraindik ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko denean, haren antzeko izango gara, den bezalakoa ikusiko baitugu. Harengan itxaropen hau duen orok garbitu egiten du bere burua, hura garbia den bezala.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,1-12a.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten:

«Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak atsekabetuak, beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko. Zorionekoak apalak, berek izango baitute agindutako lurra ondare. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak, beraiek baititu Jainkoak aseko.

Zorionekoak errukitsuak, beraiek baititu Jainkoak erruki izango. Zorionekoak bihotz-garbi direnak, berek ikusiko baitute Jainkoa. Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango baitira. Zorionekoak zuzentasunagatik erasoa jasaten dutenak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean. Poztu zaitetze eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan».

**G**aur, Elizan, santu guztien eguna ospatzen dugu, santu deklaratuena eta deklaratu gabeena, gizadiaren historian batzuk besteen segidan bizi izan diren guztiena. Batzuk aldarera igoak; besteak ez. Batzuek badugu albisterik; besteak zaratarik egin gabe joan dira. Zibilizazio eta kultura desberdinetakoak izan ziren –Apokalipsia liburuko irakurgaiak esan bezala–; baina guztiak izan dira «santu», hau da, Jainkoak

ri atsegin. Lehenik eta behin, Eliza, Jainkoaren Herria, aberastu dute; baina gizadi osoaren onerako bizi izan dira, eta jatorrago egin dute.

Arrazoi handiz aurkeztu digu gaur liturgiak «zoriontasunen» ebanjelioa, horixe baita santuek bizi izan duten bidea: arriskatu egin ziren, zoriontasunen alde egin zuten apustua, eta asmatu egin zuten (zorioneko izan ziren): pertsona apal, zaildu, izan zirenean, ondasunak partekatzen jakin zutenean, errukitsu eta bihotz garbi izan zirenean, zuzentasuna maite izan zutenean, bakegile izan zirenean, eta zailtasunen aurrean gizon edo emakume agertu zirenean... Gizadiagan konfiantza izatera itzuli gaituzten jende dira; izan ere, gizakiaren hondorik hondoenean, Jainkoak ereinda, bizirik den on askoren froga dira: beraiek hori guztia egun argira ateratzen jakin dute. Eta etsenplu horiengatik, beti xaxari eta eragile, anai-arrebez harro sentitu beharko ginateke gaur. «Espirituaren erregalu» ditugu.

\*\*\*

### **Emazte alargunaren otoitza**

Aita, zeurekin eraman duzu nire senarra.

Egin bedi zure nahi santua.

Eskerrak, Aita, urtetan neure ondoan izan dudalako.

Elkarrekin egin genuen bizitza honetako bide-zati bat.

Pozak eta penak partekatu genituen, gozamena eta zailtasunak.

Ederra izan zen, nahiz ez zen izan beti gauza erraza.

Eskerrak zuri guztiagatik.

Orain, joana da nire senarra. Bakarrik naiz gelditu.

Berari, emaiozu betiko zoriona.

## § Job liburutik 19,1.23-27a.

Jobek esan zuen:

Ai nire hitzak idatziak geldituko balira, liburuan ezarriak! Edota burdinazko eztenaz eta berunaz betiko grabatuak haitzean!

Nik badakit nire eskubidearen babeslea bizi dela eta, azkenean, hautsaren gainetik jaikiko dela. Nire larruazal hau hondatu ondoren, gorputzik gabe, Jainkoa ikusiko dut. Nik neuk ikusiko dut, eta ez bes-tek; neure begiez ikusiko dut. Bihotza sutan dut neure barruan!»

## [Sal 25 [24]: Jauna, zugana jasotzen dut gogoa.]

## § San Paulok Filipoarrei 3,20-21.

Senideok: Gu zeruko hiritar gara eta handik itxaro dugu Salbatzaillea, Jesu Kristo Jauna. Hark antzaldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez, gauza guztiak bere menpe jartzeko duen ahalmenari esker.

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 15,33-39; 16,1-6.

Eguerdian lurralde hura guztia ilunpean gelditu zen, arratsalde erdia arte. Eta arratsalde erdian Jesusek oihu handiz esan zuen: «Eloi, Eloi, lema sabaktani) –hau da: «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?»–. Han zeuden batzuek, hau entzutean, zioten: «Eliasi deika ari da». Eta batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera-muturrean jarrita, edateko eman zion, esanez: «Utziozue; ikus dezagun, ea etortzen zaion Elias, gurutzetik jaistera». Eta Jesusek, deiadar handi bat eginez, azken arnasa eman zuen. Jauretxeko oihala erdibi egin zen goitik beheraino. Haren aurrez aurre zegoen gudari-ehuntariak, berriz, era horretan hil zela ikustean, esan zuen: «Gizon hau, benetan, Jainkoaren Semea zen». Bazeuden han, urrutitik begira, emakume batzuk ere; haien artean, Maria Magdalena, San-

Urteko 31. astea.

HILDAKO GUZTIEN OROIPENA.

tiago gaztearen eta Joseren ama Maria, eta Salome –Jesus Galileen ibili zenean, laguntzaile eta zerbitzari izaten zituenak– eta beste emakume asko, Jesusekin batean Jerusalemara igo zirenak. Ilunabarrean, Prestaera Eguna, larunbat-bezpera, zelako, etorri zen Arimateako Jose –Batzarreko gizon argia, Jainkoaren erreinua itxaro zuena bera ere–, eta ausardiaz Pilatogana joan zen, Jesusen gorpua eskatzera. Harritu zen Pilato, ordurako hila zelako, eta, ehuntariari dei eginez, aspaldi hil al zen galdetu zion. Ehuntariaren erantzuna jakin zuenean, utzi zion gorpua Joseri. Honek, izara bat erosi eta, gurutzetik jaitzirik, izaran bildu zuen; harkaitz bizian zulatutako hilobi batean ipini eta, hilobiko sarreran, harri biribil bat ezarri. Maria Magdalena eta Joseren Maria begira zeuden non jartzen zuten.

**G**aur, jada zerura joanak diren pertsona maiteak gogoratzen ditugu, bihotzeratuz. Baina oroitzapen hutsa baino harago begiratzen dugu fededunok. Jakina, fedeak ez ditu ezabatzen gure malkoak; halere, konbentziturik gaude, urruntasun fisikoaren minak ezin baztertu duela esperantza: bizi direla bizi betea biziz Jainkoaren altzoan. Eta esperantza honek eusten digu, urduri, berriro topo egitearen egun pozgariaren zain. Bitartean, ordea, esker onez gogoratuko ditugu, beraiegangandik hainbat on hartu izan dugulako eta utzi ziguten etsenpluagatik, zeren eta gutako bakoitzak duenetik asko baitu beraietarik hartua; eta oroitzapen honek beraiek imitatzen eragiten digu eman ziguten hoberenari dagokionez. Horixe da egiten ahal diegun omenaldirik ederrena.

Gainera, sinesten dugun «santuen elkartasunak» beraiekin bat eginez bizitzen jarraitzen animatzen gaitu. Geure pertsona maite horiek zain ditugu «pozaren hiri» horretan, zeinetarako bideari ekin baitiogu; badakigu, gainera, ez direla bizi gugandik urrun; era misteriosuan elkarrekin bizi gara. Vatikanoko II.a kontzilioak esana digu: «Eliza erroremeko kideon batasuna Kristorekin bakean hil ziren anai-arrebekin ez da eteten inolaz ere» (Lumen Gentium 49). Otoitz egiten ahal dugu beraientzat eta beraiekin.

Urteko 31. astea.

San Martin Porres, *domingotarra*.Ruperto Mayer, *dohatsua, apaiza, jesuita*.

[San Paulok Filipoarrei 2, 5-11: Apaldu egin zuen bere burua; horregatik goratu zuen Jainkoak. Sal 22 [21]: Zugana nire gorespena, Jauna, batzar nagusian.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 15-24.

Aldi hartan, Jesusekin mahaian zegoen batek esan zion: «Zorionekoa Jainkoaren erreinuko otorduan parte hartuko duena».

Orduan, Jesusek esan zion: «Gizon batek afari handi bat eman zuen eta jende asko gonbidatu. Afarirako ordua iritsi zenean, morroia bidali zuen gonbidatuei esatera: “Zatozte, prest dago dena”. Baina bata bestearen ondoren aitzakiak jartzen hasi ziren denak. Lehenengoak esan zion: “Soroa erosi dut, eta ikustera joan behar dut; barkatu, arren”. Beste batek, berriz: “Bost idi-pare erosi ditut, eta probatzera joan behar dut; barkatu, arren”. Eta hurrengoak: “Ezkonduta berria naiz, eta ez naiteke joan”.

Itzuli zen morroia eta guztiaren berri eman zion nagusiari. Etxeko nagusia biziki haserretu zen eta esan zion morroiari: “Hoa bizkor herriko plazara eta kaleetara, eta ekarri behartsuak, elbarriak, itsuak eta herrenak”. Geroago, morroiak esan zion: “Jauna, egin dut agindu duzuna, eta oraindik bada lekua”. Orduan, nagusiak esan zion: “Hoa bidez bide eta bazterrik bazter eta sarrarazi jendea barrura, etxea bete dakidan”. Egia esan, gonbidatu haietako batek ere ez du nire afaria dastatuko».

**G**ustura hartzen al dugu Jesusek behin eta berriz egiten digun gonbita, jai-otordu batera joatekoa? Eskaintza horren aurrean, «bai» pozgarria al dario gure bihotzari, aitzakiarik gabea, eskaintza horren gainetik geure ustezko onura jarri gabe? Uste al dugu, gonbit horrek mahaia anai-arreba artean partekatzen dei egiten digula, aurreratzen lagunduko diguna, orain berean jada presente eginez, egun batean biziko dugun jai-otordu hura, zeinetan guztiak –behartsuak, elbarriak, itsu

Urteko 31. astea.

San Martin Porres, *domingotarra*.

Ruperto Mayer, *dohatsua, apaiza, jesuita*.

---

eta herrenak barne– parte hartuko baitute? Beraz, Jaunaren gonbitari «bai» esaten diogunean, benetan nahi izaten al dugu saiatu baldintzak sortzen, munduko mahai handian guztiak eseri ahal daitezen eta partekatzen duten anai-arreba izan daitezen? Aitzaki-maitzaki bagabiltza, ez dugu lanik izango jai-otordua dastatzen.

\*\*\*

### Txilen

[Apaizen pederastia ezkutatzea zela eta]

Beste kultura bat izan zen;  
uste izan zuen jendeak  
Elizaren mesederako zela  
beraren izen ona gordetzen saiatzea;  
baina izen ona ez da gordetzen  
zauriak tapatuz, baizik aitortuz,  
sendatuz.

Elizarentzat egin daitekeen gauzarik okerrenea  
gezurretan bizi nahi izatea da.

*(Celestino Aús, nafarra,*

*Santiagoko —Txile— Administraile Apostolikoa).*

Urteko 31. astea.

San Karlos Borromeo, *gotzaina*.

[San Paulok Filipoarrei 2, 12-18: Saia zaitetze zeuen salbamena burutzen. Jainkoa da, bai nahi izateko eta bai burutzeko gai egiten zaituztena. Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien:

«Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzeta hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle.

Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”.

Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde zuretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hoge milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz.

Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

**J**esús ez da urardo zale, ez kafeinagabe zale. Bere proposamena errotikoa du, argia. Ukapena eskatzen du, bai familia-loturei dagokionez, bai norberaren bizitzari dagokionez. Horregatik, bi jakinduriarako parabola laburretan, «esertzea» proposatu du, tarte bat hartzea, gaitasuna eta baliabideak kalkulatzeko, beraren ondoren joateko asmo horretaz gogoeta egiteko. Baina gogoeta hau, gure asmoak eta gure gaitasun soilak neurtze hutsa al da? Uste dut, zinez, ezetz. Geure buruaz

Urteko 31. astea.

San Karlos Borromeo, *gotzaina*.

---

**bakarrrik fidatzen bagara, ez gara ausartuko sekula urrats hori egitera. «Kalkulatze» horretan bere lekua eman behar zaio graziari bihotza irekitzeari, graziaren laguntzan konfiantza ipintzeari. «Segurtasun» hori eta Espiritu bihotz-emailea kontuan hartu gabe ez diogu ekingo, ez dorea eraikitzeari, ez erasotzeari.**

\*\*\*

**Frantzisko aita santuak Langile Mutilatuen eta Baliaezin**

**Elkarte Nazionalari**

*(ik. ZENIT 2018-09-20)*

Jarrera subsidiarioak, orain aipu dudanak, elkarte zibil osoari laguntzen dio gairak lanaren eta produktibitatearen arteko baliagarritasun engainagarri eta kaltegarria; pertsonaren balioa ekoizten duen ondasun edo aberastasunen harira neurtzera jotzen baitu, pertsona sistema batera murriztuz, eta, jakina, beraren berezitasuna eta aberastason pertsonala baliogabetuz. Begiratu gaixoti honek bere baitan du ustiapenaren eta esklabutzaren hazia eta kimua, eta pertsonaz duen ueste-molde utilitaristan ditu bere erroak.



[**San Paulok Filipinoarrei 3, 3-8a:** Baliotsutzat nituen gauzak baliogabetzat jo ditut Kristogatik. **Sal 105 [104]:** Poztu bihotzez Jaunaren bila zabiltzatenok.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15, 1-10.**

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».

Orduan, parabola hau esan zien Jesusok: «Zuetako bat, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez al da beste laurogeita hemeretziak larrean utzirik, galdutakoaren bila joaten aurkitu arte? Eta, aurkitzean, lepoan hartzen du poz-pezik eta, etxera iristean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia”.

Hara Nik esan: Jainkoak ere poz handiagoa hartzen du bihotz-berritzen den bekatari batengatik, bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintzoengatik baino.

Eta zein emakumek, zilarrezko hamar txanpon izan eta bat galtzen bazaio, ez du, kriseilua pizturik, etxea garbitu eta ardura guttiz bilatzen aurkitu arte? Eta aurkitzean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin, aurkitu baitut galdutako txanpona”.

Hara Nik esan: Berdin pozten da Jainkoa bere aingeruekin bihotz-berritzen den bekatari batengatik».

**A**rtzain batek eta etxekoandre batek, bi pertsona pobrek, beren indar gutzia jarriko dute galdutako beren ondasunen zatia berreskuratzeko. Zenbatez handiagoak ez dira izango Jainkoaren ahalegina eta jarduera, zuzenbidez eta maitasunez, besterendu ezinako den bere hura berreskuratzeko? Parabola biek azpimarratu dute Jainkoaren poza be-

Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak.

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak*.

retzat baliosa duen eta galdua zuela ematen zuena aurkitu duelako, eta agerian gelditu da gizaki bakoitzak duen balio ordainezina Jainkoaren begietan. Aski da bekatari bakar bat konbertitzea poza zeruraino iristeko. Sinetsi beharra dugu «sinestezin dena». Geure bila dugu Jainkoa, zeren eta, harengandik urruntzen garenean, gure falta nabari ohi baitu. Horixe da gure Jainkoa; ez dugu halakorik merezi, baina, zorionez, horixe da egia.

\*\*\*

### JESUSEN LAGUNDIKO SANTU ETA DOHATSU GUZTIAK

#### § Deuteronomio liburutik 30,11-14.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Obedituko diozu Jau-nari, zeure Jainkoari, legearen liburu honetan idatzitako beraren agin-duak eta legeak betez, eta bihotz-bihotzez eta gogo osoz itzuliko zara Jaunagana, zeure Jainkoagana.

Izan ere, gaur nik ematen dizudan agindua ez da zure indarrez gaindikoa, ezta eskuraezina ere. Ez dago zeruan, zuek hau esateko: “Nor igoko zaigu zerura, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?” Ez dago itsasoaz bestaldean ere, zuek hau esateko: “Nor joango zaigu itsasoaz bestaldera, agindua ekarri eta guri jakina-razteko, bete ahal dezagun?” Zeren esku-eskura baituzu hitza, zeure ahoan eta bihotzean, bete dezazun».

[Sal 16 [15]: Zu zaitut, Jauna, neure ondarea.]

#### † Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 12,23-26.

Aldi hartan, Jesusesk erantzun zien ikasleei: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Bene-benetan diotsuet: Ga-

Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak.

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak.*

ri-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena Aitak ohoratu egingo du.

**I**bn Arabik, poeta arabiar sufik, kristauak, esan zuen: «Bere gai-xotasuna Jesus duen hura, ezin sendatu da jada». Gaur, Jesusen Lagundiko santuen eta dohatsuen jaia ospatzen dugu, bai ofizialki horrela aitortuena, bai beste santu anonimo askorena ere: Lagundiak dituen kasik bost mendetan, gari-aleak gisa, beren bizia eman duten guztiena – haietako askok bizia eman dute ez metaforikoki bakarrik– gainerakoek bizia izan dezaten. Haiek guztiek jasan zuten Jesus deritzan gaixotasun hori, zeinez ez baitzuten sendatu nahi izan. Emazkiogun eskerrak Jau-nari haiengatik guztiengatik. Bidelagun ditugu. Ez daude Jainkoaren eta gure artean –Jainkoaren aurrean adiskide eragile eta erregutzaile soil gisa–. Geure ondoan ditugu. «Lekukoen hodei» hori dira, harmaile-tatik gure lasterketari begira, animoa eta arnasa ematen digute, berak iritsiak baitira helmugara, begiak Kristogan finko dituztela (Hb 12,1-2).

Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak.

San Severo, *martiria*. Eugenio Mari (Lazkao 1902–Pedralves [Katalunia] 1936), *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria*.\*

[San Paulok Filipoarrei 3, 17–4, 1: Kristok bere gorputz aintzatsua-  
ren irudiko egingo gaitu. Sal 122 [121]: Goazen pozik Jaunaren  
etxera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizon aberats batek etxe-  
zain bat zuen, eta hau ondasunak alferrik galtzen ari zitzaiola salatu  
zioten. Deitu eta esan zion: “Zer da zutaz entzun dudan hori? Emada-  
zu etxezaintzaren kontu, kargutik bota egiten zaitut eta”.

Etkezainak, orduan, hau zioen bere baitan: “Zer egin behar dut nik  
orain, nagusiak kargua kentzen didanez gero? Aitzurrerako ez naiz  
gauza, eta eskerako lotsa naiz. Badakit zer egin, kargutik botatzen  
nautelarik etxean nork hartu izan dezadan”.

Banan-banan bere nagusiaren zordun guztiei deitu eta lehenen-  
goari galdetu zion: “Zenbat zor diozu nire nagusiari?” Hark erantzun:  
“Ehun upel olio”. Etkezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria;  
agudo, eseri eta idatzi berrogeita hamar”. Gero, hurrengoari galde-  
tu zion: “Zuk zenbat zor diozu?” Hark erantzun: “Ehun anega gari”.  
Etkezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; idatzi laurogei”.

Eta nagusiak txalotu egin zuen etxezain zuzengabe hura, zuhur  
jokatu zuelako. Izan ere, mundukoak zuhurrago dira beren arteko ara-  
zoetan, argitakoak berenetan baino».

**P**arabolak ez gaitu gonbidatzen ondasunak xahutzera, ezta des-  
leial izatera ere, baizik azti eta zuhur izatera; mundu honetako onda-

\* Santuak: Pedro Poveda eta Inozentzio de la Inmaculada, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

Joakin Esnaola (Idiazabal 1898 – Madril 1936), *apaiza, agustindarra*, Klara Ezkurra (Arrasateko Ulibarri 1896 – Valencia 1936), *birjina* eta lagunak, *doha-tsuak, martiriak*.

# 6

Ostirala / Barikua

AZAROA / ZEMENDIA

Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak.

San Severo, *martiria*. Eugenio Mari (Lazkao 1902–Pedralves [Katalunia] 1936), *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria*.\*

---

sunez eta diruaz baliatzera –«diru zuzengabeaz», dio Lukasek (16,9), berari eransten zaizkiolako hainbat eta hainbat zuzengabekeria, handi eta txiki, eta jendea liluraz engainatzera jotzen duelako esklabo bihurtuz– adiskideak egiteko, zeruko atea irekiko dizkigutenak. Eta adiskide hauek, zeinen adiskidetasuna bilatu behar baita, premiarik handienak dituztenak dira. Behartsuak eta premiadunak dira zeruan geroa berमतuko digutenak; hauek izango dira –baldin eta hurbiltzen bagatzaizkie eta ondasunak berauekin partekatzen baditugu adiskide gisa– harrera egingo digutenak, Jainkoarekin batean, betiko egoitzaren atean, berauekin bizi izan dugun eskuzabaltasunagatik.

\* Santuak: Pedro Poveda eta Inozentzio de la Inmaculada, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

Joakin Esnaola (Idiazabal 1898 – Madril 1936), *apaiza, agustindarra*, Klara Ezkurra (Arrasateko Ulibarri 1896 – Valencia 1936), *birjina* eta lagunak, *dohatsuak, martiriak*.

Urteko 31. astea.

San Florentzio Irlandakoa, *gotzaina*.

[San Paulok Filipinoarrei 4, 10-19: Dena dezaket indartzen nauen Kristogan. Sal 112 [111]: Zorionekoa Jaunari begirune diona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 9-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Irabaz itzazue adiskideak bidegabeko diruaz; horrela, dirua amaitzean, betiko bizilekuan hartuko zaituzte Jainkoak. Gauza txikietan fidagarri dena, handietan ere fidagarri da, eta gauza txikietan zuzengabe dena, handietan ere zuzengabe. Bidegabeko dirua erabiltzen fidatzekoak izan ez bazarete, nork utzi zuen esku egiazko ondasuna? Zeuena ez duzuen aberastasunarekin fidatzekoak izan ez bazarete, nork eman benetan dagokizuen?»

Ezin da morroi bat bi nagusiren zerbitzari izan. Izan ere, bata gorroto izango du, eta bestea maite; edota bati leial izango zaio, eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi».

Entzun zuten hau guztia fariseu diruzaleek, eta barre egiten zioten Jesusi. Honek esan zien: «Zuek zeuen burua zintzo agertzen duzue jendearen aurrean, baina ezagutzen du Jainkoak zuen barrua; izan ere, gizakiak baliotsutzat daukana, Jainkoarentzat mespretxagarri da».

**F**ariseuak «diruaren adiskide» ziren eta uste zuten bateragarri zirela bizitza otoitz zalea eta dirua maite duena; haien aurka, Jesusek dio, ezin garela izan bi nagusiren zerbitzari. Jesus ez da mintzo ondradu eta soil «diruaz baliatzeaz», baizik eta «diruaren zerbitzari» izateaz. Diruari neurrigabe atxikitzeak esklabo bihurtzen gaitu eta gizatasunik gabeko egiten; aise bihurtzen da idolo, gure adoragarri («Mammon» jainkoa da, «segurtasuna ematen duena» esan nahi du, baina sasisegurtasuna da, horregatik da idolo). Ez du uzten zirrikiturik gure bihotzean, ez Jainkoarentzat, ez lagun hurkoarentzat. Noren zerbitzari naiz neure bizitzan, Jainkoarena ala diruarena? Zer da dirua niretzat, baliabide ala helburu?

Urteko 32. astea.

San Godofredo Amienskoa, *gotzaina*.

## § Jakinduria liburutik 6, 12-16.

Argitsua da jakinduria, itzalezina haren distira; nekerik gabe ikusten dute maite dutenek, baita aurkitzen ere haren bila dabiltzanek.

Irrikatzen dutenei, aurrea hartzen die eta bere burua ezagutzera ematen.

Haren bila goiz-goizetik doanak ez du nekerik izango, ate ondoan aurkituko baitu eserita.

Hartaz gogoeta egitea da zuhurtziarik handiena; harengatik gaua esna ematen duena laster izango da kezkarik gabe, zeren jakinduria bera ibiltzen baita hara eta hona beraren duin direnen bila; onginahiz agertzen zaie bideetan eta beren gogoeta bakoitzean aurkezten.

[Sal 63 [62]: Zure egarriz daukak gogoa, Jauna, ene Jainkoa.]

## § San Paulok 1 Tesalonikarrei 4, 13-18.

Senideok: Ez dugu nahi hildakoen zoriaz zuek ezjakinean egotarik, atsekabetu ez zaitezten, itxaropenik ez dutenen antzera. Jesus hil eta piztu zela egiaz sinesten badugu, era berean, Jesusekin bat eginik hil direnak ere Jainkoak berekin hartuko ditu.

Hau diotsuegu Jaunaren hitzean oinarrituta: guk, Jauna etortzean bizirik gertatuko garenok, ez diegu hil direnei aurrea hartuko. Zeren, goiaingeruaren oihuz eta Jainkoaren turuta-hotsez seinalea emanik, Jauna bera jaitsiko baita zerutik, eta aurrea, Kristorekin bat eginik hildakoak piztuko dira; gero gu, artean bizirik izango garenok, haiekin batean eramango gaituzte hodeietan, airean, Jaunarekin elkartzera. Eta horrela, beti Jaunarekin egongo gara. Adore ezazue, beraz, elkar hitz hauekin.

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera

Urteko 32. astea.

San Godofredo Amienskoa, *gotzaina*.

irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da. Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioak ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zuenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen.

Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkio-te bidera!” Jaiki ziren neskatxa guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”.

Baina, eroatera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten.

Iritsi ziren, azkenik, beste neskatxak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”.

Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

**J**esusek ez digu esan nahi, oliorik gabe gelditzeko arriskua onartuz eskuzabal eta emaille izatea baino garrantzizkoagoa denik neskatxa zuhurren zentzutasun egoista hori. Jesusen beste esaldi honen kontra-koa izango litzateke hori: «Balio handiagoa du emateak hartzeak baino». Ez du esanahi ere, Jainkoa gu geure deskuidurik txikienean nola harrapatuko dabilenik. Hori Jesusen behin eta berrizko baieztapenaren kontra joatea izango litzateke; alegia, Jainkoa maite gaituen Aita dela errepikatzearen kontra joatea. Parabolaren xehetasun hauek kontae-raren «jantzi» huts dira. Beste hau da mezua: aditasun-jarrera bizian bizitzera eragin nahi digula Jesusek. Zertan datzan? Ez da aski fededun garelara esatea..., parabolako neskatxa zentzugabeek ere eskuan zituzten kriseiluak, baina ez zuten haiek piztekorik izan. Ez da aski kristau garelara aldarrikatzea..., neskatxa zentzugabeek ere gonbita jaso zuten ezteietarako, baina ezin izan ziren sartu, atarian gelditu ziren. Prest bi-



Urteko 32. astea.

San Godofredo Amienskoa, *gotzaina*.

zitza hertsatzen gaitu parabolak. Eta gutako bakoitzak egin behar du azterketa, eta bereizi –zein den falta zaion olio–, zerk dion galarazten Jesusekiko duen atxikimendua jada erabat bete-betekoa izatea: zer dut alboratu beharreko edota sustatu beharreko, edozein unetan Kristori harrera egiteko erabat prest bizi nadin?

\*\*\*

### Giza baliabideak eta Jainkoa

Loiolako San Ignazioren Ribadeneira biografoak San Ignazioren uste ikusgarri hau kontatzen digu. Dio Ribadeneirak: «Gure Jaunaren zerbitzurako egiten zituen lan guztietan, eskura zituen giza baliabide guztiez baliatzen zen Ignazio, eta haietaz halako arretaz baliatzen zen, non uste baitzuen bere lanaren arrakasta haien esku zegoela; aldi berean, ordea, halako konfiantza jartzen zuen Jainkoagan, non uste baitzuen, giza baliabideen indarra Jainkoaren esku bakarrik dagoela». Eta jarraitzen du Ribadeneirak: «Gauzak egin behar dira, dena gure esku balego bezala eta ez Jainkoaren esku. Baina, aldi berean, Jainkoagan konfiantza izan behar da, dena haren esku balego bezala, eta ezer ez gure esku».

Urteko 32. astea.  
Letrango Eliza Sagaratzea.

[Ezekiel profetaren liburutik 47,1-2.8-9.12: Ura ikusi nuen tenplutik irteten; eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. **Sal 46 [45]:** Ibai baten adarrek alaitzen dute Jainkoaren hiria, Goi-goikoaren bizileku guztiz santua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2,13-22.

Aldi hartan, hurbil zen juduen Pazko-jaiia, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Tenpluan idi-, ardi- eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diru-trukatzaileak han eserita. Jesusek, lokarriz zartailua eginik, bota egin zituen denak tenplutik, baita ardiak eta idiak ere, eta tratularien diruak sakabanatu eta mahaiak irauli zituen. Uso-saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Ikasleak idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure tenpluaren maiteminak sutu nau».

Orduan juduek galdetu zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu hori egiteko?» Jesusek erantzun zien: «Desegin ezazue tenplu hau, eta hiru egunean jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren tenplu hau eraikitzeko, eta Zuk hiru egunean jasoko duzula?» Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen.

Hilen artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak esandako honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuetan eta Jesusek esandako hitzean.

«**K**ontu egizue, nola ari zareten eraikitzen bakoitza», ohartarazi digu San Paulok. «Bidaia-ri batek, Erdi Aroko hiri baten atean, hiru gizonetako sumatu ditu: hiruretako bakoitzak orgatxo bat garraiatzen du adreiluz betea. Lehenengoaren parera iristean, galdetu dio bidaiariak: «Zer ari zara?» Eta gizonetakoak, nekaturik eta egarri, erantzun dio: «Adreiluz betetako orgatxo garraiatzen!» Bigarrenaren parera iristean, galdera bera egin dio. Eta erantzun dio besteak: «Emaztea eta haurrak ditut, jan beharra dute, eta lan egin beharra dut haiei zer jana

Urteko 32. astea.  
Letrango Eliza Sagaratzea.

eramateko». Hirugarrenaren parera iristean, galdera bera egin dio. Gizona gelditu da. Haren begietan nekea eta asperdura baino zerbait gehiago ikusi du bidaiariak. Harrotasun eta duintasun-printza bat nabari dio. «Katedral bat ari naiz eraikitzen!» Parabola honetatik atera daitekeen irakaspena: motibazio-maila desberdinek zeregin neketsu bera oso desberdina izatea dakarte, kontraerako hiru langileetako bakoitzarentzat. Motibazio-maila altuenak energia handiagoa ematen du lan egiteko. Honela laburtzen ahal genuke: zenbat eta zabalagoa ikuspegia, orduan eta arinagoa eta amesgarriagoa eskuarteko zeregina. Egin dezagun gogoeta, esperantzaz, gu kristauok, geure testigantza dela bide, batzuetan neke handikoa, Eliza eraikitzen ari garela!

\*\*\*

**Ni bakarrik, zer izan naiteke?**

Behin batean hautatu nuen  
isla izatea eguzkirik gabe,  
ur iturbururik gabe,  
ahots eztairik gabe  
eta galdu nintzen neure baitan.  
Zuk gorde ninduzun,  
eguzki zeure begietan,  
ur zeure eskuetan,  
ahots zeure belarrietan  
eta aurkitu nuen neure burua zagan.

Ordudanik,  
Zuk nauzu argitzen,  
Zuk nauzu emaritzen,  
Zuk didazu izena esaten  
eta neugan zaitut berraurkitzen.  
Ni bakarrik, zer izan naiteke?

*(Benjamín González Buelta, S.J.)  
(LIBURUXKA ESPIRITUALA  
ZUZENDARI  
ETA PASTORAL TALDEENTZAT  
19/20 IKASTURTEA, Jesuitak).*

Urteko 32. astea.

San Leon Handia, 45. aita santua eta eliz irakaslea.

San Andres Avelino, *erlijioso teatinoa, apaiza.*

[San Paulok Titori 2, 1-8. 11-14: Jainkozaletasunez bizi gaitezen, Jesu Kristo Jainko handia eta gure salbatzailea aintzaz beterik noiz agertuko zain. Sal 37 [36]: Jaunagandik dator zintzoen salbamena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 7-10.

Aldi hartan, Jaunak esan zien apostoluei: «Emazue, zuetako bategen morroia duela soro-lanean edota artzaintzan. Morroia etxeratzean, “hator berehala mahaira” esango ote dio? Ez ote dio beste hau esango: “Presta iezadak afaria, jantzi aurreko mantala eta zerbitza nazak, nik afaldu bitartean; ondoren, afalduko duk heuk?” Morroiari esker ona zor ote dio, agindua bete duelako?»

Zuek ere gauza bera: agindutako guztia egin eta gero, esazue: “Morroi gizajoak gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin”».

**B**ere adiskideekin ospatzeko zekor bat sekula eman ez diolako, anaia nagusiak azaldu duen kexaren aurrean, Jainkoak, parabola honetako aitak bezala, diosku: «Zu beti nirekin zaude eta neurea dudan guztia zeurea duzu. Lan egitea, ez niretzat bakarrik, baizik nirekin: horra zeure zorion handia». Baina bestelakoa izan ohi da askotan gure jarrera: faktura azaldu nahi izaten diogu Jainkoari, kontuan izan gabe, gure egitate on guztiak, gure zerbitzuaren fruitua bera, haren graziak, dohaineko haren laguntzak, ahalbidetu dituela. Zerbitzu apal eta leiala eskaini behar dugu, bihotzari dariona, baina, gogoan izanik, haren fruitua doako dohaina dela beti; horregatik, halako zerbitzu hark ez dizu bide ematen zeure egitatez zarela zuzenetsia pentsatzeko, ez dizu bide ematen harroputz sentitzeko ere; halako zerbitzua egin duzularik, eginbeharra burutu duzula sentitzea duzu saririk hobena.

Urteko 32. astea.

San Martin Tours-ekoa, *gotzaina*.Toribio santua, *monjea*.

[San Paulok Titori 3, 1-7: Noizbait bidegaldu izanak gara, baina bere errukiagatik salbatu egin gaitu. Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 11-19.

Aldi hartan, Jesus Jerusalemera bidean, Samarian eta Galilean barna zihoan. Herrixka batean sartzean, hamar legenardun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten:

«Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!» Jesusek, ikustean, esan zien: «Joan eta azaldu apaizengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren.

Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahuspez erori zen, eskerrak emanaz. Samariarra zen bera.

Jesusek esan zuen: «Ez al dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatzia? Ez al da izan atzerritar hau besterik Jainkoa goratzeratortzeko?» Gero, esan zion: «Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu».

**G**alde diezaiogun geure buruari, ez ote litzatekeen harrituko Jesus gure esker epelaz? Oso gutxi lantzen dugu esker oneko gorespena. Ignaziotar espiritualitatean, «zerbitzua» eta «zerbitzatzea» beste termino batzuei loturik ageri ohi dira kasik beti, «gurpena», «gorespena», «maitasuna» bezalakoei loturik. Hitz txirikordatu edo ahokatuak dira, korapilatua, batac bestea eskatzen dutenak. Zeren eta zerbitzu bihurtzen ez diren «gurpena», «gorespena» eta «maitasuna» hitz hutsal izango dira; era berean, «maitasunetik» sortu ez den zerbitzua eta «gurpena» eta «gorespena» berekin ez dituenak, «giza harrokeria (hybris)» bilakutzen da. Zerbitzua, kanturik (gorespenik) gabe, zakar bilakutzen da; kantuak, zerbitzurik (eta buru-eskaintzarik) gabe, bere funtsa galtzen du. Gizakiak Jainkoaren maitasunari eskainitako erantzuna kantu eta zerbitzu bilakutzen da. Biak batera, elkarreraginean (J.A. García).

Urteko 32. astea.

San Josafat, *gotzaina eta martiria*.

San Millan [Emiliano ], Donemiliaga Kukulakoa, *apaiza*.

[San Paulok Filemoni 7-20: Hartazazu, ez esklabo bezala, anaia maitea bezala baizik. Sal 146 [145]: Zorionekoa Jakoben Jainkoa lagun duena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 20-25.

Aldi hartan, Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zen galdetu zioten fariseuek Jesusi. Honek erantzun zien: «Jainkoaren erreinua ez da nabarmen etorriko. Ezin esango da: “Hona hemen” edota “hara han”; zeren Jainkoaren erreinua zuen artean baitago jadanik».

Gero, ikasleei esan zien: «Iritsiko da garaia, Gizonaren Semea etorri osteko egun bat bederen ikusi nahi izango duzuen, eta ezin izango duzue ikusi. Orduan, “hona hemen”, “hara han” esango dizuete. Baina zuek ez joan, ez atera atzetik lasterka. Izan ere, tximistak une batean zerualde batetik besteraino argi egiten duen bezala, hala izango da Gizonaren Semea etorriko den egunean. Baina aurretik asko sufritu behar du, eta gizaldi honek gaitzetsi egingo du».

**Z**eu en barnean» duzue erreinua, «zeu en artean», «zeu en esku en». Esapide desberdin horiek in itzuli izan da Jesusen hitza. Nolanahi den, esan digu, Erreinua itxuraz murrizta izan daitekeela; baina arian ari dela jada eta ez dela inolaz ere ikusgarritasun. Hartan lankide izateko, ez da itxaron behar hark noiz dirdiratsu eztanda egingo, baizik eta egunez egun behar da lan egin lankide, gaurko orain honek, ezdeusaren itxura izanik ere, balio erabakitzailea baitu. Zeren eta egunerokotasunaren soiltasunean eta normaltasunean baitago ezkutuan Jainkoaren Erreinuaren ernamuina, oreka altxarazten duen legamia bailitza.

Urteko 32. astea.

San Estanislao Kostka, *jesuita*.San Leandro Sevillakoa, *gotzaina*.

[San Joan Apostoluaren bigarren gutunetik 4-9: Irakaspenean irauten duenak berekin ditu Aita eta Semea. Sal 119 [118]: Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 26-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen garaian ere: jan-edanean zebilen jendea eta ezkondu egiten ziren gizon-emakumeak, Noe ontzian sartu zen eguna arte; baina etorri zen uholdea eta denak galdu zituen.

Gauza bera gertatu zen Loten garaian ere: jan eta edan, erosi eta saldu, landatu eta eraiki egiten zuen jendeak; baina, Lot Sodomatik atera zen egunean, su eta sufrezko euria egin zuen zerutik eta denak galdu zituen.

Hala gertatuko da Gizonaren Semea agertuko den egunean ere. Egun hartan, etxe gainean egon eta bere gauzak etxean dituen ez bedi hartzera jaitsi; eta, era berean, soroan dena ez bedi atzera itzuli. Oroitu Loten emazteaz.

Bere bizia beretzat gorde nahi duenak galdu egingo du; galtzen duenak, berriz, onik aterako du. Nik diotsuet: gau hartan bi lagun egongo dira ohe berean: bata hartuko dute eta bestea utziko; bi emakume ariko dira batera ehotzen: bata hartuko dute eta bestea utziko». Ikasleek galdetu zioten: «Non izango da hori, Jauna?». Jesusek erantzun zien: «Sarraskia non, han bilduko dira putreak».

«**A**pokalipsi txikia» deituan, Jesusek diosku iritsiko dela «gizonaren Semearen eguna», eta prestaturik bizi behar dugula. Jainkoak, maitasun denak, bere Semea eratu du epaile (Eginak 10,42). Juzkatuko gaituen Jainkoa, Jainko gizon egina da, beraz. Ez gaitu juzkatuko kanpotik, baizik eta gure larruan berean sarturik, gure egoerak eta arazoak

Urteko 32. astea.

San Estanislao Kostka, *jesuita*.

San Leandro Sevillakoa, *gotzaina*.

---

berak bere buruan jasanik. Giza epaimahaia ez bezalakoa da, zeinetan epailea epaituagandik urrun jartzen baita hura juzkatzeko. Jainkoak maitasunez eta gugana maitasun hurbilduz epaitzen gaitu. Beraz, gizonaren Semeak epaituko gaitu, Kristok, alegia, gure haragitik haragi egin izan denak eta ezagutzen duenak, bere esperientziaz, gure ahuldea. Horra gure kontsolamendua.

\*\*\*

### Unamunoren otoitza

«Aita, handitu atea,  
ezin naiz igaro-eta,  
haurrentzat egin zenuen,  
ni hazi egin naiz gogoz kontra.  
Handitzen ez badidazu atea,  
bihur nazazu ni neu txiki, mesedez...».



Urteko 32. astea.

San Jose Pignatelli, *apaiza, jesuita* (*Jesusen Lagundia berrezarri zuena*).

[San Joan Apostoluaren hirugarren gutunetik 5-8: Lagundu egin behar diegu senideei, egiaren zerbitzuan horien lankide bihur gaitezen. Sal 112 [111]: Zorionekoa Jaunari begirune diona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 1-8.

Aldi hartan, etengabe egin behar zutela oititz eta ez zutela etsi behar adierazteko, Jesusek parabola hau esan zien: «Bazen hiri batean epaile bat, ez Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik ez ziona. Bazen hiri berean emakume alargun bat ere. Hau epaile harengana joaten zen, eskatzera: “Egidazu justizia aurkariarekiko auzian”. Luza-roan epaileak ez zion kasurik egin nahi izan, baina azkenean bere baitan esan zuen: “Ez diot Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik; baina, alargun hau gogaikarri zaidanez, egingo diot justizia, behingoz bakean utz nazan”».

Eta honela bukatu zuen Jaunak: «Begira zer dioen epaile zuzengabeak. Eta Jainkoak, ez ote die justizia egingo, gau eta egun deiadarka ari zaizkion bere aukeratuei? Zain edukiko ote ditu luzaroen? Justizia berehala egingo diela diotsuet. Baina Gizonaren Semeak, datorrenean, aurkituko ote du sinesmenik munduan?»

«**Z**enbatez gehiago ez du egingo Jainkoak!?» Epaile zuzengabe batek noizbait ere alargunaren eskaria aintzat hartu badu, zenbatez gehiago ez digu kasu egingo Jainkoak, Aita onberak!? Ez zaigu ariko geroko geroka. Parabola honetan, beraz, oititzari behin eta berriz emanik aritzera dei egin digu Jesusek, ez dezagula amore eman geure eskarrietan; batez ere, ordea, konfiantza izateko eskatu digu Aita den Jainko bihotz zabalagan. Ezin huts egin dizue zeuen Aitak, diosku Jesusek. Oititzean iraupentsu izateak indarra ematen digu eta fedeari eusteko modua, zailtasunak eta guzti, eta fedean irmo jarraitzea gizonaren Semea lurrera itzuliko den arte.

Urteko 33. astea.

San Alberto Handia, *gotzaina eta eliz irakaslea, domingotarra.*

§ Esaera Zaharrak liburutik 31, 10-13. 19-20. 30-31.

Nork aurkituko etxeoandre arduratsua? Harribitxiak baino askoz baliotsuagoa da. Konfiantza osoa du senarrak harengan, eta ez da sekula beharrean aurkituko. Zoriona ekartzen dio, ez zoritxarra, bizitzako egun guztietan. Artilea eta lihoa eskuratzen ditu, gogotsu egiten dute lan haren eskuek. Eskuaz goruari heltzen dio eta atzamarrez ardatzari eragiten. Dohakabeari eskua zabaltzen dio eta behartsuari laguntza ematen.

Gezurrezkoa da xarma, hutsala edertasuna; goresgarria, ordea, Jaunari begirune dion emakumea. Emazkiozue eskerrak bere eskuen lanagatik, goretsi herri osoaren aurrean berak eginagatik.

[Sal 128 [127]: Zorionekoa Jaunari begirune diona].

§ San Paulok 1 Tesalonikarrei 5, 1-6.

Senideok: Jaunaren etorrera noiz eta nola izango den ez duzue nik idatzi beharrik; zeuek dakizue aski ongi Jaunaren eguna lapurra gauetz bezala etorriko dela.

«Bakea eta lasaitasuna» esaten ari direnean, orduan ustekabeen etorriko zaie hondamendia gainera, haurdun dagoenari erdiminak bezala, eta ez dute ihes egiterik izango. Zuek, ordea, senideok, ez zarete ilunpean bizi, egun horrek lapurrak bezala harrapatzeko zorian; guztiok argiaren eta egunaren seme-alaba zarete. Ez gara gauarenak, ez ilunarenak. Beraz, ez dezagun lorik egin besteek bezala; gauden erne, eta izan gaitezen neurritsu.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 14-30.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Gizon batek, urrutira joaterakoan, bere morroiei dei egin eta bere ondasunak utzi zizkien. Bati bost talentu eman zizkion, beste bati bi, beste bati

Urteko 33. astea.

San Alberto Handia, *gotzaina eta eliz irakaslea, domingotarra.*

bakarra; bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Eta gero joan egin zen. Bost talentu hartu zituena haiekin lanean hasi zen berehala, eta beste bost irabazi zituen. Bi hartu zituenak ere gauza bera egin zuen, eta beste bi irabazi zituen. Bat hartu zuenak, ordea, lurrean zuloa egin eta han gorde zuen bere nagusiaren dirua.

Handik luzarora, etorri zen morroi haien nagusia, eta kontuak garbitzen hasi zitzaien. Hurbildu zen bost talentu hartu zituena, eta beste bost eraman zizkion, esanez: “Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; begira, beste bost irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarelako, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”.

Hurbildu zen bi talentu hartu zituena, eta esan zion: “Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; begira, beste bi irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarelako, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”.

Azkenean, hurbildu zen talentu bat hartu zuena, eta esan zion: “Jauna, banekien gizon zorrotza zarela; erein ez duzun tokian igitatzen, eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna. Beraz, beldurrez joan nintzen, eta lurpean gorde nuen zure talentua. Hemen duzu zeurea!”

Nagusiak erantzun zion: “Morroi gaizto eta alfer hori! Bahekien, beraz, erein ez dudan tokian igitatzen dudala nik, eta zabaldu ez dudan tokian biltzen. Horregatik, nire dirua diru-trukatzaileei utzi behar hien, nik, etortzean, irabazi eta guzti jaso nezan. Ken iezaiozue, bada, talentu hori, eta eman hamar dituenari. Duenari eman egingo baitzaio, eta gainezka izango du; ez duenari, berriz, duen hura ere kendu egingo zaio. Eta morroi alfer huts hori bota kanpoko ilunpera. Han izango da negarra eta hortz-karraska!”»

**J**aunak zerbitzarietako hirugarrena gaitzetsi izana ez da izan talenturen bat galdu duelako, baizik eta alfer-alferrik lurpean ezarri di-

Urteko 33. astea.

San Alberto Handia, *gotzaina eta eliz irakaslea,*  
*domingotarra.*

tuelako. Ez da aipatu galeraren kasua. Horrenbestez, Jesusek adierazi nahi digu, ezen inbertsioa Erreinua eraikitzeke orduan, ezen talentuen inbertsioa, soilenak direlarik ere, maitasunez egina denean, ez dela galduko sekula, beti emango duela bere fruitua, segida-segidan ikusiko ez badugu ere.

Parabola geuri ari zaigu zirika, hainbat aldiz beldurti izan ohi garenoi, sortzaile izatera ausartzen ez garenoi, nahiago izaten dugunoi segurtasun erosoan bizi, bidera datozkigun erronkei jarrera berritzailez aurre egin baino. Lurrean sartzen ditugu talentuak, Erreinua haziz joan dadin arriskatu ordez. Fedea «gordailu» bihurtzen dugu, ezkutan gorde beharreko gordailu, dohain bizi emankor bihurtu ordez; geuri aldaketa eskatzen diguna da fedea, baina akuilu ere bada mundua eraldatzera eragiteko, gizartean bizi dugun lekutxotik. Parabolak astindu bat eman nahi dio gure geldotasunari, eta hausnarketa egitera bultzatzen gaitu geure ez egitezko bekatuen inguruan. Beharturik gaude geure dohainak eta besterenak erabiltzera, lurpean ez gordetzera; guztia, guztion artean Jesusek Jainkoaren Erreinua deitu duen anai-arreba arteko elkarte hori eratzen joateko.

Santa Gertrudis, *birjina, beneditarra*. Santa Margarita Eskoziakoa, *erregina*. Santuak: Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Juan del Castillo, *apaizak, martiriak, jesuitak*.

[Apokalipsia liburuaren hasiera 1, 1-4; 2, 1-5a: Hartu gogoan nondik erori zaren, eta bihotz-berri zaitez. **Sal 1:** Garaileari biziaren arbolako fruituetatik emango diot jaten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 35-43.

Aldi hartan, Jesus Jerikora hurbildu zelarik, itsu bat zegoen eskean bide-ertzean eseria. Jendea igarotzen sumaturik, zer zen hura galdetu zuen. Jesus Nazaretarra igarotzen zela jakinarazi zioten. Orduan, deia-darka hasi zen: «Jesus, Daviden Seme, erruki zakizkit!»

Aurrean zihoazenek gogor egiten zioten isilarazteko; baina hark oihu handiagoz: «Daviden Seme, erruki zakizkit!»

Jesusek, gelditurik, beregana ekartzeko agindu zien. Hurreratu zenean, galdetu zion: «Zer nahi duzu Nik zuri egitea?» Itsuak erantzun: «Ikus dezadala, Jauna!» Jesusek esan zion: «Ikusi, bada; zeure sinesmenak sendatu zaitu».

Berehala ikusmena berreskuratu zuen eta Jesusen ondoren zihoan, Jainkoa goretsiz. Eta herri osoak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu zuen.

**J**esusen galderak arraroa dela ematen du; sendatu nahi duen galdetuko dio, bada, itsu bati? Baina ez da galdera alferra, zeren eta ez dute gaixo guztiak sendatu nahi izaten –ondotxo dakite hori sendagileek–. Galde egiogun geure buruari, egiati, sendatu nahi ote dugun; geure itsutasunak alde batera utzi nahi ote ditugun (askotan halakoek konplize izaten gara, gauza eroso gertatzen zaizkigulako) Jesusi garbi eta jator jarraitzeko. Prest ote gauden geure sendatzearen ordaina emateko. Itsua bai, prest agertu zen. Horregatik, ikusmena eskuratu zuenean, bere bizitzan askatasun osoz ibili ahal izan zenean, Jesusen esku jarri zuen bere burua: «jarraitu egin zion Jainkoa goretsiz». Nola baliatu askatasunaz Jaunarekin uztartuaz baino hobeto? Horregatik, ikaslearen eredu bilakatu da itsua.

Urteko 33. astea.

Santa Elisabet Hungariakoa, *alarguna*.

[Apokalipsia liburutik 3, 1-6. 14-22: Norbaitek atea irekitzen badit, harenean sartuko naiz eta elkarrekin afalduko dugu. Sal 15 [14]: Garailea neurekin eseraraziko dut neure tronuan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 1-10.

Aldi hartan, Jesus Jerikon sartu eta herrian barna zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-buru zena, oso aberatsa. Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen Zakeo, baina ezin zuen jendetzagatik, txikia baitzen. Lasterka aurrera joan eta pikondo batera igo zen Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen.

Jesusek, toki hartara iristean, gora begiratu eta esan zion: «Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta». Berehala jaitsi zen eta pozik hartu zuen etxean. Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: «Bekatari baten etxera joan duk ostatuz».

Zakeok, ordea, zutik jarrita, esan zion Jaunari: «Jauna, neure ondasuren erdiak behartsuei emango dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot».

Jesusek esan zion: «Gaur iritsi da salbamena etxe honetara, hau ere Abrahamen ondorengo baita. Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da».

**N**orbait bere bila duen bilatzailea da Zakeo. Jesusek, begiratu dionean, Zakeogan denik eta hoberena atera nahi du argitara, ordu arte etiketa deskalifikagarriren pean zetzana. Zakeo, Jesusen ondoan, aldatu egin da. Beragan errealitate bihurtu da Jesusen esapide hura, aberatsentzat Erreinuaren sartzea zein zaila den ari zenean jaulkitakoa (Lk 18,24): gizakiarentzat ezinezko, Jainkoarentzat posible. Zakeogan posible egin zuen Jainkoak. Jesusen bihozkoitasunak bigundu egin zuen aberatsaren bihotzaren gogortasuna. Geure burua txiki eta beheaturik (gizartean «gaizki ikusirik») nabari badugu ere, gerta gaitezke eraldaturik geu ere. Jesus «gero» bat irekitzera etorri da bere burua galdurik ikusten duenari.

[Apokalipsia liburutik 4, 1-11: Santua Jauna, Jainko ahalguztiduna, bazen, baden eta etortzekoa den hura. Sal 150: Santu, santu, santua Jauna, Jainko ahalguztiduna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 11-28.

Aldi hartan, Jesusek parabola bat kontatu zion jendeari, Jerusalem dik hurbil baitzen eta jendeak Jainkoaren erreinua une batetik bestera azalduko zela uste baitzuen: «Handiki bat urrutiko lurralde batera joan zen, errege-izendapena hartzera, gero itzultzeko. Bere zerbitzarietako hamarri dei egin eta ontzako urre bana eman zien, esanez: “Saiatu etekina ateratzen, ni itzuli bitartean”.

Baina herritarrek gorroto zuten eta mandatariak bidali zituzten ondotik, esatera: “Ez dugu hori errege nahi”.

Errege-izendapena harturik itzuli zenean, deiarazi zituen dirua banatu zien morroiak, bakoitzak zer irabazi zuen jakiteko.

Aurkeztu zen lehenengoa eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak hamar halako eman du”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi ona! Gauza gutxian leial izan zarenez gero, hartzazu hamar hiriren agintea”.

Joan zen gero bigarrena eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak bost halako eman du”. Honi ere nagusiak esan zion: “Hartzazu bost hiriren agintea”.

Joan zen beste bat eta esan zion: “Jauna, hemen duzu zeure ontzakoak; zapian bildua eduki dut. Beldur nizun, gizon gogorra zarelako, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen duzuna”. Nagusiak, orduan: “Heure esanetik kondenatzen haut, morroi gaizto hori! Bahekien gizon gogorra naizela, eman gabea eskatzen eta erein gabea bil-

\* M<sup>a</sup> Anjeles Odriozola (Azpeitia), M<sup>a</sup> Engrazia Lekuona (Oiartzun), M<sup>a</sup> Zezilia (Azpeitia), M<sup>a</sup> Ines (Etxarri) eta lagunak, *dohatsu, birjina eta martiri* (1936), *Andre Mariaren Bisitakoak*.

## Urteko 33. astea.

San Pedroren eta San Pauloren elizak sagaratzea.  
San Odon, *abadea, beneditarra*.\*

tzen dudana. Nolatan ez duk, bada, nire dirua bankuan jarri? Horrela, itzultzean, bere interesekin jasoko nian”.

Eta han zeudenei esan zien: “Ken iezaiozue ontzakoa, eta eman hamar dituenari”. Haiek erantzun zioten: “Jauna, lehen ere baditu hamar ontzako”. Eta nagusiak: “Hara nik esan: Duenari eman egingo zaio; ez duenari, berriz, daukan apurra ere kenduko. Eta errege nahi ez ninduten etsai horiek, ekarri hona eta hil itzazue nire aurrean”».

Hitz hauek esan ondoren, Jesusek Jerusalemgo bidean gora jarraitu zuen denen aurretik.

**Z**erbitzarietako hirugarrenak esan dio: «Zure beldur nintzen». Jainkoaz zuen irudia zapaltzaile batena zen, beldurra ematen duen batena. Jainko zorrotz eta gogor baten ideiarenean aurrean, zeken jokatu du: «Ez dut arriskurik bizi nahi izan. Zekenki, gorde egin nuen dirua; hemen duzu. Egin dut nik zurekiko legea». Beldurrak zurrundu egiten du pertsona, antzu bihurtzen. Egin dezagun gogoeta Jainkoarekin ditugun geure harremanez: neure bizitzako une honetan, zertaraino da hura lotzen natsaion arroka, neure beldurretik gordetzeko gotorleku? Ez al naiz gehiegi eskatuko didan beldur? Eskain diezaiogun konfiantza-apur bat San Agustini: «Jainkoak ez dit eskatuko ezer, hartarako alde aurretik laguntza eman gabe».

\* M<sup>a</sup> Anjeles Odriozola (Azpeitia), M<sup>a</sup> Engrazia Lekuona (Oiartzun), M<sup>a</sup> Zezilia (Azpeitia), M<sup>a</sup> Ines (Etxarri) eta lagunak, *dohatsu, birjina eta martiri* (1936), *Andre Mariaren Bisitakoak*.



Urteko 33. astea.  
San Abdias, *profeta*.

[Apokalipsia liburutik 5, 1-10: Hila izan da Bildotsa, eta, bere heriotzaz, Jainkoarentzat irabazi ditu nazio guztietako gizon-ema-kumeak. Sal 149: Errege eta apaiz den herri egin gaituzu geure Jainkoarentzat.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 41-44.

Aldi hartan, Jesus, Jerusalemera hurbildu eta hiria ikustean, negarrez hasi zen berarengatik, eta esan zuen: «Ai Jerusalem, ulertuko bazenu zuk ere gaur bakerako bidea! Baina ez zara gauza hori ikusteko. Etorriko zaizu, bai, zeure etsaiek lubakiz inguratu, setiatu eta alde guztietatik erasoko dizuten garaia; txikitu egingo zaituztete zu eta zure bizilagunak; eta ez dizute harririk harri gainean utziko, Jainkoak eskaini dizun salbamen-aukera aintzat hartu ez duzulako».

**H**unkitu egiten gaitu Jesusen lantuak, hain gizatiarra da: judu on bezala, «Hiri Santua» deitoratzen du, bertako biztanleak, bere herria, deitoratzen ditu. Herri hori ez da gai izan bakea eta salbazioa zekarren mezulariari antzemateko. Aurre egin dio temati, eta hondamendia ekarriko dio horrek. Jesusek aitortu du bere porrota, bere burua berei agertzen askotan saiatu den arren (Lk 13,34-35). Baina bereek ez dute aintzat hartu. Min ematen diona ez da bere buruari iragartzen dion zoria, baizik eta hiriari eta herri osoari datorkien azken tragikoa da. Kalbario-bidean beste behin azalduko du atsekabe hori besteen sufri-menagatik (Lk 23,28-30). Barea ez du tristura nartzizista bat; gupidatik jariatzen zaio beti.

Urteko 33. astea.

San Edmundo, *martiria*.

[Apokalipsia liburutik 10, 8-11: Hartu nuen liburuxka eta irentsi nuen.  
Sal 119 [118]: Bai gozoa niretzat, Jauna, Zuk hitzemaña!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 45-48.

Aldi hartan, Jesus, tenpluan sarturik, bertan salerosketan ari zirenak kanpora botatzen hasi zen, esanez: «Liburu Santuak dio: “Nire etxea otoitz-etxe izango da”. Zuek, ordea, “lapur-zulo” bihurtu du-zue».

Egunero tenpluan irakasten ari ohi zen. Apaizburuak, lege-maisuak eta herriko handikiak Jesus hil nahian zebiltzan; baina ez zuten asmatzen zer egin, herri guztia aho zabalik baitzegoen hari entzuten.

**J**esusek, «errege» bezala etorri delarik (Lk 19,38), profeta gisa dihardu, eta «bere Aitaren etxearen jabe» egin da. Tenplua garbitu du, hartan bere irakaskuntza-ministerioa bete ahal izateko. Keinu profetiko adoretzu horrek apaizei eta lege-maisuei erasan zien nagusiki, berauek baitziren hartatik probetxua ateratzen zutenak, tenplua egundoko negozio-leku bilakatua zutelako. Jesusen egitate hori izan zen auzi erlijiosoan Jesusen aurka atera zuten salaketa erabakitzailea (Mt 26,60-61). «Lapur-zulo» bihurtu zutenek Jesus bera garbitzea, hiltzea, erabaki zuten; jende xeheak, ordea, tenplurako zerga ordaindu behar izaten zuenak, Jesusez liluraturik jarraitzen zuen. Beste behin, zein aldetan bizi behar dugun irakatsi digu Jesusek.

Urteko 33. astea.

Andre Maria [haurra] Tenpluan Aurkeztua.  
San Gelasio I.a, *aita santua*.

[Apokalipsia liburutik 11, 4-12: Bi profeta horiek samin larria sortzen zieten lurreko bizilagunei. Sal 144 [143]: Bedeinkatua Jauna, nire harkaitza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 20, 27-40.

Aldi hartan, saduzear batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla), eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: “Norbaiti anaia ezkondua seme-alabarik gabe hiltzen bazaio, ezkon bedi alargunarekin, anaiari ondorengoa emateko”. Baziren, bada, zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena eta hirugarrena alargunarekin ezkondu ziren, eta zazpiak berdin. Eta denak seme-alabarik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?»

Jesusek erantzun zien: «Mundu honetan gizon-emakumeak ezkondu egiten dira; baina datorren munduan eta hildakoen piztueran parte hartzeko Jainkoak gai aurkituko dituenak, gizaseme nahiz emakume, ez dira ezkonduko; izan ere, ez daitezke hil, aingeruak bezalakoak baitira eta Jainkoaren seme-alaba, piztueran parte dutenez gero. Gainera, hildakoak pizten direla Moisesek berak adierazten du, sutan zegoen sasiaren pasartean, Jaunari “Abrahamen Jainko, Isaaken Jainko eta Jakoben Jainko” deitzen dionean. Ez da hildakoen Jainko, biziena baizik, denak bizirik baitaude harentzat».

Orduan, lege-maisu batzuek esan zuten: «Maisu, ederki esan diduzu». Eta ez ziren ausartzen beste galderarik egitera.

**A**ndre Mariaren jai honek «Santiagoren Protoebanjelioaren Hitzaurrean» du bere jatorria. Beste ebanjelio apokrifo batzuek bezala, Jesusen hartzaroaren kontakizuna osatu nahi du –kasu honetan Mariarena–, pertsona arruntenak ez diren gauza eta gertaera miresgarriak

Urteko 33. astea.

Andre Maria [haurra] Tenpluan Aurkeztua.  
San Gelasio 1.a, *aita santua*.

**kontatuz. Ez dira jabetu idazki hauek ezen Jainkoaren isiltasuna bera dela jada errebelazio; alegia, bere-bere egin duela Jainkoak gure egunerokotasun anonimoa. Andre Mariaren handitasuna –San Agustinek idatzi duen bezala– honetan datza: «bere sabelean eraman zuen Kristoren gorputza; baina areago: bere bihotzean gorde zuen Kristoren egia. Kristo haragi eginik egon zen beraren sabelean; Mariaren bihotzean, berriz, Kristo egon zen».**

\*\*\*

### Andre Maria bezala zutik gurutzearen aurrean

Zeruko Aita errukitsu eta gupidatsua, Andre Mariagan erakutsi diguzu nola egon eta bizi geure mundu honetako errealitateen aurrean; erakutsi digu Andre Mariak, arazoa ez dela bisita labur bat egitea, ezta «turismo solidario» bat egitea ere; arazoa dela, oinazea sufritzen ari direnek gu beren ondoan sentitzea; arazoa dela, gure gizarteko zokoratu guztiek gure Ama honen hurbiltasun samurraren eta gozoaren esperientzia sumatzea; arazoa dela, Ama honek gurutzearen oinean ikasi zuen gauza bera sufritzen ari diren guztiek ikastea; arazoa dela, gu guztiok «ukitzea» gainerakoen sufrimendua; arazoa dela, gu guztiok geure herriarekin topo egitera joatea, berau kontsolatzeko, beronen bidelagun izateko; arazoa dela, ez beldur izatea, samurtasunaren indarra esperimentatzeko, geure burua besten bizitzarekin nahasteko, geure bizitza konplikatzeke besteen onagatik; egizu, zure Semeak bihotzean txertatu digun Espirituak bihotz handitu gaitzan, bihotz argi bihur gaitzan, zu agertu zatzaizkigun bezala bihotz errukitsu eta gupidatsu egin gaitzan, mundu osoaren aurrean zure sakramentu eta seinale bizi ager gaitezen. (*Frantsizko Aita Santuak 2018-09-24an Letonian egindako Homilia batean inspiratua*)

§ Ezekielen Profezia liburutik 34, 11-12. 15-17.

Hau dio Jainko Jaunak: «Ni Neu egingo naiz artaldearen kargu, Neu arduratuko hartaz. Artzaina, artaldea sakabanatu zaionean, ardiez arduratzen den bezala, halaxe arduratuko naiz Ni neure ardiez; egun lainotsu eta ilunean sakabanaturiko toki guztietatik aterako ditut.

Nik Neuk larratuko ditut ardiak eta Neuk harraraziko diet atsenden –dio Jainko Jaunak–. Ardi galduaren bila joango naiz, desbideratua artaldera bilduko dut, hanka hautsia lotuko, gaixoa indartuko; gizenak eta indartsuak zainduko ditut. Behar bezala larratuko ditut ardiak».

Zuei, ene ardioi, hau diotsuet Nik, Jainko Jaunak: «Nik erabakiko dut auzia ardi batzuen eta besteen artean, aharien eta akerren artean».

[Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 15, 20-26. 28.

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnatan lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten elkartasunagatik guztiak itzuliko dira bizira. Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitua denez; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok errege izan behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da.

Jainkoak gauza guztiak menpean jarriko dizkionean, Semea bera menpean jarriko zaio gauza guztiak menpean jarri zizkionari, eta Jainkoa denetan dena izango da.

Urteko 34. astea.

JESU KRISTO GURE JAUNA,

DIREN GUZTIEN ERREGEA.

Santa Zezilia, *birjina eta martiria*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 31-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak harekin– aintzaz beterik etortzean, bere errege-aulki ospetsuan eseriko da, eta herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak ahuntzetatik bereizten dituen bezala: ardiak bere eskuinaldean ipiniko ditu, eta ahuntzak ezkerraldean.

Orduan, erregeak esango die eskuinekoei: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoen erreinua. Gose bainintzen, eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik, eta bisitatu; espetxean, eta ikustera etorri zineten”.

Orduan, zintzoek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik, eta eman genizun jaten, edota egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaixorik edota espetxean, eta ikustera joan?”

Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: nire seniderik txikien hauetako bati egin zeniotena neuri egin zenidaten”.

Gero, esango die ezkerrekoei: “Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta haren lagunentzat prestaturik dagoen betiko sura. Gose bainintzen, eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixorik eta espetxean nengoen, eta ez zineten ni ikustera etorri”.

Haiek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik edota egarri, arrotz edota biluzik, gaixorik edota espetxean, eta guk lagundu ez?”

Hark erantzungo die: “Benetan diotsuet: txikien hauetako bati egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”.

Eta hauek betiko zigorrera joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizira».

**E**z digu Jesusek galdetuko geure otoitzaz, ez Mezara joan izanaz, ez Biblia irakurri izanaz... Bizitzaren hondarrea, gauza erabakitzailea, Jesusen «anai-arreben» sufrimenduaz bizi izan dugun maitasun errukitsuaren jarrera edo axolarik eza izango da; bereziki, premia-egoeran –goseak, biluzik, gaixo...– zeuden «txikien» inguruan bizi izan duguna.

Harrigarria da, era berean, Jesus keinu jakin eta soiletara jaitsi izana. Halako eszena solemnean, ez dira aipatzen «Zuzentasuna», «Solidaritatea», «Parekotasuna», «Demokrazia»... bezalako termino handiak. Keinu oso zehatzez mintzo da Jesus, abstrakzioaren lainopeak gal ez gaitezen: janariaz, jantziaz, uraz, bisitaz, aterpeaz... mintzo da. Eta egoera zehatzetan laguntzen dutenez. Jesusek zoriontasun hau jaulki du: «nire Aitaren bedekatu» dira.

Eta zoriontasun honen zergatiaz, esan du: «Neuri egin zenidaten». Solidaritate hertsia eta bihozkoia bat dago Jesusen eta sufritzen ari diren beraren anai-arreba «txikienean» artean. Esan nahi digu, beraz, gizonaren Semearekiko erlazioa gizakien arteko erlazioan jokatzen edo gauzatzen dugula. Ondorioz, orain berean, sufritzen ari direnengana hurbiltzen edo urruntzen ari garen honetan, ari gara Kristogana hurbiltzen edo harengandik urruntzen. «Orain ari gara geure bizi erabakitzen» (J.A. Pagola).

Urteko 34. astea.

San Klemente I.a, 4. aita santua eta martiria.

San Kolunbano, abadea.

Migel Agustin Pro, dohatsua, apaiza, martiria, jesuita.

[Apokalipsia liburutik 14, 1-3. 4b-5: Kristoren eta honen Aitaren izena bekokian idatzia zeramaten. Sal 24 [23]: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 1-4.

Aldi hartan, begira zegoela, aberats batzuk ikusi zituen Jesusek tenpluko diru-kutxara limosna botatzen. Ikusi zuen emakume alargun behartu bat ere bi txanpon botatzen. Eta esan zuen: «Benetan diotsuet: alargun behartu honek beste guztiek baino gehiago bota du. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik egin dute limosna; honek, ordea, bere eskasian, bizitzeko zeukan guztia eman du».

**J**esus ez da mugatu emakume alargunaren jokabidea gorestera; gainera, bere nekaldiaren ikono bihurtu du. Sobera duenetik ez, bai-zik eta bizitzeko duena, bere bizia, emanez, emakume horrek aurreratu egin du Jesusek bere nekaldian agertu duen jarrera, honek bere bizi osoa eman baitu, bere premia guztiez ahazturik. Jesusek jakin du jendeagan den ongia ikusten, zabar bizi den jendeari ihes egiten dion hura; horrela, irakaspén handia eman digu kosmosari, naturari, jendeari, Jainkoari nola begiratu jakiteko. Gure mundu honetan «alargun behartu» asko dago, duenik eta hobereña eskuzabal ematen duena. Itxura guztien gaitetik begiratzeak lagunduko digu sumatzen nola doan Erreinua handitzen «neurritz gaindikoaren ikono» diren horiek esker.



Urteko 34. astea.

San Andres Dung-Lac, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*.

[Apokalipsia liburutik 14, 14-19: Ekin uzta-biltzeari, heldua baitago lur-reko uzta. Sal 96 [95]: Badator Jauna lurra epaitzera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 5-11.

Aldi hartan, tenpluari buruz ari ziren batzuk, harri ederrez eta emaitzez apaindua zegoela aipatuz. Orduan, Jesusek esan zien: «Etorriko da, hor ikusten dituzuen horietatik guztietatik harririk harri gainean geldituko ez den garaia: dena suntsituko dute».

Ikasleek galdetu zioten: «Maisu, noiz gertatuko da hori? Eta zertan antzemango diogu gertatzera doala?»

Jesusek erantzun zien: «Kontuz, ez zaitzabela inork engaina! Asko etorriko dira nire izenean, “ni naiz Mesias” edo “gainean da garaia” esanez. Ez joan horrelakoen atzetik. Gerra- eta iraultza-hotsak entzutean, ez ikaratu, lehenbizi gertatu beharrekoa baita hori guztia; baina ez dator berehala azkena».

Esan zien, gainera: «Nazioa nazioaren aurka eta erreinua erreinua-aren aurka altxatuko dira; lurrikara handiak izango dira, eta izurriteak eta goseteak han eta hemen. Gauza ikaragarriak gertatuko dira, eta seinale handiak agertuko zeruan».

**J**esusen «hitzaldi eskatologikoaren («azken aldiaren») hasiera da. Zaila da, bi arrazoirengatik: a) planoen gainezarpen bat egiten duelako: Tenpluaren eta Jerusalem hiriaren suntsipenaz ari da; baina, gainera, hondamendi historiko hau aldien azkenaren eta gizonaren Semearen etorreraren aurrerapen eta aurre-irudikapen bezala aurkezten du; b) guztia, apokaliptikoa deritzon hizkuntzan emana da, gaur egungo kulturari aski trakets gertatzen den hizkuntzan. Alabaina, Lukasen gauza berezia da, «Parusiaren atzerapena» azpimarratzen duela, hau da, «azkena ez da etorriko bihar goizean». Espero-aldi honetan, beldurrik gabe egin behar du kristauak testigantza, larrialdiak eta guzti, «ezbeharren profetei» bere fedetik urrunduz dezanen utzi gabe.

Urteko 34. astea.

Santa Katalina Alexandriakoa, *martiria*.

[Apokalipsia liburutik 15, 1-4: Moisesen eta Bildotsaren abestia kantatzen zuten. Sal 98 [97]: Bai handiak eta harrigarriak Zuk eginak, oi Jauna, Jainko ahalguztiduna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 12-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskua erantsiko dizue eta erasoko, sinagogetara eta karteletara eramango zaituztete, eta erregeen eta agintarien aurrera zuzenduko nigitik. Aitormen egiteko aukera emango dizue horrek guztiak. Hartu gogoan ez duzuela zeuen burua nola defendatuko kezkatan ibili beharrik; Nik adieraziko dizuet zer eta nola esan, eta zuen etsaietako inork ez du zuei aurre egiterik edo erantzuterik izango.

Zeuen gurasoek eta senideek berek, ahaideek eta adiskideek berek salduko zaituztete, eta zuetako zenbait hilko; guztiek gorroto izango dizuete nigitik; baina ez duzue buruko ile bat ere galduko. Iraupenaren iraupenez lortuko duzue bizia».

**M**isio-aldia da esperoarena. Jesusen irakasleok zailtasunekin eta pertsekuzioekin topo egingo dugu. Baina Jesusek azpimarratua du: «nirregatik»: niri eta ebanjelioari leial jarraitzeagatik, eta ez beste arrazoi batzuegatik (bazerteru egin ditu «biktimismo faltsuak»). Eroapenaren eta euspenaren aldia da, bere azkena garaipena izango duena. Borroka horretan, bestalde, gugandik hain hurbil izango dugu bera, non ez baitugu lanik izango geure defentsa prestatzen, berak inspiratuko baitizkigu hitzak eta berak emango testigantza egiteko adorea eta umorea. Anaia nagusi-edo izango dugu bera, babesle, gure buruko ile bat ere ez erortzeko moduan. Bera alboan dugularik, ez dugu kemen-faltarik izango lekuko izateko.

Urteko 34. astea.

San Konrado, *gotzaina*.San Joan Berchmans, *jesuita*.

[Apokalipsia liburutik 18, 1-2. 21-23; 19, 1-3. 9a: Erori da, erori, Babilonia handia! Sal 100 [99]: Zorionekoak Bildotsaren eztei-otordura deituak!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 20-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jerusalem gudarostez inguratu ikustean, jakizue gainean duela bere hondamendia. Orduan, Judean daudenek ihes egin bezate mendietara; Jerusalem barruan daudenek alde egin bezate, eta soroan direnak ez bitez hirian sartu. Zigor-egunak izango dira, orduan beteko baita Liburu Santuan idatzirik dagoen guztia.

Dohakabeak egun haietan haurdu direnak edota bularreko haurrak dituztenak! Estualdi handia izango baita lur honetan, eta haserre-zigorra herri honentzat. Ezpatapean eroriko dira eta nazio guztietara eramango dituzte gatibu; jentilek zapalduko dute Jerusalem, nazioentzat Jainkoak erabakitako epea erabat bete arte.

Seinaleak izango dira eguzkian, ilargian eta izarretan, eta estu ibiliko dira lurrian herrialdeak, itsasoaren orroaz eta olatuen indarrez aztoraturik. Arnasarik gabe geldituko da jendea, munduari gainera datorcionaren beldurrez, ortzia ere dardaratuko baita.

Orduan, Gizonaren Semea indartsu eta aintza handiz hodeian etorzen ikusiko dute. Hori guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena».

**E**z gaitezen galdu iruditeria apokaliptikoan, jantzia bakarrik da hori, eta jo dezagun mezu askatzaile eta esperantzakora: «Izan bihotz eta altxa burua, hurbil da-eta zuen askapena!» Bera, Jauna, etorriko da. Topo egite baterantz goaz, eta ez ezerezero. Gizakiak eta beronen historiak badute zentzurik; erreala den orori, Gizadiari eta munduari eragingo dien gertaera salbatzaile baterantz doaz bide eginez. Alabaina, «bitarte» horretan, euspen-testigantza eskaini behar diogu munduari, Jaunak hitzeman digun indarrez, eta lan egin beharra dugu, esperantzaz, mundu berri bat erretzeko, gaur desitxuratzen eta ez-gizatari bihurtzen duen orotatik behin betiko liberatua gerta dadin.

Urteko 34. astea.

Andre Mariaren medaila mirarizkoa.

San Jakobo Pertiakoa, *martiria*.

[Apokalipsia liburutik 20, 1-4. 11-21, 2: Hildakoak nor bere egintzen arabera epaitu zituzten. Jerusalem berria ikusi nuen, zerutik jaisten.

Sal 84 [83]: Jainkoa bera izango dute berekin.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 29-33.

Aldi hartan, Jesusek adibide bat jarri zien ikasleei: «Begira pikondoari edota beste edozein zuhaitzi: kimu-berritzen hasi direla ikusi eta, besterik gabe, badakizue hurbil dela uda. Era berean, gauza horiek gertatzen ikustean, jakizue hurbil dela Jainkoaren erregetza. Benetan diotsuet: gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza guztiok. Zeru-lurrak igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko».

**M**unduaren azkenari dagokionez, Jesusek esan zuen, une horren berri Aitak bakarrik duela. (Une horretaz) berri eman baino gehiago, prestatu egin nahi du jendea Jesusek horretarako. Prestaketa hori gauzatzeko, adi bizi behar dugu –Frantzisko aita santuak esan bezala– «Jesusen piztueraren ernamuinei»: «beraren piztuera ez da iraganeko zerbait; berekin du munduan sartua den bizi-indar bat. Dena hila dela ematen duen puntuan, hor agertzen dira alde guztietatik piztueraren ernamuinak. Indar ezin geratua da». Geure egitekoa dugu lankidetzan aritzea, ernamuin horiek lurtean har dezaten. Zeren eta kristau-bizitza ahalegin bat da, «Jaunaren eguna» etortzea «lasterragotzeko»: zeru berriak eta lur berria, zuzentasunaren bizileku izango direnak (2 Pedro 3,12-13).

Urteko 34. astea.

Santa Teodora, *abadesa*.San Honesto Nimeskoa, *apaiza*.

[Apokalipsia liburutik 22, 1-7: Ez da aurrerantzean gaurik izango, Jainko Jaunak egingo baitie argi. Sal 95 [94]: Marana tha! Zatoz, Jesus Jauna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 34-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zabiltzate kontuz! Ez bedi moteldu zuen bihotza hordikeriaz, mozkorkeriaz eta bizitza honetako kezkaz, egun hura ustekabeen gainera etor ez dakizuen, sarea bezala etorriko baita lurrean bizi diren guztien gainera. Beraz, egon erne eta egin otoitz une oro, etorri behar duten horiei guztiei ihes egin ahal diezaiezuen eta zutik egon ahal zaitezten Gizonaren Semearen aurrean».

**L**ukastar kristau-elkarteak, Parusia atzeratzen delarik, adore-falta eta etsipena bizi ditu. Atzerapen hori dela-eta, hau izan daiteke gure tentazioa ere: sorgor bihurtzea bizioengatik, edariagatik –plazer eta iheskeriagatik– eta, batez ere, bizitzako estutasunengatik –zeinek hobiratu egiten baitituzte «azken galderak», bizitzaren zentzuari dagozkionak–. Liturgia-urtearen azken egun honetan, Jesusek, bere hitzez, esnarazi egin nahi gaitu, gau eta egun lan egiteko, nork bere aletxoak jartzeko munduaren eraikuntzan, hura, mundua, Jainkoak amesten duenaren gero eta antzeokoago izan dadin. Horrela, prest biziko gara harrera bete-betekoa egiteko –zutik– bidera datorkigun gizonaren Semeari.

Abendualdiko 1. astea. B urtea

San Zernin Tolosakoa (Frantzia) (Sazernin), *gotzaina eta martiria, Iruñeko zaindaria.*

Bernardo de Hoyos, *dohatsua, apaiza, jesuita.*

§ **Isaias Profetaren liburutik 63, 16b-17. 19b; 64, 2b-7.**

Zu zara, Jauna, gure aita, «gure Erosle» duzu izena betidanik. Zer-gatik utzi diguzu, Jauna, zeure bideetatik alde egiten, zure begirunerik ez izateraino geure bihotza gogortzen? Itzul zakizkigu, zeure zerbitza-riengatik, zeure ondare aukeratu dituzun leinuengatik.

Ai, zeruak urratu eta jaitsiko bazina! Zure aurrean mendiak urtuko lirateke.

Jaitsi zinen, eta mendiak urtu egin ziren zure aurrean. Inoiz ez du, ez belarrik aditu, ez begik ikusi, Zu beste Jainkorik beragan itxaro dutenen alde horrela jokatzeko duenik. Zeu ateratzen zara, pozik eta zuzen dabilzanan eta zure bideak gogoan dituztenen bila.

Haserre zeunden, bai, bekatu egin genuelako, aspaldidanik be-katari garelako, baina salbatuko gara. Guztiok kutsatuak geunden, gure egintza onak ere zapi zikinen antzeko ziren; orbelaren antzera ihartzen ginen guztiok, eta gure bekatuek haizeak bezala eramaten gintuzten.

Ez zion inork zure izenari dei egiten, ez zen ahalegintzen inor zu-rekin bat egiten, zeure aurpegia gorde egin baitzenuen gugandik, eta geure erruetan murgilduak utzi gintuzun.

Hala ere, Jauna, Zu zara gure aita; gu buztina, eta Zu gure buztin-laria: zure eskuetako lana gara guztiok.

[Sal 80 [79]: Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.]

§ **San Paulok 1 Korintoarrei 1, 3-9.**

Senideok: Grazia zuei eta bakea gure Aita Jainkoagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik.

Jainkoari eskerrak ematen ari natzaio beti zuengatik, zuei Jesu Kristogan Jainkoak eman dizuen graziagatik. Izan ere, Kristogan abe-

rastu zaituzte dohain guztietan: bai hitzean eta bai jakintzan, Kristoz egiten dugun aitormena zuengan sendotu denez gero. Horrela, ez duzue dohainik batere falta Jesu Kristo gure Jaunaren agerraldiaren zain zaudetenok. Hark indartuko zaituzte azkena arte, inork zuen aurka zeresanik izan ez dezan Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera-egunean. Zintzoa da bere Seme Jesu Kristo gure Jaunarekin elkarturik bizitzera deitu zaituzten Jainkoa.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 13, 33-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, zaudete erne, ez dakizue-eta garaia noiz den. Gizon bat urrutira joatean bezala da: etxea uztean, morroiei ematen die agintea, bakoitzari bere eginkizuna jarritz, eta atezainari erne egoteko agintzen dio.

Zaudete, beraz, erne; ez baitakizue etxeko nagusia noiz etorriko den: ilunabarrean, gauerdian, oilarrak jotzean edota egunsentian. Ez zaitzatela lo aurki, ustekabeen etorrita.

Zuei esaten dizuedan hau denei esaten diet: Zaudete erne!»

«**A**abendualdia» «esperantza-aldia» da. Esperantza horretaz ari dira, bai sarrera-antifona —«zagan esperantza dutenei ez die usteak huts egingo»—, bai Isaias: «Ez da inoiz entzun, ez da inoiz aditu, ez ikusi, zuk ez beste jainkoren batek berarengan itxaro duenaren alde horrela-koak egin dituenik» (Is 64,3).

Abendualdia: 1) esperantza honen zergatiaren oroitzapena da; 2) esperantza hori eskatzeko eta indartzeko erregua da. Abendualdiko lau aste hauetan «etorri» aditza jokatu dugu, berealdi desberdinetan: iragana, oraina, geroa. Abendualdiak gogoratzen digu Jesus etorri zela, etorri datorrela eta etorriko dela. Eta hiru aditz-forma horiek txirikordaturik daude; zeren eta etorri baitzen, etortzen jarraitzen baitu eta etorririk jarraitzen, eta, etorri zelako eta etorri datorrelako, egun batean bidera etorriko zaigu behin betiko, bila.

Abendualdiko 1. astea. B urtea

San Zernin Tolosakoa (Frantzia) (Sazernin), *gotzaina eta martiria, Iruñeko zaindaria.*

Bernardo de Hoyos, *dohatsua, apaiza, jesuita.*

Abendualdiko irakurgaiek prestatzera gonbidatzen gaituzte topo egite horretarako, esperoan azti biziz, zain-zain biziz. Erregu dagigu Abendualdiak: «erne bizi», «esna zaitzete», «eutsi esna», «jarri zutik». Alabaina, erregu hauek ez dira agindu huts eta gogor; baizik eta mukurru beteak dira esperantzaz. Izaera bat dute, presa-jarrerakoa, bai, baina alaitasunez harroa, ez dute sekula beldurrik eragiten, zeren eta dei bat dira, alai jartzeko eta esperantzadun, gisa eta aldarte oneko, maite den eta maite gaituen Norbaiti harrera egiteko; bera urrunean susmatze hutsak bihotza berotzen du eta arnasten.

\*\*\*

«Santua da historiaren benetako jauna, bera baita historia egiten dutenen bihotza aldarazten duena» (*Marie Agnès Kernel, Joan Mari Moyë dohatsuaren biografoa*).

«Jainkoak gizon-emakumeen, geure anai-arreben, aurrean Jainkoaren beraren lekuko izatera deitzen gaitu; edozein delarik bakoitzaren bizitza-egoera, eliz misio bakoitzean, erabaki bakoitzean. Dei hau aintzat hartzera deitzen gaitu, koherenteki eta maitasunez bizitzera, kezkarik ez izatera nork bere bizia eskaintzeko». «Hauxe da martirien ondare sakratua» (*Argentinan, Colombo gotzainak, Angelilli eta lagun hurbileko dohatsu deklaratzeko zela-eta*).

«Gure bizitza, eusten digun Jainkoaren esku ahaltsuaren presentziak markaturik dago. Baita gure bide bera egin izan duten, gure penak berak jasan izan dituzten eta jada Jainkoarekin betiko bizi diren santuen, gure anai-arreba nagusien, laguntza isilak ere».

«Beraien bizitzak ziurtatzen digu ezen kristau-bizitza ez dela ideal atzemanezina, baizik eta daitekeena dela Jainkoaren graziarekin» (*Frantzisko aita santua, Esperantzaren katekesiaz ari zen batean*).



Abendualdiko 1. astea.  
San Andres, apostolua.

§ San Paulok Erromatarrei 10,9-18.

Zeure ahoz aitortzen baduzu Jesus Jauna dela, eta zeure bihotzean sinesten baduzu Jainkoak hilen artetik piztu zuela, salbatuko zara. Zeuren bihotzez sinesten duena zuzentzat hartzen baitu Jainkoak, eta ahoz aitortzen duena salbatu egiten da. Liburu Santuak dio: «Harengan sinesten duena ez da lotsagarri gertatuko».

Judu izan ala ez, ez dago bereizketarik, bat bera baita guztien Jauna, dei egiten dioten guztientzat eskuzabala. Izan ere, «Jaunaren ize-nari dei egiten diona salbatuko da».

Nola, ordea, dei egin, harengan sinesten ez badute? Nola sinetsi, haren entzuterik ez badute? Nola entzun, nor hots eginik ez bada? Nola hots egin, hartarako bidalirik ez bada? Liburu Santuak dioen bezala: «Bai ederrak berri onak ekartzen dituztenen oinak!» Ez diote, ordea, denek harrera ona egin Berri Onari. Isaiasek dio: «Jauna, nor sinetsi du gure mezua?» Beraz, mezutik dator sinestea, eta Kristoren berri ematea da mezua.

Eta nik galdetzen dut: «Ez al dute entzun?» Bai, noski: «Lurbira guztira zabaldu da haien hotsa, munduaren bazterrerraino haien mezua».

[Sal 19 [18]: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburitik 4,18-22.

Aldi hartan, Jesusek, Galileako itsasbazterrean barna zebilela, bi anaia ikusi zituen, Simon, Pedro deitua, eta haren anaia Andres, sareak itsasoan botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek, berehala, sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurreraxeago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta haren anaia Joan, Zebedeoren semeak, aitarekin ontzian sareak konpontzen; eta dei egin zien. Haiek, berehala, ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten.

Abendualdiko 1. astea.  
San Andres, apostolua.

**G**alileako aintzira ondoan ikasleei bezala, Jesusek taldeka dei egin digu geuri ere. Ez gara izan deituak bakarrik eta banaka, baizik eta elkarrekin deituak izan gara. Jesusek dei egin digu fedea elkartean bizitzera eta beraren auzian elkartean bizitzera zerbitzari; «gorputz bat –Eliza deitzen diogu, «Jainkoaren herria»– eratzera dei egin digu; bata bestearen sostengu izateko eskatzen digu, lankidetzera hori aurrera eramateko. Gaur egun inoiz baino gehiago bizi behar dugu dei hori elkarre-bokazio gisa; geure fedearen testigantza egiteko mundu gogor, zakar eta zail honetan; eutsiko digun elkarre baten beharra dugu, indar eta bihotz emango digun, «lepoak batzera» –Teresa santuak esango lukeenez– eragingo digun batena, testigantza adorez egin ahal izateko «ingurune-sinesgabetasunaren» gizarte deituak izan diren geure gizartetan.

\*\*\*

### Eliza apostolutarra (3)

«Eliza dena delarik, beragan Espiritu Santuak bete ohi duen egitekoa agertu nahi nuke, alfaren eta omegaren arteko loturaren jarraitutasuna segurtatze aldera egiten duena, testigantzaren mailan. Baina ikuspegi zinez biblikotik ulertu behar da hori ezinbestean.

1. – Gai honetarako Ragnar Asting-en liburu hilondokoaz baliatuko naiz, 1939an plazaratuaz. Itun Zaharraren hebreera balio ezin estimagarriagokoa da, Itun Berriko autoreek grekoz idazten zutelako, baina hebreeraz pentsatuz. *Ud* aditzak, “testigantza egitea” esan nahi zuenak, errepikapen-idea adierazten du, eta gogoaren zentzu jakin bateko baieztapenaren eta konpromisoaren ideia du berekin. Irteerako etxola eta denda «testigantzaren» etxola deitu bazen, Yahvek bertan bere gogo agertu ohi zuelako izan zen. Jainkoaren legegari ere beraren “testigantza” deitu ohi zaio (ikus, adibidez, gure 119. salmo handian). Testigantza hau ere, hitza denez [...], aurrera orientatua dago, eta ez atzera [...]. Grekoz, alderantziz, *martyrein*, *martyr*; hitzek sanskriton dute beren erroa, eta hau esan nahi du erro

Abendualdiko 1. astea.  
San Andres, apostolua.

---

horrek: oroitu, pentsatu, hausnartu (latineko *memor* ere horretatik dator): lekukoak informatu egiten du eta ikus duenaren testigantza egiten.


Itun Berriak, ordea, hebreerazko kontzeptua eman du grekoz. Alde egin dio “martir” hitzari eman diogun zentzuari, sufrimendua eta heriotza bera ere onartzeari. Bat ez da “martiri” hil delako; sufritzen eta hiltzen bada, lekuko delako da, atzera egin gabe Jainkoaren nahi izatearen eta konpromisoaren errealitatea baietsiz, beraren elkargoan, Jesu Kristogan, lehen lekuko leial izan denagan, gauzatu den errealitatea baietsiz, alegia. Kristau-testigantza honek Kristoren heriotza-piztuerari eta jauntasunari egiten die erreferentzia. Beti aurrera orientatua dago, zeren eta, gauza hauek gertatu zirela baieztatzeaz gain, beraiek duten balio salbatzailea aldarrikatzen da, beraiek duten egungotasuna edo gaurkotasuna munduarentzat. Horregatik, Jainkoak berak egiten du bere testiguez testigantza; Jainkoa bera ari da testiguen testigantzan eta beraien bidez. (*Yves M.-J. Congar, El Espiritu Santo, Herder, 1991, 245. or.*)



## ABENDUA / GABONILA

**AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA:**  
Otoitz-bizitzaren alde.

**Egin dezagun otoitz:** Jesu Kristorekin ditugun geure harremanak  
Jainkoaren Hitzaz eta otoitz-bizitzaz elika ditzagun.



## ABENDUA / GABONILA Asteartea / Martitzena

Abendualdiko 1. astea. B urtea.

San Leontzio, *gotzaina*.

Santuak: Edmundo Campion, Roberto Southwell, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*.

# 1

[Isaias Profetaren liburutik 11, 1-10: Haren gainean Jaunaren espiritua kokatuko da. Sal 72 [71]: Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,21-24.

Aldi hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Eta, ikasleengana itzulirik, esan zien haiei bakarrik: «Zorioneakoak, zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak. Hara zer diotsuedan: profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuen ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuen entzun».

**B**eren misiotik itzultzean, pozik kontatu dute ikasleek beren arrakasta. Jesusen erantzuna, aldi berean, gorespen-gorazarre eta zoriontasun da. Espirituak eraginik, bere poza –Espirituak beti du berekin poza– adierazi du Jesusek, eta Aita goretzi du, «(txikiei)» agertu zaielako. Horregatik, Aitak Semearekin duen barnekoitasuna dela bide, baietsirik nabari du Jesusek, berak jende xume eta apalarekin bizi duen hurbiltasun hori duela atsegin Aitak ere. Aipatu zoriontasuna, berriz, ikasleei doakie, profetek eta erregeek desiratu zutena «ikusi» ahal izan dutelako. Geuri ere badagokigu zoriontasun hori; izan ere, fedeari esker, Simeon agurearekin esaten ahal baitugu: «nire begiek Salbatzailea ikusi dute». Hartarako, ordea, «(txiki)» izan beharra dugu.

# 2

## Asteazkena / Eguaztena ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko 1. astea. B urtea.  
Santa Bibiana, *birjina eta martiria*.  
San Viktorino, *martiria*.

[Isaias Profetaren liburutik 25, 6-10a: Jai-otordua emango die Jaunak herri guztiei eta xukatuko ditu aurpegi guztietako negar-malkoak. Sal 23 [22]: Jaunaren etxean naiz biziko luzaroen luzaro.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15,29-37.

Aldi hartan, Galileako itsasbaztererra joan zen Jesus; mendira igo eta han eseri zen. Jende asko hurbildu zitzaion, herren, itsu, besamotz, mutu eta bestelako gaixo asko eramanez; oinetan jartzen zizkioten, eta hark sendatu egiten zituen. Jendea harritia gelditu zen ikusten zuenaz: mutuak hizketan, besamotzak sendatuak, herrenak ibiltzen eta itsuak ikusten. Eta Israelen Jainkoa goresten hasi ziren.

Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; badarama hiru egun nirekin eta ez du jatekorik. Ez ditut baraurik bidali nahi, bidean akitu ez daitezen».

Ikasleek esan zioten: «Nondik atera guk basamortu honetan horrenbeste jende asetzeko lain ogi?» Jesusek esan zien: «Zenbat ogi duzue?» Haiek erantzun: «Zazpi, eta arraintxo bakar batzuk». Lurrean esertzeko agindu zion jendeari; gero, hartu zituen zazpi ogiak eta arrainak eta, esker-otoitza egin ondoren, zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Denek jan zuten ase arte, eta gelditutako hondarrekin zazpi saski bete bildu zituzten.

**J**esusek batu eta elkartu ditu: anai-arreba artekotasunaren krea-tzaile da. Ikasleei zeregina hasieran ezinezkoa iruditu zaie, eta Jesusen inguruan pilatu den jendeari agur esateko tentazioa sentitu dute; Jesusek, berriz, giza lankidetzara eskatu die –txikia bada ere (bost ogi eta bi arrain)–. Esana zuen jada San Agustinek: «Gu gabe kreatu gintuen Jainkoak ez gaitu salbatuko gu gabe». Munduko bazter bakartietan behar dugun ogia ugaltzeko borroka egin beharra dugu; Jesusek erakutsi zigun otoitzean Aitari eskatzen dioguna da gainera; «emaguzu gaur egun honetako ogia». Ugaltzearen mirariak gogorarazten digu ezen eskari horri geure lankidetzara gehitu behar diogula: «Emaiezue jatzen zeuek».

Abendualdiko 1. astea. B urtea

San Frantzisko Xabierkoa (Nafarroako Xabierren 1508 –

Txinako atarian 1552), *apaiza, jesuita*.*(Ikus Xabierren Meza beheraxeago)*

[Isaias 21,1-6: Sar bedi herri zintzoa eta leiala. Sal 118 [117]: Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7.21.24-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski niri “Jauna, Jauna” esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hau da beharrezkoa: zeruaren dagoen nire Aitaren nahia egitea.

Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarriritua baitzegoen.

Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu».

**A**rroka edo Harkaitza, Salmoetan eta profetengan errepikatzen den metafora da: 1) zimentarria zeinen gainean irmo eraiki baitaiteke; 2) bastioia, gotorlekua, babesa, aterpea, segurtasuna. Bere buruari esleitzen dio Jesusek metafora hau, bi esangura hauei dagokienez: zimentarri irmoa eta konfiantza segura. Beraren hitzak, Aitaren borondatea azaltzen dutelarik, orube sendo eta seguru dira. Haiek sostengutzat hartu eta haien gainean eraikitzeak gotortasuna ematen dio bizitzari eta konfiantza. Eraikitzeak, ordea, batetik, Jesusen hitza aditzea –eta ez «entzute» hutsa– eskatzen du, nitaz zer nahi duen jakiteko, hemen eta orain –bizitzako alderdi desberdinetan: etxekoan, lanbidekoan, herrikoan–: hori da bereiztea; bestetik, erabakiak hartzea eskatzen du, Jaunak dioskuna betetzeko. Horrela eraikiko dugu harkaitz gainean.

\*\*\*



# 3

Osteguna / Eguena

ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko 1. astea. B urtea

San Frantzisko Xabierkoa (Nafarroako Xabierren 1508 –  
Txinako atarian 1552), *apaiza, jesuita*.

## XABIERKO FRANTZISKOREN MEZA

§ San Paulok 1 Korintoarrei 9, 16-19. 22-23.

Senideok: Berri Ona hots egiten dudala eta, ezin naiz harrotu; ezinbestean dagokidan eginbeharra baitut hori, eta errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu!

Berri Ona neure gogoz hots egingo banu, mereziko nuke saria; baina nik nahi izan gabe ezarri didaten eginkizuna betetzen ari banaiz, zein sari zor zait orduan? Hauxe besterik ez: Berri Ona dohainik hots egitea, Berri Onaren zerbitzutik datozkidan eskubideez baliatu gabe.

Gutziz libre naizen arren, guztien esklabo egin naiz, ahalik eta jende gehien Kristorentzat irabazteko. Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulak irabazteko. Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko. Eta dena Berri Onagatik egingo dut, Berri On horretan nik ere parte izan dezadan.

[Sal 96 [95]: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatu dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete, eta sendatu egingo dira». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jasoan izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten ziztuzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

Abendualdiko 1. astea. B urtea

San Frantzisko Xabierkoa (Nafarroako Xabierren 1508 – Txinako atarian 1552), *apaiza, jesuita*.

**X**abierrek, bere lan ebanjelizatzailearen 10 urte trinkoetan, ehun mila kilometro baino gehiago egin zuen. Ez lehorrez bakarrik –India, Zeilan, Malaka, Moluka uharteak, Japonia eta Txina bezalako lurraldetan–, baita itsasoz ere, batzuetan etsigarri izateraino bare, beste batzuetan mehatxagarri eta zakar. Beraren biografoek kalkulatu bezala, bere misiolari-bizitzan bere egunen hirutik bat itsasoan egin zuen Xabierrek –«arrainen jaurerri» horretan, berak deitzen zuenez–. Apostoluar ibilbidearen kilometroei egindako aipamen soil horrek erdi bista-razten digu gure Xabierren ebanjelizazio-lanaren neke larria; berari, ordea, bere gutunetan –gaur berean bihotz-berogarri diren horietan– adierazten duenez, kontsolamendu espirituala ematen zion eta mundu honetan berdinek ez duen atsegina.

Xabierko San Frantzisko,  
*apaiza, jesuita (Misiolarien Zaindaria)*



# 4

Ostirala / Barikua

ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko 1. astea. B urtea

San Joan Damaskokoa, *apaiza eta eliz irakaslea*. Santa Barbara, *birjina eta martiria*. Pio Heredia (1875 Larrea [Araba]–1936 Santander) eta lagunak, *Cobrezeko zistertarrak, dohatsu eta martiri*.

[Isaias Profetaren liburutik 29, 17-24: Egun hartan ikusiko dute itsuen begiek. Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 27-31.

Aldi hartan, Jesus handik ateratzean, bi itsuk jarraitu zioten, oihuka: «Erruki zakizkigu, Daviden Seme!» Etxera heltzean, itsuak hurbildu zitzaizkion eta Jesusek esan zien: «Sinesten al duzue hori egin dezakedala?» Haiek erantzun: «Bai, Jauna».

Orduan, begiak ukitu zizkien, esanez: «Gerta bekizue sinesten duzuen bezala». Eta ireki egin zitzaizkien begiak. Jesusek zorrotz agindu zien: «Begira, gero, ez dezala inork ere jakin». Baina haiek, atera orduko, eskualde guztian eman zuten Jesusen berri.

**I**saias profetak iragarria zuen ezen «itsuen begiek ikusiko dutela» Mesiasen «eguna», «ilunik eta lausorik gabea». Egun hura egia bihurtu da Jesusengan. Horixe gogoratu die Jesusek Bataiatzaileak bidali dizkionei, «etortzekoa zena bera ote den» galdera eginez. Itsutasunak esanahi sinbolikoa du Mateogan. Salaketa-hitzaldi handian, bost aldiz aipatu du Jesusek judu-buruzagien itsutasuna (Mt 23,16-26): bada espirituaren itsutasun bat ere. Liturgiako Gorespenetako Gorazarre bategue dio: «Itsuari ikusmena eta Nikodemori ere eman zenion horrek isur itzazu ene begi-ninian bi fede-tanta fresko». Eska diezazkiogun Jaunari «bi fede-tanta» horiek; funtsezko baldintza dugu fedea gure itsutasuna sendatuko badu.

## ABENDUA / GABONILA Larunbata / Zapatua

Abendualdiko 1. astea. B urtea

Santa Krispina, *martiria*.

San Sabas, *abadea*.

San Mauro, *martiria*.

# 5

[Isaias Profetaren liburutik 30, 19-21. 23-26: Errukituko zaizu Jauna zeure deiaeren hotsera. Sal 147 [146]: Zorionekoak Jaunagan itxaro dutenak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 35–10, 1. 5a. 6-8.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo zebilen Jesus, hango sina-gogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekaturia eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztera».

Eta hamabi ikasleei dei egin eta ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. Hamabi horiek bidali zituen Jesussek, ohar hauek eginez: «Zoazte galduak dabil-tzan Israel herriko ardietara. Eta bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu lepradunak, bota deabruak; hutsean hartu duzue, eman hutsean».

**I**saiasen aldarrikapena jasoko dugu aste honetan barna: «mal-koak xukatuko ditu»; «jende zapaldua pozera itzuliko da»; «intziriez errukituko da...». Profezia hauek Jesusengan ari dira betetzen: hiri eta herririketan barna ibili da, Ebanjelioa hots eginez eta gaixotasun guztiak sendatuz. Jesusek lekualdatu egin zuen erlijioa: Tenplutik atera eta eguneroko bizitzan ezarri zuen. Misio hori gomendatu digu geuri ere, hain zakarra eta latza den, baina bere uzta-soro duen mundu honetan. Aginpidea eman digu –Bataiotik datorkigun aginpidea– sendatzeko, hila dena pizteko, lepra garbitzeko, deabruak botatzeko. Horretarako, gure bihotzean errotu beharra dute Jesusen beraren gupidak eta atxikimenduaren hausturak eta doakotasunak: eman doan, merezi gabe eman baitigu, eta eman dezagun.

Abendualdiko 2. astea. B urtea  
San Nikolas, *gotzaina*.

§ Isaias Profetaren liburutik 40, 1-5. 9-11.

«Kontsola ezazue, kontsolatu nire herria, dio Jainkoak. Mintza bihotzera Jerusalem, egiozue oihu: betea duela bere morroialdia, ordaindua bere erruen zorra, Jaunaren eskutik hartua baitu bere bekatu guztien ordain betea».

Mintzo bat ari da oihuka: «Prestatu basamortuan bidea Jaunari; zelaitu eremuan galtzada gure Jainkoari. Bete daitezela haranak, beheratu mendi eta muinoak; berdindu daitezela malkarrak, zelaitu lur-maldak.

Orduan Jaunaren aintza agertuko da, eta gizaki guztiek batera ikusiko dute –Jaunak berak esan du–».

Igo mendi-gailurrera, Siongo mezularia; egin deiadar handi, Jerusalemgo mezularia; egin deiadar, ez beldur izan.

Esan Judako hiriei: «Hona hemen zuen Jainkoa. Hara, indarrez jantzia dator Jainko Jauna, eta haren besoa nagusi da. Hara, berekin dakar garaipen-agiria eta bere aurretik berak askaturiko herria. Artzainak bezala zaintzen du artaldea; arkumeak besoa hartu eta altzoan eramaten ditu, ardi-ama berriak arduraz gidatzen».

[Sal 85 [84]: Jauna, zeure onginahia erakutsiezaguzu, zeure salbame-na emaguzu.]

§ San Pedro Apostoluaren bigarren gutunetik 3, 8-14.

Ene maiteok: Ez zaizue hau ahaztu behar: Jaunarentzat egun bat mila urte bezala dela, eta mila urte egun bat bezala. Jauna ez da berankorra agintzaria betetzen, batzuek hala uste badute ere; baizik eta pazientzia du zuekin, ez baitu inor galtzerik nahi, guztiok bihotz-berritzea baizik. Jaunaren eguna, ordea, lapurra bezala ustekabea etorriko da. Orduan, burrunba handiz desagertuko dira zeruak, luraren osagaiak kiskalirik ezereztuko dira, eta lurra eta bertako gauza guztiak agerian geldituko.

Abendualdiko 2. astea. B urtea  
San Nikolas, *gotzaina*.

Gauza hauek guztiak honela ezereztu beharrekoak direnez gero, begira zein santu eta jainkozale izan behar duen zuen bizitzak!

Bizi zaitezte, beraz, Jainkoa etorriko den egunaren zain eta egin lan, lehenbailehen hel dadin. Egun hartan, suan desegingo dira zeruak, eta lurraren osagaiak kiskalirik ezereztuko. Guk, ordea, Jaunak agindu bezala, zuzentasunaren bizileku diren zero berriak eta lur berria itxaro ditugu.

Beraz, maite-maiteok, hauek itxaro dituzuela, ahalegin zaitezte Jainkoarekin bakean bizitzen, garbi eta errurik gabe haren aurrean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 1-8.

Mesias eta Jainkoaren Seme den Jesusen Berri Onaren hasiera. Isaías profetaren liburuan honela dago idatzia: «Begira, neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik, zuri bidea prestatzera. Mintzo bat oihuka ari da basamortuan: “Prestatu bidea Jaunari, zuzendu bidexkak hari”».

Hala agertu zen Joan basamortuan, bataiatzen eta bihotz-berritzeko bataioa hots egiten, bekatuen barkamenerako. Judea osotik eta Jerusalemek harengana joaten zen jende guztia, eta, beren bekatuak aitorturik, Joaneke bataiatu egiten zituen Jordan ibaian.

Joan gamelu-larruz jantzia zebilen, eta gerrian larruzko uhala; maxinsaltoak eta basa ezitia zituen janari. Eta honela hots egiten zuen: «Nire ondoren dator ni baino ahaltsuagoa dena, eta ni ez naiz inor makurtu eta haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bataiatu zaituztet; hark, ordea, Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte».

**J**oan Bataiatzaileak, Jordan ibai ondoan, bihotz-berritzea predikatzen zuen. Gauza bera predikatzen digu geuri ere. Jauna gurekin topo egitera bidera badatorkigu, prestatu beharra dugu Jaunaren bidea.

Abendualdiko 2. astea. B urtea  
San Nikolas, *gotzaina*.

Prestatu, barnera begira. Pentsa dezagun nola gauzatu geure bi-zitzan zaborra desagitearen eginkizuna, horretara dei egiten baitigu Isaías profetak. Zer beharko genukeen zelaitu, bete, berdindu, zuzendu, hustu geure bihotzean eta geure bizitzan Jauna benetan bertako Jaun izan dadin.

Prestatu kanpora begira. «Bihotz-berritzeak» bideak prestatzera eragiten digu, geure mundu honetan, Jesusek bere borroka-gai izan zuen Erreinua eraikitzea erraztuko duten bideak prestatzeko. Geure eginkizuna dugu parekotasun-ekak parekatzea, lur idorra harrotzea, ertz zorrotzat borobiltzea, baztertua dena bidera erakartzea... Esan nahi baita, geure mundu honetan, indarrean eta zutik jarri behar ditugula Jesusen baloreak: onberatasuna, zuzentasuna, errukia, baztertuarekiko hurbiltasuna, bihotz-zabaltasuna, atxikimenduak haustea, doakotasuna... moldatuz eta aurreratuz joan gaitzen «zeru berri eta lur berri horiek, zuzenaren bizileku izango direnak».

Eginkizun horretarako, Jesusek Espiritu Santuaz bataiatu gaitu. Espirituaren indarra du Jesusek bere baitan: Espiritu hori eman digu jarraituko diogun guztioi. Horixe da gure esperantza. Zeren eta kristau-esperantzak munduan, dagoen bezala egonik –eta amesten duguna bezalako amesturik–, berekin du ados ez izatea, aktiboki militante jokatuz, munduarekin, hau den bezalakoa den neurrian.

Abendualdiko 2. astea.

San Ambrosio Milangoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

[Isaias profetaren liburutik 35,1-10: Jainkoa bera dator zuek salbatzera.

Sal 85 [84]: Horra gure Jainkoa; bera dator gu salbatzera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,17-26.

Aldi hartan, Jesus irakasten ari zen. Han zeuden eseriak Galileako eta Judeako auzo guztietatik eta Jerusalemeko etorritako fariseu eta lege-maisu batzuk. Eta Jaunaren indarrak gaixoak sendatzera eragiten zion Jesusi.

Hartan, etorri ziren gizon batzuk elbarri bat ohatilan zekartela eta barrura sartu nahi zuten, Jesusen aurrean ipintzeko. Baina jendetzagatik ez baitzuten aurkitzen nondik sartu, etxe gainera igo eta, teilak kendurik, ohatila eta guzti eraitsi zuten erdira, Jesusen aurrera. Haien sinesmena ikusirik, Jesusek esan zuen: «Gizona, barkatuak dituzu bekatuak!»

Lege-maisu eta fariseuek zioten beren baitan: «Nor dugu biraoka ari den hau? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak baizik?»

Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zer burutapen darabilzue zeuen baitan? Zer da errazago esaten: “Barkatuak dituzu bekatuak” ala “Jaiki eta zabiltza?” Hara, bada, orain ikusiko duzue Gizonaren Semeak baduela lurra bekatuak barkatzeko ahalmena». Eta esan zion elbarriari: «Zuri diotsut: Jaiki zaitez, hartu ohatila eta zoaz etxera». Jaiki zen hura berehala denen aurrean, hartu zuen etzanik zegoen ohatila eta etxera joan zen, Jainkoa goretsiz.

Guztiak harriturik gelditu ziren eta Jainkoa gorensten zuten. Eta, beldurrez beterik, zioten: «Harritzekoak ikusi ditugu gaur».

**U**ste zuten, herri-mailan, gaixo zegoena bekatu egin zuelako zegoela hala. Horregatik, gizon elbarria sendatuz hasi da Jesus, inork eskatu gabe. Ez zuen izan inork eskatu beharrik, «ikusi baitzuen bizi zuten fedea» gaixoak berak eta adiskideek. Barkazio hori, ordea, eskan-



Abendualdiko 2. astea.

San Ambrosio Milangoa, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

**dalagarri gertatu zaie fariseu eta Lege-maisuei. Barkazioa Tenpluan eman ohi zuten opariak eskaintzearekin. Jainkoaren barkazioari, judaismo ofizialetik at, beste bide bat urratu diolako eraso diote Jesusi. Bekatuak barkatzeko ahalmena aitortu dio bere buruari eta mirarizko sendatze batez baietsi du barkatzeko duen aginpidea. Barkatzea ez da sendatzea baino gauza errazagoa. Oso ondo dakigu hori. Baina Jainkoaren errukia gizakiona baino irmoagoa da.**

\*\*\*

### Ez dator zugandik (1)

Goibel eta beldurrez jartzen gaituen hura ez dator Zugandik,  
 estutzen eta ixten gaituen hura ez dator Zugandik  
 bortxatzen, etsiarazten nauen hura,  
 txikiagoa egiten nauen hura ez dator Zugandik.  
 Kateatzen eta lotzen gaituen hura ez dator Zugandik,  
 nahigabea arintzen ez duen hura ez dator Zugandik,  
 zamatzen, kezkatzen, estresatzen gaituen hura ez dator Zugandik,  
 zigorraz eta sariaz mintzo den hura ez dator Zugandik.  
 Zugandik argia baitator,  
 Zugandik bakea baitator  
 Zugandik poza eta  
 oinazean konpainia baitator,  
 egin gaitzazu zeure transparentzia  
 maitasun-keinu bakoitzean,  
 egizu bizi gaitetzela kanporantz  
 egizu “jaitsi gaitetzela Tabor-tik”.

*(Salomé Arrecibita, Arantzazu egutegia 2019-02-24).*

Abendualdiko 2. astea.

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA.

---

§ Hasiara liburutik 3,9-15.20.

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?» Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut».

Orduan, Jainko Jaunak esan zion sugeari:

«Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta bapapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi heu eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok».

Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

[Sal 98 [97]: Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harrigarri.]

§ San Paulok Efesoarrei 1,3-6.11-12.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez. Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea, bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehendik Mesiasengan itxaro genuenok, gauza guztiak berak nahi bezala egiten

dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere asmoaren arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitzen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana gegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitetz, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrear, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekik zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

**K**arl Rahner teologoak galdera egin zuen: zer zentzu du gure bitzarako Andre Maria Sortzez Garbia izan zelako dogmak? Eta lehen erantzuna berak emana –beraren ustez, sinpleena– hau izan zuen: dogma horrek Maria hobeto ezagutzen laguntzen digula, bera gehiago maitatu ahal izateko. Baina gaian sakonduz, gehitu zuen ondoren:

Abendualdiko 2. astea.

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA.

Sortzez Garbia delakoaren dogmak hau adierazten digu: ez bakarrik gure arteko bat jatorrizko bekaturik gabe izan delako kontsolamendua, ez bakarrik behin behintzat norbait guztiz ona izan delako kontsolamendua, baizik eta ikusarazteko pertsona bat guztiz gizatar izan daitekeela bekatupean egon gabe –bekatua ez dela gizatasunaren esentziaren elementu-. Gainera, dogma hau geure zoriaz ere mintzo zaigula esan digu teologoak: gu geu ere, graziari esker, Maria bezala, bekaturik gabe, guztiz gizatar izatera deituak garela, azkenean geure helmugara iritsiko garenean Aitaren etxean. Andre Mariak jada lortu duen zoriona zain dugu guk geuk ere. Maria irudi eta eredu dugu. Jainkoak Mariagan gauzatu du, lehenengo eta era bete-betean, Eliza osoarentzat eta kristauetako bakoitzarentzat duen asmoa. Gizaki bakoitzak izan behar duenaren prototipo da Maria. Horrek guztiak esperantza eragiten digu: berak jada lortu duena zain dugu guk guztiok.

\*\*\*

### Gizakiaren askatasuna eta erantzukizuna

- 11 Ez esan: «Jaunaren erruz galbideratu naiz»,  
Jaunak ez baitu gorroto duena egiten.
- 12 Ez esan: «Hark desbideratu nau»,  
hark ez baitu bekatariaren beharrik.
- 13 Jaunak gorroto dio gaiztakeria orori  
eta berdin hari begirune diotenek.
- 14 Jaunak hasieran egin zuenean,  
aukeramena eman zion gizakiari.
- 15 Nahi baduzu, gorde ditzakezu aginduak,  
Jaunaren borondatea zintzo betetzeko.
- 16 Hark sua eta ura jarri dizkizu aurrean,  
nora nahi, hara eraman dezakezu eskua.
- 17 Bizitza eta heriotza daude gizakien aurrean jarriak:  
aukeratzen duena emango bakoitzari.

*(Ben Sirak liburutik 15,11-17).*

# 9

## Asteazkena / Eguaztena **ABENDUA / GABONILA**

Abendualdiko 2. astea.

Santa Leokadia Toledokoa, *martiria*.

San Joan Diego Cuauhtloatzin (*Mexikon, Guadalupeko Amaren ikuslea*).

---

[Isaias profetaren liburutik 40,25-31]: Jainko ahalguztidunak ematen dio nekatuari adorea. **Sal 103 [102]:** Bedeinka beza nire arimak Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,28-30.**

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

**I**rakurgai biak gure nekeez mintzo dira. Biek dakarte, halaber, gonbit bat: «etor zaitezte nigana». Isaias profetak diosku, nekaezin den hura dela Yahve; beragana jotzen badu, «indarra ematen dio nekatuari», «beragan esperantza dutenek nekatu gabe egiten dute korrika, unatu gabe ibiltzen dira». Jesusek ere beragana jotzera gonbidatu gaitu. Bera da nekaezin den hura, etsitzen ez duena, gure geldialdiak eta desbideratzeak ikustean. Nondik norakoak izan daitezke gure nekeak? Gure indar-faltatik edo gure motibazio-faltatik etorriak. Jesusengana jotzen badugu, sumatuko dugu berriro beraren baldintzarik gabeko maitasuna, eta berrituko da gudan berari jarraitzeko gogoa, jakinik jarraipen hori uztarri bat dela, bai, baina pena merezi duena, horrekin beraren nekaezineko maitasunari esker onez erantzun nahi diogulako.

Abendualdiko 2. astea.

Santa Eulalia Meridakoa, *birjina eta martiria*.

[Isaias profetaren liburutik 41,13-20: Ni Neu nauzu lagun, Israelgo Santua. Sal 144 [145]: Errukiorra eta bihozbera da Jauna, haserregaitza eta onginahiz betea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,11-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Egiaz diotsuet: Ez da sortu amaren semerik Joan Bataiatzailea baino handiagorik. Hala ere, zeruetako erreinuan txikiena, hura baino handiago da. Joan Bataiatzailea agertu zen egunetatik gaurdaino, zeruetako erreinua indarrez hartzen da, eta indar egiten dutenek eskuratzen dute. Profeta guztien eta Moisesen agintzarien garaia Joan Bataiatzailearekin bukatu da. Joan hau da etortzekoa zen Elias, nahi baduzue onartu. Belarririk duenak entzun beza».

**J**esus, segur aski, Joan Bataiatzailearen ikasle izan zen aldi batez. Eta, hasiera hartan lilura hura bizi izan arren, Joanen eta Jesusen bi-deek norako desberdina izan zuten gerora. Zergatik? Joanek iragarri du berehala datorrela Jainkoaren erregetza, baina soil-soilik auzitzat hartu du erregetza hori: kontuak eskatzera letorke Jainkoa eta mundua garbitzera. Besterik izan da Jesusen jarrera. Jesusek Jainkoaren etorrera Aita errukitsu baten etorreratzat hartu eta hots egin du; barbazioa doan eskaintzera dator. Eta beharrezkoa izango da, bai, konbertsioa; baina Jainko errukitsu horretan sinesteak berak eta fidatzeak berak egingo du posible konbertsio hori. Ikuspegi desberdin honek nork bere bidea hartzera eragingo die biei, Joani eta Jesusi; Jesusek, Joanek bere miresmena aitortzeari sekula utziko ez badio ere, bere mezu propioa aldarrikatuko du aurrerantzean.

Abendualdiko 2. astea.

San Damaso, 37. *aita santua.*

[Isaias profetaren liburutik 48,17-19: Nire aginduak aintzakotzat hartuko bazenitu! Sal 1: Zuri jarraitzen dizunak, Jauna, izango du bizirako argia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,16-19.

Aldi hartan, Jesussek esan zion jendeari: «Zeinen antzekoa dela esango nuke gizaldi hau? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da; honela oihu egiten baitiete batzuek besteei: “Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek aienerik ez”.

Izan ere, etorri zen Joan Bataiatzailea, ez jan ez edan egiten ez zuela, eta deabruak harturik dagoela diote. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta honela diote: “A zer tripezaina eta mozkorra, zergalari eta bekatarien adiskidea”. Baina egiteek Jainkoaren jakinduriari eman diote arrazoia».

**J**esusek aitzaki-maitzaki ibiltzea salatu du. Gauza bera egin zuen ezteietara gonbidatuak izan zirenen parabolan ere, gonbidapena onartzeari uko egin ziotenean. Gaurko ebanjelioan ere aitzaki-maitzaki ibiltzea leporatu die, haur-jolasean ari direla aurpegiraturuz: ez dolumentara, ez ezteietara jokatu nahi ez duten haurren jolasean, alegia. Bere belaunaldikoak gonbidatu horiekin eta haur horiekin konparatu ditu. Ez zuten onartu Bataiatzailea, zorrotza omen zelako; ez Jesus, «tripazain» eta festazale omen delako. Beti aurkitu ohi zuten argudiorik konpromisoari ihes egiteko. Eta guk, zein aitzakiatara jo ohi dugu? «Jarraitu nahi nizuke, baina orain ez, bada astirik oraino»; «jarraitu nahi diot, baina ez honela, ez gauza honetan...». Horrela ibili ohi gara esaten, Lope de Vegaren sonetoan bezala: «”Bihar irekiko diogu”, erantzun zuen, gauza bera esateko biharamunean...». Geroko gero, geroko gero, behin ere iristen ez den geroa.

## ABENDUA / GABONILA Larunbata / Zapatua

Abendualdiko 2. astea.

San Justino, *martiria*.

Santa Amalia, *martiria*.

Andre Maria Guadalupekoa, Mexikon.

# 12

[Ben Siraken liburutik 48,1-4,9-11: Berriz etorriko da Elias. Sal 80 [79]:

Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17,10-13.

Menditik jaistean, galdetu zioten ikasleek Jesusi: «Nolatan diote lege-maisuek, lehenbizi Eliasek etorri behar duela?»

Jesusek erantzun zien: «Bai, Eliasek etorri behar zuen eta gauza guztiak eraberritu. Baina hara zer diotsuedan: Elias etorria da, eta ez dute aintzat hartu, baizik eta nahi izan duten guztia egin diote. Era berean, Gizonaren Semeak ere oinazeak jasango ditu horiengandik». Orduan konturatu ziren Joan Bataiatzaileaz ari zitzaiela.

**I**kasleak jaitsi dira menditik; Jesusen Antzaldatzea kontenplatu dute han, eta Elias ikusi dute, Jesusekin hizketan. Horren ondorioz, Elias itzuliko omen den uste herrikoiairen oihartzun egin dira. Jesusek, erantzutean, Bataiatzailearekin identifikatu du Elias, Joan ere «sua zerrion profeta izan baitzen, haren hitzak labe gori baitziren». Joani antzeman ez zioten bezala, Joan aitortu ez zuten bezala, Jesus ere oker ulertuko dute eta gaitzetsiko. Bataiatzailea Jesusen aitzindari izan zen bere bizitzaz eta heriotzaz. Jesusek gero egingo zuen bezala, Joaneke aurrera jarraitu du bere misioa betetzen, antzemango ez badiote ere, aintzat hartuko ez badute ere. Bi eredu ditugu guk, geure buruari non begiratu izateko, jendeak guri aitor egitea hain gustukoa dugunok... eta, bestela, geure egitekoa bertan behera utzi ohi dugunok: bi eredu, bi ispilu.



Abendualdiko 3. astea.

Santa Luzia, *birjina eta martiria*.

San Eugenio, *martiria*.

§ Isaias Profetaren liburutik 61, 1-2a. 10-11.

Jainko Jaunaren espiritua nire gaínean dago, Jaunak gantzutu bainau. Hark bidali nau behartsuei berri ona ematera, bihotz-urratuak sendatzera, gatibuei amnistia hots egitera eta giltzapetuei askatasuna; Jaunaren ongínahi-urtea hots egitera.

Pozaren pozez nago Jaunarekin, neure arima Jainkoarekin alai daukat, salbamenaz jantzi bainau, garaipen-soinekoz estali, koroa janzten duen senargaia bezala, edergailuz apaintzen den andregaiá bezala. Lurrak landarea ematen eta baratzeak hazia ernearazten duen bezala, hala ernearaziko du Jaunak justizia eta gorespena nazio guztien aurrean.

[Salmoa Lukas 1: Neure arima Jainkoarekin alai daukat.]

§ San Paulok 1 Tesalonikarrei 5, 16-24.

Senideok: Zaudete beti pozik. Egin otoitz aspertu gabe; eman eskerrak beti, horixe nahi baitu zuentzat Jainkoak Kristo Jesusengan. Ez itzali Espiritua, ez gutxietsi profeta-dohainik. Aztertu guztia eta hartu on dena. Zaindu zeuen burua nolananahiko gaiztakeriatik.

Bakea ematen duen Jainkoak berak egin zaitzatela oso-osorik santu, eta zuen izate osoak –espiritu, arima eta gorputz– errugabe iraun dezala, Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera arte. Leiala da dei egin dizuena, eta beteko du emandako hitza.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 6-8. 19-28.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets ezazaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.

Hau da Joan Bataiatzaileak egin zuen aitormena, juduek Jerusalemdik apaizak eta lebitarrak bera nor zen galdetzera bidali zizkiotenean.

Abendualdiko 3. astea.

Santa Luzia, *birjina eta martiria*.

San Eugenio, *martiria*.

Joanek argi eta garbi aitortu zuen: «Ni ez naiz Mesias». Haiek galdetu zioten: «Nor zara, bada? Elias al zara?» Joanek erantzun: «Ez». Haiek, orduan: «Etortzekoa den profeta al zara?»

Eta hark: «Ez». Berriro galdetu zioten: «Nor zara, bada? Bidali gaituztenei erantzuna eman behar diegu. Zer diozu zeure buruaz?»

Joanek, orduan: «Ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: “Zuzendu bidea Jaunarentzat”, Isaias profetak esan zuen bezala».

Bidalitako haietan batzuk fariseuak ziren, eta galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara Mesias, ez Elias, ez etortzekoa den profeta?»

Joanek erantzun zien: «Nik urez bataiatzen dut. Zeuen artean baduzue, ordea, ezagutzen ez duzuen bat, nire ondoren datorrena; eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere». Hau guztia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiatz bestaldean, han ari baitzen Joan bataiatzen.

**A**rgiaren lekukoak, lehenik eta behin, argiaren ezagutza hori bere barnean duelako, gure artean gertatu ohi diren seinaleetan Jauna barruntatzen du. Jada geure artean baitugu Jauna. Isaias profetak esan zuen bezala, badira jada «ernetzen ari diren haziak», gure munduan, lehen begiratuan, Jainkoaren eskutik libratu dela ematen duen mundu honetan. Badira Jaunak ereindako haziak —ondradutasun, ukapen, onberatasun, solidaritate... haziak—, erne eta hazten ari direnak. Antzina-ko Eliz Gurasoek «semina Verbi» (Hitzaren hazi) esaten zieten; badira, bai, gure mundu honetan horrelakoak. Argiaren lekukoak barruntatzen eta atzematen ditu eta seinalatzen. Argiaren lekukoak, Jainkoaren presentzia eta hazi horiek produzitzen dituen Espirituaren egintza aurkitzean, jarrera esperantzazkoa eta baikorra bizi ohi du bizitzaren aurrean. Bizitza horretan den ongia bilatzera eragiten die besteei, beldurra alde batera uztera, eta horrela «Jaunaren bidea zelaitzen du»; izan ere, esana denez, lekuko bat galdetzaille edo galde-ikur da beti gainerakoentzat: bere bizierarekin sinesteko gogoia kutsatzen du —erlijio-irakaspenaz lerrokada luzeak bota beharrik izan gabe—.

Abendualdiko 3. astea.

Gurutzeko San Joan, *apaiza eta eliz irakaslea, karmeldarra.*

[Zenbakiak liburutik 24,2-7.15-17: Izar bat aterako da Jakoben herritik.  
Sal 25 [24]: Erakutsi niri, Jauna, zeure bideak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21,23-27.

Aldi hartan, Jesus tenplura etorri eta, irakasten ari zela, apaizburuak eta herriko zaharrak hurbildu zitzaizkion, galdezka: «Zein aginpidez egiten duzu hori? Nork eman dizu aginpide hori?» Jesusek erantzun zien: «Nik ere gauza bat galdetuko dizuet; erantzuten badidazue, Nik ere esango dizuet zein aginpidez egiten dudan hori. Joanek noren aginduz bataiatzen zuen: Jainkoaren aginduz ala gizakien aginduz?»

Haiek beren baitan zioten: «Jainkoaren aginduz ari zela esaten badugu, zergatik sinetsi ez genion esango digu. Eta gizakien aginduz ari zela esaten badiogu, berriz, jendearen beldur gara, guztiek profetatzat baitaukatate Joan».

**J**esusen eta apaiz nagusi eta zaharren arteko solasaldi hau tenplutik merkatariak bota ondoko biharamun goizean gauzatu zen. Egin duena zein aginpidez egin duen galdetu diote. Jesusek, Bataiatzailearen aginpidea aipatuz, kontrako galdera eginez erantzun die. Aipatu agintariak ezjakinarena eginez erantzun diote: «Ez dakigu». Horrenbestez, mozorroa kendu die Jesusek, eta behatzaileen aurrean ezjakite hori Jesusen aginpidearen baiesperen bilakatu da. Zenbat aldiz ez ote zioten galdegin Jesusi jakin nahiaren itxura eginez, baina beren segurtasunei uko egin gabe, eta, izatez, sarea jarri eta Jesus bera gezurtatu nahiz! Eta nik, ez al dut askotan galdera egiten ikasteko asmorik gabe, soil-soilik, neure burua nabarmendu nahiz, bestea leku txarrean uzteko edota neure burua zuritzeko?

Abendualdiko 3. astea.

Santa Silvia, *aitorlea*.

San Valeriano, *gotzaina*.

[Sofoniasen Profezia liburutik 3, 1-2. 9-13: Mesiasengandiko salbamena behartsu guztiei agindu. Sal 34 [33]: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21, 28-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburu eta herriko zaharrei: «Zuek zer deritozue? Gizon batek bi seme zituen; batarengana joan eta esan zion: “Seme, zoaz gaur mahastira, lanera”. Hark erantzun: “Ez dut nahi”. Baina gero damutu eta joan egin zen. Bestearengana ere joan eta gauza bera esan zion. Eta hark erantzun: “Banoa, jauna”; baina ez zen joan. Bietan zeinek egin zuen aitaren nahia?» «Lehenengoak», erantzun zioten.

Orduan, Jesusek esan zien: «Egiaz diotsuet: Zergalariak eta emagalduek zuek baino lehenago sartuko dira Jainkoaren erreinuan. Izan ere, etorri zitzaizuen Joan Bataiatzailea Jainkoaren nahiari dagokion jokabidea hots eginez, eta ez zenioten sinetsi; zergalariak eta emagalduek, berriz, sinetsi egin zioten. Zuek, ordea, ikusi eta gero ere, ez zineten bihotz-berritu, hari sinesteko».

**J**esusek azaldu ohi zuen, Jainkoari axola zaiona ez direla jarduera erlijioso maitasun gabeak, ez zaiola axola bera mihi-puntan edukitzea bihotzean eduki gabe; baizik eta Jainkoak gogoko duena barne jarre-  
ra egiatia dela. Horregatik, emakume prostituituek eta zerga-biltzailek  
–hasiera batean Jainkoaren deiari «ez» esan ziotela ematen zuten haiek–,  
jasoa zuten barkazio handiagatik, agertu zuten esker oneko jarrera zen  
–eta da– itxura guztiak baino harago–, Jainkoari atseginago zaiona, mun-  
duko «ortodoxoenak» izan arren, buru-eskaintzarik eta doakotasunik ez  
duten errituak eta jokabideak baino atseginago, alegia; hain zuzen ere,  
agertzen duten bihotz-zabaltasunagatik. Nolatan ez digute eragiten Jesu-  
sen hitz gogor hauek? Gailenago eta goragoko ikusi ohi dugu geure bu-  
rria, eta, ondorioz, itxuraz «galdua» den jendea juzkatzeko eskubidedun.

Abendualdiko 3. astea.

San Agrikola, *martiria*.Santa Adelaida, *enperadorea*.

[Isaias Profetaren liburutik 45, 6b-8. 18. 21b-25: Isuri goitik, zeruok, ihintza bezala garaipena! Sal 85 [84]: Isuri goitik, zeruok, ihintza bezala, isuri, hodeiok, garaipena euria bezala!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 19-23.

Aldi hartan, Joan Bataiatzaileak, bere ikasleetako biri dei egin eta Jaunagana bidali zituen galdetzeraz: «Zu zara etortzekoa ala besteren baten zain egon behar dugu?» Joan ziren, bada, gizon haiek Jesusengana eta esan zioten: «Joan Bataiatzaileak zugana bidali gaitu galdetzeraz: “Zu zara etortzekoa ala besteren baten zain egon behar dugu?”»

Une hartantxe, gaitz, eritasun eta espiritu gaiztoak zituen jende asko sendatu zuen Jesusek, eta itsu askori ikusmena eman zion.

Ondoren, mezulariei erantzun zien: «Zoazte eta esan Joani ikusi eta entzun duzuenaz: itsuek ikusten dute eta herrenak badabilta, le-genardunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzuten dute, hilak pizten dira eta behartsuei Berri Ona hots egiten zaie. Eta zorionekoa nigatik erorbide hartzen ez duena!»

**B**ataiatzaileak predikatzen duen Jainkoaren aurrez aurre, Jesusek agertu eta «praktikatu» duena xamurtasunaren Jainkoa da, jende ahulagana, behartsuagana, premian denagana «makurtzen» den Jainkoa. Askapena ekartzera etorri da, eta ez gaitzespene. Xamurtasun hori izango bagenu, geuregana etorriko litzaguke Jesusek jaulki duen zoriontasun hau: Zorionekoa, nik huts egin diodanik sentitzen ez duena! Zorionekoa izango da –esan du Jesusek– horrelako Jainko bat edukitzeaz eskandalizatzen ez dena: hain hurbila, hain «gizabidezkoa»; eta, ondorioz, Jainko horren, samurtasun errukitsuko Jainko horren, antzeko izateagatik, jende ahularen, apalaren, zaurtuaren, eskua emateko gu makurtu beharra sentitzen duenaren «parean», agian «oinetan», jartzen dena. Horrela bizi bagina zorioneko izango ginateke!

Abendualdiko 3. astea.

Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak), *martiriak*. San Juan de Mata, *apaiza, fundatzailea San Felix de Valoisekin batean (trinitarioak)*. San Jose Manyanet, *apaiza eta fundatzailea*.

[**Hasiera liburutik 49,1-2.8-10:** Errege-makila ez da Judagandik alden-duko. **Sal 72 [71]:** Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,1-17.**

Abrahamen eta Daviden ondorengo den Jesu Kristoren jatorri-liburua.

Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda eta haren senideak; Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sortu zituen, Faresek Esrom, Esromek Aram, Aramek Aminadab, Aminadabek Naason, Naasonek Salmon; Salmonek Rahabengandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek Jese, Jese David erregea.

Davidek Uriasen emazte izanagandik Salomon sortu zuen, Salomonek Roboam, Roboamek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joram, Joramek Ozias, Oziasek Joatam, Joatamek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiasak Manases, Manasesek Amon, Amonek Josias; Josiasak Babiloniako erbestealdian Jekonias eta haren senideak sortu zituen.

Eta, Babiloniako erbestealdi ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zuen, Salatielek Zorobabel, Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakim, Eliakimek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akim, Akimek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob; Jakobek, berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Beraz, hamalau gizaldi izan ziren guztira Abrahamengandik Davidenganaino, hamalau gizaldi Davidengandik Babiloniako erbestealdidiraino, eta hamalau gizaldi Babiloniako erbestealditik Kristoganaino.

**E**banjelioko genealogia honek Israelen historia guztia hartzen du barne, gailurra Kristorekin jotzen duelarik, eta lau emakume ageri dira tartean (Tamar, Rahab, Rut eta Betsabe). Zer dela-eta emakume horiek?  
a) Bekatari izanik, Jesusen misio salbatzailea azpimarratu nahi delako?;

Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak), *martiriak*. San Juan de Mata, *apaiza, fundatzailea San Felix de Valoisekin batean (trinitarioak)*. San Jose Manyanet, *apaiza eta fundatzailea*.

b) atzerritar izanik, salbazioaren unibertsaltasuna azaldu nahi delako?;  
c) guztiek ere Daviden egiazko seme bat «arauz kontrako eran» erdi dutelako? «B» aukera erabat baztertu gabe, honengatik aipatu ditu Mateok lau emakume hauek: frogatzen dutelako, Jainkoak parte hartu duela gauzen joanera aldatzeko; mesiastar ildoan tartekatua izan direlako Jainkoaren doako egitate baten bidez, hartarako, lehen begiratuan gaindiezina zen oztopoa deseginez. Jainkoa da eta ez gizakiak, historia honen hariak mugitzen dituen, eta hori, beti, modu harrigarrian egiten duena.

\*\*\*

### Gotzainak izendatzeko modua aldatu? (Alander aldizkaria, 2018-09-01)

(*Javier Pagola*) Ausartuko ote da Frantzisko aita santua gotzainak aukeratzeko sistema aldatzera, irizpide ebanjelikoak eta gardentasun demokratikoa indarrean jarritz?

(*Jesús Martínez Gordo*) Komeni da eta beharrezkoa sustatzea gotzain izatera, kristau-herriak onartutako jendea, bere errotikotasun ebanjelikoaz lider-ezpala nabari duena. Eta guztia, Jainkoaren herri osoaren esku hartzeaz eta garden gauzatuz. Joera horretako erreforma batek es-tualdi asko ekidingo lizkioke aita santuari; adibidez, Txilen apaiz pedera-sten jokabidea ezkutatu nahi izan duten gotzainena. Baina, batez ere, asko erraztuko lituzke kristau-emakumek eta gizonezkoek, zeinek bere elizan, esku hartzea, eta protagonista izatea. Horrek, nire ustez, 377. ka-noneko 1. artikulua aldatzea eskatuko luke: dioena «Aita Santuak aske izendatuko ditu gotzainak edo baietsiko legez aukeratuak izan direnak» kendu eta beste hau ezarritz: «Aita Santuak legez aukeratuak izan diren gotzainak baietsiko ditu eta, salbuespen-kasuetan, aske izendatuko». Zuzeneko hautatzea edota izangaiak elkarteak proposatzea izan zen ohi-ko jarduera lehen elkarteetan. Gaur egun, Europa Erdialdeko 30 eliz-barruti baino ez gutxiagotan, dagokien elizbarrutien eta Vatikanoren arteko itunaren arabera izendatzen dira gotzainak: hirukotea aurkezten du dagokion elizbarrutiak eta haietako bat aukeratzen Erromak.

Abendualdiko 3. astea.

Itxaropenaren Andre Maria.

San Modesto, *patriarka, Jerusalemen berritzailea.*

[Jeremias profetaren liburutik 23,5-8: Legezko muskila sortuko diot Davidi. Sal 72 [71]: Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,18-24.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemanana zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen:

«Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du,  
eta Emanuel ipiniko diote izena  
(izen honek “Jainkoa gurekin” esan nahi du)».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

«**A**metsek» –genero literario bat da– azpimarratzen dute, bizitzako erabaki handiak Jainkoaren aurrean hartu behar direla eta haren gogoekin egokienik leudekeenak bilatuz –Jainkoak ez du eskaintzen errezetarik–. Horrela hartu zituen Josek bere erabakiak, ilunaldietan: Maria bere emaztearekiko maitasuna gorde; Egiptora ihes egin, erbestealdia mingarria izango bazen ere; biziera berri bati ekin, Nazaretera



Abendualdiko 3. astea.

Itxaropenaren Andre Maria.

San Modesto, *patriarka, Jerusalemen berritzailea.*

itzuliz; onartu seme «ahots handia» Tenpluan, haren erantzunean Jainkoaren asmo misteriotsuak ulertzen saiatuz, fede sakon batetik. Josek bere bizitzako gorabeherak, esperantzari itxiak ziruditenak, mamitsu eta etsirik gabe bizi zituen. Hartara eragin zion bere familiak kutsatu zion esperantza zindoak, fidaturik beren esperantzaren sustrai zuen Jainkoak ez ziola huts egingo.

\*\*\*

### Gerta bedi nigan

1. Esan diezaiogun Jaunari Mariarekin:  
Gerta bedi nigan zuk esana.
2. Gerta bedi nigan zuk esana.
3. Poztu zaitetz graziaz bete hori!
4. Jauna zu baitan da.
5. Bedeinkatua zu emakumeen artean.
6. Ez beldur izan, Maria.
7. Atsegina zara Jainkoaren begietarako.
8. Sortuko duzu sabelean eta semea izango duzu.
9. JESUS ezarriko diozu izena.
10. Handia izanen da, Goi-goikoaren Semea!
11. Nola gerta daiteke hori, ez dut gizonik ezagutu eta?
12. Espiritu Santua etorriko da zugana.
13. Eta Goi-goikoaren indarrak hartuko zaitu bere itzalpean
14. Hona Jaunaren mirabea!
15. Gertatu bedi nigan Zuk esana!
16. Eta Hitza haragi egin zen!
17. Gertatu bedi nigan Zuk esana!
18. GERTA BEDI NIGAN ZUK ESANA.

## ABENDUA / GABONILA Larunbata / Zapatua

Abendualdiko 3. astea.

San Dario, *martiria*. Santa Protasia, *birjina*.

San Urbano V.a, 200. *aita santua*.

San Anastasio I.a, *aita santua*.

# 19

[Epaileak liburutik 13,2-7.24-25a: Aingeruak Samsonen jaiotza iragarri.

Sal 71 [70]: Zure gorespenaz betea nuen ahoa zure ospea kantatzeko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,5-25.

Judeako errege Herodesen egunetan, bazen Zakarias izeneko apaiz bat, Abiaren apaiz-sailekoa; haren emaztea Aaronen ondorengo zen eta Elisabet zuen izena. Biak zintzoak ziren Jainkoaren aurrean, eta Jaunaren agindu eta lege guztiak huts egin gabe betez bizi ziren. Ez zuten haurrik, agorra baitzen Elisabet eta biak urteetan aurreratua.

Behin batean, Zakarias bere sailekoekin Jainkoaren aurrean apaiz-zerbitzua egiten ari zelarik, Jaunaren santutegian sartzea egokitu zitzaion, apaizen ohituren arabera, intsentsua eskaintzera. Intsentsua eskaintzen ari zen bitartean, herri osoa otoitzean ari zen atarian. Hartan, Jaunaren aingerua agertu zitzaion Zakariasi, intsentsu-aldarearen eskuinaldean zutik. Hura ikustean, izutu zen Zakarias eta beldurrak hartu zuen.

Aingeruak, ordea, esan zion: «Ez beldur izan, Zakarias, entzun baitu Jainkoak zure eskaria. Zure emazte Elisabetek semea emango dizu, eta zuk “Joan” ipiniko diozu izena. Poz handia izango da zuretzat, eta haren jaiotzak jende asko poztuko du, handia izango baita Jaunaren aurrean. Ez du edango ardorik, ez edari bixigarririk. Espiritu Santuaz beteko da amaren sabelean bertan. Israeldar asko bihurtuko du Jaunagana, bere Jainkoagana; Jaunaren aurretik etorriko da, Eliasen espirituaz eta indarrez, gurasoak seme-alabekin adiskidetzeko, bihurriei zintzoen sena emateko eta Jaunarentzat herri egokia pres-tatzeko».

Zakariasek esan zion aingeruari: «Nola jakin dezaket hori gertatuko dela? Ni zaharra bainaiz, eta nire emaztea ere urteetan aurreratua».

Aingeruak erantzun zion: «Ni Gabriel naiz, Jainkoaren aurrean zerbitzari nagoena; hark bidali nau zuri hitz egitera, berri on hau emateko. Baina begira, mutu geldituko zara, hitz egin ezinik, hauek ger-

tatu artean, ez baitituzu sinetsi nire hitzak, bere garaian beteko diren hitzak».

Bitartean, herria Zakariasen zain zegoen, harriturik, santutegian hainbeste luzatzen zuelako. Atera zenean, ezin zien hitz egin, eta ohar-tu ziren ikuskariren bat izan zuela santutegian. Bera keinuka ari zitzaizen, mutu jarraitzen baitzuen.

Tenpluko bere zerbitzu-egunak bukatuta, etxera joan zen. Egun batzuen buruan, haren emazte Elisabet haurdun gelditu zen; bost hilabetez etxetik atera gabe egon zen, eta bere baitarako zioen: «Hara zer egin duen Jaunak nire alde, jendearen aurrean nuen lotsa kendu nahi izan duenean».

**Z**akarias eta Elisabet «Israelgo hondarreko», hitzemandako Mesias etorri zain dagoen taldeko, kide dira. Eta sutsuki opa dute seme bat, biak adin handiko diren arren. Halaz guztiz, amestutako semearen iragarpen-unea iritsi denean, Zakariasek, apaizak, Tenpluko (santutegiko) gunerik sakratuenean, unerik sagaratuenean (intsentsua eskaintzarenean), duda egin du iragarpen honen egiatasunaz. Zakarias, zigorturik, mutu geldituko da; baina aurrera darama Jainkoak bere egintza, giza ahuldadea gaituz. Seme bat jaioko da ezkontza-bikote horretatik, Joan, Mesiasen aitzindari izango dena. Gauza erabat berri bat hasi da salbamenaren historian. Zenbat bider huts egin diogun Jaunari une erabakitzailetan!; halere, haren errukia gure antzutasuna baino aberatsagoa da!

Abendualdiko 4. astea.

Domingo santua, Silos-koa, *abadea*.

§ Samuel bigarren liburutik 7, 1-5. 8b-12. 14a. 16.

David erregea bere etxean bizitzen jarri eta Jaunak inguruko etsai guztiekiko bakea eman zionean, esan zion erregeak Natan profetari: «Begira, ni zedrozko etxean bizi naiz; Jainkoaren kutxa, berriz, oihal-etxolan dago».

Natanek erantzun zion erregeari: «Zoaz eta bete zeure asmoa, Jauna zurekin baita».

Baina gau hartan bertan Jaunaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: “Hau dio Jaunak: Zuk eraiki behar al didazu etxea, nire bizileku izan dadin? Nik atera zintudan la-reetatik, artaldean atzetik, nire herri Israelen buruzagi izan zintezan. Zeurekin izan nauzu, ibili zaren alde guztietan. Nik suntsitu dizkizut aurrean jarri zaizkizun etsai guztiak eta Nik emango dizut lurreko handikiena bezalako izen handia. Leku bat emango diot neure herri Israeli: han landatuko dut, bertan biziko da eta ez du aurrerantzean es-tualdirik izango. Gaizkileek ez dute zapalduko antzina bezala, neure herriaren gain buruzagiak ipini nituenean bezala. Bakea emango dizut etsai guztiekiko. Jaunak jakinarazten dizu zure jatorritik sortuko diren erregeak emango dizkizula.

Zeure egunak bete eta zeure gurasoekin atsedean hartuko duzue, ondorengoa emango dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotuko dut haren erregetza. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura.

Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti”».

[Sal 89 [88]: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti.]

§ San Paulok Erromatarrei 16, 25-27.

Senideok: Aintza Jainkoari, nik hots egiten dudan Berri Onaren eta Jesu Kristori buruzko nire predikuaren arabera fedean sendo zaitzake-

Abendualdiko 4. astea.

Domingo santua, Silos-koa, *abadea*.

ten Jainkoari. Prediku honen bidez, betidanik ezkutuan zeukan misterioa agertu du Jainkoak. Misterio hori orain azaldu da, profeten idazkiek esan bezala, eta, betiereko Jainkoaren erabakiaren arabera, herri guztiei adierazi zaie, Jainkoari fedezko erantzuna eman diezaioten.

Jainko horri, jakintsu bakarrari, aintza Jesu Kristoren bitartez, gizaldi eta gizaldietan. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemanana zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitetz, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zuek jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Abendualdiko 4. astea.

Domingo santua, Silos-koa, *abadea*.

**M**aria bere izatearen hasieratik blaitu zuen grazia izan zen, Jainkoaren proposamenari, beraren Seme haragi eginaren Ama izatekoari, bai esatera eragin ziona. Alabaina, grazia horrek ez zuen sekula desegin Mariaren askatasuna. Izan ere, grazia, Jainkoak bere sorkariari egingako buru-eskaintza hori, giza askatasuna erarik gorenera jasotzen duen dohaina da. Jainkoak, bere sorkariagana hurbiltzean, handiagotu egiten du, sorkari horrek duenik eta hoberena ateratzen du argira. Jainkoak ez du behartzen bere sorkaria bidera irteten zaionean, ez du tresna bilakatzen gizaki graziaduna bere asmoetarako, santuenak izanik ere hauek. Ez zuen egin horrelakorik Mariarekin ere. Honengan graziak aldeztu egin zuen Jainkoari emandako «baietza» –grazia huts-hutsa izan zen hau–; aldi berean, ordea, erabaki pertsonal aske-askea izan zen, bere izatearen hondoenetik erne zitzaiona. Bere burua aske eskaini ahal izateko dohaina erregalatu zion Jainkoak Mariari.

Jainkoari guk eman ohi diogun «baietza» ez bezalakoa izan zen Mariarena; guk, bekatarik garelako, «bai» txikiagotua ematen diogun beti, iraupen-faltaren eta duda-muden zipriztinak izaten dituen; Mariarena, bekaturik gabea izanik, erabateko «bai» bat izan zen, «bai» huts-hutsa, orbanik gabea. Horrela bide eman zion, bere amatasuna onartzearekin, Jainkoaren asmo salbatzailea zabal hedatzeari. Mariak Jainkoari «bai» bete-betea eman zion, ondorio guztiakin.

Abendualdiko 4. astea.

San Pedro Canisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita.*

[Kantarik Ederrena liburutik 2,8-14: Hara non datorren, mendiz mendi lasterka, nire maitea. Sal 33 [32]: Egin poz-oihu, zintzook, Jaunari, kanta iezaiozue kantu berria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-45.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

**M**aria, aingeruak emandako albistearekin, ez zen gelditu bere zilbor hesteari begira, ezta ere buru-pozez barne bildurik, baizik eta «bideari ekin zion», Elisabet bere lehengusinari – jada adin handikoa– laguntzeko, seme bat espero baitzuen eta laguntza-premia. Eta Mariak, besteri laguntzeko joera izan baitzuen beti, bere buruaz ahaztuz, eta kontuan hartu gabe bere egoera (bera ere haurdun) eta Galileatik Judeako mendiko herrixka hartara igotzeko egin beharko duen distantzia –gutxienez lau eguneko bidaia– «presaka» ekin dio bideari. Hara iritsirik, ez du jada presarik. Hiru hilabetez gelditu zen Elisabeti laguntzen. Zerbitzu-jarrerara hori da Mariagandik ikas dezakeguna.

## ABENDUA / GABONILA Asteartea / Martitzena

Abendualdiko 4. astea.

San Honorato Tolosakoa (Frantzia), *gotzaina*.

Santa Frantziska Javier Cabrini, *fundatzailea (Jesusen Bihotzaren misiolariak)*.

# 22

[Samuel lehenengo liburutik 1, 24-28: Anak eskerrak eman, bere seme Samuelen jaiotzagatik. **Salmoa: 1 Sm 2:** Jaunagan da nire bihotza pozten, nire salbatzaileagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 46-56.

Aldi hartan, Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamena, ikusi baitu mirabe honen eze-reztasuna.

Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana.

Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aukietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak.

Lagun etorri zaio bere morroi Israeli, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzeman, Abrahami eta ondorengoei betiko esana».

Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

**M**ariak Elisabeten gorespenari beste kantika batekin erantzun dio: berak sinetsi duen Jainkoa adierazten du. Gorazarre horretaz esan izan da, «adizlagun edo adberbioen iraultza» dela (D. Aleixandre); zeren eta, Jainkoaren ikuspegitik –zeinetan partaide baita Maria eta zeinetan lankide izan nahi baitu–, munduaren begientzat «goian» dagoena behean baitago, «aurrean dagoena» «atzean», «urrun» dagoela ematen duena «hurbil». Jende xehearen, behartsuaren eta apalaren aldeko kantika da, aberatsen, boteretsuen eta harroen aurrez aurre. Jite profetikoki, Jesusen Jainkoaren joera kartsua bildu du Mariak, egoera zuzengabeak atzekoz aurrera jartzeko joera, alegia, eta bere-bere egin du.



Abendualdiko 4. astea.

San Joan Kety-koa, *apaiza*.

[Malakias profetaren liburutik 3,1-4.23-24: Elias profeta bidaliko di-zuet, Jaunaren eguna etorri baino lehen. Sal 25 [24]: Izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,57-66.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuen. Jakin zuten auzokoez eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkioten.

Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitartean inor izen hori duenik».

Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «Joan du izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakarias, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goستن.

Beldurak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiek beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?» Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

**I**sraeldarren kulturaren, pertsona baten izenak beraren misioa eta zoria adierazten zituen. Zakarias eta Elisabetek, aingeruak esandakoari jarraituz, ez diote jarri haurrari aitaren izena, ohitura zenez. Semea, kasu honetan, ez zen izango aitaren apaiz-zeregin eta eginkizunaren jarraitasun. Joan hitzak esan nahi du: «Yahve gupidatu da» bere herriaz. Jainkoaren gupida hau basamortutik azalduko du Joanez, erakunde zibil eta erlijiosoetatik (Tenplutik) urrundurik, era sinestezineko askatasunez jokatu. Jainkoaren eskua berekin zuen. Mundu honetan jaiotzen den haurtxo orok, bere gainean izaten du Jainkoaren eskua. Baina gu adinekook arduratzen gara, zoritxarrez, hari esku hori gainetik kentzeaz.

Abendualdiko 4. astea.

Eguberri-bezpera.

Jesusen arbasoak: Adam, Abraham, Jakob. David...

[2 Samuelen liburutik 7,1-5.8b-12.141.16: Daviden erreinuak betiko iraungo du Jaunaren aurrean. Sal 89 [88]: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betikoz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,67-79.

Aldi hartan, Zakarias, Joan haurraren aita, Espiritu Santuaz beterik, profeta bezala mintzatu zen, esanez:

«Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena!

Salbamen-indarra digu eman bere morroi Daviden etxean. Hala hitzemana zuen antzinatik bere profeta santuen ahoz: salbatuko gintuela geure etsaien menpetik, gorroto gaituzten guztien eskutik.

Horrela agertu du gure gurasoenganako errukia eta oroitu da bere itun santuaz, gure guraso Abrahami egindako zinaz: berak emango zigula, etsaien eskutik askaturik, beldur gabe bera zerbitzatzea, santu eta zuzen izanez haren aurrean geure bizitza guztian.

Zuri, berriz, haurtxo horri, Goi-goikoaren profeta deituko dizute, Jaunaren aurretik joango baitzara hari bidea prestatuz, erakustearren haren herriari salbamina, beren bekatuen barkamina.

Gure Jainkoaren errai errukitsuengatik, agertuko zaigu goiz-eguzkia zeru goitik, ilunpean eta Herio-itzalean daudenei argi egitera, gure oinok bake-bidean zuzentzera».

«**B**isita», Lukasek hainbat kasutan erabiltzen duen hitza da, Jainkoaren parte-hartzea, gu salbatzeko bera gugana etorri izana, deskribatzeko. Berak bakarrik kontatu digu Mariak Elisabeti egindako «bisita». Zakariasek, bere gorespen-kantuan —«Benedictus»—, «bisitatzat» eman du Jainkoaren etorrera: «Gure Jainkoaren barru errukitsuari esker, goiz-argiak bisitatuko gaitu zeru goitik». Naimgo alargunaren semea piztu ondoren, herriaren harridura eta miresmena deskribatu ditu Lukasek, haren ahoan hitz hauek ipiniz: «Jainkoak bere herria

Abendualdiko 4. astea.

Eguberri-bezpera.

Jesusen arbasoak: Adam, Abraham, Jakob. David...

bisitatu du». «Bisitak» Jainkoaren hurbiltze salbagarria adierazten du, gure premiei eta gurariei kasu egiteko errukitsu eta zerbitzari etorri delarik. Jainkoa bere buruaz ahaztu egin da, guganantz irten da eta, «bisitatuz», gidatu eta onartu egiten gaitu.

\*\*\*

### Kristogan guztiok onartu gaitu Jainkoak

«Kristogan, adiskidetu egin da Jainkoa gizadiarekin. Kristogan guztiok onartu gaitu eta bere bizia eman digu. Alde honetatik, berradiskidetze hau, Ebanjelioan, ez da alde bat gehiago beste hainbaten artean, baizik eta bihotza edo muina bera da. Jainkoaren eta gizakia-  
ren artean konfiantza berrezartzea da, eta konfiantza honek eraldatu egin ditu gizon-emakumeen arteko harremanak» (*Anaia Alois. Taizé-ko Priorea*).

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).

Gauerdiko Meza (*ikus segidan Eguneko Meza*).

Betleemeko Andre Maria.

§ Isaias Profetaren liburutik 9,1-6.

Ilunpean zebilen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak. Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozik dabilta zure aurrean, uzta biltzean izaten den pozez, harra-pakinak banatzean izaten den atseginez.

Apurtu baituzu lepoan zeramaten uztarri astuna, zapaltzailearen aginte-makila, Madiango gudarostea apurtu zenuen bezalaxe.

Suak erreko ditu eta erraustuko lurra danbadaka zapaltzen zuten gudari-botak eta odolez zikinduriko jantziak.

Haurra jaio zaigu, semea eman zaigu; hari eman zaio aginpidea, eta haren izena Kontseilari harrigarri, Jainko indartsu, Aita betiko, Errege bake-emaile. Handia izango da haren aginpidea, amairik gabeko bakea Daviden tronuan eta haren erreinuan; sendo egingo da eta zuzenbidean eta justizian oinarrituko, gaurdanik eta betidaino.

Jaun ahalguztidunaren maiteminak egingo du hau.

[Sal 96 [95]: Salbatzailea jaio zaigu gaur: Mesias, Jauna.]

§ San Paulok Titori gutunetik 2,11-14.

Anaia maitea: Agertu da Jainkoaren onginahia, gizon-emakume guztien salbamenerako. Salbamen honek Jainkorik gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten irakasten digu, eta neurritz, zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen, gure itxaropen zorientzua noiz beteko zain, Jesu Kristo Jainko handia eta gure salbatzailea aintzaz beterik noiz agertuko zain. Hark bere burua eman zuen gugatik, gu gaiztakeria guztietatik askatu eta garbi egiteko, haren herri berezi izan gaitezen, on egin zale.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).  
Gauerdiko Meza (*ikus segidan Eguneko Meza*).  
Betleemeko Andre Maria.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,1-14.

Egun haietan, mundu guztiaren errolda egiteko agindua atera zuen Augusto enperadoreak. Lehenengo errolda hau Siriako gobernadore Kirino zela egin zen. Beraz, erroldatzera joan ziren denak, nor bere herrira.

Jose ere, Daviden etxekoa eta jatorrikoa izanik, Galileako Nazaret herritik Judeara igo zen, Betleem deritzan Daviden herrira, bere emazte Mariarekin erroldatzera. Maria haurdun zegoen. Betleemen zeudela, haurra izateko egunak bete zitzaizkion, eta bere lehen-sema izan zuen. Oihaletan bildu eta askan etzan zuen, ez baitzen ostatuan haiantzako lekurik.

Baziren inguru hartan artzain batzuk, gauez beren artaldea txandakazaintzen. Honetan Jaunaren aingerua agertu zitzaion, eta Jaunaren aintzak argiz inguratu zituen; haiek, beldurrak jota gelditu ziren. Aingeruak, ordea, esan zien: «Ez beldur izan! Begira, poz handia sortuko duen berri ona iragartzen dizuet, herri guztiarentzat izango dena: Salbatzailea, hau da, Mesias Jauna jaio zaizue gaur Daviden herrian. Eta hau izango duzue seinale: haur bat aurkituko duzue, oihaletan bildua eta askan etzana». Eta bat-batean zerutar talde handia bildu zitzaion aingeruari, Jainkoa goستن zuela, esanez: «Aintza zeruetan Jainkoari, eta bakea lurrean haren gogoko gizon-emakumeei».

**G**au erdian argiak distira egin zuen. Haur jaioberria da ilun guztiak hutsarazi dituena. Aingeruaren mezuaren hartzailak ez dira, ez agintari politikoak, ez erlijiosoak, baizik eta artzain nomada batzuk, nekazariak baino klase beheragokotzat emanak diren horiek. Horiek dira jende xumea, behartsuak, «txikiak», zeinez hainbeste hitz egin baitzuen Jesusek berak geroago jendaurreko bere ministerioan, eta zeinak baitzituen bere kutunak. Aingeruak azpimarratu du, ezaugarri txundigarritz, nola behar den aitortu jaioberri hori dela Salbatzailea, Mesias, Jauna; hona zein diren seinaleak: haurra, oihalak, ganbela. «Joan gaitezen Betleemera!», artzainek elkarri esan bezala. «Ikustera» joan

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).  
Eguneko Meza.  
Betleemeko Andre Maria.

beharra dugu, geure bihotzeko begiez ikustera, zeren eta nork geure begiez kontenplazten ez badugu, artzainek egin zuten bezala —«Jainko txikiagoa adoratu baitzuten batere eskandalizatu gabe—, ez dugu sinetsiko. Pertsona hobe bihurturik itzuliko gara handik, Jainkoaganako fedea sendoturik, gogotsu, ez gainerakoei erregaluak eta dohaintzak egiteko bakarrik, baita geure bizitza bera gainerakoentzat dohain bihurtzeko ere —Haur harena izan zen bezala—, eta sen berezi batekin Jauna adortzeko gaur egun lo egiten duen ganbeletan.

\*\*\*

### EGUBERRI EGUNEKO MEZA

#### § Isaias Profetaren liburutik 52,7-10.

Bai ederrak direla mendi gainetan albistariaren oinak!

Bakea iragartzen du, zorionaren berri ona ematen eta salbamena iragartzen!

Sioni diotso: «Zure Jainkoa errege da!» Entzun zeure zaintzaileen oihua! Oihuka ari dira, poz-irrintzika, guztiak batera, beren begiz ikusten baitute Jauna Sionera itzultzen.

Ekin poz-oihuka guztiok batera, Jerusalemgo horma eroriok, Jaunak bere herria kontsolatu baitu eta askatu du Jerusalem. Herri guztien aurrean erakutsi du Jaunak bere beso santuaren indarra, eta munduko bazter guztiak ikusiko dute gure Jainkoaren salbamena.

[Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garai-pena.]

#### § Hebrearrei gutunetik 1,1-6.

Askotan eta era askotara hitz egin zien antzina Jainkoak profeten bidez gure arbasoei; azkenak diren egun hauetan, berriz, bere Semea-

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).  
Eguneko Meza.  
Betleemeko Andre Maria.

ren bidez hitz egin digu. Seme hau egin zuen gauza guztien oinordeko, egin ere honen bidez egin baitzuen mundua.

Seme hau da Jainkoaren aintzaren distira eta Jainkoaren izatearen irudia. Honek eusten die gauza guztiari bere hitz indartsuaz. Eta, bekatuena garbikuntza egin ondoren, Jainko handiaren eskuinaldean eseri zen zeru-goienetan, aingeruak baino gorago jarria, ondareztat jaso zuen izena ere haiena baino goragokoa denez gero.

Izan ere, zein aingeruri esan dio inoiz:

«Nire Seme zara Zu;  
Nik zaitut gaur sortu?»  
Eta beste behin: «Aita izango nau hark Ni  
eta Seme izango dut Nik hura?»

Eta berriro, Lehen-semea munduan sarraraztean, hau dio:

«Gurtu bezate hura Jainkoaren aingeru guztiak».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,1-18.

Hasieran bazen Hitza,  
eta Hitza Jainkoarekin zen,  
eta Jainko zen Hitza.  
Hitza hasieran Jainkoarekin zen.  
Gauza guztiak haren bidez eginak dira,  
eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin.  
Hitzagan zen bizia,  
eta bizia gizakien argia zen;  
argiak ilunpean argi egiten du,  
baina ilunpeak ez zuen onartu.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiak

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).  
Eguneko Meza.  
Betleemeko Andre Maria.

sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.

Hitza zen egiazko argia,  
mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituen.  
Munduan zegoen  
eta, mundua haren bidez egina den arren,  
munduak ez zuen ezagutu.  
Bereengana etorri zen,  
eta bereek ez zuten onartu.  
Onartu zuten guztiei, berriz,  
haren izenean sinesten dutenei, alegia,  
Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien.  
Hauek ez dira giza odoletik sortu,  
ezta giza nahieratik ere,  
Jainkoagandik baizik.  
Eta Hitza haragi egin zen,  
eta gure artean jarri zuen bizilekua,  
eta ikusi dugu haren aintza,  
Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren  
Seme bakarrari dagokion aintza.  
Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik  
esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da,  
ni baino lehenagokoa baitzen”».

Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.



Jaunaren Jaiotza (Eguberri).  
Eguneko Meza.  
Betleemeko Andre Maria.

**B**adira bi une laugarren ebanjelioan, zeinetan Jesusen aintzaz hitz egiten baitigu. Hitzaurrean esan digu: «Eta Hitza haragi (gizon) egin zen eta gure artean jarri zuen bizilekua, eta ikusi dugu haren aintza». Kristoren haragi den etxola berri horretan ikusiko dugu hemendik aurrera Hitzaren aintza hori. Hitza, hau da, Jainkoa, «sarx» (gizatasunaren alde ahula, haragiaren hauskortasuna eta hilkortasuna, adierazten dituen grekozko hitza) bilakatu da. «Sarx» egin da gurekin egon ahal izateko, gure lagun izan eta gure artean bizitzeko, gure duda-mudetan, sufrimenduetan eta esperantzetan partaide izateko. Bigarren unea Gurutzean josi dutenekoa da. «Iritsi da ni aintzatua izateko ordua», esan zuen Jesusék agur-afarikoan. Gurutziltzatze hori da Jesusen aintzatzea. Hor distiratu eta azaldu da beraren aintza hori beraren buru-eskaintzan datzala, beraren azkenerainoko maitasun solidarioan. Bi beherapen-une dira, bi huste-une, gugatik. Jainkoak, Jesusengan, ahul denagana hurbiltzean ipini du bere aintza. Txikiagotu egin nahi izan du, gure zoria maitetsuki partekatzeko. Bagenuke zer ikasirik keinu hauetan. Gutxienez, galdera egin beharko genioke geure buruari, non eta zertan ipintzen ditugu geure aintza-gogoak.

## GABONZORIONTSUAK

Gure Erriaren erdian gaitzela, bake orenen gorde gaitzala fedean alai eta maitasunean



bakegille izan iturri den Jaunak sendo,ixaropenean egingor.

San Esteban, lehen Kristan-martiria.

Santa Bizenta Lopez Bikuña (Kaskante [Nafarroa] 1847–Madrid 1890), *fundatzailea (Maria Sortez Garbiaren Erlijosak)*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 6,8-10; 7,54-60.

Egun haietan, Estebanek, graziaz eta indarrez beterik, mirari eta ezaugarri handiak egiten zituen herrian.

Hartan, zirenear eta alexandriarrez osatua zegoen eta «Askatuena» zeritzan sinagogako batzuk, ziliziar eta asiar batzuekin batera, eztabaidan hasi ziren Estebanekin. Baina ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari.

Estebanen hitzak entzutean, barrua lehertzen jarri zitzaien amorruz eta hortzak karraska haren kontra. Baina hark, Espiritu Santuaz beterik, zerura begiratu eta Jainkoaren aintza ikusi zuen, eta Jesus zutik Jainkoaren eskuinaldean. Eta esan zuen: «Horra, zerua zabalik ikusten dut eta Gizonaren Semea zutik Jainkoaren eskuinaldean».

Orduan, haiek, garrasika, belarriak itxi zituzten eta denak batean gainera oldartu zitzaizkion; hiritik atera zuten eta harrika hasi zitzaizkion. Saulo zeritzan gazte baten oinetan utzi zituzten testiguen beren jantziak. Harrika ari zitzaizkion bitartean, Estebanek honela egiten zuen otoitz: «Jesus Jauna, hartazu nire bizia».

Gero, belauniko jarrita, ahots handiz esan zuen: «Jauna, ez leporatu horiei bekatu hau». Eta, hau esanik, hil egin zen.

[Sal 31 [30]: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure bizia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,17-22.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Kontuz jendearekin! Auzitegietara eramango zaituztete eta sinagogetan zigorkatuko; agintarien eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Eramaten zaituztetenean, ez egin zer eta nola esango duzuen kezkatan: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatzeko, zuen Aitaren Espiritua mintzatzeko da zuen bidez.

San Esteban, lehen Kristan-martiria.

Santa Bizenta Lopez Bikuña (Kaskante [Nafarroa] 1847 – Madrid 1890), *fundatzailea (Maria Sortzez Garbiaren Erlijosak)*.

---

Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua».

**L**oiolako San Ignaziok, Gogo Jardunak liburuan [116], Jauna kontenplatzera gonbidatu gaitu: nola jaio den «pobretasunik handiengan, eta nola, hainbat eta hainbat lan, gose, egarri, hotz, irain eta laido jasan ondoren, gurutzean hil den, eta den-dena nigatik». Ganbelan sumatzen da jada, beraz, gurutzearen errainua. Haragi egindako Jainkoaren buru-eskaintzak gurutzeko baldintzarik gabeko eskaintzan jo du gailurra. Estebanek, lehen kristau-martiriak, sinetsi zuen «nigatik» hori eta bere bizia eman zuen Jesusen buru-eskaintzaren maitasun-erantzuntzat; horrenbestez, argi gogorazi digu, Betleemgo haurrari egiten ahal diogun erregalurik hoberena ez dela, ez errege-opila, ez Magoen urrea, baiziki eta nork bere burua eskaintzea.

## FAMILIA SANTUA (B urtea)

San Joan apostolua eta ebanjelaria.

## § Ben Sirak 3, 3-7. 14-16. 17b (gr.2-6.12-14).

Jaunak seme-alaben gainetik ohoratzen du aita, eta amaren aginpi-dea ezartzen bere umeen gain.

Aita ohoratzen duenak bere bekatuak ezabatzen ditu, eta ama go-resten duenak ondasunak pilatzen.

Aita ohoratzen duenak poza izango du bere seme-alabengan, eta otoitz-egunean entzun egingo dio Jaunak.

Aita ohoratzen duena luzaro biziko da, eta Jaunari obeditzen di-nak atsegin ematen dio amari.

Ene seme, zaindu aita zahartzaroan eta ez eman nahigaberik bizi den artean; burua galtzen hasten bada ere, izan barkabera eta ez gu-txietsi bizi den bitartean; aitari emandako laguntza ez da ahaztuko, bekatuen ordain izango duzu. Atsekabealdian gogoan izango zaitu Jaunak.

[Sal 128 [127]: Zorionekoa Jaunari begirune diona, eta haren bideetan dabilena!]

## § San Paulok Kolosarrei 3,12-21.

Senideok: Jantzi zaitetze bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, otzantasunez, eroapenez, Jainkoaren herri aukeratua, santua eta maitea zaretenez gero. Eramazue ondo elkar eta barkatu batak beste-ari, inork inoren aurka ezer balu. Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri. Eta horien guztien gainetik, izan maitasuna, hori baita elkartasun betearen lokarria. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzean, bake horretara deituak zaretenez gero gorputz batean, eta izan esker oneko.

Bizi bedi oparo zuengan Kristoren hitza; irakatsi eta aholkatu jakinduria osoz; kantatu Jainkoari bihotzez eta esker onez salmoak, gozarreak eta kantu inspiratuak. Edozer esaten nahiz egiten duzuela,

egizue dena Jesu Kristo Jaunaren izenean, haren bidez Jainko Aitari eskerrak emanaz.

Emazteok, zaudete zeuen senarren mende, Jaunaren jarraitzaileei dagokien bezala. Senarrok, maita itzazue zeuen emazteak, eta ez izan gogor haiekin. Seme-alabok, egin zeuen gurasoen esana gauza guztietan, hori nahi baitu Jaunak. Gurasook, ez sumindu zeuen seme-alabak, gogogabetu ez daitezten.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 22-40.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko ueña iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemera eramán zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen-seme guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume».

Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen.

Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eramán zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedein-katu zuen, esanez:

«Orain utz dezakezu, Jauna,  
zeure morroi hau bakean hiltzen,  
Zeuk hitzeman bezala.  
Ikusi dute nire begiok zugandiko salbamena,  
herri guztien aurrean Zuk aurkeztua:  
nazioak argitzeko argia  
eta zure herri Israelen ospea».

## FAMILIA SANTUA (B urtea)

*San Joan apostolua eta ebanjelaria.*

Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian geldi daitezten. Eta zuri ezpata batek alde alde zulatuko dizu arima».

Bazen profetesatua bat ere, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen lau-rogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzen. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa gores-ten eta haurraz mintzatzen hasi zitzairen Jerusalem askatasunaren zain zeuden guztiei.

Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriaz betetzen ari zen eta Jainkoaren gra-zia berekin zuen.

**E**banjelioek ez dute jotzen «puztutako miresgarritasunera», ezta gozokeria idilikora ere, –ebanjelio apokrifoez egin izan duten bezala– Nazaretoko Jesusen familia deskribatzeko; ez diete izkina egiten fami-lia hark bizi behar izan dituen estutasunei, behartutako bidaiei, ihes egin beharrari, erbestera jotzeari, berriro hasteari, bihotzean sartzen den «ezpatari... ere; azken batean, edozein familiatan gertatu ohi di-renei. Jakina, familia hura gurea ez den bezalako kultur eremu batean bizi izan zen. Baina bazen hartan «Nazaretoko sen edo espiritu bat», geure egiten ahal duguna, mimetismorik gabe, geure hemen eta orain hauetan. «Sen» hori ondo deskribatua du Paulo santuak, kristau-familiak lur hartuko badu behar dituen funtsezko osagaiak deskribatu dituenen: erruki bihozkoia, onberatasuna, apaltasuna, samurtasuna, ulermena, barkazioa eta, ororen gainetik, maitasuna, honek gauzatzen baitu elkartasun estu bat familiako kide guztien artean.

FAMILIA SANTUA (Burtea)

San Joan apostolua eta ebanjelaria.

Horixe da kristau-familiek gaur egun beren aurrean duten erronka. Familia-egituran aldaketa sakonak egin badira ere –eta egiten jarraitzen badute ere–, kristau-guraso eta seme-alaben eginkizun da ezaugarri galezin horiek fedetik bizitzea. Kristau-familia bizitzeko «Nazareteko sen edo espiritu» hori gaur egungo era berriei aplikatzea da kontua.

\*\*\*



**Egun batean etorri zen gizon bat:** magia zuen ahotsean, karra hitzean, sorginkeria mezuan.

**Egun batean etorri zen gizon bat:** poza zuen begietan, askatasuna eskuetan, sua egintzetan.

**Egun batean etorri zen gizon bat:** esperantza zuen keinuetan, indarra bere baitan, handitasuna bihotzean.

**Egun batean etorri zen gizon bat:** maitasuna zuen seinaleetan, ontasuna bere laztanetan, haurridetasuna sorbaldan.

**Egun batean etorri zen gizon bat:** Espiritua zuen gainean, zoriona bere sufrimenean, zentzutasuna bere heriotzan.

**Egun batean etorri zen gizon bat:** zerua zuen bere altxor, gurutzea bere bizi, piztuera bere fede.

**Egun batean etorri zinen Zu...**

Zatoz, Jesus Jauna, zatoz orain ere. (*Alois Albrecht*)

Haurtxo Errugabe Santuak, *martiriak*.

§ San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 1,5–2,2.

Senide maiteok: Hona hemen Jesu Kristogandik entzuna dugun mezua eta zuei iragartzen dizueguna: Jainkoa argia da eta harengan ez da inolako ilunik. Harekin elkartasunean bizi garela esan eta ilunpean baldin bagabiltza, gezurra diogu eta ez gara egiaren arabera ari. Baina argian bagabiltza, elkartasuna dugu batak bestearekin eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztiatik garbitzen gaitu.

Bekaturik ez dugula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago gure baitan. Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak barkatuko dizkigu bekatuak eta gaiztakeria guztiatik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurti egiten dugu bera, eta haren mezua ez dago gugan.

Ene seme-alabok, bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzaila Aitaren aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztiokoen barkamenerako ere.

[Sal 124 [123]: Txoria ehiztarien saretik bezala gara libratu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,13-18.

Magoek alde egitean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri eta esan zion:

«Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz ihesi Egiptora, eta egon han nik esan arte, Herodes erregea haurra hil nahian ibiliko baita».

Jaiki zen, beraz, Jose, hartu zituen haurra eta ama gauez eta Egiptora joan zen. Han egon zen Herodes hil arte. Horrela bete zen Jaunak profetaren bidez esandakoa: «Egiptotik etortzeko dei egin nion neure semeari».

Orduan, Herodes erregea, Magoek engainatu egin zutela oharturik, biziki haserretu zen, eta Betleemen eta inguruetan bi urtez azpiko



Haurtxo Errugabe Santuak, *martiriak*.

---

haur guztiak hiltzeko agindu zuen, Magoek adierazitako denbora kontuan harturik. Honela bete zen Jeremias profetak esana:

«Oihua entzun da Raman, negar eta aiene ugari: Rakel ari da, bere haurrengatik negarrez; ez du kotsolatu nahi, ez baitira bizi».

«**B**oteretsu» baten, Augusto enperadore erromatarraren, gogoak, bere inperioa neurtzekoak, biztanle-errolda antolatuz, bidaiaria nekoso bat egitera behartu du familia behartsu bat astinaldi ederra emanez; eta, erditzeko ordua iritsi zenean, «ez zuten topatu lekurik ostatuan». Beste «boteretsu» baten inbidiak eta bere boterea galtzeko beldurrak –«Herodes asaldatu zen» eta «haserre bizian jarri»– zalapartaka ihesari ematera behartuko ditu Maria, Jose eta haurra, Egiptora bidean. Har dezagun familia hau ihesi doazen –gauetz, pobretasunetik, gosetik, gerrate eta pertsekuziotik– beste hainbat eta hainbat familiaren ikonoztat. Horren guztiaren atzean, beste behin «boteretsuak» daude. Eszena hauek egunero kolpatzen gaituzte telebistaren pantailatik. Hainbat jende errugaberen irudi hauek ezin utzi gaituzte lasai.

Eguberri ondoko 5. eguna.

Tomas Becket santua, *gotzaina eta martiria*.

San David, *erregea*.

---

[San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik 2, 3-11: Senidea maite duena argian dago. Sal 96 [95]: Poztu bedi zerua, alaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 22-35.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemara eramán zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen-se-me guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume».

Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen.

Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eramán zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez:

«Orain utz dezakezu, Jauna,  
zeure morroi hau bakean hiltzen,  
Zeuk hitzeman bezala.

Ikusi dute nire begiok zугandiko salbamena, herri guztien aurrean  
Zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea».

Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu egin zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian geldí daitezén. Eta zuri ezpata batek alde zuri zulatuko dizu arima».

Eguberri ondoko 5. eguna.

Tomas Becket santua, *gotzaina eta martiria*.

San David, *erregea*.

---

**S**imeonek eta Anak, Espirituak gidaturik, sentiberatasun fina dute gauza berrietan Jainkoa sumatzeko: «denboraz kanpoko» batengan sumatu dute, haurtxo batengan. Elizak, eguna bukatzean, Arratseko otoitzaldian, Simeonek jaulki zuen gorazarrea gogorazten digu: «Orain bai, Jauna, zeuk hitzeman bezala, utz diezaiokezu zeure morroi honi bakean hiltzen! Ikusi dute-eta nire begiok gure Salbatzailea»; eta hone-tarako digu gogorazten hori Elizak: bizi izan dugun egunari begiratu bat eman diezaiogun, atsedetera joan aurretik: adi egon ote garen eta ikusi ote dugun Salbatzailearen igaroa egunean barna. Simeonek era-kuts diezagula egiaz bizitzen eta sumatzen, ezabaezineko esperantzaz, Jainkoa Emanuel dela eta, eguna joan eguna etorri, gurekin egon ohi dela; horrela antzeman ahal izango diogu geure eguneroko bizitzan.

Eguberri ondoko 6. eguna.  
San Felix 1.a, 26. *aita santua*.

[San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 2,12-17: Jainkoaren nahia egiten duenak betiko irauten du. Sal 96 [95]: Poztu bedi zerua, alaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,36-40.

Aldi hartan, bazen profetesa bat Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzan. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa goresten eta haurraz mintzatzan hasi zitzairen Jerusalemen askatasunaren zain zeuden guztiei.

Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriak betetzen ari zen eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

**B**i alditaraino esan du Lukasek: «Jesus beraiekin (Jose eta Mariarekin) Nazaretera jaitsi eta... Jesus haziz zihoan, bai jakinduriak Jainkoaren eta gizon-emakumeen aurrean» (Lk 2, 51-52; 2, 40). Hortik aurrera, isiltasun egin da dena. Presako begiek lasterka egingo dute jauzi, mirarien eta parabolaren bila. Fedea, ordea, geldialdi bat egitera eragiten digu, gurtzapen-jarreraz, isiltasun honi erreparatuz. Nazareteko isiltasunak agertzen digu ezen: 1) Jainkoak benetan hartu duela aintzat gizadia, bizitzaren aro bakoitzetik bera ere igaroz, bizitza ohi-turazkoaren eta arruntaren barneraino joanez; 2) eguneroko errerealitateak bide ematen duela Jainkoarekin topo egiteko gune bat izatea; ez dagoela zertan irten errerealitate horretatik, baizik eta bera bizitzea dela kontua, haziz joanez Jainkoaren eta gizon-emakumeen aurrean.

Eguberri ondoko 7. eguna.  
San Silvestre I.a, *aita santua*.  
Santa Columba, *birjina eta martiria*.

[1 Joan 2,18-21: Zuek Jainkoagandik datorren Espiritu Santua duzue eta guztiok ezagutzen duzue egia. Sal 96 [95]: Poztu bedi zerua, alaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,1-18.

Hasieran bazen Hitza, eta Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza.

Hitza hasieran Jainkoarekin zen. Gauza guztiak haren bidez eginak dira, eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin.

Hitzagan zen bizia, eta bizia gizakien argia zen; argiak ilunpean argi egiten du, baina ilunpeak ez zuen onartu.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiak sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.

Hitza zen egiazko argia, mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituen. Munduan zegoen eta, mundua haren bidez egina den arren, munduak ez zuen ezagutu.

Bereengana etorri zen, eta bereek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiak, berriz, haren izenean sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien.

Hauek ez dira giza odoletik sortu, ezta giza nahieratik ere, Jainkoagandik baizik.

Eta Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua, eta ikusi dugu haren aintza, Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza.

Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”».

Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, be-

Eguberri ondoko 7. eguna.  
San Silvestre I.a, *aita santua*.  
Santa Columba, *birjina eta martiria*.

---


rriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitarean altzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

**H**itza da egiazko *argia*, baina jendeak uko egin diezaioke —«Etorri zen bere etxera eta bereek ez zuten onartu»—. Urtearen azken egun honetan gauza egokia izango da joan den urte honi begiratu bat ematea, eta galdetzea, ea Jesus izan ote dudan «argi-kriseilua neure urratsentzat» ala ea hilabete iragan hauetan nahiago izan dudan, batzuetan, argi horretatik urrun bizi, nire desbideratzeak mozorrotzen zituen gogozko ilunean. Baldin eta Hitza nire bizitzaren distira izan bada, emazkiotan eskerrak. Horrela izan ez bada, jo dezadan beraren barkamen-eskaintzara, jakinik, barkazioak berekin duela beti esperantza, urte berrian beteko dela nigan Pauloren desira hau: «garai batean ilunpean bizi bazineten, orain, aldiz, argian bizi zarete, Jaunarekin bat eginik» (Ef 5, 8-14).



**OTOITZAK  
ETA DEBOZIOAK**





# Otoitzak

## EGUNERO

### GURUTZE SANTUAREN

† Gurutze santuaren seinaleagatik,  
gure etsaiengandik  
zaindu gaitzazu, Jauna, gure Jainkoa.  
Aitaren, eta Semearen  
eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

### GURE AITA

Gure Aita, zeruetan zarena:  
santu izan bedi zure izena,  
etor bedi zure erreinua,  
egin bedi zure nahia,  
zeruan bezala lurrean ere.  
Emaguzu gaur  
egun honetako ogia;  
barkatu gure zorrak,  
guk ere geure zordunei  
barkatzen diegunez gero;  
ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen,  
baina atera gaitzazu gaitzetik.

### AGUR MARIA

Agur, Maria, graziaz betea:  
Jauna da zurekin:

bedeinkatua zara zu  
andre guztien artean,  
eta bedeinkatua da  
zure sabeleko fruitua Jesus.  
Santa Maria,  
Jaungoikoaren ama,  
erregutu ezazu  
gu bekatarion alde  
orain eta  
gure heriotzako orduan. Amen.

### AINTZA AITARI

- Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari.
- Hasieran zen bezala, orain eta beti,  
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

### ANGELUS (goizean, eguerdian eta arratsean)

- Jaunaren aingeruak Mariari adierazi zion.
- Eta Espiritu Santuaren egitez sortu zuen.  
Agur, Maria, graziaz betea...
- Hona hemen ni, Jaunaren mirabea.
- Gerta bekit zuk diozun bezala.  
Agur, Maria, graziaz betea...
- Eta Jainkoren Semea gizon egin zen.
- Eta gure artean bizi izan zen.  
Agur, Maria, graziaz betea...
- Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santu horrek.
- Jesu Kristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun.

**Egin dezagun otoitz:** Isur ezazu, Jauna, gure bihotzean zeure grazia, eta, aingeruak esanik, zure Seme Jesu Kristo gizon dela jakin dugunok, egizu, haren nekaldi eta gurutzearen bidez eta Andre Mariaren otoitzari esker, irits gaitzela piztueraren ospera.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

### REGINA COELI (Zeruko erregina) (Pazkoaldian)

- Zeruko erregina, poztu zaitez, aleluia.
  - Sabelean ekarri zenuena, aleluia.
  - Piztu baita berak esan bezala, aleluia.
  - Otoitz Jainkoari gure alde, aleluia.
- Egizu pozaz gainez, Andre Maria, aleluia.
  - Jauna egiaz piztu baita, aleluia.

**Egin dezagun otoitz:** Jesu Kristo gure Jauna, zeure Semea, piztuz, mundua pozez bete duzun Jainkoa; egizu, arren, Andre Maria haren eta gure Amaren otoitzari esker, irits gaitzela betiko pozak gozatzerara. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

## GOIZEAN

### ESKERRAK EGUNSENTIAGATIK

(Lazkao-Txikirekin bat eginez)

#### Egunsetiari

Goizian goiztar jeikitzen banaiz  
kanporatutzen naiz beti...  
ikusten zaitut zabaltzen goruntz

eguzkiaren aldeti,  
eguzkiaren argitasuna  
ortxen dator sortaldeti,  
eunan aurtzaro besteik etzera (eunan=egunaren)  
biotzeko egunsenti.

Urre antzeko argi polit bat  
erdi zurizko urdina  
gure Jainkuak mirari antzo  
zeru goitikan egina;  
bear genduke sendotasun bat  
eta sinistapen fiña,  
zer mirari den egunsentiaz  
konturatuko bagiña.

Loa uxatu det oetik eta  
eguzkiak or dio su...  
inpernuaren antz berbera zuk  
alde batera daukazu;  
baiñan eguna, gazte zera ta  
zure eskuan naukazu,  
milla zorion egun osoan  
arnas ematen baidazu.

## MAHAIA BEDEINKATZEA

### OTORDU AURRETIK

Janak on dagigula,  
edanak gaitzik ez,  
gorputzak osasuna,

arimak kalterik ez.  
Jesu Kristo  
gure Jaunaren bitartez. Amen.

## ARRATSEAN

### ESKERRAK EGUNA BUKATZEAN

Eskerrak, Jauna, / eguna bukatzean / zuri eskertzeko aukera dugulako,  
/ zure heriotzaren merezimenduak / eta Eukaristiako ogia / alaitasun  
betean / eta zurekiko elkartasunean bizi izan ditugulako; / fedea, mai-  
tasuna, esperantza / eta gure loa, / gorespen apal bihurtzeko, / zure  
graziaren ontasun hau / bizi izan dugulako.

## ESPIRITU SANTUARI

### VENI SANCTE SPIRITUS

(Mendekosteko sekuentzia)  
(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz, bai, Gogo Guren eta bidal zerutik zure argi izpia.  
Zatoz, gaixoen Aita; zatoz, dohain emaile; zatoz, bihotzen argi.  
Poz-emaile bikain, etxelagun atsegin, sargorian haize fin.  
Lan artean atsedean, nekean aringarri, malcoetan pozgarri.  
Zure laguntza gabe ez du pertsonak ezer, ez du ezer on denik.  
Garbi, zikin dagona; busti, lehor dagoena; zauriak oro senda.  
Zurrun dena bigundu; makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.  
Zugan usteon duten zintzoei isuri zazpi dohain zerutik.  
Zintzo saria eman, osasun hil artean, poza betieran.  
Amen.

Veni Creator Spiritus  
Zatoz Zintzoen Barnera  
(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz zintzoen barnera,  
Gogo Guren sortarazle;  
bete graziaz bihotz hauek, zu baitzaituzte egile.  
Poz-emaile deritzozu,  
Goiko Jaunaren dohain, ur bizi, su, maitasun, eta gantzu zerukoia.  
Zazpi dohainen isurle,  
Aitaren eskuin hatza, apostoluei hitzemana, haien ahoetan hitza.  
Argi iezaguzu zentzua, suaz sutu bihotza,  
indar horretaz sendatu argal daukagun gorputza.  
Haiza gugandik etsaia, eman berehala bakea,  
zu aurretik zaitugula, urrun iezaguzu kaltea.  
Erakuts iezaguzu Aita, harekin Semea ere;  
bien Arnasa duguna sinets dezagun beti ere.  
Aitari, eta hilengandik berpiztu zen Semeari eta Gogo Gurenari  
edertasun orain eta beti. Amen.

## EUKARISTIA

### BEDEINKATUA JAINKOA

(Eukaristia adoratzean)

Bedeinkatua Jainkoa.  
Bedeinkatua haren izen santua.  
Bedeinkatua Jesu Kristo, egiazko Jainkoa eta egiazko gizona.  
Bedeinkatua Jesusen izena.  
Bedeinkatua haren bihotz txit santua.  
Bedeinkatua haren odol txit baliotsua.

Bedeinkatua Jesus aldareko sakramentu santuan.  
Bedeinkatua Espiritu Santu kontsolatzailea.  
Bedeinkatua Jainkoaren Ama, Maria txit santua.  
Bedeinkatua Mariaren sortze santu eta garbia.  
Bedeinkatua haren zeruratzte aintzatsua.  
Bedeinkatua Maria birjina eta amaren izena.  
Bedeinkatua San Jose, haren senar txit garbia.  
Bedeinkatua Jainkoa bere aingeru eta santuengan.

**Egin dezagun otoitz.**

Jesu Kristo gure Jauna,  
sakramentu miresgarri honetan  
zeure nekaldiaren oroitzapena utzi diguzu;  
arren erregutzen dizugu:  
beneratu ditzagula zure gorputz-odolen misterio santuak,  
zure salbamenaren fruituak geuregan etengabe sentitzeko moduan.  
Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.

**KOMUNIO ESPIRITUALA**

Sinesten dut, Jesus,  
presente zaudela aldareko sakramentu santuan.  
Maite zaitut gauza guztien gainetik,  
eta neure bihotzean hartu nahi zaitut.  
Baina, une honetan ezin dudalarik hori egin,  
zatoz espirituz nire bihotzera.  
Ez utzi niri, ene Jesus, zugandik sekula apartatzen.



## GURUTZE BIDEA

### HASIERA

V/. – Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.

R/. – Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.

V/. – **Egin dezagun otoitz.**

Jesu Kristo gure Jauna!

Gurutzea hartzera gonbidatu gaituzu,  
eta gure aurretik zoaz etsenplu emanaz;

emazkiguzu zeure argia eta grazia:

Gurutze-bide honetan zure urratsak gogoan hausnartzean,  
izan gaitzela gai eta izan dezagula gogo bizia zuri jarraitzeko.

Nazaretoko Andre Maria,

Doloretako Ama izan zinen;

inspiratu guri,

Jainko den zeure Semeari bide honetan atsekabez jarraitzean  
zeuk izan zenituen maitasun-sentimenduak.

R/. – Amen.

### GELDIALDIAK

1. Lehen geldialdia: Jesus hiltzera kondenatua.  
*(geldialdi bakoitzaren ondoren segidako hau errepikatzen da)*  
V/. – Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.  
R/. – Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.
2. Bigarren geldialdia: Jesus gurutzea daramala.
3. Hirugarren geldialdia: Jesus erori lehen aldiz.
4. Laugarren geldialdia: Jesusek Amarekin topo.
5. Bosgarren geldialdia: Zirenarrak Jesusi lagundu.
6. Seigarren geldialdia: Veronikak Jesusi aurpegia xukatu.
7. Zazpigarren geldialdia: Jesus erori bigarren aldiz.

8. Zortzigarren geldialdia: Jesus eta Jerusalemgo emakumeak.
9. Bederatzigarren geldialdia: Jesus erori hirugarren aldiz.
10. Hamargarren geldialdia: Jesus erantzi eta biluztu.
11. Hamaikagarren geldialdia: Jesus gurutzean josi.
12. Hamabigarren geldialdia: Jesus gurutzean hil.
13. Hamahirugarren geldialdia: Jesus gurutzetik jaitsi.
14. Hamalagarren geldialdia: Jesus hilobian.
15. Hamabosgarren geldialdia: Jesus berpiztu.

V/. – **Egin dezagun otoitz.**

Begiratu, Aita, begi onez zeure seme-alaba hauei;  
Jesu Kristo gure Jaunak ez zuen dudarik izan,  
gu guztiongatik gurutzeko heriotzara joateko;  
egizu:

haren nekaldiaz eta gurutzeaz gogoeta egin ondoren,  
parte har dezagula harekin batean haren Piztueraren aintzan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez eskatzen dizugu,  
Errege bizi baita zurekin gizaldiz gizaldi.

R/. – Amen.

## ANDRE MARIARI

### SALVEA

Agur, erregina, ama errukiorra, gure bizi, gozo eta itxaropena, agur!  
Zuri deiez gaude Evaren ume erbestetuok; zuri aiezka, antsiak eta ne-  
garrez negar-herri honetan.

Ea, bada, itzul itzazu gugana zeure begi errukitsu horiek, eta erbeste ho-  
nen ondoren erakuts iezaguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu hori.  
O bihozbera! O errukiorra!  
O Maria Birjina gozoa!

- Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santua.
- Jesu Kristo gure Jaunaren promesak iristeko gai izan gaitezen.

### ZURE BABESERA GATOZ

(Sub tuum praesidium)

Zure babesera gatoz ihesi, Jainkoaren Ama;  
gure otoitzei ez eman esker txarrik behar ordu estuan;  
arrisku guztietatik onez atera gaitzazu,  
Birjina eder eta bedeinkatua.

### AMA MARIA (zatitxoa)

Agur, Maria,  
gure sufrimendu guztien Ama.  
Zu zara gizaki gurutziltzatuaren oinean  
zutik dagoen andrea,  
zu zara errugabe zapalduaz  
eta preso torturatuaz  
negar dagiten guztien ama.

Agur, Maria,  
gure itxaropen guztien Ama.  
Zu zara izar distiratsua  
Jainkoagana doan  
herriarentzat,  
zu zara iragarpena  
gizadi antzaldatuarentzat,  
zu zara arrakasta  
Jainkoak betirako  
egin duen kreaizioarentzat.  
(M. Hubaut)

## ARROSARIO SANTUA

### POZEZKO MISTERIOAK

(astelehena eta larunbata)

1. Jainkoaren Semea gizon egina.
2. Andre Mariak bisita Elisabet lehengusinari.
3. Jainkoaren Semea jaio.
4. Jesus Haurra Tenpluan aurkeztu.
5. Jesus Haurra galdu eta Tenpluan aurkitu.

### DOLORETAKO MISTERIOAK

(asteartea eta ostirala)

1. Jesusen otoitza Getsemaniko baratzean.
2. Jesus zigortua.
3. Jesusen arantzazko koroia.
4. Jesus gurutzea lepoan duela.
5. Jauna gurutzean hil.

### AINTZAZKO MISTERIOAK

(asteazkena eta igandea)

1. Jesus Jauna piztu.
2. Jesus Jauna zerura igo.
3. Espiritu Santua jaitsi.
4. Andre Maria zeruratu.
5. Andre Maria koroatu.

### MISTERIO ARGITSUAK

(osteguna)

1. Jesus bataiatua Jordan ibaian.
2. Jesus agertu Kanako ezteietan.
3. Erreinua hots egin, bihotz-berritzeko deia eginez.

4. Jesus antzaldatu.
5. Jesusek Eukaristia eratu.

### OTOITZA (misterio bakoitzaren ondoren)

Andre Maria, graziazko Ama, errukizko Ama onbera, zaindu gu geure etsaietatik,  
eta babestu orain eta geure heriotzako orduan. Amen.

### ANDRE MARIAREN LETANIAK

Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.  
Kristo, erruki. Kristo, erruki.  
Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.  
Kristo, entzun guri. Kristo, entzun guri.  
Kristo, aditu guri. Kristo, aditu guri.  
Zeruko Aita Jainkoa. Erruki gutaz.  
Jainko Semea, munduaren Salbatzailea. Erruki gutaz.  
Jainko Espiritu Santua. Erruki gutaz.  
Hirutasun Santua, Jainko bakarra. Erruki gutaz.  
Andre Maria Santua. Otoitz gure alde.  
Jainkoaren Ama Santua. Otoitz gure alde.  
Kristoren Ama. Otoitz gure alde.  
Elizaren Ama. Otoitz gure alde.  
Ama txit garbia. Otoitz gure alde.  
Salbatzailearen Ama. Otoitz gure alde.  
Jainkoari eskaintzearen eredia. Otoitz gure alde.  
Elkartasun Berriaren Kutxa. Otoitz gure alde.  
Zerura jasotako erregina. Otoitz gure alde.  
Arrosario Santuaren erregina. Otoitz gure alde.  
Jesusen Lagundiaren erregina. Otoitz gure alde.  
Maria, fededun handia. Otoitz gure alde.

Maria, Hitzaren entzule fededuna. Otoitz gure alde.  
Maria, Jaunaren Hitzaren gordetzailea. Otoitz gure alde.  
Maria, Hitzaren hausnartzaile handia. Otoitz gure alde.  
Maria, Jesusen jarraitzaile leial eta iraunkorra. Otoitz gure alde.  
Jesusen mezuarekin bat egin duzun Maria. Otoitz gure alde.  
Maria, Jainkoaren herriko lagun alai. Otoitz gure alde.  
Maria, gizadi berriaren eredu. Otoitz gure alde.  
Maria, ama doloretakoa. Otoitz gure alde.  
Maria, esker onekoa. Otoitz gure alde.  
Maria, bisitari fina. Otoitz gure alde.  
Maria, eztei-lagun azia. Otoitz gure alde.

### JAINKOAREN BILDOTSA

- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
- Barkatu, Jauna.
- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
- Entzun, Jauna.
- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
- Erruki, Jauna.
- Otoitz egizu gure alde Jainkoaren Ama santu horrek.
- Jesu Kristo gure Jaunaren promesak eskuratu ditzagun.

### Egin dezagun otoitz.

Jainko Jauna, pozez bete zenuen mundua  
Jesu Kristo zeure Seme eta gure Jauna piztean;  
mesedez, haren eta gure Ama Maria Birjinaren otoitzari esker,  
libra gaitzazu mundu honetako tristuratik  
eta emaguzu zeruko poza.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

## LOIOLAKO IGNAZIO SANTUA

### INAZIO,

gure patroi handia, / Jesusen konpainia / fundatu eta dezu armatu, / ez da ez etsairik / jarriko zaizunik inolaz aurean / gaurko egunean, nahiz betor / Luzifer deabrua / utzirik infernua.

Zure soldaduak / dirade aingeruak, zure gidaria / da Jesus handia.

Garaitu ditu / zure konpainiak / etsaiak.

Ez dauka fedeak, / ez kristau nireak, ez dauka beldurrik / inongo aldetik.

Inazio hor dago, / beti ernai dago, armetan jarria / dauka konpainia, txispaz armaturik / bandera zabalik, gau ta egun / guk guztiok / bakea dezagun, beti gau eta egun.

### KRISTOREN ARIMA

(Ignazioren deboziokoa)

(anonimoa, XVI. mendea)

Kristoren arima, santu egin nazazu.

Kristoren gorputza, senda nazazu.

Kristoren odola, birbiztu nazazu.

Kristoren saihetseko ura, garbi nazazu.

Kristoren nekaldia, indartu nazazu.

Oi Jesus ona, entzun nazazu.

Zeure zaurietan gorde nazazu.

Zugandik alde egiten ez utzi niri.

Infernuko etsaiengandik libra nazazu.

Heriotzako orduan deitu nazazu,

eta joanarazi nazazu zugana,

zure santuekin batean

mendez mende gorets zaitzadan. Amen.

## GOGOETARAKO

### Baretasunaren Dekalogoia

(San Joan XXIII.a Aita Santuari egotzia)

1. Gaurkoagatik soilik, egun hau bakarrik bizitzen saiatuko naiz, neure bizitzako arazo guztia dena batean konpondu nahi gabe.
2. Gaurkoagatik soilik, neure itxuraz ardurarik handiena izango dut, adeitsu neure portaeran, ez dut inor kritikatu, ez dut inor hobetzeko edo zigortzeko asmorik biziko, neure burua baizik.
3. Gaurkoagatik soilik, zorionsu izango naiz zorionerako kreatua izan naizelako ziur, ez beste munduan bakarrik, baita oraingo honetan ere.
4. Gaurkoagatik soilik, datorkeenari egokituko natzaio, pentsatu ere gabe datorkeena behar zaiola egokitu nire gogoari.
5. Gaurkoagatik soilik, hamar minutu eskainiko dizkiot irakurgai on bati, gogoan izanik, janaria gorputzaren bizitzarako on den bezala, hala dela beharrezko irakurgai on bat arimaren bizitzarako.
6. Gaurkoagatik soilik, ekintza on bat egingo dut eta ez diot inori esango.
7. Gaurkoagatik soilik, ekintza on bat egingo dut, gutxienez, egin nahi ez nukeena, eta, neure sentimenduetan iraindurik sentituko banintz, saiatuko naiz inork jakin ez dezan.
8. Gaurkoagatik soilik, egitarau zehatz bat ezarriko diot neure buruari. Agian, ez dut zehatz-mehatz beteko, baina idatziko dut eta bi zoritxar saihestuko ditut: presa eta zalantza-malantza.
9. Gaurkoagatik soilik, sinetsiko dut, datorkeenak kontrakoa agertu arren, Jainkoak arreta handia duela nitaz arduratzeko, munduan beste inor bizi ez balitz bezala.
10. Gaurkoagatik soilik, ez dut beldurrik izango. Bereziki, ez naiz beldur izango eder denaz gozatzeko eta ontasunean sinesteko.



## Migratzaileak eta parekotasun-gabezia

**Mundu Negro** (aldizkaria): Zure amets handia?

**Serigne Mbaye** senegaldarra: Oso ekintzailea, aktibista, naiz. «Pape-rik gabekoen» Elkarteko kide naiz eta «Mantazaleen eta Latazaleen» sindikatuko kide. Neure ametsa mundu hobe bat lortzea dut, eskubi-deen parekotasuna biziko duena. Guztiok dugu eskubidea aske bizi-zeko eta aske bidaiatzeko. Espainola banaiz eta arratsalde honetan Senegalerako txartelik badago, aireportuan erosi eta hara joango naiz. Senegaldarra banaiz, berriz, eta Dakar-en banago eta Espainiarako txartelik ikusten badut, ezin egingo dut gauza bera. Neure anaia eta adiskide batekin kalera irteten banaiz eta poliziak alto ematen badi-  
gu, nire laguna komisariara eramango du. Zein da bion arteko aldea? Txartel bat: berari eragozten diona, nik bezalako eskubidez gozatzea. Parekotasun-gabezia hau ezereztu egin behar dugu. Neure bizia hori lortzera emana dut. Horrek nau zoriontsu egiten (*Mundo Negro 641 zenb., 2018ko iraila: Serigne Mbaye, senegaldarra da jatorriz; lortu ditu paperak Espainian; Jatetxe agro-ekologiko batean lan egiten du, kooperatiba batean*)

## Mundu osoaren bizikide

Jainko Aita eta Ama,  
«aldi guztietako gizon-emakumeen,  
batez ere behartsuen eta atsekabetuen,  
poza eta esperantza, tristura eta larria» (Gaudium et spes, 1)  
besarkatzera dei egin diguzu;  
lagundu iezaguzu,  
zure Semeak bere mundualdian  
bizi izan zituen biziera eta azken zoria  
gogoan izanik,  
egin dezagula geure zure dei hori

eta nabaritu dezala poz-pozik gugan jarrera hori  
inguruan dugun jende guztiak.  
Zure Seme Jesu Kristo gure bidelagunaren bidez. Amen.

### AMERIKAR V. KONGRESU MISIOLARIAREN TXOSTENA

(Periodista Digital 2018-09-09)

«Mingarri dugu Venezuela, mingarri dugu Nikaragua, mingarri Haiti, mingarri Hondurasko erailketak».

Eta bukatzeko: «Kongresuko adiskide preziatuok, Ameriketako Eliza gutzietako adiskide maiteok: Zorionekoak bakegileak, berauei esango baitzaie Jainkoaren seme-alaba. Otoitzak, barkatzeak eta adiskidetasunak gotortu egiten dute gure bokazioa, gogo oneko gizon-emakume gutzietan dagokienez, bakegile izatera iristeko. Adorez maitatu behar ditugu egia eta zuzentasuna, gizaki ororen eskubide baitira».

### Arduraren GURE AITA

- Aita ona, gure artean zarena. Zure presentzia sumatzen dugu, geure anai-arreben bitartez zaintzen gaituzunean.
- Aita errukitsua, arduratsu izatera gonbidatu gaituzu, geu ere, gehienik sufritzen dutenekin. Horrela nahi dugu testingantza egin sorkari guztiez duzun mugarik gabeko maitasunaz.
- Gure munduan, gizon-emakumeak tarteko direla, zu presente egin zaitezten nahi dugu: gizaki orori begira, kreazio osoari begira, anai-arreba artekotasunaren, duintasunaren eta zuzentasunaren mezua bizitzera konprometitzen diren gizon-emakumeak tarteko direla.
- Gizaki guztiez duzun borondatea betetzea dugu geure misioa bitzitan. Gainerakoengatik eginahalak eta bost egitea. Doan hartua doan ematea. Besteak zaintzea zuk zaintzen gaituzun bezala: triste dagoena ferekatuz, lurrean botata dagoena altxatuz, egurtu dutena

sendatuz, ahulenen alde borroka eginez, egiaren bakea ereinez. Arduraz biziz, xume.

Ogi eta samurtasun gose gara. Zuzenaren eta ederraren gose. Ezagutzaren eta isiltasunaren gose. Kontenplazio eta borroka gose. Zorion eta konpromiso gose. Partaidetza eta edertasun gose. Baretasun eta esperantza. Malko eta poz gose.

Ez gara izango guztiz zoriontsu, gainerako gizadi osoa zoriontsu izan arte, gizaki guztien duintasuna lortuko dugun arte, geure ama lurra ezti eta leun tratatuko dugun arte. Orduan sentituko zure barbazioa: gure bizitza hau, sortu dituzun izaki guztiekin haurridetasunaren testigu izango garenean.

Ez gaitzazu utzi erosotasunean planto eginez geldo gelditzen, ez utzi gu epel bihurtzen, ez utzi guri munduaz ahaztera jo dezagun. Ez dezagula itzali sekula geure barnean dugun garra, zure sutik bihotzean jo gintuen txinparta, zure maitasun-ardura gainerako guztiekin partekarzeko geure premia sutua

Gerta bedi horrela, bete bedi hori guztia gure bizitzan. Hauxe eskatzen dizugu, Jainko onbera eta errukitsua, zaindu gaitzazula zeure ardura samaurraz. (Miguel Ángel Mesa)

### OTOITZ EREDUA

Loiolako Ignazioren eskutik  
*Jesus jaioberria kontenplatu,  
jaiotze horretan  
beraren nekaldiaren arrastoa  
sumatuz,  
eta nork bere bizitzarako  
irakaspen eta erakuspen  
bihurtuz*

- [111] Lehen hitzaurrea istorioa da; eta hemen izango da nola atera ziren Nazaretetik Ama Birjina, ia bederatzi hilabeteko haurdun zegoela, kristauki hausnar daitekeenez, asto gainean, eta Jose eta neskamea, sokatik idi bat zutela, Belenera joateko, Zesarrek lurralde haiei jarri zien zerga ordaintzera [264],
- [112] Bigarrena irudipena da, tokia ikusirik; hemen izango da ikustea, irudimenez, Nazaretetik Belenerako bidea, aztertuz luzera, zabalera eta ea bidea ordokia den ala ibarretan eta aldapetan zeharkakoa; halaber jaiotzaren tokia edo koba begiratzuz, zein handi zen, zein txiki, zein makur, zein altu, eta nola zegoen apaindua.
- [113] Hirugarrena aurreko kontenplazioan izan zen berbera izango da, eta hura izan zen tankera berekoa.
- [114] Lehen puntua da, pertsonak, alegia, gure Andre Maria eta Jose eta neskamea eta Jesus haur jaioberria ikustea, ni gizagaixo eta mendeko ezerez bat eginik, haiei begira, haiek kontenplatu eta haien zerbitzari eginik beraien zereginetan, aurrean banengo bezala, ahalik eta begirunerik eta itzalik handienaz; eta gero neure baitara itzuli, onuraren bat ateratzeko.
- [115] Bigarrena: begiratu, erreparatu eta kontenplatu esaten dutena; eta neure baitara itzulirik, onuraren bat atera.
- [116] Hirugarrena: begiratu eta aztertu zer ari diren egiten, hala nola, ibiltzea eta lan egitea; guztia, Jauna premiarik handienez jaiotzeko; gero, hainbeste lan, gose, egarri, bero eta hotz, irain eta laidoren ondoren.gurutzean hiltzeko; eta hau guztia nigatik; gero, neure baitara itzulirik, espirituko etekinen bat atera.
- [117] Hizketatxo bat eginez amaitu, eta Gure Aita otoiztuz, aurreko kontenplazioan bezala.

